

EUSKERAZKO IDATZ-LANAK





# EUSKERAZKO IDAZ LANAK

\*\*\*\*\*

## AURKIBIDEA

### IDAZ LANAREN ZERRENDA

### ORRI-ALDEA

<i>Euskerazaintzaren LXXIko zenbakia.....</i>	<i>1 -120</i>
<i>Euskerazaintzaren LXXIIko zenbakia.....</i>	<i>121 -129</i>
<i>Euskeraren edestia.....</i>	<i>130 -135</i>
<i>Lurdes ta Paul'en esteguak I.....</i>	<i>136 -142</i>
<i>Lurdes ta Paul'en esteguak II.....</i>	<i>143 -147</i>
<i>Lurdes ta Paul'en esteguak III.....</i>	<i>148 -155</i>
<i>Zubikarai ta Bedialauneta'tar Augustin 100 urte gogoratzten...156</i>	<i>-161</i>
<i>Euskerazaintzaren erakundean.....</i>	<i>162 -164</i>
<i>Europako laterrien lapurkerizko arauak eta berezko erriak I...165</i>	<i>-180</i>
<i>Europako laterrien lapurkerizko arauak ta berezko erriak II...181</i>	<i>-196</i>
<i>Europako laterrien lapurkerizko arauak ta berezko erriak III..197</i>	<i>-213</i>
<i>Mallorkatik txangolari.....</i>	<i>214 -226</i>
<i>Euskera, gure artean berba egiteko ibil gaillu bat bakarrik</i>	
<i>ote da ?.....</i>	<i>227 -231</i>
<i>Gaurko demokrazia.....</i>	<i>232 -236</i>
<i>AGUR !! Arzelus ta Arrieta'tar Amale.....</i>	<i>237 -239</i>
<i>AGUR !! Zelaia ta Ibarra'tar Adrian.....</i>	<i>240 -243</i>
<i>Demokraziaren eziña.....</i>	<i>244 -249</i>
<i>Aberria edo ta Laterrien artean zein da legezkoa ?.....</i>	<i>250 -260</i>
<i>Euskerazaleen Alkartean 50'eko urte betetzeak.....</i>	<i>261 -267</i>
<i>Euskerazaleak Alkartearen 50'eko urte betetzeak.....</i>	<i>268 -272</i>
<i>Zubikarai ta Erkiaga'tar Beatriz.....</i>	<i>273 -275</i>
<i>Goñi ta Azurmendi'tar Karmele Andrea.....</i>	<i>276 -281</i>
<i>Euskerea'ren Nortasuna.....</i>	<i>282 -287</i>



*NIRE EUSKERAZKO IDAZ LANAK*

*SEIGARREN LIBURUA*

\*\*\*\*\*





Euskeraren erri akademia / Academia popular de la lengua vasca  
L. Academie populaire de la langue basque

# Euskerazaintza

LXXI Zenbakia • 2013. urtea-1

***Kristobal Kolon, Nafarroako  
IVn Karlos erregearen "Semea  
izan ote zan?"***



# Euskerazaintza

## **Gure irakurleari:**

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dute-  
nentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu  
zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta  
gure erantzuna au da: "Len",  
oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmo-  
rik, al degun artean naiago dogu irakurleen gogo  
ona kontuan artu eta emaitza emten digutenak  
"laguntzaille" taldera sartuko ditugula esaten da  
gendun.

**Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta  
gagoz, eta al dauanak gura geunke "urtero" 30  
euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure  
kontuen zanbakietan.**

**Gure kontuen zanbakiak onek dira:**

**BBVA: 0182-1296-00-0201538669**

**KUTXA: 2101-0200-46-0006681589**

**EUSKERAZAINTZA**

Euskeraren Erri-Akademia

Colón de Larreategi 14, 2<sup>a</sup> eskuma

48001 - BILBAO

e-mail: [aeuskerazaintza@gmail.com](mailto:aeuskerazaintza@gmail.com)

[www.euskerazaintza.org](http://www.euskerazaintza.org)

Z. N. A. / C. I. F. G 20/127. 759

Eusko Jaurlaritzaren Elkartean Erroldan, 1136 zenbakia.

Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena

(BOE 45/1981 eta EE. AA. 96/1984)

I.S.B.N. : 1132- 1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Diseinua eta inprimaketa: IBEGRAFIK

[www.ibegrafik.com](http://www.ibegrafik.com)

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura



# aurki-bidea

Atarikoa .....	7
Lortuak .....	9
Lortzekoak .....	10

## **Kristobal Kolon, Nafarroako IVn Karlos erregearen “Semea izan ote zan ?” .....**

1. ZATIA .....	11
Egillea´ren aurkezpena. ....	11
Oarra.....	11
Idaz lan onen aurkezpena. ....	12
Zergaitik.....	12
Bigarren baldintzari ebatuta: Legezko Araudia. ....	13
Sasikumetasunean jaiotakoaren aurkako legeak.....	15
2. ZATIAN. ....	17
Sarrera.....	17
Nafarroa´ko Erregetzan.....	17
IIIn Karlos “Txarra”: .....	17
IIIn Karlosek euki zituzten seme/alabak aukeratu ziran: .....	20
Eta legezko ezkontzatik kanpo. ....	20
Lizaso´tar Katalinagaz:.....	20
Ondorio labur bat lez. ....	21
IIIIn Karlos “Biotz Andikoa” .....	21
IIIIn Karlosek, Trastamaratar Leonorren ezkontza bidetik, seme/alaba oneik euki ebazan:.....	21
I Blanka, Nafarroako erregina. ....	24
I Blankaren bizi kondaira. ....	24
Euki zituzten seme/alabak, oneixek ziran: .....	25
Edestiaren aria osterara artuta. ....	26
I Blankaren bizitza Nafarroako erregina lez. ....	26

Aragoiko errege II In Juan "Guzurti-Aundia"ren bizi kondaira. ....	27
Nafartarren anai-arteko guda. ....	28
Aragoiko jaurkintza. ....	28
Oarrezko labur baten bidez, emen ikusten doguna. ....	30
Nafarroako I Blanka eta II In Juanek lenengo ezkontza bidez euki zituen seme/alabak, oneik izan ziran:.....	31
II In Juanek Gaztelako Enrikeztar Juanagaz bigarren ezkontza bidez euki zituen seme/alabak, oneik izan ziran: .....	31
Eta II In Juanek legezko ezkontzatik kanpo euki zituzten seme/alabak, oneik izan ziran: .....	31
Fernandez de Kordoba Ayala ta Enrikez'tar Juana. ....	32
Enrikeztar Juanaren zeregiñak erregiña lez. ....	32
Nafartarren Bianako Printzea IV n Karlos. ....	33
Eta emen oartxo bat lez esan bear dot.....	37
IV n Karlosek euki zituzten seme/alabak.....	37
II In Blanka Nafarroako Erregiña. ....	39
II In Blanka erregiñaren bizi kondaira laburra. ....	39
Foix'eko I Leonor Nafarroako Erregiña. ....	40
Leonor eta Foixeko Gazton Kondeak euki zituzten seme/alabak: .....	42
Oar txiki bat.....	43
Aragoiko II In Fernando katolikua. ....	43
Jaun aundi guzti oneintzat, zer ote ziran LEGEAK ?. ...	43
Gaztelako I Isabel erregiñ katolikua.....	45
Mallorka ugartearen asierazko edesti ta Kolonen alditan bizi ziran jendearen jakituri ta nortasunezko zeregiñaren aurkezpena. ....	47
Juduak, itsasoko mapagintzan Mallorkako ugartearen jakiten ebana. ....	49
<b>3. ZATIAN.</b> .....	51
Oar txiki bat.....	51
Nortzuk izan ziran Kolon'tar Juan eta Kolon'tar Margalida ?. ....	52
Aurkezpena. ....	52
Itxas-lasterkari ta Itxas-lapurrak. ....	54
Kolon'tar Kristobal'en bizitza.....	54



Oar txiki bat zati onetan.....	60
Edesti onen aria otera berrezkuratuta.....	60
Eta emen oar txiki bat.....	67
4. ZATIAN.....	67
Lenengo itsasaldia.....	67
Bigarren itsasaldia.....	75
Irugarren itsasaldia.....	79
Laugarren eta azkeneko itsasaldia.....	85
Kolonen azkeneko oñaze edo nekeak eta beren eriotzea.....	88
5. ZATIAN.....	90
Lan guzti onen ondorioa.....	90
Sarrera.....	90
Oar txiki bat emen.....	91
Gaurko menpekotasunezko joko zitalaren sorbide edo iturburua.....	91
Kolon´tar Kristobal, bere izaeraren jakin-eza.....	92
Euskalerruari begira.....	92
Zer egin?.....	93
Gazteari zer esan?.....	94
NIRE ALDETIK IBILI DODAN BIBLIOGRAFIA.....	95

**Gure irakurleari:**

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: "Len", oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmorik, al degun artean naia-go dogu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza emten digutenak "laguntzaille" taldera sartuko ditugula esaten da gendun.

**Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta gagoz, eta al dauanak gura geunke "urtero" 30 euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure kontuen zanbakietan.**

**Gure kontuen zanbakiak onek dira:**

**BBVA: 0182-1296-00-0201538669**

**KUTXA: 2101-0200-46-0006681589**



Etxe andi eder batean sartu aurretik txapela erantsi oi da, adeitasunez.

Beste orrenbeste egin beariko Atutxa´tar Paulok Kristobal Kolon gizon ospetsuari buruz egindako lan ederraren aurrean.

Aukera izango dau, irakurleak, dastatzeko ta gozatzeko idazlanaren mamia mamurtzen doan araberan. Bai ta bizibiderako jokabide onak, garbi ta jatorrak ikusi al izango dauz.

Izan be biziteko ta ibilteko ziurtasunez, ondo baño obeto datoz eredu geinkezan gizaki ospetsuak.

Orretariko bat dogu Kristobal deritxona, Indietako lurraldeak aurkitu ebazanak.

Gogora jatort noz edo noz entzundakoa: munduan bizi diranak, arlo bitan dagozala banatuak, gidarituenean eta gidarienean.

Esatea lez, artaldeko baten antzera: ardiak ta artzainak. Gidatutako ardiak, asko.

Artzain gidariak gitxitxu.

Alde andie ikusten da ardien jokabidean eta artzainenean. Apaltasuna, menpetasuna, geienbat ardienean; agintaritza artzainenean ta gogortasunez jantzita, uste baño geiagotan.

Gidariei emoten jakiez izen aparteko batzuk: naugusi, jaube, usaba. Eta euren eginbearretan okertu ezkeroz, orra or dei berarizkoak: jauntxuak, zapaltzailleak, ankerrak, kaizerrak.

Nondik sortu ote jakie olango izate modu edo jokabide ustela? Euren Sortzaille edo Egillearen eskutik ote?

Bai zera !

## **SORTZAILLEAK, GAUZA GUZTIEN EGILLEAK, ON UTSA DANEZ, EZIN DAU IÑOLAKO UTSIK EGIN.**

-Sorkariengan, gure kasuan artzaiengan, gidariengan, datza utsegitea, jokaerea nastutea, oben egitea. Norkeria, arrokeria, diruzalekeria. Orreitan ikusten dogu ur loituen iturria. Emon daigun, emon bearrez, Jaungoikoa, Jesukristoren bizitzaz sortu ebalu ELIZAKO ELKARTEA.

Beti be gizadiaren onerako, aukera osoan oñarrituaz, indarrez lotu barik. Ortik arazoak, gatazkak, illuntasunak, ta gogorkeriak...

Gizakiak, sorkariak, tente, danen gañetik agertu nai izan ebalako bere burua.

Baita SORZAILLE berberaren gañetik be.

Olantxe jokatu eben Luziferrek, Ada eta Ebak, Kainek, Itun Zarreko zenbait errege ta jauntxuak.

Itun Barrian be, Sortzaille Seme Jainkoari erazo ebenak, andikeriz, jauntxokeriz, ankerkeriz bete beterik egozan.

Ez da zuzena ELIZA gizarteko trikimalluen errudun egitea. Gizakiak dira, mingarria ba da be, Elizak daukazan alde onak, jabetuz edo ez jabetuz, zelanbaitean lapurtu ta ondatu gurea. Alantxe Konzilioak, Inkizizioak, Imperio Sakroak, Kruzadak.... norkeri ta andikeriz beterik.

E

Betoz ba, ordu onean, lurrean bizi diranentzako egizale, zintzo, jator, maitez beteriko eredu diran gizakiak. Onetariko gizaki eredu bat, eta ez makala, artu geinke Kistobak Kolon deritxonagan. Eta onexeri daragoio Paulo Atutxa idazle jaio eta aspergaitzak, jatorriak ta eginkizunak edestuz, batez be Indiako Mundu Barriaren aurkitzalle aldiko une apartekoan.

Onako atal edo zatitan, azalduten dauz, Paulok, gizatzar orren bizitza ta gora berak.

## ATALBURUA (ZATIA).

Berd eta Martorrell´tar Gabirelek egindako liburuan, Koloneri buruz dakarrena, azalduten da lenengo atalburuan.

## II-ATALBURUA (ZATIA).

Nafarroako erregeen bizitza ta gorabera batzuen barri emoten dira, batez be Kristobal Kolonegaz zer ikusia daukien aldetik.

## III-ATALBURUA (ZATIA).

Kristóbal Kolonen jatorri ta jaiotza, ez ezik bai ta nondik norako bideak eta prestakuntza, artu ebazan urrengo urtetarako.

## IV- ATALBURU (ZATIA).

Mundu Barria aurkituteko egin ebazan lau itsasaldiak.

Azkeneko oñaze ta K. Colonen eriotza.

## V-ATALBURU (ZATIA).

Ondorio edo ikasbideak Euskalerritari ta euskal gaztediari begiratzuz.

## VI-BIBLIOGRAFIA.

Atutxa Jaunak, bere idazlanaren oñarritzat euki dauan Bibliografia aurkeztuten dau.

Esan bear ugaria ta fidagarria dala.

Liburu egillen moltzo eder bat atondu dau, polito atondu be, Kristobal Kolonen bizitza osatuz.

Idazlanaren azken aldean ikusi leikez. Liburu orrein Izen ta Egilleen izenak ta zeaztasunak.

### **Gure irakurleari:**

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adiskideentzat jarritako oar bar agertu zan, arpidedunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago degu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza ematen digutenak "laguntzalle" taldera sartuko ditugu.

### **Gure kontuen zenbakiak onek dira:**

**BBVA 0182-1296-00-0201538669**

**KUTXA 2101-0200-46-0006681589**



# LORTUAK

- 1- EUSKERAZALEAK eta EUSKERAZAINTZA, elkarte bi, egiteko bardintsuagaz, aurrera eroan doguz
- 2- Illeroko billera egin dogu Alkarte bakoitzari jagokon eran.
- 3- Billera oneik EUSKERAZALEAK alkar-tearen egoitzan, C. de Larreategi, 4-2 an, osotu dira, illeroko irugarren ostegunez, arratsaldeko bostetan.
- 4- Billerak otoitz egíñez asi oi dira.
- 5- Batzarkide bakoitzari aukera emoten jako, gaia aurkezteko. Idazkariak, Paulo Atutxak, aurreko billeraren akta ta eguneko egitekoa agertzen ditu. Diru zaiak, Karmelek, txindi egoera azaltzen dau. Irarkola lanaren barria Iñaki Egurrolak emoten dau.
- 6-Batzarburu ta maikide taldekoak: Barroetatar Klaudio (Lendakari), Arzelustar Amale, Atutxatar Paulo, Fernandez Karmele, Egurrolatar Iñaki...
- 7-Urtero bezela. EUSKAL ASTEA ospatu zan.  
Izlariak: ANGEL LARREA. Gaia: Mitoak.  
ATUTXATAR PAULO. Gaia: Kristobal Colon, I  
ANGEL LARREA. Gaia: Sorgiñak Bizkaian.  
BARROETATAR KLAUDIO. Gaia: Sagardo botilla.  
ATUTXATAR PAULO. Gaia: Kristobal Colon, II
- 8- IPUIN SARITUAK: Jose Maria Murua, Palmi Merino, Asier Legarreta, Aurora Lopez, Alfonso Ezkurdia.
- 9- Urtero lez 2.013 TAKOA osatu da 10.000 milla aletan eta Durangoko Azokan banatu da geiena.
- 10- INTERNET'en www EUSKERAZALEAK alkar-tearen izenean onetiko liburu ta egi-leak ikusi leikez: Onaindia, Zubikarai, Umandi, Akesolo, Olazar, Latiegi, Solozabal.
- 11- Urteroko Egutegi-Takoa ta ZER aldizkaren 1-389 zenbakiak agertzen dira.
- 12- ZER aldizkariaren 1.000 ieki banatzen dira illero.
- 13- Orren bisitariak 300.000 izan ei dira.
- 14- EUSKERAZAINTZA alkar-tearen izenean onetariko liburu ta egilleak irakurri leikez: Kardaberaz Bilduma, Arrinda (Anes), Sebastian Zubillaga tar Jose Mari (Latxaga).
- 15- 1.000 ieki banatzen dira sei illabetero.
- 16- Zenbakitutako ikusle edo bisitariak 50.000 izan ei dira.
- 17- EGOITZAREN BARRIKUNTZA. Lan andi-zabala, etxe guztiaren egiturari jagokona.
- 18- LABAYRU IKASTEGIKOakin Euskerazaleak Alkarteko Egoitzaren erabilgarritasuna legeztatuz.
- 19- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA gandik artutako laguntza eskertzen dogu.
- 20- ANA URIARTE batzarkidearen eriotza: 2.012-Urtarrillak 15. (G.B.)  
Euskerazaleak taldeko batzarkidea, euskaldun petoa, jakituna, baiezkorra ta aparteko emakume laguntzallea.  
Zornotzako bere erriko Parrokian ospatutako eguneko illetan eta, urtegarrenekoan, ildako familikoekin bat egin eben Euskerazaleak alkarteko batzarkideek.  
Aipatzekoak dira Anari buruz DEIAN agertu zan idazlantxua ta Atutxatar Paulok ZER aldizkarian atara eban berarizko samin-idazlana. Agur, Ana, egun andira arte. (G.B.)

# LORTZEKOAK

1. Billerak egiten jarraitzea.
2. ZER aldizkaria aurrera eroatea.
3. Labairu gaz artu emonak eukitea.
4. Internetean alik eta ondoen gaurkotutea.
5. ANTON LANDAJUELAREN idazlan guztiak argitzea.

*(Kristobal Colonen omenez)*

Euskalerria dogu  
ur-ontzi itzela,  
olatu andi artean  
larri dabilela.

Aupa, ba, kapitaina!  
aupa, mariñela!  
danok espero dogu  
zuen egiñala,  
ta bakezko portuan,  
sartuko garala.

**Barroeta'tar K.**  
*(Bil-2013.I. 30)*



## Kristobal Kolon, Nafarroako IVn Karlos erregearen “Semea izan ote zan?”

# 1. ZATIA

### Egillea' ren aurkezpena.

Liburu onen egillea, Berd eta Mortorell'tar Gabriel da, eta nik bere bizitzari buruz dakidanaren aurkezpena auxe da:

1.955'eko urtean Balears ugarteko-lurraldeetan Mallorca'ko Montuiri errian jaio zala.

Eta txangolaritzaren antolaketatik lortzen ebaia beren bizitzazko ogi-bidea.

Berd baiña, ez da edozelako gizona, bere ogibidearen lanez gairi, bere erriko edestian illunetan geratzen ziran ezaukizunak<sup>(1)</sup> argitzen, andiak izan diralako emankortasunezko 10 urte luze alditan emon dauzanak, ikerketaren bidez.

“CRISTOBAL COLON, ERA NOBLEY DE SANGRE REAL” da bere lan aundi au, 1.989'ko urtean argitaratu ebana lenengo irarkaldian, eta 1.992'ko Epaillan bigarrena.

Berak erabili bear ebazan liburuaren kopurua edo bibliografia, bere orrialdeko zerrendan etorriko da, konturatu gaitzen, ibili bear izan eben denbora bear izan ebela, lan andia izan dalako berak ikertzaille lez azterkatu egin dauana, erandoki edo mosaiku<sup>(2)</sup> ori osatzen dabezan arrazoizko zati orreik<sup>(3)</sup> bere tokietan ipinteko.

Zetan ezanik bez, Euskalerrriak zor aundiak daukazala Gabriel'ekin, bere erriaren edestia argituz gain, gure erriaren edestiko antzezlari nagusien ostonduta egon diran bizitzak be, argira agertu dabezalako.

### Oarra.

Lan onen asmoa, ez da Berd ta Martorell'tar Gabriel'ek ikaragarrizko ikertzail lan bidetik idatzi dauan “Cristobal Colon era Noble y de sangre real” liburu berbera ataratea.

Ez.

Nire asmoa Euskal edestiari buruz alango lan bikaiñaren aurrean, Euskalerrrian ezagutzea da, euskaldunak gero ta geiago arduratu gaitzen gure etxeko gauzakaz eta konturatu beñi eta betiko, gure arbasoen bidetik oiñarri lez, sustraituta gagozela daukagun berezitasunaren nortasunezko izaeran.

Zor aundiak daukaguz JAUNGOIKO eta gure ARBASOEKIN, euskal baitaren ekandu eta orokorrean erri lez, jendekuntzazko itxura eder onen oiñarrietan erperatuta agertzen garelako, eta berezitasundutako mundu onetan gure txandako bizitzan zorrez-

(1) Ezaukizunak = ezaun-bearrezkoak. (2) Erandoki edo mosaiku = mosaiko. (3) Arrazoizko zati orreik = razones con las que completar el jerogüifiko, o, mosaiko racional de esta historia.



kubidetatik sortzen jakuzan antolazko zeregiñak, euren eta beti izan bear dan ekanduzko demokraziaren lege ederrean ordezkatu bear doguzela, danok Jaungoikoaren lege zarrak aginduten daben lez, askatasunezko demokrazi zabal ta baketsu baten bizi gaitezaz.

Gure Euskalerrri maite onek bere ekanduzko izaeran, askatasunezko demokraziaren nortasunezkoa izatearren, ainbat etsai fazizta daukoz, Jainkoak bereztutako gai oneri ezarri eutsozan legeari jaramon egin barik, eurak euren asmotan indarrez ezartzen dabezan batzango legeetan gure dabelako gu bizitzea.

Ezinezkoa da baiña, ekintzazko asmo ori, Jaungoikoak Gai-Ludi<sup>(1)</sup> oneri bereztu eutsozan lege guztien aurkakoa dalako.

Orregaitik gaitzesgarri eta nazkagarriak egiten jakuz, maltzurrezko guzurti orrein ainbeste kaizarkeriaren batzangotasunezko alegiñak, asperbidezkoak<sup>(2)</sup> izan da, aspergarriak<sup>(3)</sup> be ba-diralako.

Fazitentzat ez alderantziz, bizitz onen ordezkartzazko gai-tresneri guztiak euren esku artean eukiten alegintzen diralako, gero indarrezko ekintzaren elburuakin ibilteko asmoan.

Arrigarria da baiña, euren bizitzaren il osteko itxaropenari, iñundik iñora begitu barik egiten dabezala, egiten dabezan gauza guztiak.

Egalper edo ostruka-ren buru ostonduarrena egiten ote dabe, asmatu daben diruzko sasi-jaun estalkiagaz ?.

Ba ote dago JAUNGOIKORIK eurentzat ?.

Eurentzat nire ustez, diruzko irudimemenean urrezko-tzekorragaz, lillura<sup>(4)</sup> edo ta atsegintasunaren distiadurazko bidetik<sup>(5)</sup>, erakarpenezko zirikada aundiak daukiezala, beren menpetasunaren zoraldizko eragipenetik ain errez urteteko.

Orregaitik nire ezkeron aundienak Berd eta Martorell'tar Gabriel'eri, bere lan aundi onegaz, politika maillan ostondu gure izan daben gauza bateri, gauza izan dalako euki dauan mozorrotasunezko estalkia kendu ta argitara zabaldu, berezko arrazoi bidez gertatu zirenak argitasun ederrenean ikusi daiguzan.

## Idaz lan onen aurkezpena.

Lan onen esangura andienak nire aldetik, Mallorkako Berd eta Martorell'tar Gabriel'ek idatzi dauan CRISTOBAL COLON ERA NOBLE Y DE SANGRE REAL'eko liburutik artutakoak izango dira.

Berak, liburuaren aurkezpenean esaten dauan lez: "La màs documentada y sòlida refutación que de la tan interesada "Tesis Genovesa", se haya presentado jamàs".

Eta nire aldetik erabilitako billakuntzazko liburuak, aurkibideko zerrendan etorriko dira.

## Zergaitik.

Beren bibliografian esaten dauan lez, edo ta liburu askotatik iker lanean, galdeketa asko

egin ondoren, nire ustez argitasun aundienak emon dautsazelako Kolonen leiñu eta beren izatezko nortasunari.

A ta gusti, liburu onen esangurak ulertzeko, XV-XVI In gizaldiaren denborako bizitzan kokatu bear dira, emen esaten dodazanak orduko denborakuak izanez gain, bereztasunaren zentzuzko arrazoian argi ta egi urbillenean kokatu gaitezaz, benetan jakiteko zelan zain-tzen ziran giza eskubideak orduko denboretan.

(1) Gai-Ludi au = este universo material-naturalizado. (2) Asperbidezkoa = vindicativo, defensivo. (3) Aspergarria = fastidioso, gravoso, importuno, pesado, molesto, vengable. (4) Lillura = delirio, vèrtigo, mareo, babido, desmayo. (5) Distiadura = fulgor, brillo, resplendor, esplendor.





E



Zelan bizi ziran orduko errege, eleiztar, andiki ta erritarrak, bizitzarako eukezan legezko baldintzakin, eta zelango legeak izan ziran areik ?.

## Bigarren baldintzari ebatuta: Legezko Araudia.

Paleolitiko-Neolitiko aldian lortuta, demokraziaren zentzuzko lege andi baten ezarrita etorten zan mundu onen errigizartetasuna, ekialdetik Sargonidakaz, goitik berako kaizar menpeko agintaritzaren baten ipini gurean asi ziran arte.

K.a. 490eko urtean Maratonen medikaseko borrokarekin Grezitarrak, persiarrak Europa para ekarri ebezan menperatzailezko asmoak geratu ebazan.

Arno ta Tiber ibai bitartean baiña, K.a. 753 ´tik, Etruskoak kokatuta egon ziran lekuan, euren salerosteko mozkiñak merkantilerien zabaltasunezko lurretan kokatu ta eurak ondo apaindutako kirkillerietan bizi ta sortzen ebezan Uriak lapurretatik babesteko:

-Espartar antzeko gudalozteak Latin izkuntzagaz sortu ondoren, naita Etruskoen go-goak menperatzailetasunezkoak ez izan arren, eta sortu eben gudaloztearenak be bardiñ, laster okertu ziran goitik berako agintaritzara eta Europa, Afrika ta Ekialdeko erri geienak menperatu ebezan, K.o. 409´ko urtean Mendebaleko kaizartza ezereztu zan arte.

Blaustada ori sortu orduko baiña, I Konstatinok jakinda, euren asmo indarretan berantza joan zirela, I Silbestre Aita Santuagaz alkatuta K.o. 325ko urtean Nizean Eleiz Batzar Nagusia ospatu eben, ta Kristautasuna Katolikosunezko eritzian alderdikidetu ondoren, ortik aurrera emoten jako indarra zoritxarrez kaizartzazko agintaritzari ostera, gure gizarteko eskubideen antolakuntza, menperatzailetasunezko fazizta indarpean iraun egian.

Orregaitik IVn gizalditik aurrera, Jesuse ´k Bere aolkularitzazko bidetik ta Berezko legetik sortzen eban Kristau eritzizko zentzu ta izatasunak, eleiztar agintaritzaren ardurazko aldetik bigarren maillara baztatu ondoren, katolikotasunaren erromatar ziñezkintza ipini eben orduko Europa ta muduaren legezko ardatz nagusi lez, berak eukezan menpeko estutasun eta zigorrezko lege inguruan danak jantzan ibili bear izan da.

Afrika, Ekialdea eta Europako giro bizitzak ez ziralako bardiñak izan, eta mendeko lege bardin bat danentzat ez zalako egokiena, menperatzailezko eritzi orrek laster euki eban, bear eben erantzuna eta Islan ´dar erlijioa mauritarak sortu eben.

VIIIn gizaldiko asieran moroak Erdi-Ugarte <sup>(1)</sup> onetara etorri ziranetik ta IX-Xn gizaldiko epean bertan ezarri, bertoko errigizarteak, paregabeko aukera baten aurkitu ziran, danak euren antola egokienak eginda, bereztasunezko zentzu egokitasunean ezarri zitezten.

Euskalerriko antolamenduak baiña errege jaunakin itzarmenezko ongunde demokratikoak euki arren, Leon ´goak Pelayoren bitartez (?), godoak euki eben erromatar menperatzaile ta fazizta ´tar kaizertzan ezarrita geratu ziran.

Eta Europa guztian gertatu zan lez, bata askatasunaren demokrazizkoa zalako, ta beste askatasunaren nortasunezko eritzi orreik galduta euki zituzelako, biak katolikotasunaren batzangotasunezko asmakuntz orren aolkularitzapean geratu ziran lotuta, eta bide orretatik erri guztiak mendeko premiñara <sup>(2)</sup> bideratuz, gaur daukaguzan laterriakaz aurrera joanda, merkantilismo ta diru serbitzu edo morroiketara sortzen jakun lez.

Europa eta munduko gizarteetan ortik aurrera, faziztaren indar aundi orreik erlijioakaz nastuta, eta danon dirua zaletasunezko guda-grifnean bortxatzeko leku egokienetan ezarrita, maltzur ta guzurrezko bizi ekintza baten gaiñean ezarrita gagoz urten ezinik.

Europa ta peninsula onetako bizia, egia ta guzurraren aolkularitzazko naste orreitan, odoljariozko borroka baten etorten zala, XIIn gizaldian sortu ziran Gaztela eta Aragoiko

(1) Erdi-Ugarte = peninsula. (2) Premiñakin = necesidad, obligaciòn, fuerza, precisiòn.



erregetzak, IIIIn Santxo Garzez Aundiak Nafarroako erregetzari lotuta egon ziran lur oiek, banandu ebazalako bere semeen artean.

Gero, XIV-XVn gizaldietan Aragoiko erreñuari, Kataluña, Balentzia eta Baleareseko ugarteak egokitu jakozan.

- Aragoiko IIIn eta Gaztelako Vn Fernando 1.516an il zanetik, Gaztela, Leon, Asturias, Galizia, eta moruei kendu eutsezan ego aldeko lur guztiak, ondorioz Alemania 'ko Vn eta Gaztelako I Karlos 'en eskuetara joan ba ziran be.

-Euskalerriko lurraldeetan, nai Nafarroako erregetza Gaztelatarren edo ta Aragoien<sup>(1)</sup> guda-legeagaz menperatuta egon, Gipuzkoa ta Arabako lurraldeak ongunez Gaztelatarrenkin, eta askatasunezko legean bizi zan Bizkaiko Jauntzagaz batera, laurak euskal nortasunaren barneko oituran euki ebazan askatasunezko Eleiz Aurreko Batzar jabetzapean bizi ziran.

Errigizartearen izaerazko oitura demokratiko lez, Euskalerrian itzarmen bidez aukeratzen ziran antolatzailezko agintariak, euskal batzarpeko errege-jaun demokratikoak euki ebazan, eta Aragoi ta Gaztelako erreñuak sortuta, Asturias ta Leongo erromatar erreñu katolikoak euki ebazan goitik berako kaizar agintaritzan ezarri ziran lez, Euskal-Baitaren oiturazko-demokrazitik kanpo geratu ziran.

Eta Europako errietan ekintza orren bidez, Mendebal eta Ekialdeko erregetza guztiak, bai ta Euskalerrian egon ziran errege-jauntzak, katolikotasunaren ziñezkintzapean guztiz lotuta eta errege-erregiñ guztiak senidetuta agertu ziran.

Orduko erregearen garrantzidunak ziran epaiketazko zeregiñak edo ta antolamenduzko ardurak, katolikotasunaren eritzizko legepean betetea zan.

-XV-XVIIn gizaldietara eldu giñanean baiña, eta agertu ziran aurrerakuntzakaz, erregeak, euren orokorrezko agintaritza lortu gurean asi ziran, eta lenagotik lapurketan egiteko euki ebezan maltzurrezko trikimailluak sendotuz, ekanduaren maldaberazko guzur bideak ezin besterarte zabalduz ebezan.

**Argi ikusten da emen, Jesus'en berezko aolkularitzatik kanpo, giza bidea katoliko batzangotu egin gura ebenetik, sekula ez dala aurkitu zentzunezko egokitasunik.**

Adibidez: 1.238-40'ko urteetan Nafarroako errege I Teobaldo Lur Santuetan egin eban Gurutzada Santuaren ostean, 1.246'ko urtean, eztabaida oso gogorak euki ebazan euskal Foru-Jabetasunaren gora beran Ximenez ta Gazolaz'tar Pedro gotzaiñarekin, gotzaiñ onek Nafartarren erregetza, zalantzan ipinten ebalako.

-Bai ariñagoko Aita Santuak be, VIIn eta VIIIn Santxotarra, eskutizetan oiturazko "REX" idatzi barik, "DUX" izenakaz idazten eutsielako, euren katolikotasunaren aolkularitzazko agintari nagusiko maillatik euki ebezan asmoak, mundu onen errigizarte guztiak, erromatar batzango-mende zentzuan egokitzea zalako, eta Euskalerrian Jainkoari begira bere baitazko zentzuan lortu ebazan askatasunaren demokrazizko izatasun sendoakaz okeregin edo ta etsai amorratu lez artuta, euskal askatasunezko demokrazi ori ezereztuten ibili dira beti.


-Aita Santuak baiña, erromatar guzur andi ori lar-agirian geratuko zala ta, I Teobaldok Gurutzada Santuetan egin ebenagaz kontuan artuta, lege berezi bat agertu eban: "Bere baimenik bage, iñork ezin ebalta I Teobaldo eleizatik kanporatu", esaten ebana.

-Guzti au dator, Europaren katolikotasunezko legean, errege baten bat exkomunikatu edo ta eleizatik kanporatu ezker, edozein printze edo ta errege egon zala baimenduta, errege aiek bota eta eurak ezartzeko erregetzazko jaur-alki orreitan.

-Geroagoko erregeak, lege orreik erinduten<sup>(2)</sup> joan ziranak, Aragoiko IIIn Juan Nafarroako erreñuan egin ebezanak edo ta bere seme IIIn Fernando katolikuak beren eskontza-

(1) Nafarroa norentzat menperatu eban, Aragoiko IIIn Fernando katolikuak ?. (2) Erinduten = refinando.

Fiskerazaintza



rako, bai eta Nafarroako erregeak ezkomunikatzeko alegiñean euren erregetatik kanpora botateko, buldak eskerniatu edo ta ñabartu <sup>(1)</sup> egin ebazan antzera egiteko, eta abar.

**Beste ikus leku batetik begituta**, artu degun Manzanotar Maisuak "Kristobal Kolon" idatzitako liburuan esaten dauana: Kolon'ek itxaso zabaletara urtetea lortzeko, bere bizitzan euki ebazan garrantzizko zazpi urteen gora berak (1.485-1.492) ikertuz:

## Sasikumetasunean jaiotakoaren aurkako legeak.

Aurrerago ikusiko dogun lez, Kolon, erregearen semea zan, eta ama nai aberatsa izan arren, erri koskor edo mailla txikikoa izan zan lez, ortik agertu ote jakozan, bere bizitzazko lan aundi guztien onartzeko arazoak ?.

Eta orren aldi bat beintzat jakiteko, orduko kaizar legearen baldintzak ezagutuko doguz:

-Gaztelatar Alfonsotarren erregezko legeak, zeatz eta garbitasun guztiagaz debekatzen dabe, andre edo ta emakume txipiki, xume <sup>(2)</sup>, edo ta oakaideakaz <sup>(3)</sup>, errege, printze, duke, konde, andiki eta abarrekin ezkontzea, gizarteko maillan eurak edo gurasoak azpikoak izan da "ez zalako egokiena edo bear bezelakoa" orren goi maillako odolak, emakume xumearen odolagaz nastatu edo ongaizkatzea.

-Eta jakin degun kaizarkerizko lege orreik noraiño debekatuten ebazan ezkontza orreik: "Andiki ta erriko alaba bitarte orreitaitik sortzen ziran seme-alabak, andiki aiek debekatuta eukiten ebela jaioten ziranak, euren seme lez onartzen", eta arrotzezko-etsaikeri <sup>(4)</sup> bidetik euren gurasoen ondorengo guztiai debekatuta be, umearen aziera edo ta azkuntza, jaio berri ori, erri-ume <sup>(5)</sup> biurtuta.

Errege guztiak baiña, sasiko seme-alaba ugari eukiten ebezan (*ta emen itauna*): "zer-gaitik babesten ebazan guztiak, eleiz ta gobernuaren agintaritzazko leku berezietan kokatuta ?". Orduan, zer edo ta zelangoak izan ziran lege orreik eurentzat ?.

-Eta emendik agertzen dira Kolonen senditasunezko izatearen izkutuzko illuntasunak, zati baten beintzat, bera IVn Karlos Nafar erregearen ta Mallorkako Kolon'tar Margaritaren semea izanda eta bere aita IVn Karlos'en senidetasun bidetik, I Isabel erregeiña eta IIIn Fernando erregearen berezko loba edo illoba izan zalako.

Edestilariak orregaitik, I Isabel, IIIn Fernando katolikoa ta Kolonen artean egoan izkutuko ongune bidetik, Kolonen jaiotasunezko izatea agertzen zanean, Korapillozko itaun mordo bategaz aurkitzen ziran aurrez aurre, edestilari batzuk euren Genobako erriaren edo euren irabazkoitasun alde begira, edozer gauza ipinten ebazalako, Berd ta Martorell'tar Gabriel'ek aztertzaile lez, aztarka asi arte.

-Nungoa ote zan Kolon: Jenoba, edo Mallorkakoa ?.

-Noren semea: Genobako Kolontarrena, edo Mallorkako Kolontar Margarita ta Nafartar IVn Karlos erregearen semea ?.

-Ala, Kolonen jaiotzazko senidetasuna, Gaztelako I Isabel ta IIIn Fernando katolikoagaz ziñezpeko baldintzakin, goian aipatu doguzan kaizar debekatzeko legeakaz, iñork jakin ez egien nongoa ta zer izan zan, itzarmenduta egongo ote zan ?.

Edo Kolon, Nafartar IVn Karlos erregearen semea izan da, Isabel ta Fernando erregearen leen maillako senidea zalako: Fernando, Kolon, I Isabel, eta beren aolkularitzazko aitorlaria zan Ernando de Talaberatar Lekaidea, Abilako gotzaiña, Salamankako batzarretan nagusi, Kolonek euki eban asmoaren aztertzaile nagusia, ta erregeakaz aolkulari ta artekari zana gaz batera, danon arteko egiunezko "Aitor-ixilpe" <sup>(6)</sup> bat eukingo ote eben ?

(1) *Eskerniatu edo ta ñabartu = falsificar las bulas de Papa.* (2) *Emakume txipiki edo xumeakaz = mujeres plebeyas.* (3) *Oaide, mulastin edo oe-lagun = barragana.* (4) *Arrotz-etsaikeri bidetik = a través de posiciones xenofobicas.* (5) *Erri-ume = inclusero, o, bastardo.* (6) *Aitor-ixilpea = secreto sacramental.*



Orregaitik kontuan artu bear dogu, Aragoi eta Fernandok ez ebela euki ezer ikusterik arazo onetan, Eleiza, Gaztela-Leon eta I Isabel ziralako asmo onen yagole edo zaintzaleak.

Orduko denboraren erregeen agindu naiak, feudo edo ta maiztergoko jaunaren lege bereziak ezereztu egiten ebazalako, nai legeilletasunean, epai-legetan eta egilletasuneko arlo guztietan.

Kolon, orduko denboretan ez zan iñungo legearen bereizkuntza edo salbuespen bat.

Orregaitik, 1.491ko urtean errege katolikuak, ararte Granada inguratzeko euki eben kanpaldian eraiki eben Santa Fe'ko Uria, ta bertan ziñatu ziran Granadaren menpekotasuna, eta Kolonek egingo ebazan bidaiaren elkargoak.

Orrez gafiñ, Santa Fe'ko zeregiñaren zentzuzko asmoetan zeozer geiago eukiten ba eben: "berton erabagi zala, erdi-ugarte edo peninsula onetan euren katolikoatasuneko espainiar asmoaren batzangotasuna lortuarate ez ebela atzekadarik egingo, bai-ta erregeak eurak ostondu bear ebezan gauzakaz, itzarmen, azpiraketak, kidetasun ta gaizkideko ixiltasunak erosten ebazanak, Kolonegaz sortu zan bezela, eta euren baitak bakeztu naian, begirune andikoak izaten ziralako sasikume orrein odolakin, batera erregearen odolak be ziralako.

Ni ziur nago, Isabel eta Fernandok aurreko edestiari begira, ez ebela euki euren gogotan alango batzango barnetasunik <sup>(1)</sup>, gaur Europa guztian bananduta menperatzailetasuneko laterri auk leporatuta daukagunak euki dagiguzan.

Leen, sakontasuneko ikas-bide orreik ikasteko, eurak ez ebelako denborarik euki, eta argi ikusten dogulako Fernando ta I Isabel'ek zer egiten ebezan lege orreikaz. Eta bigarren, edestiari begira alango batzangotasunaren asmakuntza urrunean ikusteko, beronek bear dauan antolakuntza lortzeko, berentzat goi maillako billakarien jakitun elkarte aundi bat bear ebalako.

Orregaitik orduko denboratan Europako erregeak nundik nora ikusiko eben errigizarte ta aberriko gauzatan aif urrunera, aurrean euken itsaso ta lurak be, ez ba ebezan ezagutzen.

Europa, Asia Ta Afrikako errege-erregiñaren gafiñetik, beste erakunde gogor bat egon bear zan, eurai panpiñak lez erabilten ebazanak.

Nun aurkitu, menpeko batzangotasunaren asmatzaille orrei ?.

325eko urtean Nizeako Eleiz-Batzar Nagusia egin zanetik dator katoliko asmakizun ori, eta bertan dira betidanik jakitun orreik, munduan dagon goi maillazko ikastetxe nagusi orren elkarte orretan egon diralako beti, mundu onen Mendebal, Egoalde eta ekialdeko aolkulari nagusi lez.

Bai eta gauza orrein argibide aundiena dana, Zisneros kardinalarekin daukagu, bera izan zalako Nafar erregetza gaztelar erregetzaren menpean edo etsaimendeko lez ezarri ebena, naita katolikuaren azpiko joko ori izkutatzeko, I Isabel, In Fernando katolikuak edo ta I Karlos'en izenak erabili.

Espainiar laterritasunaren arrazoiak izan zirela asmakuntza oiek ?.

Ez, mundu osoaren batzangotasuna lortzeko alegiñean ibili ziralako.

Eta eten barik ta odoljariozko ixurketa baten etorri dira edestitik zear, berezkotasunaren aurkako batzangotasun orreik lortu ezinik, Jainko legearen aurkakoak diralako.

Baifia, Mundu osoaren batzangotasuna lortu ezinik ibilita, laterri andietako lurraldeetan errigizarte ezberdiñak batzeko, 1.789an Frantziko giza iraultzatu eben.

(1) *Barnetasunik = profundidad, interioridad de conocimientos futuros*

Eta iraultza orren ondorioz, guda nagusiak gudaletzearen indarkeriz agertu ba-ebazan espainiar laterrizko batzangotasunaren menpeko lege orreik eta ainbeste borrokakin ezarri ezinean ibilita, geroago, Baamonde ta Frankotar Frantzizkok, Aleman eta Italiaren guda laguntzagaz indarrean menperatu eban.

Eta argi geratzen da nortzuk ekarten eben batzango mende asmo orreik, lege orreik ez ziralako agertu errege katolikuarekin "1.512'ko" legeetan.

*1.810/1.812 eta 1.936'ko urteetan baizik*, eta ekarri eben "Nacional Catolicismo Dogmàtico y Sagrado" ori, danok dakigu noztik datorren, eta nundik ta noren maltzurrezko asmakizunetik geratu diran agirian, IVn gizalditik batzangotasunaren ari ori eten barik, maltzurrezko indarrakin berriztuten datorrelako gure gaurko egunerarte.

Nori esan bear jako baiña, batzangozko gauza orreik Jaungoikuaren Legeen bitarteko azturan izan bear dirala, "bereztasunaren ekanduzko legean lortu ezik", ez dagolako beste biderik munduko errigizarte guztian, bakez ulermen orreitara eldu gindezen ?.

Gaiñera, batera ezin diralako gurtu zeruaren goiko Jaungoikoa ta asmatzen doguzan gaiezko sasi-jainkoak.

## 2. ZATIAN.

### Sarrera.

Kolon'tar Kristobal orduko denboran eta bere jaiotzazko senidetasunean kokatu gura ezker, bere senidetasuna ingurutzen eben Andere ta Jaun aundiak aurkeztu bear dituguz.

Eta orretarako, Kolon bera ta Mallorkan bizi ziranakaz batera, orduko Euskal Nafartar, Aragoi ta Gaztelaren erregeak, baita Jenoban bizi ziran beste Kolon leifu batzuk, Kolonek lortutako ospearen bila ibilita, eurak be badaukielako naastutako antzerki onetan euren antzezlaritza, guzti oneik kontuan artuta arrazoizko egi inguruan ezarri bear doguz, Kolontar Kristobalen nortasunezko izaera orko ingurutik, bere argi guztiagaz bakantzea gura ba-dogu.

### Nafarroa'ko Erregetzan.

Nafarroako erregetzaren izatasuna beren barnetik azaltzeko, IIIn Karlos "Txarra" zana esaten eutsenetik asiko gara.

### IIIn Karlos "Txarra":

Nafarroaren Ebreauxeko IIIIn Felipe erregea ta IIIn Juana, Frantziko Xn Luis "Buru Gogor" esaten eutsien erregearen alaba izan zanaren semea zan, eta euren izatasunezko bidetik, Nafarroako erregearen seme ta Frantziko erregearen billoba.

IIIn Juana, IIIn Karlos'en ama, Frantziko Xn Luis erregearen alaba bakarra izan arren, Frantziko erregetzan Salikako legeagaz, erregetzatik kanpo itxi eben.

1.289ko urtean Frantzian jaiotako Xn Luis "Burrakari" errege au, 1.305-1.316eko urte bitartean Nafarroako errege, eta Frantzikoa 1.314-1.316ko urte bitartean izan zanak:

-Ezarri ba eben Salikazko lege ori, Borgoñako Margaritagaz ezkontuta, Nafarroako erregeña izango zan IIIn Juana alabea bakarrik euki eben, eta Margarita ezkontza-nasle edo ezkon-loikerian ibiltzen zan lez, Xn Luisek, urkatu edo gargaillez-ito egien agindu eban, eta

II In Juanaren garbitasunezko odolak zalantzan ipinita, Xn Luisen bigarren go ezkontzatik euki eben Juan seme bakarra il zalako, aukeratutako lengusuen bidetik moztu eutsoen II In Juana eta bere seme II In Karloseri Frantziko erregei errege izateak.

Frantziko lurraldeetan II In Karlosek bere oiñordekotasunezko bidetik, Txanpaña ta Brieko konderriak, Angulema ta Ebreaxeuko etxetik Normandian laterri batzuk, eta beste ondazun geiagogaatik, bere osaba Frantziko VI In Felipe erregeagaz asita, edestiko borroka luzeak euki ebazan bere bizitzan, bere ama II In Juana eta bere aita III In Feliperi Frantzian sortu eben Salikako legearen bidez, gure artean arrotza zana, kendu eutsozelako ondorengo ondasun guzti orreik.

II In Juana ta III In Felipe, II In Karlosen gurasoak, konderri orreik Frantziko VI In Feliperi emon bear eutsoezan Angulemako dukadoaren truke, Nafarroako errege gura izan ba eben.

Eta euren seme II In Karlos berandu jaio zan lez, bitarte ori erabili eben bere senideak Frantziko erregetzaren atea izteko arifautik: bere osabak Vn Felipe "Luzea" 1.316-1.322 eta IVn Karlos "Ederra" 1.322-1.328ko urte bitartean igongo eben Frantziko erregetzara, eta IVn Karlos, Nafarroako errege zana batera I Karlosen izenarekin, 1.328ko urtean il zanean, bere loba ta II In Karlosen lengusua Baloiseko VI In Felipe igongo eban Frantziaren erregetzazko aukira.

1.332an Urrillaren 10ean jaio zan II In Karlos Ebreaxeuko konderrian. Eta denbora onetan VI In Felipek 4 urte eroan ebezalako Frantziko errege lez, berandu egin jakien, errege au aukititik kentzea.

1.343an Iraillaren 23an egin eben Ebreaxeuko kondea, 1.378ko urterarte iraun ebena, une orreitan Frantziko Vn Karlosek II In Karlos baituta, kendu edo jabetu egin zalako Ebreaxeuko konderriarekin.

1.348ko Iraillan, Izurri Baltza <sup>(1)</sup> agertu zan.

1.349an II In Karlos igon eban Nafarroako erregetzara, bere ama II In Juana il zanean.

1.349an Urrillaren 6an Frantzia ta Nafarroako errege Vn Karlosek, erregetzazko legez kendu eutson II In Karloseri Ebreaxeuko konderria.

1.350eko urtean Iruñan koroatu eben II In Karlos, eta beren gorteko zeregiñak bere anai Luisen eskuetan itzi ondoren, bera buru belarri sartu zan Nafarroako erregearen eskubideko babes zeregiñetan, beren izlaritzazko ulerpide aundia erakutsita.

Nafarroako erregeiñuaren Lege Biltzarra orduko aldian, Frantzikoa baiño aurrerratuagoa zan, eta II In Karlos iraspen orreitan ondo oituta egon zan lez, Frantziko erregetzaren garrantzi aundienetarikoa bitarteko bat biurtuko zan.

1.350eko urtetan II In Juan Frantziko erregetzara igon ebanetik, iñork ez zan gai Frantziko erregetza eskatzeko, eta II In Karlos ortik aurrera, bere eskubideko indar guztian, Brie ta Txanpaina lurraldean jabetasunak bir-eskuratzeko aleginduko zan.

Lenengo Balois onein denborak, larritasun andikoak izan ziran diru ta gizarteko politika aldetik Frantziko erregetzan, eta geiago gogortu ziran, ingelesarekin 100 urteko borrokan sartu ziran.

II In Karlosek, guda onen gizarteko nekegarri ta atsekabeko une auk erabiliko ebazan bere eskubideak berrezkuratzeko, bere bizitza osoa zalantza orreitan sartuz, eta beragaz Frantziko erregetza be zalantzazko aldakortasun <sup>(2)</sup> gogorretan ipinita.

Eztabaida orreik, gogorak izanez gain, ia II In Karlosen bizitza osoan iraun eben.

(1) Izurri Baltza = peste negra. (2) Zalantzazko = conjetural, confuso, oscuro. Aldakortasuna = inestabilidad.

“Txar” ez izen gaizto orren etorkizuna, baleiteke Izurri Baltzaren ostetik izatea, Nafar erregetzan %eko biztanletik irurogeita amarrean murriztuta, lurgintzaren lanerako beso ezean agertu ta Nafartarrak gose andian sartuta, gizon asko lapurketetan asi ziralako.

Neurri gogorak artu bear izan ebazan lapurketa orreik bakezteko, batzuri lepoak moztu eta beste batzuk mii-luzeko zubitik urkatuz, batera, baserritarrak zirikituta andiki batzuen aurka joan zitezten, geroago bere seme IIIn Karlosek bakeztu bear izan ebena, andiki orreik ostera goralduta. Eginkizun orrein orde z ipini bear izan eben eutsienetik datorrela esaten dabe edestilari maltzur batzuk “Txar” rrezko izen gaizto ori.

Ez da egia baiña.

“Txar” rrezko ez izen gaizto ori, Frantziko erregetzatik, eta batez be Frantziko edestilari bidetik ta bera il zan ostetik datorrena da, oneik IIIn Karlos amurru andian euki ebelako.

IIIn Karlos, Nafartarren andiki ta erritarren aldetik maitasun andian euki eben, naita bere izakera gogorragaz, biurkeriak egiteko al izan.

Badagoz beste gauza batzuk, Nafartarren bizitza geiago larrituko ebena, legezko eta sasiko semeen artean bekaizkeri <sup>(1)</sup> aundi bitartez, beti borrokan ibiltako ondorio bidetik,

Agramontes eta Beaumontesen alderdikeriak sortu ziralako, eta naita Europa osoan bardiñezkoa izan, Euskalerrarentzat eta batez be Nafartarrentzat oso kaltegarri izan ziran.

VIIn Feliperen semea IIIn Juan “Ona”, 1.350/1.364 urte bitartean Frantziko errege zanak bere aitagiñarrebagaz batera, euren begikoa zan espainiar Alfonso de la Zerdaren Karlos semeari emon eutsoen Angulemako dukateria, IIIn Karlosen inguruoak il ebena, IIIn Karlosena zana, eukitearren.

Eta 1.351an Urtarrillaren 8an IIIn Juanek epaitu ondoren, Loubreko dorrean giltzape-tu eban IIIn Karlos, bere ama IIIn Juanak, VIIn Felipegaz egin eben ongunde edo ebazpena ezereztuta.

II Juanen bekaizko ekintza onegaitik, andiki geienak jokatu eben IIIn Karlosen alde, azken baten onek, ez ebalako geiagorik egiten, Frantzia eta Nafarroako erregetzagaz euki ebazan eskubideak zaindu baiño besterik, baiña espetxean euki eban 1.356ko Azaroaren 9rarte.

1.352ko urtean ezkondu zan IIIn Karlos, Frantziko errege IIIn Juan “Ona” 1.319/1.364 urte bitartean bizi eta errege 1.354/64ko urtetan zana, eta bere emazte Luxenburgoko Bonaren alaba izan zan, Frantziko Juanagaz.

1.354ko urtean IIIn Karlos, Frantziko IIIn Juan bere aitagiñerrabagaz eriotzeraifio etsaituta egon zan, berak eukezan oiñordekaz, nor izan zala uste ebalako Frantziaren erregetza eskuratzeko, eta orren itxaropenekin beren erreifua sendotzeko etsaien aurka, Ingalaterrako errege IIIIn Eduardogaz alkartu zan, gero 1.358an Frantziako Mertzal Etiennen iraultzari lagunduta.

Beartuta, Gaztelako I Pedro “Odol-zalegaz” 1.334-1.369 urte bitartetan bizi eta 1.350/ 1.369ko urte bitartetan errege izan zanakin, eta Aragoiko IVIn Pedro “Zeremoni zaleen” artean, artekari lez egin bear izan eban, eta gero denborak zelan etorten ziranean, batagaz edo besteagaz beinbanan alkartuko zan.

1.364ko Jorraillaren 8an il zan Londresen IIIn Juan, Vn Karlos errege aukira igonda.

1.364an Loraillaren 16an Kotxerel erri ta Eure’ko ibai inguruan, Nafarroako errege IIIn Karlosek galdu eben borrokagaz eta Vn Karlos Frantziko errege lez Loraillaren 19an

(1) Bekaitz = envidia.



Reimseko Eleiz Nagusian koroatu ebenean, amaitu jakozan II In Karloseri, Frantziko erregetzagaz euki ebazan eskubide guztiak.

1.365eko urtean Saint Denisen Frantziako Vn Karlos eta Nafarroako II In Karlosek egin eben elkargo bidetik, II In Karlosek Frantziaren erregetzagaz euki ebezan eskubideak itzi bear ebazan, euren aldeko jaurkintzaren antolakuntzak erreztuteko euki ebezan jabe-dunezko erriakaz truke eginda, eta II In Karlosek egokitu jakon Montpellierreko erritarrakaz arazo aundiak eukinda, oneik ez ebelako gura Nafartarren menpean egon.

II In Karlosen Nafarroako erregetza jarrera orretan lotuta eta Frantzia, Aragoi ta Gaztelako erregetzak gero eta indar geiagotan sartzan joan zirelako, Nafartar erregetzaren jabetasuna lortu gurean ibili ziran iru erregetza orreik, katolikotasunaren laguntza osoarekin.

Euskalerriko lurralde nagusiak bananduta egon ziralako, denboraren etorkizuna izan-go zan bakarrik bear zana, baten edo besteko erreñu orren eskuetan jaustea.

Azken baten eta maltzurrezko-guzur utsezko denborak ziralako, Aragoiko II In Fernando katolikua izango zan indar askoren keiñadakin eta ariñautik II In Julio Aita Santuaren buldak eskerniatu ondoren, Nafarroako erregeak eleizatik kanpora bialtzea lortuko ebana.

1.378ko urtean gaztelarrak, 1.263an II In Teobaldok Tiebaseko errian liburutegi eta idaz agirien gorde lekua izan edin, eraiki eben gaztelua erre eben, barruan euken artxiboaren arduradunezko zaindari eta paper guztiakaz.

II In Karlos "Txarra" deritxon au: Izakera gogorrekua, zori-zale <sup>(1)</sup>, odol bizikoa, eta mendekaria izan zan.

Ez ziran izan gitxiago baiña, Gaztelako I Pedro "Odol-zale" eta Aragoiko IVn Pedro "Zeremoni zale"ak. Orduko denboraren ekandu eta lojikazko bide-giroak alan eskatzen ebalako.

## II In Karlosek euki zituzen seme/alabak auek ziran:

*Nafarroako Maria* 1.360/1.420 urte bitartean bizi zana, ta 1.393an Aragon eta Jimeneztar Alfoso Aragoiko errege eta Ribagorzako kondéa zanagaz ezkondu zana.

*III In Karlos "Biotz Andikoa"* 1.361/1.425 urte bitartean bizi eta Nafarroako errege izango zana.

*Nafarroako Bona* 1.364/1.389 urte bitartean bizi zana.

*Nafarroako Pedro* 1.366/1.412 urte bitartean bizi zana eta 1.411 Alezongo Katalinagaz ezkondu zana.

*Nafarroako Felipe* 1.368/ ?.

*Nafarroako Juana* 1.370/1.437 urte bitartean bizi zana, lenengo esteguetan bere lengusu Bretainako IVn Juan, eta 1.403ko urtean bigarrenez Ingalaterrako IVn Enrikegaz ezkondu zana.

*Eta Nafarroako Blanka* 1.372/1.385eko urte bitartean bizi zana, eta Frantziako VI In Felipegaz ezkondu zana.

## Eta legezko ezkontzatik kanpo.

### Lizaso'tar Katalinagaz:

*Leonel edo Lionel Muruzabal'eko konde ordea eta Nafarroako erregearen sasi/kumea,* 1.378/1.413 urte bitartean eta ezkondu barik, Lunako Epifaniagaz bost seme/alaba euki zituzenak.

(1) Zori-zale = aventurero.



Ⓔ

*Eta Joana, Nafarroako erregearen sasi-kumea, ?/1.413 urtetan bizi zana, eta 1.378an Bear'eko Joanegaz ezkondu zana.*

1.387an Urtarrillaren 1ean il zan II n Karlos "Txar" au, bear eztan zorigaitz baten:

Bera etxean egonda eta burua joan jakon alako baten, zelaira jausi zan, eta osagilleari deituta, onek, koñakagaz bustitako zapiekin ingurutu egiela beren gorputza agindu eban, eta eskuko su-argiagaz egon zan morroien kriseillutik, su edo txingar tanta bat jausita, beren gorputza sua artu eban, eta itzaldu edo amatau ezinik, bertan erreta il zan.

Beragaitik osteko surrumurruak, askoz txarragoak izan ziran etsai ta saltzailleari esker, berak bere bizitzan egin ebazanak baiño. Beren ekintzari geienean, egia ta zuzentasunak laguntzen eutsozelako.

### **Ondorio labur bat lez.**

Nafarroako II n Karlos onen erregetza eta ekanduzko bizi giro aiekaz konturatzeko, nai ta katolikotasunezko erlijioan batzangotzeko alegin aldetik egiten ebazan inkizizio edo ta fede zainduak, errietako jabetasunaren aldakuntzak, espetxeratzeak, erbesteratzeak, pozoitasunak ta sarraski, edo ta egiten ziran ilketak ez dodaz ekarten, edeslan onen kondaira lar luzea litekelako.

Orduko errigizartearentzat orokorrezko edesti ori, oso garrazkeriko zigorpekua izan zan eta katolikotasun alderdikerezko arrazoietan edozer gauza gaitik griñatsuki<sup>(1)</sup> ezartzen ba-ziran izilpeak, sinistu ezinekoak izanda be, gaurko denboretaraiño iraun dabe.

Ekintza orren esan naia da, asierazko edo ta IV n gizaldian artu ziran erabagiak, nai oker edo zuzenezkoak izan, ezer aldatu barik etorri dirala gure gaurko denboretaraiño.

Orregaitik ez gara arrigarritu bear, Kolonen Nortasunezko izatasun arloetan etorri diran ertzeko edo gogorrezko iziltasunagaitik, Europa osoaren berezko erriak euren nortasunera itzartu edo ta arduratuta itzuli ez zitezen, menpearen arrazoizko baldintza orreik orain be bizi bizirik daukaguzelako gure artean erlijio lez, eta erreza dalako ostonduta ekartea edestitik zear, egun baten asmatu ziran Batzangotasunezko sasikatolikotasunaren mendeko arrazoi orreik, guda indarkerizko keifu edo meatxuekaz lagunduta etorri ba dira, gaur ikusi leiken lez.

Edo ta, ala uste dabe menperatzaille orreik, Kolonen izatasunezko nortasunekin batera, argituko doguzenak.

### **III n Karlos "Biotz Andikoa".**

Nafarroaren Ebreuxeko leiñuaren II n Karlos "Txarra" eta Baloiseko Juana aita/ama bi-dez jaio zan Frantziko Mantesen Joliko errian III n Karlos au 1.361eko Uztaillaren 22an.

1.375ean, Gaztelako errege II n Enrikeren alabagaz, Trastamarako Leonorrekin ezkondu zanean, bakezta ebazan Gaztela ta Nafarroarren artean egon ziran eztabaidak, gero I Juan eta III n Enrikerekin iraun ebenak.

### **III n Karlosek, Trastamaratar Leonorren ezkontza bidetik, seme/alaba oneik euki ebazan:**

**Juana** Foixeko konde-andrea, Foixeko III n Juan kondeagaz ezkondu, eta 1.383-/1.413 urte bitartean bizi zana.

(1) Griñatsuki = *apasionadamente, excesivamente.*

**Nafarroako I Blanka**, Nafarroako erregetzan bere aita III In Karlosen ondorengoa izango zana eta 1.385ean Iruñian jaio eta 1.441ean Jorraillaren 3an Santa Maria de Niebasen il zana.

**Maria**, 1.388ko urtean jaio ta 1.425ean il.

**Margarita**, 1.390ko urtean jaio ta 1.403an il.

**Beatriz**, Martxeko konde-andrea, II In Jaime Martxeko kondeagaz ezkondu zanetik, eta 1.392 jaio ta 1.415ko urtean il zana.

**Isabel** Armañakeko konde-andrea, Armañakeko kondea IV In Juanegaz ezkondu zanetik.

**Karlos**, 1.397an Dagonillaren 31 In Iruñian jaioa, 1.398ko urtean Nafarroako erregearen ondorengo izendatu ebena, eta 1.402an Dagonilaren 12an Lizarran il zana.

**Luis**, 1.401ean Oliten jaioa eta 1.402an Urrillaren 14an il zana.

*Eta Esparzatar Maria Migelegaz, ezkontzaren kanpoko sasiseme/alaba auek euki ebazan:*

**Nafarroako Juana**, 1.396an Ortiz de Zuñigatar Iñigoren lenengo ezkontza bidetik Sada ta Eslabako andrea zana, eta 1.424an Beaumont´tar Luissegaz bigarrenez ezkondu ta Leringo konde-andrea izan zana.

**Lanzelot**, 1.386an jaio ta 1.420an Urtarrillaren 8an il zana eta 1.408-1.420ko urte bitartean jabetasun barik egon zalako, Iruñiako apezpikutegian gotzaiñaren ordezkoa izan zana.

**Godofredo**, Korteseko Kondea eta Arellanoko Teresagaz ezkondu ta egon zana.

**Leonell**, 1.441eko urtearen ostetik il zana.

**Eta Maria**, lekamea izan zana.

1.378ko urtean bere aitaren aginduz, III In Karlos, Frantziko V In Karlosegana joan zan ordari/gizon <sup>(1)</sup> baten buru zana agaz itzegiten.

V In Karlosek ez eban ontzat´artu III In Karlosek bere aitaren aginduz eroaten eban mezua eta atxilotuaz gaiñ, bere aita II In Karlosek Frantziko lurraldean euki ebazan jabetasunak kendu eutsezan Txarburgokoarenak izan ezik, auek ondo babestuta euki ebazalako.

V In Karlosek, III In Karlos zipertu edo oñazkatutako galdeketara bialdu ebanean <sup>(2)</sup>, II In Karlos Logroñoiko Uria bereganatzeko ibili zala jakin eban Frantziko V In Karlosek, eta Gaztelako II In Enrikeri esanda, onek Nafarroa erasotzeko agindu eban, II In Karloseri beartuz Brioneseko ongundea siñatu egian.

1.380ko urtean Frantziko V In Karlos il zanean, VI In Karlosek askatu eban Nafarroako III In Karlos.

Orañarte be bai, baiña emendik aurrera, Nafartarren gortekoak geiago begituten eban Frantziko gortera Gaztelatarren gortera baiña, Frantziko gortea jakituriz eta artu/emoneko arremantan garbiagoak izan zirelako, Aragoiko gortekoaren antzera.

Eta Nafarroako III In Karlos erregeak emendik aurrera, sendotu ta bizkortu ebazan Nafar izakizunezko almenak, bakean, eder/lanetan eta jaurkintzari, aurrerakuntza aundiak emonda.

Aurrerakuntza onegaz, Gaztela, Aragoi, Frantzia eta Ingalaterrakin bakeztu ebazan arremanak, eta neurri orreitan euren arteko lankidetasuna be bai, erregeen arteko ezkontzari ta Abiñon´eko Aita Santuari lagunduta.


1.380an Uztaillaren 1ean amaitu ebazan Iruñiako Eleiz Nagusiaren konponketak, eta Tafalla ta Oliteko errege jauregiak be eraiki ebazan.

(1) *Ordaritz*a = embajador, *Ordari/gizon taldea* = conjunto de personas que comprenden una embajada.

(2) *Zipertu edo oñazkatu* = tortura. *Oñazkatutako Galdeketa* = interrogatorio, bajo tormento.



Eriskerazaintza





1.387an Urtarrillaren 1ean, bere aita II In Karlos il zanean igon eban Nafartarren erregetzazko aulkira, eta Ebreaxeko konde ta Nemourseko dukea izendatu eben.

1.388an Gaztelako errege ta Bizkaiko Jauna zana I Juanek, bere seme Gaztelako errege izango zan III In Enrike, Lankasterreko Katalinagaz ezkontzeko ibili zanean, Asturiaseko Printzerria sortu eban, eta eurok izan ziran lenengo Asturiaseko printzeak edo errege-erregiñ gai, Gaztelako erregetza ondore lez jaurkitzeko.

1.402an Aragoiko erregetzagaz bakeak lortzeko, bere alaba Blanka Siziliako II na eta Aragoiko errege izango zan I Martin gaztea "Gizabideko" deritxonagaz ezkondu eban, eta elkarrizketa bardin antzeko baten ibili zan Ingeles eta Frantzikoarekin.

1.404ko urtean III In Karlosek, Pariseko alkargoaren bitartez eta Txanpaña ta Brieko jabetasunak frantzezari itxi ondoren, Frantziko VI In Karlosegaz garbitu ta argitu ebazan Frantziko lurraldeetan euki ebazan Ebreaxeko Nafar jabetasunak, bere nafartar adizki-deak Frantziko gortearen leku garrantzientarako izendatzea lortuta.

1.409ko urtean Bartzelonan il zan Nafarroako I Blankaren senarra, "Gizabideko" deritxon Siziliako II na eta 1.396ko urtean izendatu eben Aragoiko I Martin erregea.

1.412ko urtean Granadako moruen erregetza menperatzeko alegiñetan be ibili zan Gaztelatarrei laguntzen, eta aukera orretan Antekerako Fernando Gaztelako errege/semearen semeakaz ezkondu ebazan Isabel eta Maria bere alabak.

1.413ko urtean III In Karlos onen zeregiñ onenetan, Goieneko Auzitegia sortzea izan zan.

1.415eko urtean III In Karlosek, bere alaba Blanka Aragoiko I Martinen alarguna, no-rekin ezkonduko arazoan aurkeztu zan.

Eta Foix etxeokak, euren alaba Juana il zanen alarguna III In Juan aurkeztuta, Aragoiko I Fernandok bere bigarren seme Aragoiko II In Juan izango zana aurkeztu eutsoen, eta Blanka baiño 12 urte gazteagoa izan arren, III In Karlosek, len Foixekoakaz sortu zana Nafartarren erregetza Frantziko erregetzagaitik iruntsita geratzeko arrizkuan ostera sortu ez egian, bigarren aukera artu eban ontzat, eta Aragoiko II In Juanegaz ezkontzeko geratu ziran.

Eta ezkontza au aurrera eroateko, 1.419an Azaroaren 6an Oliten, eta 1.420ko Otsailaren 18an Guadalajarako egiunetan aukeratu ziran baldintzak, oneixek izan ziran:

a) Nemurseko dukadoa artu ondoren, Nafarroako erregetza, I Blankarentzat eta beren ondorengoarentzat izatea.

b) Nafarroako erregetzan iñungo lurralderik ezin zala zatitu, eta erbesteko erregetza baten menpe geratu.

d) Nafarroaren jaurkintzazko gortearen ardurazko lan tokiak, Nafartarrentzat bakarrik izan zitezela.

III In Karlosek neurri orreikaz, naita Nafarroako erregetza Trastamarako etxeagaz ezkondu arren, bere erregetzazko eskubidearen izatasuna ondo lotuta gura eban, Nafartarren erreñua baldintza sendoakaz, askatasun guztiegaz irautea gure ebalako.

1.423ko Urtarrillaren 20an III In Karlosek, I Juan Gaztelakoa Asturiasen egin eban antzera, Bianako printzerria sortu eban Nafar erregetzaren ondorengotzat, eta beren billoba IV n Karlos izango zan lenengo errege-gaia, Bianako erakunde barri orrek izendatuko ebena.

1.425ean Iraillaren 8an Oliten il zan Nafarroako III In Karlos "Biotz Andiko" errege au, Nafarroako jaurkintzaren alde alegiñ-on aundiak egin da gero.

E

## I Blanka, Nafarroako erregiña.

Nafarroako "Biotz Andiko" errege zan IIIIn Karlos eta bere emazte Trastamarako Leonor, IIIn Enrike Gaztelako erregearen arreba zanaren bidetik, Iruñian jaio zan Ebreuxeko leñiuko zana Nafarroako I Blanka au 1.385eko urtean.

Nire maisu eta lagun andia izan zan San Sebastiantar Jose Marik (**Latzaga**) esaten eustan Nafarroako I Blanka erregiñagaitik, bera izan zala andra eder ta politena Nafarroa osoan.

## I Blankaren bizi kondaira.

1.401eko urtean il zan Siziliako erreñuaren jabe izan zan Maria, Aragoiko erregearen seme I Martin gazteagaz ezkontuta egon zana, au Siziliako erreñuagaz jabe geratuta, naita Siziliako jabedupa bere lenengo emaztea izan arren.

1.402ko Urtarrillaren 21ean Nafarroako IIIIn Karlosek, Aragoiko erregetzagaz bakeak lortu gurean, bere alaba I Blanka, Siziliako IIIna eta Aragoiko errege izango zan I Martin "Gizabidekoa" deritxon seme gazteagaz ezkontzea erabagi eban.

1.402ko Lorailaren 21ean Kataniako Urian ordezeko legean ezkondu ebazan, Nafarroako Bakedanotar Diego ta Mosentar Lionel, I Blankaren ordezkariak zirala.

1.402ko Azaroaren 9an Bernardo de Kabrerak bideratzen eban itsasontzi baten joaten da I Blanka Siziliako Ugartera.

1.402an Abenduko 26an ezkondu ebazan Migel Mari lekaideak, Nafarroako I Blanka ta Aragoiko I Martin gaztea.

I Blanka, Sizilian egon zan bitartean, ez eban artu arrera edo jardunbide onik, eta bere aita IIIIn Karlosek berari emoten eutsoen arrera orregaitik atsekaberatuz, serbitzariak leporatu eutsen, Blankak ezkontzatik illabete gitxi barru euki eben ume-galtzea, eta baita Siziliako gortekoai salatu, bere alaba Blankari ezkontzaren ordezeko sariak ez eutsozala emoten.

1.404an Uztaillaren 17an emon eutsozan ezkontzako sari orreik, Paterno, Mineo, Lentini, Frankabilla eta Bizzini'ko erriaren jabetasunagaz.

1.404ko Urrillaren 22an "Vicaria" edo erregetzaren ordezekoa izendatzen dabe I Blanka, bere senarraren alde egite edo ta urruntzerakoan.

1.405ean I Martin Aragoira joaten da aldi baterako eta I Blanka berak jaurkitu eban Sizilia bere aolkularitzazko ordezkariaren laguntzagaz.

Eta 1.405ean Dagonillako illean I Martin itzuli zanean amaitu ziran I Blankaren errege ordezekoak.

1.406an Abenduaren 17an euki eben euren lenengo semea, Martiñen izena ipini eutsoenai Aragoiko aita ta aititeri euki eutsoen begirune edo omenagaitik.

1.407ko Dagonillaren illean eta zortzi illabete eukezala il jakien, Aragoi ta Siziliako ondorengoia izan bear zan Martin umea.

1.408an Dagonillaren 13an I Blanka osteria izendatzen dabe erregetzaren ordezekoa, bere senar I Martin Zerdeñaren Ugarteko erreñura joateko asmoa euki ebalako bere gualozte indartzuakaz.

1.408an Urrillaren 3an urten eban Sizilatik I Martin Zerdeñako Ugarterantza.

Eta 1.409an Uztaillako 25ean il zan I Martin au, Kagliariko errian sukargaitzak artuta.

1.409ko Dagonillaren 7an I Blankaren aitagiñerraba Aragoiko I Fernandok "Arteza" edo "Antekerakoa" deritxon onek, on artu eban bere seme I Martin gazteak agindu ebana,

eta I Blanka osterá "Vicaria" izendatuta aurrera egin eban Siziliako erregetzaren ordezkotzagaz.

IIIIn Karlosek, laster asi zan I Blanka ezkontzeko ardurakin eta 1.409ko urtea amaitzen egoala, Frantziko Isabelen nebeagaz, Babierako-Ingolstadt´tar Luisekin ezkontzeko asi ebazan atonketak. 1.410eko urtearen asieran apurtu ziranak.

1.410eko urtean beste ezkontza bat be atondu eutsoen I Blankari, Bar´eko I Roberto Dukearen seme Eduardorekin, ezerezean geratu zana.

1.410ean Loraillaren 31n-I Blankaren senarra izan zana eta "Biotz onekua" deritxonai I Martin Aragoiko errege izateko zana il zan, eta I Blanka Siziliako erregetzan bere zeregiñ onagaitik, Siziliatarrak erregearen ordezkotzan iraun egiala gura eben eta IIIIn Federiko Siziliako errege izan zan ondorengo bategaz Peraltako Nikolasekin ezkondu gura eben.

Portugaleko I Juanek be, bere seme bategaz ezkondu gura eban, Siziliako ugartearen jabetza berak gura ebalako.

Monikako Konde Kabreratar Bernardok be gura eban beragaz ezkondu zedin, ta I Blanka indarrez arrapatu gurean ibili zan.

1.411ko Loraillaren illean Kabreratar Bernardo bere matxintasunezko alegiñagaitik epaitu ebenean, erregeen aolkularitzazko erakundeak I Blanka erregeñagaitik esan eban, erregeñak Siziliako eztabaidagitik bere Nafarroako senideai sekula ez eutsela eskatu laguntzarik, auek Siziliako arazoakaz ez ebelako euki ezer ikusirik.

1.412an Bagillaren 28an Aragoiko errege Antekerako I Fernandok, XIIIIn Aita Santu Beneditoren laguntzagaz eta Kaspén egin ziran antolabideakaz, beraganatu eban Siziliako erregetza.

Eta 1.412ko Azaroaren 21ean Siziliako gortekoak koroatu eben Aragoiko I Fernando Siziliako errege lez.

1.413an Uztaillako illean I Blankaren aizta Juana, Foix Konderriaren jabe eta Nafar erriñuaren ondorengo zarrena seme/alaba barik il zanean, guztiz aldatu ziran I Blankaren bizi ekintzak, bere aita IIIIn Karlosek, bere ondora joateko eskatu eutsonean.

1.415eko Jorraillan I Blankak, ia 13 urte ordezkot lanetan ibilita urten eban Siziliatik, Nafarroaren gortekoak aukeratu ebazan, Pierres de Peraltatar Mosen eta Asiaintar Juanen laguntzagaz.

1.416an Urrillaren 28an Nafarroako errege IIIIn Karlosek Oliten, bere alabaren eskaerari baimena emonda gero, Nafarroaren erregetzazko ondorengo lez izendatuta, ziñez itz emon bear izan eutson I Blankak.

Eta 1.419ko Azaroaren 5ean Nafartar gortekoak, Aragoiko erregearen seme Peñafieleko Duke, Mayorgako Konde, Larako jaun eta geroago errege izango zan IIIn Juanegaz atondu eben I Blankaren ezkontza, Nafarroako erregetzaren alde euki bear ebezan jabetasunezko baldintzarekin.

1.419an Abenduaren 5ean Oliten, ordezkotza bidez ezkondu ziran.

Eta 1.420an Bagillaren 18an Iruñako Ama Zuriaren Eleiz Nagusian ezkondu ziran eurak, I Blankak 35 urte zituela <sup>(1)</sup> eta IIIn Juanek 22 urtegaz (1.397an Bagillaren 29an Kanoko Medinan jaioa).

### **Euki zituzen seme/alabak, oneixek ziran:**

1.421-1.461eko urte bitartea bizi zan *IVn Karlos*, Bianako Lenengo printzea, Borgoñako Dukea ta IIIIn Feliperen loba Kleberis´tar Ines´ekin ezkondata egon zana.

1.423-1.425eko urte bitartean bizi zan *Juana*.

(1) *Baleiteke, 38 euki ebazan urteak eukitea 35 baiño.*

E

1.424-1.464ko urte bitartean bizi zan **Blanka**, eta Gaztela Leongo errege izan zan IVn Enrikegaz ezkondata egon zana.

1.425-1.479ko urte bitartean bizi zan **Leonor**, Nafarroako erregetzan ondorengoa zana eta Foix'eko IVn Gaston, Foixeko Konde ta Bearn'eko Kondearen ordezkoa izan zanarekin ezkondata egon zana.

## Edestiaren aria ostera artuta.

1.421eko Lorailaren 29an I Blanka ta II In Juan Peñafielen egon zirala, jaio jakien lenengo seme Karlos, eta 1.419ko urtean ezarri ziran baldintzakaz, bera izendatu eben Nafarroaren erregetzazko ondorengoa, ama, I Blanka ilten zanean.

Jaiotzatik lau illabetera, Olmedoko Urian bateatu eben IVn Karlos, bere besoetako-aitak edo aitabitxiak, Gaztelako errege II In Juan aita ta Luna'tar Albaro Gaztelako Kondestablea.

1.422ko urtean I Blankaren aita Nafarroako errege III In Karlosek deituta, irurak joan ziran Nafarroako errege Tafalla ta Oliteko errege jauregietan bizitzera.

1.423an Urtarrillaren 20an Tudelan izenpetu zan agiriagaitik, III In Karlos Nafarroako erregeak, Bianako Printzerria sortu eban, bere billoba Karlos izanda erakunde orren leen printze edo ondorengoa.

Eta urte onetan jaio zan bigarren alaba Juana.

1.424ko Bagillaren 9an, Blanka irugarren alaba jaio jakien.

1.425ean Otsaillaren 2an Leonor jaio jakien.

1.425ean Dagonillaren 22an il jakien Juana alaba nagusia.

Eta 1.425ean Iraillaren 8an, I Blankaren aita Nafarroako errege III In Karlos Biotz Onekua ilda ostean, I Blanka geratu zan Nafarroako erregiña lez.

1.425eko Azaroaren 29an geratu zan izendatuta II In Juan, Ribagorza ta Balentziako Konde lez.

## I Blankaren bizitza Nafarroako erregiña lez.

I Blankaren bigarren senarra Aragoiko II In Juan onek, bera baiño 10-12<sup>(1)</sup> urte gazteago izanez gain, izakera gogorrekua izan zan, ta Aragoi ta Gaztelako lurraldetan euki zituzen jabetasun aundien norkeriagaz, Gaztelako lurraldeetan sarritan euki ebazan borrokazko esku sartzeak.

1.425ean Iraillaren 8an il zan Nafarroako errege III In Karlos "Biotz-Andikua" eta bertan geratu zan izendatuta I Blanka Nafarroako erregiña lez.


1.427an Dagonillaren 9an Nafarroako gorteak barriztu eben zifiezpena IVn Karlosen alde ondorengo errege lez.

1.428/1.429ko urte artean II In Juanek bere guda indar alegiñakin, eta Aragoiko mugaren lurralde batzuk galduta gero, gaztelarrek andik bota eben orduan, deitu eutson I Blankak Nafarroako errege lez koroatzea atzeratzen euki ebalako, eta alan urbidu zan bere ondora.

1.429an Lorailaren 15ean lau urte beranduago erregetzara igon ebanetik koroatu ebezan Iruñako Eleiz Nagusian Nafarroako I Blanka ta Aragoiko II In Juan. II In Juan erregiñaren ezkon-lagun lez.

1.439an Otsaillaren 17an I Blanka Nafarroako erregiñak il orduko bere borondatezko azkenai idatzi eban agirian, bere seme IVn Karloseri eskatzen eutson: ez egiala erregetzaz-

(1) I Blankaren adiñetan, azkeneko ikerketeta bidez, zalantza orreik agertzen diralako.



Ⓔ



ko ardurarik artu, bere aita II In Juanek esan arte, eta I Blanka ama il zanean, aitaren ordezeko agintaritza artuko eban.

1.441ean Jorraillaren 1ean il zan I Blanka Nafarroako erregeña, bere alaba II In Blanka Gaztelako IVn enrikegaz Epaillaren 31n ezkondu urrengo egunean, ta Nafartar gortekoak Jorraillaren 3an Segobian Niebako errian, Erregearen Santa Maria Eleizan illobiratu eben.

Bere arri-illobia gaur, beren lekutik kenduta Kukullaren San Millaneko gela illun baten baztertuta dago, beste Napar errege askoren antzean.

### **Aragoiko errege II In Juan "Guzurti-Aundia"ren bizi kondaira.**

Antekerako I Fernando eta Gaztelako Urrakatar Leonorren semea izan zan.

1.397ko Bagillaren 29an, Gaztelako Medina del Kanpon jaio zan, eta bere bizitzan artu ebazan andiki izenak: 1.425-1.479 urte bitartean Ribagorzako Kondea, Peñafieleko Duke ta Nafarroako errege, eta 1.458-1.479ko urte bitartean, Aragoi, Zerdefña ta Siziliako errege.

1.427ko dagonillaren 9an II In Juanek, bere begiko alaba izan zan Leonor izendatu eban ondorengo Iruñako gortetan, bere beste seme IVn Karlos eta alaba II In Blankarekin orren ostean, maltzur eta guzzurraren azpikerizko jokuetan asita.

1.429ko udan, II In Juan "Guzurti Andi" onek, antza, Nafarroako jaurkintzan ez ebalako euki zeregiñik, bere Aragoiko anaiaren diru ta ondasunezko irabazkiari laguntzearren, Enareseko ibarretatik sartu zan Gaztelako lurraldeetara, eta Jadrakeko inguruan borroka antolatzen egoala, bere arreba Maria, Gaztelako II In Juanegaz ezkondu egon zana sartu zan lez bitartean, or amaitu ziran Gaztelako lurraldeetatik Aragoiko II In Juanek egingo zituzen txangoak, eta urrengo urterako Gaztelako II In Juanen aurka antolatuta euki eban guda.

1.435eko urtean laguntza bardiñean ibili zan bere anai Aragoiko Vn Alfonso erregeak Napoleseko erreñuaren jabetasuna lortu egian, baiña utsegite andi baten amaitu zan.

1.436an Uztaillaren 30ean II In Juanek, Leonor bere begikotasunezko alaba ariñautik Foixeko IVn Gaston Kondeagaz egin eban ezkontzeko elkargoa baieztatuten dau, berentzat ezkon-sari lez Miranda, Larraga eta Falzeseko urien kontuan 50.000 florin emonda.

Eta guri geien arduratu egiten gaituelako, bere bizi kondaira, bere emazte I Blanka 1.441eko urtean il zanetik artuko dogu.

II In Juan bera izan zan bere 82 urtekin XIV-XVeko gizaldi bitartean, geiago bizi edo ta zarrenetarikoa erregea izango zana, 1.479an Urtarrillaren 20an Bartzelonan il zan arte.

1.441eko Jorraillaren 1ean, I Blanka il zanetik eta berak azkenai lez bere seme IVn Karloseri borondatez idatzita agindu eutsonagaz, II In Juanek naspilduta euki eban bere seme IVn Karlos Nafarroaren erregetzazko zeregiñetan, IVn Karlos bere semea ezkerro-nekoa eta esanekoa izanez gain zordun be agertzen zalako, agindu orreik I Blanka amaren esanetan eroan ebazan, arik eta II In Juan aitak osteraz ezkontzen zala esan arte.

1.442ko urtean eta I Blanka ama il zan ostetik II In Juanek, Leonor bere alaba txikerra eta Foixeko Gaston Kondea ezkondu ebazan, berau bere senarragaz Bearn´era bizitzen joanda.

1.444ko Jorraillan ezkondu zan Nafarroako II In Juan, Gaztelako amiral Enrikez´tar Fradike, ta Fernandez de Kordoba ta Ayalatar Marianaren alaba, Enrikez eta Fernandez de Kordoba ta Ayalatar Juanagaz 19 urte euki ebazala, bere aundizale, ospezale ta dana gura ebenagaz.

Emendik aurrera ta I Blankaren azkenai bidez, II In Juanen jardunbidea bere seme IVn Karlosegaz gogortu egin zan ezin besterarte, bere emazte Enrikeztar Juana Lizarrara bialduta, IVn Karlosen errege-ordezko zeregiñak nastu ta oztopatzeko alegiñean, Nafartar erritarren artean asarre aundiak sortu ebana, eta IVn Karlos bere aitaren aurka asi zanean al eben gogortasunean, Nafartar erria zati bitan banandu ebana, beamontarrak Karlosen alde kokatuta, eta agramontarrak II In Juanen alde, 1.451n anaien arteko gudara eroan ebananak.

1.445eko urtea baiño ariñautik II In Juanek, bere Gaztelako errege II In Juan koñatua ta onen guda agintari nagusi Albaro de Lunagaz, betiko lurraldearen nagusitasunezko jabetasunetan ibilita, Atienza ta Torrijako Uriak artu ebazan, baiña urte onetan talde biak Olmedon aurrez aurre aurkeztu ziranean, Nafarroako II In Juanek naita Aragoitar gudalozteekaz batera egon, astiñaldi gogorra artu eban, eta borroka orregaz amaitu jakien aragoitarrak gaztelaniako gauzatan euki ebezan indarrezko eragipen guztiak.

### **Nafartarren anai-arteke guda.**

IVn Karlos Gaztelara joan zan, Asturiaseko Printzea ta Albaro de Luna kondestablearen laguntza eskatzera, oneik argi itxita, eurak ez zirala Nafarroagaitik borrokatzen, II In Juanen aurka baiño, eta gaiñera zirikatzen dautsoe, aitak emoten eutson arrera txar ta otzagaitik, obeto ibiliko zala gaztelarrakin alkargotuta, bide batez oartuazota, zelan bere ama ordea aurdun egonda, ekarriko eben ondorengotasunagaz.

Ondoren, Asturiaseko Printzeak Albaro de Luna Kondestableari itaun au egin eutson: "Guk baiña, zer lortzen dogu Nafartarrak laguntzeagaz?". Kondestable jaunak erantzun da: "izten dautsagun 40 urteko anaiguda".

1.451n Iraillaren 8an IVn Karlosek eurakaz, alkartasunezko ituna sinatu egiten dau, eta Asturiaseko printzea ta Luna Kondestable oneik, inguratuta euki eben Buradoneko gaztelua itzultzen dautsoe.

1.451ean Urrillaren 23an borrokatu ziran talde biak Aibarreko zelaletan, eta IVn Karlosek astiñaldi andia artuta, II In Juanek atxilotu eban Beaumont tar Luis Nafartar Kondestableagaz batera.

1.452ean Epaillaren 10ean Enrikeztar Juana IVn Karlosen ama ordea, ariñeketan urten bear izan eben Lizarratik, bere semea Aragoiko legeak agintzen eben eran, Aragoien jaio zedin, eta or ibili zan larri, Nafarroaren mugako Sos erritxoan jaio zalako egun orretan, gero Aragoiko II In Fernando katolikoa izango zana.

Eta Juana Enrikez onek, euken amuru aundiena erakutsiko eban emendik aurrera, bere seme/alaba ordearen aurka, Leonor txikerrenagaz izan ezik, bere senar II In Juaneri alegiñ orregaz bultzatuta, IVn Karlos eta II In Blanka bere seme/alaba oneik erregetzatik alboratu egiezen, eta 1.455eko urtean II In Juanek Nafar-erregetzaren ondorengoak ez diran lez aldarrikatu ondoren, biak pozoituta il ebazan.

Guda au ezan amaituko arik eta 1.512an II In Fernando katolikua Iruña menperatuta, I Karlosek 1.522an Mayan, ta 1.523an Ondarribin, Nafartar askatasunezko Ikurrak menperatu arte.

### **Aragoiko jaurkintza.**

1.454ko urtean II In Juanen anaia Aragoiko Vn Alfonso, Italia ta Siziliaren egoaldetik jaurkitzen egoala bere erreñua, II In Juan izendatu eban Aragoi ta Kataluñako ordezkotzat <sup>(1)</sup>.

(1) Ordezko = *lugarteniente*.

1.455eko urtean II In Blanka bere neba IV n Karlosekin batera, bere aita II n Juaneri, Nafar erregetzan eurak euki ebazan errege/erregiñ izateko eskubideak eskatu eutsoczan, eta onek, ondorebage biak itzi ta irugarren alaba Leonor 30 urte ebazala ondorengo lez izendatuta, Nafarroarren arteko anai-guda biztu eban.

1.458an Uztaillaren 15ean Aragoiko V n Alfonso erregea ondorengo barik il da, II n Juaneri egoki jakon Aragoitarren erregetzazko aulkia.

Eta 1.458an Uztaillaren 25ean II n Juanek, naita batera Kataluñako jaurkintza bere seme IV n Karloseri emon bear, bere seme Fernando<sup>(1)</sup> Montblankeko Duke ta Ribagorzako Konde izendatu eban Balagerreko Uriaren jauntzagaz batera.

1.460an IV n Karlos atxilotu eben bere aita II n Juanen aginduz, eta Kataluñan II n Juanen aurka egon ziran erakundeak, La-Biga, errien andiki, zaldunak eta eleizako abade ta agintari batzuk matxinatuta, anai arteko guda antzeko bat asi eben.

1.460ko urtean Katalan gorteak Leridako Urian batzartuta, aske itzi egiela bere seme IV n Karlos eskatu eutsoen II n Juaneri.

Eta 1.461ean Katalanek II n Juaneri, Penedeseko Billafrankaren ongunea onartzen beartu eban, berari debekatuta Kataluñan sartzea bertoko agintarien baimenik gabe, Kataluñako jaurkintza IV n Karlosen ardurapean itxita, naita lan ori Kataluñaren Orokorrezko edo Generalitateko arduradunak egin, II n Juan IV n Karlosen aita, beti ibili zalako beren atzetik atxilotu naian.

1.461eko urte berean II n Juanek, gogogabeko aldarrikapen bat egin eban, IV n Karlosen erregetzazko eskubidearen jabetasunak onartuta.

Eta 1.461eko Iraillaren 23an il zan IV n Karlos, Enrikeztar Juana II n Juanen emazteak pozoituta.

IV n Karlos il ostean Katalanak, aurrera eroan eben II n Juaneri Kataluñan sartzen ez iztea, bertoko arduradunaren baimenik gabe.

1.462ko Otsaillan baiña, II n Juanek Penedeseko Billafrankaren ituneri jaramon egin barik Kataluñan sartuta, katalanen anai arteko guda asi eben, remensako payes nekazaritzaren iraultzagaz bateratu zana.

Kataluñako matxintasunaren aurka II n Juanek lortu ebana, Aragoi, Balentzia ta Sizi-liaren zintzotasuna zan.

Katalanek baiña, II n Juan errege lez ez ebelako ontzat artzen, erbesteratutako bat izango zan lez euki eben.

Kataluñako Jeneralitatearen gudalozteak Pallarestar Rojerren aginduz, Enrikeztar Juana eta bere seme Fernando Jeronan egon ziran gazteluan, inguratuta euki ebazan lau illabetetan, arik eta II n Juan frantzezaren laguntzarekin askatu arte.

XI n Luisen Frantzez laguntzagaitik erabagi ziran ordaiñak, 200.000 urre-gorritzko otxin edo dolbekoa<sup>(2)</sup> zan, II n Juanek urte baten barruan ordaindu bear ebana, eta ordainketa orren bitartean Zerdeña ta Rosellon emon ebazalako baikuntzan, Frantzezaren jabetasunera aldatu ziran, 200.000 dolbeko dirutza ori II n Juanek, sekula ez ebalako ordaindu.

Guda luze onetan Katalanak, Gaztelako IV n Enrikeri eskeifi eutsoen Bartzelonako konderria, eta izendatu be bai, baiña Frantzezak bitartean sartuta II n Juanek zor eutsozan ordaiñak eskuratu gura ebazalako, gaztelatarrak nai aleginduarren be, ez eben Bartzelonako konderri ori artu.

II n Juanek denbora oneitan bere maltzurtasunezko trikimaillu guztieagaz, Nafartar erreiniua bere bigarren ezkontzako seme Fernandoren eskuetan izteko ibili zan, maltzu-

(1) Gero II n Fernando katolikua izango zana.

(2) Urre-gorritzko otxin edo dolba = doblones de oro.

rrezko joku orretan bere alaba txikerra Leonorren alde ibili zalakoan, bere lenengo alaba IIn Blanka erregetzatik zelan aldendu alegiñetan ibili zalako, baiña denboraren igarotzeak erakutsiko eban, ori be guzur utsa izan zala, azken baten Leonorren aurka be ibili zalako.

1.462an Jorraillaren 12an IIn Juanek Oliten, bere alaba Leonor eta bere senar Gastonekin sinatu eban alkargo bat, Leonor bere urrengo izendatuta bere zenarra be ondorengo lez artu ebana.

Eta orretarako II Blanka benetako erregiñaren eskubideen gaiñetik egin bear ziran lez gauza orreik, bereala asi ziran azpikeriz beren ilketa antolatzen.

1.462ko urtean IIn Blanka bakarrik eta bere aitaren naikerizko aginduan Oliten atxilotuta egoala, IIn Juan Frantziko XIn Luisekin Aguraiñen batzartuta egon zirala, alkargo bat egin eben, IIn Blanka 38 urte eukezala, Frantziko XIn Luisen 16 urteko seme txikerra Berri'ko Dukea izan zanaren Karlosegaz ezkondu zedin, eta IIn Blankak ezetza emon eban lez, aita asarre, Foixeko IVn Gaston bere suiñen agindupeko Monkada dorrean atxilotzea erabagi eban.

1.462an Jorraillaren 23an eta IIn Juanek aginduta, Mosen Pierres Peraltakoak IIn Blanka, mendi ostera atxilotuta eroan eban, eta Orreagako lekaretxean egon ziranean, IIn Blankak: "bere Nafar erregetzaren eskubideak ezereztu naian, atxilotuta eroaten ebala aldarrikatu eban, bere orde z Leonor aizta txikerra eta Fernando ugaz-nebaren mesede".

"Eta olan izan ez balitz, arduradunak baliobage itzi egiezala beren salaketa orreik, olango zeozer egiterakoan, bere borondatea Gaztelako errege IVn Enrike bere lenengo senarra zanaren, Armeñak Kondearen zainpean iztea zalako euki ebazan eskubideak eta".

1.462ko Jorraillaren 30ean IIn Blankak egin ebana.

Dana dala, Leonor jaio zanean, aitaren tresna biurtu zan beren seme/alaba IVn Karlos eta IIn Blakaren aurka egiteko.

Eta 1.464ko Abenduaren 2an il zan pozoituta IIn Blanka, IIn Juan bere aitaren aginduz Frantziko Orthez errian.

## Oarrezko labur baten bidez, emen ikusten doguna.

IIn Juanek bere bigarren emazte Juana Errikezegaz batera, IVn Karlos eta IIn Blanka euren erregetzako eskubidetik aldentzeko, Nafarroako anai-guda eurok sortu ebela ikusten dogu, eta trikimaillu guztiak ibilita be ezinean agertu ziranean, pozoitu ebezala biak, Nafar erregetza, euren azkeneko seme Aragoiko IIn Fernadoren eskuetan izteko alegiñean.

1.463ko urtean eta Kataluñako borroka luze au aurrera joan zala, katalanak IVn Enrikeri egin eutsoen Eskeintza bardiña egin eutsoen Portugaleko Pedro konde ordeari, baiña au urte bi beranduago il zan lez Kalaf'eko borrokan, gero Aragoiko errege izango zan IIn Fernando katolikua 13 urte bakarrik euki ebazanaren aurka, or geratu zan aukera ori.

1.466ko urtean Katalanak Anjou'ko Renato'ri be egin eutsoen eskeintza bardiña, baiña orrek be ez eban aurrerakuntzarik euki.


1.468an Otsaillaren 13an bulerreko min-biziagaz il jakon Erriketar Juana emaztea IIn Juaneri.

1.468ko urtean IIn Juanek, Iruñako gotzaiña Txabarri'tar Nikolas bere alaba Leonorren aolkulari zana il eban.

1.469an Epaillaren 5ean Aragoi ta Nafarroako IIn Juan erregeak, bere seme Fernando Gaztelako I Isabelegaz ezkontzeko alegiñetan ibili zala, ariñautik il zan IIn Pio Aita Santuen bulda bat eskarniatu eban, I Isabel eta Fernandok euki eben leen maillako lengua-

E

 Euskerazaintza





sutasuna ezereztuteko, eta an egon ziranak jakin arren gertaera ori, Leridako lurraldearen Zerberako Urian siñatu eban ezkontzaren alkargo orren agiria.

Eta 1.469an Urrillaren 19an Balladolizen Biberoko jauregian ezkondu ziran Gaztelako I Isabel eta bere leen maillako lengusu Aragoiko erregetzaren ondorengo, Siziliako errege ta Jeronako Printzea zan II In Fernandogaz.

1.469an Abenduaren 16an Lorenako Dukea il jakien katalanari, eta II In Juanek Bartzelona inguratu ondoren, bakezko ongune batera eldu ziran alde biak.

1.472an Abenduaren 22an, II In Juan bere zitalkerizko irurogeita-amabost urte euki zituzenean ta ia itsu egon arren, bere seme Fernandoren laguntzakin, Bartzelonan sartzea lortu eban, eta egin eben ongune bitartez, danari parkamena emonda, Kataluñaren Foru ta askatasunari ziñez itz emon ondoren, Kataluñako anai guda luze ori, Predralbeseko elkargo orregaz amaitu zan.

II In Juanek bere askenengo borrokakaz, Rosellon ta Zerdeña be berrezkuratu gura eban, baiña XI In Luisek ez eutsen ezer emon, diru askoren zorrak euki ebazalako beragaz.

### **Nafarroako I Blanka eta II In Juanek lenengo ezkontza bidez euki zituen seme/alabak, oneik izan ziran:**

1.421-1.461eko urte bitartea bizi zan *IV In Karlos*, Jerona ta Bianako Lenengo printzea, Borgoña, Gandia eta Montblankeko Dukea, ta III In Feliperen loba Kleberis tar Ines ekin ezkontuta egon zana.

1.423-1.425eko urte bitartean bizi zan *Juana*.

1.424-1.464ko urte bitartean bizi zan II In *Blanka*, eta Gaztela Leongo errege izan zan IV In Enrikegaz ezkontuta egon zana.

1.425-1.479ko urte bitartean bizi zan I *Leonor*, Nafarroako erregetzan ondorengo ta gero erregeña zana, eta IV In Gaston, Foixeko Konde ta Bearn eko Kondearen ordezkoa izan zanakin ezkontuta egon zana.

E

### **II In Juanek Gaztelako Enrikeztar Juanagaz bigarren ezkontza bidez euki zituen seme/alabak, oneik izan ziran:**

1.448ko urtean, *Aragoiko Leonor*.

1.452ko urtean bere ondorengo izango zan Siziliako errege, Aragoiko izenean *II In Fernando*, eta *Gaztelako erregegeñaren bizi-lagun lez Vn Fernandoren izenagaz ezagutuko zana*.

Eta 1.454ko urtean Aragoiko *Juana*, Napoleseko errege I Fernandogaz ezkondu zana.

### **Eta II In Juanek legezko ezkontzatik kanpo euki zituzten seme/alabak, oneik izan ziran:**

1.439/40ko urtean *Juan*, Zaragozako gongotzain edo artx-apezpikua izango zana.

1.417ko urtean *Alfonso*, Kalatrabako maillan nagusia izango zanaren alaba Eskobartar Leonorregaz euki ebana.

Nafartar Leriñeko II Konde Beaumont tar Luisen andregaz euki eban Aragoiko *Leonor*.

Eta 1.455ko urtean, *Maria*.

1.479ko Urtarrillaren 20an 83 urte eukezala II zan II In Juan "Andia" esaten eutsoena baiño, andinai, lapur, guzurti, ta maltzur aundi bat izan zana, Nafartar euskal errigizarte ta erregetzari ainbat kalte egin ondoren, eta bere seme II In Fernandori errege-bizi ekintzarako erakutsi eutsozan maltzur ta amarrukerizko guzurak beren aolku ta ikaspide zikiñakin, bizitz onetan andikerizko ergelkerietan ibili zedin eta baita aaztu barik, Nafar erregetzagaz geratu zedin.

*Balls'tar Karrerak esaten dau, Argaiz'tar Gregorio'ren "La perla de Cataluña" liburu-an, 104ko orrialdean: "Manuscrito he leído en lo que confesò la reina al tiempo de morir el rey D. Juan su marido que avia dado veneno al principe D. Carlos". (Carrera Valls, Cataluña, Descubridora d'Amèrica, pag, 159).*

## Fernandez de Kordoba Ayala ta Enrikez'tar Juana.

1.425eko urtean Medina de Riosekon jaio zan Enrikez eta Kordobako Fernandez'tar Juana au, 1.431ko urtean Fernandez de Kordoba ta Ayalatar il zan Mariana ama, eta Enrikeztar Fradike Gaztelako Amiralaren bitartez.

Mendiko Kasarrubiosen Vn Jauna, Nafarroako erregearen bizi lagun ta erregiña lez 1.447/1.468 urte bitartean, ta Aragoiko erregiña lez 1.458/1.468 urte bitartean izan zana.

Gaztelako amiralgo nagusi baten alabea izanda eta gazte gazterik ama-bage geratuta, andinai edo ta andi-zale, buru arin, buru-gogorreko maiñatsu edo apetatsu ta sutsuzko agintzaillea zan andre au, bere senar II In Juaneri ainbeste okerkeri egiten lagundu eutsone.

1.444-1.445eko urtean bigarrenez ezkontzen zan Aragoi ta Nafarroako II In Juanegaz ezkondu zan, eta euki zituzen seme/alaba, oneixek izan ziran:

1.452an Epaillaren 10ean, Aragoiko legeakaz adoz egoteko, ia denbora barik edo ta doitasunezko denboran elduta Nafarroagaz muga egiten dauan Sos'eko erritxoan (gaur Errege Katolikoaren Sos erria deritxonai) jaio zan, gero katoliko ez izenarekin esagutuko zan Aragoiko II In Fernando eta Gaztelako I Isabelekin ezkondu ta Vn Fernando lez.

Eta 1.455eko urtean Juana, Aragoiko II In Fernandoren sasi-lengusu eta Napoleseko I Fernandoren izenagaz ezagutu zanakin ezkondu zana.

## Enrikeztar Juanaren zeregiñak erregiña lez.

1.458ko urtean Aragoiko Vn Alfonso il zanean ondorengo barik, bere anaia eta orduan Nafarroako errege izan zana izendatu eben Aragoiko errege II In Juanen izenagaz, eta Juana, Nafarroako erregetzan naita lapur edo ta guzurrezkoa izanda eta Aragoien benetakoa, erri bi orre in erregiña lez agertu zan.

Juana sutsuzko ekintza baten agertu zan beti, bere gizonaren lenengo ezkontzako seme nagusiena ta Nafartarren benetako errege izan zan IVn Karlos Bianako Printzearen aurka, eta geiago, Juanak jakin ebenean bere semearentzat gura eben emaztea, Gaztelako IVn Enrikeren arreba I Isabelekin ezkontzeko, Karlos aurreratutako alegiñ sakonetan egoala.

Enrikeztar Juana au, ez zan geratuko iñoz, IVn Karlos, II In Blanka, eta irugarren alaba Leonorregaz, ezkontza bidez bere arduraren ordezkako seme/alabak ziranak eta Nafartarren erregetzan ondorengo lez benetako errege erregiñaren aurka, arik eta euegandik pozoituta, lenengo biak il ebezan arte.

1.461eko urtean IVn Karlos il eben ostetik, Juana bere seme Fernandogaz, onek 11 urte eukezala, Barzelonara joan ziran errege orde lez, Fernandoren 11 urte orreikaz al izan ebelako Aragoien ondorengo izan eta tituludunezko errege Nafarroan.

Juanak, bere senar II In Juaneri laguntzen Kataluñako jabetza lortu egian, aurka ipini ebazan erritarrak Kataluñako Generalitatearen jauntxoakaz, eta remensako payes nekazari eta jauntxuen artean asarre ori zabaldua, anai arteko borroka latza sortu eben, ain basati ta odoltsua izango zana katalanarentzat.

IVn Karlos pozoitzeko agindua emon ebalako salatuta, Jeronako gotzai ta remensarenaren gaztelura joan ziran babesaren billa, an Aldundiko gudaloztearen erasoari eutsi bearrean agertuta.

Juana andre onen amets aundiena, bere seme Aragoiko II In Fernando, Gaztelako I Isabel erregiñagaz ezkondua ikustea zan, eta 20 illabetegaitik ez eban ikusi.

1.468an Otsaillaren 13an Tarragonako Urian il zan bulerreko min-biziaren gaixorekin Enrikeztar Juana au, eta bere ostean biziko ziranentzat, matrakarako ainbat bide zabalik itxi ebazan.

### **Nafartarren Bianako Printzea IVn Karlos.**

1.421ean Lorailaren 29an Balladolizeko lurraldean eta Peñafeleko Urian jαιο zan Bianako Printzea izango zan Nafarroako IVn Karlos au.

Beren ama Nafarroako erregiña I Blanka, eta aita Aragoiko erregearen seme txikerra II In Juanen semea zan.

1.423an Urtarrillaren 20an IVn Karlosen aitite III In Karlosek, bere billoba jαιο ta urte bi beranduago Bianako Printzerria sortu eban, iñoren arazo barik Karlos gaztea, Nafarroako errege eskubide guztiekaz izan edin.

Eta barregarria dana, nor eta bere aita, Aragoiko II In Juan izan zana izatea IVn Karlosen erregetzazko bide ta eskubide guztiak, moztu egingo eutsozanak.

Zeozar jakin ote eban III In Karlosek ?.

Oliteko erregetzaren jauregian asi ta bere azkuntzaren jakintasunezko arlo guztiak bete zituzan: bost izkuntz ondo ikasita, gizabidean, eraman onaren arloan, gudarako buruzagi ta zaldunezkoa izateko, erregetzaren jaurkintzarako, elerti ta eder-lanetan trebea ta jakintsua izateko, bitartean arraunlari, eizan ta zaldi gaiñean ibilteko ardura andiko ikaske-tarekin bete ebazanak, gazte paketsu ta jakituna izateko.

Aberetasunaren zaletasun aundia euki eban, mota askoko abel-baratz aundi bat euki arte, eta soiñu-zale aundi bat be, berak bere maniura edo arpa ta kitarrea joten ebazenen-zako eresziatik idazten ebazalako.

1.427ko Dagonillaren 9an Nafarroako gorreak, ostera ziñez itza emon eutsen Bianako printzeari Nafarroako erregetzaren ondorengo lez.

1.439an Iraillaren 30ean Klebes' tar Ines, Klebeseko I Adolfo Dukearen alaba ta III In Felipe Borgoñako Dukearen loba zanarekin ezkondu zan IVn Karlos 19 urte zituzela.

1.441ean Lorailaren 1ean IVn Karlosen ama I Blanka il zanean, bera geratu zan Nafarroako erregetzaren ondorengo Bianako Printze lez eta bere aitite III In Karlosek Franzian irasitako Nemours'eko konderraren jabetasunagaz.

Zoritxarrez baiña, IVn Karlosen amak bere azkenaiian, baldintzazko aolku bat emoten eutson Karloseri: "Erregetzazko izenik ez egiela artu, arik eta bere aitak bere bedeinku ta baimena emon gabe" IVn Karlosek, erregetzaren ordezkotza bakarrik artuta.

Amak, gogamen onegaz uste eban, bakeak lortuko zituzela aita ta semearen artean, azken baten eziñ-ikusiarren ta elkartu-eziñezko gorroto-bizi baten geratu zana, bata nor-tasunaren legez eta bestea norkeriz, biak sinistu egiten ebazan eskubideetatik ez ebelako urten gura.

E

Nafarroako erregeña I Blankagaz ezkondu, eta bere bizi-lagun lez bizi zana Aragoiko I Fernando erregearen seme ta Gaztelako I Juan erregearen biloba II In Juan onek, ia bere gaztetako denbora guztia iraun eban Gaztela aldetik borrokan, Aragoitarrak gaztelanian ondorengo jabetasunean euki zituzen lurraldeagaitik.

Ez gitxiago Gaztelako gortean euki gura eben erapenagaitik, lenengotan lortu ebana arik eta Luna 'tar Albarok Gaztelako jaurkintzan goi maillako agintaritzara igon arte.

Nafarroako erregeñaren bizi-lagun II In Juan onek, bere matxin-zale edo ta errinaslearen bere betiko zeregiñekin ibilita ez eban lortu, leku guztietan gorrotogei edo gorrotogarri izatea baiño: "Gaztelaniako gauza guztietan esku-artzeagaitik borroka ugari, Aragoien bere erritar eta lurraldeak guztiz jaramon egin barik euki ebazalako danak asarre, Kataluñan anai arteko guda luzeak, eta Nafarroako erregetzan, beste biak ordaintzeko, bertako dirutik ordaindu egiten ebazalako eukezan erregekerizko andinaien bidetik, anai arteko guda ugari".

1.447an IVn Karlos eta bere aita II In Juanen artean, gogortu egin ziran euren arteko gorrotoak, eta geiago, Nafartarren gortekoari ezer esan-gabe eta onen asarre bizian, II In Juan aita, Gaztelako erregearen sasikumeko adarretik etorten zan Enrrikez eta Fernandez de Kordoba 'tar Juanagaz Kalatayuz 'en ezkondu zanean.

1.448an Jorraillaren 6an II jakon IVn Karloseri 27 urte euki zituzela bere Klebes 'tar Ines emaztea, 9 urte ezkondu gero, ondorengo seme/alaba itxi barik.

Gaiñera Juana onek, bere aita Enrriketar Fradike Gaztelako amiralgoren laguntzarekin, bere senarra II In Juan bakera bideratu barik eta berari, Fernando katolikuaren izenagaz ezagutuko zan semea emonda, *kuku txoriak egiten dauan antzera, Nafarroako abian egoan arrautza bota eta berea ipini gura eban*, bere ugazume edo seme-ordea Nafarroako IVn Karlos, Nafarroako erregetzan "Sarkoi"<sup>(1)</sup> bat izan bazan lez erabilita.

Juana berak bultzatu eban bere senarra II In Juan, Nafarroan benetako erregea zanaren IVn Karlosen aurka, bere seme Fernando Aragoi ta Nafarroako errege izan zedin.

Dana dala, Europa, Erdi Ugarte au eta beren Iparraldeko Nafartarrentzat batez be, orekaren ekandubako goibeltasunezko denbora ekaiztsuk izan ziran ezkontza orren bidez agertu ziranak, eta alan sortu zan gero etorriko ziranakaz.

Bianako Printze IVn Karlos onek, nai ta bere aitaren agindutara ipini bazan be, eta onek lege arloetan berak asmatzen ebazan arrazoiakaz, egitik urriñ ibilten zalako, gaztelatarrak eurak eskeiñi eutsoen II In Juan errege au, naita bere aita izan arren, Nafarroako erregetzatik botatea.

Gaztelar oneik baiña, IVn Karloseri argi ikusiazko egiten dautesoe: "Eurak ez zirala borrokatzen Nafartarren aurka, II In Juan arrotza Nafartarren erregetzatik botateko baiño", eta IVn Karlos alegintzen dabe, bere ekanduzko egilletasunaren sorburutik, kendu edo aldendu egiezala, bere aita II In Juanen lapurtzazko asmakizunak.

1.451n Iraillaren 8an sinatu eben IVn Karlos Naparra, II In Juan gaztelatar erregearen seme Asturiaseko Printzea ta Albaro de Luna kondestableak, Aragoiko II In Juan Nafarroatik botateko elkargo orren agiria, beaumontesen alderdia IVn Karlosen alde kokatuta, eta onek euki zituzen nafartar gudalozteak I Leringo Kondearen agindutara ipinita, eta gudalozte biak borrokatu ziran garrantzi andiko ondorio barik.

II In Juanek bere agintaritzari indarra emoteko, bere emazte Enrriketar Juana bialdu eban Nafarroara, gortearen jaurkintza bere seme IVn Karlosekin batera eroan egien, Juana onek baiña, bere agindu-naiaren eraso gogorrekin ibilita, beaumontes-nafartarren gorroto eta ezin-ikusit biziak beren aurka sortu ebazan, eta Nafar ta gaztelatarrak IVn Karloseri esan eutsoen, ordua zala II In Juan errege maltzur ori Nafarroatik atarateko.

Beaumontarrak Juana inguratu eben Lizarrako jauregian, baiña laster askatu bear eben ingurutasunori, II In Juan bere gudalozteakaz agertu zalako.

(1) Sarkoi bat lez = atzerritar bat izan bazan lez.



E



1.452ko urtean aurkeztu ziran Aibarren gudalozte biak borroka latz baten, eta IIn Juanek Aragoi, Frantzez, eta Nafar Agramontesaren laguntzarekin garaipenduta, bere seme IVn Karlos Tafallako gazteluan atxilotu eban, gero Tudela, Mallen eta Monterrey ta Saldubako gazteluetatik ibili ondoren, atxilotutako azkeneko toki onetan 20 illabete bete zituzen IVn Karlosek.

IVn Karlosek atxilotasunetik urteteko, bere aita IIn Juaneri esan eutson, aurrerantzean berak ez ebalá errege titulorik artuko bera ilten zan arte, eta onek aske itzi eban.

1.452an Epaillaren 10ean jaio zan Aragoiko Fernando, gero katolikoa izango zana.

1.453an Bagillaren 23ko asken egun arte ez eban askatuko IIn Juanek bere seme IVn Karlos euken atxilotasunetik.

IIn Juan erregea gogaituta, bere suin Foix'eko Gaztonekin ordurarte IVn Karlosen alde egon zanagaz, erabagi onetara eldu ziran, bere seme IVn Karlos Nafar erregetzaren ondorengotzatik kendu eta Leonor IIn Juanen lenengo ezkontzaren alaba txikerrena bere zena Gaztonekin batera, Nafarroaren erregetzan leen ondorengotzan ezarri.

IVn Karlosek Lizarran egin eban askeneko alegiñia bere aitaren aurka, eta galdu ondoren, Iruñia, Paris eta Erroman Aita Santu IIIIn Kalixtogaz egonda, Napolesera joan zan bere maitasun aundian euken osaba Vn Alfonso "Biotz Andikoa" esaten eutsoenaren babesera, 1.457ko urtean elduta, eta Vn Alfonso au, bere loba IVn Karlosegaz lilluratuta eukezan gizon itxura ta jakintzagaitik, beren Napoles eta Siziliako ondoengoa izendatu eban.

1.457ko Epaillan Beaumont 'tar Juan, Nafarroako jaurlaria Bianako Printzearen ize-nean, Iruñian batzartu ebazan gorteko arduradunak, eta oneik IVn Karlos aldarrikatu eben Nafar errege lez.

Eta 1.457an Bagillaren 26an Napoleseko errege Vn Alfonso, IVn Karlosen osaba ta IIn Juanen anaiak, IVn Karlos aldarrikatu eban Aragoi, Balenzia, Mallorca, Zerdeña, Sizilia eta Kataluñiako printzerriaren errege lez, bere aita IIn Juanen ostean, Napoleseko erregetza IIn Juanen seme Fernando Kalabriako Dukearentzat itxita.

1.458ko Bagillaren 27an il zan Vn Alfonso Aragoiko erregea, eta bere aita IIn Juan Aragoiko errege koroatu ebenean, onek IVn Karloseri Napoles eta Siziliako koroak emon eutsozan, IV Karlosen bake aldiak amaituta.

IVn Karlosek, bere osaba ilda, Napolesetik Siziliara aldatu zan, eta egon zan urte oso baten bitartean, Portugaleko erregeak bere arreba Katalina eskañi eutson IIn Juaneri bere seme IVn Karlosekin ezkontzeko, ez zana aurrera joan.

1.458an Uztaillaren 15ean IVn Karlosen aita IIn Juanek, Aragoiko erregetza artu eban bere agintaritzan.

1.459an 38 urte euki zituzela eta bere aitagaz adizkidetu ondoren, osterá etorten da Nafarroara, eta Beaumont 'tar Juanen bidez alkarrizketak asten dira IVn Karlos, Gaztelako

IVn Enrike erregearen 9 urteko ugazarrebagaz <sup>(1)</sup> ezkontzeko, gero I Isabel katolikua izango zanarekin.

Denbora onetan ia batera, Portugaleko erregeak, IIn Juaneri eskañi eutson bere arreba Katalina, IVn Karlosegaz ezkondu egien.

1.459ko Uztaillaren 23an IVn Karlosen gogoan, bere aita emendik aurrera seme bat lez ondo artuko ebalá, Siziliatik urten da, Kataluñiaren Salouko itsas-portuan lurreratu zan.

IVn Karlos bere aita IIn Juanegaz euren politikako gauzatan alkar egonda, Karlosek aitari eskatu eutson, Gaztelako 9 urte zituzen Isabelegaz ezkontzeko euki eban egitarau edo montioa aurrera eroan egiela.

(1) Ugazarreba = hermanastra.

1.459an Dagonillaren 28an IVn Karlos itsasora urtenda Mallorkara joan zan, Palmako Eleiz Nagusiaren ondoan egon zan Almudaina errege jauregian, erritarren poz eta su-gurpill pesta-bidez kokatuta, gero baiña aitak, Felanitx'eko aitz gaiñean eginda dagoan SANTUERI eta San Salvador Santutegiaren urbil dagon gazteluan atxilotuta lez euki eban.

IVn Karlosek, emen euki ebezan Margalidagaz bere laztakerizko artu emonak.

1.459an Urrillaren 28n eguna baiño ariñago, IVn Karlosek oartu zan Margalinda aurdun geratu zala, eta Mallorkako jaurlariari idatzi utson eskutitz bat gertakizun orreikaz arduratu zedin, eta denbora baten barru, IVn Karlos jakin ondoren Mallorkako agintariak bere ardurak bete zituzela, eskutitz au idazten dautse: "Agradecemos mucho lo que fecho haveys en recomendación de MARGARITA, la verdad de la cosa mostrara lo que haveys sentido de ella ser prenada".

1.459an Azaroaren 22an IVn Karlos bere 38 urtegaz Santueriko gazteluan atxilotuta egon zala, bere aita IIn juaneri eskutitz bat bitartez parkamena eskatu eutson, aitak emon eutsona.

Eta 1.460an Epaillaren 20an IVn Karlos bere aita IIn Juanegaz, Bartzelonan aurkeztu zan.

1.460an Epaillaren 28an Baldonzellako lekaidetxean, Bartzelonako aolkulari nagusien gandik onartuta, Epaillaren 31n Bartzelonan agintari lez sartu zan.

IVn Karlos Loraillan alkartu zan bere aita ta amaordegaz Iguialadan, eta ostera aurkeztu eutson bere aitari Gaztelako Isabelegaz ezkondu gure ebala.

1.460ko Bagillan, IVn Karlos eta Margalindaren seme Kolontar Kristobal semea jaijo zan.

1.460ko Abenduaren 2an IIn Juan, bere seme IVn Karlosegaz Leridan egon ondoren, oartu zanean zelako garrantzi aundiak eukiko ebezan I Isabel IVn Karlosekin ezkontzeko gora beran Beaumont'tar Juanek Gaztelako IVn Enrikegaz euki zituzen elkarrizketak, IIn Juanek I Isabel, bere 7 urteko Fernando semeagaz ezkondu gura ebalako, eroaldi gogor bat emon baeutsen lez, bere seme IVn Karloseri atxilotzeko agindua emonda, lenengo Lerida, Aitona, Fraga, Zaragoza eta askenez Mirabent ta Morellako espetxetatik ibilita, txorakeri onen ondore, Kataluña ta Nafarroako erritar guztiek IVn Karlosen alde matxinatu ziran.

IIn Juanek ez eban askatu gura, IVn Karlosek ez ba ebezan Aragoi ta Nafar erregezko izen-buruak ukatzen.


Eta 1.461eko Otsaillaren 8an Kataluña osoa matxinatuta, eta matxinatuak IIn Juan ta bere emazte Juanaren atzetik ibilita, larri aldendu ziran oneik, euren eskuetan jauzi ez egiteko.

1.461ean Otsaillaren 25ean IIn Juan bildurrez, IVn Karlos aske itzi eban erritarren poz aundiagaz.

Beaumont'tar oneik IIn Juan erregetzaren aurka matxinatuta, eta IIn Juanek Frantziko XIIn Luiseri beti lez laguntza eskatzen eutselako, IIn Juanen zorrak 200.000 urre-gorritzko otxin edo dolbaraiño igon eben, eta Frantziko XIIn Luisek Rosellon ta Zerdeñagaz geratu zan zorraren baitura lez.

1.461ean Epaillaren 12an IVn Karlos Bartzelonara eldu zanean, erritarrak goratzarrezko ongi etorri andi bategaz artu eben, eta ikur bat lez geratu zan katalan ta baita beaumontar Naparrentzat, IIn Juan errege lez baztertuta, Rosellon ta Zerdeña, diruagaitik baituta itxi etutsozelako Frantziko errege XIIn Luiseri.

1.461eko Bagillaren 21ean IVn Karlos, Penedeseko Billafrankan egin zan elkargoagaz, eta IIn Juanen seme nagusia izanda, Aragoi ta Kataluñan matxinatutako erritarrengandik ondorengo errege lez artu eban, eta Kataluñaren betiko ordezeko lez sinatu eban.

 Euskerazaintza



I Isabelekin ezkontzeko alegiñean IVn Karlosek, Gaztelako errege IVn Enrike Isabelen neba-orde edo ugaznebagaz asi ebazan alkarrizketak ostera, baiña II In Juan bitartean sartuta, ezereztu ebazan ongune orreik.

### **Eta emen oartxo bat lez esan bear dot.**

Katalanak, II In Juanen seme IVn Karloseri egindako gorazarrezko ongi etorri oneik bere baimenik gabe, II In Juan asarratu ebal ezin besterarte eta IVn Karlos bere aita ta amaordeari belauniko eta lotsatasunezko izaera aundiñean parkamena eskatuta, baita danok pozik eta batera Bartzelonara joan, bertan egon ziranean, II In Juanek, IVn Karlos bere lagun eta berritzaile ona zanakin batera atxilotu ebezala.

Atxilotasunezko bidetik, borroka sortu zan eta II In Juan astiñaldi ederra artuta, Nafarroara joan zan, bere emazte Juana, Kataluñako agintari lez itxita.

Juana izan zan, gero IVn Karlos atxilotuko ebena Mallorkako Felanix erritxoan, atz-gaiñean egindako Santueri gazteluan, eta inguru areitan egon zan etxalde gorriko Kolontar Juanen sendia ezagutu ondoren, bertan Margalida alabeagaz sortuko zirala Kolonen jaiotza erazi eben gertakizunak.

1.461eko Iraillaren 21ean, IVn Karlos eta beragaz euken barritzaile lagun aundia, biak larritasun aundiz gaisotu zirala batera.

Eta 1.461ean Iraillaren 23an IVn Karlos, 40 urte, iru illabete eta 26 egun euki zituzela il zan, bere berritzaile lagun ona, urrengo egunean Bartzelonako errege jauregian il da, IVn Karlosen ama-orde Enrikeztar Juanak, biak pozoituta.

IVn Karlos bere goi maillako jakintasunean, bost izkuntz, musika edo ta eresi arloetan jakin sakonak, edestilari ta elerti-zalea zan, bai Aristotelesekin idatzi ebazanek ekandu edo etikazko arloan gaztelaratu be, Nafarroako erregearen kondaira, Exzelsiseko San Migel lekairtxeko mirariaren kondairak, eta elerti arauzko idazki bat beste askoren artean, euki zituzen.

(E)

### **IVn Karlosek euki zituzen seme/alabak.**

1.439ko Iraillaren 31n ezkondu zan Klebeseko Inesekin, eta 1.448an il zan seme alabarik euki bage.

Ez zan ezkondu geiago, naita Gaztelako IVn Enrike erregearen I Isabel katolikua izango zanaren arreba ordeagaz, montio edo asmo batzuk egin arren.

II In Juan eta bere emazte Enrikeztar Juanak, asarre aundiekaz ezereztu egiten ebena, Isabel neska ori euren Fernando semearentzat gure ebalako, IVn Karlosentzat Portugaleko I Eduardoren alaba Katalinagaz ezkontzeko alegiñetan ibilita.

IVn Karlos Bianako Printze onek, emakumezko maitale batzuk euki zituzen: 30 urtekin, Armendariz´tar Maria, bere arreba Leonorren neskamea zana, eta beragaz ezkonduko zala seme bat emoten ba eutson, esaten eutsonai.

-Baiña neska bat euki eban: Nafarroa eta Aragoiko *Ana*, 1.451-1.477 urte bitartean bizi, eta De la Bega ta De la Zerdatar Luis Medinazeliko Vn Konde eta I Dukeagaz ezkondu zana.

Napolesen egon zanean, Bega´ko Baka´tar Brianda andre ederragaz, ta bere bizi guztian Bartzelonan il arte lagunduko eutsonakin maitemindu zan, beragaz seme bat eukinda:

-Felipe, 1.456-1.488 urte bitartean bizi zana, Beaufort´eko Konde ta Palermoko gongotzai edo artx-apezpikua izango zana, askeneko lan au ez ebena beteko, Bere osaba II In

Fernando katolikuak Montesako nausigo edo zaldungo <sup>(1)</sup> ardurak bete egiezan eskaiñi eutsolako, eta Kordoba moruetatik berrezkuratzeko egonda, bertan il zalako.

Beste seme bat be Nafarroan bertan:

Nafarroako Juan Alfonso, San Juan de la Peñako lekaretxearen apaiz-buru zana.

IVn Karlos ilteko larrian egon zanean eta De la Bega'ko Briandarekin ezkontzeko, lagunak, bere Felipe semea ondorengo lez izendatu egian ibili ziran, baiña bere arreba IIn Blankari iztea erabagi eban, ume ori ondorengotasun orregaz, anai guda gorri baten erdian kokatzen ebalako.

Sizilian, Kappa neskatxo xume bategaz be, euki eban beste seme bat: Juan Alfonso, 1.459-1.529ko urte bitartean bizi zana, eta San Juan de la Peñako lekaretxearen apaiz-buru izanez gain, Ueskako gotzaiña be izan zana.

Bere serbitsuan egon zan beste neska bategaz be maite mindu zan Sayas'tar Giomar, beti urbil euki ebena.

Baiña guri arduratu egiten dauskuna, IVn Karlos Mallorkan egon zanean, Felanitzeko errian Anjoutar Renatoren serbitsura egon zan Kolon'tar Margalidarekin, 1.460ko Jorrai-Ilan euki eben semea da, Verd ta Martorelltar Gabrielen esanetatik, Amerikako lurralde zabalak azaldu edo argitan ipini ebazan Kolontar Kristobal izan zalako.

Eta Kolontar Kristobal iziltasunezko ongunde ori egon zalako, iñork ez ebalako aipatzen, beste edestilari batzuk: "IVn Karlos egi zalea izategaitik, ez zala ostonduka ibiltan zan gizona, eta ori kontuan eukinda, aur-galdu edo ta jaio barritan il zala ume ori esaten dabe, naita IVn Karlosek euki zituzen seme alaba guztietatik, lau ontzat artu zituzenetik, jakinda Kolon'tar Kristobal euren artean egon zala.

Baiña ez dabena esaten, Margalida bera zelangoa zan gauza orreikaz, eta nortasunaren arloan zelango zentzunagaz bizi zan berak egiten ebazanakaz, il edo ta bizi bazan ume ori guk jakin daigun.

Edo ta Kolon, bere ama Margarita judu ondorengotzatik agertu ezkeru, IVn Karlosen semea izanda, iruditu geinkez orduko denboratan sortuko ziran arazo gogor ta larriak, adibidez: Kolontar Kristobal, Fernando katolikuaren ugazanaia zala esaterakoan ?.

Pozoiak errez ibiltan ebazan denbora aietan, eta laster konponduko ebezan arazo orreik, alango izkutuzko itzarmen gogor bategaz ez ba-ebezan isilduten.

1.461ean Iraillaren 23an Bartzelonako errege jauregian egon zala il zan IVn Karlos 40 urte 3 illabete eta 26 egun euki zituzela, eta bere jaunezko izen artean: "Jaiotzatik, Nafarroa ta Aragoiko errege semea zan, 1.423an bere aitite IIIIn Karlos biotz onekua, Bianako printze lez aurkeztu eutsen Nafarroako erritarrai, 1.439-1.461eko urte bitartean Gandiako Dukea, 1.458-1.461eko urte bitartean Biana ta Jeronako Printzea eta Montblank'eko dukea izan zan.

IVn Karlosen II-otoizketak, Bartzelonako Eleiz-Nagusian ospatu ziran, bere seme Nafarroako Felipe buru zala, eta 15.000 giza-semeen laguntzagaz.

Bere gorpua Eleiz-Nagusi orreitan egon zan illobiratuta 1.472ko urterarte, gero Po-bleteko lekaidetxera eroanda.

1.515eko urtean ango eleiztarrak "sainduetsi"<sup>(2)</sup> gura eben, azkenean baiña, ez zan aurrera eroan.

IVn Karlos, aitagaz euki ebazan eztaibadagaitik ezagutzen da geien, bere bizitzan olan sortu ziralako gauzak, eta atzeratuagoak izan ziralako Gaztela ta Aragoiko gorteari begitu barik, Frantziko gortera begituten eban, jakitunezko maillan gizon andia izanda, eta bai lan

(1) *Montesako nausigo edo zaldungo* = *maixugo edo ikasketarako arduradun nagusia*.

(2) *Sainduetsi* = *santificar*.



ederraren babesle aundi bat, bere aitagaz euki ebazan eztabaida gogor orreik, jakitasunezko gauza oneik illundu arren.

## IIn Blanka Nafarroako Erregiña.

1.424an Bagillaren 9an Oliten jaio zan Trastamara eta Ebreux´tar IIn Blanka.

Nafarroako erregiñaren I Blanka eta bere senar Aragoiko IIn Juan, orduan Peñafieleko Dukea zanaren ezkontzako bigarren alaba izan zan IIn Blanka, eta irugarrena I Blanka amak euki zituzen lau seme/alabetatik.

## IIn Blanka erregiñaren bizi kondaira laburra.

1.436ko Azaroaren 22an Majanoko onguneagaz 6 urteko guda amaituta, Toledon sinatu eben bakea Gaztela ta Nafarroako erregeak.

12 urte ebazan Nafarroako IIn Blankak orduan, eta Gaztelan gero IVn Enrike izango zanarekin gurasoakaz elkar adituta euren seme/alaba oneik ezkontzeko, Nafar erregeak gudan galdu zituzen gaztelu ta uriak berrezkuratu ebazan.

1.440an Iraillaren 16an Nafarroako erregiña I Blankak, bere alaba IIn Blankari 15 urte zituzela lagundu eutson Balladolizera, Gaztelako IVn Enrikerekin ezkondu zedin, eta 1.441eko Epaillaren 31n ezkondu ziran.

1.441ean Jorraillaren 1ean, IIn Blanka bere alaba ezkonduetako urrengo egunean il zan I Blanka Nafarroako erregiña, IIn Juan bere gizona Gaztelako lurraldetatik euki ebazan eztabaidak bakezten egoala.

1.453an Loraillaren 2an, Nafarroan IVn Karlos eta bere aita IIn Juanen artean anai arteko guda sortzen zan bitartean, IIn Blankak ezkontza barragarri bat eroan eban Gaztelako IVn Enrikegaz, onen esanetan: kaltegarritzko eragipenagaitik<sup>(1)</sup> edo itzalkeriaren indarragaitik, bien artean ez zala egon arremezko artu-emonik, berak bere emazteagaz barrendu-ezin<sup>(2)</sup> ebalako. Egia baiña, bere antxu<sup>(3)</sup> edo algabetasunagaitik izan zan<sup>(4)</sup> antza.

1.455eko urtean IIn Blanka bere neba IVn Karlosekin batera, euren aita IIn Juaneri, Nafar erregetzan euki ebazan errege/erregiñ izateko eskubideak eskatu eutsoezan, eta onek, ondorebage biak itxita, irugarren alaba 30 urteko Leonorren eskuetan itxi eban ondorego ori. Ekintza onegaz, Nafarroako beste anai-guda barri bat sortuta.

1.461ean Iraillaren 23an IVn Karlosek il orduko, beren azken naiak idatzi ebazan bere aizta nagusiena orduan IIn Blanka zanaren alde, 1.439an Otsaillaren 17an bere ama I Blankak idatzi eban baldintza bardiñekaz, Nafar erregetza ondorengo seme-alaba nagusien izatasunetik iraun egien beti lez.

1.462ko urtean IIn Blanka bakarrik eta bere aitaren naikerizko aginduan Oliten atxilotuta egoala, IIn Juanek Frantziko XIIn Luisekin Agurainen batzartuta egon zirala, alkargo bat egin eben, IIn Blanka 38 urte eukezala, Frantziko XIIn Luis´en 16 urteko Karlos seme txikerra Berri´ko Dukea izan zanagaz ezkondu edin, eta IIn Blankak ezetza emon eban lez, bere aita asarre, alaba txikerra Leonor eta Foixeko IVn Gazton bere suiñen agin-  
dupeko Monkadako dorrean atxilotzea erabagitzen dau.

1.462an Jorraillaren 12an IIn Juanek Oliten, bere alaba Leonor eta bere senar Gastonekin sinatu eban alkargoan, Leonor itzi eban bere ondorengo lez.

Eta orretarako IIn Blanka benetako erregiñaren eskubideen gaiñetik egin bear ziran lez gauza orreik, bereala asi ziran azpikeriz bere ilketa antolatzen, IIn Juanek bere suin Gaston eta alaba Leonorren zainpean osterata atxilotu egien aginduta.

(1) Kaltegarritzko eragipenagaitik = *influencias malignas*. (2) Itzalkeriaren indarragaitik = *por la fuerza de la mala influencia*. (3) Antxu = *esteril, agenèsiko*. (4) algabetasun edo ezintasuna = *impotencia, falta de potencia*.

1.462an Jorrailla´ren 23an II In Juanek aginduta, Mosen Pierres Peraltakoak II In Blanka mendi ostera atzilotuta eroan ebenean eta Orreagako lekaretxean egon ziranean, Blankak, idatzitako aldarrikapen bat egin eban: "Beren Nafar erregetzaren eskubideak ezereztu naian bere aizta Leonor eta Fernando bere ugaz-nebaren mesede, bere borondatearen aurka eroaten ebalu eroaten eben lekura".

"Eta olan izan ez balitz, arduradunak baliobage itzi dagiezala beren salaketa orreik, olango zeozer egiterakoan, bere borondatea, Gaztelako errege IVn Enrike bere lenengo senarra zanaren zainpean iztea zalako euki ebazan eskubideak".

1.462an Jorraillaren 30ean II In Blankak Saint-Jean-Pied-de Port´en idatzi eban azkenai ori, len bere senarra izan zan Gaztelako IVn Enrikeren alde.

1.462an Jorraillaren 30ean II In Juan bere aita asarre, alaba txikerra ta II In Blankaren aizta zana Leonor eta onen senar Foixeko IVn Gastonen gazteluan Monkadako dorrean atxilotzea erabagitzen dau.

Dana dala, Leonor jaio zanean, aitaren tresna biurtu zan beste seme/alaba IVn Karlos eta II In Blakaren aurka egiteko.

Eta 1.464ko Abenduaren 2an il zan II In Blanka bere aizta Leonorrek pozoituta Frantziaren Orthez´eko urian Monkadako dorrean II In Juanen aginduz. Leskarreko Eleiz Nagusian obiratu eben.

## Foix´eko I Leonor Nafarroako Erregiña.

1.425eko Dagonillaren 22an Nafarroako III In Karlos erregearen Juana, alaba nagusia il zan, eta Iraillako 8an III In Karlos bera.

Gertakizun oneik I Blanka kokatzen eben ondorengo lez, eta Nafarroako erregiña koroatu eben, bere senar Aragoiko II In Juan, ezkon-lagun lez errege koroatuta.

1.426an Otsaillaren 2an Oliten jaio zan Ebreux eta Trastamaratar Leonor, Nafarroako I Blanka eta Aragoiko II In Juanek euki zituzen lau seme/alabetatik, alaba txikerrena izan zana.

Eta bere anditasunezko izenaren artean, 1.426-1.479 urte bitartean Nafarroa ta Aragoiko errege/erregiñaren alaba, 1.462/1.472 urte bitartean ezkontza bidez Foix´eko Kondea, 1.462/1.479 urte bitartean Jaurlari lez, eta Nafarroako erregiña lez 1.479ko Urtarrillaren 28tik Otsaillaren 12rarte.

Leonor, bere aita Aragoi ta Nafarroako II In Juanen alaba kuttuna izan zan, II In Juanek bere maltzurkeriak beste seme/alabaren aurka eroateko, panpiña bat lez ibili ebalako.

1.427an Dagonillaren 9an lortu eben II In Juanek, Leonor Nafarroako errege/erregiñaren zerrendan, IVn Karlos Bianako Printzea eta II In Blanka neba/arrebaren ostetik ezartzea.

1.434ko urtean I Blanka eta II In Juanek, Foixeko IVn Gazton Kondearekin itzarmendu ziran euren alaba Leonor txikerrenagaz ezkondu zedin.

1.436an Uztaillaren 31an onetsi eben ostera I Blanka eta II In Juanek itun ori, Leonorrek Aragoi aldetik 50.000 florin ezkon-sari lez artuta, Miranda, Larraga eta Falzes´eko Uriaren kontura.

1.442ko urtean, I Blanka ama il eta gero ezkondu ziran eleizatik Leonor eta Bearn´eko IVn Gazton. Leonor bere senarrakin ortik aurrera, Bearn´era bizitzen aldatuta.

1.455eko urtean II In Juanek, bere seme IVn Karlos eta II In Blanka alabea Nafarroa eta Aragoiko erregetzari buruz, ondorengogabetasunean itzi ebazanean, Leonor 30 urte euki zituzela, bere aita II In Juanen panpiña izatera aldatu zan, onek bere beste seme/alabaren aurka egiteko, itxura orreitan ibili ebalako.



Ⓔ

II In Juanek, erregearen ondorengo lez, Leonor eta bere senar IVn Gazton izendatu ebazan.

Gauza oneik Nafartarren anai arteko borroka gogorrak sortu ebezan, erreñuko jaurkintza oso latz bihurtuta, eta eskerrak Martin eta Peraltako Pierres agramontesei, auek izan ziralako Nafarroako jaurkintza zuzendu ebenak.

1.462an Jorraillaren 12an Oliten II In Juanek, Leonor bere alaba eta bere suin IVn Gazton kondeagaz, elkarpede bat egin eben, eta bertan siñatu, zelan II In Juan Nafarroako errege lez onartuta, berak bere aldetik onartzen ebala bere alaba Leonor, Nafarroako erregetzaren ondorengo lez.

Ongune onek eskatzen ebena: 1.461eko Iraillaren 23an IVn Karlos Bianako Printzea bere ugazama Juanak pozoituta il ebenetik, Leonorren aizta II In Blanka ikusmenetik kentzea, eta lazter antolatuko eben onen pozoitasuna, Berarn'en Foix konderriko gazteluaren Monkada dorrean 1.464ko Abenduaren 2an egin ebena.

Ekintza orren ostean Leonorrek, Nafarroako erregetzaren ordezkotza bere izenean lortu eban.

1.465eko urte onetan Leonorrek, gudako eten bat siñatu eban beamontesarekin, eta bere jauntzazko izenetan eroaten ebazan izenburuak: Nafarroako erregetzaren ondorengo leen printzea, Aragoi eta Siziliako erregearen alaba, Foix ta Bigorrako Kondesa, Bearneko Andrea, eta bere aita II In Juan Nafarroko erregearen, orokorrezko ordezkoa izatea, izan zian.

Aita II In Juan eta alaba Leonor biak lapurrak zirala ta, batak edo besteak aukerea bakarrik lortu bear Nafarroako erregetzagaz geratzeko, eta 1.462ko Jorraillan Oliten Leonorrek ez ba eben siñatu II In Juan errege izateko ongundea, Leonor bera izango zan Nafarroako erregeña, eta ez ziran piztuko, Leonor beamontesarekaz lagun eta II In Juan agramontesarekin piztu ziran borrokak Nafarroako erregetzagaitk.

1.467ko urtean Leonor bere beaumont' tar kondestablearen alegiñ bidez, geldiune bat egin eban II In Juanen agramontesekin.

1.468ko urtean II In Juanek, Leonorren lenengo aolkulari eta Iruñako gotzaiña Txabarritar Nikolas il eban, gero Leonor bera, beren erregetzaren orokorrezko ordezkotzatik kenduta eta ardura ori Leonorren seme Gaztonen eskuetan itzi ondoren, eztabaida orren nasketak azken muturraren mugaraiño elduko ziran.

1.471n II In Juanek osterata itzuli bear eutsoezan Leonorren bere ordezkotza ardurak bertirako, naita, II In Juanek Leonorren ipini eutsozan Aragoiko eskubideetatik alde egiteko baldintzak, balio aundirik euki ez, borrokarren gogortasunak txikiagotzeko.

1.472an Uztaillaren 10ean il zan Leonorren senarra Foixeko Gazton Kondea, Bearneko gudaalozteakaz bere emazteari laguntzen joan zanean.

Nafartarrentzat aldikada oso txarra izan zan egoera au, Frantzia, Aragoi eta Gaztelatarak itxaroten egon ziralako, euren musturrak Nafartar erreñuan sartzeko.

1.472an Dagonillaren 2an saldukeri ta judaskeriak geiegian egon ziran lez, beamontes kondestable Trebiñoko Laratar Manrique kondea, Gipuzkoako oñazekoakaz alkartu ondoren, Nafarroaren mugetako, Lekunberri, Laiza ta Gorritiko gazteluak ezereztu ebazan.

Eta Leonor eskubideko erregeña eta Nafar erreñu osoaren ordezkotzako jaurkintzaren aginduan egoala, Leringo Kondeak, agiri gogor bat atara eban, San Juanen lekaidetxeko jaunna eta Luxako Juan beamontarrak, eriotzera eta ondasunaren baiturara zigortzen ebanak, ortik aurrera eta azkenerarte beaumont' tarrak Fernando katolikuaren aldera aldatuta.

Arifautik be, Nafarroako erregeak askatasunezkoak izan ba ziran be, saman beaumont' tarren lepokoa eroaten eben, Fernando katolikuak ondo baiño obeto erabilten ebana.

Nafarroako erregeak beste aldetik, Frantzian laterritasunezko jabetasunak euki ebazalako, Frantziako erregearen agindutara egon bear ziran. Eta geiago, oneik etenbako auzian ibiltzen ziran Foixeko leñuaren ondorengotasunagaitik.

Nafarroako erregetza orregaitik, Frantzia, Gaztela ta Aragoien arteko oreka larrian bizi izan bear izan eben beti, nafar erregetzaren eriotzea, oreka orreik apurtzen ziranean sortuta. Eta Fernando katolikua, Aita Santu IIIIn Pio, IIIn Julio, Xn Leon, VIIn Adriano, eta VIIIn Klemente maltzurkerizko gauza orreitan paregabeko maisuak izan ziran lez, 1.512an sortu zan, danak arifiautik jakin ebena sortuko zala.

1.479an Urtarrillaren 19an il zan IIIn Juan 82 urte beteteko euki zituzela.

Eta 1.479an Urtarrillaren 28an Leonor erregiña lez izendatuta, Tudelan egoala Otsailaren 12an il zan, 15 egun erregiña lez bakarrik bete ondoren.

Eta ilteko egon zala, bere neba IVn Karlosek euki ebazan eskubide guztiak eskatu ebazan bere semearentzat, bere ama I Blankak agindu eban lez.

### **Leonor eta Foixeko Gazton Kondeak euki zituzen seme/alabak:**

**Gazton** 1.444an Libournen jaioa eta 1.470ean Azaroaren 23an il, Bianako Printzea, eta Kastelboneko Konde ordea zana.

Frantziako Madalena VIIIn Karlosen alabeagaz ezkondu, I Febotar Franzizko ta Katalina seme alabak euki ebazan, biak Nafarroako erregetzaren ondorengoak izango ziranak.

**Pedro** 1.449an Otsaillaren 7an Pau'n jaioa eta 1.490ean Dagonillaren 10ean Erroman il zana, bere bizitzan Arles'eko artx-apezpiku ta kardinala izan zana.

**Juan** 1.450ean Etanpes'en jaioa ta 1.500ean Azaroaren 5ean il, bere bizitzan Etanpes'eko Konde eta Narbonako Konde ordea izan zana.

Juan au, Frantziko XIIIn Luisen arrebagoz, Orleanseko Mariarekin ezkondu, eta biok euki eben alaba Foix'eko Jermana, Fernando katolikuaren bigarren emaztea izan zan lez, IIIn Fernando katoliko onek gero, bere emaztearen eskubide orretatik eskatuko ebazan, Nafar erreifuaren eskubideak.

Emen, argi ikusten dogu, IIIn Fernando katolikuak alegiñ guztiak eginda, aukera ori be erabili ebala Nafarroako erregetzagaz geratzeko, eta emen ez daukie ezer ikusirik, espainiar aberriaren asmoak, Fernando orko aldetik sekula ez zalako ibili.

Gauza orreik, Zisneros, eta 325ean Nizeako batzar nagusian Erromako katolikotasunetik datozen Mundu osoko batzangoaren asmokeriakaz begitu bear jakie.

Or dagozelako fazitzaren erpe-nagusi zabal ta sakon orreik, mundu onetan, Europa, Asia ta Afrikan batez be menperatzeko alegiñetan, ainbat eta etenbako odoljariozko kalteak egin dabezanak. Eta ez arritu, oraindiño be, ortze dabizelako.

**Maria** 1.452ko urtean Karkasonan jaio eta 1.467an Kasalen il, 1.465ean Montferrateko VIIIn Gillermo markesagaz ezkondu egon zana.

**Juana** 1.454an jaio ta 1.476ean Otsaillaren 10ean Pau'n il zana, 1.469an Armañak'eko Vn Juan Kondeagaz ezkondu egon zana.

**Margarita** 1.458an jaio, eta 1.486eko Lorailaren 15ean Klisson'en il, 1.471ko urtean Bretañako IIIn Frazizkogaz ezkondu euki eben alaba Ana, Bretañako Dukea izanez gain, birritan izan zan Frantziko erregiña, VIIIIn Karlos, XIIn Luisen semea zana eta XIIIn Luis, Orleans'eko Karlos dukea ta Klebes'eko Ana'ren seme eta Frantziko erregeak ziranakin ezkondu egon zalako.

**Katalina** 1.460an jaio ta 1.494ko urtean il, 1.469an Foix'eko IIIn Gazton Benauges eta Kandaleko Kondea zanak ezkondu egon zana.


**Isabel** 1.462ean jaio eta 1.479ko ostean il zana, Guy Pons'eko Jaunagaz ezkondu egon zana.

**Ana** 1.464ko Urtarrillan Iruñian jaio, eta 1.464an Otsaillaren 3an Iruñian il zana.

**Leonor** 1.466an jaio ta 1.480ko urtean il, Medinazeliko Dukeagaz ezkondu baiño apur bat lenago.

E





*Jaime* 1.470ean jaio eta 1.500enean il, Kortés eta Monfort'eko Kondea, bere lengusiña Foix eta Peraltako Ana, "Mosen Pierres **Gaztearen**" alabagaz ezkondu lenengo aldiz, eta auek banandu ziranean, Lerin'eko Kondearen alaba Beaumont'tar Katalinagaz ezkondu zana.

### **Oar txiki bat.**

Gaztelako I Isabel eta Aragoiko II In Fernando katolikuaren bizi kondairak luzeak izango litzakezelako, IV In Karlos Nafarroako errege ta Kolon'tar Kristobal'ekin zer ikusi daukiezan zeaztunetaraíño bakarrik aipatuko dodaz.

### **Aragoiko II In Fernando katolikua.**

1.452an Epaillaren 10ean Enrikeztar Juanak, bere senar II In Juanen aginduz Nafarroaren Lizarrako gorteetatik IV In Karlos bere ugazsemearen jaurkintzazko eskubideak lorrinzen eta ume barri bat itxaroten egoala, berak gura ebalako edo ta Aragoiko legeak alan eskatzen ebalako, larri aldi bateko ariñeketa baten joanda, Nafarroakin muga egiten dauan Aragoiko Sos erri txoan eta euren senideko Sada etxean jaio zan II In Fernando "katolikua" deritxon elementu au.

Nafarroa eta Aragoiko II In Juan erregea bigarren ezkondu Enrikez'tar Juana'rekin, euki eben lenengo semea zan.

1.458an Uztaillaren 25ean Fernandok 6 urte eukezala, bere aita Aragoi ta Nafarroako erregeak, Montblank'eko Duke, Ribagorzako Konde eta Balagerreko jaun izenakaz jantzi eban.

1.461an Urrillaren 6an Bianako Printze ta Nafarroako erreñuan eskubideko errege zana eta Aragoien erregearen ondorengoa IV In Karlos, bere ugazama Enrikeztar Juanak pozoituz il ebenean, II In Juan bere senar eta Nafarroa ta Aragoiko errege, IV In Karlos eta Fernandoren aitak, 15 egun beranduago bakarrik, Fernando Aragoiko Katalayuzen, Aragoiko ondorengo errege izendatu eban, andik gero Kataluñara eroanda, katalanak ondo-rengo errege lez onartu egien.

1.462ko urtean II In Juanek, Fernando semea Kataluniaren jaurkintzan, beren Oroko-rrerzko ordezkoa izendatu eban.

1.468ko urtean II In Juanek, Siziliako errege izendatu eban Fernando.

Eta 1.462-1.472 arteko urteetan Kataluniako anai arteko gudan, Fernandok bere aita II In Juanek aginduta, Kataluñaren gorteko zeregiñakaz arduratu zan.

1.468ko urtean Fernandoren lengusua, Gaztelako IV In Enrike erregearen seme Alfonso il zanean, IV Enrike erregeak, bere ugazarreba Isabel artu eban ondorengo lez Gaztelako erregetzan.

1.469ren Urrillako urtean, II In Juan Nafarroa eta Aragoiko erregeak maltzurkeriz, Balladolizeko gortean lortu eban, bere seme Fernando, gero Gaztelako erregiña I Isabel ize-nagaz ezagutuko zanarekin, ezkontzazko onguneak siñatzea.

Eta maltzurkeriz esaten dot, ariñautik Fernando Patxekotar Juanen alabeagaz ezkontzeko, itzemanda egon zalako.

### **Jaun aundi guzti oneintzat, zer ote ziran LEGEAK ?.**

1.469an Epaillaren 5ean Aragoi eta Nafarroako II In Juan erregeak, bere seme Fernando Gaztelako I Isabelegaz ezkontzeko alegiñetan ibili zala, II In Paulo Aita Santuak ezkontza orretarako ez ebalako emoten baimenik, Karrillotar Alfonso artx-apezpikuak ariñautik il zan II In Pio Aita Santuen 1.464ko urteko bulda bat eskarniatu eban, I Isabel

E

eta Fernandok euki eben leen maillako senidetasunaren eragozpenak ezereztuteko, ta an egon ziranak jakin arren gertaera ori, Leridan Zerberako Urian siñatu zan ezkontzaren alkargo orren agiria.

Eta 1.469an Urrillaren 19an Balladolizen Biberoko jauregian ezkondu ziran Gaztelako I Isabel eta bere leen maillako lengusu Aragoiko erregetzaren ondorengo, Siziliako errege ta Geronako Printzea zan II In Fernandogaz.

1.471ko Abenduaren 1ean IVn Sixto Aita Santuak bulda bat agertu eban, I Isabel ta Fernando artean euki ebezan odolkidetasunezko debekuetatik, parkatu edo salbuetsi egiten ebezanak, Erromatik Borjatar Rodrigo, gero Aita Santua VI In Alejandro izenagaz izango zanak ekarri ebena.

1.474ko urtean baiña, Gaztelako erregetzan IVn Enrike il zanean, anai-guda sortu zan, I Isabel aukeratu ta IVn Enrikeren alaba Trastamaratar Juana "La Beltraneja" ez izenarekin ezagutzen ziran alderdikidearen artean.

Juana Portugaleko errege Vn Alfonso "Afrikanoaren" laguntza eukinda, onek Juanagaz ezkondu gura ebalako, Portugal eta Gaztelako erregetzak alkartu gurean.

1.475eko urtean Fernandok asko zirikatuta, Segobian Adizkidetasunezko batzarra ospatu zanean, lortu eban I Isabel euki ebazan eskubide bardiñakin Gaztelako "errient-kide"<sup>(1)</sup> izatea, eta ortik aurrera Vn Fernando izenagaz ezagututa, berak artu eban guda onen zuzendaritzazko ardura, 1.476an garaipena lortuta eta gero Santiagoren-maileko<sup>(2)</sup> diruaren zuzendaritza artuta 1.477ko urterarte.

Anai arteko guda au, Juana "La Beltraneja"ren ondamenakin amaitu zan.

1.476ko urtean katoliko errege oneik "Anaidi Santua" irasi eben.

1.478ko urtean gaztelanian inkizizio edo fede-zaindia sortu eben, Aragoien 1.249ko urtetik egon zan bardiñ antzekoa.

1.479ko urtean Alkazobasen egin zan itun edo elkargo bitartez, Juanak, Gaztelako erregeagaz eukezan eskubideari uztea erabagi eban, eta Koinbrako lekaretxe baten sartu zan.

1.479ko urte berean eta Urtarrillaren 20an Aragoi eta Nafarroako errege II In Juan il zanean, II In Fernando errege eginda, Aragoien emakumearen aurka "Salikako Legea" egon zan lez, I Isabel ezin eben "errient-kide" izendatu, Aragoien II In Fernandoren agintaritza bardiñagaz erregiña izan zediñ, eta Gaztelarrak txartat artuta, aurrerantzean Gaztelako agintaritzarako I Isabeleri garrantzi aundi edo aintzindaritza emon eutsoen.

1.480ko urtetik aurrera eta Aragoi ta Gaztelako gorteak antolatuta, zuzendaritzaren aginpidea<sup>(3)</sup> ipini eben, erregeak antolatzen eben erri ta lurralde guztietan.

1.481eko urtean Gaztelan, Zaldun agintariak bideratuta, Errege-Diruak antolatzen dira<sup>(4)</sup>.

1.481eko urtean errege katolikuak, Granadako moru-erregetzaren menpekotasuna lortu nai guda asi eben, eta guda onek euki eban bereizgarritasunezko arriskutik alboratzeko, Fernando katolikuari guda orren agintaritza kendu eutsoen.

1.492an Urtarrillaren 2an amaitu zan guda onek, ospe ta indar aundia emon eutsen errege katolikuari, *naita nire ustex geiago munduaren katolikotasunezko batzangotasuna beti lortzeko ibiltzen ziran eleiztarrai, ortik aurrera itxaropenezko baikortasun erak zabaldu egin zaielako erregearen agindu gaiñetik, euren izkutuko aolkularitzaren lan nagusi guztiak batzangotasun orreitarra bideratzeko.*

1.492an Epaillaren 3an erdi-ugarte edo peninsula onetatik, kanporatu egin ebazan ez ziran bateatuten Juduak.

(1) Errient-kide = corregente. (2) Santiagoren-Maileko = Orden de Santiago. (3) Zuzendaritzaren aginpidea = mandato del corregidor. (4) Errege-Diruak = hacienda real.

Eta Nafarroako erregetza be sartzen dabe Gaztelako jaurkintzan, Tudelan 1.476ko urtean egin zan ongunee bidez.

Eta Amerikako lurraren agerketak, gure Kolon'en ausardiagaitik.

1.492ko urtetik aurrera Fernando katolikua, naita bere maltzur izaeragaz danetarako almena euki, euki eben gaztelatar eskubidetik baiño, geiago asi zan begiratzen beren aldeko Aragoiko errege eskubidetik, eta Italia ta Afrikaren Iparraldeari ain zuzen be.

1.493ko urtean Bartzelonako ongundearen bidez, Frantzezaren eskuetan 1.463ko urtetik egon ziran Rosellon eta Zerdeña berrezkuratu ebazan.

1.495eko urtean Fernandok, Napoles eta Siziliako erreñuak Frantzezak eurenganatzeko egiten egon ziran alegiñak ezerezteko, "Biltzar Santua" antolatu eban, eta eurakaz lortu eban Napoles eta Siziliako erregeak botatea.

1.496an Abenduaren 19an VIan Alejandro Aita Santuak, Fernandoren bildur beren agintaritzazko lurraldeagaitik "Si Convenit" bulda atarata, katolikozko izenak ipini eutzezan Fernando ta Isabeleri, ortik aurrera Gaztelako errege guztiak, nai Austria edo ta Borboi izan, danak ondorengo lez ekarri dabenak, gaur I Karlos izanda izen orren arduraduna.

1.502an Otsaillaren 14ko agiri baten bidez, katolikotasunera ez ziran aldatzen Granadako moru guztien oilketa edo kanporatzea, aginduten eban.

Eta 1.504ko urtean Frantzezak Napoleseko luraldetik kanporatuta, Napoleseko erreñua Aragoiko koroara aldatzea.

1.504an Azaroaren 26ko eguerdian I Isabel il zanetik, eta 1.512ko urtean Nafarroako erregezaren menpekotasuna guda bidez lortu ondoren, erregearen gogamena ez, eurak ez ebalako jakin, baiña mundu onetan aginduten eben eleiztar gogamenetan bai, Europa osoa katoliko batzangotu ezinik ibilita euren uestezko espainiar lurraldea lez, ortik aurrera euki eben oldozmeneko almenak aukera baten billa ipini ebazalako, 1.789ko urtean Frantziko iraultzagaz aurkitu ebena, eta eleiztar ta merkantilistak lagun alkartuta, iraultza ori egokitu eben, orko urtetik aurrera Europako lurralde osoak laterritzeko asmoakin, errege bakotzaren antolabidezko lurraldeak laterrittuta, bereztasunezko aberri edo errigizarteak etenbako guda-erasoko keñiada bategaz menperatuta.

Eta 2.000 urte geroago, menperatzaill zale oneik ez dira konturatzen, Jainkoak, gure gizatutako arimak gai-bereztutako Ludi edo mundu onetara bialduta, askatasunezko legean berezkotu euskunetik, bakeak ezin dirala menpekotasunezko norkeriekin lortu, mundu fisiko onetan sutauts edo lerrauntsari, poxpolloa urbiltzea lez dalako.

1.505eko Urrillaren 19an Fernando 53 urte euki zituzela, 18 urte euki zituzen Foix'eko Germanarekin ezkondu zan.

Fernando katolikuaren gogoak emendik aurrera, Erromako eleiztarren espainitasuna lortu baiño geiago, euki zituzen guda-indar eta almen guztiagaz egiten ebazan oarkuntzak, Erdi Ugarte onen Ekialdeko lurraldeak, Aragoien agindupean ipintea zan, orko bidetik urbilago ikusten ebazalako beren nagusikerizko kaizar ametsak.

1.509ko urtean Fernando eta Foix'eko germanak, seme bat Juanen izenagaz bateatu ebena euki eben, baiña, andik ordu gitxira il zan.

Eta zer sortuko ote zan gaztelaniako asmoetan mutil ura il ez bazan ?.

Gaur, espainiar asmakuntzazkoak guzurra da esaten daben guztia, Fernandoren amets edo irudikerian ez zalako agertzen espainiarren irudirik iñundik be.

## Gaztelako I Isabel erregeña katolikua.

Gaztelako IIan Juan erregea eta bere lenengo emazte Aragoiko Mariaren artetik, Enrike, gero errege lez IVn Enrike "Antxua" ez izenarekin ezagutuko zana jaio zan

1.451ean Jorraillaren eguen guren'eko 22an, Zelaiko Medinaren Andienetariko Do-reak egon ziran Madrigaleko errian jaio zan I Isabel, aita Gaztelako IIan Juan eta bigarre-

E



nez ezkonduta Portugaleko Abiz'tar Isabel amaren bidetik. Eta 1.453ko urte bi berandua-go, bere anai Alfonso jaio zan.

1.454ko urtean Isabelen aita II In Juan Gaztelako erregea il zanean, Isabel bere ama Abiz'tar Isabel eta bere anai Alfonsogaz Arebaloko errira aldatu ziran.

1.461eko urtean IV n Enrike Gaztelako erregeak aginduta, bere ugazarreba Isabel eta bere ugazana Alfonso, Segobiako gortera eroan ebazan, denbora orreitan IV n Enrike eta bere emazte Portugaleko Juanaren alaba jaioteko egon zala.

Eme-ume oneri gero "La Beltraneja" deituko eutsoen, IV n Enrike'ren antxutasunean, bere emazteak, Beltran de las Kuebas'eko laguntzarekin euki ebalako alaba ori, eta ortik ipini eutsoen Juana'ri "La Beltraneja" izen ori.

1.462ko urtean IV n Enrike Gaztelako erregearen alaba "La Beltranejatar Juana" jaio zan, bere jaiotasuna legezatasunezko zalantzan ipini zana, Kobatar Beltranen alaba zala gortean esaten zalako, eta orregaitik esaten eutsoen "Juana la Beltraneja".

1.466an IV n Enrikek, Isabel 16 urte euki zituzela, Patxekotar Juanen anai ta 43 urte euki zituzen Kalatrabako Jirontar Pedrokekin ezkondu gura eben, baiña Isabelengana joan zanean ezkontzeko, bidetik doala, este muturreko gaixoak <sup>(1)</sup> jota il zan.

1.468ko urtean Gaztelaren gorteko gizon andien norkeri bidetik, aurkan ipini zituzen IV n Enrike erregea ta bere ugaz anai Alfonso, eta urte onetan Alfonso pozoituta il eben arazo orreik amaitu zitezen.

1.468an Iraillaren 19ko urtean, gauza oneik olan ibili arren, Isabelek ez eban artu gura erregeñaren aginterik, arik eta bere ugaz anaia IV n Enrike bizirik egon zan bitartean, baiña bere ugaz anai IV n Enrikeren eskutik "Toros de Gizandoko ongunean" lortu ebena, Asturiaseko printzea izendatzea zan, Gaztelako errege/erregeña izateko bear bearrezkoa izan zana, eta eztabaida oneitan Gaztelako gortekoak, bere loba Juana La Beltranejaren aurretik ipini eben erregetzaren ondorengotasunean.

Isabel emendik aurrera Okañako Urian, Patxekotar Juanen etxe batera bizitzen joan zan.

Isabel iru urte euki zituzenetik, Nafarroa ta Aragoiko errege II n Juanen alegiñagaitik, bere seme Fernandogaz ezkontzako itzarmendukoa zan, eta Gaztelako errege IV n Enrikek itzarmen ori apurtuta, I Isabelen lengusua zan Nafarroako IV n Karlosegaz itzarmendu eban.

Ez ziran aurrera joan IV n Enrikek euki zituzen asmoak, Nafar ta Aragoiko errege II n Juanek egin ebezan aurkako alegiñiak gogorrak izan zirelako, eta beste leku batera begituta IV n Enrikek, Portugaleko V n Alfonsogaz ezkondu gura eban, baiña Isabelek ikusita euren artean adiñeko aldia 20 urtekoa zala, berak ezereztu eban ezkontza ori.


Nafarroa eta Aragoiko errege II n Juanek ostera saiatzen da Fernando bere seme ta Isabel ezkontzen, baiña senidezko eragozpen andi bat euki eben biak, euren aititek Antekerako Fernando eta Gaztelako III n Enrike, anaiak ziralako.

Aragoiko Fernando, Trastamara'tarren ondorengotasunean mutil bakarra izan zalako, "La Beltraneja" eta Isabelen aurkako estabaidak nastatu gurean, bera be agertu zan Gaztelako erregetzaren errege-nai lez, Portugaleko Alfonso erregeagaz ezkonduta egon zan "La Beltraneja" tar Juanaren aurka, baiña ez eutsoen onartu eta or geratu ziran bere alegiñak.

Eragozpen orren bitartez ezkontza au aurrera eroateko, II n Pio Aita Santuaren bulda bear ebela ta onek, Frantzia, portugal eta Gaztelako erregetzakin etsaitasun aundiak sortuko ziralakoan siñatu gura ezean agertuta, gero Aita Santua VI n Alenjandro izenagaz izango zan Borgiatar Rodrigo bialdu eban arazo orreik konpontzeko.

(1) Este muturreko gaixoa = *ataque de apendicitis*.





©

Moruen aurka egiten ebelako eta beartasun bidez agertuko ziran lanagaitik, eleiztar onein atsegintasunezkoa izan zalako eskontza au, Karrillo de Akuñatar Alfonso Toledo-koartx-apezpiku edo gongotzaiñak, II n Pio baiño ariñagoko II n Juan Aita Santuak 1.464-ko urtean atara eban bulda, berak eskerniatutako antz baten agertu eban, eta or inguruan egon ziran guztiak, zer gertatzen zana danak jakin arren, ontzat artu eben, eta Isabel ta Fernandoren artean egon ziran senidetasuren debekatuzko lege guztiak ezereztuta geratu ziran.

1.469an Epaillaren 5ean Isabelek baietza emon ondoren, Zerberako Urian siñatu ziran ezkontzako elkargo orreik.

1.469ko Maiatzen Isabelek bere anai Alfonsoren illobia ikustera joan zalakoan, bildurrez Okañara iges egin eban, Patxekotar Juanen babesera.

1.469an Urrillaren 19an, Fernando igeslari baten antzera, iñork jakin barik Balladoli-zera joanda, Biberotar Juanen jauregian ezkondu ziran 19 urtegez Isabel, eta Fernando 18 urte euki zituzenean, IV n Enrike, I Isabelen ugazneba oso asarre agertuta.

*Ezkontza onein sare arteko azpikeriak ez eben beste asmorik euki, Isabel Portugaleko Vn Pedrokekin ezkondu, IV n Enrikeren alaba Juana "La Beltraneja", Portugaleko Vn Pedro ondorengoan seme Juanegaz ezkontzea baiño, Portugal eta Gaztelako lurraldeak alkartzeko.*

*Isabelek ez eban ezkondu gura Pedro onegaz len esan dogun lez, IV n Enrikek Frantziko errege XIn Luisen anai Guyenako Dukeagaz ezkontzeko antolamenduak eginda.*

1.470eko urtean egin ziran Medinako Zelaietan itzarmenduzko ezkontza oneik, baiña ez eben ezertxo be lortu, frantzez Guyenako Duke au baleiteke 1.472ko urtean, iñork ez dakien nortzugaitik, pozoituta il zalako.

Eta 1.471ko Abenduaren lenengo eguna baiño ariñautik, IV n Enrikek Isabelen aurkako lanean ibilita, Borgiatar Rodrigok agertu eban buldako legearen indarra ezerezean edo ta ebagita itxi ebalako, Toledoko artx-apezpiku Karrilloren lan bitartez, IV n Sixto Aita Santuak baietzu eban barriz ezkontza ori urte onetan, Simankasen agertu eban buldarekin.

1.474an Abenduko 12an IV n Enrike ilda, 13an koroatu eben gaztelarren Isabel erregeña lez, Gizandoko Zezenaren Urian *Eleizako aginduari bere menpetasun osoa siñatuz*, bere IV n Enrike ugaz anaiakin elkar-aditu ebezan baldintzakaz, eta indar andiko erregiña izan zan euki eben aolkularitzaren bitartez, askoren andikerizko eritziaren aurka, zentzu aundiz aurrera egin ebalako Amerikako lurraldeak argitan agertzeko be.

I Isabelek, oso osoan sinistu eutsozan Kolon 'eri iñoz ikusi ez ziran itsas-osteko lurraldearen burupideak, bere aitortle ta aolkulari Talaberako Ernando lekaideari sinistu eutson lez, eta Kolon 'tar Kristobal, senide lez be onartu eban.

Eta onarte ekarten dogu I Isabelen bizi kondaira, emendik aurrera Kolontar Kristobalagaz asten dalako biok euki eben adiskidetasunezko edesti ederra.

## **Mallorka ugartearen asierazko edesti ta Kolonen alditan bizi ziran jendearen jakituri ta nortasunezko zeregiñaren aurkezpena.**

Mallorkaren ugarte, beste ugarte bi Ibiza eta Menorka erdian kokatuta dago, bere 3.625 Km karratuekin, itsas-bazterren inguruak 300 km. daukazela, Puig Mayor mendia- ren goi-aldiak 1.500 metrorekin, eta Erdi Ugarte edo peninsulatik 25 leko <sup>(1)</sup> Bartzelona- ren Ego-alderaiño dagozela.

524.980 biztanlekin, Palma bere Uri nagusiaren edertasunean, abelur-ikastetxe, zapa- taren langintza eta atzerrien txangoketaz, gaur bakez bizi diranak.

(1) Leko = legua, que equivale a 5.572, 70 metros.

1.229ko urtean menperatu eban Mallorca Aragoiko I Jaime garaitzailleak eta 1.349ko urtean, IVn Pedro zeremoni-zaleak betiko lotu Aragoiko erregetzagaz.

XVn gizaldian Mallorkako Ugarteia, Aragoiko lurraldea zan eta ez eban ezer ikusirik Gaztelako erreinuarekin, Kolon gaztelaniko gorteetara joaten zanean atzerritar bat izan bazan lez joaten zalako.

Mallorka Ugarteian baleiteke urriñetik etortea itsasoko jakintzak eta mapagintzazko zaletasunak, K.a. 1.300 urte inguruan ejiptziarrak euren jakiturizko mailla audienean egonda, eta Greziarrak orduan ezagutzen zan mundu guztiko itsasoetatik asi ziranean ibiltzen, K.a. 1.000 urte gitxi gora-beran, Euskalerrian "Triku-Arri, eta eurak gaur "Talayots" esaten dautsoen jendekuntzatik datorrela esaten dabe batzuk.

Baiña Mallorkaren nortasunezko jakintza, ezin da ulertu Lull, edo Lull'tar Raimundo frantzizkotarra barik, eta kondaira luzea dalako, zati aundi baten murriztuko dogu.

1.232ko urtean Mallorkaren Uri Nagusia dan Palman, gaur bere Kale Nagusiko 5n zenbakian egon zan etxean Jaio zan Lull'tar Ramon teologu, izkutu edo mistiku, olerkari, jakin-zale edo ta bizitzaren eraman-ona edo filosofu mallorkindar au, eta ainbeste jakituri euki ebalako "Irakasle Argitsua"ren ez izenagaz esagutzen eben danak, bera izan zalako Katalanezko izkera zentzuntasunduagaz batera geiago idatzi ebena. 200 liburu baiña geiagogo dagoz gaur latin, arabiar eta katalaneraz idatzita.

Lull'tar Ramon au, I Jaime Aragoiko erregearen zerbitzura sartu zan 14 Urtegaz morroi lez, bere seme Pedro ta Jaimegaz lagun eginda.

Ezan geldirik egoteko gizona, eta Aragoi ta Kataluña ikusteko beren denborak eukezan.

Gero ezkondu be egin zan seme bat eta alaba bat eukinda, baiña erlijioagaitik deituta, geiago gura eben Kristoren barriak zabaldu misiolari lez, eta ekintza orreitan aleginduko zan, garrantzi aundikoa izanda, gurutzada santu gora beran Vn Zelestino eta Vn Klemente Aita Santuaren bitartean egon ziran beste Aita Santuakaz.

1.270-1.272ko urteko bitartean Konpostelako Santiagotik errömes ibilita, Mallorkara joan zan eta Arabiar eta Latiña ikasi eban, "El Llibre de Contemplacio" arabieraz idatzi ebana eta ain omentsu zan "Ars Magna", "Mestre" izena balio eutsona.

Ortik aurrera, bere idaz nagusi "Blanquerna" be idatzi eban.

1.295-1.296ko urte bitartean, bere beste idaz-lan garrantzi aundiko zana be idatzi eban, "L'Abre de Ciencia" katalanez.

1.295ko urtean Frantzizkotarren lekaidetxean sartu zan, eta siñezbagekoak eskolatzen emon ebazan bere denbora aundiak, bere adierazko idaz-lanak izten eutsoen bitartean.

1.302-1.307ko urte bitartean, "Liber de Fine" beste liburu bat idatzita.

1.312ko urtean Bienako Eleiz Batzar Nagusia amaitu zanean, osterata joaten da Mallorkara.

1.314ko urte erdi ingurutik, Afrikaren lurraldean Iparraldeko itsas-ertzearen Bujia Urian lurreratuta, Tunezera joan zan mixiolari, eta itsas-ertzeko Bujiaren errira bigarrenez joanda, lenengo osterata egin eban antzera gogor arrikatu eban lez, oraingoan ez eban euki ainbesteko aldi onik eta 1.315eko urtean 83 urte eukezala, bertan, Bujiako errian il zan, gaur bere gorpuaren ondarrak, Mallorkako Palma Uri nagusiaren frantzizkotarren eleizan illobiratuta dagoz.

Berd eta Martorelltar Grabielek esaten dau, Lull'tar Raimundok itzi eutsoen ikerketako eta jakitunezko lan aundiak, oso garrantzi andikoak izan zirala itsas-araudietarako.

Lull'tar Raimundo onek, bere askotako liburuetan aipatzen dauz orduko itsas-eskultitz edo mapak, zelan izan ziran orduko itsakuntzarako <sup>(1)</sup> oiñarrisko gidariak.

(1) Itsakuntzarako = profesión de marineria.

Bere denboran sartu ziran itsas-ontziaren gidari izateko "Gabeko Astrolabio"<sup>(1)</sup>, euren iguzki-orratzakaz<sup>(2)</sup> ta "Ipar Orratza", berari emonda sarrera orren irabazpide ori, eta baita bi-orratzeko eres/neurkiña<sup>(3)</sup> itsasoko-eskutitzetan aizeen sorrerazko aldi bitartek neurtzeko.

Eta gaurko egunetan euren bitartez esan leikela, Llull'tar Raimundo bera izan zala orduan egon zan amesleri bakarra, borobiltasunezko mundu onetan, beste lurralde aundi batzuk be egon zirela asmatzeko, eta Mallorkan bere jakituri aundiagaz itsasoko-eskutitz edo mapa-gintzazko eskola ori sortu ebanak, Llull'tar berak esanda, 1.286ko urtearen baiño ariñautik asi zirala Mallorkako itsastarrak eskutitz orreik erabilten.

Ez gitxiago Kreskes judu-leiñukoak Ludi-mapagintzan egin ebenakaz.

Jafuda'tar Kreskes, judu mapagille aundi bat zan, XIVn gizaldi erditik XVn gizaldiko lenengo erdiaren urte bitartean bizi zana.

Kreskesek ainbat katalan izkuntzazko Ludi-mapak egin ebazan, danetatik 1.375ean egin ebena bakarrik izanda geratzen dana, eta bera Parisen, Frantziko aberriaren liburutegian erakusten dabena.

Jafuda'tar Kreskes bere aitagaz batera kristautu zanean, Ribes'tar Jaume'ren izena artu eban.

1.327-1.330urte bitartean Mallorkan beragaitik eginda eta esagutzen dan itsas-eskutitz zarrena dana, Londreseko "British Museum"ean dago Add. Ms.25691 asi-izkiekin.

1.339an Dulzert'tar Anjelino sinatzaile zala, Mallorkan lenengo ezagutu ta siñatu zan itsas-eskutitza "Pariseko Aberriaren Liburutegian" erakusten da.

Eta lenengoz sartu ziran "Aize-Arrosak"<sup>(4)</sup> Katuluñian Jafuda ta Kreskes'tar Abrahamek egindako mapa-sortan sartu ziran<sup>(5)</sup>.

## Juduak, itsasoko mapagintzan Mallorkako ugartean jakiten ebana.

Llull'tar Raimundok, eskolaren ereduazko jakituriz, katalanez idatzi ta margoztu ebezan itsas-eskutitz edo mapak, garrantzi aundienetarikoak dira, askoz geiago, itsas-osteko ardura orretan ba ziran, eta eginkizun orreik dira aurkezten dauskuezanak, Mallorkan egon ziran itsas-osteko ikerketaren zaletasunezkoak.

Kontuan artu bear dogu, juduak orduko denboran euki eben merkantil artu-emonakaz, mauri ta kristau mundu guztitik zabalduta aurkezten zirela, eta ondo baiño obeto ezagutzen ebezala Lur-Arteko itsasoa eta beste itsasoetatik ur gaiñean ibilteko bear ebezan orduko tresneri guztiak.

Ez da arritzekoa ba, Kolonek alango Kristau sinismena ta itsas-zaletasunezko jakituria eukitea, Llull'tar Raimundo, Abraham Cresques eta bere seme Jafuda juduaren jakituri aunditik asko eukelako ikasita.

1.391kako urtean kristau zoro batzuk, Kall deritxon judu auzunea erasotu eben, eta 300 judu inguru il ondoren, galazo eutsoen judutarrak kristautasunezko sinismenara itzuli zitezen edo bestela lur aietatik alde egien.

Sinismena aldatu eben artean, Kreskes'tar Jafuda be egon zan, eta izena aldatu bearrean agertuta, onek Ribes'tar Jaumerena artu eban.

Eta sinismena aldatu gura ez eben beste batzuk, Kolontarren antzera, Flandesera aldatu ziran.

1.391kako urtean, kristautasunezko sinismenara aldatu ziran judu artean, batzuk Kolonen izena artu eben, emendik Flandesera zabalduta.

(1) Astrolabio = izarren ibilketarako neurgailua. (2) Iguzki-orratz = cuadrante para determinar la altura de los astros sobre el horizonte. (3) Eres-neurkiña = compàs. (4) Aize-Arrosak = rosa de los vientos. (5) Mapa-sorta = atlas Catalan.



Kolon Kataluñako abizen bat da, txori Kolonbus'en izenetik artuta dagoena, eta I Jaime Aragoiko erregeak ugarte au 1.229an menperatu ebenetik, eurak daukien oiturazko abizen batera biurtu zan.

1.394ko urtean Ribes'tar Jaume edo Jefuda'tar Kreskes onek, Bartzelonara joan zan mapagintzan.

Eta 1.412ko urtean, Portugaleko Itsasgizon'tar Enrike errege semeak deituta, Portugalera joan zan, bertan bideratzeko Enrikek sort-araziko eban mapagintzaren lantokia.

1.450eko urtean Mallorkako errigizartearen artean, auzitegikoak<sup>(1)</sup> erritarren aurka matxinatu ziranean, merkatari aberatsaren artean askok, Anjoutar Renatori lagundu eutsoen, Aragoiko errege biotz-andiko Vn Alfonsoren aurka.

Eta merkatari aberats onein artean, Kasenabe'tar Gillaume eta Koullon'tar Kristobal, Kolontar Kristobalen osabak zirenak aurkezten ziran.


Dana dala emen agertzen da Kolontar Juan, igeslari bi ta andre Margalidaren aita.

Baiña, nor ote zan Margalinda ori ?.

Margarita andere-lagun bat izan zan, IVn Karloseri atxilotutako denboratan laguntzen egonekua.

1.459ko urte onen amaieran, IVn Karlos eta Margaritaren artean maitetasunezko laz-tankerietan ibilita, 1.460ko Bagillan seme bat jaio jakien, eta IVn Karlos bertan ez egon arren, jakin ebalako aurdun egon zala, Mallorkako gotzai ta erki edo gudu-jaurleriari idatzi eutsen eskutitz bana, gertakizun orren barriakaz arduratu zitezen, eta egia izan bear da, erki edo gudu-jaurleriak eta gotzaiñak ardura aundiz erantzun ebela, IVn Karlosek ostera idazten dautsielako beste eskutitz bat eskerrak emonez.

Eta jaio zan ume ori izan zan Kolon'tar Kristobal, Amerikako lurraren agerketak lortu ebezanak.



(1) *Auzitegikoak* = *forenses*.



### 3. ZATIAN.

#### Oar txiki bat.

Mundu onen arrazoidunezko gizakiak izanda, eta Jainkoak gai oneri bereztu eutsotzan legeak, guretzat, egiten dogun gauza gustiarentzat bardiñak diralako, arduraz, gogora ekarten dogun egitamuzko lan guztiaren aurrean egin beargeunken lez <sup>(1)</sup>, aurkeztu doguz lan onentzat oiñarrizko baldintzak zeintzuk direzan, antzerki onetarako aurkeztu doguzan antzezlarien bizitzakaz, euren denborako giroan.

Orain, guazen Kolontar Kristobalen jaiotze bere bizitzazko ezjakiniak argituten, Berd eta Martorell tar Grabielen laguntzarekin.

*Eta ortik aurrera, zentzu ta ardura aundiz jaso edo ta gauzatu, gauzatu bear direnak bizi garen serbitzurako; bestela egiten dogun guztia, oker, ankaz-gora, zentzubage ta neurrian edozein gauza urtengo leukelako, beartsu edo onbear eta aberastuten diranen artean gaur sortzen jakun lez, orekak leku guztietatik galdu ondoren. Bereztasunaren legezko baldintza orreik dira, gaurko Europaren politikuak kontuan artu bear dituzenenak gauza guztietan, eta ardura bardiñakin, diruaren antolaketak egiten dabezenean.*

Gaiak, beren Ludi irudiaren izaerarako, daukazan mukulluak orokorrezko askatasunean bananduta egonaz batera, bere eraikitasunean mukullu arteko-gintzan daukan erakarrezko indarra, eurak osagarritasunezkoak izan zitezken legea da, eta gurentzat eragilletasunezko bizi-tresneri bat izan daiten.

Orregaitik, "Jaioten garan guztien bear-bearrezko ordezkartzan zor-eskubide arduran bardiñak izanda, Ludi onek daukazan bereztasundutako lege orreik dira, gure arduradunezko arima gizatuari, lege bardiñean osagarritzkoak izatera alegintzen dauzkuna, Jainkoaren legeagaz, zeregiñ bardiña daukagulako".

*Eta egiten doguzan gauza guztiak Jainkoari begira, azturazko maitasun osoan egiten diran lez, bide orreitan eraikitako etxe, auzo, erri, eskualde edo lurralde, aberri, eta errigizartearen askatasunezko eskubide orreik dira oiñarri lez ipini bear dituguzenak, bizitza onetan askatasunezko orekan irautea gura ba-dogu.*

Danon lotsagizunezko ardureak bear dituguzelako ortik aurrera, gai-gizaren bizitza onen egitamuak zentzuz gauzatzeko, eta elkar erabili bear doguzan osagarritasunezko bideen ulermek, orekazko zentzun baten eroan dagiguzan.

Guzti orreik kontuan eukinda, ez bagaude lau gizaki nagusitasunezkoagaitik bideratuta, ainbeste urte menperatzailletasunezko agindupean egonda, ori be al izan leikena dalako, eta nire ustez "UTS EGIN BARIK".

Gaurko politikuak, gaiaren eta gizaren eskubideak ez dabezelako oiñarritzen, agindu egiten dabezan gauza guztietan, sortzen dan entrabaloaren eragipeneko indarragaz, gai-giza arloetan dana agertzen da nastuta lez. Gaiaren-orekan: Itsas-errekako urak eta mendi-lur-aizeak zikinduta.

*Eta gizaren arloetan: lan-eza, lapurtza, negarra, gozea, gaitzaldi, elde edo izurriteak, eriotza, borroka, aitu eziña, eta arduragabekerizko itsutasun aundi baten.*

(1) Mundu onetan, eta gu "gizakitutakoak" sortzailleak ez garelako, gure gauza guztietarako egiten doguzan asmakizunezko egitarauetan, Jainkoak bereztuta ta danontzat bardiñak diran legearen baldintzak erabili bear doguz, tresneri edo ta oiñarrizko elementuak lez.

*Bizitzeko egiten doguzan gauzaren mozkiñ guztiak, batzango edo agintari-zaleak euren kontrolpean eukiteko, guda-indarrezko keñada gogorrek erabilia, nai gai edo ta danon giza eskubidearen ardurak kendu egiten dauskuez, eta ez gero eurak egiteko danok egin bear doguzenak, ostera guri beartzeko baiño, eurak gura daben eratarata betetea, eten gabeko menperatzail ekintza baten.*

*Len, munduko borroka nagusi bategaz, dana utsezko zenbakian ipinita lez azten ziran osterara bizitzarako bear zan guztia eraikiten, euren poltzilluak beti berriz beteta eukiteko, baiña gaur beste olango borroka bateri eurak be bildur diralako, demokraziaren indar bidez, maltzurrezko guzurak eten barik gero ta indar geiagorekin argitzen dira, eta orain 1.687 urte bereztasunaren aurka Nizean asmatu zan batzangotasunaren GOITIK BERAKO AGINTARITZAREN GIZA-GORPUTZA ORI, GUZTIZ USTELDUTA LEZ AGERTZEN JAKU.*

*Zergaitik ?*

*Gure bizitzaren epe laburrerako, Jainkoaren legeakin beartuta agertzen gara lez, argi erakusten jaku:*

*A) Osagarritasunezkoak garela jaioten garan guztiak.*

*B) Kundetzaille edo gai onen eragilletasunerako jaioten garela.*

*D) Gure eragilletasunean kontuan artu bear dituguzela, gai ta giza guztiaren eskubideak, bakoitzak, talde, leiño, edo ta errigizarteak euren bereztutasunezko aztura bidetik izkuntzagaz sortu ebezan nortasunezko bereiztasunak, ezereen aitzakia barik.*

*E) Asmatzaillearen almenak bakarrik eukinda, gure almenean ez dauelako iñungo izatasunik: "irazale, sortarazle edo eta sortzailletasunezko arloetan", gure norkerizko alegiñetan, iñorentzat ezereen legerik egin barik, alegiñ guzti orreik Jainkoaren legeditik artu beardiranak diralako, euren kanpotik lege guzti orreik, menperatzailleak biurtzen diralako,*

*F) Ala... mundu oneitara, beste gauza baten bat egiteko etorri ote gara ?*

## **Nortzuk izan ziran Kolon'tar Juan eta Kolon'tar Margalida ?**

### **Aurkezpena.**

Margalida mallorkinez, pitxi edo txirlarri'a <sup>(1)</sup> dala esangura dau, eta Kolon'tar Juanen alaba izan zan, euren bizitza Felanitx erritxoan "ALQUERIA ROJA"ko lur ondasunean eginda (gaur Son Ramonet dana, Felanitx Uritik 2 km. ingurura eta SANTUERI gaztelu inguruan).

Eta nor ote zan Margalinda ?

Margalinda, Nafarroako errege IVn Karlosen denbora pasa baten antzera eta bere aitagandik atxilotzeko itxaroten egon zan denboran, laguntzen eutson andre bat zan.

1.459ko urte azkenetan beragaz maitekerietan ibilita, 1.460ko Bagillaren illean seme bat euki eben, "TERRA RUBRAKO" Kolon'tar Kristobalen izena ipini eutsoenai, eta IVn Karlosek, lau seme alaba bere gain artu ebazanetik, Kolon'tar Kristobal izan zan bat.

Felanitx'en, Son Koloneko Kolontar Juan, Kolontar Kristobalen aitite onek, ia txirotu egin zan, bere etxe ta lurrañen irabaziak Felanitx'eko zuzendari, idazkariari eta alkate biurdikatzaillai bir-erosi, eros-sari, edo aitzakia lez ainbat diru emon bear eutsozelako, eukezan seme biak Kristobal eta Gillaume Kasenobe'tar Koullon oneik Probenzan atzerri-tuta, Anjou'tar Renato Probenzako erregearen alde egon ziralako, 1.450-1.453ko "Germanias"en iraultzan, auzitegiko ta erritarren arteko guda gogorra amitu zanetik.

Kolon'tar Juanen seme onek, sekula ez ziran itzuli ostera Mallorkara, ziur bertan eriotzea itxaroten euki ebelako.

Baiña Kolontar Juanen seme ta Margalidaren neba auek jakiteko nortzuk ziran, esan bear da: "Guillaume de Kasenove Coullon", Italian "Colombo" lez eta espainitarren artean

(1) Margalida = mallorkinez "perla" dala esangura dau.

“Colon”en izenagaz ezagututakoak, Anjou´tar Renato Probenzako erregearen serbitzuan egon zirala, eta Frantziako itxas-jazarle edo itxas-lapurren ontzi-nagusi edo OntziNagusi Amiralak izan zala Margalidaren neba au, eta Margalida ta IVn Karlosen seme Kolontar Kristobalek, bere Ontziren-Amiral osaba nagusi onegaz, ikasketa nagusiak egin eta gero, ainbat denboratan beragaz ibilikua zala, gero agertuko dan lez.

*Emen, Kolontar Kristobalen bizitza argitzeko oso garrantzi aundikoa dalako, Probenzako erreñuaren edestiko bizi kondaira labur bat azaldu bear dogu, eta baita legez zelako aldakuntza egon zan itxas-lasterkari edo itxas-jazarle (1), eta itxas-lapurren artean (2).*

Probenzako erreñua, Frantziko lurraldearen ego aldean, Rodano ibaia, Lur-Arteko itsaso eta Italiako lurraldeak inguratzen dabe, bere edestiko Uri nagusia Aix-en-Probenze izanda.

Beren lurraldea, Rodano ibaiaren agoak, Bar ibaia, Alpeko bealdeak, eta Baukluse ta Itsastar-Alpeak osotzen dabe.

Paleolitiko-Neolitikotik, euskaldunak ziran lur orreitan bizi zirenak.

Eta Euskaldunai buruz, garrantziko gauza da, 25etik 101eko urte bitartean bizi zan Silio Italiko olerkariak esan ebana: “Probenzako alor edo soroak (3) leenengo landu ebezanak Auñamendi edo ta Pirineosetik bera joan zirenak zirala eta euren arteko ezagutzan ulertu zitezen lurraldearen izena aipatzea bearrezkoa izanda, “Sicanos” zirala esan eben.

“Sikano” berbea, baleike Auñamendietan (4) dagon “ZINKA” ibaiaren izena izatea.

Eurak esaten dabe ez dagozela ziurtasun guztiagaz, baiña zeozer izan bear, beste ibaiarik ez dagoelako izen orrekin.

K.a. VII-VIn gizaldietan, erria fenizioak irasi eben.

K.a. IVn gizaldian griego fozenseak, Massaliako Uria (Marsella) sortarazi eben.

K.a. IVn eta IIIIn gizaldian keltiarrak sartu ziran.

K.a. IIIn gizaldian, erromatarrak sartu ziran eta “Galia Narbonense”ko lurraldeakaz osotu eben lurralde ori.

K.a. 123 urte inguru, fenizioak Marsellako Uria berriztu eben.

K.o. Vn gizaldian, Bisigodoak menperatu eben. VIIn gizaldian frankoak. Eta VIIIIn gizaldian arabiarak. Eta Karlos Martelek Berduneko ongundearen bitartez 843ko urtean berrezkuratuta, Lotarioren eskuetan geratu zan.

Karlos Buru-soil´en eskuetan ondorengoz geratuta lur inguru ori, onek Probenzako leen erreñuan biurtuko eban.

947ko urtean Borgoñako aginpean ipini eban, eta ondore 1.032ko urtean Kaizarren agindura.

1.125eko urtean ondorengo lez, IIIIn Berenger´tar Ramon Bartzelonako Kondea eta Toulouseko Kondearen artean bananduta geratu zan.

1.246ko urtean Ajouko etxearen aginpean geratu zan, eta orren bitartez 1.277ko urtean Napoleseko erregetzagaz lotuta geratu zan.

1.266-1.285eko urterarte, Napoles eta Siziliako errege VIIIIn Luisen seme, Anjoutar I Karlos izanda.

Eta I Anjoutar Karlosen errege denbora onetan Aragoiko IIIIn Pedrok, Sizilia menperatuta Aragoiko erregetzagaz alkartu eban.

1.284-1.309ko urte bitartean Anjoutar IIIn Karlos izan zan Napoles eta Siziliako erregea.

1.345-1.386ko urte artean, Anjoutar IIIIn Karlos, Napoles eta Ungriako errege.

Probenzako Anjoutarren azkeneko agintaria, Renato izan zan.

1.408an Urtarrillaren 15ean jaio zan Anjoutar Renato, IIIn Luis erregearen seme au.

(1) *Itxas-lasterkari = corsario.* (2) *Itxas-lapurrak = piratas.* (3) *Alor edo soroak = campo de cultivo.* (4) *Auñamendietan = Pirineos.*



E

1.419ko urtean Napolezeko errege II In Luisek, bere seme Anjoutar Renato ondorengo lez eta 11 urte euki zituzenean Lorenatar Isabelekin ezkondu eban.

1.434ko urtean I Renatok, eta Aragoiko Vn Alfonsok, borroka latzak euki zituzen Napoleseko erreinūaren gora beran.

1.442ko urtean, I Anjou´ko Renato aragoitarrak Napolesetik bota ebenean, Taraskonen auzotu zan.

1.450ko urtean Mallorkako auzitegiokoak matxinatuta, Vn Alfonsori agindu eutsoen erregearen aulkia.

1.452an Otsaillaren 28an II zan Lorenatar Isabel erregeña.

1.454an Iraillaren 11n Anjoutar I Renato erregea, ostera ezkontzen da Labaltar Juanagaz.

1.466an Dagonilaren 20an Katalanak, Mallorkakoak egin eben antzera, Aragoiko Vn Alfonsori eskaiñi eutsoen erregetza.

1.470ean Abenduaren 16an Anjoutar I Renatok, ostera agindu eutson bere seme Juaneri erregetza berrezkuratu egian, baiña Bartzelonan il zan.

1.471ko urtean Anjoutar I Renato, Taraskonera joan zan bizitzen.

1.479an Urtarrillaren 19an siñatu ziran Probenza ta Kataluñako bakeak.

Anjoutar I Renato erregeak, bere loba zan du-Maine´tar III Karlos Probenzako Kondea, ondorengo errege lez izendatu eban.

1.481eko urtean Probenzako lurralde au du-Mainetar III Karlos Konde onen jabetasunean egonda eta ez ebelako ondorengorik euki, Frantziko errege XI In Luiseri aldatu eutson ondorengotasuna.

Eta 1.486ko Urrillan du-Maine´tar III In Karlos au il zanean, betiko aldatu zan Frantziko erregetzara, Probenzako Konderri au.

## **Itxas-lasterkari ta Itxas-lapurrak.**

Itxas-lapuraren irudia, ez zan itxas-lasterkariak irudizko izaeran euki eben antzekorik be, euren leen eta askeneko ardura, lapurretan egitea bakarrik izan zan.

Bigarrenaren ardura alderantziz, errege edo ta erriarteko agintaritzatik artzen eban eskugo edo baimenaz, etsaiezko erri baten itxas-ontziak erasotu, menperatu edo ta arrapaka kendu, eroaten ebazan egitamuzko argibide ta balio guztiak, izaten zalako.

Eta gure Kolontar anai biak, Kasenobe ta Kolontar Gillaume, Frantziko Aitor-seme (1) ta Ordezko-Almirante (2) oneri, Frantziko XI In Luis erregeak bialtzen eutsoen eskutizetan « dit Koulon » idazten eutson.

Kolontar Kristobal, Kolon´tar Kristobalen osaba, bere anaiaren antzera bardin ibili zan, baiña aiñ ospe aundirik euki gabe.

Gero eurak baiño ospe aundia artuko eban euren loba Kolontar Kristobalek, IV n Karlos Nafar errege eta Margarita´ren semea zanak, Ameriketako luraren ezaguneraziakaz.

## **Kolon´tar Kristobal´en bizitza.**

Berd eta Martotorell´tar Gabrieleke esaten dauenagaitik, ainbat edestilari izan direla Kolontar Kristobal Felanitx´en jaio zala esaten dabenak: Benezuelako aita Nektario, Lopez ta Flores´tar Manuelek bardiñ, Madariagatar Salvador, eta Zerdatar Juanek Koloni buruz ankea sartu ba eben be "XUETA" (judio) deitu eutsolako, danak jakin eben eta dabe, bere sendia katolikua zalako, Kolon bera be katoliku sutsua zala, IV n Karlos Nafarroako errege ta Margaritaren bidetik, sinismen orreikaz bizitzan gizon eginda.

(1) Aitor-seme = *escudero*. (2) Ordezko-Amirala = *vicealmirante de Francia*.



Eta Kolontar Kristobal ta bere anai Bartolomeri "Kolonbo de Terra Rubra" esaten eutsiela.

1.459ko urtean IVn Karlos Nafar erregea, Santueri'ko gazteluan egon zala atxilotuta.

1.459an Urrillaren 28ko idazt-eguna daukiela, IVn Karlosek, Mallorkako Gotzaiña ta Jaurlariari idatzitako eskutitzak, euri esanda "MARGALIDA"gaz arduratu zitezela, nezka gazte ura beragandik aurdun geratu zala ta.

1.460ko Bagillan jaio zan Kolon'tar Kristobal.

1.461an Iraillaren 23an Nafarroako errege IVn Karlos il zanean, Kolon'tar Kristobalek urte bat eta iru illabete eukingo zituzen gitxi gora beran.

Eta agiri onen agerketa arazoa, XVn gizaldian Felanix'en jaio ziran umeen argibideak, ezin diralako inondik inora aurkitu, bateatuko egun eta bear ziran zeaztunak infundik ez diralako agertzen, nai Felanix'eko San Migel Goi-Angeruaren eleizakoak, ez eta San Salbadarren Santutegiko eleizakorik be.

Sendi ta gurasoen argibideakaz, bardiñ antzeko bat sortzen da Kolon'tar Kristobalen amaren sendiagaz be, bakarrik aurkitu direlako Kolonen aitite, Kolontar Juan aitarena, Kolontar Margaritaren amarena, igeslari euki ebezan iru itsas-ontziren jabe Anjoutar Dukearen serbitzura, Kolontar Kristobal, eta Frantziko lurraldean deitzen eutsoen Kasenobe ta Koullontar Guillaume itsas-ontzi Amiralaren osabarenak.

1.462ko urtean Bartolome, Kolontar Kristobalen anaia jaio zan.

1.469ko urtetik aurrera Kolontar kristobal 9 urtegaz eta bere anai Bartolomek 7 urtegaz Frantziko osabaren etxera joan ziran, euren ikasketak Anjoutar Dukearen gortean egiteko asmotan, eta ortik aurrera sekula euren bizitzan ez ziran itzuli Felanix'eko erritxora, naita Kolonek itsasoaren beste aldetik Ameriketarren lur billa agertzen ziran Ugarte ta lurraldeari, bere ama ta beren erriko baselizaren izenak ipini.

Kolontar Kristobalek 9 urtekin asita itsasontzietan ibili arren, 14 urte eta Bartolome bere anaiak 12 urte euki arte, ez ziran euren osaba Kolontar Kristobalen itsas-ontzietan ikasten ibili.

Eta, Kolontar Kristobalen bizitza bere asieratik adierazteko, ainbat itaunari emon bear dautzaguz erantzunak, eta ez edozelakuak.

Adibidez:

a) Bereztasunaren eta arzoizko lege guztiaren aurka, errege/erregiña, gorteko aolkulari ta Kolonen artean ongunderatuta, Kolontar Kristobal jaio eta noren semea zan gora beran ostonduek egiteko ziñez itza emonda, araubidez egiten daben orokorrezko ezkutaldi zital ori, gogorra izan bear izan eban, Kolonen semeak be euren aita norena eta nungoa zan jakin ez egien.

Eta beren izatasunaren izkutu zital oneik aurrera eroateko, Kolonek gaztekerrian legez arrotz lez agertzen bazan, bere Aragoiren Mallorkako jaioterrikoa lez be, ostondu bear izan eban itzarmen orren bitartez.

Dana dala, ongunde edo itun orren inguruan, ziñez itz emonda egon ziran guztiak, Kolon bera be artean dala, ondo baiño obeto zaindu eben laterrizko elkarpede ori, idazkietan eta errigizartearen artean guzurrezko aztarnak zabaldua.


Baiña, zergaitik ote izango zan guzti ori ?.

Mundu-gai-fisiko onetan badakigu, egiten direzan gauza guztiaren izenak, asmoak, edo ta arrazoiak, euren sorburuzko gogorapen lekutik kentzen ba dirala, beste leku batera aldatzeko direzala, eta egikera orreik norkerizkoak biurtzen diran lez, guzurra, naspiltasuna, lapur, edo naikerizko esabidearen adierazpenetan biurtzen dirala.

Ala, Erromatar Kaizar-katolikotasunaren sasi-jaintasunezko arrazoi biurtzeagaitik izango ote ziran alegiñ orreik ?.

E

 Euskerazaintza



Zertarako, "JAINKO AITARI, guda-indarrean odoljarioz eginda, menperatasunaren giza-batzango oneik eskeintzeko ?.

JAINKOAREN LEGEAK, nori emoten dautsoe alango baimenik ?.

Jesus, bere Semea gure artean egon zanean, aolku ederrak bakarrik emoten euskuzan, naita batzutan lukurrerizko-fariseoak ostikadaka ibili, Aitaren etxea saleros-legez ibiltzen ebelako.

Ostikada orreik fariseo andikiak ez ebelako parkatzen, Jesus gurutzean il eben, eta iltze orren ondorioz bere sinismeneko aolkularitza katoliko alderdikidetu eben, gai-mundu onetan Erromatar katolikotasuna, ziri edo ta zilborraren ardatza izan zedin.

JAINKOA Goiko Zeruan dago, eta guri Berak gai-sortarazitutako legezko baldintza-kin bereztasun onetara, ez dauzku bialtzen norkerizko sasi-jainkotasunean bizitzen, len, Beragandik gaiezko bizi au baldintzatuta dagoelako, eta bigarren, jaioten garenok ulertu dagigun baizik, nortasunez eta bakean bizi bear garela, bakotxaren beren eskubidetik zor-jakezanak ardura audienean ordainduta.

Zenbat bider gogoratzen naz gure Euskal guraso zarrakin: "Berba gitxi ta zeatzak, iñor kaltetu barik, beti arduradun euren zorrak ordaintzeko, eta beti prest, gure "EUSKAL LEGE ZARRAGAZ OITURATUTA", beartsuari laguntzeko.

b) Errege ta andikiak ortik aurrera, bereztasunezko legearen aurka egiten ebazanak eta gero itzuraz beintzat euren artean gizon-emakume on-lez agertzeko, Santa Fe'n, eraiki eben Uria ezarri eben zilbor lez, txar egiñekoari ongunde bidez garbitzeko, oitura lez egiten ebazan busti-zaletasunak <sup>(1)</sup>, edo bakeak beste trikimmalluekin lortzeko, ta abar.

Eta begitu, gizon/emakume jakitun aundi oneik, len eta gaur be, zelan egiten dabezan ostrukaren buru-ostonkera lotsati auek, euren artean truke: "Diru, eleiz-sari, ogipide, opari, mesede, koipekeriz busti, keiñalari edo guda-indarrezko keiñadakin" guztiak gogoz erabilten ebezanak, euren baitak itzuraz beintzat, bakeztuteko buruz.

Norkerian, ala Nortasunaren osagarritasunezko zor-ordezkaritzaren arrazoian egongo ote dira JAINKOAREN LEGEAK ?.

JAINKOAK, mundu onetara jaioten garan danõri BERE LEGEAKAZ, nortasunaren ardurazko kundeatzailleak izan gaitezan bialtzen gaitu iñungo zalantza barik.

Mundu onetan orregaitik, iñor ez gagoz baimenduta iñungo legerik sortarazten, "BERAK ipinitako LEGEAK, ortxe daukaguzelako ardura aundiz erabilteko".

d) Kolonek, I Isabel erregiñaren aldetik eukan babesa ta IIn Fernando erregearen aldetik gorrotoa.

Gorrotoa bai, baiña gorroto ori zergaitik ?.

Ala, IIn Fernando, IVn Karlosen ugazanaitasun aldetik Kolonen osaba izanda, eta bere aita ta berak IVn Karlos eta IIn Blankagaz Nafar erregetzan egin ebezan pozoitasun eta guzurretatik ostondu gurean, edo ta, euren alegiñez gain, Kolonen nafar ondorengotasunean, orokorrezko itsas osoa ta lur barri orrein agerketaren bere erregearen ordezkogindupean legez artuta, Nafar erregearen edestiko adierazpenetan arritasun aundi orreik ez zitezen argiratu ?.

Badago beste bide bat, Kolonen jaiogerazko ixiltasun zital ori adierazpendu egiten dauena, eta nik esango neuke, ziurtasun audienea daukana dala.

Ostondutasunezko ixiltasun zital orreik, Erromatar eleiztarrak, Katoliko batzangotzeko asmoaren aritik dakarrena dalako.

Bestela zelan ulertu, I Isabel ilda, IIn Fernando bere kaizar edo audiendetariko errege izateko itxaropenean Foix'eko Germanagaz ezkunduta, erdi ugarte onen ekialdeko Aragoi eta Napoleseko erregetzakaz ibili ebazan antolaketak ?.

(1) Busti-zaile = sobornador.

Gaiñera, zelan ikusiko eben orduko erregeak aiñ urrun, ia bertokoa be ez ba eben ikusten, euren arteko andinai ta eskubidearen naspiltasunezko borrokakaz.

Argi dago, egia bada Santa Fen katolikotasunezko-espainiar batzango orregaz itzarmendu ba-zirala, Erromako eleiztarren ardura bakarrik izan zala, eurengandik kanpo, iñork ez ebalako almenik ez ikusmenik euki, eurak esaten ebena, erregeak guda-indarrakin aurrera eroatea baiño, eta erregeak eleiztarren agindupean ez ba ziran ezartzen, VIIIn Fernandogaz sortu zan antzera, onen aginduz 1.810-1.823ko urteetan guda agintariak erregeen gaiñetik egin ebana baiño besterik egitea ez ebalako bear, katoliko-batzangotasun ori garaipentzeko.

Ala noren aginduz egin eben guda-nagusi aiek, Kadizeko 1.810-1.812 Merkantil ta katolikotasunaren konstituziozko errigizarte batzango areik, gaur oraindiño keiñatzaille daukaguzenak ?.

e) Eta arrigarriena dana, Ameriketako bidai orren, azken mariñelaren ogi-bide, izen abizen ta jaio erriak jakinda, Kolonenak jakin ez ?.

f) Naita egia izan, Kolonek ixiltasun orretarako Erregeakin benetako ziñezpen gogor bat eginda itzarmendu bazan be, urrengo urte ingurutan Gaztelako gortetatik, al izango ote ziran alako iziltasunik aurrera eroateko ?.

Iñundik iñora ez zan gerta ditekena, eta gitxiago, odolzaleko inkisizioaren agintaritzazko denbora aietan.

Ixilezko zitaltasun ori adierazteko, leen kontuan artu bear dituguzenak, orduko gertakizun orreik edestirako idazten ebazan idazkariak dira, eta denbora aietan eleiztarren kontrolpetik kanpo, ez egoan iñor.

g) 1.460ko Bagillan jaio zan Kolontar Kristobal Felanitx'eko land edo oraindiño zutik dagoen basetxe-gorrian, eta egia izan bear da IVn Karlos Nafarroako erregearen semea zala, land-etxe orretan orain bizi diranak "Margalida"ren izena ibiltzen dabelako, eta izen ori gaur ainbeste urte igaro ta gero erabilteko, ez zan izango lenengo neskatilla gazte bat euki zitun ume bat lez, izen ori gaur azpimarratzeko beste bereiztasunezko gertakizun berezitik etorri bear daualako.

Kolonek, 1.498ko irugarren itsas-aldiko bidaian, Benezuela aurrean ikusi eban ugarteari ipini eutson "Margalida" bere amaren pitxi-izen ori, Juan De La Cosa mapagilleak, Kolonek urte orretan bere itsas-eskutitzan ugarte ori izenduta ipini ebanetik aldatu ebana, eta gaur, Madrilleko itsas-erakustokian dagoena.

1.474ko urtean Kolontar Kristobalek 14 urte euki zituzela, itxas-ontzitarra igoten dau, bere osaba Kasenobe ta Kolontar Gillaume Amiraltearen agindutara.

1.474-1.475eko urte bitartean Kolontar Kristobalek, Esporades ugartedian dauan Kio (1) Ugartera egin eban oster bat, bertan "Lentisko"aren (2) zugaitza ezagututa, gero 1.492an Azaroaren 12an aipatzen dauana, Kubako Ugartean be aurkitu ebalako.

1.476ko udan Kolontar kristobal lenengoz eltzen da Portugalera, denbora onetan ondo baiño obeto ezagutzen eban Lur-Arteko itxasoa, eta baleiteke Atlant itxasoarekin amesetan ibiltea, Zipango (3) ugarteak aztu barik.

1.476an Dagonillaren 13an ikaragarritzko itxas-borroka bat egon zan erdi-ugarte onen San Bizente lur-beso aurrean, Jenobako lau itxas-ontzi ta Frantziko itxas-lasterkariaren artean, auek Kolontar Kristobalen osaba, Kasenobe ta Koullontar Gillaume agindupean egon ziranak.

Borroka onetan sua artu eban Kolonen itxasontziak, bera ta beren lagunakaz batera Jenobako itxasontzi bateri erasotzen egon zirala, ta uretara jausita arraun baten laguntzagaz, uger joan egin bear zuen Portugaleko izparter edo itxas-ertzean Lagos'eko ondartzara.

(1)Kio = Greziako ugarte bat. (2) Lentisko = txapar landara bat beti orlegi egoten dana eta egur gogorrekoa izanez gain, bere barrutik argitzeko ibiltzen zan olio bat ataraten eutsoena, eta usai-goza ta bizkorgarri lez be ibiltzen zan "Almaziga" zukea be. (3) Zipango = Japon'eko ugartediaren antziñako izena.



Eta Kolontar Kristobal gazte onek, Lagos'etik baleiteke 15 milla <sup>(1)</sup> edo 24,135 Km. egon ziran Sagres ta Sam Bizenteko lur muturretara joatea, Sagresen itsastar Enrike Portugaleko erregearen semeak euki ebalako beren itxasoko-eskutitz'gintza edo ta mapagintzaren lantegi-zilborra. Borroka onen ziurtasuna, Kolontar Kristobalen aldi bereko, Ruy de Pina Portugesa, eta Palenziako Alonsok argitaratu eben, Vn Fernando katolikuak egiztatu ebana, Diego de Barela'tar Mosen'eri Iraillaren 5n egunean bialdu eutson eskutitzan.

Kolontar Kristobal borroka orretan, 16 urte euki ebazan.

Vn Fernando katolikuak "Kolon'tar Kristobal"en izenagaz idazten dau eskutitz au, Kristobaleri oraindiño "Kristoforo Kolonbo" esaten eutsoenean.

1.477ko Otsaillean, Kolontar Kristobalek beren 17 urtegaz, eta itsasoaren jakiturizko arloetan Llull'tar Ramonen irakaspenak ondo ikasita, Islandiako bidean orduko Thule esaten eutsoen ugarteaz ezagutzeko eta itsas-bidai orren zeaztunak artzeko, urten eban itsasora.

1.477ko urte erdian Kolontar Kristobal itsasoaren zeaztasunezko jakin barriekaz Lisboan aurkeztu zan, eta itsasoaren jakitun andiko gizonakaz alkarrizketan ibilita, bere aipu ta ospea gorantza joan ziran.

Kasastar Bartolome lekaideak Kolonengaitik esaten eban: Los Santos lekaidetxera joaten zala Mesa Santua entzutera, eta lekaidetxe onen iraspenna, Santiagoren zaldunetako gizon aundiaren emazte ta alabaren etxea izateko izan balitz lez eraiki ebela, gizonak gudan egoten ziran bitartean, neskato ta andre garbitasun, zintzotasun eta agindupeko zifi-itza emonda, euren senar, senargai eta semearen alditarako urruntzean, bertan itxaroteko zala.

Los Santos lekaidetxe ori, gudari-elkargoko Santiagoren lekaimak zuzenduta egon zan.

1.478-1.479ko urteetan Lisboan, Kolontar Kristobal lekaidetxe ontara joaten zanean ezagutu eban bere emaztea izango zan Moniz eta Perestrelotar Filipa, beragaz ezkonduta.

Eta 1.479-1.480ko urte onetan jaio zan Kolontar Kristobalen seme Kolontar Diego, gero Itsas-zabalaren ondorengo bidetik, itsas-aundiaren bigarren Amirala izango zana.

Kolontar Kristobalen amaginarrebak, bere gizonak eukezan itsasoko tresneri guztiak emon eutsozan Koloneri, onek poz aundia erakutsita.

Eta bere emaztearen sendi bidetik, Portugaleko andikitasunen arteko ate guztiak zabalik aurkitu ebazan.

Orren argibidea, Portugaleko errege ta andikitasunezkoak beragandik be zeezer jakin ebelako da:

- a) Erregeen arteko mailan, ondo baiño obeto ezagutzen ziralako.
- b) IVn Karlos Bianako printzea Portugaleko erregearen arreba Katalinagaz ezkonduteko egon zanean, oso ezagutua ta onartua izan zalako gorteko andikitasunengaitik.
- d) Eta batera, Nafarroako IVn Karlos erregearen seme, Vn Fernando katolikuaren loba, eta I Isabel erregearen lenengo maillako lengusua izanda, argi dago Kolontar Kristobalek, ez ebela ezeren eragozpenik euki erregearen maillan sendi aundi baten alabeagaz alkartzeko, eta beren sasoi ederrenetariko 19 urte zituenean ezkontzeko.

Eta gero, Madera ugarte ondoan, Portu Santuko Ugartera bere emazte ta semeagaz bizitzen joanda, andik itsasoratzen zan, Azores, Madera, Kanarias, Orlegi lur-muturraren ugarteak eta Ginea ikustera joateko.

1.480ko urte onetan Kolontar Kristobalek, irakurri bear izan ebazan, 1.474ko Bagillaren 25ean Florenziako fisikari ta matematiku aundia zan Toskanelli ta del Pozotar Paolok, Portugaleko erregearen senidea zan Martins'tar Fernando kalonje edo eleiz-legegizonari, bialdu eutsozan eskutitz ta mapa bereziak.

(1) Milla batek, Gaztelera = nudo esan gura dau, eta 1.609m. daukaz.



Toskanellik, Martins'tar Fernandori eskutitz eta mapa onegaz esaten eutsen: Itxasoko eskutitz edo mapa au, nire eskuekaz eginda dago, eta margoztuta dagoz zuen Portugaleko itsas-bazter ta ugarteak, lur-bururainoko bitartean <sup>(1)</sup> ta kontuan artu bear dozuen gauberdin-lerroa <sup>(2)</sup>, bai zenbat leko <sup>(3)</sup> erabili bear dozuezan, ugari ta gozatsutasunezko aberats toki orreitar eltzeko. Toki orreitatik asi bear zenuke zuen mendebalerantzako bidaia, eldu bear zareten lekuetara.

Ez arritu nire eskutitzetan Mendebala esatea, onkailu, kanela, gaz-piper, atsegintasunezko lur orreri, oiturazkoa daukagulako gauza orreik Ekialdetik datozela esaten.

Leku orreik, Itxasoaren beko boil-erdi edo lurrerditik <sup>(4)</sup> Sartaldera bideratzen diranak, Mendebaletik aurkezten diralako, eta lurraren boil-erdi edo goiko lurrerditik bideratzen diranak, beti Ekialdetik.

Kolonek eskutitz au berriz idatzi ta aldatu ebenean, Silbio ta Pikolomini'tar Eneasen "Historia rerun"egaz lotu eban eta "Kolonbina Liburutegian zaintzen da", Sebillako Urian "Laran-Ondo Aterpe edo Bailan" kokatuta dagoena.

Kolontar Kristobal ez zan pozik geratu eskutitz ta mapa orretan ekarten ebenagaz, eta Toskanelli berari idatzi eutsen beste eskutitz bat, zeaztasun orreik argi geiagoaz ulertzeko.

Argi ikusten da Kolontar Kristobalek, al eban jakiturizko zeazpen ta zeaztasun guztiaz gaz batzen zituela eskutitz ta itsas-eskutitz edo mapatan aurkezten ebazan aurreko txetasun ta oarketak, barnean euki ebazan egarrizko asmakizun aundiak, bere bizi denboretan bete gura ebazalako.

Kolontar Kristobalek, liburu, agiri ta idazki askotatik, ainbat gogaketa, galdeketa eta oarketa eginda gero, ondorio onetara eldu zan: Indiasoko lurrarteraino peninsula onetatik, borobil mundu onen itzul-ingurutik <sup>(5)</sup> 282° besarkatu egiten ebazala, eta 360°tik 282° kendu ezker, Katayo <sup>(6)</sup> ta Lisboako bitartea 78°koa zala.

Eta lur-gerrirantza 2/3, 78° oneik 56° edo 50 milla Kanariasen neurrian gitxi gora beran berentzat izan zirelako, Mendebaleko bidetik peninsula ontatik Indiaraino, 3.900 milla edo 975 leko urtetan eutsen Gomeraren obo <sup>(7)</sup> neurrian.

Eta utsegiteko bide ortatik, neurtasun orreikaz Indiaren Ekialdeko lurak, nai gabe Amerikaren Atlant-lurraldeetan kokatzen ebazalako, ez da arritzekoa bera Ameriketako lurraldeetara eldu zanean, Indiako lurraldeak zirala esatea.

1.478ko urtetik aurrera Kolonek bere ustean asi zan esaten, zeintzuk ziran itsas-aundiaren zabaltasunezko neurriak, eta agertuko ziran gauzak bide orretatik, 1.484ko urterarte geratu barik egonda, beren gogoko gauza orreikaz.


1.483ko urtean Kolonek, ba eukazan asmakizunezko egitarau oneik mugatuz, idatzi ta erabagita, baiña, Itxas-ontzi ta mariñelentzako bear ziran ondasunak berak naiok ez eukazalako, laguntzaren egarri aurkeztu zan, itxaropenezko gertaldi ori aurrera eroateko.

Eta orretarako, Kolontar Kristobalek euken egitamu ori, Portugaleko errege II In Juaneri aurkeztea erabagitu eban.

Kolon, Portugaleko errege II In Juanegaz egonda, aurkeztu eutsen zeregiñezko egitaraua, au izan zan: Mendebal edo sartaldeko bidetik Egurdi edo itsas-zabalaren mukan eguzkia goaldi aundienean dagoenerantza joanda <sup>(8)</sup>, lur zabal, ugarte eta zorientasunezko lur sendo ta aberatsak, urre-gorri, urre-zuri edo zidar, pitxi edo txirlarri, arri-bizi edo arri-argi ta amaibako giza-sumeak aurkituko ebazala.

Eta bide orretatik berak ulertzen ebala, Indiako lurraikin topo egingo ebala, bai-ta Zipango ugarte aundiekin <sup>(9)</sup> be, eta Kaizar edo Kan Andiaren erregetzagaz.

(1) Lurbururainoko bitartea = distancia al Polo. (2) Gauberdin-lerroa = Linea Equinocial. (3) Leko = legua. (4) Beko boil-erdi edo lurrerditik = hemisferio inferior. (5) Mundu onen itzul-ingurutik = de la circunferencia de este mundo. (6) Katay edo Katayo = Txinari emoten jakon izena Erdi-Aroan. (7) Obo = latitud, paralelo. Gomeraren obo-neurrian = paralelo de la Gomera. // (8) Egurdi edo Eguzkia. (9) Zipango ugarte aundiekin = Japonen antziñako izena, Marko Poloren esanetatik.



Ⓔ

Aurkitutako gauza guzti orrean ordez, baldintza oneik ipini eutsozan Portugaleko II In Juan erregeari, bera gizatsu aundi lez jantziteko: leen, onartu egiela urre-gorritzko zalduna izatea.

Bigarreneko baldintza bera ta beren ondorengoai "Jaun" (1) gorengo izenagaz deitzea. Irugarren bearrezko baldintza: Itxas-zabalaren Amiral-Aundiena izatea.

Laugarren, gaiezko gauzetatik, erregeak artzen ebazan Urre-gorri, zidar, bitxi(2), arri-bizi edo arri-argi(3), menasta(4), onkailu(5), pizkailu(6), gaz-piperki(7), kanela ta beste onuratsuzko edozein gauza guztietatik 10ena berentzat izan daitela.

Eta askenez, joan-aldi baktzaren antolakuntza eta egiten ziran bidalgo guztietatik, berak ordezkatzeko eskubidea eukitea, ibilaldiko talde baktzaren baliozko kopurutik zortzirena ordaintzeko.

## Oar txiki bat zati onetan.

Oraifarte idatzita daukagunagaz eta orduko erregearen izaerakin, baten batek ulertu leuke Kolontar kristobalen ain lotsabageko eskaeraren eskeintzari, al-osokerizko sasi-jainko ta odol-ixurtzaille errege aiek, eriotzarekin ez bazan izaten, zigorkada edo astifaldi gogor barik itxi ote leukiela ?.

Argi dago Kolontar Kristobal European orduko andikitasunen artean, onartuta egoala, IVn Karlos Nafarroako errege ta Margaritaren seme lez, eta Fernando ta I Isabel katolikuen leen maillako loba edo ta senidea izan zalako.

Zer gertatuko jakon, eskale bat edo ta, Jenobako be maillaren errikoi mariñel Kolontar Domeniko eta Fontanarrosa tar Susanaren semea izan bazan, 1.470-1.473ko urtetan Jenoba eta Sabonako notari-agirietan, illagintzaren (8) bizibideekin agertzen zanari ?.

Ez dot ustegabe ona ekarten Jenobako Kolontar au, Jenobezak Kolontar Kristobalen aurka egiteko edo ta Kolontar Kristobalek Ameriketako lurraldearen agerketa bidez, artu ebezan entzute eta ospe guztiak eurekandu, edo agerketa orrean eginkariak eurak izan ba ziran lez agertu gurean, ille zaltzaille Kolontar au zala Amerikaren agertzaille esaten eban, Berd ta Martorelltar Grabielek egia argitara agertuaz, Jenobezaren naikeriak ezerezuta.

## Edesti onen aria oster berrezkuratuta.

Portugaleko errege II In Juanek, iru jakintsuen aolkularitzara eroatea agindu eban Kolonek aurkeztu eutsoezan eskeintzak: "erregearen osagille ta izarlari Rodrigo ta Josope judu bieri", ta "gatzelako eleiztar Ortiztar Diego", lenengo Zeuta eta gero Bizeu ko gotzaia izan ziranai.

Jakintsu oneik, Kolonen eskeintza izarlari ta kosmografoakaz ikertu ta gero, ezetza emon eban, euren ustean Zipangoko lurraldea ez zalako kokatzen Atlat-itsaso zabalaren ostean.

Kolon 24 urte eukezala, bere emazte Moniztar Filipa il jakon, eta emen argi ikusi leike, bere bizitzan gertatu jakozenak, bere aita Nafarroako IVn Karlosen antzekoa zala, bere gorpua, Karmengo Ama Birjiñaren eleizan illobiratuta.

Kolontar Kristobal oartu zanean bere eskeintzat ez zirala onartuak izan, eragozpen aundi bat agertu jakon bere lau urteko seme Diegogaz, ezin ebalako beren egitarauen eskeintzakaz askatasunez ibili.

1.485eko urtean geiago oldoztu edo arazo orreik buruan erabili barik, eta II In Juan Portugaleko erregearen beldur, edo zuurtasun andiz bai beintzat, erdi ostonkeran Uelbako

(1) Don edo Jaun deitzea = tener tratamiento de Don o Señor. (2) Bitxi = joya, albaja. (3) Arri-argi = piedra preciosa. (4) Menasta = mineral, metal en bruto. (5) Ongailu edo onkailu = abono. (6) pizgailu edo pizkailu = producto, hierba o flor para reanimar. (7) Gazpiperki = salpimienta. (8) Illagintzaren = batanero, lanero, tratante en lanas.

Mugaren-Palos itxas-kai edo portura joan zan Diego bere semeak bosturte eukezala, eta lan asko egin ondoren, emendik asiko jakozan aukereak agertzen Koloneri, eukan burupidea aurrera eroateko, argitasunezko lenengo-izpiak Gaztelako lurraldeetatik asita.

Kolontar Kristobalek Uelbaren Mugako-Palos itsas-kaia aukeratu ba eban bere semeagaz joateko, Nieblako Konderrian koñatu bi euki ebazalako zan, Korreatar Pedro, Perestrellotar Iseu´rekin ezkondata, eta Mulyar´tar Migel, Muniztar Briolanja´gaz ezkondata egon zana, bide batez bere seme Diego zaindu egien, bere gauzakin ibiltezan bitartean.

Alderantziz be oldoztu leike, bertotik errezago euki ebazalako Gaztelako gortera bere joan etorriak egiteko.

Bañia Kolonek jakinda andik 6 kilometrura Rabidako lekaidetxea egon zala, bertara joan zan bere semeagaz, ta atea jo ta ogi zatibat eskatuta bere semeentzat, frantzizkotar lekaideak arrotz-zaletasun guztiagaz onartu eban.

Eta emen Mallorkako Lulltar Ramon frantzizkotar jakintsua aipatu bear dogu, bere jakin aundiko ikerketaren bidez, itsas-mugimenduaren gora-berak adierazpendu egiten ebazanean,

Atlant itsasoko beste aldean lurrak egon bear zirela, esaten ebalako, gero Rabidako lekaretxearen Pereztar Juan eta Martxenatar Antonio frantzizkotar lekaideak aurrera eroan ebena.

Kolontar Kristobal Rabidan egoala, Pereztar Juan lekaideagaz aurkitu zan, eta bere asmo edo egin naiak berari adierazten egoala, au arrituta, lekaidetxeko osagillea zan Gartzziatar Ernandezeri deitu eutson, eta biak geratu ziran txundituta, Kolonen adierazpenakaz.

Lekaidetxe orreitan, ospe andiko izarlari bat be egon zan, Martxenatar Antonio lekaidetxe, bañia ez zan egon Kolon egon zan egunean.

Kolonek Rabidako lekaidetxe orretan, etxe ta eskola eder bat aurkeztu eban bere seme Diegorentzat, eta lekaidetxera sarri joaten ziran ainbat mariñelekin, adiskidetasun aundiak aurkitu be bai.

Belaskotar Pedro izan zan alango adiskide mariñel bat, Koloneri beren 40 urte ariñagoko itsasoaren ibilkerak esaten eutsezanak, adibidez: Fayañ ugarte ondolik aldatu ziranean eta 150 leko bañio geiago ibilita, Ipar-Mendebaleko aize zakar batengaitik eragozpenduta, itzuli bear izan ebela, ta bidean Loraren ugarte aurreratu ebela, lur-egazkiaren egazkadari begituta.

Kolonek, ez zala naikoa lekaidetxe orretan aurkitzen eban laguntzagaz eta bere pareko zaldun edo aundikiakin berba egitea erabagi eban, Guzmantar Enrike Medina Sidoniako dukearengana joanda, eta Kolonek beren gogoko asmoak adierazpendu ondoren, onek ez eutson onartu ezer.

Gero, de la Zerdatar Luis errege seme ta Medinazeliko Dukearengana joanda, eta au IVn Karlos Bianako printzearen alaba, Nafarroa eta Aragoiko Anarekin ezkondata egon zan ezker, nun agertu ziran koñatuak lez.

Eta Medinazeliko Dukeak emoten eutson laguntza, ez eutsala emoten Zalduneko aundiki bat izateagaitik, beren koñatua izateagaik be laguntzen eutsolako, Berd eta Martorelltar Grabielek beren liburuetan ondo bañio obeto adierazpenduten dauan lez.

Kolontar Kristobal, urte bi inguru egon zan bere Nafar eta Aragoiko arreba Ana eta bere koñatu de la Zerdatar Luis Medinazeliko Dukearen etxean zalduneko arreragaz onartu ta zainduta, eta denbora onetan izango zan, bere koñatuak I Isabeleri idatzi eutsola eskutitz bat, esaten, zelango asmoak euki ebazan Kolonek itsasoaren bestaldera joateko.

1.486an Urtarrillaren 20an Kolontar Kristobal, IVn Karlos ta Margaritaren seme ta errege katolikuaren loba au, Kordobara joan zan bere koñatu Medinazeliko Dukeagaz laguntzaille lez, onek I Isabelen aitorleari idazten eutsoezan eskutitzak eroaten, eta Talaberako Ernando I Isabelen aitorle oneri eroan eutsoezan eskutitz orreitan, idatzita joan zirala ezan leike, Kolonen errege-seme ta ondorengotasunezko zaldun izaera, ezkontza, jakituri ta eukezan asmo guztiak.



Fiskerazaintza





Eta Kolonek, bere koñatuaren aolku bidez, erregearen zenbatzaille nagusi Kintanillatar Alonsorengana joanda, onek, Gonzalez ta Mendozatar Pero Sebillako gotzaia eta gero Toledoko kardinala "irugarren errege" izenagaz ezagutzen zanarengana eroan eban.

Kolon, iru illabete inguru egon zan Kordoban, errege katolikuak Kordobatik itzuli arte, eta Kolonek, Jorraillaren askeneko gerta-egun orreitan ezagutuko ebazan bere izeko-osaba katolikuak.

Kolon, I Isabel eta Fernando erregearen gortera joan zanean, berak itsasoaren gora beran jakin ebazanek adierazi eutsezanetik, eta eroan eban itsasoaren eskutitz edo mapa erakutsi ondoren esan leike, Kolon emendik aurrera babestuta egon zala bere izeko-osabaren aldetik.

Errege katolikuak garrantzi aundia emon eutsoen asmo oneri, talde-buru bat antolatuta, Kolonek aurkezten eutsen egitaraua entzun eta ondoren ikertzeko.

1.486an Urtarrillaren 20an Kolontar Kristobal, IVn Karlos ta Margaritaren seme ta errege katolikuaren loba au, Kordobara joan zan bere koñiatu Medinazeliko Dukeagaz laguntzaille lez, onek I Isabelen aitorleari idazten eutsoezan eskutitzak eroaten, eta Talaberako Ernando I Isabelen aitorle oneri eroan eutsoezan eskutitz orreitan, idatzita joan zirala ezan leike, Kolonen errege-seme ta ondorengotasunezko zaldun izaera, ezkontza, jakituri ta eukezan asmo guztiak.

Eta Kolonek, bere koñatuaren aolku bidez, erregearen zenbatzaille nagusi Kintanillatar Alonsorengana joanda, onek, Gonzalez ta Mendozatar Pero Sebillako gotzaia eta gero Toledoko kardinala "irugarren errege" izenagaz ezagutzen zanarengana eroan eban.

Kolon, iru illabete inguru egon zan Kordoban, errege katolikuak Kordobatik itzuli arte, eta Kolonek, Jorraillaren askeneko gerta-egun orreitan ezagutuko ebazan bere izeko-osaba katolikuak.

Kolon, I Isabel eta Fernando erregearen gortera joan zanean, berak itsasoaren gora beran jakin ebazanek adierazi eutsezanetik, eta eroan eban itsasoaren eskutitz edo mapa erakutsi ondoren esan leike, Kolon emendik aurrera babestuta egon zala bere izeko-osabaren aldetik.

Errege katolikuak garrantzi aundia emon eutsoen asmo oneri, talde-buru bat antolatuta, Kolonek aurkezten eutsen egitaraua entzun eta ondoren ikertzeko.

1.486an Loraillaren 15ean Errege katolikuak orduko denboran moruekin guda gogorrean egonda, eta Fernando egun orreitan borrokara urten ebalako, Loraillaren ariñauko egunetan esan leike ikertasunezko talde-buru ori sortzeko erabagi ebela.

Talde-buru onen lendakaritza, ez eban euki edozeiñek, Talaberako Ernando au, I Isabelen aitorlea izanez gain, erregiñarentzat orokorrezko-ministru baten antzerakoa izan zalako, eta osotzen eben taldekideak be, Salamankaren Ikastetxe Nagusiko jakintsuaren ardurapean ipinita: Zakuto'tar Abraham izarlari aundia, Torres'tar Diego izarren irakaslea, de la Yerbatar Nuñez eta Nebrija kosmografo, itsaslari, filosofu edo jakin-zale omnetsuakaz osotu zan.

Kolontar Kristobal Salamankan egon zan denboran, benetan gozatu eban, bere jakintza ta asmoak, Salamankaren goi maillako ikastetxe nagusian, ta dominiko lekaidearen ardurapean egon zan San Esteban lekaidetxean adierazten.

San Esteban lekaretxe onetan gero, Deza'tar Diego izango zan zuzendari, Torkemadatar Tomas inkisiziozko azterkai nagusiaren ondorengo lez, Kolonek lekaide onen babes guztia eukinda, 1.504an Azaroaren 21ean Sebillatik, bere seme Diegori idatzi eutson lez.

Talde-buru onek, ainbat bider batzartu zan, eta danetan esaten eben eziñ-egiñezkoa zala Kolon Amiralak aurkezten ebana.

1.487an Loraillaren 5ean Kolon eta Diego lekaideak, Kordoban egon zan Granadako gudu abia-lekura lagundu eutsoen gaztelar gorteko kideai, eta Kolonek, orduan artu ebazan lenengo 3.000 marabedi, Uztaillaren 3an beste 4.000 marabedi, eta Dagonillaren 18an

E

Malaga mauritarrei kendu eutsen osteko Dagonillaren 27an, 4.000 marabedi KOLOMOTar Kristobalen izenarekin, beren biziaren beartasunerako.

Ekintza onek bakarrik argitzen dau, Kolon, errege katolikuaren loba izan zala, bestela nundik emongo ote eutsien ainbeste diru, eurak beartasunean egonda Andaluziko lurraldeak morueri kentzeko alegiñean ibilita ?.

1.487ko urte onetan Kolon Kordoban bizi zala, ez ebazan bakarrik beren bizitzazko bearraldiak asetu, baleiteke denbora onetan izatea, bere bigarren emazte-gaia izango zan Enrikeztar Beatriz, Gaztelako Amiral Enrikeztar Fradikereren alaba, leku orretan ezagutzea, eta beren bidez, 1.488ko Dagonillaren 15ean bere bigarren seme Fernando euki.

Baiña, 1.487ko urtearen amaieran edo 1.488 asieran, Kolon bere bidaiaren gora beran ikerlariai ainbeste deboran itxaroten, ta erabagirik ez zalako agertzen nekatuta, Portugaleko erregeari idatzi eutso eskutitz bat, beren serbitzuak eskeintzen.

1.488an Epaillaren 20an idatzita artu eban Kolonek, IIn Juan Portugaleko erregearen adiskidetasunezko, bizkorgarri eta maitekerezko erantzuna, IIn Juanek gogo aundiak euki ebazalako Kolon berriz bere serbitzuan artzeko.

Kolontar Kristobalen itxarotezko asperraldi denbora onecitan, ainbat gauza kosmografia ta jeografiako liburuetatik irakurri ta idatzi ebazan, eta bere aita IVn Karlosen olerkari edo izneurlari oneko ondorengotik bere izaerazko zaletasunean agertuta, baita olerkiak be, bere "Iragarpeneko liburuan" agetzen diran lez.

Bai bere irakurketaren bidetik, oarketa asko idatzi be liburuko orrien idatzibako lekuetan, adibidez: Marko Polo, 1.489ko urtean irarritako Plinioren orokorrezko edestian, Plutarko, Ptolomeo ta abar.

Baiña, Sebillako "Kolonbino erakustokian" dagozan liburuak 2.125 oarketakin: 1.485eko urtean argitaratuko "Marko Polo latino", "Senekaren izu-antzerkiak", "d'Allytar Pedro kardinalaren Ymago mundi, onek 1.410ean idatzi eban Jeografiaren orokorrezko liburuan esanda, Asia Ekialdetik urrun zabaltzen zala, eta mundu onen biribiltasunezko beste aurpegi aldetik, ez zala egon Europatik bananduta itsas-estu bategaitik baiño, eta azkenez, Silbio ta Pikolominitar Eneas, gero Aita Santua izango zana IIn Pio izenarekin idatzi eban "leku guztietan gauza guztiaren egindako edestia" (1), dira.

Kolontar Kristobal, jakintza ta itsumenezko ardura aundiko gizona zan bere munduko biribiltasunari begira, eta ez ebanzan alboratzen liburutik, kontu orreitan bere barruan aipamen txikerrena baiño ekarri ez arren.

Onez gain, Kolontar Kristobal gaztelanian egon zan denboran, oso babestuta egon zan, Kintanilla, Dezatar Diego, eta espainitarren Kardinala kontuan euki barik, Kabreratar Andres eta bere emazte Fernandez de Bobadillatar Beatriz, Moya 'ko Markesak, I Isabel erregeiñagaz adiskidetasun aundiak euki ebezanak, geiago, Malagako ingurutasunean batera egonda, mauritar batek Beatrizeri aitzokada sakon bat sartu eutsoenean berak galbidetik gordeta, bai eta Kabrerotar Juan erregearen gelazaiñ aldetik, eta abar.

Aragoi aldetik be, naita juduak izan arren, ba-eukazan beste adizkide laguntzaille batzuk, Santxeztar Gabriel diru zaiña eta Santanjeltar Luis idazkaria bezela.

1.488an Dagonillaren 15ean jaio zan Kristobal eta Beatrizen seme Fernando, eta ezkondu ez arren, orduko denboran zaldunezko aundikiari ez eutselako ardura aundirik emoten, edozein nezka bategaz ume bat eukiteagaitik, naita Beatrizek beren bizitza on eroan dagien, Kristobalek bere ardurazko gauzak ondo baiño obeto atonduta itzi, gero 1.502ko urtean azkenai lez bere seme Diegori agindu eutsoenean bezela.

1.489ko urtean, Kolontar Kristobal, leku askotatik ibili zan itsasoz Gaztelako erregearen serbitzura, erregearen eskutitz bat beragaz eroanda beti, egoten zan leku guztietan

(1) *historia rerum ubique gestarum = Leku guztietan, egindako gauza guztiaren edestia.*

ordezkatu bear ebazanak Gaztelako gortearen ordaintzeko ardurapean geratzen zirala, esaten ebana.

Eta emen, Kolonen zaldunezkotasun ta erregearen senitasunak agertzen dira ostera be, bestela nundik nora ulertu ainbeste eskubideko laguntza ?.

1.490eko urtean, Indiako bidearen gora beran urte ta egunak astiro baiña etenbako iraun aldian doiezela, Salamankaren batzarreko iker-taldearen erabagia agertu zan, Kolontzat ez ebena ekarten baimen eta gitxiago zorionik, Jakintsuen eritzian bidai ori ezinezkoa ta ezezkoaren merezimendu andienagaz baztartu egin ebalako.

Baiña erregeak, Kolonen aurkako erabagia euren eskuetan euki arren, eskutitz bat bialdu eutsoen Koloneri, ezeren itxaropenik kendu barik, eurak erabagiko ebela, Granadako guda amaitzen zanean.

Zoritxar andia Kolontzat, sendian banaduta egonez gain, bere biziaren egoera okertzen ebalako, 11 urteko Diego semea Uelbaren Rabidako lekaiaretxean, beste semea Kordoban bere amagaz, eta txarrena, Gaztelako gortearen laguntza kendu eutsoenean.

1.491ko Jorraillaren 11n Errege katolikuak Juan Printzeagaz batera, mauritarren aurkako borrokak asteko naian, Sebillarantza joan ziran, Fernando katolikuak bere emazte I Isabel eta seme Juan, Erregearen Alkalako urian izteko.

Uztaillaren erdian I Isabelen larruzko aterpeak sua artu eban, eta beste aterpeetan su orrek triskantza aundiak egin eta gero, Fernandok ez daiten ostera alango gauzarik sortu eta beren gudalozteak ondo babestuta egon zitezten, iru illabetetan erri bat jaso eben Granadako ibar aretan, eta "Santa Fe" izena ipini eutsoen uri barri orreri.

Errege katolikuak beti lagundu ta babestu eutsoen Koloneri, baiña sekula ez eben bere izenik, jaiio erria ta euki eben Nafarroako erregearen ondorengotasuna aldarrikatu. In Juanek eta bere seme Fernando katolikuak, bere aita IVn Karlosekin, errege lez euki zituzten leiak eta pozoitasunezko eztabaidagaitik izango ote zan ?.

Nik geiago sinistuko neuke, Fernando katolikuaren maltzurrezko guzurti ta gaizkatzaille izateagaitik, ez ebala gura nai iñork jakin egian nor zan Kolon, berak eta bere aita In Juanek egin ebezanak, euren seme ta ugazanaiarekin ez zitezten ezagutu.

Orregaitik da izilpeko ongunde zarratu ta politiko zital bat, orduko denboratan Kataluña ta Euskalerrria edo ta Nafarroan ezagutu ba ziran Kolontar Kristobalen izen abizenak eta IVn Karlos Nafarroako erregearen semea zala, erri-biak euki ebezan eskubidetik, indar guztiekaz matxintasun bideetan sartuko ziralako.

Koloneri, Gaztelaren gorteko agiri guztietan emoten eutsoen arrera, ez zan Mallorca, Jenoba, edo ta alango beste izen bat eukiteagaitik, ez, arrotza izateagaitik baiño.

*Eta au da nire ustez, Kolontar Kristobalek euki eban bene-benetako arazoa, errege katolikoak eleiztarren agintaritzazko kaizar aolku eta gaizkidetasunean euki eben almen guztiagaz, jakin ez-edin edo Aragoi ta Nafartar erregetzaren izenak ez egiezan agertu, ezezaguntasunezko illunpetasun baltzenetara sartu ebazan Kolonen izen-abizen ta ondorengotasunak.*

*Bestela Granadan, Nizeatik katolikotasunezko batzangotasunaren asma-kuntzan etorten zan iritziari bertan ziñez itz emon edo xinpetuaz ez ba eben berriztu, espainiar izenagaz erdi-ugarte edo peninsula au aberri-katolikotasunean batzagotzeko euki ebezan egin-nai guztiak, pikutara joaten ziralako.*

1.491eko urtean, Kolontar Kristobal ez zan kikildu eta Uelbara joan zan Rabidako lekaretxean frantzizkotarren babesa, eta Palos'eko mariñelaren laguntza billa.

Eta begitu non sortu leiken zoriona, bertan aurkitu ebalako, len berari ainbeste lagundu eutson Pereztar Juan, beste gizon bi barriekaz, Martxenatar Antonio ta Alonso ta Pinzontar Martin, berentzat ain garrantzizkoak izango zirenak.

1.492an Urtarrillaren 2an menperatu eben errege katolikuak Granadako Uria, eta emendik aurrera emon eben amaitutzat mauritarren aurkako guda.

Batikanoko inguruan Aita Santuak, Erromako San Pedro eleiz nagusian meza santuak eta jolas-jaiak ospatuta. Bai eta VIIIn Enrikek Londreseko San Pablako eleiz nagusian, Islanen aurkako katolikotasunaren garaipena ospatuta.

Emendik aurrera azten dira Kolonen alkarrizketak Gaztelako errege katolikuarekin.

Eta Berak beren buruagaitik zer oldozten eban jakiteko, berak idatzitako berba auek aurkeztuko dautsuet: "Ni zer nintzala oldozten, nere apaltasunak naspillatu egiten eustan, baiña, izaeran eroaten nebana jantzita oldozten, koroi bi orren bardiñakua senditen nintzen".

Eta len Portugaleko erregeagaz egin eban antzera, errege katolikuakaz batzartuta, bere eskaerazko baldintzak ipini eutsezan: agertuko ebazan lurraldearen "Errege ordea, Amiral ta Orokorrezko Jaurleri" izendatu egiela, eta azkeneko izen oneik Don izen-ondokoagaz betiko eroan egiezala bere ondorengoak.

Bai eta Indiasera baktzaren joan-aldirako prestatu egin bear ziranaren balio izaten zan diru guztitik, berari itzi eutsiela zortzigarrena ordaintzen, eta irabazi guztiko kopuruaretik berari, amargarrena ordaintzea.

Errege katolikuen eritziz, lar zala Kolonek eskatzen ebala ta ostera bota eben atzera Indiazeko asmo ori.

Kolon asarre, lagun guztiari agur eginda eta mando baten gaiñera igonda, Kordabaran-tza artu eban bidea, gero Frantzirantza joateko.

Moyako Kondesa, Kintanillatar Alonso, Kabrero ta beste lagunak, ez eben onartu Kolon Europako beste erregetza batera joan zedin, eta euki ebezan asmo on guztiak beste kanpotar batzuk gozatu ez egiezan, erregiñarengana joan ziran ostera, erregiñari esanda, ori gertatuten bazan, Gaztela ta Katolikotasunaren kalte izango zala.

I Isabel Gaztelako erregiñak ostera mezulari bat bialduta, eta Granadatik leko-bira "Pinos Puenten" aurkituta, ostera itzuli zan Kolon bere izeko erregiñak zer esaten eutson entzutera.

I Isabel bere loba Kolontar Kristobalekin egonda, auxe esan eutson: "Eginkizun au, nire Gaztelako erreñuaren kontuan artzen dot, eta Gaztelako gortearen gorde-lekuan dirurik ez balego, nire bitxi ederrak salduta ordainduko dodaz".

Emen ikustenda Fernando katolikuaren lenengo urruntasuna, I Isabel il zanean, egin-kizun oneik, bere guzurrezko maltzurtasun ta norkerizko jokoakaz alkartzeko.

Eta errege katolikuak, Kolonen baldintza orreik agiri baten batzeko, Kolonen lagun andia izan zan Pereztar Juan frantzizkotar lekaideari agindu eutson agiri baten idatzi egiezala, eta onek Koloma'ko Juanen laguntzagaz egin eta gero, alde biak "Santa Fe'ko elkargo"an izenpetu ebezan. Eta Kolonek, asieratik artu eben zalduneko arrera, errege seme-lez.

1.492an Jorraillaren 17an siñatu ziran agiri oneik Granadaren Santa Fe'ko Urian.

Eta Kolonek, agiri orren baldintza baten, ipini ba eban Enrikeztar Alfonso Amiralaren bizibide edo mailla bardiñean izendatzea, baleiteke Enrikeztar Alfonso, Gaztelako IIIn Enrike erregearen sasiko semea zalako izatea, eta bera beren mailla bardiñekua izanda, zer gitxiago berarentzat, eta alan egin eben Kolon, Indiako Amirala.

IIIn Enrike Gaztelako errege au, Fernando katolikuaren birraitite izan zan.

1.492an Jorraillaren 30ean errege katolikuak Koloneri, aurkitzen ebazan lurralde ta ugartearen "Amiral" "errege ordeko" ta "Jaurleri" izendatuz gain, berak bear eben guztia eskuratu egiotsiela agindu eben, bide orren asmoa, len bait-len lortu egian.



Eta erregeak, Palos'eko alkate Rodrigex ta Prietotar Diego eta erritarren artean erregearen aurka egon ziranai, agindu au emon eutsen zigor lez, kañoiakaz armadunezko itsasotzi-bi ipini egiezela erregearen urtebiko serbitzura, Kolonek bear eben lekutik ibilteko.

1.492an Loraillaren 12ko Zapatuan urten eban Kolonek bere taldekideekin Granadatik Palos'eko Uriaren itsaskairantza.

1.492an Loraillaren 23an Kolonek, Palos'eko jaurlari ta erritarrai deitu eutsen, San Jorjeko eleizan batu zitezen, erregeak emon eutsoezan aginduak danori irakurriaz batera, itsaszontzi biak bere ardurapean ipini egiezen.

Eta Palos'eko jaurlariak erregearen eskari ori beteteko, itsaskaian egon ziran itsasontzi bi baitu <sup>(1)</sup> ebazan, eta irugarrena De la Kosa'tar Juan kantauriko mariñelak eskeiñita eukan itsaszontziakin osotu zan Kolonen itsas-taldea.

Beste gauza bat izan zan itxasontziaren mariñeltza lortzea, ezau-bageko itsas uraren bildur, iñork ez ebalako gura itsasontzietara igon.

Kolonek egoera au ikusita, erregearen agintaritza erabiltzea erabagi eban, eta zigortzeko ziran gaizkilleari parkamenaren ordez deituta, lortu ebazan geienak beintzat.

Agindu orregaz batera, Andaluziko agintari guztiari esanda, Kolonek bear eban guztia saldu eutsiela, zentzunezko ordain sari bidetik.

Kolonek ez eban lortzen berak gura ebena eta Rabidako lekaideak konturatuta, Pereztar Juan lekaideari agindu eutsoen Kolonegaz berba egin degian, eta onek Alonso ta Pinzontar Martinen laguntza eskaiñita Koloneri, onek Pinzonegaz diru kontuen gora berak erabagita lortu eban, Pinzon bera ta bere sendiaren lagunakaz itsasontziaren mariñeltza betetea, eta baita Pinzonek berak diruz, 500.000 marauri maileguz edo aldikoz iztea.

Eta beste itsasontziren mariñel eza, atxilotuta egon ziran edo gizon-gaizkillearen gaiñetik, Palos, Uelba ta Mogerreko jendeakaz osotu ebazan.

1.492an Ekaiñaren 23tik, Dagonillaren 3rarteko bitartean Kolonek, Alonso ta Pinzon'tar Martinekin lortu eban bidai orretarako lortu bear ebena, eta Paloseko jaurlariak itzi eutsezan itsasontzi bien aldaketak beste aundiagoko itsasontziagaitik eginda, Palo'seko izenakin joan bear izan ebenak, "La Pinta, La Niña ta Santa Maria"ren izenak ipini eutsozan.

"La Pinta" itsasontzia, Palos'eko Kinterotar Kristobalena izan zan, ta iruretatik azkarrena izan zalako, itsasontzi onetatik ikusi ziran leen Ameriketako lurak. Itsasontzi onetan 26 mariñel joan ziran.

"La Niña" itsasontzia, Mogerreko Niñotar Juanena izan zan, eta Kolonek ontzi-oialetan egin eutsozan aldaketakaz, bestien bezelako azkarra biurtu zan. Eta itsasontzi onetatik bota eben lenengo tiroa Rodrigex ta Bermejotar Juanek <sup>(2)</sup> lurra ikusi ebalako. Itsasontzi onetan 22 mariñel egon ziran.

"Santa Maria", la gallega esaten eutsoenai, de la Kosatar Juan Santoñako izarlari aundi ta geroago onek egin eban Ameriketako mapa artean ospatsuena izango zanarena izan zan, Koloneri akuratu edo alokatuta. Itsasontzi onek 39 mariñel euki ebazan.

Itsasontzi oneik, izkillu sendo ta kañoiakaz tresnatuta egon ziran, eta lau Pinzon senditar aurkitu ziran ikertasunezko bidai onetan:

Pinta itsasontziren kapitaiña, Alonso ta Pinzontar Martin 45 urte ingurukoa.

Itsasontzi onen bigarren agintaria, Pinzontar Franzizko Martin.

Itsasontzi onetan be mariñel lez, Pinzontar Diego martin joan zan.

Eta "Niña" itsasontziren kapitaiña Yanez ta Pinzontar Bizente 32 urtekoa.

Diruagaz be, txarto ez, Pinzonek ipini ebanzan milloi erdiari, beste milloi bat gaiñeratu egin bear zalako errege katolikuak emon da.

(1) Baitu = *decomiso, confiscación, secuestro*. (2) Rodrigex ta Bermejotar Juan = *Trianako Rodrigoren izenakin esagutzen zana*.

## Eta emen oar txiki bat.

Eskerrak B. Gould' tar Alize ikertzaille edo aztertzaileari, iru itsasontzietan jua ziran 87 mariñel guztien izen-abizen eta nungoak ziran datoz, Berd eta Martorelltar Gabrielen liburu onetan.

Orregaitik dakigu Murtziako bat eta amar galizia ta euskaldunen artean ziranetik kanpo, danak andaluzitarrak izan zirela.

Eta arrigarriena amen, zergaitik mariñel guztiaren izen-abizen eta bakotzaren ogi-bidetik euki ebezan langintza eta eurengandik bear ziran zeaztasun guztiak jakinda, Kolontar Kristobalena izen-abizen ta ondorengotasunik ez ?.

Ni itxaropenezko gizona naz, eta ez dakit noz, baiña uste dot agertuko dirala.

## 4. ZATIAN.

### Lenengo itsasaldia.

1.492an Dagonillaren 2an Kolonek 32 urte euki zituzela, itxasontzietara igoteko agindua emon eban, eta Dagonillaren 3an eguzki aldetik egun orren argitasuna agertu egien ordu erdi bearrean egon ziranean, itxasontziak itsas-zabalera bideratuta, kaiatik urtetako agindua emon eban.

1.492an Iraillaren 1ean Gran Kanariasen ugartediko Las Palmasetik urten eta Gome-rako San Sebastian kaiara joan ziran.

Eta 1.492an Iraillaren 6an Gomera ugartearen San Sebastian kaiatik urtenda, atzean itzi eben Europa zar au, itsas zabalaren bakartasunetan sartzeko.

Mallorkaren izarlaritzazko ikastetxetan ikesten ziran izarraren kokategietatik ibiltan, eta ibili be ibiltan ziran, euren artean ezagutzen ebazan itsasoetan, eskutitz edo mapa ba-ten izarraren ezarmeneko zeru-margoztutatik, Mallorkakoak gauza orreitan sakon sartuta egon zirelako.

Eta bai Europa osoan be arduratzen ziran ikasten, baiña itsasoaren bazterretik ibiltan ziran lez, itsaslariak ez eben eukiten itsasoko gauzatan, izarraren laguntza bear tresneri lez, arik eta Kolonen antzera, itsaso zabalaren bakartasunean sartuta, bear ebezan zeaztunak artzeko beste tresnerik euki ez, eta Kolon bera izan zan kosmografiaren tresnak leen ibili zituzenak.

1.492an Iraillaren 19an Santa Maria itsasontzi inguruan, sanga <sup>(1)</sup> bat agertu zan, eta jakinda txori au ez zala urrunduten 20 leko <sup>(2)</sup> itsas-baztarretik, jakin eben lur sendo edo ugarte aundi batetik urbill egon zirala.

1.492an Urrillaren 11n aize gogorra ibiltan zala, Pinta itsasontzikoak suagaz landuta-ko makilla bat eta kañabera batzuk ur gairanean ibiltan zirala ikusi eben, eta baita urrunean sua be.

1.492ko Urrillaren 11n gabeko 2-3 ordu bitartean Kolon, Alonso ta Pinzontar Martin, Yanez ta Pinzontar Bizente eta iru itsas-ontziko mariñelaren neka eta larritasunezko otoitz eskaerak entzunak izanda, nun agertu jakiezan Amerikako Lurrak, naita eurak Indiako lurrak aurkeztu ebazala ustean egon.

Orregaitik ango biztanleai Indian egon zalakoan Kolonek, indioaren izenakin deituta, gaur be orokorrean izen orrekin ezagutzen dira ango lurraren seme-alabak.

(1) Sanga = alcatraz (ave). (2) Leko = legua.

1.492an Urrillaren 12an Bahamas edo Lukayaseko ugartedian osotzen dauan Guanahani bertoko semeak deitzen eutsoen ugartean lurreratu ziran, eta Kolonek aunditasun guztiagaz, bere Mallorkaren Felanixt'eko erriaren dagon San Salbadorreko baseliza gogoratzuz, "San Salbador" izena ipini eutson, iñori adierazpenik emongabe, errege katolikoakaz egindako itun edo elkarpidetik, ixilpekoa zalako.

San Salbador baseliza onen edesti laburra auxe da: 1.348ko urtean, udalako ziñegotziak Santueriko gaztelatarrekin batera, IVn Pedro Aragoiko erregeari eskeintza edo egin-nai au aurkeztu eutsoen, "itzi eutsiela mendiaren gainean otoi-gela bat egiten", eta erregearen baimena artu ondoren, zazpi illabete baiño ez eben bear, mendi gain orreitan lenengo baseliza euken patiñ edo urtegiagaz batera eraikiteko, gero aldakuntza asko euki ebazanak.

San Salbador baseliza ori, itsasotik goi-aldera 509m daukan San Salbador mendi gainean eraikita dago, eta XVn gizaldian, beren inguruko biztanleak zaletasun audikoak izan bear ziran baseliza orrek euken Ama Birjiñagaz, Kolon berak erakusten eban lez.

Kolon jaio zan Felanixt erriko etxe-gorritik San Salbador baselizara, 7km bakarrik dagoz.

1.492an Urrillaren 14an Kolon ostera itxasontziratu egiten da, eta Marko Polok esaten eban antzera, aberastasun aundia euki eban Zipangoko ugartearen billa urte eban.

1.492an Urrillaren 15ean Errugabeko Sorkunde ugartera joan ziran eta 16ko eguerdian Fernandinako ugartean egon ziran.

1.492ko Urrillaren 16ko eguerdian urtenda, Fernandina izena ipini eutson ugartera joan ziran, eta ugarte guztietan onartuak izan ziran lez, ugarte onetan Kolonek arifnautik ikusitako beste ugartetik gizon bat agertuta egoan, eta euren barriak emonda, itsasontzia guztiz inguratuta agertu zan euren potin edo kanua txikiakin, Kolonek eroan ebazan bitxikeriaren billa, eta eurak be eukezan gauzaren truke.

Kolonek, emen erabagi eban gaxteluzka antzeko bat eraikitea, bertokoen esanetan urbil egon zalako berak gura eban urre-gorria.

1.492an Urrillaren 19an Kolonek Samoet'eko ugartera joan ziran eta Isabelen izena ipini eutson, bere izeko Gaztelako erregiña I Isabelen omenez, bera izan zalako ugarte ederrena.

1.492an Urrilaren 24an Kolonek, gaba-erdian Isabela ugartetik urten da, Zipango ugartera joan bazan lez, Kubako ugartera joan zan, bertoko semeagandik oartu ondoren, ugarte ori urre gorritan aberastasun andikoa zala.

1.492an Urrilaren 28an Kolonek, Gaztelako erregetzaren ondorengo Juana omenez, Juanaren izena ipini eutson ugarte oneri, eta aifn ederra izan zan lez Kubanakaneko ugarte au, Kolonek Zipangora eldu zala uste eban, eta berton aurkituko ebala Kan aundi errege ori, Toskarellik bere itsasoko eskutitzetan esaten eban lez.

Eta Kolonek erreka orrek euken kaiari, bere ustez Kan Andiak sarritan etorten zan lekua zalakoan, San Salbadorren izena ipini eutson.

1.492ko Azaroaren 2ko barikuan Kolonek, Kubanakan'eko ugartera eldu zanean, lurralde au aundia zalakoan, gizon bi Jereztar Rodrigo eta Torrestar Luis beste bertoko gizon bigaz, errege-ordari lez bota ebazan Kan andiagaz egon zitezen itxaropenean, ugarte orren erdi ingururantz, sei egun barru itzultzeko agindupean.

1.492an Azaroaren 5eko gauan eldu ziran ordari biak, Kan Aundi, Uri, ta urre gorrizko aberastasunaren aipamenik gabe, bertokoagaitik onartuak izan zirela esaten, eta barri lez, ke-belar edo ke-belarraren barriak ekarrita, zelan mozkortzen ziran bertokoak orri orreik erre ta keiaren arnasa artukeran erakutsi eben, ke-belarraren orri orreri "Tabakos" deitzen eutsela esanda.

1.492an Azaroaren 12an itsasontziak konpondu ondoren Kolonek, Babeke ugartera joan zan, eta ainbat ugarte ikusita "La Mar de Nuestra Señora" Felanitx errian dagon San Salvador basilizako Ama Birjiñaren izena ipini eutson itsasoko orren inguruari, eta ango kaiari "Puerto Principe".

Kolonek emoten ebazan oinkada guztietan, beti aurkezten ebazan gauza barriak, landara, zugaitz, bestelako arraiñ edo arraiñ artean ezberdintasun asko eta zangurru edo karramarro aundiak.

1.492an Azaroaren 21ean Alonso ta Pinzontar Martinek agintzen eban Pinta itsasontzia, beste itsasontzi bien Ekialdetik aldendu zan, ugarte barrien lur zabalak, bai ta beragaz eroan eban bertako seme baten esanetan, Babeke ugartean urre gorri asko aurkitzeko, Kolonek leporatzen eutson lez, eta ez ziran alkartuko barriro, 1.493ko Urtarrillaren bigarren asterarte.

1.492an Abenduaren 6an Kolonek Kubako ugartean egon zanean, bertokoak Boio deitzen eutsoen ugarteagaitik esaten eutsoen, ango gizon/emakumeak txakurren aurpegi ta begi bakarrekua zirala, eta Kubako ugarte itzi ta Boioko ugarterantz bideratuz Aitiko ugartera eldu ziran, bertan egon zan kaiari "Puerto Maria"ren izena ipiniko eutson, eta ugarteko beste aldean ikusi eban lur-mutur ederrari "Cabo Estrella".

Ugarte au aifñ aberats ikusi eban lez "espainolaren" izena ipini eutson, eta "Puerto de la Concepción" an egon zan kai ederrari, eta egin zan gazteluari bere goi-buru aldean, gurutz aundi bat ipini.

1.492ko Abenduaren 16-17ko egunetan ugarte onein erregearen bitartez, urre gorri naiko asi ziran batzen. Baiña iñoz ez izango zan naikoa, eta sekula ez ziran asetu, guk dakigun lez.

1.492ko Abenduaren 21ean Kolonek, itsas-kai ederbat ikusi eban, eta bere marifeltzaren 23 urtean ez ebalako ikusi alango kai-lakorik esan eban. Esan orretatik atara leike, Kolon 1.469ko urtetik aurrera ibili zala marifel lez.

1.492an Abenduaren 25ean Martitzeneko "Gabon-Egunean", urperatu zan "Santa Maria" itxasontzia, eta au da onen kondairak esaten dauana: Kolon ainbeste denbora lo egin barik, ontzi-gidariaren ardurak marifel bateri itzi eutsezala.

Onek be, itxasoaren ur-bera andia egon zalako, eta naita Kolonek guztiz debekatuta euki, gabeko 12etan loegitera joateko alegiñean ibilita, itsasmutil gazte-bateri itzi eutson ontzi-gidaritzaren ardura, konturatu barik urbizi edo uren lasterrak itsasontzia aretarrantza eroaten ebalako, eta ondartu aifñ errez egin zan lez, iñor ez zan konturatu zer gertatzen jakien.

Mutilla deika asita, danak agertu ziran ia zer gertatzen zan, eta batzuk ori ikusita iges egin gura ebalako beste itxasontzietara joanda, "Niña"ko Yañez ta Pinzontar Bizentek ez eutsien izten bere itsasontzira igoten, eta Kolonek ontziaren tantai aundia ebagiteko agindua emonda ta beste gauza batzuekin arduratuta egon zan bitartean, itsasontzia urperatu zan.

Kolonek eguna argitzen egon zanean, Santa Maria itsasontzira joan zan, eta batel baten, Aranatar Diego itxas-ontzidiaren ertzaiña ta Gutierreztar Pedro erregearen goxogillea bialdu ebazan ango Guakanagari erregearengana laguntza eskatzen, eta onek beren neska ta mutillakin laster utzitu eben itsasontzia eta gauza guztiak euren etxolatan gordeta itzi.

Asko idatzi eban Kolonek errege katolikoarentzat, ango aberastasun andiko zuaitz, urre-gorri, landarak eta jende onein gora beran.

Eta bertokoak "Boio" deitzen eutsoen ugarte onetan euren babeserako, gaztelu antzeko bak eraikitea agindu eban Kolonek, erri lez "Villa de la Navidad" izena ipinita.



Ⓔ



Kolonek ez eban euki eragozpenik lur auek erritzeko, mariñel batzuk lenengo egune-  
tik, eskatu eutsoelako, ia bertan geratu leikezan.

Kolonek, Santa Maria itsasontzia urperatu zanean, beartuta geratu zan ostera penin-  
sulara itzultzen. Niña itsasontziagaz bakarrik lur geiagoren ezagutzan ibilteko, arrisku edo  
galbide aundia ikusten ebalako.

Kolonek, 39 mariñel artu ebazan gaztelu au zaintzeko, Aranatar Diegoren agin-  
dupean ipini ebazan izkillu ta kañoiekin ondo prestauta, Gutierreztar Pedro erregearen  
goxogille eta Segobiako Eskobedotar Rodrigoren laguntzarekin.

Aranatar Diego au, Kolontar Fernandoren ama, Enrikeztar Beatriz'en loba izan zan.

Kolonek, 39 gizon onen artean Torrestar Luis adieratzaillea be itzi eban, gizon auek  
antolatu ta bideratzeko, bera Ugarte-Erdi edo peninsula onetara itzultzen zan bitartean,  
eta ostera bertan agertzen zanerako, lur aiek ondo aztertu ondoren, urre-gorri, algodoi, ta  
bertako beste gauza batzuk moltzatuta euki egiezen aginduta.

Bertoko seme-alabak, ondo artu eben mariñelaren erabagia, euren ugarte ederra beste  
ugarteko gizonagandik babestu egiten ebalako, eurak menperatzera juaten ziranean.

1.492an Abenduaren 31ko egunean Kolonek, Niña itsasontzia, egurra, ura, janari uga-  
ri, ta biderako bear ebezanakaz ondo apainduten ibili zan.

1.493ko Urtarrillaren 4an Kolonek, bertako errege Guakanarigaz egonda gero, itsa-  
soratu zan.

1.493an Urtarrillaren 6an Kolonek, mariñel bateri agindu eutson, ontzi-tantai <sup>(1)</sup> aun-  
dien goiko aldera igon egiela, eta bertatik begitu lurra ia ikusten eban, eta Pinta itsasontzia  
izan zan urbiltzen ikusi ebana. Itsasontzi biak alkartuta bare egon zan itsas-bazter baten,  
Alonso ta Pinzontar Martinek Niña itsasontzira aldatu ondoren, zergaitik taldetik banan-  
du zan bere aitzakiak esanda gero, ikusi ebezanak esan eutsoezan Koloneri.

Eta Kolonek, nai bere barnean asarratuta egon arren, ez eutson Pinzoneri asarrerik egin,  
onartuta berak esaten eutsozanak. 9an ostera itxasoratu zan, gauza barriak aurkezteko.

1.493an Urtarrillaren 13an ur-kolko zabal bat aurkitu eben, gero "Geziaren" <sup>(2)</sup> Ur-kol-  
koa" deituko zana, eta egon ziran lekuan lar agirian egon ziralako, Kolonek, beste gera-leku  
bat aurkitu bear ebela esan eutson Pinzoneri, berak illa onen 17rako itxaroten eban Illetargi  
ta Eguzkiaren elkarrea ikusita, ia Jupiter ta Merkurio elkar-biltzeak zelan geratzen ziran jaki-  
teko, elkarte orreik aurkakoak izanda, aize indartsuak eragiten ebezalako, ta bere ugarte-erdi  
onetara edo peninsulako itzulkeran, zelango aizeak eukiko ebazan jakingura ebalako.

Eta beste babes-toki obiagoa billatzen arduratu ziran, bertoko gizakiak oso basati au-  
sartak eta trebeak izan ziralako, aurrekoak billurretan sartzeko eukezan gorputz guztiko  
margoak, zurezko ezpata zabalak, eta gezi-uztai andi ta gezi meekin <sup>(3)</sup> edozein billurtu  
leukielako.

Indio oneik itassontzi ta mariñelak ikusi ondoren, laguntzaille ta adikor lez aurkeztu  
ziran, baiña une baten 8 mariñel eurekin artu-emonak egiten ibili ziranean eta indio orreik  
mariñelak menperatuko zituzelakoan erasotzen asi ziranean, mariñelak eroaten ebezan  
zorrotz aundiko ezpatak atara ta euren aurka azi ziranean, baten batzuk zauritu ondoren,  
burdiñezko ezpata orreri bildur, iges egin eben andik, eta areik izan ziran Ameriketako  
agerketan, bota ziran leen odol-tantak.

1.943an Urtarrillaren 16an, Urrengo egunean, bakez eta atsegiñezko sari askokin erre-  
gea aurkeztu jakien, eta Kolon bere gauzakaz oparitu ta gero, iru gizon eskatu eutsozan  
euren aurrendari izateko urre-gorria aurkitu arte, baiña ikusita mariñelak zelango gogoak  
euki ebazan etxeratzeko, aurrera egin eban.

(1) Ontzi-tantai = *mastil mayor del navio*. (2) Gezi = *dardo, flecha*. (3) Gezi-uztai = *arma arrojadiza*.

Itzultzeko bidea oso ekaiztsua izan zan eta bildur ziralako, Kolonek mariñelak batuta, txitxirio edo ilar-nabarrekin zozkatu eban <sup>(1)</sup>, Guadalupe Ama Birjiñarengana nor jua bost liberako argizai lodi bategaz eskerrak emoten.

Zozketa barri bat egin eben Aita Santuaren Ankonako lurraldeetan dauan Loretoko Santa Maria Ama Birjiñarengana joateko, eta Bilatar Pedrori egokitu jakon, Kolonek esanda, bear eben diru guztia berak emongo eutsela.

Kolonek ekaiztsutasuna ez zalako bakezten billurrez beterik, beste zozketa bat be egin eban, Mogerreko Santa Klararen eleizara gaba oso baten otoizketak egiteko, eta Koloneri egokitu jakon lez, arkonda zuriekaz danak joatea erabagi eben.

Astuna izan bazan etorkerako bidaia, geiago gaiztotu eban "Niña" itsasontziak, itsasoak eroan eutsezalako eukezan janari eta lasta <sup>(2)</sup> guztiak.

1.493an Otsaillaren 18an, Azoreseko ugarte batera eldu ziran eta arri-lasta, janari-e-dariak itsasontzietara igon eta gero, ostera atonduten asi ziran peninsulara itzultzeko.

1.493an Otsaillaren 19an Kolonek, ango baseliza batera bialdu ebazan mariñel erdiak Ama Birjiñari egin eutsoen eskeiñ-itza beteteko, eta Berengana arkondara utzik eta ortozik joan ziran otoi egiten egon ziralako, Kastañedatar kapitaiñaren agindutara egon ziran zaldunezko portuges gudari batzuk, atxilotu ebazan.

Kolon otoiz egitera bialdu ebazan batelekoari itxaroten egoala, susmo txarra barruntatu eban ainbeste denbora zalako joan zirela ta ez ziralako agertzen, eta ugartearen bestaldera joateko asi zanean, batel bat ikusi eban portugezakin etorten zala, eta alkarrizketa gogor baten ostean, Kolon itxasoratu zan.

1.493ko Otsaillaren 20an, Kolonek ikusita beste ekaizte gogor bat etorten zala, itsas zabalera urten eban eta egun 2 geroago Santa Mariaren kaian lurreratu ziran.

Kai onetan egon ziralako, ontziska txiki bat aurreratu jakien "Niña" itsasontzira, bertan abade bi, baratari edo agiri-idazle bat ta bost mariñel ekarten ebala, eta onekin be alkarrizketa gogorra eukinda, Kolonek bere izatezko agiri ta Gaztelako erregearen aldetik eroaten ebazan aginduak erakutsi ta gero, dana amaitu zan bañez, portugesak lengo egunean atxilotu ebazan mariñel guztiak askatuta.

1.493an Otsaillaren 24ko domekan aizeketaren ekaitz gogorra zala ta, itsasontzia lastakin, ura ta egurragaz ornitu ezinik ostera itsasoratu egin ziran, 27ko egunean aizeak euren bidetik atarata.

1.493an Epaillaren 3an dana korapillatu zan ostera, denboraldia zakartu egin zalako ezin besterarte, eta Kolonek ostera beren mutillak batuta beste zozketaldi bat egin eban, Ama Birjiñari ostera euren taldetik baten batzuk erromes joan zitezen, edo Uelbako urian egon zan Zingolako Santa Mariaren eleizara erromes bat bialtzeko.

Eta 1.493ko Epaillaren asteleneko 4an Kolonek, Portugalaren aitzazko Zintra Tajoren ibai ondoko inguruaz ezagututa bertora joan zan babes billa, eta babestu ondoren Kaskaese-ko Urira joan zan, erritar guztiak berari begira egon ziralako, aren ekaitz zatarraren erasotik, iñork ez ebalako ulertzen zelan urten eben bizirik, eta Portugaleko erregeari baimenaren mezua bialduta gero, Lisboako itsas-portuan sartu ziran.

1.493an Epaillaren 8an Kolonek, Portugaleko erregearen eskutitz bat artu eban berari ikustera joan egian, eta 9 an joan zan Portugaleko erregearengana.

1.493an Epaillaren 13an Kolonek Lisboatik urten eban eta 15eko arratsaldean Palos'eko portuan egon zan, Alonso ta Pinzontar Martin be egun orretan elduta, bera oso gaixorik egoala.

1.493ko Epaillaren 15ean Rabidako lekaretxean emon ziran Meza Santu ospatsu orreik, bertan, Kolon, Alonso ta Pinzontar Martin, Yanez ta Pinzontar Bizente, eurakaz

(1) Txitxirio edo ilar-nabarrekin zozkatu = *hacer una rifa con garbanzos*. (2) Lasta = *lastre*, arri-lasta = *lastre de piedras*.

joan ziran mariñel, ekarri zituzen indioak, urre gorri, bitxiak, eta Indian argiratu ebazan lurrarengaitik Ama Birjiñari ezkerak emonda eskeintzeko.

1.493ko Epaillaren 20an il zan Alonso ta Pinzontar Martin, eta Rabidako lekaretxean illobiratu eben.

1.493an Epaillaren 30ean errege katolikuak Bartzelonatik mezu bat bialdu eutsoen Koloneri zorionduz, Don, Itsaso Zabalaran Amiral, Ugarte aien Jaurlari ta Errege Ordezko izen aundiakin omenduteko euren loba, eta etorriko ziran denboretan Koloneri aleginduten, bidai barriak antolatu egizan.

1.493ko Epaillaren 31n Kolon, Sebillako Urian sartu zan, 10 indiar, urre-gorria ta papagai txori batzuk beragaz eroaten ebazala.

Kolon onen ostean, Bartzelonarantza joan zan, errege katolikuari erakusten andik ekarri ebazan gauzak, eta bidaiaren gora berak adierazpenduteko.

I Isabel erregeña baiña, oso arduratuta egon zan bere Fernando senarragaitik, oraindiño 1.492ko Abenduaren 7an, Fernando erregeak euki eban gaiztokeritik<sup>(1)</sup> il edo biziko zorian egon zalako.

A ta guzti, errege katolikuak gorteko ospe aundienean artu eban, gitxiri egiten eutsoen neurrian, alde batetik, erregeak zutunik kokatuta Kolonen eginkaritza goraltzeko neurrian artu eutsoelako, eta bigarren, erregeen eskuari mosua emonda gero, oinpeko edo oiñ-alki baten gaiñean kokatu ebanean.

1.493ko Jorraillaren 5ean, Portugaleko erregeak, gaztelaniako erregeakaz itun bidez lur barrien agerketaren gora beran egin ebezan banaketatik, Kolonen agerketa orreik, eurak egin eben elkargo edo itzarmenaren aurkakoak ziralakoa artu eben, eta ordezkaritza talde bat bialdu eben Gaztelako gortera.

1.493ko Jorraillaren 22an erregeak Bartzelonatik eta Portugaleko erregearen ordezkaririk eurengana eldu barik egon zirala, eskutitz bat bialdu eutsoen Portugaleko II In Juaneri, Kolonen indiaseko agerketaren barriak emoten, eta beragaz, bere menpekoak oartu egiezen, Indiaseko lurraldeak Gaztelako erregetzarenak zirala, eta ara ez ebalaz zetan inor bialdu edo ta jua, eskubidez egin bear zan guztia ondo eginda egon zala ta.

Alkazobas'eko ongundearen zortzigarren atalean agertzen da guzti au, mundu onetan egingo ebezan agerketak, euren artean bananduta euki ebazalako, eta 1.481eko "Aeterni Regis"eko bulagaitik berriz baieztuta, mundu erdi onen Kanariaseko lerrotik berantza Portugalena eta Iparralde guztia gaztelarrarena izan zedin erabagita euki ebelako.

Eta guzti au ziurtzeko, begitu zer esaten dauan 371 urte geroago IXn Pio Aita Santuak 1.863an Jorraillaren 24an Kolonen gora beran:

**"Cristobal Colón, inflamado por su celo hacia la Fè Catòlica, resolvió al emprender la más audaz de las navegaciones, descubrir un Nuevo Mundo, no para añadir nuevos territorios a la soberanía de España, sino con el fin de colocar nuevas tierras en el seno del reinado de Cristo, es decir de la Iglesia".**

**Dan guzti au ote da, espainiarren " El Destino En Lo Universal Del Facineroso Nacional-Katolicismo?".**

Jesus'ek bere aolkularitzan, sekula ez ebelako agindu olakorik, eta Jainkoaren berezko lege gaiñetik gitxiago, inoz ez ebalako irakatsi eta gitxiago alango alderdikerririk eraiki gura, bere izenean sekula ez ebalako gura inoren menpekotasunik.

Emen argi ikusten da, mundu au katolikotasunean batzagotzeko asmo ori, oso gogorra izan zala.

1.493ko Jorraillaren 29an Bartzelonako Posatar Pedroren irarkintzan irarrita, Kolonek Santanjeleri idatzi eutson eskutitzaren irarpen bakarra, "New York Publik Library"ko gorde lekuan aurkitzen da.

(1) Gaiztakeria = maldad, atentado criminal.

1.493an Loraillaren 3an VI In Alejandro Aita Santuak "Inter coetera"ko "Bulda" argitaratu eban, Kolonek aurkitu eta aurkituko ebazan lurra gaztelarrentzat zirala, Afrikakoak len Portugaleri emon eutsezan lez.

1.493an Loraillaren 4an Aita Santuak "Inter coetera"ko beste bulda bat argitaratu eban, andik aurrera munduan aurkituko ziran lurra, Portugal eta Gaztelaren artean erdi-bananduta izango zirala, ipar-burutik, ego-bururaifoko erdi-aldetik<sup>(1)</sup> bitan bananduta, ori-urdiñeko lur-mutur ta Azoreseko Mendebaletik eun leko'ra inguru, margoztu eben marra zuzenezkoa edo okerra izan bazan be, erabagi barik.

Gero Tordesillaseko alkartean, munduaren eguerdiko lerro edo marra ori bientzat bananduta erabagi zan.

Bulda bi oneik, Sebillan dauan "Indiaseko agirien gorde lekuan" dagoz.

Kontuan euki bear da, VI In Alejandro Aita Santu au, Balentziako lurraldearen Jatibako errian jaio zala, eta Aragoiko Fernando erregearen lurraldeak zirala denbora aietan.

VI In Alejandro edo Borjiatar Rodrigo au, III In Kalixto Aita Santuaren loba izan zan, eta orrek adierazten dau, zelan 1.492ko urtean Alejandro au egin eben Aita Santu, 61 urte bakarrik eukazanean.

Eta albiste au Frantziko gortera eldu zanean, VIII In Karlosek, bere serbitsura egon zan Kolontar Bartolome, Kolontar Kristobalen anaiari deitu eutsan albiste barri ori emoteko.

Kolontar Bartolome au, ama bardiña euki arren, ez zan izan bere anai Kristobalen antzera zaldizko gizona, Kristobal izan zalako bakarrik IV n Karlosen semea.

1.493an Loraillaren 14an inguruko egunetan asten dira Kolonen alde eta aurkako eritziak, eta batez be Bartzelonatik Martyr' tar Pedro 'k, Borromeori idazten dautson eskutitz bidez: **"algunos dias despuès un tal Kristobal Colòn retornò a las Antipodas Occidentales; es un LIGUR<sup>(2)</sup> que, enviado por mis Reyes, con solo tres barcos penetrò en aquella provincia reputada por fabulosa, volviendo con pruebas palpables, muchas cosas preciosas y en particular oro que aquellas regiones engendran de suyo"**.

*Ligur*, Italiako Ipar-Ekialdean dagon errialde bat da, Jenobako kolkuaren itsas-bazterretik doana RIBIERAko izenekin, eta Kolon Mallorkaren Felanixt errikoa zan lez, emen asten dira edestian Kolonengaitik esan diran astokeriak, nai bera beren ospean beratzeko, eta bai beren nortasunezko ondorengotasuna zirriborrotuteko.

1.493an Loraillan 20an errege katolikuak Koloneri, Gaztelako errege maillakoak euren armarrietan eroaten ebazan Gaztelako gaztelua, Leoneko leoia ta ugarteak, mairu-arri edo armarraren lauki edo laurden barrutietan eroaten ebala egin eutsan, Kolonek beste gauzarik bear ote eban, bera erregearen semea zala esateko ?.

1.493an Loraillaren 23an Koloneri, 1.000 urrezko doblak emon eutsoezan.

1.493an Loraillaren 26an Koloneri baimena emon eta gorte guztiaren laguntzan, berak nai gura eben ostatura lagundu eutsan, berari laguntzen eutsan mariñelakaz.

Eta erregeagaz zaldi gaiñean joaten ziranean, erregeak aginduta, Kolon bere albo baten eta ondorengo Juan printzea beste aldean direla joaten ziran, erregezko odola eukiten ebenai bakarrik baimenduta egon zana.

1.493an Loraillaren 28an errege katolikuak Santa Fe'ko itunean Kolonek eskatu ebazan izenburu, eskubide, izen-on, Indiako bigarren itsasotzidiaren orokorrezko kapitaiña izatea, eta bere eskuaren ardurapean itzitako ainbeste gauza ortik aurrera sinatu ziran, eta denbora gitxian, berak egin ebazan arrigarrizko bidai orreik, Europa guztitik zabaldu ziran.

Eta egun berean erregeak, Kolon, indiazera bigarren bidaia egingo zanaren orokorrezko kapitaiña izendatu eben.

(1) *Erdi aldetik edo Eguerdi-lerrotik = linea meridiana.* (2) *Ligur, ligurino = perteneciente al pais Italiano de Liguria en Genova, dandoèste Pedro Martin, una de las primeras informaciones equivocadas, respecto ala procedencia de Cristobal Colon.*

E

Eskerazaintza





1.493ko Jorrail-Loraillaren ille onetako gertakisun bidetik argitu egiten dira, Kolon leen: "Zaldizko edo ondo-ikasitako giza-semea zala, errege katolikuak eta euren inguruko gortekoak adierazi egiten eban lez".

Bigarren: "Kolonen izen berezia (KOLOM) izan zala".

Irugarren: "Argituta geratzen dala, zergaitik gero beren izena, zelan ald-erazi egin gura eben beren berezko izenetik, Martyr 'tar Pedrok, Borromeori idatzi eutsozan eskutitzetatik".

Eta idatzi oneik izan zirala, Kolonen izen eta jaiotokiak Jenobako artzain gazte baten izenakin nastu ebezanak.

Bai Kolon errege katolikuaren maian egonda, Kolonek lortutakoagaitik bekaizkor ziran gizonak maltzuratasunez, arrigarrizko egikari orrekin garrantzi ta ospeak beratzeko, an egon ziranen arteko batek aurreratuta egin eutsozan itanduakaz: "Ia berak sinesten ba eban, beren bidai ori utsegite baten amaitu bazan, beste baten batek al izango zala bidai ori zorionez amaitzeko".

Kolonek, beren asarrea barruan gordeta eta arrautz bat beren eskuetan artuta, au esan eutsen danari dei eginda, "arrautzea zutunik ipintea lez dala".

Danak ipini ziran arrautzea zutik ipinten, baiña iñork ezin eben lortu, eta berak arrautzea artuta mutur baten txaka-txaka jota apurtu barik, zutik ipinita, besteak olan egitea erreza zala esan eutsoen, eta Kolonen erantzuna: "erreza zala egiteko gauza ori, baiña zue-tatik iñork ez dala ezertarako gogoratu", eta gauza guztiekaz alan sortzen dala lenengoa agertu arte, esan ondoren, danak ao zabalik itzi ebazan.

Gaztela eta Portugaleko erregen artean be bardin sortu zan, mundu onetan agertu-tako lur zabalagaitik be asi ziralako eztabaidak, Aita Santua bien artean agintari nagusi lez ezarrita eurak egin eben ongunde bidez, agertzen ziran lurak erdibanatzeko izanda, Portugalek Jorrailaren 5ean bere gortekoak Gaztelara bialduta zalaketa bidez bereganatu egin gura ebazalako lur orreik.

Gaztelako erregeak irabazi eutson baiña, egiune aretan Portugaleri Kanariaseko lur-gerri edo eguerdi-lerrotik bealderantza Afrikako lurraldeak bezela egertzen ziranak ego-kitzen zaiolako bakarrik.

Eta erregearen aurkaldi oneik argitzeko, Aita Santuaren erabagi billa joan ziran.

1.493an Iraillaren 5ean Kolonen lenengo ta bigarren ostera bitartean, errege katolikuak Kolontar Kristobaleri idatzi eutsoen eskutitzan esaten eutsoen, beren bidaietan izar-lari on bat eroan bear ebala, Martxenatar Antonioren izena emonda.

Erregeak gero Martxenatar Antonio lekaideari idatzi eutsoen eskutitzan, Kolonegaz joanda Indiasetan denboraldi bat egiela aginduz, antolamen on bategaz ango giza-semeak erlijio-katoliko oiñarrietan bideratzeko. Erregeak sinismen aundia euki ebelako Martxenaren erlijiozko sinismen sakon eta eragilletasun garbi ta argiagaz.

Emen gaiñera esan bear da, Kolon Rabidara joan zanetik, franzizkotarrak sekula ez eutsoela babesbarik itzi, bitarte orreitan Martxenaren eskua argi ikusita, bera izan zalako ikerlarien talde guztietatik, Koloneri siñisten eutson gizon bakarra.

Gaztelanian 1.485-1.492ko urte bitarteko agiritan Koloneri beti deitu eutsoen "Colomo", Portugaleko Pinatar Ruy albistariak "Colombo", Portugaleko IIn Juan erregearen Barrostar albistariak "Colom" esaten dautso, eta Fernando erregeak "Colòn".

Baiña, Kolonen izena edestiaren iragaitzean, batzuetan asmo osoagaz eta beste batzutan naigabeko aldaketak euki ba-zituzen, Granadaren santa Fe 'ko erri barrian, eleiztar, errege ta Kolonen artean, bere Mallorkako jaioterri ta Aragoi-Nafartar izatasunak ixiltzeko egin eben ituneko erabagi orren bitartez, Kolonen izatasunezko gaiakin ibiltzen ziran edestilariak naastuten ziralako izaten zala jakin bear dogu, eta esker aundiak emon Berd ta Martorelltar Gabrieleri, gauzaren berezitasunak alango zeaztasunezko ikerketa lan bikain

orrekin euren lekuetan ezarrita, danok zentzu apur-bategaz bizi gindezan, argitzen dabezelako Kolonen izate ta eginkizunak.

## Bigarren itsasaldia.

1.493an Iraillaren 24an urten eban Indiazerako bigarren ekitaldia, Kanariaseko ugartetara bideratuta eta Gomerako kaian lenengo geraldia eginda, itxasontziak egurra, ura, txal edo bigantza, aunts, bildotx, zerri-eme ta zerri-ordotzak itxasontziratuta eta lur aietan lantdatzeko laranja edo urre-sagar, limoi-ondo edo zitroi-ondo, meloi, barazki edo ta ortuarien aziak artuta, apintzen asi ziran Gomerako kaitik urten eta Burdiñeko ugartera joateko.

1.493ko Urrillaren 13an urten eben Indiasera joateko Burdiñeko ugartetik itsas zabalera.

1.493ko Azaroaren 3an agertu jakien ugarte aundi bat, Kolonek Domekea izateagaitik Dominika izendu ebena, ta bertan ez ebalako babes-lekurik euki aingurak<sup>(1)</sup> botateko, ugarte oneri, euren itxasontzi kapitaiñak euren izena "Marigalante" ipini ondoren, aurrera joan ziran beste ugarte bat aurkitu arte.

Urrengo aurkitu eben ugarteari "Guadalupe" izena ipini ondoren, Kolonek itxaron egin bear izan eban, berak bialdutako Markez'tar Diego itxasontzi baten kapitaiña, galdu egin zalako ugarte orren basartean, eta agertu zanean kapitaiñ onen kondairan: "aurkitu ebazan leifuen janari bitartez, giza-jaleak zirala esan eban", ta eurengandik andrazko batzuk askatu ondoren, aurkitu ebazan "anana" edo lur-beroaren aldeko "piña" ta beste ale-mota batzuk be ekarri ebazan.

Kolon, Dominikako ugartetatik, obo-erdi edo biribil-erdi baten antzera egon ziran ugartetik ugartera ibili zan, Dominika edo espainolaren ugartera ostera eldu arte.

Guadaluperen izena ipini eutsan ugartearen ostetik, ta Bartzelonako Montserrat'tar Santa Mariaren izena ipinitako ugarteari, urrengoari Antziñako Santa Mariaren izena ipini eutsan Sebillako Eleiz-Nagusiaren oroimenez, Kolon ta taldekideak bertan otoi egiten ebalako Indiasera urten aurretik, eta bertan eraikiko eben gero jaun-obi eder bat, Kolonen gorputza illobiratzeko.

Antziñako Santa Maria eta Puerto Rikoren bitarteko ugarteari ipini eutsezan izenak: San Martin, San Kristobal, San Jorje, San Bartolome, Santo Tomas, San Anastasio, Santa Kruz, Graciosa, eta Amaika Milla Neska-Garbi edo Birjiñarenak izan ziran.

1.493an Azaroaren 19an odolezko eztabaida batzuk eukinda bertokoakin, gaur "Puerto Rico" lez ezagutu egiten dan Bateatzaille San Juanen ugartera eldu ziran, eta uragaz, ta bear eben janariakaz ondo ornitu ondoren, 22an urten eben Dominika edo espainolaren ugartearantza, eta bertora elduta, itxasontziak aurrera egin eben Gabonetako Urira<sup>(2)</sup> eldu arte.

1.493an azaroaren 27an eldu ziran "Gabonetako Urira" eta itxasontzitik urten barik aurrera joateko itxaropenean egon zirako, Gauakanagari deritson ugarteko erregearen loba bat beste bertoko batzuekin urreratu jakiezan ongi etorriak emoten, eta bien bitartez esan, Guakanagari erregea zaurituta egon zala beste ugarteko Kaonabo ta Mayreni jauntxoaren aurka egin eban borrokan, eta zaurituak ta il batzuk euki arren, bakez eta ondo aurkitzen zirala an egon ziranak.

Itxasontzien aingura edo arba urperatuta, lonbardazko tiro batzuk bota ebezan erantzuna artzeko, eta iñork ez ebalako erantzunik emoten, Kolonek, txalupa bat bialdu eban, an zer gertatzen zan jakiteko, eta ez eben aurkitu besterik, erretako ondarrak baiño.

(1) Aingura edo arba = anclas. (2) Gabonetako Uria = Villa de la Navidad.

Eurak ango triskantza ikusten egon ziran bitartean, bertoko batzuk zuaitzen ostetatik ostonduka ibiltzen zirala ikusi ebezan, eta eurengana joanda jakin eben, zelan eurak jua zirenean, bertan geratu ziranen artean borrokan asita, batzuk il zirala, beste batzuk euren kontura urre gorriaren billa joan zirala, eta geroago Diego kapitaiñak nai bere laguntza euki arren, Kaonabo beste ugarteko jauntxoaren erasoari eutsi-ezinik il zala, eta ondore erre ebela ia ugarte guztia.

Kolonek, ondameneko triskantza au ikusi ondoren, beste erri bat eraikitzea agindu eban, Dominika edo espainolaren ugarteko ipar-ekialdean I Isabelen omenez, eta egin eben erri oso ori, arri-landuakaz egitea agindu eban.

Kolonek ugarte aretan zer egon zan jakiteko, Ojedatar Alonso bialdu eban beste amabost lagunekin izkilluakaz ondo tresnatuta, ia zer aurkitzen eban ugarteko barruetatik, eta erreka baster batera eldu ziranen arri-koskorren antzera, urre-gorri asko aurkitu eban lez, bereala asmatu eben urbillean garrantzi aundiko miak aurkituko ebezala, eta meaztegi orreik billaka asita aurkitu ezinean, 15 egun barru, ostera itzuli ziran Kolonengana, urrezko barri areik emonaz.

1.494ko Otsaillaren 2an Kolonek, 12 itxasontzi bialdu ebazan peninsula onetara Torrestar Antonioren agindutara, erregearentzako oar-idazti batekin, eta erregeari adierazi an aurkitu zituzen urre-gorritzko arri koskorren meaztegiak aurkitzeko egingo ebezanak, eta zelango antolaketak egingo ebazan babestuta egoteko ango azterkuntzak egiten egon ziran bitartean.

*Eta emen nun agertzen dan berez, Kolonek erregeakaz euki eban senidetasuna, idatzi ebazan lenengo lerroetan: "encomendareis en Sus Altezas como a Rey e Reina mis Señores naturales" esaten dabenean, askeneko iru berba oietan esaten dabelako, zelango senidetasuna euki eben Aragoi eta Gaztelako errege-erregiñak Lur Gorri edo Terra Rubrako Kolon Amiralarekin.*

Kolonek emendik aurrera eztabaida gogorak eukingo zituzen, agindupean euki ebazan batzuen bekaizkeri bitartez, ta ori kontuan artuta bera ugartetatik gudari talde gogor bategaz joan zanean azterkari, bere anai Don Diego agindupean itzi eban Isabelaren erria.

1.494ko Epaillaren 12an urten eban Kolonek bere gudari taldeagaz azterkari, eta ibar aberats bateri "Vega Real"en izena ipini ondoren, Zibao mendi katera joan ziran azterka, eta urre gorriaren ainbat agerpide ikusita, erreka inguru baten gaztelu bat eraikitea agindu eban, gero Santo Tomasen izena ipini eutsonei, eta 50 gudari Margaritetar Pedroren agindupean ipini ondoren, eurak Epaillako 29an Isabelaren errira ugartera joan ziran.

1.494an Epaillaren 19an Kolonek Kubara elduta, len berak Alfa ta Omegako izenakaz deitutako lur muturrera joan zan, eta ugartetik ugartera ibili zanean, Kolonek itxasontzian eroandako indio batek, an inguruan urre gorri asko eukiten eban Jaimaika deitzen zan ugarte bat egoala esan eutson. Berri ori emon eutson indio orrek, Kolontar Diegoren izena ipinita euki eban.

1.494an Jorraillaren 24an Kolonek itsasora urten eban iru itxasontzirekin, Isabela ugarte bere anai Diego, Boiltar Bernardo, Ernandeztar Pedro, Koronel, Santzez ta Karbajaltar Alonso, eta Juan de Luxanen agindutara itzi ondoren, Kubarantza joan zan, ia Kan Aundia aurkitzen eban.

Emen sukar gaitzaldiekin ainbat gizon il jakiezan.

1.494an Loraillaren 3an Kolonek Jamaikako ugartera joateko bidea artuta, eta Loraillaren 13an eldu zanean bertokoakin eztabaida batzuk eukinda, ostera joan zan Kubarantza, bidean 14ko egunean eltzen egon zanean ugartedi eder bat aurkituta, "Erregiñaren Lorategi edo Baratza" deitu eutson ugartedi oneri, eta 164 ugarteraiño zenbakitu ebazan Kolonek Guakanayaboko kolkoaren bazter areitan.

Bertokoak Amonaren<sup>(1)</sup> izenagaz deitzen eutsoen ugarte parean egon ziranen, Kolon oso gaisorik geratu zan, eta ainbat egunetan egon zan il-bizian konorte barik.

(1) Bertoko jendeak Amonaren izenagaz deitzen eutsoen ugarte orreri, eta kristauak MONA.

1.494an Bagillaren 7an Portugal eta Gaztelako eztabaidak bakezteko, Tordesillaseko itunean erabagi zan munduaren goiko ta beko aldeak bien jabetasunerako eguerdi-lerrotik<sup>(1)</sup> banatzea, Aita Santuaren Buldari jaramon egin barik.

1.494ean Iraillaren 29an Kolon gaisorik egoala eta Kolonen urrengo agintariak bideratuz, bost illabete barru eldu ziran Isabela ugartera, eta bertan euki eben Kolontar Bartolome, Kristobalen anaia itxaroten.

Kolontar Kristobal osatu zanean, bere anai Bartolome agintaritzan sendotzeko, jaur-lari ta gudalozteko agintari nagusia izendatu eban, bere agindupekoen artean ez ebena ontzat artu, eta gitxiago errege katolikuak, euren ardurazkoa izan zalako ordezeko agindu orrein izenak ipinitea.

Kolontar Diegorentzat be gaiztotu egin ziran egoerak, bere agindupeko Margaritetar Pedro eta beste batzuk Boiltar Bernardo lekaideagaz, matxinatu egin ziralako, eta lortu be, Bartolometar Kolonek eroan ebazan iru itxasontziakaz peninsularantza alde egitea, an euren artean sortzen ziranak errege katolikuari esateko.

1.494ko Urrillan Torrestar Antonio eldu zan indiaseko ugarteetara, Koloneri errege katolikuaren agiri bat emonda, Koloneri oarrerazten, erregeak zelan jakin eben an gertatzen ziranak, eta bai 1.494ko Bagillaren 7an Tordesillaz Potugaleko erregeakin alkartuta artu ziran erabagi bidetik, zelan 370 leko ori-urdiñeko lur muturraren mendebaletik, mugatuta geratzen zirala Gaztela ta Portugaleko jabetzak, Kolonen agindupeko nagusiari oartzuz, on artu egiezala Kolonek euren izenean agintzen eutsoen guztiagaz.

1.495eko Epaillaren 24an Kolontar kristobal ta bere anai Bartolomek 200 oiñezko gudari, 20 zaldunekoak, eta erasorako erakutzita 20 txakurrekin urten eben Isabelatik, Kaonabo indiar jauntxoak, euri ango ugarteetatik botateko antolatzen egoanari, aurka egiteko.

Eta Ojedatar Alonso izan zan Kaonabo erregea arrapau egin ebana, bere almenean euki ebazan maltzurkeri guztiekaz.

1.495eko Urrillan, errege katolikoaren aginduz, Aguadotar Juan eldu zan Isabelaren ugartera Kolon aipatu barik, eta Kolonek jakin ebenean bera ikustera joanda, Aguadotar Juan onek, erregeak jakinean egon zirala an gertatzen ziran gauzakaz adierazi eutson, eta ez zirala erregeak pozik egon berak egiten ebazanakaz esan ondoren, au izan zan lenengo estu-aldia errege ta Kolonen artean.

Kolonek ez eban bitan oldoztu zer egin bear ebena, eta bereala asi zan etorteko bidai bat antolatzen, erregeakaz egoteko.

Baiña itxasontziratzeko egon zanean, aizetzar edo aizebeltz zakar bat agertuta, ugarte guztia ondatuz gain, kaian egon ziran lau itxasontziak urperatu egin ebazan.

Ugarte orretan itxasontzi barik agertuz, Kolonek karabela bi egitea agindu eban, eta bere anai Bartolomeri, Isabelako erria bertan itzita, ugarteko leku ezberdiñetan gazteluak eraiki egiazala agindu eutson.

Kolonek, espainolaren ugartetik urteteko egon zanean, bere anai Bartolome itzi eban ango orokorrezko jaun nagusi lez, eta Kolontar Diego, Bartolomeen ordezekoak, bere morroi izan zan Roldantar Frazizko, Isabelako alkate nagusi lez ipini eban.

1.496ko Epaillaren 10ean urten eben Dominika edo espainolako ugartetik karabela biak, Kolon batean eta Aguadotar Juan bestearen aginduan, guztiz 225 gaztelar eta 30 indiar eroaten ebazan, eta onen artean ainbat gaiso eta an gertatzen zanakaz pozik ez ziranak egon erregeari idatzita, auk baimena emon ondoren, euren etxera joaten ziranak egon ziran, eta itxasontzien agintariak ontzi-zama edo ontzikada orregaz bide zuzena artu barik, antillaseko ugarte txikerretara artu eben bidea, Marigalante ugartera joateko.

(1) Eguerdi-lerrotik = linea meridional del globo.

Aizearen ezagaitik, ia illabete baten luzatu jakien, denbora gitxian egin bear eben le-  
nengo geraldori, Jorrailaren 10ean Guadalupeko ugartera elduta.

1.496ean Jorrailaren 20an indiar emearen aldetik larritasunezko eraso gogor ta egoera-  
ren estu alditik urtenda, ura ta bear ebezanak itxasontzietara igon da gero, ostera itsasoratu  
ziran peninsula onetara etorteko.

1.496ko Bagillaren 11n eldu ziran Kadizeko kaiara iru illabetetan itsasotik ibili ondoren "Niña  
ta India" karabela orreik, mariñel geienak, buba, lotseri edo andramin gaitzaldiakaz gaisotuta.

Kolon, Kadizeko kaiara eldu zanean, beste irten-aldi bat egon zan kaitik urteteko,  
abel-buru batzuk eta indiasetan eurentzat bear ebenagaz itxasontzietara igoten, janariagaz  
ondo ornituta joateko, eta Kolonek aukera onegaz baliatuta, bere anai Bartolomeri agindu  
batzuk bialdueutsozan.

Ontzidi talde ori urten ebenean, Kolon Sebillara joan zan frantzizkano jantzita, ta bera-  
gaz indiar batzuk, papagai poli ta ederrak, bero-aldeko zitu, ale edo igali batzuk, urre-gorria,  
eta Kaonabo erregearen anaia Don Diegoren izenagaz bateatu ebena, buruan lumak eta sama  
edo ta lepo-giblean urre-gorritzko lepokoa, 600 gaztelarreko astuntasuna euki ebana<sup>(1)</sup>.

Denboraldi bat itxaron bear izan eban Kolonek erregeak artu egian, onek euren seme Juan  
Austriako Margaritagaz eta Juana Austriako Felipegaz ezkontzeko lanpetuta egon ziralako.

Erregeak eskutitz bat bialdu eutsen Koloneri, Burgoserantza joan zedin, erregeñak an  
artuko ebala esaten ebanak.

1.496ko Dagonillaren 8an Koloneri, Burgoseko urian egon zala, eskerroneko eskutitz  
bat bialdu eutsen I Isabel erregeñak, erregeak guztiz arduatuta egon ziranean Flandesetik  
etorten zan ontzidia Austriako Margarita printzeagaz itsasketa zakar baten erdian atra-  
pauta geratu ziranean.

-Kolonek larritasun andiko estatusunetan sartuta egon zala ontzidi ori jakin ebanean,  
beren izeko-osaba erregearen nekagi ro ta larritasunagaz oartu ta arduratuta, argibideko  
paper bat erregeari bialtzea erabagi eban, zer gertatuko zan eta zelan egingo eben ontzidi  
orren itxasontziak etorkerako bidai ori esaten.

-Eta itxasontzi orreik ezer gertatu barik, euren kaira eldu ziranean, I Isabel erregeñak,  
eskerronekua agertu zan Kolon bere lobagaz, "Itsas Zabalaren Nere Amirala eta Indiaseko  
Bigarren errege ta gizon jakintsua" deitu eutsonean, idatzi eutsen eskutitzan.

Emen, gero ta argiago agertzen da Kristobal eta erregearen senidetasuna, Kolonen  
aldetik bigarren bidaia egin ebenean eta erregeari oar-idatzi bat bialdu eutsonean, Torres  
tar Antoniori esanda: *"me encomendareis en Sus Altezas como a Rey e Reina mis Señores  
naturales"* eta erregeñak *"Itsas Zabalaren Nere Amirala eta Indiaseko Bigarren errege" ta  
gizon jakintsua deitu eutsonean.*

1.497ko Jorrailaren 23an Juan, errege katolikuaren semea, Austriako Margaritagaz  
ezkondu ondoren eta egun batzuk barru, erregeak Koloneri baieztu eutsoezan Santa Fe 'ko  
ongundean izenpetu eutsoezan izendatuko eskubide guztiak, bai eta eskubide guzti orreik  
bere sendian, ondorengotasunezko etxaguntzan iraun egiazan.

Errege katolikuak geiago be emon eutsoen Koloneri, 1.495ean berak eskatu ebenean  
bidai-aldi bakotzetik zortzirena ordaintzea, ararte ordainduta emon ziranak, irabaziak  
baño askoz geiago izanda parkatu egin eutsoelako, eta bai bere anai Bartolome, indiar  
ontzidiaren agintari nagusia izendatu ebenagaz.

Gertakizun onen ostean, ostera asi zan irugarren bidaia antolatzen.

Arazo askokin aurkitu zan Kolon bidai onen bear bearrezko antolakuntzak beteteko,  
erregeak leen Frantziagaz gudan egonda eta Juan semea ta beste alaba Juanaren ezkontza-  
kaz diru barik geratu ziralako, leen.

(1) *Gaztelarrak = castellano, o moneda antigua de oro, que equivalia a la cincuentaava parte del marco de oro.*



Bigarren, gorteko nagusien bekaizkeri zitalak zalantzan ipinten ebelako berak egiten eban guztia.

Eta irugarren, emen agertuko diranakaz, ia urte bi bear izan ebelako antolakuntza orreik amaitzeko.

1.497ko Urrillaren 4an 19 urte eukazala il zan Juan errege katolikuaren semea.

1.498an Otsaillaren 18an, I Isabel erregiñ katolikuak, Kolonen seme Diego ta Fernando artu ebazan bere serbitzura, bakotzari 9.700 maraurien lan-sarituagaz.

## Irugarren itsasaldia.

1.498ko Loraillaren 30ean Kolonek bere bost itxasontzi bardiñ antzeokakaz, 100 tonako itxasontzi aundi bat, 200 gizon eta mariñelekin urten eban Barramedako Sanlukarretik, Bagillaren 7an Porto Santorara elduta, aldikada baten bere emazte Moniztar Filipagaz bizi zan lekua zana, ta andik iru egun barru Madeirako ugartera, eta emen sei egunetan ura ta bear zirenak itxasontzietara igonda, Bagilaren 16an Madeiratik urtenda, kanariaseko ugartedirantza joan ziran eta Bagillaren 19an Gomerako ugartera eldu ziran.

Kolon, Gomerako inguruan egon zanean, kaian itxasontzi frantzez bat egoala oartu zan, eta jakinda Gaztelako itxasontzi batzuk baitu ebazala, bere atzean joanda askatu ebazan eroaten ebazan gaztelar mariñel guztiak.

1.498an Bagillaren 21ean Kolonek indiasetara joateko asmoan, Gomeratik urten orduko, erdibitu egin eban ontzidia, iru itxasontzi espainolako ugartera bialtzeko, bere anai Bartolomeri, eroaten eutsezan janarizko ta bear ebazan orni-aldiak emoteko.

Onen iru itxasontziko baten agindua, Aranatar Pedrok euki eban, Kolonen Fernando bigarren semearen ama Enrikeztar Beatrizen neba zanak.

Kolonek bere beste iru itxasontziekin egoalderantza urtenda, ori-urdiñeko lur muturraren ugartedirantza bideratu zan, mundu onen lur-gerriko lerroa aurkitzen, gero mende-balerantza joateko, Dominikako ugartea iparraldean geratu arte, lur aiek bertoko indioaren gora beran, oraiñarte ezagutuak baiño askoz aberatsagoak ziralako.

1.498ko Bagillaren 23an gaztelarren gorteko agiritan, Kolonegaz sekula ez zirala Jenoba izen ondokorik<sup>(1)</sup> erabili, agiri orreik begitutea baiño ez dago, danetan "arrotza" ren izen ondokoagaz agertzen diralako.

Gaztelako gortearen agiriak, beti joaten ziralako bakotzaren aberriari deritson izen-  
-ezagun bereziakaz: "veneciano, florentino, genovès, frances, catalàn" eta abar.

Eta onen argibidea erakusteko ez dago besterik, Gonzalez eta Pueblatar Ruyk Londreseko errege katolikuaren ordezkariak, Kabot tar Juanen bidaldia aipatuz, aurei bialtzen eutson eskutitza begitutea baiño: "Inglaterrako erregeak, bost guda-ontzi bialdu dabezala Kolon bezelako beste jenobes baten agindutara, Brasilgo ugarte ta bere beste bost uri nagusiak aurkezteko".

Erregearen erantzunean: "Esaten dozunagaitik, ara, Kolon bezelako bat bialdu dabela Inglaterrako erregea indiaseko beste irabazpide antzeko baten ipinteko".

Errege katolikuaren ordariak esaten dau: "Kolon bezelako beste jenobes bat bialdu dabela".

Eta errege katolikuaren erantzunean: "Kolon bezelako bat bialdu dabela" esanda, jenobeseko itza desagertzen da, eta agirizko idatz oneik erakusten dabe, Kolon, zelan ez zala jenobako semea.

Gauza guzti oneik ikusita, badauka garrantzi aundia bai, Kolonen izenak euki dabezan aldakuntzak.

(1) *Izen-ondokorik = adjetivo.*

1.498an Bagillaren 27an eldu ziran ori-urdiñeko lur muturrera, eta Portugaleko legendun edo legenartsuak<sup>(1)</sup> osatuten joaten ziran Buenabistako ugartean egun batzuk egin ondoren, ugartedi eretan egon zan Santiago ugarte aundienera joan ziran.

1.498ko Uztaillaren 1ean portugez eta morroi-baltz asko egon ziran Santiago ugartera eldu ziran, eta Saarako ekaiztsu aizeak areagaz naastu egiten ebazalako artu bear ebezan gauzak, 5ean geiago ezinean urten bear izan eben ego-mendebalerantza, ia urre gorri asko eukiten ebazan ugarteak aurkitzen ebazan.

1.498an Uztaillaren 13an, aizea gutziz geratu jakien eta itsasoaren bare-aldi edo aize-il bateko egoeran sartuta, laba baten egon ba ziran lez aurkeztu ziran, itxasontziren bike-koipeak<sup>(2)</sup> urtu egiten zirala, gatza emondako okelak usteldu, garie laban egon bazan lez erre edo baltzituta agertu, ura ta ardoaren upelak lotzeko burdiñezko ustaiak askatu edo ta lasaitu egiten zirala ta ainbat zoritxarrakin egon ziran, zortzi egun luzeetan.

1.498an Uztaillaren 22an, euria botaten asi eta agertu zan eki-aldeko aizeagaz, ostera itsasketa onera aldatu ziran, eta itsaskuntza onen aldia Kolonek luzatu egin ebalako, ia ezer jateko barik eta uraren upel bat bakarrik euki ebela, Uztaillaren 31n eldu ziran ugarte barri batera, legorreratuta<sup>(3)</sup> gero Kolonek Trinidad'eko izena ipini eutsonea.

1.498ko Uztaillaren 31n astearteko eguerdian Kolonek bideratzen eban itxasontziaren mariñel batek trapara<sup>(4)</sup> igonda, iru mendi andi ikusi ebazan, eta Kolonek bere sinismen sakonean, agertzen zan urrengo ugarteari Irukoitz Deunaren<sup>(5)</sup> izena ipiniko eutsola esan eban lez, izen ori ipini eutson.

Kolon bidai onetan, ezueri edo ezuri<sup>(6)</sup> gaitzaldiagaz gaisotu zan.

1.498an Dagonillaren 1ean Kolon bere itxasontziaren ontzi-gibel edo atze-aldean egonda, lur barri batzuk ikusi ebazan, eta berak ez ebalako jakin lur aiek lur-nagusiaren lurrak izan zirala, Isla Santa eta Isla de Gracia ren izenak ipini eutsuezan.

Kolonek ainbat denbora itsas-bazterretik ibilita "el Arenal" deitu eutson lur-mutur baten ingurutik urbil, aurkitu eben kai eder bateri, ta bertan geratu ziran itxasontziak konpondu ta bear ebezan urak itxasontzietara igotzeko.

Lan onetan egon zirala, txalupa bat agertu jakien ekialdetik, bertoko itxura on eta euren gezi-uztaiekaz armatuta 24gizon gazte, ararte ikusi ebazan indiar baiño apur bat zurriagoak zirenak, buruetan margo ezberdiñeko zapi bat batuta eukezala, eta aitu ezinean, urrunetik euren uztaiakin geziak botaten asi jakiezan, euren erantzun labur bategaz laster amaitu zana, Kolonek aurrera eginda.

1.498ko Dagonil onetan ura eta bear ebenagaz ondo ornituta Kolonek, ur-gezako inguru areitan, Irukoitz-Deunaren ugarte ta Benezuelako itsas-bazterreko erditik Pariako itsas-kolkora urtenda, bertokoak Paria esaten eutsezana, eta Kolonek Graziaren izena ipini eutso lurretara joan ziran.

Eta Emen kontuatu zan Kolon, itsaso artan arek ur-geza zabalak egoteko, erreka aundien urak izan bear zirela, eta lojikaz lur zabal ta aundien urak izan bear zirela.

1.498an Dagonillaren 11n Kolonek, inguru aietatik ainbat ibili ta gero espinolarantza bideratu zan, bere anai Bartolomegaz egoteko.

Pariako ur-kolkotik urtenda eta Benezuelako itsas-bazterretik joanda, Esparta-Barriaren karibe itsas-bazter aldeko Ekialdean, kotxe-ugarte, Kubagua ugarte, ta an egon ziran ugarteari Fernandina, Juana, Isabela eta beste izen batzuk ipini ondoren, bere ama "Margalida"ren izena ipini eutson 920 Km. karratuak eukazan ugarte bateri.

Gauza bi dira Margalida Kolonen ama izan zalako, ugarte orreri Margaritaren izena ipini eutsoela, Iribarnetar Manuelek "El Principe de Viana (un destino frustrado) 233ko

(1) Legendun edo ta legenartsuak = leproso. (2) Bike-koipea = brea de kalafate, o brea con estopa, con la que se calafatean o cierran las juntas de los barcos para que no entre el agua. (3) Legorreratu = atracar. (4) Trapa = meseta colocada horizontalmente en el cuello de un palo o mastil del barco. (5) Irukoitz-Deuna = Santisima Trinidad, o Trinidad. (6) Ezueri edo ezuri gaisoa = enfermedad de gota.

orri-aldian" esaten dauelako zelan IVn Karlos Mallorkan egon zanean Margaritagaz egon zala maite minduta eta aurdun geratu zala.

Bigarren gauza, De La Kosa'tar Juanek 1.500'eko urtean Santa Mariako kaian marreztu eban itsas-askutitzan, zeaztu ebazan Mallorkinezko izen artean, Margalidaren izena agertzen dalako, Madrillen itxasoko erakus tokian dagoena.

Eta Pariako itsas-kolku onetan, Orinoko erreka itsasoaren barrurantz 40 leko baiño geiagotan, ur-gezakin itsasoko urak gezatu egiten dabela oartuta, Kolonek erreka orren barrurantz esaten eutsen errege katolikoari egoala "parabisu edo atsegintasunezko baratza", euren idatzi eutsen ondo eskutitz luze onetan.

1.498ko Dagonillaren 23an errege katolikoaren alaba Isabel, Portugaleko erregeña il zan, bere seme Migel euki ta ordu batera.

1.498an Dagonillaren 31n Kolonek, oraindiño ezagutzen ez eban Santo Domingoko kaian legorreratu zan.

Baiña kaian sartu orduko bere anai Bartolomek, txalupa bategaz bidera urtenda adierazi eutsen, zelan Santo Domingoko uria eraikitzea agindu ebenean, bera Xaraguako ugartera joan bear izan ebala, bertan Beetxio erregea eta bere arreba Kaonaboren alarguna aurkitzen ziralako, eta itanduten joan zalako euren ipini eutsuezan urre-gorria eta algodoizko zergaren ordaintzagaitik, zelan ordaintzen ebezan algodoiena bakarrik, eurak, urre-gorriak ez zalako egon erantzunda.

-Eta bere aldegitte bitarte orreitan sortu ziralako mantxintasun ugari, eta bai zelango egoeran aurkitzen ziran une orreitan, Santo Domingo ugarterako uria ta beste ugarterean eraiki ebazan uriak, bai zenbat urre-gorri ta algodi batzen ebazan zerga lez ugarte guztietatik esan eutsen Kolontar Kristobaleri.

-Dana dala, Kolontar Kristobal Dominika edo espainolaren ugarteretik kanpo egon zan bitartean, gauza asko sortu ziran eta geienak txarrak, ango nagusiak ia beti matxinatuta egon ziralako Kolontarren aurka, bitartean zukarrak, andramiñezko gaisotasunak, gosea, bertoko jendearen erasoakaz, Kolonen anaia Bartolomek bere agintaritzan lar gogorra izan zalako aitzakiakaz eta abar. Kolonek oso naastuta aurkitu ebazan an bizi ziranaren ardurazko jarduketak.


1.498ko Iraillaren 22an, Aragoiko gorteak artu eben Fernando ta I Isabel katolikoaren alaba, Isabel Portugaleko erregeña zanaren semea Migel erregetzaren ondorengo lez, eta 1.499ko Urtarrillan Gaztelako gorteak.

1.498an Urrillaren 25ean eskutitz bat idatzi eutsen Kolonek asarre matxinatu zale zan Roldantar Franzizkori, Bartolome bere anaiaren aurka egin ebazan ezbearreko gauzak egin ebazalako, eta barkamena be eukala, berak errege ta beren agindutara ostera agertzen bazan, izkillatutako erabagi gogor bat artu barik.

Roldatar Franzizko onek, bere matxinatuekin berba egin ondoren, auek ez eben gura ango morroiekaz erosten eben jauntxo bizitza ezezagaitik itzi, eta Kolonek beste amarrukerizko gauza batzuk antolatzen asi zan.

Gauza guzti onen ondorioz eztabaida asko sortu ziralako, bere izeko-osaba errege-katolikoari idaztea erabagi eban Kolonek, Dominika edo espainolako ugarterean sortzen zan guztiakaz, eta bide batez aolkulari bat bialdu egiela jaurkintza arloetan berari laguntzeko, eta euren ustez gitxi bazan berak eskatzen ebana, bere seme Diego be bialdu egiela, euren bertotik serbitzeko.

Eta 1.498ko Urrillaren illa erdian peninsulara bialdu ebazan erregetzako bost ontziak ango mozkin eta barri askogaz Sebillara elduta, Ojedatar Alonso sortu zan bertan egotea, eta au arduratuta indiasetik agertu ziran barriakaz, Fonsekatar Juan gotzaiña, Kolonen etsai aundiena izan zanarengana joan zan, bere buruz lur aietara joateko baimenaren eske.



E



Fonsekak, baimena emon eutson Ojedari bidai ori bete egian bere buruz, baiña baldintza onegaz, errege katolikoaren ordezkioak euki ebazan legeak "lotsean artuta".

Eta talde barri au osotzen eben Ojedatar Alonso, De la Kosatar Juan eta Bepuziotar Ameriko, bereala asi ziran Santa Mariako kaian antolatzen bear eben ontzidia Indiaserantz joateko.

1.499an Lorailren 18an Ojedatar Alonso, De la Kosatar Juan ta Bepuziotar Amerikoren lau itxasontziak Kadizeko kaitik urtenda, Kanariaseko ugartetara urten eben, eta Gomeratik, Kolonek irugarren bidaian egin eben bidai bardiña egin eben auek be. Baleiteke Kolonek beste itsas-alditan margoztutako itsas-mapa bat erooten ebelako izatea.

Ojedatar Alonsok, Orinokoren ekialdetik 200 lekora eldu zan lekutik asi zan ikertzen Ameriketako lur bazter edo izparterrak, eta gaur frantzezen Guayana deritsonetik talde bitan banandu zan ontzidia, Ojeda ta De la Kosatar Juanek, Kolonek agertu ebazan lurretara joanda, eta Bepuziotar Ameriko egoalderantza, Kattigara 'ko lur-muturra ia aurkitzen eban, Ptolomeok 9º egoaldeko zabaltasunerantza egon zala esaten ebalako.

Ojeda ta De la Kosatar Juanek, Trinidad ugartetik aldatuta, Pariako itsas-kolkoa aldatu ziran Eren-Sugearen Agora<sup>(1)</sup> elduteko, eta ortik Margaritaren ugartetik bitxi edo txirlarien itsas bazterrak ikusi ondoren, lau itxasontziak alkartuta, Kurazao eta Kokibako itsas-kolkora joan ziran, Bepuziotar Amerikok Benezuelako kolkoa deitu eutsonai, eta Ojedatar Alonso ta De la Kosatar Juanek kolkoaren barnean Marakaiboko aintzira<sup>(2)</sup> aurkituta San Bartolome izena ipini eutsoen.

1.499ko Dagonillaren 30ean Ojedatar Alonso eta De la Kosatar Juanek, gauza guzti oneik aurkituta, eta naita Fonseka gotzaiñak, ipini eutson baldintza bakarrean debekatuta euki, espainola ugarterantza joan zan, bere atzetik Bepuziotar Ameriko Amazonas ibaia aurkitu ondoren euren billa joanda.

Arrituta geratu zan Kolon, jakin ebanean Ojedatar Alonso, De la Kosa tar Juan eta Bepuziotar Ameriko, Jakynoren itsas-bazterreko kaian lurreratu zirala, eta bidai ori egiteko zer gertatu zan jakin gurean egonda, bai ta zertan jua ziran berari ezer esan-bage jakiteko, Roldantar Franzizko bialdu eban eurakaz egoteko.

1.499an Iraillaren 29an eldu zan Roldantar Franzizko guda-talde gogor bategaz, espainola ugarteko mendebalean Yakinoren kaian Ojeda ta besteak kokatuta egon ziran lekura.

Ojedatar Alonsok, guzur aundia esan eutson Roldaneri, bera Kolon ikusteko itxaropenean egoala esan eutsonen, gogo ori urriñetik be ez ebalako euki, eta Roldanetik aske geratu zanean, Xaraguako ugartera joan zan, angoko espainar jendea Kolonen aurka matxinateko asmoan.

Batzuk alde eta beste batzuk aurka egon ziralako, borrokan asi ziran euren artean, Roldan bera joan bear izanda matxinatu aiek bakezteko.

Eta Ojedatar Alonso jakinda, Roldantar Franzizko zelakoa zan bere aurka joan ezketiño, peninsulara itzultzea erabagi eban eta 1.500ean Bagillako illerdian eldu zan Kadizeko kaira, itxasontzia yopu biurtu<sup>(3)</sup> ebazan ugarteetako indiar jendeagaz beterik.

Ojedatar Alonso andik alde egin ebanean, espainolako kolonitarrak Koloneri eskatuta, bertoko jendea euren serbitzura eukitea lortuta guzientzakotu egin zalako, *banatzailletasuna* edo "*magalpea*"<sup>(4)</sup> deitu jakon, bertoko jendearen menperatze orreri.

Baiña Kolon ez zalako ergela eta gitxiako oilo edo koldar bat, Fonsekatar Juan gotzaiñak Ojedari emon eutson askatasuneko baimenagaz asi zan gogora ekarten, gertakizun aiek zer esan gura eben ausnartzeko, eta bereala konturatu zan bere lilluramena<sup>(5)</sup> berantza joan zala, Fonseka eta Ojeda jendelakoak indar ta bestearenagaitik bekaizkeri asko euki ebelako, bere ospea ain goialdeko maillan eten barik iraun egian.

(1) Eren-sugearen Agora = boca del dragon. (2) Idoi edo Aintzira = pantano, lago pequeño. (3) Yopu biurtu = esclavizar, convertir en esclavos a las gentes de aquellas tierras. (4) Banatzailletasuna edo magalpea = repartimiento, encomienda o proteccion. (5) Lilluramena edo larderria = prestigio, fascinacion, o autoridad.



Kolon bere oldozmenean ez eban arrazoizko zalantzarik euki, indiasetara joan etorriko talde bakoitzaren mariñelak, bitartekotasunik edo alkar-adituak euki edo euki ez arren, ango agintarien aurka negartsu edo marmarika agertzen ziralako geienak, ta gauza orreik bertoko jendearen bekaizkeriko irudimenakin maltzurtasunezko almenagaz zabalduta, Fernando katolikuak ez eban euki beste biderik, Bobadillatar Franzizko gomendatorea<sup>(1)</sup> indiasetara bialdu baiño, an zer gertatzen ziranak ikerketa bidez jakiteko.

I Isabel eta Fernando errege katolikuak ez ziran konturatzen ara bialdu eben Bobadillatar Frazizko ori, ez zala eurak gogoratzen ziran bezela aifñ argi ta jakintsua, bekaizt, kasketatsu ta altsutasunezko itxurak emonda, borondatezko neurrian maskar edo aul ta ergel bat baiño besterik ez zalako izan.

1.499ko Epaillaren 21ean II In Fernandok bialdutako agirian agertzen da Bobadillatar Franzizko, zelan izendatzen dabe Indiaseko jaurlaria agindu zabalakaz.

Kolonentzat gogorra izan zan Bobadillaren jaurlarizko izenpetze ori, erregearen ordezkoa ta orokorrezko jaurkintza kentzen eutselako agiri orrek, eta ekintza onek bakarrik erakusten dau, Kolontar Kristobal errege- seme ta errege katolikoaren loba izan zala, bestela beste baten bat izan bazan, ainbeste denboran eukiko ote eben agintaritzazko mailla andi ortan ?.

1.500eko Dagonillaren 23an eta aginte guzti orreikaz agertu zan Santo Domingoko kaian Bobadillatar Franzizko ori, baiña lau milla ariñago ta denbora askoan geldirik egon ziralako itsazotzi orreik, uri orren agintea Kolontar Diegok eukinda, iru mariñel bialdu ebazan jakiten, ia zer gertatzen zan ainbeste denboran an geldirik egoteko.

Eta mariñelak itxasonzietara eldu ziranean, Bobadillak itandu eutsoen, ia nun egon ziran Kolontar Kristobal, bere anai Bartolome eta Diego ta Fernando Kolonen semeak, mariñelak erantzunda: Kolontar Diego Santo Domingon, Kristobal Amirala Sorkunde ugartean eta Bartolome jaurlaria Xaragua ko ugartean matxinatuak arrapetan gero urkatzeko.

Aginduaren eztabaida gogor orretan ibili zirela Bobadila onek Kolontar Diego atxilotu eta oin-burniakaz kateatu eban.

Eta bardiñ egin eban Kolontar kristobalegaz, esku-mendean euki ebanean, berari be oin- burniakaz kateatu eutsonean.

Bobadillak, Kolontar Kristobal kateatu ebanean, onek ez eutson ezeren gaitzesterik<sup>(2)</sup> egin, ekintza orregaz an egon ziran guztieri erakutsita, bera, odol-beroko Bobadilla aul eta ergel ori baiño azkoz gorago egon zala, bai jakintasunean eta bai gizon lez.

Bobadillak, Diego ta Kristobal anai biak atxilotu ondoren, Kolontar Kristobaleri eskutitz bat idatzi egioztela, Roldanegaz Xaragua ugartean jaurkilari lez egon zan bere beste anai Bartolomeri, eta onek jakin ebanean zelango gauzak gertatu ziran bere anaiekaz, bereala joan zan Santo Domindoko ugartera, eta urira sartuaz batera atxilotu eban Bobadillak.

Kolonek, ondo baiño obeto jakin eban, eurak gaztelanira elduten ziranean, bere osaba-izeko erregeak askatu ta gauzak bere lekura joango zirela, bitartean baiña, andik jauntxoaren gogoaz bizitzeko itxaropenean egon ziranak, poz aundiz ibilten asi ziran, Bobadillaren araubideak eurekin, lasaitasun aundiagokoak izango ziralakoan.

Bobadillak, Kolontar iru anaiak atxilotu ondoren, gezur-zaleen zalakuntzak batzen asi zan, gero an zer gertatu zan zeetasun guzti orrekaz, erregeari agiri luze baten adierazteko, eta peninsula onetara katez beterik bialduta berton epaitzeko, itxasontziak antolatzen asita.

1.500eko Iraillaren 30ean, Yanez ta Pinzontar Bizentek egin eban ostera bat, Kolonek agertu ebazan lurretik kanpo ibilteko baldintzagaz, eta beste ugarte eta lur zabal batzutatik aurkitzen ibili ondoren, Kadizeko kaira eldu ziran, itxasontzia txirlak edo bitxiakaz<sup>(3)</sup> beteta.

1.500eko Urrillaren lenengo egunetan urten eban itxasontzidia Santo Domingoko kaitik peninsula onetara, Ballejotar Alonsoren agindupean eta Kolontar anaiak etorten

(1) Gomendatorea = comendador. (2) gaitzesterik = protesta, reprobación. (3) Txirlak edo bitxiakaz = perlas o con perlas.

ziran itxasontziko Martintar Andres kapitainagaitik, ondo ta lotsagizunezko arrera aundiagaz zainduta.

Ballejotar Alonso ta Martintar Andres agintari nagusi ta itxasontzien kapitainiak, kateak kendu gura eutsezan irueri, Kolontar Kristobal ez ebana onartu, berba oneik esanda: "Erregeak agindu ebala, eurak, Bobadillak agintzen ebena egin beargendula, eta alan izango zala erregearen aurrean agertu arte". Kate orreik berak gordeko ebazan bizi izango zan bitartean.

Eta alan bete eban bere esana, beti egon ziralako eskegita bere lan-gelan, bera ilten zanean, beragaz illobiratzeko kate orreik aginduta.

1.500ean Azaroaren illeko azken egunetan eldu ziran itxasontziak Kadizera, eta jendea ikusi ebazanean Kolon ta bere anaiak kateatuta jetxitzen zirala itxasontzietatik, naita len marmarka euren aurka etsaiakaz batera ibili, oraingoan lotsatu ta asarratu egin ziran, gizon aiek ikusiaz batera jakin ebalako, bekaizkeri ta gezurraren-iraintsu edo ta gezur-gaiztoaren kaltetunak ziralako konturatu ziralako.

Errege katolikuak, Granadan egon zirala jakin eben zer gertatzen zan eurokaz, eta be-reala agindu eben askatu egiezen, eskutiz bat euren loba ta onen anaiari idatzita, bitartez 2.000 dukado bialduta, eurengana ondo apainduta joan zitezzen.

1.500eko Abenduaren 17an eldu ziran Kristobal eta bere anaiak Granadara, erregeak zutunduta ta esku zabalik eurak artzeko ziralako, eta Kolontar Kristobal bere zintzotasunean, nortasunaren osotasuna galduta, negar ta belaunikatzen egon zala ez eutsien itzi, an osotu zan irudia, lots aundieneko irudia izanda, danok damu agertu ziran, Kolontarrakin sortu zirenakaz.

Kolontar Bartolome alderantziz, ez zan belaunikatu, eta bere anaiak erregearen serbitzura deitu eutsoenetik, zazpi urteko denbora luzean eta ardura guztiagaz ia lo egin barik berak egin ebenagaz, Dominikatik kanpo, Xaraguako ugartean Roldanegaz egonda, Bobadillak guzurrezko eskutiz bat bialduta, katez beterik atxilotu egin ebala ezan eutson erregeari, eta gura-eukela berak, guzur orreik beren lepotik kenduta, bere arduradunezko lekuan egokitu egiola ostera be.

*Argi ikusten da emen, Kristobal, Bartolome ta Diego anaiak izan arren, Kolon bakarrik izan zala IVn Karlosen semea eta errege katolikoaren leen maillako loba.*

Eta erregeak, bereala ipini eutsoen ostera euren ardurazko mailla aundietan, erregearen ordezkotzan izan ezik, eta beragaz, Indiasen erregetasunezko ordezkariak barik.

Amen ikusten da argi, Kristobal Kolonen aita IVn Karlos Naparroako erregea eta bera, zitaldasunezko<sup>(1)</sup> maltzur denbora aietan egi edo ta berbakoak izateagaitik, porrot egin ebela biak, denbora aien bizi ekintzatan egi-zaleak izan ezkerro, nortasunezko bitxi-bereziak izan bear ziralako, ingurukoagaz berez, zentzu onaren izaerazko jokuan, ainbeste arazoetatik irabazle urteteko.

Kolon bera ain gogoetatsu izanda, denbora oneitan be, ez zala geldirik egoteko gizona berez agertzen eban, eta beste egitarau baten antolamendu barri bat egin eutsen erregeari, Jeruzaleneko Jesusen illobia mauritarren eskuetatik berrezkuratzea, aurkeztu eutsenean.

Baiña naita denbora askotan, antolakuntzazko ezaupide orreitan ibili, ezerezean garatu zan guztia.

1.501eko Iraillaren 3an errege katolikuak ikusita, Portugaldarrak zelango aurrerakuntzak egiten egon ziran Brasillaren inguruetatik, Bobadillatar Franzizko kendu eban indiazeko agintaritzatik eta zentzu aundiko gizona izan zan Obandotar Nikolas ipini eben erregetzazko ordezkotza orretan, berari aginduta, Kolontar Kristobaleri itzuli eutsozala len kendu eutsiezan jabetasunak, Koloneri bere ordezeko bat izendatu dagien aginduta, peninsulara ekarten ziran gauza guztien baliotatik, beren amarrak artu egiezan, eta Kolonek, Karbajal izendatu eban lan orreik aurerantzean eroateko.

(1) Zitaldasunezko denborak = tiempos de mucha bajeza moral y malignidad.

Eta 1.501eko Urrillan gauza guzti oneik konponduta Kolon antolatzen asi zan, berentzat indiaserako laugarren bidaiia izango zana, lau itxasontzi erosi ta Palos'eko kai ingurutik 140 mariniel artuta, bere anai Bartolome ta Fernando semea eroa zituzen laguntzaille lez, Diego semea Gaztelako gortean eta Diego anaia Gaztelan geratuta.

Kolontar Kristobalek eskutitz bat bialdu eutsen errege katolikuari, eta bidai au egiteko ta arabiar izkuntza jakin eben iru gizon, Kan Aundiagaz aurkitzen bazan, beragaz ulertzan egokitzeko baimena eskatuz.

1.502an Otsaillaren 13an Urten eban Sanlukarretik Obandotar Nikolas 32 itxasontziko ontzidian 2.500 gudari eroaten ebala.

Eta 1.502ko Epaillaren 14an erregeak Balentziatik Kolonen eskariari erantzunda, arabiar izkuntzaren iru utzultzaillearen baimena euki ebala, baiña debekatuta eukela espainolaren ugartea joakeran ikutzea, naita itzulkeran beartuta egoten bazan, bear ebezanakin ornitzeko baimena emonda.

Kolonek bidai au, sei illabetetan apaindu eban.

### Laugarren eta azkeneko itsasaldia.

1.502ko Loraillaren 9an urten eban Kolon Kadizeko kaitik indiasetarantza, eta 20an Kanariasera elduta ta bear zituzenak artu ondoren, 25ean ostera urten eban itsas-zabalera Indietara joateko.

1.502an Bagillaren 15ean Martinikako ugartearen ingurura eldu ziran, Bagillaren 23an Santo Domingoko inguruan egonda eta Kolonek erregearen debekuari uko eginda itxasontzi bat txarto eukelako, espainolako kaian sartu gura eben itxasontzi ori konpontze-ko, baiña Obandok ez eutson sartzen itzi.

Kolonek, espainolako ugartean itzi eban bere itxasontzia, konponketa orreik egiotsezan, eta jakinda Obandok zelan egon zan antolatzen bidai bat peninsula onetara Roldan eta Bobadillatar Franzizko ekarteko, mezu bat bialdu eutson Obandori esaten, aize-denborea gaiztotu egingo ebala eta ez egiela kaitik urten bada ez badan.

Obandok ez eutson jaramonik egin, eta itsas-zabalera bialdu ebazan berak ekarriko 32 itxasontziak.

Kolonek igarri ebena sortu zan, eta 32 itxasontzitik 20 urperatu ziran, euren artean itxasontzien aginduetan joan ziran Torrestar Antonio, Roldan eta Bobadilla kapitaiñak beste 500 marinielkin.

Ostera joan ziran Santo Domingoko kaiara geratzen ziran 11 itxasontziak, eta bat bakarrik eldu zan erdi-ugarte edo peninsula onetara, Bobadillak Koloneri emon bear eutsoezan 4.000 urrezko ogerlekoakin<sup>(1)</sup>.

Kolonek, itxasontziak konpondu ebazanean urten eban egon zan kaitik eta Jamaikako ugarte ondolik igarota, Kubaren ostean, Erregiñaren-Baratzeko ugarte batera joan zan, eta ura ta janari bear zituzenak artuta, ostera itsasoratu zan, bere Indiasera joateko asmoan.

1.502an Uztaillaren 27an Onduraseko itsas-bazterrean eldu zan eta Dagonillaren erdi ingururantz lur orren jabetasuna bere errege katoliko izeko-osabaren izenean artuta, aurrera egin eban, eta ez arazo barik, aizeketaren ekaizteak 88 egunetan iraun ebazalako.

1.502ko Iraillaren 12an Kolon bere itxasontziekaz aifi estu-aldian egonda, Onduraseko lur muturretik ego alderantz aldatzen dan lekura eldu ziran, eta lur mutur orreri «Gracias a Dios» en izena ipini eutson, ortik aurrera aize onak eta itsas-bide azkarrak euki ebazalako.

(1) Urrezko ogerleko = pesos

Egun batzuk igaro ta gero, Nikaraguako ibai-ondo batera eldu ziran, eta erreka oneri Kolonek, Zorigaitzeko Ibaiaren izena ipini eutsen.

1.502ko Iraillaren 25ean Kosta-Rikara eldu ziran, eta bertokoakin berbetan egon ondoren, Kolonek aurrera egin eban.

1.502ko Urrillan Kariay'eko izena ipini eutsozan eldu ziran lur barri batzuetara, ta bertan lurreratu zan, eukezan gaisoak osatzeko, itxasontziren garbiketak, konponketak egin ta bear ebena itxazontziratu egin ondoren, bertoko gendea ondoratu jakozan, eta urre-gorritzko meaztegiak batzuen tokiak erakutsi eutsoen.

Urrezko meaztegiak aurkitzen joan ziranean, beragaz eroan ebazan bertoko gizonak, sartalde edo mendebal aldetik beste itsas baten<sup>(1)</sup> uragaitik ikutuak ziren lurrak eta urre-gorritz beterik egon ziran Ziguareko lurragaitik berba egin eutsoen, Kolon bide batez bertatik ibilita itsas-arte estu bat aurkitzen, bere ametseko Zipangora joateko.

1.502an Urrillaren 17an Kolonek Beraguako itsas-bazterretatik urre gorriaren meaztegiak aurkitzen asi zan, baiña ekaitz gogor bat sortuta, Puerto Bello'ra eldu ziran, bertan amar egunean egonda, eta atzera egin bearrean meaztegiak aurkitzen, euren kokamenak itsas eskutizetan marraztu ta aurrera egin eban.

Itsas-zakar orretatik igarota, aurrera egin eban Bastimentoko kairara eldu arte, eta bertan 14 egun eginda, aurrera egin eban Darieneko kolkora elduarte, eta 15 leko eginda sortu ziran aize eta ur lasterrak geratuazo eutsoen eta atzera eginda Bastimentoko kaira joateko, beste berezko kai bat aurkitu eben eta "Komuneko" kaira ipini eutsen izena, itsasoaren ekaitz aregaz, danak joan ziralako galtzak edo prakak erantzi bearrean.

1.502ko Abenduaren bigarrean astean eta Darieneko kolkua ta gaur Panamako istun edo ugaska<sup>(2)</sup> bitartean dagon Komuneko ugartean 15 egun egon eta gero, Kolonek Beraguara joateko agindu eban, eta "Kai Lodira" eldu ziran, bertan itxasontziak konpontzen asita.

1.502ko urtean, Kolonek, bere emazte Enrikeztar Beatrizegaz ezkondu, naita denbora askotan ikusi barik egon, asko gura izan bear eutsen, gaur galduta dagon eta bere azken naiaren arauetan<sup>(3)</sup> bere seme Diegori idatzi eutsen lez, bere emazteak bear eban diruagaz arduratu dagiala, bere bizitzan euki ez dagien ezerean beartasunik, eta Ameriketako lurrak bera izan zalako leen ikusi ebezanak, erregeak dirutan emon eutsoezan 10.000 marauriren errentak, urteroko-sari lez berentzat itxi ebazan.

1.503ko Urtarrillaren 6an Beraguako aberats toki batera eldu ziran, bertoko ibaiaren ao edo uobian, berezko kai eder bat aurkituta, eta 1.536ko urtean, bertoko Dukea izendatuko eben Kolonen illoba, eta Duke ta Amiralaren izendutasunak, gaur be Kolonen ondorengoak ekarten dabe.

1.503an Otsaillaren 6an, Kolonek bere taldeagaz Beraguan egon zirala, 70 gizon bialdu ebazan lur barru eta bost leko ibili ondoren, ainbat urre-gorritzko meaztegi aurkitu ebazan.

Zaindu bear ziran ainbesteko aberastasunak, eta Kolonek bere anai Bartolome agindu-pean itzi ebazan meaztegi aiek, bertan Beleneko Santa Mariaren uria jasotzen asita, Kibian, euren erregearen baimenagaz, eta bera espainolako ugartera joateko laguntzaren billa presatzen asi zan.

Kolonek itsas urak ibitu edo beratu ziranean eta ibai-aotik urteteko arazoak euki ebazala, Kibian bertoko erregearen iritzia aldatu zan, eta danak iltzera joan zirala jakin ebanean, Kolontar Bartolome ta Mendeztar Diegok, Kibian arrapatu eben, eta naita onek iges egitea lortu, il zalakoan barria eldu zan Kolonek belarrietara, eta aurrera egin eban bertan 80 gizon eta itxasontzi txiker bat itzita.

Eta Kolon bide erdian aizeagaitik eta ur-lasterragaitik geratuta, uraren ezean aurkitu zan eta ur billa bialdu eban batel bat lur aietan ura artu egien, bertako jendeak danak ilda.

(1) Beste itsaso bat = "Itsas-Nagusia" izan zana, *Oceano Pacifico*. (2) Itsas-zidor, istun edo ugaska = *estrecho maritimo*. (3) Azken naiaren arauetan = *codex, codicilo al testamento*.

Kolonek ikusita batela ez zala agertzen, eta Kibian ez zala il jakin ebenean, bertara joanda, bere anai Bartolome ta beste guztiak askatu ta osta osta lortu eban eurengandik aske geratu ta aurkitu ebezan gauza guztiakin andik urtetea.

1.503an Epaillaren 23an errege katolikuarekin Kolonek urrun egonda be, sekula ez eban galdu arremarik, eta errege katolikoari idatzi eutsen eskutitzan, berak gauza askoren artean denbora onetan, ikusi ta ikertu ebazala itsasoari buruz ainbat idaz-lan, adibidez: Kosmogra-fia, edestia, berriak edo albisteak, berriakak, bizitzaren egon-arri edo eraman ona ikertasu-nezko bideetatik, bai ta Jainkoak beste ainbeste jakintasunezko bideak zabaldu dautsezane-tatik, agirian ipinita "emendik Asia ´raiñoko bidea, egin leikela", eta su orregaz joan zala bera eurengana.

1.503ko Jorraillaren 16an Kolonek, Berakurtzetik urten eban geratzen jakozan konpondu ta gero 2 itxasontzigaz Kai-Ederrarantza<sup>(1)</sup>, irugarren ontziko zureria<sup>(2)</sup> ustelu egin zalako.

1.503ko Loraillaren 1ean urten eban Kolonek espainolarantza, 13an Kubako inguruan Erregiñaren Baratzera elduta, baiña itxasoa zakartu egin jakon lez eta bere itxasontziak guztiz zillotuta aurkitzen ziralako, Bagillaren 25ea eldu ziran osta-osta Jamaikako ugartera.

Kolonek itxasontzi barik aurkitzen zalako, alango txalupa txiki bat prestauta, Uztailako illean, Mendeztar Diego itxasontzidiaren idazkaria, Obando eta erregeentzako eskutitz bigaz bialdu eban beste sei lagunakaz espainolako ugartera Obandoren laguntza eske, baiña bertokoak arrapau egingura ebalako, arazo andi ta gogorrek eukinda, ostera joan bear izan eban urten eben lekura.

Ostera urten eban Mendeztar Diego, eta lau egun barru, Nabasa ´ko ugartearen atxak ikusita, ango atxaren zilloetan aurkitu eben uragaz kendu ebezan egarriak, urrengo egunean San Migeleko lur muturrera elduta, eta emendik Azuako kaian jakinda, Obando Xaragua ´n egon zala, bertora joan zan, eta Obando, Kolonen aurkako zalako, bertan atxilotu lez euki eban Menedeztar Diego. 1.504ko Epaillararte.

1.504ko Urtarrillan Kolon artritiseko gaisoagaz ogean egon zala, Porrastar Franzizko beste 48 mariñelekin matxinatu zan kolonen aurka, ta espainolako ugartera joan ziran bertan euki ebezan txalupakin, ortik gero erdi-ugarte onetara etorteko, baiña itsasoaren ekaitzak ostera bialdu ebazan Jamaikako ugartera, eta lapurketan asita bertoko bistaleen etxolatatik, auek asarratu egin ziran, eta ararte emoten eutsezan jatekoaren eskuratzeak ebagi eutsezan.

1.504an Otsaillaren 29ko bisust-urte<sup>(3)</sup> edo bi-urte orreitan Kolon gogoratuta, illart-illune<sup>(4)</sup> edo illargiaren illuntasuna sortuko zala, bertoko jauntxoari deituta, zeruko illargia kendu ta illuntasunezko ekaitz gogorretan sartuko eutsiela eureri, janaririk ez ba eutsen ekarten esan eutsoen.

Eta danak itxaroten egonda, gabaz zer gertatuko jakien, illuntasuna agertu zanean, danak joan ziran Kolonengana parkamena eskatzen, eta illuntasun orren denborea amaitzen egon zala, ostera urten eban Kolonek eurei esaten, parkamena emoten eutsoela, eta bertokoak ikusita illetargia ostera agertzen zala bere lekura, bear izan eben guztia emon eutsoen Kolon eta bere mariñelai.

1.504ko Jorraillan Obandok, itxasontzi bat bialdu eutson Koloneri Eskobartar Diegoren aginduan, esateko, euren billa, egiten egon zan itxasontzia amaituta eukanean etorriko zala, eta Kolonek Eskobarreri, Obandorentzat eskutitz bat emonda, ostera urten eban espainolaren ugarterantza.

1.504ko udabarri orreitan Santo Domingora joan zan Menedeztar Diego, an erdi-ugarte onetatik joan barri ziraneko itxasontzi eder bat erosita Koloneri emoteko, eta bera,

(1) Porto Bello. (2) Zureria = maderamen del barco. (3) Bisusturte = año bisiesto. (4) Illart-illuna = eclipse de Luna.



bear ebenagaz apainduta, ostera itzuli zan erdi-ugarte onetara, erregeari, Kolon idatzi eutsoen eskutitza emon eta ango barriak eurei esateko.

1.504ko Lorailaren 20an Kolonek, Porrastar Franzizko erakarri gure eban zentzunera eta parkamena agindu ta gero ostera matxinatu zalako, Kolonek, bere anai Bartolomeri agindu eutsen beste 50 mariñel adizkideakaz aurka egin egiola, eta menperatu ondoren, Kolonen aurrera eroan eban.

Ia urte oso bat egon bear izan eben Kolon eta bere mariñelak Jamaikako ugartearen egoera orreitan, eta matxintasunezko arazo orreik konpondu ta egun bira, itxasontzi eder bi ikusi ebazan euren ugartera etorten zirala, bat Obandok bialtzen eutsena eta bestea Mendeztar Diegok erosi ebana.

1.504ko Bagillaren 28an itzi eban betirako Kolonek Jamaikako ugartearen Dominika edo espainolako ugartearen bidea artuta, eta Beata 'ko ugartearen geraldari bat eginda, Dagonillaren 13an eldu zan Santo Domingoko kaiara.

1.504ko Iraillaren 12an Kolonek, bere Bartolome anaia eta bere seme Fernadokin urten eban Santo Domingotik erdi-ugarte onetarantz.

Eta emen itzi bear izan ebazan betirako, berak agertu ebazan Indiaseko aberats lur orreik, bere Zipangoko lur eta Kan Aundiaren amets nagusiak bete barik, gero 1.520an Urrillaren 21ean Magallanesek aurkitu eben itsas-artearen estutasun ori ez ebalako aurkitu.

1.504an Azaroaren 7an, ille bi beranduago legorreatu<sup>(1)</sup> edo porturatu ziran Sanluka-rrerako kaian, Kolon eta beren kideak Dominikatik etorri ziran itxasontzi biekaz.

## Kolonen azkeneko oñaze edo nekeak eta beren eriotzea.

Kolon, Barramedaren Sanluka-rrerako kaian lurreratu zanean, Sebillara joan zan artez, bere osasuna eta irabazpideak argitzeko asmotan, berak irabaziko diru arloaren egoera, Bobadilla bere amurratutako etsaiaren bidez, oso nastuta egon zalako.

1.504an Azaroaren 26an, Kolonek Gaztelako gortera joan gura eban len bait-len, bere izeko-osaba ikustera ta indiaseko barriakin-idatzita euki ebazan eskutitzak eurei emoteko, baiña euren gaisoa zaindu egin bear ebalako, eta bere seme Diegogaz irabazpideko agiriak argitu naian denborea irauten doielan, I Isabel erregeiñ-katolikua il zan 53 urte eukezala, Kolon eldu zanetik 19 egun barru.

Kolonek, beste gauza batzuen artean eta oso kezkatuta egon zalako, eskutitz bidez, bere seme Diegori eskatzen eutsen, ia I Isabelek beren azkenai agrietan, berentzat zeozer itzi ba eban idatzita izan zan.

-Baiña kontuan euki bear zituzen, Santa Fe 'ko ongundean, eleiztar, errege-erregeiña ta berak artu eben erabagiakaz.

-Ala, beren erregezko ondorengo izaerak, gauza onekaz, ez ote euren zer ikusirik ?.

-Orduan, B. Gould 'tar Alize 'k ikerketaren arrigarrizko lan bidez, mariñel talde osoaren izen, abizen, nungoak ziran, bakotzak zelango ogi-bidetan lan egiten eben, eta euren gurazo errigizarte ta auzoak zeintzuk ziran zeatz jakiteko egin ebana, zergaitik Kolontar Kristobalen izen abizen eta bere ondorengo izatearen nortasunagaitik ezer jakin ez ?.

-Ala, beste pekatu gogor bat euki eban Fernando erregeak, Kolonek I Isabelek izenpetu ebazan, irabazita gero Kolontar Kristobaleri ez emoteko ?.

-Ze garrantzi ote euren, eleiztarren bitartekotasunak ?.

-Dana dala, baleiteke I Isabelek Kolonen alde ez ebela ezer idatzita itzi, beren izena agertzea ez zalako egokiena Santa Fe 'n asmatu zanagaz, gero azkeneko ondorioan argituko doguna.



E

1.504ko Abenduaren 21ean, Kolonek bere Diego semeari idatzi eutson eskutitzan, bera gortera mando baten gainean joateko, baimena emoten ba eutsien agiria atarateko eskatzen eutson.

1.505eko Loraillan eldu jakona, eta Kolonek Sebillatik, mando baten gainean urten eban Segobiarako bidean, bere osaba Fernando erregea ikustera.

Kolonek Fernando erregearengandik, berak indiasetara urten orduko lortu ebazan errege ordezkotzaren eskubideak berrezkuratu gura ebazan, Fernando bere osabak baiña, naita agindu arren beren amiralgo gauzak zuzentzeko auzitegi berezi bat sortuko ebala berari esan arren, sekula ez eban eraikiko alango auzitegirik.

Denbora iraun egiten ebala ikusita, eta Fernando erregeak beren eskubidegaitik ez ebala ezer egiten, Kolonek ostera erabagi eban bere seme Diegogaz erregearengana joatea, berea zana eskatzen, eta Fernandok alderantziz, izendatu eutsozan ordezkotzazko guztieri uko egitea eskatuta Karrion de los Kondes'eko jabetasunaren ordeztu, Kolontar Diego semeak bere asarre guztiagaz, eskeintza orreri atzerazi edo ta ez eban ontzat artu.

Eta onen gora-beragaitik Kolonek bere lagun bateri idatzi eutson eskutitzan, auxe esaten eutson: Erregeak ez ebala ikusten ongarrri, I Isabel erregiñak nigaz batera izenpetu ebena, eta nik aldotena eginda, Jainkoaren eskuetan izten dot, beti egiten doten lez.

1.506ko urtearen lenegoetan, Kolonen itxaropenak barriztu egin ziran oster, Juana ta bere senar Felipe erregeak Segobiarantza etorten zirala jakin ebanean, baiña itsas-txar eta euki ebezan kalteagaitik, Ingalaterraren Weymouth'eko kaira joan bear izan eben, Windsor gazteluan, ia iru illabetetan egonda.

1.506an Jorraillaren 28an A-Koruñara eldu ziran erregeak, eta Kolonek eskutitz bat bialdu eutsen, bere lotsakortasun eta eskaerak idatzita, Bartolome bere anaiak eroan ebana.

Eta bere azkeneko naiaren atal baten bere seme Diegori idatzi eutson eskutitz onetan: Dominika edo espainolaren-ugardean Baselisa bat eraikiteko diru naikoa batu egiala, berton iru Meza Santuak: Trinidad Santuen egunean, Sorkunde Garbiaren egunean, eta irugarrena, bere aita-ama ta emazteagaitik urte guztietan ospatzeko agintzen eutson.

1.506an Loraillaren 19an Kolonek Balladolizen egoala eta bere osasunean txarto ikuste zala-ta, azkenai bat idaztea erabagi eban Inojedotar Pedro idazkariakin, bere ondorengoari 1.502ko laugarren bidaldira urten orduko azken nai lez idatzi ebazanak baieztuten, eta bere seme Kolontar Diego erro-jarauntsi<sup>(1)</sup> lez izendatzeko.

1.506ko Loraillaren 20an Balladolizan il zan Kolontar Kristobal 46 urte eukezala, eta San Franzizkoren eleizan 21eko egunean frantzizkotarren jantziakaz illobiratu zanetik, 400 urte ibili ziran beren ezur-ondarrak alde batetik bestera.

1.512ko urtean Kolontar Kristobalen azurrak, Sebillan dagon Kuebaseko lekaidetxera eroan ebazan Fernando katoliko erregeak, eta eraikitzeko agindu eban jaun-illarri eder onen aurre-alboan, berba auek idatzi ebazan: "A Castilla y a Leòn, nuevo mundo dio Colon".

(1) Erro-Jarauntsi edo Erro-Ondarearen oiñorde edo ondorengo = heredero de los Bienes de Mayorazgo.

## 5. ZATIAN.

### Lan guzti onen ondorioa.

#### Sarrera.

Mundu onetan jaiotzen orain arte danok jaiotzen diran antzera, baiña Eusebio ta Maura aita ama on bitartetik Euskal kabi ederrenetarik baten, Zornotzako erri polit onetan.

Euskalerriko semea izanda, ta bakoitzaren jaioterak berezko izatasun edo orokorrezko baldintz berezipean jaiota, ez dira bereiztasun orreik txantxetan ibili bear dituguzenak, izaerazko azturak, gai bide orreik baldintzapeko etorpidetan ulermenduta ezi, azkortu, edo ta azten garelako.

Ez da edozelako bidea, JAINKOAK ipini euskuna ez, jaioten-garenok bakoitzaren izaeran nortasunduta bereztuteko, Berak Izadi au gai bereztu ebanean eta gaiaren orokortasuna beti itxura eder onetan agertu dagian, osotzen dauan mukullu, ataltxo edo ta iski txikerrenari be, osagarritzko legepean izaerazko bereizitasuna emon eutsolako, gure gaitutako-arimak be gai-lege ortan oiñarrituta geratzen dira, eta mundu onetan iñork eta ezerk, ez dauka beste zentzunezko biderik, legezko baldintzape orreitan bizi ezik.

Jainkoak, gaia bereiztasun orreikaz bananduta bereztu ebanean, Nortasunaezkoa biur-tu eban, berak daukazan mukullu, ataltxo edo ta iski txikerrenean be, danak bateratasun edo aldiberetasunezko ta osagarritasunean, erlojugintzazko lan eder baten ipini ebazalako.

Guk, badakigu arimak garela, konturatu bear baiña, gaitutako arimak garela, eta Jainkoak or, ipinten dausku danori, gaiaren baldintzapean.

Zeintzuk ote dira baldintza orreik ?:

a) Mundu fisiko onetan jaioten garanean, danak bardiñ jaioten garela munduko erri-tar<sup>(1)</sup> lez eta orokorrezko ulermen batera bideratuta osagarritzkoak izan gindezan.

Osagarritasunezko ulermen ori baiña, elburu nagusia da, eta aukera orreitar eltze-ko, nortasunaren bereiztasunezko zor-eskubidearen ordezkarietzako lots bitartez eldu bear gara, ta orren ekanduz kanpoaldetik norkeriz bizi garelako, jarduerazko arrera orreitan agertzen jakuz, ulertu eziñ diran, bata bestearen aurkako odoljariozko nekaldi ta lotsagabeko menpekotasun oneik, danon ulermeneko elburu nagusia mugagabe atzeratuta, alan gagozan bitartean.

b) Gai-Mundu onetan iñor ez dalako ezereen ugazaba<sup>(2)</sup> arduradunezko izaitea baiño ez jaku geratzen, eta danon eskubide guztiak bardiñak izanda, Jainkoaren Legeak diralako beartuten dabezanak izaerazko egoera orreik, iñork ez dauka baimenik ezereen edo ta iñungo legerik atarateko, "JAINKOAK BERAK" izadi oneri ipini eutsoezan baldintzatic ez ba dira bakoitzaren.


d) Gai-bereztutako Arimaren bizia izanda, arrazoidunezko bizitza da zalantzarik gabe, ta jaiotzen bizi zaran lekuko izkuntzagaz nortasunduta, osotu bear dozuz zure osagarritasunezko ulertzak, norbera izateko, Jainkoari begira orreitan argitzen diralako nire euskal izaera beste izaera guztiekin, BERAK nortasunduta bereiztu euskuzan gauza guztiari lez ulertzeko.

Jainkoak, gaia osotzen dan bereiztutako mukuluekin lez, gizari be bere ugaritasunean bereiztuta, mundu onetan osagarritzkoak izatera eldu gindezan alegintzen dauzku, lege orregaz orokortzen dabezalako nortasun bakoitzaren ardurazko eskubideak, ta ez batzuk gure daben antzera, danak naastuta arto-urune opilduta talo bat egiten dan lez Jainkoari eskeintzeko, Bere aurrean bakoitza, dan lez agertu bear garalako.

(1) Sozialistaren esanetan eta euren kaizar menpekotasuna ostonduteko = como ciudadanos del Mundo, y es así, pero cada uno con los condicionantes físicos de lugar y lingüísticos que denotan nuestra diferentes peculiaridades, y por tanto distintas maneras democráticas de pensar, para llegar a acuerdos coherentes.

(2) Iñor ez dalako ezereen ugazaba = en este mundo nadie es propietario de nada, porque nada nos podemos llevar de este mundo, sino responsable de aquello que me toca administrar, siendo esa la función que nos es permitida.







Danak bardiñak garala esangura dau orrek, baktzaren nortasunekin elkarpidetu gaitezen.

Baiña, bereizkotasunaren ulertzarako itun, ongunde edo elkarpede bidetik zail edo gaitza da antza, iñoren artean ulermen batera eltzea, eta danak errezena joanda makil bat artuta, makalenaren buruak apurtzen alegintzen gara, gure arrazoiakin ados egon daitezen, dan guztiok BAITA bidez dakiguzan arrazoiaren gaiñetik.

## Oar txiki bat emen.

*"Azpalditik, kezka txiki bat euki dot nire barnean, eta goi maillako jakintsueri esan bearrean nago, Aita Santigaz asita nigaz sortu zana ez daiten galdu, eurak be bardiñ egin bear dabela Euskadi edo Euskalerraren seme arduratsuakaz, gure Euskalerra maite onek, bere semeen pil-pilezko ardurapean ezarri dagigun".*

Ni jaio nintzanetik menpeko egoera larri baten egonda, ta askatasun egarriagaz Jainkoari begira egon nazelako beti, negargarrizko arazo onen itur edo sorburuak argitzeko zalea izan naz, eta larritasunezko egarri ori asetzeko, gero nire lagun aundia izango zan Onaindia'tar Santi'rengana joanda, onek goi-maillako ikasbidearen ateak zabaldu eustazan mugarik-gabe gauza guzti onekin arduratzeko, eta benetan diñotsuet Euskalerrak gaur egun, etsai asko daukazela bere izaera demokratikoan irauteko, EUSKAL SEME-ALABAREN ARDURETAN, GANORA BARIK IBILI GINDEZAN.

## Gaurko menpekotasunezko joko zitalaren sorbide edo iturburua.

325'ean Nizeako eleiz-batzar nagusian artu ziran norkeriaren lapurtzazko erabagi bidetik datoz ondorio txar guzti oneik, Erromatik, iñoz ez diralako aldatu ezertxo be, artu ziran okerrezko erabagi orretatik.

a) Jesusek, Jainko ta bizitzaren gora beran zabaldu ebazan aolkularitz barriak indartsu ta alegiñ ederrenean egonda, katoliko alderdikidetuz, lapurketa aundiena egin jakon orduan ezagutu egiten zan Kristautasunezko munduari, I Konstantinoren guda indarragaz ta eleiztar batzuen laguntzarekin norkeriz, euren esanak siniskai biurtuz gaiñ, jabetu ziralako, mundu guztien ekandu ederrena izan bear zanagaz.

b) Goian aipatu dogu, zelan Jainkoak gaiezko izadi oneri, bardiñezko indarrean bereiztuta erperatu eutsoezan bere askatasunezko lege-baldintzak, gure bizitzak, bere zentzunezko askatasunera bideratu ginduzen, baiña Kristautasuna, katoliko alderdikidetu ebenean, eurak jabetu ziran gure nortasunaren erantzuteko ardurakaz, ta ordezkartzaren zeregiñak ekanduz kanpo geratu dira beti, bakez bizi gindezan.

d) Norkeriaren lapurkeria agiri-agirian geratzen da, Kolon'en lan onetan ikusten dan lez, orduan ezagutzen ez ziran lur barri ta berton bizitzen ziran jendearen jabetasunak, euren arteko jabetasunean bananduta euki ebezalako ezeren lotsa barik.

Orduko VI In Alejandro ta ariñauko IV In Sixto ta VII In Inozensio Aita Santuak 1.481'eko "Aeterni Regis'eko" buldagaz, Kanariaseko lerrotik bera Portugaleri eta lerrotik goiko aldea gaztelarren jabetasunean ezartzen ebezan, eta dan guzti au Kolonek Ameriketako lurraldeak argitan ipini orduko.

Nortzuk ziran oneik, edo ta "Noren Jainko bidetik artuko ote ebezan eskubide orreik?"

e) Eta ortik aurrerako tresneri, bolbora, ta abar guztietan agertu ziran aurrerakuntzak, danak ipini ziran kaizar-menpeko batzango asmo orren serbitzura.

E

A ta guzti be, eta naita berezko erriaren eskubideak ararte edozein eratako maltzurkerian erabili, berezko erriaren lege ta nortasunak zapaldu egiten ebazalako ezereen lotsa barrik, ezin ebezan erriak legezen menperatzea lortu, Jainkoak berezetasundutako gizari erperatu eutsoezan legeak, danok Baitatuta ekarten doguzelako.

1.789an batzango zale orreik baiña, eurak sasi-jainkotuta sekula ez dabelako onartzen JAINKOAK bereztu ebazan legeak, Frantziko iraultza eginda, European guda indarkeriz guztian eta danez gaiñ ugarte-erdi edo peninsula onetan, batzangoaren konstituzio zikin barrien legeak ezarri ebazan, orduko errege ta erriarren agindu gaiñetik, eta or irauten dogu beti borrokan, erri ezberdiñak naastuta ipini ebazalako, gura ez dan bizkidego baten.

Batzangotasunezko kideasunak, munduko Nortasunaren ulermenean lortu bear dira, ez guda bidez beartuta, batzuk urrezko zekorraren yaureskeri edo irudi-gurkerian bizi egiezen.

### **Kolon'tar Kristobal, bere izaeraren jakin-eza.**

-Egin dogun Jainkoaren legezen kanpoko zeazkuntza bidetik, errez ulertu leike, orduko katolikotasun alditan, onek euki eben al-osokeriaren agindutik kanpo, ez ebela gure iñor geiago bere ondoan, bestela Aita Santuak buru gaiñean, ekialdeko Persa kaizerrak eroaten eben iru koroako kopaletaren antzera, bear eban aginbidezko omen-barik geratuko zan, eta ez zan egokiena eurak euki eben naikunderako, Berd eta Martorell'tar Gabirel'ek, bere lan bikañ onetan erakusten dauskun lez.

-Badagoz beste maltzurtasunezko zital errukari batzuk be, eta nik uste dot ondo zeaztuta geratu dirala, IVn Karlos Bianako printzearen aita II In Juan eta bere anai-orde edo ugazanaia II In Fernando katolikuaren zeazkuntzak azaldu doguzenean.

II In Juan eta II In Fernandoren debekuak, Nafartar erregetza menperatzeko euki ebezan asmotik izen leikezalako, edo ta alboratuta iztea geiago egokitzen jakiezalako, ez dot uste Kolonen izatasuna garrantzi aundia euki ba eben be, orren erruagaitik aipamen barik geratuko zenik, Fernandoren maltzurrezko lotsabakokeriak ez ziralako egin barik geratuko, Kolonen aipamenak daukana baiño garrantzi aundiagoko gauzaren gaiñetik aldatu zalako.

Nik uste dok, lenengo aipamenagaitik izan zala zalantzarik-gabe.

### **Euskalerruari begira.**

Gaur sortzen diran gauzakaz, Euskaldun guztiak jakin bear gendun, espainol menperatzail onekaz ezin garala etxe barru baten bizi.

Eurak kaizarkerizko menperatzaillak izanda, ta guk gure *"Jaungoiko ta Lege Zarraz"* demokrazizko askatasunaren izaerazko sinismenean, ez garalako ulermen ezberdiñ orreikaz iraungarritasunean bizitzeko gai, eta gitxiago, beartuta laterrizko batzango eritzi orreik goitik-beraiño ustelduta dagozenean, gure demokraziaren askatasunezko sinismenak euren serbitzura ipinteko.

Goian, ezereen txantxa barik geratu da naiko argi, erri bakoza bere bereiztasunezko-izaerakin izan bear dala osagarritasunezkoa beste erriekaz, ordezkartzako arloetan nortasun aundiz jokatuta, ekintza orreitan geiegian dagozelako norkeriaren kaizarkerizko: *"El destino en lo Universal"* eta *"Nacional katolicismo"* orreik, berezetasunaren lapurtza orreik ustel usaña eukinez gain, bere inguru guztia usteltzen dabelako.

Europa, jakinezko sinist-arazian ipini edo ta eskuratu bear dogu, Europako Euskal erri zarrena eta Paleolitiko-Neolitikoaren askatasunezko demokrazian AITORTZAILLE dana, ezin dalako bizi iñoren menpekotasunean, naita onena izanda be.

Bide batez, Europari jakin-arazian ipini, daukezan arazoak ez direla diruzko ta merkantil arazoak, errigizartearen askatasunezko-demokrazian, nortasunaren ekanduzko arazoak baizik, Europako bizkidetasunak lenengo eskatzen dauana, bere giza ta gizarteko ekanduak zaintzea dalako.

Len, borroka nagusi bat eginda, dan guztia utsetik ostera azteko asmoetan egiten zan, edo eta salerosketetan maltzurkeriz jokatzan zalako dirua beren asierako baliotik arrotu edo puztu egiten zanean, diruaren balioa merkatuz konpontzen ziran ordezkariaren orekak gizaren eragilletasunezko ardurean ostera aukera barriak eukiteko.

Gaurko euroari baiña, ezin jako ikuturik egin bear ikusten dogunagaitik, eta gizartea gaur legearen orekazko ordezkarietan bizi al izateko, lortu dabezan eskubideko tresneritik asi dira murrizketak egiten, gizaren eskubideko arduratan kontuan euki barik, giza- seme milloi asko, bear-gorrietara bialduten dabela, bear dogun guztia diruaren serbitzura ipini dabelako.

Diru ta merkantil-tresneriak, ez dira European bizia daukenak, bizia daukezanak bere nortasun aundiko seme-alaba ta errigizarteak dira, eta egin bear doguzan eragilletasun guztiak giza-semearen serbitzura izan bear dira.

Eta orrein arteko oreka ta ekanduak dira ondo zaindu bear direnak, diru ta merkantilezko eragipideak zor-eskubidearen ordezkarietan on-bideratuta, berezitasunezko legearen ekandu edo ta orekazko ondorio lez agertu daitezzen.

Maltzurrezko menpekotasun ta ulermen ezberdiñeko errigizarte-naspil batetik eta gaiñera alde bat menperatzailea izaten bada, zeozer urtengo ote leuke argitasunekin?.

Bizi onetan egiten diran gauza guztietan, ez ba dira egiten gauza berak eskatzen dauazan benetako edo ta berak bear dauazan legezko baldintzakin, egiten dan gauza guztia, utsezko porrot aundi baten agertzen da, okerrezko bidetik egiten doguna, oker agertzen dalako, mundu fisiko onen jarraidun edo lojikazko ondorio bidetik.

Nork esango leuke gagozan gizaldi onetan, norkeriz eragiten diran maltzur-guzurtiaren diru lapurketa guztiak, Jainkoaren Legezko ordezkarietan arduratuta bizi direnak ostera ordaindu bear dabezala, Nizeatik maltzurrez datozen batzango ta menpekotasunezko kaizar agintaritzazko mailla orreik, daukezan norkeri orreitan zaintzeko.

Begitu, gaur egunean non agetzen jaku "dirua" edo ta "urrezko zekorra" benetako sasi-jainko lez.

## Zer egin ?.

Benetako Jainko Egillearen Legeak, edo ta bereztutako gai-mundu onen legeak berezku-ratuta, berezko nortasunaren ardurapean ostera ezarri, iñork ez daukelako eskubiderik, beste nortasunezkoaren berezko ardurak, norkeriaren menpeko alegifietan eroateko, gaur dauka-guzan Laterri menperatzaile oneik egiten daben lez.

Euskalerriko seme-alabak daukagun berezko ordezkari ardureagaz adoz agertzen bagara, ganorabako alderdikeri onetatik iges egin bear geunke, gure Euskadi edo ta Euskalerrri maite onek bere askatasunezko ernatzailetasunean bai eta demokraziaren sortzaile izateagaz, gure burugogorkeritasunagaitik ez bazan izan, berak ezereztu egiten dabezelako alderdikeri zital orreik.

Gulako erri demokratiko batek, bere eskubide ta nortasunaren ordezkarietazko ekanduak zaintzeko, ez dabelako bear, ez eskubi, ez ezkerreko alderdikeri, erriaren elburuari begitu baiño, bestela beti egongo gara eritzi orreikaz lotuta.

Sifñeztu gauza oneik egiak direla, "KERI" guzti orreik lotuta izten gaitueulako.

E

Eta orduan alegiñ aundienak egin, gagozan espainol laterritasunezko menpetik urteko len bait len, Europa askatasunaren zentzunezko demokrazi on baten ezartzea gura badogu, danok Jainkoak agintzen dauzkun eran bizi gaitezen.

### **Gazteari zer esan ?.**

Euskal seme zintzo lez, etxeko-edestiaren ezauntzazko errotik ondo ebatuta, geiago ardu-ratu daitezela belaun-aldi lez.

Euskal jendekuntzazko nortasunaren ondorengotasunean daukien ordezko ardurea-gaz, norkerizko maltzur batzango menperatzaillaren geiegizko jan-edate ta astokerizko lillura-tzaillaren eragipeneko alegiñetatik urundu daitezela, gauza orreik, zuen euskal ekanduzko nortasunak ezereztuta, **EUSKALERRIA MENPERATUTA** eukiteko alegiñak diralako.

Eta alderdikeri barik, euskalerrriaren arduradunezko eragill onak izan, orrela irabazten dalako euskalerrriko zorientasuna Europako beste berezko errigizarte artean; **JAINKOAREN LEGEZKO BALDINTZAK ARDURA AUNDIENEAN ORDEZKATUTA.**

**Atutxa'tar Paul**

*Zornotzan 2.013'an Urtarrilla'ren 19'an*



## Nire aldetik ibili dodan Bibliografia.

- Berd eta Martorell 'tar Gabriel'en oraingotutako iru liburuak.  
 Arturo Txanpion'en "Navarra en su vida històrica".  
 Añamendi'ren edestiko liburu-bildumatik.  
 Gran Diccionario ilustrado "Selecciones Del Eeader's Digest".  
 BERD eta MARTORELL 'tar GABRIEL'en BIBLIOGRAFÍA
- I Anzoátegui, Ignacio B.: Cristóbal Colón. Los cuatro viajes del Almirante y su testamento. Séptima edición, Espasa-Calpe. Madrid, 1980.
- II Alomar Esteve, Gabriel: Historia de las Islas Baleares. Ediciones Cort. Palma de Mallorca, 1979.
- Allison Peers E.: Foll d'amor. La vida de Ramón Llull. Editorial Molí. Palma de Mallorca, 1966.
- Arranz, Luis: Don Diego Colón, Almirante, Virrey y Gobernador de las Indias. Tomo I. Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Instituto "Gonzalo Fernández de Oviedo". Madrid, 1982.
- V Atlas de les Ules Balears. Geográfic, Económic, Historie. Primera edició, editat per Diàfora. Barcelona, 1979.
- VI Bauza y Adrover, Cosme: Historia de Felanitx. Tomo I, II, III. Imprenta B. Reus. Felanitx, 1921.
- VII Bayerri Bertomeu, Enrique: Colón tal cual fué. Porter-Libros. Barcelona, 1960.
- VIII Bernardini-Sjoestedt, Armand: Cristóbal Colón. Ediciones Castilla. Madrid, 1965.
- IX Bernáldez, Andrés: Historia de los Reyes Católicos Don Fernando y Doña Isabel, escrita por el bachiller Andrés Bernáldez, Cura de los Palacios y Capellán del Arzobispo de Sevilla, Don Diego Deza. Tomo I y II. Edición de la Sociedad de Bibliófilos Andaluces. Sevilla, MDCCCLXX.
- X Bigelow Merriman, Roger: La formación del Imperio Español en el Viejo Mundo y en el Nuevo. Volumen II, Los Reyes Católicos. Editorial Juventud. Barcelona, 1965.
- XI Blasco Ibáñez, Vicente: En busca del Gran Kan (Cristóbal Colón). Editorial Prome-teo. Valencia, 1929.
- XII Capitulaciones del Almirante Don Cristóbal Colón y salvoconductos para el descubrimiento del Nuevo Mundo. Ministerio de Educación y Ciencia. Dirección General de Archivos y Bibliotecas. Madrid, 1970.
- Carreras Valls, Ricardo: Catalunya descubridora d'América, La pre-descoberta i els catalans Joan Cabot i Cristófol Colom. Imprenta Altes. Barcelona, 1929.
- Carreras Valls, Ricardo: El Cátala Xpo Ferens Colom de Terra Rubra, Descubridor d'América. Edició d'un grup de socis de la Lliga Regionalista de Gracia. Imprenta Altes. Barcelona, 1930.
- XV Carreras Valls, Ricardo: La Descubertá d'América (Ferrer, Cabot i Colom). Imprenta M. Roca. Reus (Tarragona), 1928.

E



- XVI Carreras Valls, Ricardo: Los catalanes Juan Cabot y Cristóbal Colón. Memoria presentada a la Real Academia de la Historia. Imprenta Altes. Barcelona, 1931.
- XVII Castellar-Gassol, J.: La conxorxa americana. Editorial Molí. Palma de Mallorca, 1987.
- XVIII Cerda, Juan: Mallorca, ¿Cuna de Colón? Imprenta Hispana. Fe-lanitx, 1968.
- XIX Colmeiro, Manuel: Los restos de Colón. Informe de la Real Academia de la Historia al Gobierno de S.M. sobre el supuesto hallazgo de los verdaderos restos de Cristóbal Colón en la Iglesia Catedral de Santo Domingo. Publicado por el Ministerio de Fomento. Madrid, 1879.
- XX Coll, José: Colón y La Rábida. Editado por la Librería Católica de Gregorio del Amo. Madrid, 1891.
- XXI Colón, Hernando: Vida del Almirante Don Cristóbal Colón. Editado por Fondo de Cultura Económica. México, 1984.
- XXII Compte Freixanet, Alberto: Historia Universal. Moderna y contemporánea. Editorial Marfil. Alcoy, 1970.
- Dascáno, Antonio: Ensayo biográfico del célebre navegante y consumado cosmógrafo Juan de la Cosa. Publicado por los Sres. Cánovas Vallejo y Traynor. Madrid, 1892.
- Descola, Jean: Cristóbal Colón, El infortunado Descubridor de un Mundo. Segunda edición. Editorial Juventud. Barcelona, 1985.
- XXV Duff, Charles: La verdad acerca de Cristóbal Colón y del descubrimiento de América. Espasa-Calpe. Madrid, 1.938.
- XXVI Elliott, J. H.: El Viejo Mundo y el Nuevo (1492-1650). Segunda edición. Alianza Editorial. Madrid, 1984.
- XXVII Enciclopedia Básica Danae. Volumen I y II. Ediciones Danae. Barcelona, 1977.
- XXVIII Erssa: Colón. Editorial Ramón Sopena. Barcelona, 1941.
- XIXX Espinel, José Luis: San Esteban de Salamanca, Historia y Guía (Siglos XIII-XX) Editorial San Esteban. Salamanca, 1978.
- XXX Fernández de Navarrete, Martín: Viajes de Colón. Editorial Porrúa, México, 1986.
- XXXI Fernández Duro, Cesáreo: Colón y la Historia postuma. Imprenta y Fundación de M. Tello. Madrid, 1885.
- XXXII Fernández Martín, Luis: El Almirante Luis Colón y su familia en Valladolid (1554-1611). Casa-Museo de Colón y Seminario Americanista de la Universidad de Valladolid. Valladolid, 1986.
- Frutos, Pedro de: El enigma de Colón. Libroexpres. Barcelona, 1980.
- García Rodríguez, Sebastián: La Rábida, pórtico del Nuevo Mundo. Gráficas San Antonio. Sevilla, 1981.
- XXXV Gaya y Delrue, Marcelo: El Mito de Cristóbal Colón. Editado por Librería General Zaragoza, 1953.
- XXXVI Gil, Juan y Várela, Consuelo: Cartas de particulares a Colón y Relaciones coetáneas. Alianza Editorial. Madrid, 1984.
- XXXVII Gil, Juan y Várela, Consuelo: Temas Colombinos. Publicado por la Escuela de Estudios Hispano-Americanos de Sevilla. Sevilla, 1986.
- XXXVIII Granzotto, Gianni: Cristóbal Colón. Javier Vergara, Editor. México, 1985.
- XXXIX Homenaje a Isabel La Católica en Madrigal de las Altas Torres. Instituto de Estudios Africanos, Consejo Superior de Investigaciones Científicas. Madrid, 1957.

- XL Iribarren, Manuel: *El Príncipe de Viana (un destino frustrado)*. Montaner y Simón, Editores. Barcelona, 1947.
- XLI Irving, Washington: *Vida y viajes de Cristóbal Colón*. Gaspar y Roig, Editores. Madrid, 1851.
- XLII Irving, Washington: *Viajes y descubrimientos de los compañeros de Colón*. Gaspar y Roig, Editores. Madrid, 1854.
- XLIII Jimeno, Rodolfo: *Las leyendas y el Padre Las Casas*. Vassallo de Mumbert, Editor. Madrid, 1983.
- XLIV Jos, Emiliano: *El plan y la génesis del Descubrimiento Colombino*. Casa-Museo de Colón y Seminario Americanista de la Universidad de Valladolid. Valladolid, 1979-1980.
- XLV La Torre y del Cerro, José de: *Beatriz Enriquez de Harana y Cristóbal Colón*. Editado por la Caja Provincial de Ahorros y la Asociación de Amigos de Córdoba. Córdoba, 1984.
- XLVI Las Casas, Bartolomé de: *Historia de las Indias*. Volumen I, II y III. Segunda reimpresión, editada por Fondo de Cultura Económica. México, 1986.
- XLVII Las Casas, Bartolomé de: *Obra indigenista*. Edición de José Alcina Franch. Alianza Editorial Madrid, 1985.
- XLVIII López de Gomara, Francisco: *Historia General de las Indias*. Volumen I y II. Editorial Iberia. Barcelona, 1965.
- XLIX López Flores, Manuel: *Colón no descubrió América*. Editorial Clásica. Madrid, 1964.
- L Llanas de Niubó, Renato: *El enigma de Cristóbal Colón*. Ediciones Marte. Barcelona, 1964.
- LI Madariaga, Salvador de: *Vida del muy magnífico señor Don Cristóbal Colón*. Tercera edición. Espasa-Calpe. Madrid, 1982.
- LII Manzano Manzano, Juan: *Colón y su secreto, El predescubrimiento*. Segunda edición. Ediciones Cultura Hispánica del Instituto de Cooperación Iberoamericana. Madrid, 1982.
- LIII Martínez Hidalgo, José María: *A bordo de la "Santa María"*. Publicación del Museo Marítimo de las Reales Atarazanas de Barcelona. Barcelona, 1976.
- LIV Mateo, Andrés María: *Colón e Isabel La Católica*. Consejo Superior de Investigaciones Científicas y Universidad de Valladolid. Valladolid, 1942.
- LV Menéndez Pidal, Ramón: *La lengua de Cristóbal Colón*. Sexta edición. Espasa-Calpe. Madrid, 1978.
- LVI Milhou, Alain: *Colón y su mentalidad mesiánica en el ambiente franciscanista español*. Casa-Museo de Colón y Seminario Americanista de la Universidad de Valladolid. Valladolid, 1983.
- LVII Molí, Francesc de B.: *Els llinatges catalans (Catalunya, País Valencia, illes Balears)*. Segona edició. Editorial Molí. Palma de Mallorca, 1982.
- LVIII Morison, Samuel Eliot: *El Almirante de la Mar Océano*. Vida de Cristóbal Colón. Editado por Librería Hachette. Buenos Aires, 1945.
- LIX Otero Sánchez, Prudencio: *España, Patria de Colón*. Editado por Biblioteca Nueva. Madrid, 1922.
- LX Palau Vera, Juan: *Vida de Cristóbal Colón*. Quinta edición. I. G. Seix y Barral Hnos. Editores. Barcelona, 1932.

E

- LXI Parellada, Caius: Colom veng Colombo (La veta naturalesa catalana del descobridor del Nou Món). Editado por Caius Parellada i Cardellach. Barcelona, 1986.
- LXII Paz y Mélia, Antonio: Archivo y Biblioteca de la Casa de Medinaceli. Series de sus principales documentos. 1.ª Serie, Histórica. Imprenta Alemana, Madrid, 1915. 2.ª Serie, Bibliográfica. Imprenta de Blass. Madrid, 1922.
- LXIII Pérez de Tudela y Bueso, Juan: Mirabilis in Altis. Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Instituto "Gonzalo Fernández de Oviedo". Madrid, 1983.
- LXIV Pey Ordeix, S.: Doña Isabel de Castilla y nuestra América. Biblioteca Vulgarizaciones Históricas. Barcelona, 1929.
- LXV Porter, José: Los Libros. Editado por José Porter Rovira. Barcelona, 1973.
- LXVI Prescott, William H.: Historia de los Reyes Católicos Don Fernando y Doña Isabel. Compañía General de Ediciones. México, 1952.
- LXVII Quadrado, José María: Forenses y Ciudadanos. Historia de las disensiones civiles de Mallorca en el siglo XV. Segunda edición. Tipo litografía de Amengual y Muntaner, Editores. Palma de Mallorca, 1895.
- LXVIII Ramos, Demetrio: La Primera Noticia de América. Casa-Museo de Colón y Seminario Americanista de la Universidad de Valladolid. Valladolid, 1986.
- LXIX Ramos Pérez, Demetrio: Variaciones ideológicas en torno al Descubrimiento de América, Pedro Mártir de Angleria y su mentalidad. Casa-Museo de Colón y Seminario Americanista de la Universidad de Valladolid. Valladolid, 1982.
- LXX Revista Iberoamérica. N.º 6. Diciembre 1980 - Enero 1981. Edita: AMEGISA. Madrid.
- LXXI Rey Pastor, Julio y García Camarero, Ernesto: La Cartografía Mallorquina. Departamento de Historia y Filosofía de la Ciencia. Instituto Luis Vives. Consejo Superior de Investigaciones Científicas. Madrid, 1960.
- LXXII Rosselló Vaquer, Ramón: Documents per a la Historia de Felanitx. Segle XIV Editorial Ramón Lull. Felanitx, 1972.
- LXXIII Rosselló Vaquer, Ramón: Els Castellans de Santueri. Segle XI Editorial Ramón Lull. Felanitx, 1971.
- LXXIV Rumeu de Armas, Antonio: El "portugués" Cristóbal Colón en Castilla. Ediciones Cultura Hispánica del Instituto de Cooperación Iberoamericana. Madrid, 1982.
- LXXV Rumeu de Armas, Antonio: Hernando Colón, historiador del Descubrimiento de América. Instituto de Cultura Hispánica. Madrid, 1973.
- LXXVI Rumeu de Armas, Antonio: Hernando Colón, historiador de América. Real Academia de la Historia. Madrid, 1970.
- LXXVII Rumeu de Armas, Antonio: Nueva luz sobre las Capitulaciones de Santa Fe de 1492 concertadas entre los Reyes Católicos y Cristóbal Colón. Consejo Superior de Investigaciones Científicas. Madrid, 1985.
- LXXVIII Santaella, Rodrigo de: El libro de Marco Polo anotado por Cristóbal Colón. El libro de Marco Polo versión de Rodrigo de Santaella. Edición, introducción y notas de Juan Gil. Alianza Editorial. Madrid, 1987.
- LXXIX Sanz, Carlos: La Carta de Colón anunciando el Descubrimiento del Nuevo Mundo. 15 febrero - 14 marzo 1493. Impreso por Gráficas Yagües. Madrid, 1961.

- LXXX Sanz, Carlos: *Bibliografía General de la Carta de Colón*. Editado por Librería General Victoriano Suarez. Madrid, 1958.
- LXXXI Sanz, Ricardo; Olmo, Margarita del y Cuenca, Emilio: *Nacimiento y vida del noble castellano Cristóbal Colón*. Edita, Nueva Alcarria. Guadalajara, 1980.
- LXXXII Schoch y Pereira de Castro, Luis: *¡Descubrir al Descubridor!* Ediciones Ordoñez. Madrid, 1971.
- LXXXIII Suau Alabern, J.: *La tesis mallorquina de Cristóbal Colón*. Segunda edición. Ediciones Cort. Palma de Mallorca, 1978.
- LXXXIV Sureda Blanes, Josep: *Episodis de la Historia. Ramón Llull i l'ibri-gen de la cartografia mallorquina*. Rafael Dalmau, Editor. Barcelona, 1969.
- LXXXV Taviani, Paolo Emilio: *Cristóbal Colón, génesis del gran descubrimiento*. Volumen I y II. Instituto Geográfico de Agostini. Novara, 1974. Editorial Teide. Barcelona, 1977.
- LXXXVI Taviani, Paolo Emilio: *Cristóbal Colón, génesis del gran descubrimiento*. Instituto Geográfico de Agostini. Novara, 1982. Editorial Delta, Barcelona, 1983.
- LXXXVII Testamento y codicilo de Isabel la Católica. Ministerio de Asuntos Exteriores, Dirección General de Relaciones Culturales. Madrid, 1956.
- LXXXVIII Ulloa, Luis: *Butlletí del Centre Excursionista de Catalunya*. Volumen XL. Barcelona, 1930.
- LXXXIX Ulloa, Luis: *Cristofor Colom fou cåtala, La veritable génesi del Descobriment*. Editado por Llibreria Catalonia, Barcelona, 1927.
- XC Ulloa, Luis: *Noves proves de la catalanitat de Colom. Les grans falsetats de la tesi genovesa*. Editado por la Librería Oriental-Americana. Maisonneuve Frères. París, 1927.
- XCI Várela, Consuelo: *Cristóbal Colón. Textos y documentos completos*. Alianza Editorial. Madrid, 1982.
- XCII Verd Martorell, Gabriel: *Cristóbal Colón y la revelación del enigma*. Segunda edición. Editado por Gabriel Verd. Palma de Mallorca, 1986.
- XCIII Verdura, Nito: *La verdad de un nacimiento, Colón ibicenco*. Kai-deda, Ediciones, Madrid, 1988.
- XCIV Verlinden, Charles y Pérez-Embid, Florentino: *Cristóbal Colón y el descubrimiento de América*. Ediciones Rialp. Madrid, 1967.
- XCV Vespucci, Amerigo: *Cartas de viaje*. Alianza Editorial. Madrid, 1986.
- XCVI Vespucio, Américo: *El Nuevo Mundo, Viajes y documentos completos*. Ediciones Akal Madrid, 1985. XCVII Wiesenthal, Simón: *Operación Nuevo Mundo (La misión secreta de Cristóbal Colón)*. Aymá, Editora. Barcelona, 1976.

## BIBLIOGRAFÍA PARA LA SEGUNDA EDICIÓN

- XCVIII Manzano, Manzano, Juan: *Cristóbal Colón. Siete años decisivos de su vida (1485-1492)*. Segunda edición. Ediciones de Cultura Hispánica del Instituto de Cooperación Iberoamericana. Madrid, 1989.



Euskeraren erri akademia  
Academia popular de la lengua vasca  
L'Academie populaire de la langue basque

---

e-mail: [aeuskerazaintza@gmail.com](mailto:aeuskerazaintza@gmail.com)  
[www.euskerazaintza.org](http://www.euskerazaintza.org)



## 2.013'ko urtean Euskerazaintza'ren 2n aldizkariaren.

### ATARIKOA

Barroeta ta Amorrortu'tar Klaudio Euskerazaintzaren lendakaria, Egurrola'tar Iñaki lendakari ordea ta Fernandez'tar Karmele diru zaiñak, ondo osotutako aldizkaria dogu emen.

Bere idaz-lanaren zerrendan ikusten dogunagaitik, Euskerazaintzaren idaz-laneko edestitik garrantzitsuenezko idazpuruak aurreratu egiten dauskue, Euskerazaintzak bere bizitzan, Euskerarentzako euki dauan garrantzi andia aurreratu naian.

Asmo ederra benetan, gaur eguneko bekaizkerizko mundu onetan, bereztasunezko azturan sortutakoa dan izar garbi ta aundi Euskera maitagarri onek, daukazan ainbat etsaietatik askatzeko, eta bigarren, gure maitetasunezko gogoak pil-pillean eukinda, gure Euskerazko izar aundi au nortasunezko indarragaz sendotu dagigun, berak len, egarri-arazteko mundu<sup>(1)</sup> onetan, gure bizitzazko jakintasunean azturazko ekintzan ibili ondoren, nortasundu euskun bezela.

Barroeta'tar Klaudio'k bere oldozmenean jakinda, Euskerazaintzaren bizitzan nire artu emona asieratik dala, nik egin dagiala agindu eban atariko lan au.

Orregaitik, aldizkari onetan datozen idaz-lanen esanguretatik ez dot ikutuko ezertxo be, ni neure-baitaren oroimeneko edo ta oldozmenezko zentzu bidetik, nire siniskerean euskereak euki eta daukazan arazoak zuen ezagumenera aurkeztu baiño ez dautsuet egingo.

Eta ortik agertzen jatan lenengo itauna auxe da:

### *Jakingo ete dogu, euskerea ta aberria zer diran ?*

Nire baitan ulertzen dodan araubidea, arrazoizko bizitzan eta jakintzazko aztura bidetik emaitza oneitara eldu nazelako da.

Jainkoaren Izadi onetan emakume-gizon jaioa lez: *“ni, zu bezela, inguruko izatasunari zor dautsek nere egikera, inguru orrekin nortasunezko-gizon-emakume egin nazelako”*.

Berezko lege orreitan, atomoaren<sup>(2)</sup> leen-gaiezko<sup>(3)</sup> gunegaz<sup>(4)</sup>, gizon-emakume artean bezela, sortu egiten diran elkarte edo gai-gauza bakoitzaren nortasunezko berezitasunak mugatzen dira.

Orregaitik, Jainkoak Izadi onen gaiari emoneko osagarritasun edo erakar-indarraren legegaz, bere atomoaren arteko antz edo kidetasunean osagarritzkoak diranakaz, mundu au

(1)Gose egarri-arazteko mundu onetan = llamativo, que escita al hambre y a la sed. (2) Atomoa = parte más pequeña en que puede considerarse a la materia en su singularidad. (3) Leén-gai = materia prima, nucleo, elemento principal, alma, esencia. (4) Gun = parte mollar, nucleo, tuétano, medula.

bizitegi, elikagarri<sup>(1)</sup> eta langintzaren tresneriko gauzatan biurtzen da.

Gai-gizatutako gizon-emakumearen osagarritasunezko legeagaz be, bardin sortzen da, bere ulermeneko izkuntz, antz edo kidetasunezkoak izanda, ezkontza, sendi, leiñu, auzotasun, erri edo eskualde, aberri ta aberritasun arteko maillak lortu ta osotzen doguzelako.

Berezko berezitasunaren lege orren zentzuak esaten dausku, zelako antz edo kidetasunezko baldintzak bear doguzan bereiztu, goi maillako erakundeak osotuten doguzanean, alkartasunezko-ulermendunak izan gaitezen.

Izkuntza da, leen tresneri sortzen doguna elkar ulertzeko, eta bere senezko zentzutik bereiztu egiten diran lez leiñuaren izenak, or, nun agertzen jaku Euskeraren izenagaz gure jaiotasunaren **aberritasuna**.

**Euskerea**, bere magalean jaioten garelako, da gure **ama ta aberria**.

Espainitarrak ete daukie **semetasunezko-aitormen** ori ? Ez.

Ez daukie, katolikotasunean batzangotzeko norkeriaren asmotik agertzen dalako naike-ri edo izangura ori.

**Jaiotzak** osagarritasunaren **aberriko** maillakoak paketsu ta ulermenezkoak izan daitez-  
zan, beti, Jainkoak bereztutako legetik artuta izan bear diralako, espainitarrai euren nor-  
keriaren legezko asmoetan ez jakie agertzen bakezko, edo ta ulermenezko aberri antzeko-  
rik, eta gaurko-lez katolikotasunezko-gudaloztearen laguntzagaz beti izango dira **aberri**  
**naiezkoak edo aberri-izan-gurekoak**, mundu onetan iñork ez daukalako irazale edo  
sortzaille izateko almenik, Jainkoak bereztu ebazan legeen kanpotik.

Espainitar orreik orain, gudalozteko idarkeriaren laguntzagaz, eta guzur dariola gaur  
dabiltzan lez ikusiko doguz beti, euskaldunak, katalanak eta galiziatarrak eutsi egiten ba-  
dautzagu Jaungoikuak bereztatuko legeari, lege orreik diralako **ulermenaren babes edo**  
**bakezko iturriak**.

**Edo ta, konturatuko gara, zer ote diran euskerea ta aberria euskaldunentzat ?.**

**Bigarren itaunean:**

**Zelako asmoagaz jaiio zan Euskerazaintzaren Alkartea ?.**

- a) Batzuen esanetan, **euskerea** tresneri uts bat bakarrik dala esaten dabenaren aurka, Euskerazaintzaren alkartekoak "**euskaldunen ama**" dala esateko.  
Ala, **aberriaren** edo ta **ama**'ren itzak, beste azalpen, adiera edo ta adieraren muga-  
rik ba-ote dauka ?.
- b) Beste batzuk daukien jakiturizko arrokeri guztiagaz eta dojmakizunezko adierazpe-  
nez egia eurak esaten dabena bakarrik dala esaten dabenai, aurka eginda: **egia, Eus-**  
**kalerrian dagoela esateko**.

(1) Elikagarri = alimento para el funcionamiento vital.

- d) Euskerea samalda-lez erabili dagigun, eta daukazan akatzak beratu edo bigundu dagiguzan, gazteleratu egin gura dabenai: *Euskalduntasuna eta euskereak beren sorburutik gaur arte, eta bai-ta bizitz oneri nortasunean izateko emon dautson adierazpenetik ez dabela galdu bear ezer.*  
*Ikasita daukaguzanak nortasunaren ulermeneko maillatik, ez jakintasunezko maillatan ezartzen gaitulako leen.*  
*Eta Gai-fisiko onek daukazan Jainkoaren Legeakaz, Jakintzak naspillatu egiten diranean, ulermenak naspillatu egiten diralako, endak naastekatu egiten diranean bezela, esateko.*
- e) Euskeraren izenean bizi direnak ezere zentzu edo ardurabagean, eta euskerea ogibide lez bakarrik erabilten dabenai, esan: *Euskalerrriaren nortasunezko izaeraren arduratik-kanpo biziz-gain, Jainkoa iruzurtu nai-lanean dabizela alperrik, gure nai-ta nai-etzko eragilletasunaren eginkizuna mundu onetan, ordezkartzaren artu-emonak, ekanduzko zentzuan zaintzea dalako.*
- f) Gure aldetik, batzangotzaillearen Menperatasunezko alegiñai begiratuta: Kontuan artu bear doguzela, gure euskal izaerazko nortasunari sortu jakozenak edestitik zear, gure erria ezereztu egin gura daben eskuetatik aldendutzeko.  
 Bai eta errege-jauntzak sortu genduzenetik, euki doguzan anai-arteko borroka guztiekaz, eta karlistadako guda bien bidetik euki genduzenak batez be, beti ibili garelako ezin-besteko norabide barik anai-arteko borroka utsean.

***Eta edesti guztitik borrokan etorri diran aurkako gauza bi oneik izan dira errudunak, izadi onen berezko erri edo ta Euskalerrriak batez be, ez egien bizi euren ardurapekoa dana eta zor-jakien askatasunezko bizitza :***

Lenengoan, guraso edo ta arbaso-euskaldunak euren baitan izateko, bereztasunezko azturan oituratu ebazan Jaungoikuaren sinismenak: *Jainko-Aitaren irudia ondo baiño obeto bereizpentzen jakin ebelako, Jainkoa berak Izadi oneri ipinitako gai-legeetatik, lege oneik, eurak euren arduragaz erabilteko zirala konturatu ziranean.*

*Euskaldunak, bizi onen lotsazko arduran sartuta, bereala jakin eben, Jainkoari zeozer eskaintzerakoan, gai-bereztutako izadi onek eukezan legearen bitartez izan bear zirala, eurak egin bear izan ebezalako arduradunezko eragilletasun guztiak, eta ordezkartzazko oitura orreitan baitu ziran, euren euskal-edestiko bizitzaren izatasunerako.*

*Ez da mirari-bat ba, euskalduna lotsati aundia izanez-gaiñ, maitasun josia, zintzoa, ulermen zabalekoa, egi-zale, eta leiala izatea.*

*Kartajinestarrengatik asita, erromatar kaizerrak, eta Euskalerrria jaurkintzeko euki genduzan errege-jaun guztitik, geienak menperatzaillak izan arren, katolikotasunezko batzangotasunaren asmo edo eritzipean sortutakoak ziralako, danak erakutsi eben edesti guztian, euskaldunak gura ebezala euren aldeko izatea.*

Bigarrenean, edestian eten-barik zer sortu jakuna esan bear da: *Erdi-aroan gure errge-jaun, anai-arteke batzar, eta sortu genduzan jaurkintzazko antolabideak gure askatasunezko batzar demokratikoaren bitartez, Nizean 325'eko urtean dojma-bidez, kaizar-menpeko batzangotasuna egokitu zanean, eta eritzi ori babesteko merkantillezko tresneri guztia esku batzuetan bakarrik geratzeko alegindu ziranean katolikotasunezko erlijioaren laguntzagaz, Euskalerrria bere sinismen sakonagaz, ugarte bat izango balitz-lez, sasi-maixukerian dojmatuta guzurrezko itsas-aundi baten erdian geratu zan norabiderik-bage inguratuta. Mundu onetan Jainkoaren lege-bidez, bereztasunezko legean lortu ziran berezko gauza guztien antzera.*

Mundu fisiko onetan, egiñak egillea daukielako: *gure egilletasunaren eritzizko ekin-tzan egokituta, sortzezko bidean ipinten doguzan gauzak, gauza orren sorralditik artzen doguz emaitzazko ondore-on edo txarrak, eta abialdiz ipinten doguzan gauzak, oker edo txarrak izan ezkeru, ze mozkin, edo zelako emaitzak artu ?*

-Gaurko bizitzan sortzen jakun *guzur utsezko ekandu baten bizitzea baiño besterik ez,* katolikotasunaren batzangotasunezko arrokeriaren norkeriz, egiaren oreka guztiak galdu diralako.

*Euskalduna, egi-zalea da bere baitan, Jainkoaren legeakaz lotsati aundia izan dala-ko beti, eta gaurko guzurraren lorategi-zabal onetan, Euskalerrria ugarte txiker bat-lez geratu arren, badaki egiagaz askatuko dala, azken baten, guzurraren larritasunezko amiltegitik egiaren bakezko lasaitasunera agertu bear garelako, Jainkoak gaitu eben bereztasunezko bizitz onetan, aurrera egingura ba-dogu.*

*Garde'tar Martzeliño apaiz-naparra euki gendun argi, sinismen oneitan, beti: "Egi-ak askatuko zaitue" esaten euskulako.*

*Euskaldunai bestela, nundik agertuko jakun gaur bizirik agertzeko, arrigarrizko mi-rari aundi au, Jainkoaren egian sinismenduta ez ote bagiñan bizi ?*

*Paleolitiko-Neolitiko aldietan Euskal askatasunezko demokrazi ederrean ezarri gi-ñanetik, ez dogu sekula atzerakadarik egin, sinismen orreik lortu genduzenetik gaur arte, nai eta gure euskal zabaltasuna asieratik Eskoziatik Kadizeraiño, eta Atlant-itsa-sotik Alemania erdirarte izatetik, gaur daukaguzan zazpi lurralde txiki onetan geratu arte, gure askatasunezko euskal-demokraziaren sinismenetik ez garelako ezertxo-be be-rezkatu.*

*IXn gizaldian, euskal errege jaunak ipini genduzanean gure Euskalerrri maite onen gizarteak jaurkitzeko, gure nai-ez, katoliko-batzangotzeko menperatzailetasunaren sare-arteko txebera barruan ipini bear genduzan, gure askatasunezko euskal-legeak, eta ortik, gure anai artean etenbageko borrokak, espainitar erregearen jaurkintzapean ezarrita, auek etenbageko katoliko-kaizar maltzurrezko-jokoan jokatzan ebelako, edo ta egin bear ebelako, euren kaizar gauzatarako ara ta ona anai arteko borrokan ibiltan genduzalako beti, sasi-katolikotasun oneik, ez ebelako on edo kontu onean artzen berezko errien legerik.*

*Len esan dogun lez, beste berezko erritarren antzera euskalduna egi-zalezkoa izanda, leialtasun eta zintzotasunezkoa ba-da, eta ain onbidezko ta erlijiozko sinismen aundi eta kutsubageko borondateak eukinda, menperatzailezko maltzur baten eskuetan egonda, zer gertatuko jakun, gure artean, korapillatuta agertzea baiño besterik ?.*

*Argi dago, orduan eta beti, ziñezkintzan ibiltan ziran jakitun katolikoak maltzurtasunez jokatu ebela, berezko erritarrei ez eutsielako esaten, euki eben berezko nortasunaren ulermenetik, Aita Santu-kaizar katolikotasunaren latiñ-nortasundutako batzangotasunaren eritzipera aldatu bear zirala, eta erritarren asarreak ez zitezen bizkortu, eurak eukin latiñezko nortasunean batzangotzeko asmo orreik ostondu egiten ebazan.*

*-Eta ziñezkintzan ibiltan ziran jakintsu orreik goitik begiratuta jakinda, erritarrak eta errege-jaun orreik, iñork ez eban ulertzen nastezko lege orrekaz borroka utsez konpontzen zirala, ez eutsoen jaramonik egiten, ia azken baten eta andeatu egiten ziran, katolikotasunezko morroitasunera biurtzen ba-ziran.*

*Orregaitik, Euskaldunak euren egi-zaletasunagaz erlijio katolikoaren sinismenean ondo egokituta, eta ardura aundiko zintzotasunagaz ainbeste Te-Deum'eko ospakizunetik ibili ondoren.*

*-Te-Deum'eko ospakizun orreik ez gintzazalako konturatu alderdikerrizkoak zirala, 325'eko Nizea'ren batzarretatik etorten ziran batzangotasunezko menpetasunaren alegiñak ziralako, eta gitxiago, XVn gizaldi azkenetan Granadako "bake errian, espainolaren aberritasunezko nazional-katolicismoan biurtuta" nortasunbageko sare-arteko txeberak zirala, gure euskal nortasunaren izaerazko osotasuna zalantzazko lokatzartetan geiago nastekatzen zan, batzuk karlista, beste batzuk erreketeta eta beste asko ogibidearen lekutik ur-egoteko, falanjista biurtu zirenai ezker, banaketazko eritzietan, zintzotasunez euki gendun sinismeneko borondate indartzuagaz sartuta.*

*Gogoratuten zarie, 1.810-12'ko urte bitartean espainitarren guda-nagusiak erregearen gainetik sortu eben konstituzioa eta gero 1.832-39 eta 1.872-76 Maroto eta Esparterok egin ebenagaz ?.*

*Eta guzti ori, Euskalerrri maite onen nortasunezko izaeraren "oiturazko-foruak" babesteko laguntza bakarrik eskatu gendunean.*



*Euskaldunak gure jaurkintzazko antolamenduetan aukeratu egiten genduzan jaun-erregeak, eurak eukiko zituzen beste izaeratik kanpo, gure errian alderdigabekeriaren epaiketazko lanak egien, artzen genduzelako.*

*Zer gertatu oteko jakun, norkeriz gure senetik kanpo ibili ba-giñan ?.*

*Orain, danok dakigu, zer gertatzen jakun euskerearen nortasunezko sen edo zentzu-  
tik kanpo gabiltzanean.*

Orregaitik ikusten dogu: *Gu izan bear garela bakarrik, sasi-izaerazko lokatz onetatik urten bear dogunak, etsaiari laguntza eskatu ezkerro, eta etsai asko daukaguzan-lez, gure euskera maite au, geiago lokaztu egingo geunkelako.*

Beti baiña: *alderdikeri barik, euskerearen maitetasunezko zentzuan alkartuta, ortik kanpo gure aukera guztiak, amiltegiak biurtzen diralako gure Euskalerra maite onen-  
tzat.*

*Or, gure Euskal seme-alaba zintzoaren lana, "euskerearen izatasunean irautea gura ba-dogu".*

*Danok dakigulako, Ludi onetan sekula ez dala egongo bakerik, bere magalean jaioten diran antzezleri guztiak, ez badautsoe izten, jaiotzatik daukan bere ordezkartzazko eskubidearen-jokuagaz arduatzen.*

## **Oar-txiki bat emen.**

Orainarteko esanak, nik Euskerazaintzaren sortzaille jakintsuagaz kidetasunean ikasi ta ulertu dodazenak dira: Onaindia ta Baseta'tar Aita Santi, Zubikarai'tar Augustin, San Sebastian'tar Joxe Mari (Laxaga), Latiegi'tar Bizente, Oñatibia'tar Manu, Arrinda'tar Anastasio (Anes), Bilbao'tar Jon Erramun, Zubiri'tar Iñaki eta Olazar'tar Martin'lakoak, euskal-arazoen azterketazko eginkizunetan sartzeko eskatu eustenetik, zintzo asi nintzelako lanean.

Orregaitik Euskerazaintzan, euskeraren alde nik entzundakoak edestuko dautsuedaz, danak eta geiago bear doguzelako, gure *euskerazko ama maite* au, merezi dauan lekuan kokatu arte.

## **Edesti lez.**

1.979ko urtean alkartu nintzan gure Aita Santi ospatsuagaz, eta bera ibili neban ara ta ona bear eben guztirako nire berebillagaz.

Euskerazaleak, Lekuona'tar On Manuel, Barandiaran'tar on-Miel, Kardaberaz'en Bazkuneko Jakintza, ta ainbat lekaide, apaiz eta gizon-emakumeen arduradunezko laguntzagaz, Euskerazaintzaren sorkuntzazko denborak ziran oneik, eta eurak erakutsita bene-tan diñotsuet, nire baitan ez dodala bakerik euki, gure Euskerea eta euskal-nortasuna amilburuko ezereztasunaren ertzean dagoela ikusi nebanetik.

1.968'ko urtean, Euskaltzaindiaren deiagaz Arantzazun, gero 1.970eko urtean Baionan, Ermun, eta Arantzazuko asken batzarrean-be, enintzen egon.

Ez eta 1.978ko urtean Euskerazaleak eta Kardaberaztarrak Bergaran egin eben batzarrean be ez.

Badaukat nire gogoan baiña, Onaindia ta Baseta'tar Aita Santiren esanetik, zeintzuk ziran batzar oien mugaketak: ***Batzar orreitan gazteak irabazi ebela, oneik zalapartari edo arraboskari agertuta, "zarrak isildu" egin ziralako.***

Baiña bai egon nintzan, 1.980'ko urtearen Urria'ren 27'ko egunean Latiegi'tar Bizente, Oñatibia'tar Manuel, eta Oñatibia'tar Dunixi'k sinatuta Euskerazaintza legeztuteko, laterritasunezko ministruari bialdu eutsoen eskutitzan, eta 1.984'ko urtean Bagilla'ren 7'an legeztu zanean.

Euskalerriko sei lurraldeetatik batzen giñan, Tolosa, Eibar, Zarautz, eta Deban egiten genduzan batzarretan, eta gogortasun edo ta ots-aundiko batzarrak izaten ba-ziran be, Euskereagaitik ardura aundian sartuta egon ziralako izaten ziran.

Akesolo'tar On-Lino Aita karmeldarra izan gendun leenengo lendakari, eta sekula enaz aaztuko, berak "H"agaitik euki eban eritzia: ***Zetan sartu gure Euskera maite onen berba artean, aoskatzen ez dan, laraiña, urre-sagar edo ta laranja-erdi ori ?. Asto utsak baiño besterik ez dira.***

Eta benetan diñotsuet, astokeri asko ta mailla aundikoak egin dautsaguzala gure euskera maite oneri, aurrera egiten lagundu baiño, atzeraka ipini ebena, bere gorputzan ain zauri sakonak egin dautsaguzenakaz.

Ainbat liburu idatzi dabez Kardaberaz-Euskerazale-Euskerazaintzaren izenean, lekai-de, apaiz, eta errigizon-emakumezko kide jator eta ospatsu guzti oneik, e-mail bidez itanduteko, Bilbaon Kolon de Larreategi 14-2n eskumatara gure Alkarteari idatzita<sup>(1)</sup>, eta Interneteko<sup>(2)</sup> bidetik: [www.euskerazaintza.org](http://www.euskerazaintza.org) eta e-mail: [aeuskerazaintza@gmail.com](mailto:aeuskerazaintza@gmail.com) lekuetan aurkituko dosuezenak.

Irakurri bear direzan liburuak dira, oartu gaitezen euskereak bizitzeko daukan larritasunagaz, eta gaurko jakitunak ikusi daben antzera guk be ikusi dagiguzan, euskereak daukazan arazoak benetakoak dirala, eta beti salatu dogula gaur sortzen dan lez, ele-biko edo ta izkera-biko bidetik, Euskerea kondar-lez geratzen dala.

Euskalerrriak askatasuna bear dau ezeren zalantza barik, bere nortasuna dagoelako jokuan, eta ze obe, gaurtik aurrera danok alkartuta zuurtasun aundiz eta norkerizko arrokeri ustelak alboratuta, lan orretan asi.

Dana dala, batzarretako denbora askotan ni, euren maitik kanpo geratzen nintzan, urruntasunetik obeto aituten nebazalako euren esanak eta azken baten ulertu, batzar areitan nire eritzirako irazpenduta<sup>(3)</sup> artzen nebazanak.

Benetan ulertu neban, batzangotasunaren indarkerizko bidetik, laterri bakotzaren nortasunak ezereztu egiten ziralako ezinbestean, eta beste bide bat artu bear zala Euskalerriko nortasuna osotasunezko itxuran agertu zedin.

Orduan erabilten ziran euskalkiaren nortasunezko azterkuntzan zalantzazko eztaibada-gaitik, San Sebastian´tar Joxe Mari (Latzaga)´k, saio bat agertu eban orren gora-beran, ta bere itaunean au esaten eban: *zazpi lurraldearen nortasunagaitik, zazpi aberri ezberdintasunezkoak izango ote giñan ?*.

Danak dakigu, erlijio, oitura edo ekandu, ta izkuntza batekoak garela eta beragandik *aberi* baten jendekuntzazkoak.

Lenauko aukeraren urruntasunagaitik, laterritasunezko euskalki antzeko baten agertzea sortu jakun, baiña gaur ez daukaguz urrunezko bitarte orreik euskerearen arazo gramatikalak borondate onagaz konpontzeko, apur-apurka ta zentzu aundiz artu bear diran erabagi soillak ontzat artzea baiño, Euskalerraren euskalki gorputza berez sendotu daiten.

Kendu bear doguz gure euskal oldozmen ingurutik, kanpotik sartuta gure artean aurka ipinten dauskuzan gizartekerizko eritzi ezbaridiñak, gure Euskal anai-arteko *baita, berez*, demokratikoa dalako, eta or erakutsi bear dautzagu Europa ta Munduari, *euskaldun jatorrak garala, gure arbasoak emondako nortasunaren askatasuna lortu gura badogu*.

Emen daukasuez ba, Euskerazaintzaren askeneko aldizkari onen bidez aurkeztu egiten doguzan 30 urteko edestiaren gure *euskal-gizon-emakume* aundien arduradunezko eritzi sakonak, gure Euskalerriko arazoak zeintzuk diran, argitan apal eta ezeren arrokerizko sasi-dojma barik aurkezten dabezanak, *eurak ez ziralako izan arrokerietan ibiltzen ziran euskal gizon-emakumeak*, eta bai langille trebe ta neke-bakoak gure *euskalerrri maite onen alde*.

## **Emen daukasuez irakurteko, eurak agertu ebezan lan-eder batzuk.**

*Euskerazaintza eta "Euskera Batua"an.*

*Euskeraren batasuna eta Euskal sena.*

*Goaz batuaren bidean izandako batzuk aipatzera. Edesti apur bat egiñez.*

*Euskaltzaindia, Arantzazu eta Bergarako batzarretan.*

*Euskerazaintzaren sorrera.*

*Euskal sena.*

*Euskeraren batasuna eta Euskalkiak.*

*Euskeraren batasuna eta Bizkaiera.*

*Aipamen berezi batzuk.*

*Andik eta emendik.*

*Irtzi eta ondorio batzuk.*

*3n ataleko Ondorio gisa.*

*Euskerazaintza, euskeraren erri akademian.*

*Geigarriaren denbora-epaile.*

*Euskerazaintzaren sortzailleak.*

*Euskal-Ikaskuntzako Vn Biltzarraren kondaira.*

*R.M. Azkuen itzaldian, "Euskalerriko oitura ta sineskeritxu bat edo beste".*

*Gandiaga'tar Bitoriano'ren, "Ez dut errezatuko erderaz".*

*Gandiaga'ren bertsu edo itz-neurtu ederrak.*

*Euskaltzale eta ortik abertzale.*

*Murua'tar Joseba Mirena'ren Eusko Jaurlaritzaren erabakia, adierazpena ta eraskiña..*

*Eta, "Giza eskubideen Aldarrikapen Unibertsala".*

Atutxa'tar Paul  
Zornotza'n, 2.013'an Agorrilla'ren 5'ean

# Euskerazaleen 2.013'ko Euskal Astearen Itzaldia

## EUSKEREAREN EDESTIA

Aita Santi Onaindiagaz lagun lez eta bere aolkularitzagaz gizarteko ikasketetan buru belarri sartuta nengoela, antziñatik ibili nintzan keskatuta ulertu ezinik, gure Agirretar Jose Antonioren jaurkintzazko kideak kristau sutsu lez, Aita Santuaren etxera joanda, zergaitik onek zarratu eutsoezan Aitaren-Etxe-Nagusiko atea, errepublika edo legearen alde kokatu ziralako, *okerreko bidean kokatuta zoiezelakoan*, esanda.

Ulertu eziñezkoa zan nirentzat, neure sendi, auzo, lurralde ta Euskalerrri osoaren sinismena ikusita, danoren Aita-Ona ta Santua zanak, Euskalerrriko ordezkari edo seme zintzoenak ziranai atea zarratzea.

Arik eta aundi-zale batzuk ibili ziran *katolikotasunezko aberrikerietaren* zentzuzko jakintasunean sartu arte, ortik aurrera ondo ulertu nebalako, norkeiz asmatu eben *katoliko aberkeri orreik*, Jainkoak bizitzarako bereztu eban Izadi au, daukazan zentzu aundiko ta *alda-ezin diran legezko* edertasunaren aurkakoak zirala.

Or susmatu neban, Euskalerrriak zeozer edo kez karen bat eukala bere izaeran, euren asmoak nekarazi edo aspergarritzeko.

Urretik begituta be eneban uste, Euskalerrriak bere zentzuzko izaeran ta barnean baituta euki eban askatasunezko demokraziaren izatasunagaitik izango zenik, eta zergaiti orregaz arduratu nintzan buru-belarri.

Oarrez eta entseguka, lojikazko azterkuntz onetan sartuta<sup>(1)</sup>, urte batzuk ba-dira, jakin nebala zelan, 325eko urtetik ona Nizean, Jainkoaren izenean erabagitu zala Erromatar kaisartza ori, eta edesti guztitik iraingarri<sup>(2)</sup>, zelango odol-jariozko kalteak ekarri euskuzan, guda-indarrez *katoliko-menperatzaill batzangoaren* asmo orreik ezarri naian.

Zergaitik ?:

Jainkoa Berak, izadi oneri bereztu eutsoezan legeakaz, eta bereiztasunezko askatasunez sortarazi eban gizadiai, eragilletasunaren arduradunezko almenagaz izateko irasi euskulako. Ludi onek daukazan berezko legeakaz, esaten dauan lez.

Eta gizarte orreik, berezko ta bereiztasunezko aztura-bidean nortasundutako erriak jaioba-ziran, guztiz aurkakoak dira norkeiz irasi diran katoliko-batzangotasunaren zentzuzko asmo orreikaz.

Mundu onetan orregaitik gaur, gudaren arau-bidez aleman, italiar, espainiar, frantzez eta abarrezko gogoetan laterritutako European, gaiñean daukaguzan kaisartzazko arrano aundi orrein eraso-zital gogorrari aurka egiteko, berezko-errigizarte lez alegiñ aundiak egin bear doguz, Jaungoikuak ipinitako Legeakaz bizirik iraun gura ba-dogu.

(1) Oarrez eta entseguka, lojikazko azterkuntz onetan sartuta = a propósito y empíricamente, inmesro en esta investigación lógica. (2) Iraingarri = muy ofensivo.



Zer egin ?:

Alde batetik: gure Euskalerriko biziaren aurka dagozan alegiñak gelditzeko, zentzun aundiko egiak edo ta edestiaren ziurrezko barri ugariak bear doguz.

Bigarren: *erromatar katoliko-merkantil kaisar-menperatzaill* arrano aundi orrek guzurrageaz ainbesteko gerizpe aundia egiten dauan lez, eskubidearen argibide guztiak biztuta bear doguz zalantza barik, eta artean gure *Euskerazale eta Euskerazaintzaren alkar-teak* daukiezan aldizkariak beste askoren artean bear dira, Euskalerrria, abertzaletasunezko sugar eta zuurtasunezko argi-barik geratu ez daiten.

Irugarren: Gure euskerazko gorputza gaztelanizatu ez daiten egin, *gaur gure arteko alperkerigaitik igarri barik egiten gagozena*, euskal-senari laguntzeko, euskereagaz arduratu ta zaiñ egon, gure aurreko jakitunak egin eban lez: erriko jakitunen-batzar edo bazkun-antzera irasi ebazan *Euskerazaleak, Kardaberaz* edo ta euren ondorengo jaio zan Euskerazaintzazko talde lakoak bear doguzelako, ardura orreik Euskalerrri osoarenak izan da, Euskaltzaindiak bera bakarrik ezin dabezelako eroan.

Danak elburu bakar ta batera baiña, buruan kiriotzaren<sup>(1)</sup> amaierak, euren bat-egiteko alkartasunean egiten daben antzera.

Gaur zoritxarrez, Gaztelera eta Frantzez izkuntzak gureak be ba-dirala entzuten dogu, eta ez da olan iñundik iñora begituta be.

Adibidez:

Gaztelera, orduko Burgos ta Kantabria bitarteko euskaldunen artean, eta erromatarrak ekarri eben menperatzaillazko latiniñakin, guda-mende bidez euren artean aituteko sortu zan latin-kumezko mintzadar bat baño besterik ez da, gure euskal iparraldeko Gaskoi, Asturiasen bable, Na-far ego-aldean ta Aragoi ipar bitartean nafar-aragonesa edo gaurko katalan izkuntzak sortu ziran, Afrika, Asia eta Europa osoan ainbat latiniñkume sortu ziran antzera.

Latiñ-kume orreik ez ziran izkuntzak, euren arteko arazoetatik urteteko, mendeko indarrean beartuta sortu ziran zentzunbako mintzadar batzuk baiña besterik ez, ta orregaitik ez dira jendekuntzazko izkuntzak.

Beste gauza bat da, Erromatar katoliko-menperatzaill onek, berezko erriak katolikotasunean-batzeko eta berezko erriaren izkuntzak ezereztuteko, 2.000 urtetan latiniñagaz berezko mintzoeraren aurka ibili dabean debekatuzko leentasunak, euskerea ta berezko izkuntzak ezereztu egiezen.

Izkuntza, leiñu edo erri batek bere oiturazko azkuntza bidean ulermentzeko, sortzen dauan tresneria da, eta ez edozelakua, euren senezko tresneri biurtzen dalako.

Euskerazko azturan, gure bizitzazko *euskaldun ama* izendatu gendun, eta beren izena artuta, *euskal-nortasunezkoak* biurtu euskun. Eta orreik dira jendekuntzazko erri ta izkuntzak izatea<sup>(2)</sup>.

Euskerea, euskal-nortasuna da-ba, gure sen ta sendiaren arduradunezko ardatza biurtu dalako, eta jakituriz ta bakezko ulermenean betetan ba-doguz gure azturazko eragilletasunak, urbillago eukiko doguz beste erriak, Jaungoikuari begira gurea lez, bizitza oneri uler-

(1) Buruko Kiriotza = conexión sináptica del sistema nervioso en la cabeza y cuerpo. (2) Jendekuntzazko izkuntzak = idiomas culturales, o, creados a través del propio conocimiento de ésta naturaleza vital.

meneko erantzun eder bat emonekuak diralako, eta nortasundutakoak alkartuta ulermendu gaitzen, **gai-izadi** onek bear dauan eragilletasunezko arduragaz.

Ez dira edozer gauza nortasundutako izaera orreik, ez.

Gure euskal-arbasoak euren azturazko ikasketetan, gauza guztiaren izenpetasunak izaerazko bidean oituraz, askatasunaren demokrazizko zentzuan lur ta Jainkoari begira egokitu ba-ebezan, gure barnean baituta gero, ez dira errez zentzu aundiko irarketa orreik gainmarratu edo aienatu egingo, eta beti gogoratuko doguz begirameneko lots aundiz **legezarrak** lez, gure eginkizunak euren zentzuzko izatazunean barneratuta, daukagun baitak alan bideratzen dabezelako.

Or, agerzen gara **egizkoak**, Oreja'tar martzeliñok esaten dauan lez: **Euskaldunak edo ta ETA'koak egia esaten dabelako beti.**

Orregaitik dira nortasunezkoak Jendekuntzazko izkuntzak, gure Euskalerrian gaur arteko azturan eta arbasoen mintzazko senetik eginekoak, beti-lez on-zentzuzko oituran gogoratzen doguzanean, irudimenduta agertzen doguzelako gure gogora ikasitakoak, euren zentzun ta ekanduzko izatasun ederrenean.

Guzti ori eukiko ete dabe, guda-indarrez ta menperatasunezko ekintzan sortutako latin-kumezko mintzadar orreik ?.

Jainkoaren Legean gauza orreik lortzeko, mundu onen gizadia berezko nortasunaren zentzuan ulermenduta lortu bear dauz, danon arteko ulermenak parean ezarri ondoren ta eurak aurkeztuta dagozanean bardinduz, egin bear doguzenak, erabagi onaren erantzunak edo Jainkoaren legezko arrazoi ingurukoak izan daitezen alegindu bear garalako.

Beste gauza bat da, nor-bereren sasi-ulermenak beste buruetan sartu gurea, or ez dalako agertzen, ez Jainko Legerik ez ezer, **norkerizko alegiñetatik kanpo.**

Orain goazan jakitera, zelango lurraldeetan egin zan gure euskerea, eta berak euken zabaltasunetik, zergaitik murriztu ziran euskerearen eragipeneko zabaltasun orreik, gaur goazan zazpi lurralde onetan kokatuta geratu arte.

## Neandertal-Omosapiens.

K.a. orain 500.000 urte inguru, Europa, bere lurraldetara sartu ziran lenengo gizarteak egin eutsoen, Neandertalak bakarrik geratuta, **Wurm** deritxon azkeneko izotz-aldi ostetik.

Neandertalak, orain 100.000-50.000 urte bizi ziran.

Oso luzea izan zan aroaldi au, eta bitartean ainbat motako giza seme sortu ta galdu ziran, orain 30.000 urte Omo Sapiens agertu arte.

## Omosapiensen zabalkuntza.

Omosapienseko giza, 15.000-10.000 gorengo Paleolitikoaren asken<sup>(1)</sup> denborak edo Arri-Aroko aldiak zirenak, izotzaren urtzean, Afrikatik urtenda, Asia ta Europara zabaltzen asi zan euskerazko edo euren leen izkuntz, eta oiñarrizko oitura bardin bategaz, Atlant-

(1) Gorengo Paleolitikoaren asken denborak, edo arri-aro'ko aldiak zirenak, onantza asita.

Itsasotik Ekialdeko Indiaraiño.

Mesolitiko aldia: Paleolitiko ta Neolitikoaren aldi artekoa da eta Europaren edesti aurreko aroa, orain K.a. 10.000 urte ingururarte.

Aldi onetan esaten dau On-Mielek, Euskaldunak artu ebela gaur daukan giza-itxura, edo Kromañoien itxuratik gaurko itxurara aldatu zala, Paleolitiko-Neolitiko bitartean edo mesolitiko aldi onetan.

Europa aldi orreitan, ainbat epeldu zan eta Omo Sapiens giza, eizan egitez gain, zitu, bii, ale edo fruituak batzen asi zan.

Omosapiens aldi oneitan, arrapari uts izatetik, ekoizle, egille edo sortzaille izatera aldatu zan, eta orren ondorioz bizi leku tinko edo iraunkorretan asi ziran bizitzen, len iri'ak sortuta.

Beste trebetasunezko aurrerapen aundiak be asi ziran artzen, eta batez be arria lantzeko erabide aipagarrienak.

K.a. orain 9.000 urte asi zan Neolitiko aldia Ekialde Urbillean, ta Europan 6.000 urte inguru, Eki-aldekoak, denbora-giro beroagoa eukiteagaitik, 3.000 urte aurreratuta aurkeztu ziralako.

Kromañoen giza onek, jakin eban otzari aurre egiten eta bera agertu zanean aurreko Neandertalak euren artean ezereztu egin ziran, eta sortu zan giza mota au izan zan Asia ta Europatik zabaldu zana gaur arte, bere leen Euskerazko izkuntz azturana.

Gaur, jakintsuen esanetatik dakigu Omosapiens edo kromañoi denboran, euren arteko ulermenean egokitzeko, sorkuntzazko asieratik jakintzazko azturana oituratzeko euki eben izkuntza, *len ereduko euskerea* zala Afrikan, eta Atlant Itsasotik Indiaraiño.

Alan dala esan leike: jakintsuen ikerkuntza bidetik, dagozan izkuntz guztien sorkuntza ta senitasunak jakinda zein direzan, *euskerea*, asikoen sorkuntza baiño askoz aurreragoa izanda, galdu egiten jakielako, eta orregaitik, beste izkuntzetan bere oiñarrizko itzak euki bear, *euskerea* Omosapiensen leen ozenezko itz edo abots'etik datorrena dalako.

## **Nungo lurraldeetan nortasundu ote zan Euskerea ?.**

Atlant-itsasotik, Alemaniako lurraldearen erdiraiño, eta Eskoziatik erdi-ugarte onen Ispalis'eraño<sup>(1)</sup>.

## **Zer gertatu ote zan baiña Ekialdetik, gizartearen zoriontasunak mingostasunezkoak biurtu zitezen ?.**

Eki-aldeko giza eguraldi epelagoagaitik, 3.000 urte aurreratu zala, eta Eneolitiko edo arri-aldetik tupiki eta burdiñaren bitarteko aldietan<sup>(2)</sup> norkeriaren menperatzailletasunezko alegiñetan batzuegandik asita, bakezko irudimena apurtu egin zala odoljariozko irudiagaitik aldatuta.

Eta Jainkoari ta bereztasundutako Izadi onen lege bidean azturaren zeregiñetakaz lortu ebezan nortasunaren jendekuntzazko izkuntzak, lokastu egin ebezala, norkeriaren bidetik

(1) Ispalis = Cadiz. (2) Tupiki = edad de bronce y posterior hierro.

bereztasunezko erritartasuna, ainbat nortasungabeko zatitan bananduta, ondorioz izkuntzarekin sortu zan bezela, eta gero European sortuko zan antzera.

Baten bateri, irudimenduko-jako zer ote esangura izaten da, Babeleko-Dorrea aipatzen danean ?.

## **Zelan asiko ote zan murrizten euskerearen izkuntzazko jabetza gaurko lurraldeetan geratu arte ?.**

Paleolitiko-Neolitiko aldiko urteen ostetik, euren leiñuzko batzarrekin askatasunezko demokrazi ederrenean ezarrita, European ekialdeko trebeenak asi ziran nortasun eta nor-keriaren zalantzazko ekintza bidetik euren salerosketakaz. Edesti osoan nor-geiagoren gogortasunezko leian amaierarik ez dauena euki, gaur gagozan maltzur eta guzurrezko egokitasun-txarrean agertu arte.

Edestiko denbora guzti onetan gaur arte, ezin besteko giza-egipidearen bidetik, amai-bako lege ta erabagi artu dira, baiña beti *norkeriagaitik gaiñeratuta*. Ez ote zan elduko, konturatu gaitezen *ordua* ?.

K.a.2.800 urte ingurutik asita, Lurrarteko-Itsaso onen bazterretan Grezitarrak euren Uriak irasiz gaiñ, beste lurralde batzuetan be irasten ebazan saleroketarako Uriak, erdi ugarte onen itsas-bazterretara be elduta euren ekoizte edo mozkiñakaz.

K.a.2.000 urte ariñago, Keltiarrak eki-aldeko arazoetatik aldenduta agertu ziran Alemaniako lurraldeetan.

K.a.1.800-1.600 urte artean, Eskozia<sup>(1)</sup> eta Britaniako Ugarteetara eginda euren leenengo erri-alda.

K.a.1.200-800 urte artean, Galia edo Frantziaren Britaniako lurraldeetara, Frankoak Loira-ibaiaren goialdean kokatuta.

K.a.1.100eko urtetik onantza, Etruskoak be bardiñ, Italiako Arno ta Tiber ibaiaren bitartean kokatuta asi ziran euren salerosketetan

Eta K.a.900-500 urte artean, Allstatt deitzen jakon burdiñezko asierari eta Alemaniaren Ego-aldean Renaniako lurraldetan kokatuta egon ziranean, Keltiar-jendekuntza<sup>(2)</sup> European Sarkaldetik zabaltzeko gertatzen asi zan.

K.a.814 Fenizioak Siriatik zabalduz, eta Afrikan Kartago sortu ebenetik<sup>(3)</sup>, Ispalis, Betika edo Kadizeko itsas-bazterrera be etorri ziran, berton euskal Tarteso ta Turdetanoak egon zirala.

K.a.753ko urtean Etruskoak Erroma-kuadrataren gudalozteak irasi ebezan, eurak euki zituzen salerosketarako uriak babestuteko, gero danok dakiguna egin ebezanak eginda, aurrean agertzen ziran dan guztiak iruntzi gurean, Afrika, Asia eta European lurraldeetako erri ta izkuntzak lokaztu ebazanak.

K.a.VI-In mendeen artean, Tene deritxon goi-maillako Keltiar-jendekuntza egin eban zabalkuntzagaz, Europako lurralde guztietara eldu zan.

K.o.325eko urtean Nizeako Eleiz-Batzar Nagusia egin zan, munduko erri guztien ba-

(1) Emen Euskal-Piktoak egon ziran, eta badagoz euren aztarnak arrietan idatzita. (2) Keltiar jendekuntza = civiliación celta. (3) Afrkako Kartago = gaur Tunez dana.

tzangotasuna lortu gure ebena, latinezko izkuntzarekin euren naierara bideratzeko.

K.o.711ko urtean mauritarren sarraldia erdi-ugarte onen ego-muturretik Europara.

K.o.1.035eko urtean Nafarroako III In Santxo Aundiak, beren eskuetan euki zituzen lurraldeak, etan euki ebazan iru semeen artean banandu ebezanen ondorioz, Euskalerrria, gaur gagozan lurralde txikerretan geratu gintzazan.

Ondoren, katoliko ta antzeko erlijio faziztaren eritzikoak, Europa, Asia eta Afrikako lurralde geienak morroipetu ebazan euren sasi-jainkotasunezko eritziekaz, eta eritzi orreik lortzeko, bizitzeko bear doguzan gauza guztiak euren kotrolpean batu ebazan, gudalozte ta merkantilkeriaren laguntzarekin.

Baiña, morroipekotasunaren aldeko fazizta orreik ekintza orrekin, dana eurena dala us-te dabelako, or gure artean gaurko lapurkeri ta diru-zalekeriak.

*Ikusten dogun lez, Euskal edo ta beste berezko erriak, berezkotasunaren oituran u-lermendutako nortasunak, lortu eben askatasunezko demokrasiagaitk baituta, zekula ez ziran iñor meperatzera joan, eta mapa onetan ikusten dogu, zelako kalteak egin dabezan, Jaungoikuak ipinitako legeakaz nortasundu ziranai, menperatzailletasunezko alegiñetan asi ziranak.*

*Gaurko mundu onek agintaritzazko arloan norkeri bidez, goitik berañoko menperatzailletasunaren ekintzan, aiñ ugari daukazenak.*

Atutxa'tar Paul

Zornotzan 2.013ko Azaroaren 9an



# Lourdes eta Paulo'ren – Urrezko ezteguak

1.963 – 2.013

eta

Txangolaritasunezko – Saria

Praga, Budapest ta Biena'tik zear

(I)

## Urrezko ezteguak.

Bizi garan denborak oso traketskeri, edo oraiñarteko sendi-oituratan gauzak asko aldatu direlako, zalantza asko euki genduzan Lourdes'ek eta nik urrezko ezteguetara eltzen gagozela, egun orren ospakizun gora-beran.

Len, aolku billa egin genduzan itaunetatik, *erantzunak zalantzazkoak izan ziralako*, ta bigarren, *senide batzuen murmurretik, gagozan larritasunezko denbora oneik, ez ziralako ospakizunaren denborak, entzuten gendualako*.

Anka sartzea izatekotan, goraiño sartzea erabagi gendun, bion aldeko gogoak, etxeako edo bion sendiak batzea gura-gendulako, eta ori erabagi gendun, egun ori al-gendun maila aundienean ospatzeko.

Sei-illabete ariñago, anai-arreba bakoitxari ezteidei'ezko bidai-txartel bat bialtzea erabagi gendun, aurreko orri-aldian Karmengo Ama Birjiñaren irudi ederra eleizaren gaiñean dala, bertan egun orren egitarauzko zeregiñakaz:

*Dei egiten dautsuegu, karmeldar San Juan Bautistaren eleizan alkartzera, karmel-darrak emongo daben Meza Santua'gaz batera, Lourdes eta Paulo'ren Urrezko eztaieguna ospatu daigun, eguerdiko 12'etan.*

*Eguerdiren 12'etako Meza Santuan, Lourdes eta Paulo'ren ezkon berrizte ondoren, arratsaldeko ordu-bietan Larreatik, Santimamiñeko "LEZIKA" jatetxean danok alkar-tuta bazkari eder bat ospatuko dogu.*

Bigarren eta irugarren orri-aldeetan, Lezika'ko jatetxe ederra bazkariaren jaki-zerrenda eroaten ebala, eta laugarren orri-aldean, 24 eta 23 urte euki ebazaneko Lourdes eta Paulo'ren argazki ederragaz ornituta.

Lourdes'ek, eskuz emon ebazan deiezko txartel orreik, danori esanda, dei orrek ez ebe-la ezartzen ordezkoko premiñarik, guk zeozer egiterakoan, gure sendia batzeko alegiñean egiten gendualako.

Erantzun ederra euki eban gure Urrezko ezteguaren deiak, eta zoragarritzko egunagaz ospatu gendun alaitasunezko bakean, anaitarte edo anaikidego egun ori.

## Oar-txiki bat emen.

Arritzekoa da, aolku billa nire aldetik, artu nebazan ezezko edo zalantzazko erantzunak artzea, sendi-buruz gaur egunean ain garrantzi aundikoa izanda, bikote gazte baten lenengo ta betiko eskeintzari ondo erantzunduta, euren bizi guztia senide lez bizi izateagaitik.

Eta ez euren artean ez dalako egon arazorik, gure arteko arazoak izakera buruz, gogorak eta aundiak izan diralako ekanduzko bizi-aldakor onetan.

Baiña, ez gaindu-eziñezkoak, eta gitxiago *Jainkoa ta sendia elburu lez eukin ezkerro, gazterik benetan emoneko ezkeintzagaz lotuta.*

Ordezkaritzazko bizi-gogor onetan orregaitik, urrezko edo gure gizarteko edozein garaipenaren aurrean nire aldeko aolkua, ospakizunaren aldekoa da, eta gure menperatutako Euskalerrri onetan geiago, alaitasunezko egunak bear direlako, negargarrizko egunak agertzen diranean bakez orekatzeko.

Gure euskal-ordezkaritzazko ekintzak, zentzunezko edo ganorazko ausardia bear dabe, sendi ta erriaren adiskidetasunak ekanduzko orekan iraun dagien, *ta ze obe: ospakizuneko garaipen orreik, neurri onenean omenduta baiño.*

## *Txangolaritza 'ren bidaia.*

Lourdes arduratu zan txangolaritzaren bidai guztiagaz Eroski-bidaiaren *trabelplan'* en arduradunekaz berba eginda.

Eta gure ametsezko gogoak Europako ekialdea ikustea zalako, Praga, Budapest eta Bi-ena ikustea aukeratu gendun.

Eguneko ibilaldiak aurkeztu orduko baiña, lurralde ta erri onein edestia labur bat azalduko dautsuet, jakin daigun eskualde onetatik zelako zentzuaz ibili giñan.

## *Praga 'ren edesti laburra.*

Praga lenago, Boemia'ko erregetzaren eta Txekoslobakiaren Uri nagusia izan zan, gaur Txekiako errepublikarena dana.

Moldaba'ko ibai bazterrean kokatuta, 1.262.106 biztanle daukaz, eta beren erri-burua- ren inguruak 1.900.000 biztanle.

1.992ko urtetik, Izadiaren-Ondarezkoa<sup>(1)</sup> izanda, mundu onek daukazan ikusle geiagoko 20 Uri nagusien artean dago.

## *Edestia.*

Pragaren izena, txekiako Prahy itzatic datorrena da, *ur-lasterraren* esaguragaz, eta Paleolitikotik datorren giza-ezarpema da.

K.a.VI gizalditik aurrera keltiarrekaz esan leike daukola erri-ezarpema, auek Praga'ren ego-aldean kokatu ziranean.

(1) Izadiaren-Ondarezkoa = patrimonio de la Humanidad.

Lenengo leiñuak Zábist'en izena euki eben, germaniako erri bategaitik aldatu zana, eta gero eslaboarena, auek be aldikada baten, Abaroagaitik menperatuta egonda.

K.o.IXn gizaldiko azken zatian irasi zan Pragako Uria, Moldabako ibai bazterreko eskoi aldean, Libuse'k, Jauregi edo beren gaztelua eraiki ebenean, eta Pemysl gazteagaz ez-konduta, Premyslida`ren leiñua sortarazi zana.

Gaztelu au Vysehrad'eko izenagaz esagutzen da, eta ez da gaurko Pragaren gaztelua, oraingoa ibaiaren bestaldean eraiki zalako.

Praga, laster egin zan Boemiako erregearen ezar-lekua, errege batzuk Erromatar-kaisar Sakratuzkoaren agintari nagusiak izanda.

XIIIIn gizaldian IIn Otakar erregeak, Malà Strana'ko<sup>(1)</sup> aldea irasi eban ibaiaren bestaldean.

XIVn gizaldian eta IVn Karlos'en eskutik goraldtu zan Praga, ibaiaren bestaldean Uri barria irasi ebenean, eta Moldabako ibaiaren albo bietako Uri-erdi bi orreik, zubi eder bategaz alkartu ebazanetik.

XIIIn gizaldian egin zan zubi ori, 1.342ko urtean uolde aundi batzuk bota ebena.

Eta 1.357ko urtean IVn Karlosek, 516 metroko luzerean 16 arkuekaz, 10m zabalean eta iru dorreakaz babestuta, gaiñean 30 giz-irudigaz eginda eraiki eben zubi ori, eta Uri erdi bi orreik alkartzeko eginkizunagaz, Europaren erdi aldeko leen Ikastetxe Nagusia egiteko aukeratu eutsoen.

IVn Karlos'ek, zubi ederrori babesteko iru dorretik bi, Malà Stranan kokatu ebazan, bestea, Uri zarrean, ta berton dago XVn gizaldian egin zan Europako izar-erloju zaarrena.

1.424ko urtean Jan Hus eta Sejismundo erregeen artean egon ziran erlijio ta politikaren eztaibada bidez, Husitas'en gudak sortu ziran eta onen eskuetan geratu zan Praga.

### **Aro-Barriko denboran.**

1.526ko urtean, Habsburgotarren agindutara menderatu zan lurralde ori, eta Praga Austriako lurralde baten Uri nagusia izatera aldatu zan.

XVIIIn gizaldian eta Boemiako agintaritzta, espainako I Karlos'en anaia IIn Fernando katolikoaren eskuetan ezarri zanean, amorraldi aundiak sortu ziran Boemiako ukalari<sup>(2)</sup> andikien artean.

Eta IIn Fernandok beren Pragako agertzea antolatzen asi zanean, zinegotzi bi bialdu ebazan Praga'ra beren asmo edo aginduak onartu egiezan, eta bertokoak zinegotzi bi orreik kokotetik oratuta, gazteluaren leiotik bota ebezan, **Pragako leiotik-kanpora botate-a**<sup>(3)</sup> deituko zana.

Arazo guzti oneik 30 urteko gudakaz amaitu ziran, **Alemaniko lurraldeak ez ebelako gure iñungo menpetasunik**<sup>(4)</sup>, nai germaniako kaisertzaren menpean egonda-be.

1.741ko urtean, Frantzez ta Babaro'en artean artu eben Praga.

1.848ko urtean Austriakoak bonbakatu eben.

XVIIIIn gizaldi amaieran ta XIXgarreneko erdietan, diruaren arloetan asko goraldtu zan

(1) Malà Strana = alde-txikerra esangura dauana. (2) Ukalari = protestante. (3) Leiotik kanpora botatea = defenestrar, o a lo que se denominò como defenestración de Praga. (4) Alemaniako lurraldeak = betiko edo ta gaurko *Landerranak diranak*.

Praga'ko Uria, ta orren ondorioz Europako andizki, salerosle ta merkatari asko agertuta, eleiz eta jauregi askorekin ornitu zan, orduan agertu zan oker-gunezko<sup>(1)</sup> egikeraren irudi azkoko itxura ederrean.

XIXn gizaldian eta austro-ungariaren menpekotasunean, Praga, Txekiaren aberritasunezko erdi-toki-lez agertu zan, eta dirdaitsu agertu jakozan, jendekuntzaren buruzko lane-tan ugaritu ebezan ekintzak, *Aberritasunezko-Erakustoki, Laterrizko-Antzerki ta Rudolfinun* jauregietan.

### XXn gizaldian, Sobiet'en agintaritza eta gaurko denbora.

1.918'ko urtean eta Munduko I'go gudaren ondorioz, Txekoslobakiaren Lateria irasi zan eta Praga laterri orren Uri-Nagusi lez ezarri eben, Masaryk'tar Tomas euken lenengo agintariagaz.

1.939-1.945 urte bitartean Hitlerrek menperatu eban Praga, ta eukezan judoetatik geienak il eta besteak, atxilotuaren biltzezko-landa zarratuetara bialtzen ebazan berton iltze-ko.

1.945eko urtean, amerikar Laterri-Batuetako guda-egazkiñak, Dresde zalakoan nastuta edo artu ebalako, Praga bonbakatu eben txekiarren asarreak zirikatuta, eta egun batzuk barru errusitarrak Uria askatu ondoren, txekiarrek mendekuz, aleman batzuk il ebezan.

1.945 urtean Lorailaren 5ean Munduko bigarren guda-nagusia amaitzen egoala alemanek, gudaren Eritegizko-Uria izendatu eben Praga.

Munduko bigarren guda-ostean, komunismoaren legepera aldatu zan Txekiako errepublika, ia 20 urte ingurutan.

1.968ko urtean Epaillaren 30ean eta Nobotny lendakaria il zan ostetik, komunistak bialdutako gudalozteakaz ezereztu eben *Pragako-Udabarriaren izenagaz* agertu zan taldea, Sobiet'tarrek Komunismoaren gizartekerizko gelditasuna bizkortu gure ebelako.

1.968 urteko Abenduan, orduko Sobiet-Alkartasuneko buru izan zan Mijail Gorbaxob'ek *Sinatra'ren Irakaspidetza*<sup>(2)</sup> argitaratuz, Breznieb'en irakaspidetza ezereztu eban, eta Europaren Ekialdeko erri orreik euki eben nortasunagaz, jaurkintzazko eritziaren zeregietan, eurak geien gura ebena egiteko geratu ziran.

1.989ko urtearen askenetan Berliñeko ormea bota ebenean, Pragako errigizarteak *sozialismu edo gizartekeriaren irakaspidetzatik* aldendu ziran.

Eta Praga izan zan Komunismoaren maldaberarako, Uleguriko-Iraultzaren<sup>(3)</sup> zilborra.

1.989-1.990 askeneko urteen amaiera eta asi barrietan, Sinatraren Irakaspidetzazko indar eta irauteakaz, arindu ebezan sortu ziran gizartezko aldaketak, eta aldigaiztotu, Europaren Ekialdetik egon ziran Sobiet-aldeko Gizartekerizko<sup>(4)</sup> jaurkintzak.

Orduko Europaren Mendebaleko jaurkintz barriak, bereala alkartu ziran Komekon eta Barsobiako elkargoak ezereztu zitezen aldekoak, Sobiet'en Elkartekoak on artu ebena.

Eta 1.991eko urtean Uztaillaren 1ean, Txekiaren jaurkintzazko arduradunak Pragako Urian batuta, ezereztu ebazan bakez elkargo bi orreik.

(1) Oker-gunezko irudi azkoren itxura ederrean = estilo barroko. (2) Sinatra'ren Irakaspidetza = Doctrina Sinatra. (3) Uleguriko-Iraultza = Revolución de Terciopelo. (4) Sobiet-aldeko Gizartekerizko jaurkintzak = regimenes socialistas de tendencia Sovietika.

1.992ko Abenduaren 16an Pragako Lege-Biltzarra batuta eta 198ko autarkitik, 172ko baitzezko autarkiakaz irabazi zan, Praga, Txekiako Uri nagusia izan edin.

1.993ko urtean eta bakez, Txekia ta Eslobakiako errepublikaren laterritasuna ezereztu-tea erabagi zan eta Praga, Txekiako errepublikaren Uri-Nagusi lez geratu zan.

2.000ko urtearen Iraillan Pragako errigizarteak, Munduko Diru-Etxeak eta Erriarteetan Diruz-Erantzuteko kutxa Nagusiak<sup>(1)</sup> gura eben Nortasunbageko-Batzongotasunaren aurka urtenda, errizaingoaren aurka matxinatu ziran, eta 15.000 eger-kide baiño geiago al-kartu ziran **diru-zalekeri ta nortasun-bageko batzangotasun orren aurka.**

2.000eko urtean Pragako Uri-Nagusian eta Txekiaren aberritasunezko aolkularitzaren Batzar Nagusiaren agirietan erabagi zanetik, Pragako Uria **Laterri**<sup>(2)</sup> biurtu eben, eta orren esan naia, Laterriaren eskubideak Uri-Nagusiarenak zirala esangura eban.

2.002ko urtean Moldaba ibaia gaiñezkatu zan 5.100 m<sup>3</sup>/erlojuaren-orratz takada<sup>(3)</sup> ba-kotzean, Pragako Urian ainbesteko kalteak egin ebezanak ta urte bi bear izan ziran kalte orreitatik bir-jabetzeko.

### **Uriaren jaurkintzan:**

Uriaren agintari nagusia, Alkatea da.

Eta Uriaren ardura iru banakaritzagaz jaurkintzen da:

- a) Pragako Uriaren batzarra, 70 arduradun daukazanak.
- b) Pragako Uriaren Aolkularitza, 11 arduradun daukazanak.
- d) Eta Pragako Udaletxea, egilletasunezko ardura daukanak.

Lau urteko epean egiten dira Pragako autamenak.

2.010eko urtean aukeratuta, gaurko Aberri-Demokrataren alderdikoa dan Svoboda'tar Bohuslav Alkate jauna da.

2.006ko urtean Pragak, ainbat bigarren maillako ikastetxe-gain, leen maillako 10 ikas-tetxe nagusi ta eurak daukiezan 38.ikas-sail ezberdiñekaz euki zituzen 87.500 ikasle, eta Europa erdiaren jendekuntzazko arloetan beti izanda, Uri-garrantzienetariko bat.

Pragak, amaibako erakus-toki, musikaldiaren jauregi-etxe, Laterriaren antzerki-etxe, San Bito gazteluan egin zan gotzai-eleiza, Tyn Ama Birjiñaren eleiza, Ginder ta Fred edo dantzari-etxea, Wenzeslao'ren enparantza eta abarrezko etxe ta toki-ederrak daukaz.

Danak etzagintza ederrenean eginda, Kafka'tar Franz idazle ospetsuaren erakus-toki e-derra artean dala.

Kirol-arloetan, ondo eraikitako toki ederrak daukaz, ta munduan aundiena dan **Strahov** jolas-tokia 220.000 biztanleentzat eginda dagoena, eta bertan egin ziran 1.924ko Olinpi-jolasak, 2.016 urterako be aukeratuta egon dana, eta atzeratu zana.

Bai-ta 2.004ko urtean Sazka Arena jolas-toki olinpikoa, gizonezko izotz-olinpikoaren munduko txapelketarako egin zana eta abar.

1.937ko urtean lau urten-bideagaz egindako egazkiñaren-zelaia be badauka Pragatik 10 kilometrura dagoena, ta 2.005eko urtean 10.800.000 egazkiñeko-bidekari ibili ebezanak.

Gaur, Europako Batasun onetan, 11garrengo tokia dauka, bere errigizartearen aberastasunezko gora-beran.

(1) Erriartearen Diruz Erantzuteko Kutxa Nagusia = Fondo Monetario Internacional. (2) Laterri = estado. (3) 5.100m<sup>3</sup>/erlojuaren-orratz takakoan = 5.100 m<sup>3</sup> por segundo.



## Praga'n egin gendun txangolaritza.

2.013an Urrillaren 13ko Igandean goizeko seiterdietan urten gendun Zornotzatik M<sup>a</sup> Lurdes gure alaba zarrena berebillaren gidari zala, Loiuko egazkin zelaian 7retan egoteko, eta eroan genduzan bide-zorro edo pardelak, Iberiako gorde-lekutik egazkiñeratzeko.

Loiutik 8retan urtenda, 9retan eldu giñan Madrillera, eta berton lau ordu itxaron eta gero, 13'10etan Madrilletik urtenda, laurak ogeita-ambost minutu gitxiagoetan Praga'ra eldu giñan.

Berton euki gendun Trabeplan'eko arduraduna eskuak altzauta txartel aundi bat agirian eukela itxaroten, eta zorroak gorde-lekutik artuta berebil-busera igonda, CROWNE PLAZA'ra joan gintzazan ta bertoko ostal-etxe edo arroztetxean, Lourdes eta niri C-536'ko gelaren giltza emon euskuen.

Arratsaldeko 8'retan ostal-etxearen beko areto nagusian batu giñan danak, gidariaren a-olkuagaz oartzeko, eta arrituta geratu nintzan diruaren argiketak azaltzen asi zanean, bertokoak diruaren aldakuntzazko biribilkeran beti irabazle agertzen zirela esan eban orduan, bertokoak lege ori alan euki ebelako ezarrita, txangolaritzaren arloetatik Pragatarrentzat diru geien atarateko.

Nire gogoan enebazan onartu oarkizun orreik, ara ikustera joaten zirenak, diruaren elburuagaz nastuta egon zala esaten euskulako, eta zentzukizun orreik txangolaritzarako e- ginda dagozela esangura dauan lez, diruan ipinten dozu oarkizun geiago bertoko edestian baiño, eta geiago, diruagaz kontuz ibilteko esaten dautsoenean.

Koroia da berton erabilten daben dirua, eta kontu aundia euki bear dozu euroagaitik aldatzen dozuzenean, euren-alde jokutzen dabelako beti, baita diru-zorroa non izten dozun be kontu aundian euki.

Zortziterdietan joan giñan jan-tokira, eta berton asi giñan euki genduzan maikidearekin adikidetasunezko ustean edo ezagutzezko artu-emonakaz.

Euki gendun batzarrean gidariak, gela bakotxean diru-kutxa euki gendula esan euskun lez, arrerako mutil bateri gaillu orren ibilkera itanduten joan nintzan eta bere jarduera zein zan jakinda, gelara igon gendun biok.

## **2.013an Urrilla'ren 14ko bigarren eguna.**

Goizeko 7'1/2etan gosaldu gendun, eta 8'1/4renetan sarrerako gela nagusian batu giñan, gidariak bakotzari, irrati txiki bat emonda samatik edo kokotetik dingili eroateko, eta eukezan belarriko gailluakaz bera gure aurretik joanda, esaten ebana guk entzuteko.

Gidaria berba egiten asita, Praga, **Urrezko-Erri edo Eun Goil-Erdiko<sup>(1)</sup> Uria** esaten eutsoela esan eban, eta lenengo ikusiko genduna **Hradcany gaztelua** izango zala.

Gero **Strahov'en lekaidetxea, gongotzai-etxea, eta Loretoko Enparantza** ikusi genduzan.

Aurrera joanda, **San Bito'ko Eleiz-nagusia, bertoko erregetzaren** bitxiak gordeta daukezanak, antziñako **Errege-Jauregia** eta erriak daukan **Urrezko Etxe-Bitarte** zoragarrie-

(1)Eun-goialdiko Uria = la ciudad de las cien cúpulas.

na.

Ainbat bider entzun gendun *Nepomuzeno*´ren izena eta Kantinflasen pelikula *El Padrecito*´gaz gogoratzen nintzan, eta gero jakin neban santu baten izena, *Kaazapako* lurralde batena eta bai *Bolibar*´eko erri baten izena zala.

Bazkaltzera joan giñan, eta arratsaldean *IVn Karlos´en zubitik*, Uri-txikerra edo *Mala Strana*´ko izenagaz esagutzen dan errekaldeko inguru ori ikustera joan giñan, *San Nikolas*´en eleiza, eta Uri-Zarra edo *Stare Mesto*, Uriaren enparantza nagusian dagon *Izarren-Erlojua*, *Udaletxea*, *Bolboraren dorrea* eta *Wenzeslaoren enparantza ederra*.

7´retan antzerki-baltzazko adierazpen mutuan, *Aliziaren-Ikuspen* politikak ikusi genduzan.

9´retan Truhla ibai-ontzira igon gendun, eta auspo-soiñulari baten doiñuagaz, afalduz batera, entzuten joan giñela Moldabako ibaitik Pragako Uria alai ikusten, *Aliziaren Mirarisko Erria ikusten gengoza iruditu geinkezen*, soiñulari ura ez ba eben eten-bageko ekintzan garagardo geiegi eran eta jateko atara euskuezan lursagar erregosiak, gitzienez, lau egun ariñautik ez ba ziran erregosi edo prejituta egon.

### *2.013´an Urilla´ren 15´eko irugarren eguna.*

Gure naikerirako eguna izan arren egun au, gidariak aurkeztuta autamen edo aukerazko bidai eder bat egiteko alegindu euskuen, eta danon baietza artu eben.

Goizeko 7-1/2´etan gosarituta, 8-1/4renetan urten gendun, goiko mendiaren ibarrean eta biktoriano-tankerazko baratz eder artean egon ziran ur-etxe ederrak ikustera.

Karloby Bary´ren Urastegi´ko Uria´ren izenagaz ezagutzen da inguru ori mundu guztian, eta bertara joaten ziran Beetoben, Batx, Goethe eta ainbat jende osasunaren billa.

Berotasunezko 72° eta 12m. gaiñ-alderaiño zorrotonean urtetan dauan ura be ikusi gendun, eta berton saltzen ebazan bonbiletan ur ori sendagarri lez, ondoren Pupp Arrotz-etxe Aundia, antzerkia eta abar ikusita, bertoko *Juan Male Bersalles*´eko jatetxean bazkaldu gendun, eta arratsaldean Boemiaren leiar edo kristalezko irudiak erosi ta salerosteko dendak ikusi ondoren, busera igon gendun Pragan gure arrotzetxean afaldu ta ogeratzeko.

Eta au izan zan Pragako Uri ederrean ikusten emon gendun denborea, arrotzetxe eder baten gure kidesunagaz gozatuz.

Atutxa´tar Paul

Zornotza´n 2.013´an Abendua´ren 11´n

# Lourdes eta Paulo'ren – Urrezko ezteguak

1.963 – 2.013

eta

Txangolaritasunezko – Saria

Praga, Budapest ta Biena'tik zear

(II)

*2.013'an Urilla'ren 16'eko laugarren eguna.*

Goizeko 6'1/2etan jagi giñan ogetik, gure garbiatsunak egin, 7'retan gosaria artu eta 8'retan zorroak buseko fardelkarian sartuta urten gendun Eslobakiarantza.

Goizeko 10'1/2etan bidean busaren bide-legeak beteteko geratuta, eta ogitartekoak janda bideratu gintzazan Bratislabarantza.

Eta Ungrian sartzera goazan lez, eguneroko ekintzak aipatu barik, leen Ungria, eta Budapest'aren edesti labur bat aurkeztuko dautzuet.

*Ungria.*

Europaren-ekialdeko erdiaren Errepublika bat da, bere lurraldeko 93.032 Km-laukiekin eta 10.624.488 biztanlegaz. Daukan Uri nagusia Budapest da.

Iparraldetik Txekoslovakia, ipar-ekialdetik URSS, ekialde eta ego-ekialdetik Rumania, ego aldetik Yugoslavia, eta sartalde edo mendebal aldetik, Austriagaz mugatuta geratzen da.

*Ungriaren edestia.*

Erromatarrak menperatu ebazan Danubioaren eskumaldeko lurralde orreik, Panoniako izena ipinita, eta berton irasiko eben Buda'ren izenagaz beren Uri nagusia.

Gero, Atilaren Unotarrak menperatu ebazan lurralde orreik, baiña ez ziran geratu lurralde orreitan.

K.o.896ko urtean ta Karpatoko mendi-kateak aldatuta, uralo-altaikako majiar-erriko leñuak Arpad'egaitik bideratuta, Tisza eta Danubio ibaiaren arteko ibarretan kokatu ziran.

*Oar-txiki bat emen.*

Eta oar-txiki onen azalpenean konturatuko gara Europak daroan ekanduagaz, gero iru idaz-lan onen ondorio lez aipatuko dodazan lurralde orrein, erriaren etxe, kale, jauregi ta eleizak, oneik utsik agertu arren danak konpontzen dabizelako.

Eta niretzat edestian egindakoagaz ezereen damu barik, adierazten daben erdi-mende-ko Kaizar-katolikotasunezko lege sendoaren usai edo zirrarezko zentzu estuagaz egiten dabizelako.

Eginkizun orreik, zer ikusi gitxi daukielako, mundu onek bear dauazan bereztasunaren edo askatasunezko demokrazirantza bide barriak zabaltzeagaz.

### *Edestiaren aria ostera artuta.*

Arpad erregea izan zan irasi ebana, lau gizaldi baiña geiago iraun eben arpartar leiñua, bere billoba I Geza izanda Erromako Aita Santuagaz berbetan asi zana, erria Kristautasunezko sinismenean ezartzeko, 1.000garrengo urtean bere seme I Esteban Santuak egin ebena<sup>(1)</sup>.

I Esteban'en ondorengo I Ladislao<sup>(2)</sup> eta IIn Koloman'ek<sup>(3)</sup>, Kroazia ta Dalmaziako lurraldeak ondoratu ebezan Ungriako erregetzara, eta IIn Geza'k, Transilbaniako lurraldeak bereganatu ebazan, toki orreik erritu edo kolonizatu ondoren.

1.241-1.242 urte artean Tartaroak izan ziran Ungria ondatu ebenak.

1.301'eko urtean, IIn Andres erregea il zanean amaitu zan Arpadiotarren leiñua, eta Ungriako erriaren jaurkintza naste bateko edo legebageko jarkeran kokatu zan.

Autatuko errege batzuk iraun ondoren, Korbino'tar Matias<sup>(4)</sup> izendatu eben errege Ungriako batzarrak, eta Ungriako erregetza bere agintaritzan, Europaren erregetzazko artean leenengoa izan zan.

XVIn gizaldian Ungria otomanoaren menpean geratuta, 1.526ko urte ostetik iru lurraldeetan bananduta geratu zan, Absburgotarrak mendebala, erdiko ibarrak otomanoren eskuetan, eta Transilbaniako lurraldeak, turkoaren menpean egon ziran zaldunezko batzuk bideratuta.

1.683ko urtean eta Bienan egin zan borrokan turkoak menperatu ondoren, Transilabania eta Ungriaren lurralde geienak, Austriari emon eutsiezan, baiña Bienako jaurkintzak Ungriako errigizarteak atsekabetuta, matxintasun ugari agertu zan.

1.704-1.708 urte bitartean IIn Rakokzy'tar Frantzizkok egin eban matxintasuna izan aundienetako bat.

Eta 1.848-1.849ko urte artean Kossut'tar Lajos'ena, onek Errepubliko jaurkintza ezarri ondoren, Austriako gudalosteek ezereztu egin ebena.

1.866ko urtean Prusiako gudalosteek, Austriaren gudalozteak menperatu ondoren, Austro-Ungriar bikoteko erregetza aukeratu eben, ta onen jaurkintzagaz onartu ziran Ungriaren jabetasunezko erregetasun ta Biltzarrak.

1.919ko urtean Munduko leen guda-ostean eta Ungriako ondamen ondore, ostera ezarri zan Errepublikako jaurkintza, baiña oraingoan Kun'tar Bela'ren jaurkintzagaz, komunismoaren-gizartekerizko agintaritzapean. Denbora gitxi iraun ebena.

Frantzizko Jose'tar I Karlos Ungriako erregearen ordezkoa zan Horthy amiralaren 25 urteko jaurtzangoaren agintaritzazko ekintzagaz, berrezkuratu gura ebazan gudan galduta-

(1) 1.083ko urtean guren aitortu, santu edo sanduetsi egin ebena. (2) 1.077-1.095 urte artean bizi zana be santu egin eben. (3) 1.095-1.114 urtetan bizi zana. (4) 1.440-1.490 urte artean bizi zana eta errege lez 1.458-1.490 urtetan.

ko Ungriaren antziñako lurraldeak, eta bigarren munduko gudan Berlin-Romako ardatzagaz alkartu zan.

1.944ko urtean Alemaniak, ungriarrak menperatu ebazan.

1.945eko urtean Errusiako gudalozteak sartu ziran Ungriako lurraldeetan.

1.946ko Otsailean Errepublikako jaurkintza irasi zan Ungrian.

1.947ko urtean eta bakezko elkargoaren bidez, Ungriak ararte beraganatu egin ebezan lurralde guztiak itzuli bear ebezan.

1.949ko urtearen Dagonillan Ungriako jaurkintza komunismoaren kontrolpera jausi zan.

1.956ko Urrillaren 23an errigizarteko asarrearen bidez, Budapest'en berezko matxintasuna agertu zan, bereala zabaldu zana beste lurraldeetatik.

Nagy'tar Imre<sup>(1)</sup> agintariak, Barsobiaren elkartekotik urtetea gura ebala argitaratu eban, Ungriaren erdikotasun edo alderdigabetasuna zaintzeko, eta O.N.U.'ren babes eskatu ebenean, jaurkintz orreitan kide euki eban Kadar'tar Janos'ek euki eben jaurkintzaren aurka, beste jaurbide bat aldarrikatu eban URSS'aren laguntza eskatuz, eta komunistaren gudalozteak Ungrian sartuta, egun gitxitan ezereztu ebezan matxintasun orreik.

Komunistak egin eben odoljariozko sarrera orren bidez Budapest'en bakarrik, 25.000 ungarriar eta 7.000 sobietar il ziran, 200.000 ungarriar atzerriratuta.

1.958ko urtean Kadar'ek itzi eban Ungriako jaurkintza, Münmitx'ek artuta.

1.964ko urtean, guda orreitan Erzsébet zubian egin ziran kalteen konponketak amaitu ziran.

1.961eko urtean Kadar'ek, Münmitx kenduta ostera artu eban agintaritzea.

1.965eko urtean Kallai'tar Gyulla'k artu eban Ungriako agintaritzea.

1.967ko Jorraillaren 14an, Losonkzy'tar Paul eta Fok'tar Jenoe artu eben Ungriako jaurkintza.

Eta 1.969ko Urtarrilla'ren 27an, izenpetu zan Erromako eleizagaz ebazpen edo elkargo bat, Ungriaren eleiz-nagusitza bere senean ezartzeko.

1.970ko urtearen asieran, lurpeko-tximist-gurdiaren edo bigarren-Metroko ibilbidea zabaldu zan.

1.971ko Iraillan Mindszenty<sup>(2)</sup> kardinala Erromara joaten da eta Biena'ra itzuli ondore, bertan ilgo zan 1975ko Loraillaren illean.

1.975ko Loraillaren ille orreitan izten dau Fok'ek jaurkintza, Lazar'tar György agintaritz orreitar igonda, baiña nai-ta Kadar'tar Janos'ek agintaritz orreitan egon ez arren, komunistaren alderdiko lendakariak agintzen eban Ungriako jaurkintzan, eta jaurkintzape orregaz lortu eban Ungriak euki zituzen beste agintaritzazko talde guztiak baiño geiago Europaren ekialde orreitan.

1.960-1.980ko urte bitartean, Ungria eta txantxa edo iseka lez **“Ekialdearen-Alkarteko Zorioneko-txabola”**<sup>(3)</sup> lez aipatzen eben

1.982ko urtean, lurpeko tximist-gurdiaren irugarengo ibilbidea zabaldu zan.

1.987ko urtean UNESKO'k, Buda'ren jauregia ta Danubioko ibaiaren bazterrak, Mun-

(1) Nagy'tar Imre = 1.898-1.958 urtetan bizi zan gizon au, Ungriaren komunista alderdikoa zan. (2) Mindszenty'tar Jozsef = 1.892-1.975 urte artean bizi zana. (3) Ekialdearen-Alkarteko “Zorioneko-Txabola” = “La barraca-Feliz” en el Bloque del Este.



duko-Ondarearen zerrendan sartu ebazan.

Ungria gaur, ONU, KOMEKON eta Barsobiaren Alkarteko kidea da.

### *Budapest'en edesti labur bat.*

*Ungria'ren Uri nagusia izanda, Danubio'aren Pitxi edo Erregiña'ren izenagaz ezagutzen dabe askok.*

Ungriaren Uri nagusi ta bere *Pest'eko*<sup>(1)</sup> konderrri banatuarena be bai.

Bere lurraldeak 525 km-laukiak daukaz eta 1.980ko urtean 2.063.306 biztanle euki zituzenetik gaur, 1.700.000 daukaz, eta 2.380.000 Uritasunaren nagusitasunezko ingurua.

1.873ko Azaroaren 17an irasi zan Uri bat lez, Danubio ibaiaren bazterreko mendebalean *Buda ta Obudako* auzo edo erriak, ibaiaren ekialdeko *Pest'eko* aldeagaz batu ziranean, eta alkartasun orretatik agertu jakon gaur daukan *Budapest'eko* izena

Budapest'eko edestia *Akinkun, keltiar ezarpenagaz asten da*, gero erromatarren bealdeko Panoniaren uri nagusi lez geratu zana, eta edesti arloetan Ungriaren edestia da.

Europaren Uriarteko politenetakua izanda, leku batzuk daukaz Muduaren-Ondare direnak, Danubio ibaiaren baztarrean Buda gaztelua, Andrassy etorbidea, Gizauren<sup>(1)</sup> Enparantza, eta munduan bigarreneko sarrena dan Milla-urteko Erri-Buru edo Uri-Nagusia.

XVn gizaldiko denboratan, Budapest'ek eukan Korbinnianako liburutegia, European egon ziran liburutegitik garrantzi aundikoena izan zan, eta bigarrena aunditasunean Batiakanoko liburutegiaren atzetik.

Eta Budapest'ek euki eben aberastasunagaitik, juduaren Mekako izenagaz be ezagutu zan.

118 lur-beroaren iturriak daukaz, ura 21'etik-78ko bero-maillan botaten dabezanak eta lurpekotasunean iñor baiño geiagoko urberoaren leize-zuloak, munduan dagoen bigarren batzar-toki aundiena, eta aundikotasunezko maillan irugarren Lege-etxea.

Europako Uri-Politasunean eta Bizigarrienetariko zazpigarren lekuan kokatuta dagoelako, Urtero lau-milloterdi txangolari joaten dira bera ikustera.

### *Txangolaritzaren aria ostera artuta:*

Bazkaldu egin gendun Bratislabara arratsaldeko 1'1/2etan eldu gintzazanean, eta 3'1/2etan ostera busera igon Budapest'era joateko.

Arratsaldeko 7'retan eldu giñan Budapesteko BUD ostatu edo arroztetxera eta zortziretan afaltzera beratu gintzazan.

Maikide talde-alai ta ederra osatu gendun Madril'tar Esteban eta Maria Antonia, Domingo ta Mari Jose, eta Aragoi'tar Pako ta Maria senar-emazteakaz, nai Maria Extremadurakoa izan.

Politikako itaunak be agertu ziran eta batez be Euskalerrriarena, baiña denbora gitxian arduratu ginduzan arlo orretan, nire erantzun baten: "*norberak baiño, iñork ez dabela garbitu ta zuzentzen nor-beren ardurazko etxea*" esan neutsoenean, seirak ondo baiño o-

(1) Hèroe, varon ilustrre, noble, hidalgo.

beto aitu ebelako zer esaten neban berba aiekaz. Denbora geiena, ikusi genduzan edetasu-nakaz arduratuta. Eta 10'etan igon gintzazan bakotzaren gelatara.

### *2.013'an Urilla'ren 17'ko bost-garren eguna.*

7'retan jagi, 7'1/2etan berauskarri edo gosaria artu eta 8'retan erriko txangolaritza egi-tera urten gendun.

Erri-aurkezpenean azaldu dodan lez, gauza-eder asko daukaz erri onek, gaiñera goitik-bera edertuten dagoena, txangolariai atara egiten dautsoen dirua, zuribide edo garbitasun apur-bat gitxienez euki dagian, eta orretan naita kaizar-katoliko sendoaren usaia euki, e-kanduzko neurri onenean ordezkutzen dabez, euren errikoiari ta txangolaritzarako agetzen dabezan gauza guztiak.

Iñundik begituta be, edo-ta iñungo berdinketarik ez dauka espainitarren "**aberri-katoli-kotasunagaz**"<sup>(1)</sup>, laterri onek daukan ainbeste lotsa-bagetasunezko lapurketarik ez dalako ikusten, naita merkantil eta katolikotasunezko-batzango edo ta menperatzailletasunezko asmo bardiñagaz ibili arren.

12'etan itsas-ontzi batera igon gendun Danubio ibaitik ibili ondore erria ikusteko, eta benetan esaten dautsuet ondo asmatuta dagozela bidai orreik.

1'etan beste itsas-ontzi batera aldatu giñan eta bertan bazkaldu gendun, oraingoan edertasunezko giro on-baten.

14'1/2etan Budapestek daukan garrantzientariko I San Esteban'en eleiz-nagusia eta bertan 1.000 urte baiño geiago daukan koroi-santuagaz, Santa Maria eleiza San Esteban leen martiriren etxandre dana, lege-biltzarraren, eres-antzerkiko, eta Greshan jauregi ta e-txe ederrak.

6'1/2etan aske itzi euskuen eta, Esteban ta bere emazte Maria Antonia, Domingo ta be-re emazte Mari Jose, Pako ta bere emazte Maria eta Lourdes ta nik, York-Berriko<sup>(2)</sup> kafe-tegi ospatsuan kafea artu bear dogula ta joan gintzazan.

Erritik ibilten bata bestiari itanduten goazela, zortziretan eldu giñan kafetegi ospatsu o-rraitara, eta zortzientzat lekurik ez zalako egon, kafe-gozo ori artu barik urten gendun.

Afaltzera joatea erabagi gendun, eta zabalik aurkitu gendun ogi-tartekoak edo anburge-seri batera joan giñan.

Ainbat barre egin gendun Pako'ren kontura, alkoola ez eban saltzen taberna aretan be-rak edateko eten barik garagardoa eskatzen ebalako, arik eta betaurrekodun neskatil-gazte bat gatz-aundiz, ezetza emonarte.

Lurpeko tximist-gurdira joan giñan etxera edo arroztetxera joateko, eta jende-artean a-inbeste beartasunezkoak ikusis geltokietatik ibilita, azken baten baten batek esan arte, zorigabeko buru-erailtza bategaitik geratuta egon zirala lurpeko tximist-gurdi orreik.

Eta gaueko 12'1/2ak ziranean berebil-taxis bat artuta, Budapest'eko Buda arroztetxe areitan azkeneko gau-aldiko lo egitera joan gintzazan.

(1) Espainitar Aberri-katolikotasunagaz = nacional-katolicismo-español. (2) York-Berriko = Nuena-York.

Atutxa'tar Paul

Zornotza'n 2.014'an Urtarrilla'ren 7'an

# Lourdes eta Paulo'ren – Urrezko ezteguak

1.963 – 2.013

eta

## Txangolaritasunezko – Saria Praga, Budapest ta Biena'tik zear

(III)

*2.013'an Urrilla'ren 18'ko barikua eta seigarren eguna.*

7'retan jagi giñan, Budapest'eko **BUDA** arroztetxe orreitan azkeneko gauan lo eginda. Eta 8retan gosalduta, 9retan zorroak buseko fardelkarian sartuta busera igon gendun, Bienako urian, gure txangolaritzaren azkeneko egun biekaz atsegintzera.

Baiña uri eder orreitan egin genduanaz esan orduko, bere edesti labur bat aurreratuko dautsuet, uriaren ikuspeneko iruditasunean kokatu gaitezen.

*Biena'ren edesti laburra.*

*Bienako uri eder au, Austriaren uri nagusia da, ta izadi<sup>(1)</sup> onetan UNESKO'aren<sup>(2)</sup> e-torki edo guraso-ondokoa<sup>(3)</sup> da, Asburgotarrak antze-lanetako jakintzan edo errijakin-tzan, eraman-onetan ardatza<sup>(4)</sup>, musikako lan ederretan, eta uriarengaitik irasi eben ordezgarritzazko irudimenagaitik, mundu onen jendekuntzazko arloetan aundienetakoa egindako gaiñ, Europa'ren uri-artean ederrenetariko bat egin eben.*

Austria, Europa erdiko alkar-arteko errepublika<sup>(5)</sup> bat da 1.920'an iraspendutako legea-kaz jaurkintzen dana bere 9 lurralde nagusietan: **bealdeko Austria, goi-aldeko Austria, Burgenland, Karintia, Estiria, Salzburgo, Tirol, Biena, eta Borarlberg diranak** bakoitza bere nortasunezko batzordeagaz jaurkituta, ta Iparraldetik Alemania ta Txekoslobakia, E-kialdetik Ungria, Ego-aldetik Yugoslabia ta Italia, eta Mendebaletik Suiza ta Lietxtenste-in'egaz mugatuta dagoana bere 83.849 Km<sup>2</sup>'etan eta 7.541.940 biztanlegaz, Biena dala bere uri nagusia.

Biena, Europaren erdian Alpezeko mendi-saiets edo bularrean, Danubioko ibaiaren bazterrean, eta Bienako basaldearen ibarreko 414,65 Km<sup>2</sup>'etan bere 1.712.903 biztanlegaz kokatuta dago, uri-nagusi orren eragipena 2.400.000 biztanleraiño elduta, eta Aleman iz-kuntzaren artu-emoneko ulermenean bizi direnak.

Bienako izena, erromatarrak Bindobona deitu eutsoenetik dator<sup>(6)</sup>, Eskozes-gaeliko, e-do ta Irlandesean mendi-zorrotz edo mendiaren goi-aldea esangura dauana.

(1) Izadi = Naturaleza, Universo, Creación. (2) UNESKO = Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura. (3) Guraso-ondokoa = Patrimonio de la Humanidad y de la UNESCO. (4) Eraman-onaren ardatza = centro o meca de la filosofía. (5) Alkar-zaleko errepublika = republica-federal. (6) Nombre de origen celta Vindobona = Ciudad-Blanca, esangura dauana.

## *Biena' ren edestia.*

### *Zarrenez aurrera.*

K.a.500 urte, gizarteko leen bizi-lekuak Keltiarrenak izan ziran lurralde oneitan, eta osteoak germaniarren leiñuenak.

K.a. I'go gizaldian eta erromatarren zabaltasunean, K.a. 13n urtean eureganatuta lurralde oneik, Alpesak ta Danubio ibaia, berezko muga lez geratu zan bertoko ta erromatarren artean, arik eta K.o. 476ko urtean erromatarren kaisertza ezereztu arte.

Bindobonako<sup>(1)</sup> Uria, erromatar gudalostearen ezar leku-lez jaio zan, Panoniako eskualdea euren kontrolpean eukiteko, artean Xn Geminako talde edo lejioa, K.a. 106ko urtetik, K.o. IVgarrenengo gizaldiaren azkenerarte, Graziano ta I Teodosioren denboratan.

### *Erdi-Mendean.*

K.o. IIIIn gizaldi ostetik eta Kaspioko lur-zabaletatik etorrita, Suebo, Bandalo ta Alano germaniar leiñuak agertu ziran Europaren erdiko lur orreitan, ábaro edo ábarek eta majiar leiñuak mongolaren senideen artekoak ezarrita lurralde orreitan.

IXn gizaldian Karlomagnok menperatu ebazan lurralde orreik, Bienari Ostmark'eko<sup>(2)</sup> izena ipinita.

Biena erdi-mende onetan, Batikanoko Aita Santuagaz arreman oso estuak euki ebazan, bera izanda gurutzadarako gudalozteari, bear ebezan janari ta tresneriakaz ornitu egiten eutsozanak, *adibidez: Ingalaterrako I Rikardo "leoi biotzekoari"*.

Korbiño'tar Matiasegaz, Ungriako uri nagusia be izan zan, eta XVn gizalditik Napoleonen gudataraiño be bai, Germaniarren Erromako Kaisar Sakratuaren Uri nagusi ori, Absburgotarren bizi lekua izan zalako.

1.237ko urtean Biena babesteko egin ziran ormatzarrak, 1.857urtean ezereztu ziran urterarteko luzerea artu ostean.

### *Aro-Berrian.*

1.453eko urtean Ekialdeko erromatar-kaisertzak porrot egin ebanetik ta Konstantinopla otomano edo turkoaren mende jausi zanetik, oneik ardura aundia artu eben Bienako uria-gaz, bera izan zalako giltza Europaren beste erriak menperatzeko, beren garrantzi aundienetarikoa, Soliman "*Ospatsuagaz*" artuta.

Baiña turko edo otomanoaren alegiñak alperrezkoak izan ziran, Austriarrak Alemanaren laguntzagaz garaipendu ziralako leen 1.529ko urtean.

Eta 1.532ko urtean Soliman ostera agertu zanean uolde ta elur aundiakaz, Austriarrak ondo babestuta egonda Vn Karlos Kaisarraren anai Fernandok bideratzen ebazan gudaloste aundiakin, ezin ebalako ezer egin.

1.556eko urtetik Biena Absburgotarren uri nagusia izan zan, eta onen eragipen bidez asko zabaldu zan XVIIIIn gizaldian Danubioko ibarretatik, 1.800 urtean Napoleonen guda

(1) Bindobona = Vindobona, Viena. (2) Ostmark'eko izena = la marca del Este.

aurretik 231.900 biztanle eukinda.

1.683ko urtean egin zan Bienako bigarren borroka, eta austriaren garaipenakaz asi zan Otomano edo Turkoaren berakada.

1.683ko Uztaillaren 16an asi zan Mustafa'tar Kara, I Leopoldo Austriar kaisarraren aurka, bere egoera larrian garaipen orreik bear ebazalako, eta kañoi gitxi euki ebazalako, I Leopoldo absburgotarrak, aleman eta polakoakaz gudaoste aundi bat eginda menperatu ebazan Iraillaren 12an Kalenberj'eko borrokan Bisir orren guda-indarrak, eta ortik aurrea ez eban I Leopoldok turkoaren erasorik euki.

1.683ko gudako ingurutasunetik, Uria babesteko orma nagusitik kanpo egon ziran erri-txiki asko ezereztu ziran, eta lurralde orreitan jauregi eder asko eraiki ziran euren baratzeko lorategi zabalekin, 1.720 urtean, 200erarte eldu ziranak.

### *Napoleonen aldian.*

1.809ko urtean Wagram'eko borrokan Napoleonek Austriarrak menperatu ebazanean, ariñago XVIn Luis eta Maria Antonieta bizi ziran Schönbrunn jauregira joan zan bizitzen, eta Napoleonen ego aldi onetan Frañtzia ta Austria alkartuta, berau, Austriako kaiserraren I Franzizko Jose ta Napoleseko Maria Teresa'ren alaba Maria Luisagaz ezkondu zan Josefingaz bizi-alargunduta gero, eta beragaz euki eban Erromako erregea deituko zan semea.

Austriako kantzillerrak, Napoleonek Errusian porrot eginda gero, Napoleonen aurkako aldera aldatu ebazan Austriako indarrak.

Eta 1.814ko Urrillaren 1etik 1.815eko Ekaiñaren 9arte, erri-arteke biltzarren izena ipini eutsoenagaz eta batzangotasunezko merkantil-katolikotasunaren agindu edo aolkularitza-pean, Bienan egin ziran norkerizko ta utsegintsuzko batzar orreitan, Europaren lur-zabal guztiak laterritu ziran, berezko **aberri** edo errigizartearen eskubideak kontuan artu bari edo euren aurka, Europako bereztasunaren zuzenezko jaurkintzak, sasi-jainko ta maltzuratasunezko lekuetatik bideratuta.

Biena, urte orreitatik eta geroko 30urtetan, Europako politikaren ardatza biurtuko zan.

XIXn gizaldi onen azken urteetan, eta uriari egin eutsoezan berriztasunakaz, amar bider geiagoan ugaritu zan bere jendetza.

1.857ko urtean Austriako kaiserra I Franzizko Josek, uria inguratzen ebazan ormak botateko agindu eban, eta **Ringstrabe** ibil-toki orreitan, eres-antzerki, Goi-maillako Ikastetxea, Udala, Lege-Etxea, Edesti ta Bolsa-Etxeak, Antze-lan, ta Berezko-Edestiaren etxeak eraiki ziran.

1.866ko urtean austro-prusianoko gudan, Austriak porrot egin ondoren, eta alemanak Prusia eureganatuta, Austria Ungriagaz bat egin bear izan eben, alemanagaitik iruntsitako arrizkuan geratu zalako.

Eta 1.867ko urtean Ungriarekin alkartuta gero, Biena, austroungriatar<sup>(1)</sup> kaisertzaren uri nagusian biurtu zan, Austria, Ungria, Eslobakia, Txekiako Errepublikak, polakoaren Galizia, rumanoaren Transilbania, ukraniako Bukobina ta Ruteniak, Kroazia, Bosnia-Erzego-

(1) Austroungriarrak = Kroatak, Eslobiarak, Bosnioak, Ungaroak, eta Eslobakoaren leifuakaz osotzen zana.



bina, Eslobenia, Alto-Trentino ta Italiako Adijioagaz osotzen zana.

1.916ko urtean lortu eban Bienak bere gizartetasun aundiena 2.239.000 biztanlegaz, eta 1.848-1.916ko urte bitarteak izan ziran, Freud´tar Sigmund buruko gogoaren azterketa edo lortu eban siko-analisi´a, Bauer´tar Otto´ren austromarxismoa, Klimt´tar Gustav´en margolaritza, Moser´tar Koloman´en irudizko-idazkera, bals´eko esku-dantza ta eresi edo soiñua, zalgurdi aundiren ibilaldiak, Bienako akeita-etxearen ugaritasuna, zorakerizko aldi orreitan jendekuntzan lortu eban dirdiratasuna eta abar.

1.914´ko leenengo gudan eta austroungaroaren ondamenagaz, diztaratasun orreik arlo aundienean moztu egingo ziran, bai eta 1.278´tik Absburgotarrek eroan ebezan jaurkitzazko ardurak be bai.

Saint-Germain´eko elkargo bidetik Biena gaur daukan zabaltasunera txikituta, Austria-tarren Errepublika txiker orren uri nagusi lez geratu zan, diru, politikan, eta biztanle arlo-etan berakada aundia eukinda.

Ata guzti, bere Bienako-jakintsuen barrutiagaz, Bienak jakintsu asko euki ebazan Popper´tar Karl, Stxlick´tar Moritz, eta Wittgenstein´tar Ludwig´ek lakoakin, XXn gizaldian eta Europako jakintsuen artean, ardatz edo erdigune lez kokatuko ebana.

1.919-1.934 urte bitartean, gizartekerizko edo sozialismuaren alderdikideagaitik jaurkituta egon zan, "**Biena gorria**"ren izenagaz ezagututa aldi orreitan.

### **III In Reitz´a.**

Biena 1.938ko urterarte iraun eban jendekuntz dirdaitsuan, arik eta erria **katolikotasunezko-Aleman-aberrikoagaitik edo** fazizmoaren eritxiko alemanagaitik menperatuta geratu arte.

1.938ko Epaillaren 14an Biena ostera deitu zan Ostmark´eko Uri-nagusia, eta Hitler´ek bertan emon eban Bienako erritarrai bere lenengo itzaldi ospetsua, Ofburg´eko jauregiaren erdiko begira-tokitik.

Hitlerrek, bakezko baieztasunagaz egin zala erri bien erantsi ori, erriaren eritzia batzeko auteskundeak egin ebazan, eta %´tik-99´73eko autarki artu ebazan bere alde, guztiz eskerniatuta egon ziran auteskunde orreitan.

1.940ko urtean asi zan Munduko-guda orreitan eta amerikarrak sartu ziranetik, Bienak, bonbaketa asko euki ebazan, berak gurasoen-ondore euki ebazan ainbeste ugaritasunezko etxe-bitxitik asko ezereztu ziranak, eta gudalozte sobietar, frantzez, amerikar, eta ingelesakin batera artuta, Berliñek euki eban jaurkin antzeko baten geratuko zan urrengo 10 urteetan.

1.955eko Lorailaren 15´ean Figl´tar Leopold eta Raab´tar Julius´en egipide bidetik eta Mosku´ko itunean artu zan erabagiagaz, Austriak ostera berrezkuratzen dau bere askatasuna, eta ortik aurrera artu eban bere erdikotasunezko antolabidetik, Austria OPEP, O-NUDI´a, IAEA, eta IIASA´ren jar-leku edo erritarren arteko etxea biurtu zanetik, Biena O.N.U.ren irugarren uri-nagusi lez geratu zan, York-Berria<sup>(1)</sup> eta Jinebraren ostetik.

1.955eko urtearen ezkeroztik Europa-Batua eta Stxengen´eko erriaren kidea da, eta

(1) York-Berria = Nueva York.

2.002<sup>ko</sup> urtetik aurrera bere diruzko txeliña kenduta, euroa artu eban bere diru lez.

*“Austriarren erregetza dirdiratsua izan zan, odol-jariozko amaiera euki eban bezela”*

*1.848ko urtean I Franzizko Jose 18 urte gaz Austriako kaisertzara igon ebenean, ez ebazan eskillara orreik ondo igon, Ungriarrak aurka euki ebazalako.*

*Eta 1.849ko urtean Errepublikaren jaurkintza ezarri ebenean, an sortu ziran matxintasunak, Errusiarren gudalostegaz bakarrik bakeztu bear ebezan.*

*I Franzizko Jose kaizerrak, ostera berrezkuratu eban erregetasunarentzat al-osokeria eta gudaloztearen indarra biurtu eban erregetzaren euskarri edo irozkai ori<sup>(1)</sup>.*

*Eta kaisertzazko jaurkintzan erdiratuta aginte guztiak, berak artzen ebazan kaisertzaren erabagi guztiak.*

*1.853ko urtean I Franzizko Jose orrek, gaiztakeri aundi batetik bizirik urten eban eta erria inguratuta egon zan arresitzarren kanpotik, Botibkirtxe<sup>ko</sup> eleiza eraiki eban, artu emon aundia eukiko ebena erriaren azalkuntza edo ta azkeragaz.*

*1.854ko urtean I Franzizko Jose Austriako kaizerra, Babiera<sup>ko</sup> Isabel<sup>egaz</sup> ezkondu zan<sup>(2)</sup>.*

*1.858ko urtean euki eben leenengo semea, eta Rodolfo<sup>ren</sup> izena ipini eutsoen.*

*1.867ko urten I Franzizko Jose eta Isabel, Ungriako erregeak izendatu eben.*

*1.873ko urtean diruzko boltsaren-jokuak porrot egin eban, eta Bienako buruzpideak ez eban kalte aundirik euki, urte aietan Izadiaren Ikustokia<sup>(3)</sup> izan zalako.*

*1.889ko urtean I Franzizko Jose kaiserraren ondorengoa izango zan Rodolfo semea Maria Betsera baronesagaz batera il jakien, printzeak eizarako euki eben jauregian mixteriozko zoritxar baten.*

*1.914ko Bagillaren 28an Sarajebo<sup>ko</sup> errian matxinatu batek, I Franzizko Jose kaiserraren loba Franzizko Fernando eta bere emazte Txotek<sup>tar</sup> Sofia Ohemberg<sup>eko</sup> duke-andrea il ebazanean, Munduko Leenengo guda sortu eban.*

*1.916ko urtean il zan I Franzizko Jose, 68 urtetan kaisertzako jaurkintza eroanda.*

*1.918ko urtearen Azaroan I Franzizko Jose kaizertzaren ondorengoa izan zan I Karlos<sup>ek</sup>, eta guda amaituta gero, azkeneko agiria sinatu ebena, bere jaurkintzazko arduretatik baztertzea zan, baiña I Karlos<sup>ek</sup> ez ebalako argi ta garbi uzte-agiririk egiñ, bere emazte Zita kaisar-andreak, beren eriotzeraiño eskatuko ebazan Austriako kaisar-andrezkotza eta Ungriako erregetzak.*

*Zita kaisar-andre onek, zortzi seme-alaba euki ebazan, eta bera izan zan Lekeittioko eleiz nagusiaren ondoko jauregitzura etorten zana udako oporretan. Gaur itsasoko urakaz eta daukan jatetxe ederragaz, osasunarentzat ur-etxe antzeko baten biurtuta dagoena.*

*Oar-txikian agindutako Ekanduzko-ondorioa.*

(1) Euskarri edo irozkai = soporte de la monarquía. (2) Babierako Isabel = Sisi emperatriz. (3) Izadiaren Ikustokia = Exposición Universal.

Budapesteko gidariari, noren serbitzurako ziran an egiten ziran ainbeste berrizketasunezko lan aundiak: *Euren gizadirako, urrengo belaun-aldia errentzat, ala txangolaritzaren gizadirako* itandu neutson.

Eta beren erantzuna bizkorra izan zan: *“Komunismo edo Sobietarrekin, erria gose an-diagaz ibili zan”*.

*“Eskubitarrarekin bardin”*.

*Eta Kristautasunezko Demokraziarekin geiago edo besteakin beste, lanaren sari edo soldataren erdia Laterriarentzat izanda, eta I.B.A'ren ordainketak %'tik 27'a ordainduta.*

Geiago arritu nintzan, Europaren mendebalekoak baiño aurreratuagoak dagozela ekialdeko lurralde orreetatik esaten danean, oraindiño ikustea, zelan:

a) I San Estebanen koroari *Santutasunezko* esan eta arrerakaz gurtzen dabela.

b) Kaizar-Sakratu agindupeko orreitan, gudalosteko gizonak erri-gizonaren gaiñetik e-gotea.

d) Eta eleizako gauzatan naita iñor ez joan arren, ain oparotsuzko begirapenaren gurtzetagaz ibiltea erdi-mendearen menperatzailetasunezko lege, siniste zuzen ta gogortasunezkoakaz dabizelako.

Gaur eguneko Europa onetan *norkeriz ibiltearren* ikusita, zelako maltxurrezko-lapurztatan edo ta sasi-jainkerizko asmakuntzaren serbitzura ibilteagaitik, zorigaitzezko aukeraren sartuta gagozala, errigizartearen antolamendurako ibili bear doguzan aurretiko<sup>(1)</sup> edo bear bearrezko tresneriak *“Elburutu”* egin jakuz, gainberatu egin doguzelako giza edo ta gizartearen eskubideak. *“Jainkoak Gai-Bereztutako Izadi oneri ipini Eutsoezan Lege guztiaren aurka”*.

Eta *ez daukagula zentzapiderik esan leike*, kaisalerriko menperatzaile-batzangotasunezko bideak sendotzeko, errigizarteak bizitzeko bear dauazan oiñarrizko gauzaren kontrola euki bear dabelako, eta 325ko urtean Nizeako eleiz-batzarrean guzurra-irakatsi<sup>(2)</sup> ondoren, katolikotasunaren arauzko guzur-aundi orregaz, datorren edesti guztitik indarkeriz, eta nai odol-jariozka izan arren, zentzu orreitan jaurkintzea gura dabezelako gure ondore datozen belaun-aldiak, euren bizitza *norkerizko ameskerian iraun dagian*.

Baiña, Jainkoaren legeak ori be badaukie ikusita, eta orregaitik mundu fisiko onetan guzurak ez dauka beste biderik, guzurragaz elikatzea baiño.

Eta gaur egunean gaitz-egokikoak errez ikusten diran lez, norkeriaren maltzurtasunezko guzur orreik agiri agirian agertzen dira, eta errez estalkiaren edozein lekutik tiratu ezkerro, lapurtutakoak agertzea.

Izadi-fisiko onetan lapurtzarako arauak euki ezkerro, nabariak dira agertzen diran emaitzak, *sagasti batek, sagarrak baiño ez dauelako emoten*.

Orregaitik gogoratu bear dogu, Europaren berezko erri-gizon ospatsuenak esan dabena beti, XVIIIn gizaldi azkenean eta XIXgarrengo gizaldiaren asieran asmatu eta aukeratu, ezarri ziran Aberritasunezko Laterri onegaitik: *“Sekula ez dirala izango zuzentasun eta*

(1) Aurretikoak = premisas, o, primeras proposiciones como instrumentos de toda conjugación en toda constructiva vital. (2) Guzurra-irakatsiz = dogmatizar la mentira, o, lo que para esos casos se necesita, fuera de toda costumbre-moral contraria a la leyes impuestas por el Creador que la naturaleza lleva impresas consigo.

*zentsunezko laterriak, bakearen-ordezkaritzarako sorburuzko-legearen eragilletasuna, aldatu edo ta gainberatu egin dabelako norkerizko emaitzaren bidez”.*

Eta ez da *Bakea* bide orreitatik lortzen doguna, *Gosea, Borrokea, Zoritxarra eta Nekagi-ro-Aundiaren bidetik, bizitzeko bear doguzan Tresnerigaitik etenbageko-gudan ibitea baiño, Gaia norkeriaren bidez, jainkotu egin dogulako.*

Jaiotako gizadiarentzat Jainkoaren agindua nire ustez, gure benetako ardura: *“Gaiaren eragilletasuna da, giza edo ta gizartearen serbitzura, daukazan senidetasunezko mailla guztietan.*

*Erljio, Izkuntza, ta Aberrikotasunak kontuan artuta, eurak be diralako gure antolamenduzko arduratan, zuzen eta zentsunezko tresneriak, demokrazizko ordezkaritz onbaten, bakez bizi gaitezen.*

Gure euskal jaurkintzaren ordezkarriak, Agirre ta Lekube'tar Jose Antonio aurretik zala, izan ziran Aleman, Amerikar, Italiar, Frantzez ta abarrekin esaten ebena ori berori *“Kristautasunezko Demokrazia irasi ebenean”* munduko bigarren guda-ostean.

Benetan jakin eben, zergaitik berba egiten eban.

Ordezkaritzazko arloari begira, argi ikusten ebelako: *“Errigizartearen ardurabagetasunean sartu ez-kero, Europa, Amerika ta mundu onen gizarteak, txarto ibiliko giñela”, “Zeruko Jainko Jaunak irasitako izadi au, beren barnean jaioten diran guztien zor-eskubidearen ardurak betetako Egin ebalako”.*

*Ostera txangolaritzaren aria artuta.*

Goizeko 11'tan geratu giñan bidean, eta larritasunatik askatu eta zeozer arututa 11'1/2n ostera igon gendun busera, eguerdiko 1'etan Bienara eltzeko.

Bienara eldu giñanean jatetxe batera eroan ginduzan bazkaltzera, jan ostetik Bienako Uriaren edertasunak ikusteko.

Biena inguratzen eta bota eben ormako kaletik, Ringstrasse'ko kaletik deitzen dana sartu gintzazan eta eres-antzerki, erakus-tokiaren auzunea, Buro Antzokia, eta Udaleko jauregi ederrak ikusi genduzan arratsaldeko zazpirekarte.

7retan eldu giñan ROOMZ arrotzetxe ederrera, eta zorro ta giltzak artuta gure 115eko gelara joan giñan, jantziak apal-tokian egokitzeko eta gure garbitasunak eginda gero afaltzera beratzeko.

Oraingoan, Ernani'ko 8 andra gazte ta zar alaiarekin afaldu gendun, eta mai-osteko elkar-adituzko berbalditsu luze bat ondore, lo egitera joan giñan 10'1/2etan.

*2.013'an Urrilla'ren 19'ko larunbatean eta zazpigarren eguna.*

7retan jagi giñan 8retan gosalduteko, eta busera igon ondoren, Bienako uriak daukazan edertasunak ikustera joan giñan.

Ikustaldi ederra emon geuntson erriari, San Karlos Borromeoren eleiza, 1.884ko urtean egin zan Goi-Maillako Ikastexea, Arratx ta Ferstel jauregi ederrak Freyung'ko kalean dagozenak, San Esteban'en Eleiz-Nagusia, 1.869ko urtean egin zan eres-antzerki'ko jauregi

ederra, Goiko ta Beko Belbedere jauregi aberats eta ospatsuak, arik eta 9'1/2etan Stxönbrunn'eko jauregi aundi ta ederretan, I Maria Teresa, Babierako Isabel (Sisi) eta I Franzisko Jose, bai-ta Napoleon be bizi ziran gelak ikustera, eta inguraturik daukan lorategi edo baratz eder eta zabala.

Arratsaldea aske itxi euskuen, eta Madrilleko Esteban ta Maria Antoniak ez ebelako erritik ibili gura erosketarik egiten, Estebanen anaia Domingo Baskuñana ta bere emazte Nabas'tar Josefagaz urten gendun Lourdes eta nik erosketa orreik egiten.

Alai ibili giñan dendari denda ango gauzak erosi ta ikusten, eta Lourdes'ek Mintegi'tar Josu billobari futboleko alkondara bat agindu eutson lez, bere billa asi giñan.

Ez-gendun aurkitzen alako dendarik eta taxi bat artu gendun, berak aurkitu dagien denda ori, eta ordaintzen joan nintzanean, berak ez eben euki ausi-dirurik, nik, nire diru-zizku'tik asita aurkitzen, batez, garnet-agiri edo ta diruaren-zorroa ezar-leku gaiñean itxita konturatu barik.

Taxisetik beratu gintzazanean, bereala konturatu nintzan diruaren zorroa ezar-lekuan itzi nebala, eta taxise urtetan asi zanean, gure zaratak entzunda geratu zan.

Atea zabaldu nebanean, diru zorroa zelaian egon zan zabalik, eta artu ondoren, ikusi neban tolestuta euki nebazan zortzi 50eko diru-paperrak ez zirala egon, eta berari itandu neutsoenean, berak lepoak altzau ebazan.

Domingo nire laguna taxisen izen-lerroari zenbakiak artuta niregana etorri zan, baiña alperrik ziran gure alegiñak, arik eta nik bere zorroaren xe-diruetatik eta eskuan euki zitzen 50eko bi eta 10eko bat diru paperrak kendu arte.

Ango erri-zaiñari deitzeko egon giñan, baiña ikusita garrantxienateriko garnet-agiriak euki genduzela eta kendu neutsoezan diruagaitik ez ebela berak txistik egin, beste diruak ondo gordeta euki ebazalako, eskua emon neutson esanez *diru orregaz aberastu egiten-baaz, on-egin daietsula.*

Domindo ta ni arrittuta geratu gintzazan gertakizun orregaz, geiago erritarren diru kontuan, munduko errien artean leen amarren artean dagoela jakinda.

Baiña goian azaldu dautsuet zelan, erromatarren Kaizar-Katolikotasunezko usai sakona daukiela Europako erdi inguru orreik, eta ez dago geiago zertan burutapen orreitan ibili, nondik eraginda agertzen diran maltzurtasunezko lapurtza orrean emaitzak jakiteko.

### *2.013'an Urrilla'ren 20'ko Igandea eta zortzigarren eguna.*

Egun onetan, aruntz egin gendun bidai bardiña egin gendun onuntz'erakoan.

Atutxa'tar Paul

Zornotzan 2.014'an Urtarrilla'ren 15'ean



# ZUBIKARAI eta BEDIAUNAETA'tar AUGUSTIN JAIO ZANETIK, BERE 100 URTE BETETZEAN GOGORATZEN

1.914'ko Azilla'ren 3'tik - 2.004'ko Uztaila'ren 12'rarte -2.014'ko Azilla'ren 3'an

*Euskerazaleak Alkartearen erakundeak omenez, Augustin'eri oroipengarri lez egiten dautson idaz-lan onen arrazoi nagusia: Augustinen Euskal- zintzotasunezko-semetasun ta euskal-aberriagaitik eukan ardura betea, gure gaurko belaun-aldi edo gaztetasunari aurkeztea da, alako ERRALDOI irudiak bear doguzelako gure gazteen artean, jakin degien, EURAK izan ba zirela, gure gaurko GAZTEAK be, al izan leikezala, gure Euskal-erri maite oneri, espainol lokatzarteakaz daukazan korapilloetatik, askatasunezko argitasunera atara dagian, eta Iparagirrek esaten eban lez: "bizi onetan, Jainkoaren askatasunezko ERRILEGEAN emankorra izan edin". Askatasunezko nortasunean aundiagokoak izan ezkeru, alkartasun aundiagoak lortzen diralako.*

## **SARRERA.**

Lourdes nire emaztea eta ni, Galdakoko gaisotegira joan gintzazan Bilbao ta Badiola'tar Ibon larru-osagillearengana, eta bera Ondarrutar-lez aurkeztu zanean, nik Augustin izeneko lagun aundi bat euki nebala Ondarrun esan neutson, eta Lourdesek, ezagutzen ete eban itandu eutsonean, berak: "itaun ori ez zala egin bear era ortan, alderantziz baiño esan eutson", itauna: "ia baten bat ba-egoan Ondarrun, Augustin ez ebana ezagutzen".

1.978-9ko urte artean ezagutu neban Augustin, Aita Santi Onaindiagaz asi ta gero, eta biekaz ibilita, ondo ezagututako gizona izan zala Euskal-erriko zazpi lurraldeetan konturatu nintzan, bere idaz-lan ta antzerkiak, ezagutzen ez ziran azkeneko lekuraiño eltzen ziralako.

Lagun artean zirikalari zorrotzak izan arren, berba motz eta benaz edo ziñezko gizonak izan ziran edozein arazo baten aurrean, eurakaz ni uste osoan agertuta beti, maisu ta guraso lez euki nebazalako.

Eusko Alderdi Jeltzalezkoak izan ziran beti, euren uste edo eritzizko Euskal-errian, ez ebelako onartzen alderdikieririk, Euskal-Etxe-Nagusiari begira nortasun aundiko neurrian, seme-alabaren askatasunezko demokraziaren zintzotasuna baiño ez ebelako eskatzen.

Gure Euskal-askatasunezko demokraziaren izatezko aberritasunlako baten, ez ebelako ulertzen alderdikieririk, eta benetan diñotsuet oso minduta geratzen ziralako, aldikada baten gure artean sarri agertzen ziran banaketakaz.

Augustiñek ziur nago, bere bizitzaren benetako eskeintza egin eutsela Jainko, etxe txiki ta etxe nagusiari, orrean maitasun-gar bagerik bestela, ezin dalako ulertu, bere aiñ ugaritasunezko euskal lana.

Gure artean berbetan egoten giñela, bereala igertzen jakon euskerea amalez, maite eukela.

ZUBIKARAI eta BEDIAUNAETA'tar AUGUSTINEN AURKEZPENEA.

Ondarroa'n jaio zan Zubikarai eta Bedialauneta'tar Augustin, Zubukarai'tar Salvador arotza ta Bedialauneta'tar Ana bere gurasoen bidez, bederatzi anai-arrebaren artean irugarrena zana.

Gurutzeko Alaba lekaimen eskolan egin ebazan bere lenengo ikasketak.

11 urtetik 15'erañokoak, Saturrarango Abadegai Seminarioan.

Beste urte bete egin eban Gasteiz'eko apaiz-gaitegian, etxetik ikasita gaisotu zanean, eta zori-txarreko inguru onen ondorioz, apaiz izateko gogoak oztuta, filosofi edo eraman onaren lenengo urtean baztertu ebazan ikasketa orreik.

Ondarruko Luistarren zuzendari ipini eben Augustin, gazteen artean sinismen eta aber-tzaletasunezko zentzunean, mailla aundiko neurrian lan eginda.

1.864'ko urtean jaiota, 1.920'ko urtean il jakun Ondarruko seme Agirre'tar Txomin, Bizkai'tar apaiz idazle ta abertzale aundia, Augustiñek sei urte eukezala, eta balekite apaiz-tegian egon zanean, Txomiñen "KRESALA" liburulakoak gazterik itzartu ebela euskal idaz-lanetara, gero Orixe artuta maisu lez.

1.933'ko urtean, "Zornotza'ko Jaungiko Zale" illeroko aldizkarian eta "Ekin"eko astekarian bere lenengo saiokaz asiko zan lan egiten, baiña barriro makalduta, bere etxetik egingo zituzen urrengo idaz lanak urte bi aldiz.

1.933'ko urtetik aurrera, alde batetik antziñeko politikaren guda aldietako bildurragaitik etorten ziralako oztonduteko ez izen orreik, eta bestetik orduko egoera politikoak alan beartzen ebazalako, asi zan idazten ordeko izen oneikaz, guda aurretik: "Amezti", "Arteta", "Gurutz", "Itxas-ertz", "Zubegi", "Kutuntxu de Arribai", "Ibai Ondo", "Ondarzubí", eta abar, "Ekin", "Euzkadi", "Euzko", "Gudari", "Argia", ta abarreko aldizkarietan.

1.934'ko urtean eta 20 urte zituzenean, len-aldiz erakutsiko eban Augustiñek bere lenengo "Aberrijagaz Bizi"koaren antzerki lanagaz, euken idaz zaletasuna eta griña, Euskadi aldizkarian argitaratuta. Aldizkari orretan 38 antzerkiko izen buru argitaratuz 1.987'ko urterarte. Bertarako be, ainbat gaztelerazko lan eginda.

1.936ko urtean sortu zan espainako guda, eta frankotarrak urreratu ziranean, Augustiñek iges egin bear izan eban Iparraldera, eta or bertan egoala Eskualduna astekarirako idazlan batzuk eginda, bilbora joan zan laster, "Euzkadi" aldizkarirako lan egiten.

1.937ko Urtarrilla'ren 1'etik asita, urte bereko Bagilla'ren 19'arte, Ziarsolo ta Abeletxe'tar Manu'k bere euskerazko aldizkari barri baten asmamenakin Augustiñengana joanda, euskera utsean egingo eben egunkari barri "Eguna"n lan egin eban zuzendari orde lez, Erkiaga'tar Eusebio, Arizmendiarieta'tar Jose Mari, eta Mendizabal'tar Alex laguntzaileakaz, Ziarsolo ta Abeletxe'tarren zuzendaritzapean.

Bilbo galdu ondoren, Zalla ta Karrantzako noragabeko bideetatik ibilita, Santanderreko Santoña'n eta Asturias'eko aldetik ibili zan "Aralar"eko batalloi taldearen gudari lez, Laredora itzuli eta bertan baitu arte.

Baitu ondoren, Duero'ko Arandan, Kastro, Ebro'ko Miranda'n, Nafarroa'ko Oteiza de la Solana'ko batzangotasunezko zelaietatik zigorrezko lanetan ibili ondoren, Guadalajara'ren Mirabueno'ko gudatokietan, 64'n batalloi-langille lez ibilita, Katalunian agertu ziran.

1.939'ko urtean Urtarrilla'ren 4'an Zaragozan egoanean, Eguna'ko idazle zan lez, estu artu eban epaitegietan eta egun batzuk Azpeitia ta Donostia'ko espeetxetan ibili ondoren, espainol'tar 9 izparkarien truke, 9 euskal izparkari askatuko ebezan, artean Augustin

egoala, eta an askatuta Bartzelonan babesteko muga aldatu bear izan eban lez, an egon zirala egun batzuen baimena artuta, Bartzelona galdu zan, eurak lenengo Endaia, Ziburu'n, eta gero Landes'etako Labenne'tik ibilita.

Frantzeztarrak zoritxarrez, Alemaniak sortutako gerratean sartu bear izan eben, eta Augustin bere lagunakaz, Lannemezán eta Tarbes'eko iskillotegietan lan egin bear izan eben, arik eta Alemanak sartu arte.

Etixerako ustetan urten eban Augustiñek Frantzitik, eta Frankoren ertzain izkutukoak arrapatuta, lenengo Figeras'eko espetxean eta gero zigorpeko batalloi baten Jibraltarren aurreko "Las Inbiernas"etara bialdu eben zigortuta.

1.941'eko urtean etxerau zan Augustin, ez berak, lagunen arteko txantxetan, igarotako gertakizun orregaitik: "1.936'ko urtearen udako gau baten, etxetik aste baterako izango zalakoan urten, eta 1.941'eko negu gordiñean etxeratu nintzan", esan barik.

1.941'eko urtean etxeratuta egoala, Mutriku'ko altxa-arraina'ren<sup>(1)</sup> Arruti'ko lantegitik deia artuta, lantegiko idazkaritzan lan egiteko onartu ebenagaz, bertan bete egin ebazan urrengo berrogeitabi urteak, arik eta zar-saritu zan arte.

1.942'ko urtearen Urrilla'n ezkondu zan Ea'ko Erkiaga ta Aldamiz'tar Maria'gaz. Sei seme-alaba eder euki zituzen, Jose Augustin Deia'ko egunkarian lan egiten ebana, Joan Antón, Alejandro, Beatriz Ondarrun andereño dana, eta Maria Jesús Markiñan, Jabier'egaz osotuta euskal kabi eder ori.

Maria ta Augustiñek sendiko bizitzari ondoen erantzuteko, Mutriku'ko Arruti lantegi ta euren etxeko dendaren ardurak ondo eroanda lortu eben.

Augustinek emendik aurrera, iru zatitan bananduko eban bere bizitza: sendiaren bizitza gure euskaltasunezko nortasunean sendotzeko; Arruti'ko altxa-arraina'ren lantegian lan eginda sendia aurrera atarateko; eta euskal-seme zintzo-lez, Euskalerrriaren espainol menpetasuna gure lepo gaiñetik kentzearren, al eben arlo guztietan biotzezko maitetasun guztiagaz, etenbageko idaz-lan bikaiña egiñaz.

Erria eukan iturri Augustin'ek, eta erriak oraindiño daukazan eragozpenetatik artzen ebazan barriakaz maisutu<sup>(2)</sup> zan neurriko mailla aundienean, eta ardurazko neurri orreitan eskaiñi eutsen Augustiñek: Sendi, Euskalerra ta Jaungoikua'ri, bere bizitzazko eginkizun guztiak.

Guda ostetik Augustin'ek ibili zituzen ordezeko izenak: "Z'tar A", "Zubegi", ta "Ondar-zubi"ko izen ordeak izan ziran. "Karmel", "Zeruko Argia", "Egan", "Redenciòn", "Olerti", "Deia", "Diario Vasco", "ZER", "Euskerazaintza ta abarreko aldizkarietan idazteko.

1.945'eko urtean "ITSASORA" argitaratu eban, Biarritz'eko Euskal Lore jokoetan sari-tua izan zana.

1.950'tik 1.965'eko urte bitartean, Ondarrun ataraten zan "Boga-Boga" aldizkarian be lankide izan zan.

1.956'ko urten "SEASKA INGURUAN" argitaratu eban, Donostian saritua izan zana.

1.961'eko urtean, Euskaltzaindiko urgazle izendatu eben.

1.963'ko urtean, "IRU ALABA" argitaratu eban, Toribio Alzaga'ren saria artuta.

1.967'ko urtean, "GIZON ON ETA ANDREA ERRE" argitaratu eban, Gipuzkoa sari-ketan aipatua izan zana.

(1) Altxa-arraina'ren Arruti'ko lantegitik = fàbrica de coserva de pescado de Arruti. (2) Bera maisutu = auto didacta.

1.967'ko urtean jaio zan EUSKERA ERABILTEKO ALKARTASUNA edo Euskerazaleen Alkartea, Oleaga'tar Jesús, Olaizola'tar Jose M<sup>a</sup>, Gonzalez ta Etxegarai'tar Karlos M<sup>a</sup>, Berrojalbiz'tar Julia, Montiano'tar Jose Antonio, Uriarte'tar Kastor, Ezpeleta'tar Jose, Zelaya'tar Adrian, Astiz'tar Migel A., Urkijo'tar Juan Ramon, Erkiaga'tar Eusebio, Zubizarreta'tar Fernando, Martin de Retana'tar Jose M<sup>a</sup>, Zugazaga'tar Leopoldo, Bengoa'tar Jose Luis, eta Atxa'tar Jesús'ekin.

Augustin, nai ta bere ezagun ta lagun guztiak, Bilbon eta Bizkai guztirako aukeratu zan Euskerazaleen zuzendaritzazko batzorde orretan ez egon arren, laster eskaiñi eutsoen bera ta beren lagun aundiak ziran Onaindia'tar Aita Santi, Olazar'tar Martin'ek eta abar, euren laguntza osoa il ziran arte.

1.968'ko urtean, "LURRUNPEAN" argitaratu eban, Gipuzkoa'ko saria artuko ebena.

1.969'ko urtean, "ERREKONDUAN" argitaratu eban, Gipuzkoa'ko saria artuta.

1.969'ko urte berean, "MENDU ZARRAK" argitaratu eban, Toribio Alzaga'ren saria artuta.

1.969'ko urtetik, KONDAIRA edo EDESTIKO 13 liburu argitaratu ebazan "MOTRIKU" erritik asi ta 1.993'ko urtean "ONDARRU" gaz amaituta.

1.977ko Uztaillan agertu zan gure lenengo "ZER" Euskerazaleak Alkartearen illeroko aldizkaria, eta Augustin berton ez egon arren, 1.977ko Irailla'ren bigarrenengo zenbakian agertzen jaku Ondarru'tar Txomin Agirre'ren buruz'egindako idaz-lan eder bategaz, ortik aurrera, etenbageko lan eginda "ZER" aldizkariarentzat.

1.978'ko urtean, Kardaberazen ondorioz eta izatasun beretik jaioko zan gure EUSKERAZAINTZA, euskerearen eztabaidako kezka baten eta berotasunezko bidetik Euskerearen eskubide biziak zaintzeko alegiñean, 1.979'ko Azaroa'ren 23'an Madrilletik Erri-Zuduzko<sup>(1)</sup>-Elkarte lez izendatu zana, eta or egon zan gure Augustin, ainbat gizon aundi ta arduradun artean.

Berak idatzi eban "EUSKAL SENIK, EZ DAIGUN GALDU", 1.991'ko Euskerazaintzaren aldizkarian.

Augustin, ainbat denboran izan zan Euskerazaintzaren lendakari ordea.

1.978'ko urtetik 1.986'ko urterarte, IPUI-BERRI edo ELE-BERRI'ko zortzi liburu argitaratu ebazan.

Artean: 1.978'ko urtean, "BALE DENBORAK" espain-laterriko aldetik Irizpide edo Kritikako saria artuko ebena.

1.979'ko urtean Bilbao'n, Txomin Agirre'ren saria Artuko eban "ANTON GUZURRETXE" argitaratu ebenean.

1.980'ko urtean, "LAIÑOAK MUNDAKAN" argitaratu eban, Etxeita'ren saria artuta.

1.981'ean, "IRA USAIÑA" Etxeitaren saria artu ebena.

Eta 1.981'eko urte berean, "MON-DAKA" argitaratu eban, Etxeita'ren bigarren saria artu ebena.

1.981'eko urtean, "ARRANONDO" aldizkariaren zuzendaria izendatu eben, eta ardura ori eroan eban gaisotu zan arte.

1.979'ko urtetik asi ta 1.991'ko urtean amaituta, KONTAKISUNEN sei liburu argitaratu ebazan, Bilbao'n 1.979'ko urtean, Azkuen saria artuta "ESAN ETA ESANGO" liburua

(1) Erri-Zuduzko- Elkartea = de utilidad pública. "ZUDU" = ARRETA, ARDURA.

argitaratu ebanagaitik.

1.983'eko urtean, "MENDI TA ITSASO" argitaratu eban, Markiña'ko Lore Jokoetan saritua izan zana.

1.986'ko Jorrailla'ren 18'an, Foru Aldundiak omendu eban, saria, Makuatar Jose Mari-ren eskutik artuta. Ainbat erakunde be bildu ziran Augustin omentzeko, Labayru'ko ikaste-gia urte onetan, eta 1.991'ko urtean Euskadiko IX. Euskal Antzerki Topaketak, eta abar.

1.986'ko urtean, "ARTEA'KO ITSUA" argitaratu eban, Foru Aldundiko saria artuta. Orrez gain Augustiñek, leiaketa askotan bere idaz-lanak aurkeztu ebazan, irabazikoaren laguntzagaz aurrera egiteko.

1.992'ko Urria'n eta Azaroa'n, ondo merezitako omenaldiak egin eutsozan Ondarruko erriak Augustin'eri, bere izeneko enparantzan, gerritik gorako bere irudia ezarri zabalgunearetan, eta Ondarruko Seme-Bikaiña izendatuta, beren liburuaren erakusketa bat egiteagaz.

1.993'ko urtean, "OOREZKO EUSKALTZAIN" izendatu eben Euskaltzindikoak.

1.994ko urtean, "333 OROIPEN ETA IKUSPEGI" Bilbao'n argitaratutako liburua. Augustine'k egindako idaz-lan guztiaren laburpen bat eginda, lan kopuru au agertzen jaku: 71 liburu, eta 4.000 idaz-lan labur, eta kopuru guztitik 25 lan sarituak izan zirenak. 1.995'eko urtean ARANA TA GOIRI'TAR SABINO'REN azkeneko saria artuta.

### AUGUSTIN'ERI-BURUZ, ONDORIO LEZ ESAN BEAR DOTENA.

*Kromaño'n arbasoetatik asi eta Paleolítico Neolítico bitartean lortuta oraindiño gaur odol-bizi-bizian daukagun askatasunezko demokraziaren baita onen bidez, gure Euskal-erri maite onek, biografia edo bizi-kondaira askoko gizon aundiak emon dabezala esan bear dot, gure zor-eskubideetan izatezko demokrazi onek, asmakizun aundiko sortzailletasunean ezartzen gaitulako.*

*Bereziki azpimarratuak dagozan Agirre'tar Txomin, Loidi, Bilintx, Etxaniz'tar Nemesio, Akesolo'tar Lino, Onaindia'tar Santi, Xalbador, eta ainbat euskalzale abertzaleak aipatzen dauz Augustin'ek, ondo baiño obeto dakielako nolako zorrak daukezan gure erriaren nortasunezko Euskereak eurokin.*

*Euskal-erriak daukan bereiztasunezko baita au baiña, norkerizko alderdikeriaren aurka oso aukera-bagekoa izan da, ekialdetik menperatzailetasunezko ekintzan agertu ziran ainbat leiñu Europa'ren mendebal onetara, eta mendebal onetan erromatar kaiser-tzak sortu ziranakin, Europa guzti au menpetasunezko norkeriaren zaletasunean biur-tzeko, eta errigizarteak morroitasunean batzangotzeko, bizitzeko bear eben guztia kontrolatuko alegiñetan ibili arren.*

*Amaibako eskerrak emon bear dautsaguz Jaungoikua'ri ZUBIKARAI ta BEDIALA-UNETA'tar AUGUSTIN'lako gizonak eukiteagaz, gaur mirari aundia bat dalako Paleolítico-Neolítico bitartean lortu genduzan askatasunaren demokrazizko baitakin aitor-lez, gaur gure Euskal-erri maite onetan agertzeagaz.*

*Gure Euskal-erri maite onen giza-seme-alabak, bizitzaren eskubideko zor-ordezkaritza-zen ekintzan, munduko giza guztien antzera asmatzailetasunezko almenak bakarrik eukinda, kundeatzaille edo berezko legearen ekanduzko ardura aundikoak izanez gaiñ, asmakizun orreitan sortzailetasunezko bereiztasunean agertzen gara, eta esker aundiak*



emon bearrean agertzen gara euskaldun guztiak AUGUSTIN' lako gizonari, Euskalerririk bere edestian lortu dauazan ekanduzko izar bitxiak, gaurko eguneraiño ekarteagaz bakarrik.

Jaungoikuak bereztutako legeari begira, bereztasunezko ekintza orreitan agertzen dalako benetako maitetasuna Euskal-Askatasunezko-Demokraziaren-Nortasunezko-Oitura' gaitik.

Atutxa'tar Paul  
Zornotzan 2.014'an Urrilla'ren 24'an

### Oar txiko bat.

Augustin'en liburu guztiak *Euskerazaleak* web orrian daukasuez.

# EUSKERAZAINTZAREN ERAKUNDEAN

## 2.013ko urtean lortukoak eta 2.014ko urtean LORTZEKOAK

Aurreko urteetako batzarretan izan dogun oitureari jarraituz, gaurko nire idaz lan au gauza bi adierazteko izango da: Joan dan urtean zer egin dogun eta 14koan zer egin bear dogun.

Bi milla ta amalagarren urtean gagoz.

Epaillak ogeitazazpi daukozala.

Urtero lez, gure lanen aleak batuteko garaia eldu jaku.

Begiradatu bat egingo dautsogu batutako orreri.

Lenengo ta bein, egin doguna ikusi eta gero zer, zelan jokatu geinken aurrerantzean.

Beti be gauzak ondo egotetik, obetu gurean.

### LORTUAK:

Euskerazaleak. Alkarteak daukan etxean illeroko Batzarretan osotu dogu alkar lana geuk geure eralkietatik erdiak ordainduz.

Euskerazaleak-Alkartean gugaz egon diranak betiko antzera doaz.

Atutxatar Paulok bete dau Batzarreko idazkari lana gure agiritegian zaintzen da.

Urtean bitan argitaratzen dogu EUSKERAZAINTZA aldizkaria eta aurten be alantxe egin dogu. Gai sakon eta naiko luzeakaz osotuta.

Gauza bat esan bear dogu. Ezin dogula luzatu Aldizkaria 100 orrialdetik gora. Arrazoi bigaitik: Bidalgoa askoz

garestiago litzakelako batetik, eta bestetik ez lizakela sartuko daukoguzan eskutiz azaletan.

Alan da be esan bear 100 orrialde gitxitzat joten dogula. Interneteko lana be aitu bear dogu. Lan bikaiña zalantza barik.

Or agertzen doguz EUSKERAZAINTZAREN aldizkari guztiak.

Kardaberaz'en bilduma, Arrinda'tar Anes'en idazkiak eta liburuak, San Sebastian ta Zubillagatar Jose Marik (Latxaga) idatzi dauzan liburuak eta Umandiren Asmo Iztegia iztegitintzan sartuta daukaguz, eta 2.011'n Gabirelen idaz-lanak be sartu genduzan.

Bilbaoko Foru Aldundiari diru laguntza eskatuaz.

Eta Euskerazaleak Alkartearen izenean, idazle askoren liburu ta idazkiak sartuta daukoguz. Esate baterako: Aita Lino Akesolo, Aita Santi Onaindia, Augustin Zubikarai, Bizente Latiegi, Iñaki Zubiri, Martin Olazar, Paulin Solozabal, ZER eta Euskerazaintzaren aldizkariak eta abar.

Lan aundia da emen egiten dana. Aldundiaren laguntza be oso ona da.

Sartu doguzan idazkiak sartu doguzelako, mundu guztian lenengoak gara arlo onetan 70.000 biztale baiño geiagorekin eta Euskerazaleen biztanleak 500.000tik gora direzela.

### LORTZEKOAK:

- 1º Euskerazaintza Aldizkaria ateraten jarraituko dogu besterik esan ezean. Urtean bi edo irutan.

2º.- EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN etxean illero, jagokun illearen eguenean, batzarrak egiten jarraituko dogu.

Batzar agirien ardurea Atutxatar Paulok daroa.

3º.- INTERNETEKO lanakaz be jarraituko dogu.

4º.- Gure Batzarra, ontzat dago artuta Eusko Jaurlaritzan.

LENDAKARIA

IDAZKARIA

Barroeta'tar Klaudio

Atutxa'tar Paul

# Europako laterrien lapurkerizko arauak eta berezko erriak

Bilbaon 2.014'an Azillaren 28'an

Euskerazale Alkartearen etxeko "Euskal Astearen itzaldia"

## 1. Zatian.

### *Sarrera.*

Iru ospakizun eder euki doguz joandako Azaroaren 13, 14 eta 15eko egunetan, gure Ondarru ta Zornotzako erri maite bi onetan.

13ko eguenean Ondarru'ko Arrantzaleen Anaitegi Zarrean, Etxano ta Barela'tar M<sup>a</sup> Dolores'ek, Arranondo Elkartearen jakite edo kultur arloan buru danakaitik, Zubikarai eta Bedialauneta'tar Augustin'en jaio zanetik 100 urte bete dirala, eta berak sortu eben Arranondoko aldizkari bereziari buruz, aurkeztu euskun izango zala omenaldi au.

Mai buruan, gure Aristondo'tar Miren Josune, Foru Aldundiaren jendekuntz bulegoko ordezkaria, eta Urrutia'tar Andres Euskaltzain burua maikideak euki genduzela, ondo baiño obeto ospatu gendun, Zubikarai'tar Augustinek euskal nortasunezko gizabidez ta maitasun aundiz bere bizitzan egin ebazan lanak eta gizatasunez euken jarraibidezko irudia gogoratzen.

14'garren eguneko barikuan, Zornotzako Entzule-Bulegoan<sup>(1)</sup> gure Erkoreka'tar Josu'k, Madrilletik kanpo, Euskal Udaletan ezarriko diran lege barrien buruz berba egin eban. Ondo baiño obeto argituta aurkeztu euskuzanak.

Eta 15'eko larunbatean Zornotzako Udal-enparantzan, Eusko Alderdi Jeltzale'ko Bizkai Buru Batzarraren lendakaria dan Ortuzar'tar Andoni'ren eskutik, 1.914 - 2.014'ko urte bitartean Urrengoetxea'tar Luis Zornotzako lenengo alkate abertzaletik asita gaur arteko Udal-jaurkintzan 100 urte betetzeari buruz aurkeztu euskuzanak, gure Zornotzako udalaren alkate bikain dan Latxaga'tar Dabiz be, beste izlari artean dala, eta baita 1.978 aldaketatik Zornotzaren erriko jaurkintzan egin diran zentzun aundiko eginkizunak aurkeztuta, itzaldizko-batzar buru orretan bizirik geratzen diran zinegotziak, aurrez edo leku berezian ezarrita dagozela.

Gurí arduratzen jakuna baiña, 14'ko eguen egunekoa da, gure Erkoreka'tar Josu'k Udal lege barri orren itzaldi amaieran egon zanean eta espainako jaurkintzaren bidez egiten diran lapurtzak gaiñetik ikutu ziranean, nik Laterriak lapurtzaille lez agertzea zergaitik dan edo ta lapurtza orren sorburua zein dan argitu gura neban.

Baita bide batez, zelango alegiñak egin ebezan gure guda aurreko euskal-jaurkintzaren Agirre'tar Jose Antonio, Irujo, Ajuriagerra, Landaburu eta Leizaolak, Italia, Frantzia eta Alemania'ko Adenauer'tar Konrad arduradunakaz batera In munduko guda ostean, berezko errigizartearen eskubideen lapurkerian ezarri ziran Europako Laterriaren aurka, ta Europak eukezan berezko errigizartearen eskubide alde.

(1) Entzule-bulegoa = sala Auditorio o de oyentes, o sala para la concurrencia de oyentes.



-Eta ezinean, zergaitik zabaldu ebezan Kristautasunezko demokraziaren bideak, berezko erri arduradunaren egiak azalkatzeko, bai ta zer gertatu zan Kristau demokrazi orregaz, espainiko jaurkintza Aznarrek bideratzen ebanean.

Itauna azalkatzen ibili nintzanean ta edestiaren kondaira luzean sartzen giñelako, bereala konturatu nintzan, ez zala egon giñan batzarraren gaia, eta idaz-lan au da nire ustez, batzar areitan nekez argituko zan mamia, Laterrizko zentzuak argitzeko bakarrik, beste itzaldizko batzar berezi bat bear ebalako.

### *Aurkezpena.*

Lapurkerian ezarri ziran Laterriak diñot, Europako batzango zaleak norkeiz, antziñatik eta indarrez ezarri ebazan legezko arauak, Europaren giza seme alaba ta errigizartearen jaurkintzarako, Jainkoak mundu oneri ipini eutsozan legearen aurkakoak diralako.

Europako mendebal onetan, Paleolítico Neolítico bitartean bizi ziran giza seme-alabak, ta berezko azturan bizitzari bildur edo ta lotsazko begirun aundiz demokrazizko batzarraren oiturean baituta, berezko legearen eskubidetan nortasunduta askatu ziran giza-seme-alaba ta errigizarteari.

-Andimandikeriaren maltzurrezkoak, euren jakintasun geiagoko ustez ta eskubideetan geiagoak diralakoan, edo eta Jainkoak jaiotzatik gure arimazko baitan ozkatu<sup>(1)</sup> euskuzan eragilletasunezko ardura orreik ez dabelako onartzen, bereztasunaren legetik kanpo, eurak asmatutako Laterrietan batzangotu gurean, lortu genduzan askatasunezko eskubideak lapurtu edo kendu gura dauskuez ezeren lotsabarik, eta K.ostetik berezko legearen gaiñean, norkeizko lege orreik ezarri gurearen eztabaidakaz, sekula ez dogu bakerik euki.

Ez da izando erreza, Jaungoikoak gure arimetan baldinpetu egin ebazan baitazko lege orreik, iñork aienatzea. Gauza orreik, gure eskubidetik kanpo dagozelako, eta eztanda egiten dabe orregaitik, norkeiz alegintzen garanean.

Europa onen errigizarteak mende asmakuntzan jaurkitzeko, batzuen ustez eta euren buruak jakituntzat daukiezenagaitik, orain 2.000 urtetik ona datorren gauza da.

Europa onen askatasunezko demokraziaren zentzuzko mendebalera, ekialdetik norkeiz edo ta bultzatuta agertuz, salerosle ta agintaritzazko arloaren batzango zaleak agertu ziran ugari, ainbat eztabaidazko urduritasunak sortuta.

Europako gizartea, jaurkintzaren zalantzazko bizi-larri orreitan agertu ostean, Etruskoek sortarazten eben salerosteko uriak lapurretatik babesteko, laukiko-erroma espartarren guda oiturean sortuko eben, eta erromatar gudalozte orreik erraildotzen joanda kaisertzaren mailla artuta, Europa, Asia ta Afrika osoak euren aginpean batzangotzeko alegiñean, milla zati geiagotan banandu eta nastekatuko ebazan iru lurralde orreitako errigizarte ta izkuntzak sazkildu ondoren.

Mundu fisiko onetan ta borrokazko elburu orreikaz, batzuen maldaberan besteak goraldu egiten diralako, eta agintezko buruan beti ezin dalako iraun, laguntza billa asi ziran erromatar gudalari orreik, ia errigizartearen menpetasunezko batzangotasun alegiñ orreik aurrera eroaten ba ebezan kaisertzazko jaurkintzan, eta zabal ta indartsu egoan Kristau

(1) Ozkatuta = esculpir, grabar, imprimir.

erlijioagaz alkartu ziran, oneik be eurakaz egin ebezan sarraskietatik urteteko eta euren sinismenak aurrera erroteko, erromatar kaisertzagaz alkartuta.

Eta Kristautasuna katoliko alderdikidetu zanetik ona ezartzen dira okerreko erabagi aundiak, edestian zear etenbako ziñeskintzaren arauzko goraldian gogortzen joan zirenak eta oraindiño ezin doguzenak lepotik kendu, berezko errigizarte ta izkuntzaren eskubideai ainbeste kalte egiten dautsezan, guzurraren norkerizko arrazoikeri orreik.

### *Edesti laburra.*

Leen, I Konstatinogaz asten da aurrez ikuste au, baiña lenengo esan bear dana: K.a.241, 240ko urtetan erromatarrak jaurkintzazko bide okerrak artuta, zelan joan ziran kaisertzaren billa, erromatarren barruko arazoak Sikka Beneriako urian asita, erriaren bemaillako sendi oso aberats batzuk, errigurasoen sendiakaz alkartuta, beste erritarrak, zentzunezko legearen jaurkintzatik bastartu ebazalako.

Eta Jaurkintza guztia euren eskuetan eukinda, andimandikeria, apainkeria eta kirkilleriak ezin besterarte goralduta, zelan euren arbasoen goimaillako oiturak eta orekazko ekanduak, neurri aundi baten galdu ebazan.

Orren ondorioz, lur zabalen etxagunak agertu ziranean, berezko baserritarren zuntsitzea edo ta ezeztatzea agertu zala, menpetasunezko jopukeriak indar aundia artuta.

Eta goitik bera batzangotzeko euki ebazan erromatar kaisertzaren norkerizko lege orreik izango ziran aurrerantzean, xumetasundu, bir-billautu ta bir-morroitu<sup>(1)</sup> egingo ebazanak Europaren erdi-mende guztiko errigizarteak, arik eta 1.789ko urtean Frantziko iraultza egin zan arte. Naita zoritxarrez gero, arau sorta orreikaz iraun gaurko egunerarte.

### *Edestiaren aria barriz artuta:*

K.o.284ko urtean Dioklezianok kaisertzara igon ebanean, erromatar agintari guztiak ibili ziran borroka utsean, norbera kaisertzazko agintaritzan ezartzeko.

K.o.306ko urtean azken baten, I Konstantino ta Majenzioren artean egin zan guda au, eta I Konstantinok kristautasunaren laguntzagaz igon eban erromatar kaisar jauntzara, baiña oraindiño ekialdeko kaisertzagaz alkartzeko borroka geiago egin bear eta:

K.o.310eko urtean I Konstantinok, Maximianori irabazi eutson.

K.o.311ko urtean Kristau sinismenaren indar aundia ikusita eta euren laguntza lortzeko, Galenok Sardikako legearen bidez, kristautasunaren jaiarauak askatu ebazan.

K.o.312ko urtean I Konstantinok, Italiako lurraldearen menpekotasuna asten dau eta Majensiori Milbioko zubiaren borrokan irabazi eutsoenean, 300 urteko pretoraren aginteak, euren "Pax Romana"ren zeregiñ guztiakaz ezereztu ebazan.

K.o.313ko urtean I Konstantinok, Kordobako Osio gotzaiñaren aolku bidez, kristauaren aurkako legeak jasangarrizkoak izan zitezen alegindu zan, eta Milaneko agindua emon ondoren Baleriok baieztuta, Galenok kristau guztiak askatu ebazan kristauen aurkako arau bide orretatik.

(1) Xumetasundu, bir-billautu edo ta bir-morroitu egingo ebazanak Europaren aurrerako errigizarteak = aptitudes caprichosas que convertirian ala sociedad, o mujeres-hombres de los pueblos Europeos en valvasores, esto es "vasallos de vasallos" o su onivoco: en "doblemente esclavos".

K.o.318ko urtean, Jesusen jainkotasunezko izatasunaren gora berak, 268ko urtean Antiokian egin ziran eleiz batzarretan baiño ariñaukoak izan arren, Arriok aurkeztu ebezan eritziakaz asi ziran Jesusen gora berako arrianismoaren eztabaida gogorak, Alejandriako San Alejandro gotzaia aurrez aurkari eukela, eta Nikomediako gotzai Zezareako Eusebio ta I Konstantino aundiaren laguntza euki arren, 320, 321eko urtetan Alejandrian, Ejipto eta Libiako 100 gotzai baiño geiagorekin egin ziran eleiz batzarretan, Arrio exkomunikatu ta erbesteratu eban Alejandrok, 322, 323ko urtetan naigabeko ta asarre orreitatik erlijiozko eztabaidak gogortu ebezanak, ta I Konstantinori Liziniotar Balerioaren aurkako borroketara aokatu.

Eta K.o.324ko urtean I Konstantinok Liziniotarren gudalozteari irabazita, mendebal eta ekialdeko kaisargoetan agintari bakar lez geratu zan, aurrerantzean kaisertzaren gizarte ta erlijiozko bateratasun eta bakeakaz arduratzeko.

K.o.325eko Lorailaren 20rako, I Konstantino eta I Silbestre Aita Santuak, arrianismo eritziak artzen egon ziran indarragaitik arduratuta, Osio Kordobako gotzaiñ santuaren aolku bidez ta San Atanasioren laguntzagaz, gaur Asia Txikerrean Turkiako uria dan Iznik'en edo Bitiniako Nizean I Eleiz Batzar Nagusia batzeko agindu eben.

Eta bere ospakizunerako I Silbestre Aita Santua makalik ibili zalako, Bito ta Bizente abadeak ipini ebezan ordezeko maikide, Kordobako Osio gotzaiñaren lendakaritzagaz batera.

318 gotzaingo kopuruagaz osotuta egon zan batzar orreitan egon ziran Arrio ta bere adizkideak, Nikomediako gotzai Eusebiok bideratuta.

Uztailako 25erarte iraun ebezan eleiz batzar orreik, arik eta Arrioren eritzia ziñauskeri lez zigortuta geratu zan arte, Semea Aitaren izate berekoa zala erabagitu zanean.

K.o.325eko urtean Bagillako 14an agertu zan I Konsantino batzar orretan, eta batzarrean ez zitezen eritzizko nastetasunik agertu, Bagillaren 19an Nizearen Dogma edo Aita, Seme ta Arnas Sainduaren izaerak, Aitaren izate berekoak ziranen irudizko Kredo izango zan ikur itza<sup>(1)</sup> aurkeztu eban, eta an egon ziran adizkidetzeko edo bateratzeko eleiztar guztietatik danak baikor agertu ziran bost izan ezik, eta oneik eskomunikatu ta erbesteratuta, Arriok Iliriar alde egin bear izan eban, bere liburuak sutan erre egin ondoren.

Jesusen izaeraren gora beran, Arrio ta Nikomediako gotzain Eusebio arrianismoaren eritzikoak, *“Kristo, Jaungoikoaren lenengo egitea izan zala mundu au sortarazi orduko, Kristo baiña, sortutakoa izan zan lez, bera ez zala Jaungoikoa”*, argibide edo arrazoiaren ondorioakaz ibiltzen ziran.

Eta Alejandriako gotzaiñ Alejandro, bere jarratzaillezko ondorengoa izan zan Atanasio, ta Kordobako Osio gotzaiñaren eritziak, *“Kristo'k, jainkotasunezko ta gizatarrezko izatasuna eukelako, bera izan zala benetako jainko ta gizona”*.

Kordobako Osio gotzai au, antzerki orren antzezleri aundienetariko bat izan zan.

K.o.325eko urterarte, Atanasio Santua izan zan Arrianoren irakaspidetza ori ukatzen bakarra, arik eta I Silbestre Aita Santua ta I Konstantinok Nizeako eleiz batzarra batu eben arte. Ortik aurrera, indar andia artuta I Silbestre eta I Konstantinok euki eben eragipenagaz.

Arrianoren ikaspidetza ziñauskerira gaitz etsiratu zanean, eta Arrio eskomunikatuta bere lagun Nikomediako Eusebioren ondora iges egin bear izan ondoren, batzarkide geienak *katolikotasuna* elburu lez aukeratuta, siniskizunezko dogma edo aitortzan<sup>(1)</sup> biurtu eben.

<sup>(1)</sup> Kredo edo sinisbidea = Nizeako ikur-itx, irudi edo zaupidean biurtu zana.

Katoliko itza, latin *katholikos*´eko izkeratik datorrena da, orokar edo guztientzako dala esangura dauana, eta berau, Grekoerazko itz bi onen alkartasunetik: *kata, norantza esangura dauana, eta Holos, danoentzat edo dan guztientzako esangura dauena*.

Eta katolikotasuna siniskisunezko aitortza orreitan biurtu zanean, eleiz batzar orreitan artu ziran ziñeskintzazko erabagi orreikaz, Kristautasunari alderdikeriaren maltzurkerizko lapurkeri aundienak egin ondoren, or jaio ziran *katolikotasunezko aberriak*<sup>(1)</sup> *edo ta laterritasunezko batzangotasun barri orreik*.

XVIIIIn mende askenetaiaño guda indarrean ezarri gurean ibili ziranak, eta laterri orreik gaur be, guda indar orren keiñadagaz, Europa ta mundu guztian daukaguzan bereztasunaren askatasun eta eskubideko legearen aurkakoak izanda irauten dabenak ezeren lotsabarik "*Jainkoaren esan edo aginduak*" direla esanez.

Konstantinoplako eleiz-batzar onetan, Zesareako Eusebiok antolatu ta osatu eban Kredoan edo siñisbidea batzar aretan ontzat artuaz gaiñetik, beste gauza artean Arnas Saindua edo Izpiritu Saindua be, Jaungoikoaren neurritza igotea erabagi zan, ondore Irukoitz Deunaren irakaspide ori danontzat ezarrita.

Eta mundu guztiko errigizarteetan ezartzeko katolikotasun ori, eleiza ta gizaren arimako gauzak kontrolatu egin bear izan ebazan lez, diru zalekeriaren batzango zale merkantilistak be, katolikotasunezko orren batzangotasun alde kokatu ziran, errigizarteak bizitzeko bear ebezanak be, euren kontrolpean artzeko.

Jainkoak sortu eban Izadi au baiña, beren legeakaz erperatu eban lez, norkeriz dabilzan batzango zale orrein asmakuntzak aurrera eroateko, errigizartearen izatasun edo gizon emakumeak daukien nortasunezko baitaren gaiñetik egin bear dabez, egin bear dabezanak etenbage, eta bai Jainkoak ipinitako lege temati ta emankor guztien gaiñetik, odoljariorz ekarri dauskuna edesti guztitik, menperatzailetasunezko alegiñ orren aurka.

Erromatar katolikotasunak ez dau gura jakin ezer, Jaungoikoak danori barneratu euskun beren legezko baitagaz, eta gitxiago Jesusek bere aolkularitzakin ondo baiña obeto argitu euskuenakaz.

Batak, gauza guztien gogo eta euren erabilketaren itxurazko ekandutik kanpo, ez dauskuelako izten arduradunak izan gaitezana, norkeriaren zoritxarreko garaipenaren bidetik, eta dan guztia orren lokatzazko siniskerian ezarrita, diru edo ta urrezko txekorraren serbitzura bideratuz, nortasunbagnetu egiten dabezan errigizartezko borondate orreik batzangotzen dabe, euren naierazko asmakintzan jaurkitzeko.

Besteak, Jesusek irakatsita ikusiazko euskun lez, danok daukagun baitaren ezkaerakaz egarrituta, Jaungoikoak bereztasun oneri ipinitako legeak gogoratzen dausku, eta ordezkio arloetan zuzentasunezko ekandu bidetik, giza eta errigizartearen artean daukaguzan eskubide bardiñetan kokatzen gaitu.

Orregaitik, Nizeako eleiz batzarretatik ona, ulertu egiten ez dana, Jainkoak bereztatuteko legeen Jesusen argitasunezko irakatsiak eta katolikotasunaren alderdikeriako siniskai orreik, biak zorro baten sartuta alkar ekarte bada.

Gaiñera, bolbora edo lerrautsa ta su piztu leiken poxpoilloakaz, zorro orren barruan batera ekarte lez izaten ba da.

(1) katolikotasunezko aberriak = nacional-catolicismos o naciones que no contienen ninguna legitimidad por ser apatridas o no tener padre ni madre que las pueda legitimar en patrimonio ninguno. O, imposiciones fascistas contrarias a toda ley que Dios naturalizó en esta SU CREACIÓN.

Euskalerrriak, bere askatasunezko demokraziaren nortasun aundiagaz, irakaspide orreik baitu edo barneratuta daukaz, nai eta lur zabaltasunez ainbat murriztu.

Orrela ezarri zan erromatar kaisertzaren katolikutasuna erlijio lez, Jesus'en aolkularitzari eta munduko gizari egin dan lapurketa aundiena egin ondoren.

Eta emendik asita, edesti guztian ikusiko dogu, katolikotasunezko eritzi onek, zelako indarragaz lotu gura dabezan munduko errigizarteak morroitasunean, izadi edo mundu onek daukazan askatasunaren legezko eskubide guztien gaiñetik.

Ori da argi agertzen dana gure berezkotasunaren eragilletasunezko ekintzan, berezko legearen sorburuak eragiten dabezan ondorioakaz egiztu egiten dogunean, edo ta berezko erantzun bidetik agertzen jakuzenakaz, egiztu egiten doguna.

Etenbageko aldaketan dagoan munduaren gaiezko indar oneri, Jaungoikuak gorengo maillako neurrian ipini eutsoezan legeak, ordezkartzaren bardiñezko legean ipini eutsezan, eta ez dau balio bere ikuspenetik ostonketak egiterik, gure eragilletasunezko ekintza guztiaren ondore edo emaitza guztiak, lege orrein agindu edo zentzunezko jardueraren<sup>(1)</sup> ondorioak diralako.

Baiña gu iltearen aldaketa daukagulako, jarduera orren bidetik gogoratzen dogu, gu ez garela gaiezko izadi onetakuak, beste leku batekoak baiño, ta eragilletasunezko okerrak egiten doguzanean, gure arimak bizitzarako daukan baitagaz gaiaren aldetxar orreik ikusita, daukaguzan batzangotasunezko legeakaz, arlo txikerrenak izan da be ez doguz konpontzen, arik eta goimaillako jakiturizkoak edo ta gure mundu au goitik bera bideratzen dabenak, sortzaille edo irazaleak<sup>(2)</sup> baiño, gu eragilletasunezko asmatzailleak bakarrik garela ulertu arte.

Orregaitik agertzen da gure Ludi ta Europa au arduragabetasunean, batzuk, danoren ardureakaz jabetu diralako, eta ekintza ori ezin leike izan, mundu onen egipide edo eragilletasuna danon ardurazkoa dalako.

Eragilletasunezko ardureagaz bialtzen gaitu bialtzen gaitunok ordezkartzazko mundu onetara, eta ez gara sekula konponduko Bere agindua ez badogu betetan.

Edo ta, beste gauza baterako etorri ote gara ?

Euren asmakizunezko katolikotasunak, siniskisunezko aitortza orreikaz siñis-egi biurtu ebazanean, ziñeskintza orreikaz jaio ziran "*berezko ordezkartzaren zentzunezko kapotik gurasobagetuta, katolikotasunean batzangotutako laterri edo aberri barri orreik*" gaur menperatzailletasunezko maltzur eta lapurrezko laterri onekaz, bereztasunaren askatasun eta eskubideko legearen aurka irauten dabenak, ezeren lotsabarik "*Jaungoikoaren esanak*" direla esanda.

Eta *kredoko irukoitz deunaren siñisbideko ikurrak* sakratuzko irakaspidetzan danontzat indarkeriz ezarrita, orrela jaio zan erromatar kaisertzaren katolikutasuna erlijio lez, errigizartearen laikotasunezko almen ta erligio gauzak esku baten lotuta, mundu au eurak gure eban eratara batzangotzeko.

Guzurrak iraun dagiezan baiña, guzurrakaz bakarrik elikatu leikezalako, laster edo XXn mende asieran agertuko zan bere ostukatasunezko itzuratik, erromako kaisertza arrokeriz ta guda-bidezko itxaropenean IVn mendean asmatu ta batzangotasunezko laterritasun orreik

(1) Jarduera = conducta, comportamiento. (2) Irazale = Creador.



ezarri ebazanak, berak be VIgizaldi beranduago<sup>(1)</sup> laterritu zalako, mundu onen eragipide guztiak, euren aolkularitzazko aginpidean eroateko.

Jaungoikua izango ote zan, batzarkide orrei almena emon eutsena, bere izatasuna antolabide orretan ezarri egien?.

Gaiñera, Kaisertzazko Aita Santuaren uts ezintasunari, zero lur edo Jaungoikua ta gizon emakumearen arteko artu emonetan, eurak ordezkari bakartiak zirala ziñeskaitu eban lez, gura izan edo gurabage, katolikotasun ori alderdikidetu ondoren, Jaungoikuak mundu oneri, danon edo berezkotasunaren ardurapean ipini ebazan lege guztien aurka geratu zan, erritartasunetik asita, berezko gauza guztiaren legeen aurka kokatuta geratu zalako.

Diru zalekeriaren batzangotasunezko merkantilistak be, katolikotasun alde kokatu ziran, eleizaren katolikotasun ori mundu guztiko errigizartetan ezartzeko. Alde-batetik arimako gauzak kontrolatuta, errigizarteak bizitzeko bear ebazanak be, euren kontrolpean ezartzen ebazalako.

337ko urtean il zan I Konstantino, eta Nikomediako uriaren gotzaiñ Eusebio arrianotarra izan zan Konstantino bataiatu ebana askeneko arnasak emonten egon zanean, batera erritarren arteko borrokak asita.

409ko urterarte I Alariko bisigodoak, Unoen aurka jokatu eban I Teodosiogaz batera au urte orreitan il zan arte, eta erromatar kaisertzaren aurka asita, Erroma menperatu eban, Onorio ekialdeko kaisertzak orren erruz edo ta bakearen orde, erdi ugarte onen eta Frantziko lurraldeetatik zati aundi bat emon bear izanda.

### *Godó'en aginpidea.*

Emendik aurrera, eta Erroma saskildu ondoren, I Alarikogaz asita sartzen dira Godoak erromatar kaisargoaren jaurkintzazko jokoan, 409, 415eko urte bitartean erromatarrak erdi ugarte onetan euki eben guda indar guztia ezereztuta.

589ko urtean eta ekialdeko erromatar kaisertzan, Arriano-katoliko eztabaidaren eritziko borroka orreitan iraun arren, I Rekaredo artu eban Europaren mendebaleko erdi ugarte edo peninsula onetan katolikotasun erlijioan batzangotzeko erabagia, siñiskerizko ari maltzur ori, eta katolikotasuna orrarte buru-berokeri edo ta itsukerizko itxura artzen joan ba ziran be, ortik aurrera guztiz itsutu egin ziran, egiten ebazan gauza guztiak siniskai bidetik egiten ebazalako, ta nai errege iltzaille edo ildakoa, menperatzaille edo lapurra izan, danak santutu egiten ebazan, katolikotasunaren eztabaidatan il izan ezkerro.

711ko urtean mauritarrak agertu ziranean, godoak amaitu ziran eta eurokaz katolikotasunezko eztabaidak erdi ugarte edo peninsula onetan Frantziko lurraldeetan izan ezik, arik eta Pelayo Asturiasen kokatu arte.

Aienatu egin ziran godoak ortik aurrera, baiña ez ziran aienatu 325eko urtean Nizean, Mundu onen berezko aberri edo gizarteak indarrez batzangotuta, katoliko erlijioan jaurkitzeko artu ziran erabagiak.

I Konstantino 325eko urtean Nizeako batzarrean, eta I Rekaredo 589ko urte ezkeroztik Toledotik bideratuta godo legebilduma orreik, 711n Pelayo jaun godoak, erromatar-godo eta

(1) Batikanoko laterria = 1.929ko urteko Otsaillaren 11n eta Mussolini faziztaren eskutik laterritu zana, gurasobagetutako laterriak sasi-legez baieztatzeko.

katolikotasunezko sasilegedi *rex gratia dei* guzti orreikaz kokatu zalako Asturiasen.

Alan esan leike izan zala, Pelayok baiña, ez eban euki indarririk erregetza ori antolatzeko erromatar katolikotasunaren kaisertzazko arduradun nagusia ez bazan egon zaiñ, nundik artu ostera munduaren jaurkintzarako gura eban katolikokotasunezko orren aria.

718ko urterarte erromatar-godoak moruen aurka porrot eginda, Asturiaseko Europa deritsor mendikateetan, Dobra eta Kareseko erreka bitartean dauan Kobadongako gudan agertu jakiezan aukera barriak errigizartearen batu zale menperatzailleai, katolikotasunaren eritzizko, kaizertzan ostera jaurkitzen asteko erdi ugarte onetan.

-Pelayok 10.000 asturiarrekin, Alkamak bideratutako 20.000 gudarien aurka mauritarra irabazita, erromatar-godo katoliko menperatzail eritzizkoak, Obiedon sortuko eben Asturiaseko Pelayoren erregetza barri orregaz jabetu ziranean.

-Eta gero, I Alfonso erregearen bidez iraun ebenean, peninsula edo erdiugarte onetak Asturiasen ezarri ziran, erromatar-godoen norkerizko lege bilduma orreikaz, 768ko urtetik aurrera, Karlomajno ta Aita Santuaren ekintzagaz, Europatik zabaltzen joango ziranak.

*Orain, eta Euskalerrriaren errege-jauntza ta batzarrakaz asi orduko, aurkeztu daigun zein izan zan Europaren mendebaleko onetan Euskalerrriaren egoera, sortu ziran mauritar eta Asturias ta Frantziko erregetzakiñ.*

### *Iparaldean, Frankoen erregetza, Akitaniako dukaterria eta Baskoniako dukaterria.:*

Frankoa, germaniaren aberritasunezko frank izenetik datorren itza da, eta ezeren eragozpenil bage, askatasunezko gizon edo erria esangura dau, nai egia izan ez arren, eurak beti izan diralako goitik berako agintaritzaren jaurkintzazkoak.

K.a.600 urte inguru keltiarrak, Alemaniako lurraldeetatik Europa guztira zabaldu ziranean, Loira ibai gainetik Frantziaren iparraldeko Britaniaren lurraldeak eta K.a. 121eko urtean erromatarrek ego-ekialdeko inguruari deitu eutsoen Galia Narbonenseko lurraldeetan ezarri ziran.

*Frankoak, Godo, bisigodo edo ta ostrogodoak, Euskaldunak menperatzen ebezala esate dabe.*

*Iñundik iñora baiña begituta be, ez da egia, euskaldunak euren Paleolitiko Neolitik eragipenetik, iñork menperatzera joan ez arren eta K. a. 2.000 urtetik ona ainbeste gizaren sarreragaitik bata bestearen bultzada bidez lekua aurkitzen edo menperatzen ibili ziran artean ainbat lur galdu arren, Paleolitiko-Neolitiko aldiko baitan lortu eben askatasunezko demokraziaren jendekuntzazko ederrenetik ez dabelako galdu ezer.*

*Paleolitiko Neolitiko jendekutz ederraren "Aitorle" agertzen gara euskaldunak, gau iñork ezin dabena esan edo azterketa sakonak egin ondoren argitu leikezanak, naita 325eko urtean Nizean artu ziran menperatasunaren joputasunezko erabagietatik urten egin bear.*

Eta oinkada aundi bat eginda Eristaltar Pipinoren erregetzaraiño joango gara.

695eko urtean Eristaltar Pipinok, Utretxteko gotzai barrutia irasten lagundu eban, eta frisoien Willibrord gotzai santuaren eskutik, frisoien katolikotasunezko erlijioara aldatze lortu ostean, ekialdeko Frisia, frankoen babeskanpo geratu zan.

Pipinok, ainbat garaipen lortuta Austrasiako iparraldean frisoien aurka, egoaldera aldatu zuten Alamanen aurka borrokatzeko.

709ko urtean Eristaltar Pipinok, Billeari<sup>(1)</sup> Ortenauko dukearen aurka borrokatu zuen. Gotfridoren seme gazteak, dukaterri orren agintaritzazko aulkian ezarri egiezen, beste batek agintaritzan eskua sartzearen baiña, borroka geiago sortu ebazan.

691 eta 711ren urte arteko IVn Clodoveo ta IIIIn Txilderbertoren erregetzak, *alperrezko erregearen* itxura guztia euki arren, Txildebertok bere erregetzako epailari nagusi lez, euren ugazaba senditzen ziran Arnulfidasen aurkako epaiketa gogorak euki ebazan.

711ko urtean Uztaillaren 19an Tarik Ibn Ziyad'en Mauritarrak, Rodrigo jaunaren gudu gudaletzek ezereztu ebazan Guadalete ibaian, Medina Sidonia inguruan.

Godoak, ortik aurrera aienatu ziran, baiña ez ziran aienatu 325eko urtean Nizean, Mundu aurreratu jaurkitzeko katolikotasunezko erlijioan batzangotutako asmaoak.

712ko urtean, Pipinok beste borroka bat euki eban alamanekin eta irabazi ondoren, alamanen frankoen jaurkintzazko agindutara geratu ziran.

Arnulfidaren eragipenean ez ziran egon Galiaren ego aldeko lurraldeetan baiña, estutu egiten ziran lurralde arteko armanak askatasun geiagoa eukiteagaitik, Auxerretar Sabariko, Borgoñako gotzaia, Probenzako Antenor, ta Akitaniako Eudesek zirikatuta.

713ko urtean, Ebro ibaiaren erdi aldeko Kasi bisigodoaren konderrian agertu ziran mauritarrak, eta Kasi onek Omeyako Kalifatoaren alde kokatuta, ta islano erlijioa besarkatu ondoren, Banu Kasiren leinuari asiera emon eutson, bera lurralde orren jaurleri lez geratuta.

714ko urtean Eristaltar Pipino il zanean, Akitaniako Dukaterria frankoen erregetzara lotuta egon zan, eta bakezko itxura emoten ba eben jaurkintz orreik, laster biurtu ziran euren armanak anai arteko guda zitaletan, mugaldeko lurraldeak, pipinidasen eragipenetik alde eginda.

Pipinok, Teudoaldo euki eban etxezain lez ondorengotuta bere Plektrudis alargunaren agindupean, IIIIn Dogoberto erregearen aurka agertu zana, Dogobertok, Rajenfrido izendatutako gura ebalako etxezain lez merobinjioarren errege guztientzat.

Laster agertu zan irugarren leiakidea, Eristaltar Pepino erregearen sasise eldua izan zana Marteltar Karlosegaz<sup>(2)</sup>, Austrasiako etxe zaintza eroateko.

Plektrudis ta Teudoaldo biak baiña, IIn Txilperiko Merobinjioaren errege ta bere etxezain Rajenfridok menperatuta, Marteltar Karlosek IIn Txilperikoren aurka kokatuta, bere Merobinjioaren errege, IVn Klotario, igon eban erregetzara.

716ko urtean Iruña mauritarrak menperatuta egon zan, euskaldunen alegiñak oso zitalak izanda.

718ko urtean asken baten, Marteltar Karlosek Soissons'eneko borrokan bere etsai guztiak menperatuta, beartu ebazan euki zituzen ardurak bertan izteari, eta on artuta aldi baterako beintzat, Txilperikoren etorkizuna errege lez, berak, bere aita Pipinok euki ebazan ardura nagusiak frankoen erregetza guztietan truke artu ebazan, Merobinjioaren errege leinuak amaitu ebena, Martel ta bere ondorengo karolinjioak jaurkitu ebelako ortik aurrera frankoen erregetzak etxezain lez, naita erregeak izan ez arren.

Urte onetatik aurrera Martelek, frankoen nagusitasunezko eragipena idartzeko, borrokan ari ziran Europako mendebal onetan.

(1) Billeari = Willehari, ortenau'eko Dukea. (2) Marteltar Karlos = "maillua" izen-goiti lez euki ebena, eta 689-741 urte bitartean bizi zana.

Eta 718ko urte onetan Karlosek, matxinatutako saioiengandik asi zan Eroparen mendebaldeko onetatik indarkeriz.

718ko urte onetan be, Iruñako urian sartu ziran mauritarrak eta beartuta geratu ziran Iruñarrak zergak ordaintzera mauritar jaurlariai.

719ko urtean Marteltar Karlos, Frisiako mendebalaren lurraldeetatik ibili zan.

720ko urtean In Txilperiko il zanean, Marteltar Karlosek IVn Teodoriko ipini eban erregaldu lez, bere eskuetan au baiña, ez zan panpabiti bat baiño besterik.

720ko urte onetan, Mauritarrek peninsula onen jabetasun osoa lortu eban, eta Galiasetarako aurkako *razziak* edo, azkartasunezko eraso alditan asita, Toulouserik eraso eutsuen.

Eudes Aundiak, bere ardurazko lurraldea babestearren, erdiugarte onen iparraldeko mauritarren Emirra Abinessa zanaren alabeagaz ezkondu zan.

Abd-el-Ramanek baiña, Abinessa baztatu ta Auñamendietatik aldatuta, Autx eta Eauzen menperatzera joan zan.

Mauritarrak, Autx ta Eauzen ikaragarritzko zarraskiak egin eta gero, Toursera joan ziran, erregetzaren zilborra zalako.

723ko urtean, Marteltar Karlosek ostera, matxinatu ziran saioiaren aurka joan zan.

724ko urtean Martelek, Neustriaren ariñauko etxezaiña Rajenfrido eta beragaz matxinatu ziranak menperatu ebazan, euki eban anai-guda zital ori amaituta.

725eko urtean mauritarrek, Frantziaren Audeko lurraldean eta Karkasonako ibai ondoan dauan Karkasonako uria artu eutsen bisigodoari.

725-726ko urte bitartean eta guda amaitu ostean Martelek, Babierako Ujberto babaroen dukerriaren autakuntza baldinpetu eban, alamanak ortik aurrera beartuta berari lagundut egiotzien Babierako guda ekitaldietan, IVn Teoderikoren izenean egindako legeak azalkatuta.

730eko urtean Karlosek, Alamanian menperatu bear izan eban eta bere Lantfrido dukea il.

730eko urte onetan moroak, bisigodoaren menpean egon ziran Septimaniako lurraldeakaz jabetuta, iparralderantza bideratu ebazan euren erasoak, Akitaniako Eudel dukeari, Marteltar Karlosen laguntza eskatzera beartu eutsua.

732ko urtean Karlos Martelek Eudeseri laguntzen joanda ta Abd al Ramanen mauritarrak euren gudalozteakaz Frantziako ipar alde erasotzen ibilita Poitiersera eldu ziranean, bertan aurkitu ebazan Eudel dukea ta Marteltar Karlosen gudalozteak, eta moruak astintasun ederra artu ta gero, Auñamendiak aldatu ebazan.

Martelentzat gauza ona izan zana, ortik aurrera Frantziaren egoaldeko lurraren jabetasuna lortzeko, eta batez be, Europak euki eban islamizazioaren arriskutik kanpo geratuta, katolikotasunaren menperatzailletasunezko asmo eritziak jabetu egiezan.

734ko urtean Marteltar Karlosek, Frisiaren ekialdeko gudalozteakaz borrokatu zan eta lortu eban menperatzea.

734-740ko urte bitartean ta euskaldun erasoakaz beartuta, mauritarrak guda zainpean ipini bear izan eban Iruñako uria, 741eko urterarte iraun ebana.

735ean Eudon Aundiak, ez eban on artzen iñolako nagusitasunik frankotarren aldetik, eta Karlos Martel Euskalerrian sartu ta Eudon il eban. Eta Eudonen urrengoa, bere seme I Unaldo izan zan, frankotarra zintzotasunezko ziñ-itza (1) emon ostean.

(1) Zintzotasunezko zifi-itza = juramento de obediencia, fidelidad, rectitud, honradez.

735ko urtean, Mauronto dukearen gudalozteakaz aurkitu ziran mauritarrak eta ekialderuntik bideratuta, Arleseko uria menperatu eben mauritar gudalozteak.

737ko urtean mauritarrek Abiñon artuta, euren eraso azkarrakaz<sup>(1)</sup> Lyon eta Akitaniaraiñon eldu ziran. Eta urte onetan il zan IVn Teodoriko erregea.

739ko urtean mauritarrek, naita Probenzako etxezaiñaren birreraso aldia euki, lonbardoak keiñatu edo ta larderiatu ebazan, ta Marteltar Karlosek lonbardoaren laguntzagaz, ia lortu eban lurralde orren jabetasuna, eta alde batera ta bestera ibili zan lurralde orren jabetasuna, 759ko urtean, Pipino Laburrak Narbonagaz jabetu arte.

741eko urtearen Urrian Marteltar Karlos il orduko eta erregea izan balitz lez, berak lenengo emazteagaz euki ebezan seme bien artean banandu eban erregetza, Grifon seme txikerrari iñon ez dakien lur ondasun edo beste gauza batzuk emonda.

IVn Teodoriko il zanetik ez zan egon erregerik, Marteltar Karlosen semeak, Pipino Laburra<sup>(2)</sup> eta Karlomanek<sup>(3)</sup> erregetzaren ardurazkoak izanaz, etxezaiñaren ardurak bakarrik euki ebazalako, eta errege ordezkoko lez, Karlomanek Austrasia, Alamannia eta Turinjiaren arduraga geratuta, Pipinok, Neustria, Probenza ta Borgoñaren ardurak artu ebazan.

Eta bananduzko ardura orreik erakusten dabe, zelango askatasunak euki ebezan Unaldok bideratzen eban Akitania, eta Odilonek Babierako dukaterriak, banaketa orreitan ez ziralako sartzen.

751ko urte onetan Karlos Martelen semea izan zan Pipino Laburra, zaldunai laguntza eskatuta ikusten dogu, IIIIn Txilderiko bota ebenean merobinjioaren erregetzatik, zelan lortu eban karolinjioaren onespina, berak irasi ebalako Karolinjioaren errege leifua.

### AKITANIA 'ko DUKATERRIA.

Lau zatitan banadu eben erromatarrak Galiako lurraldea euren politikaren antolamendurako Akitania orren zati bat da.

Unoak, eruloak, eszitak, samatak, ostrogodoak, gepidoak, boyoak, turingioak, frankoak, eta Alanoak Borgoñes laguntzarekin, Europaren erdira eta galiarantza zabaldu ziran, frankoak Loira ibaiaren goi aldetik Britaniako lurraldeetan kokatuta.

451eko Iraillaren 20an Aezio Erromatar guda-buru nagusiak, Kanpos Katalaunikosera<sup>(4)</sup> urten eta ezereztu ebazan Undarrak.

457ko urtean Bizigodoak a ta guzti, Nobenpopulania<sup>(5)</sup> eta Akitania Sekundako<sup>(6)</sup> lurraldeak menperatu ebezan.

462ko urtean, Narbonense<sup>(7)</sup> primako lurralde guztia.

466ko urtean, Akitania Primako lurraldea.

470ko urtean, Biennense<sup>(8)</sup> ta Narbonense Sekundako lurraldeak.

Eta 475eko urtean, lurralde orrekin jabetzaren onespina artu eben.

(1) Eraso azkarrak = razzias. (2) Pipino laburra = 715-768 Marteltar Karlosen semea eta Karlomajnoren aita, 741-751 urte bitartean etxe-zaiña eta 751-768 urte bitartean frankoen errege bere anai Karlomanegaz batera 747ko urterarte, eta orren ostean Zakarias Aita Santuaren laguntzagaz, Merobinjioaren IIIIn Txilperiko erregea bere aulkitik botata, frankoen erregetza lortu eban eta Bonifasio Santuaren eskutik errege igurtzita 751ko urtean, Esteban Aita Santuak osteria igurtzi eban errege 754ko urtean ortik aurrera bere erregetza Akitania eta Septimaniako lurraldeetatik zabaldua, eta /68ko urtean il zanean, bere erregetza euki zituzen semebi Karloman eta Karlos, gero Karlomajno izango zanakin banandu eban. (3) Karloman = Marteltar Karlosen semea eta Pipino Laburraren anaia, Austrasiako etxe-zaiña. (4) Txalons-sur-Mame inguruan, Mame-ibai ondoan. (5) Akitanian 9 erriren lurraldea eta Erromatarrak 17 probintzietan banandu eben lurraldeetatik bat izan zana. (6) Loira ibaiatik Zebenes mendi-kateak, Auñamendi-kateak eta Gaskuñako ur-kolkoaren arteko lurraldeen zati bat ta Ebro ibairaiño zana. (7) Erromatarrak emondu zuten izen au eta Robine ibaiaren alde bietako ur-basterren lurraldeak dira. (8) Poitou-Txarentako lurraldeak, Txarenta, itsastar-Txarenta, Deux-Sèvres ta Bienneko lurraldeak osotzen dabena, Poitiers uri nagusi lez eukinda.

Bisigodoak, 418ko urtetik egon ziran Nobenpopulania eta Akitania sekundako lurraldeetan alkar-zaletasun<sup>(1)</sup> antzeko baten kokatuta.

476ko urtean sortu zan Erromatarren Kaizar sakratuaren amaiera, naita Nepotetar julioga Dalmazian<sup>(2)</sup>, 480ko urterarte iraun.

Eta 476-7ko urtetan, erdi ugarte au menperatzera etorriko ziran.

486ko urtean Frankoak Klodobeoen<sup>(3)</sup> agindutara, Galiaren Iparraldean Siagrioren jabea egon ziran Loira ibaitik gorako lurraldeak kendu eutsozan, eta Siagrio beren burua gorde naian Tolosara<sup>(4)</sup> joan zanean, II Alarikok<sup>(5)</sup> arrapatuta Klodobeori eskuratu eutson eta onek il eban.

Ekintza onekin, Bisigodoak eta Frankoak geratuko ziran auzo-lez Frantziko lurralde guztian 507ko urtean Klodobeo ta Gundebaldo<sup>(6)</sup> borgoñoiakaz Poitiersen ondoko Boillen alkartuta. In Alarikori borroka nagusia irabazi eutsoen eta Alariko bera il eben.

508ko urtean Teodoriko ostrogodoak, Gundebaldori Narbonako borroka irabazi ostean Franko ta ostrogodoak geratu ziran garaille.

Euskaldunak borroka orren bitartez, Nobenpopulaniaren Auñamendietaraiñoko<sup>(7)</sup> euskal lur guztia galdu eben, Frankoak leenengo, Bisigodoak eta gero ostrogodoagaitik menperatu geratu zanean.

Godo oneik erromatarren antzera, ara ta ona ibili ziran euren norkerizko borrokakaz, angerrigizarteen demokrazizko legeak kontuan euki bage. Menperatzen joaten ziran lurraldeetako erritarrak erromatarren antzera ta euren legeakaz, kaisarkeriaren asmakerizko borroketan peo lez ibilteko eta zergak ordaintzeko bakarrik gura ebezalako.

574ko urtetik asita, Nafarroa, Aragoi ta Kataluñako euskaldunak leenengo eta bizkaitarrak gipuztarrak eta arabarrak gero, euren lurraldeko Auñamendi kateetatik sasi-gudan zabalduta zirikitu ta oztu egiten eutsoen godoai, ostera euren gorde leketara joanda.

Eta 582ko urtean Bisigodoak erdiugarte onen euskal lur batzuk menperatzen asi ziranear iparralde eta egoaldeko euskaldunai nafar-nekazari asko alkartu jakiezan.

587ko urtearen ostetik, Astrobaldok dukea ibili zan euskaldunak menperatu naian, ta eziñean euskal bizitza aurrera bakez eroateko erabagi batera eldu zan, *euskaldunak zergak ordainduko ebezala*, batera baiña, *bizi ziran lurraldeetan, euskal legeekaz zuzendu edo jaurrituko zirala*.

602ko urtean Austrasiako II Teudoberto ta Borgoñako II Teodoriko, Euskaldunen aurka joan ziran eta beartu ebezan eurak agindutako kondea euskaldunen agintari lez artzen.

### BASKONIAKO DUKATERRIA.

Or agertuko zan leenengoz Euskal-askatasunaren Bazkoniako Dukerria, bere gorte ta guzti Merobinjioeren erregetzatik adierazita.

602-626ko urte bitartetan, Genial galo-erromatarra izango zan leenengo dukea, eta auker barri bat agertu jakun, euskal nortasunaren izaera, izkuntza ta oituran irauteko.

626ko urtean Genial kondea il zanean, matxinatu egin ziran euskaldunak bere ondoreng Aighina zanaren aurka.

629ko urtean, I Dagoberto agertu zanean, Frankoen agintea sendotu zan lurralde guztian.

635ko urtean, frankoen agintaritzari aurka egin eutsoen euskaldunak.

(1) foederati = federalismo. (2) Dalmazian = Yugoslavia. (3) Klodobeo = 481-511 urte bitartean bizi zan, eta katolikoa biurtu zan. (4) Frantziko Tolosa. (5) Alariko Arrianotarra. (6) Gundebaldo au-be, Arriotarra zan. (7) kontuan euki bear da, orduko Akitaniako dukerria Ebroraiño zala.



638ko urtean I Dagoberto II zanean, ondorengo ziran errege fardelakaz, ezereztu egin jakien Frankoai, Augustoren denboran euki ebazan lurraldearen mugatara itzultzea, Eurikoren erreinua ostera be osotzeko.

Emendik aurrera, indartzen joan zan Baskoniako dukateria, euskal erritarrak feudopeko jaurkintza ta geien gotzaitegiaren laguntzara oratu ziralako.

Eta euskal-dukerriko agintaritzaren eginkizunak denbora gitxian, Frankoen errege-alpe orrekin kanpotik egiten ebazan.

Akitaniako andikien ta euskal erritarren artean, ulermenean ezin obetutako eginkizun oneik laster emango ebazan euskaldunentzat emaitza onak.

Denbora onen gorteko larritasunean Franko erregetzaren Ebrino etxe-zaiñak<sup>(2)</sup>, Felixen agindupean ipini ebazan Euskalerrriaren lurralde ta uri guztiak<sup>(3)</sup> Auñamendirarte.

Felix onek baiña, frankoen alde jokatu barik, Akitaniaren Baskoniako-dukerrriaren alde jokatu eban, politikan indartsuagoa izateko.

Gero ikusiko dan lez baiña, Felixen ondorengoa Lupus<sup>(4)</sup> izan zan, eginkizun au aurreratut egingo ebana Septimaniako<sup>(5)</sup> iraultzari laguntzeko, franko ta Banba<sup>(6)</sup> bisigodo erregearen aurka artez borrokatuta,.

660 eta 670n urte artean gauzak alan zirala, Toulouseko erreinua zarra asi zan bizkortzen.

Eta 670-710eko urte artean, I Otsoa edo Lupus<sup>(7)</sup>, Akitaniko Felix dukearen ondorengoa izan zan jaurkintzaren buru ipini ebana.

710ko urtean eta I Otsoaren ostean, Eudes edo Eudon Aundia izan zan agintari ipini ebana 735ko urterarte iraun ebana.

711garrengo urte oneitan eta Kadizetik, Muzaren Mauritarrek sartu ziran erdiugarte onetan Tariken agindutara.

Eta 714ko urtean, Rodrigo Bisigodoaren gudalozteak ezereztu ebazan, orduko Salduba edo Zaragozaraiñoko lurraldeak menperatuta.

714ko urte onetan, Kasio kondeak agintzen eban Ebro ibai onen ibar ingurutik, eta konturatuta ondoren, guda egoera au ez zala ona bere lurraldearen jabetasuna aurrera eroateko, Kalifaren zerbitzura aldatu zan, aldaketa orretatik Banu-Kasi mozarabearen sendia sortuta. Garrantzi handia izango zana, Nafartarren erregetza sortzeko.

718ko urtean Eudon aundiarekin, Akitaniaren jabetasuna euskal eragipenez, iparraldeko Loira ibairaiño laterrituta geratu zan<sup>(8)</sup>, egoaldetik Ebro ibairaiño, eta Mendebaleko Kantabriatik Auñamendiko ekialdearen Lleidako Aran ibarrean, Jironaraiño.

Orduko denboratan Eudonen Printzerri au, Galia guztiko eredu lez agertu zan, Eudonen Austrasia<sup>(9)</sup> ta Neustriaren<sup>(10)</sup> arteko borrokatuta, antolatzaile edo artekariaren<sup>(11)</sup> lanak al egiteko bakarra izan zalako.

Ekintza orrek, bere askatasunaren eragipenari ezkerren ta onespina balio eutson, eta bai bere errege ordezkotzazko ekintzari, *regnum* izena be.

671ko urtetik 781eko urterarte, aske bizi zan Baskoniako Dukerria Frankoen agintaritzatik eta bera izan zan leenengoz política arloetan, Euskaldun guztiak alkartuko ebazanak.

(1) naita euskal askatasuneko demokraziaren legearen kanpotik izan bearrezkoa izan. (2) Etxe-zaiña = mayordomo. (3) Principatun = principado. (4) Otsoa = lobo. (5) Septimania = Erromatarak, 7n lejiñtoagaz izena emon eutsoen Lurarteko-itsas bazter lurraldeari, Rodano-ibai, Auñamendiak eta lurarteko itsas-bazterragaz osotzen zana. (6) Banba = Wamba. (7) Iakakoak ziran Lupus edo Otso oneik = Jaka Aragonesa. (8) Frankoen laterri barruan, euskal laterria sortuz. (9) Klodobeok eraiki eban ekialdeko erregetza, eta Frantziren ekialdean, Alemaniako Mendebal eta Olandako lurraldeak osotzen zana. (10) Merobinjioaren denboran sortutako erregetza, eta ipar-mendebaleko Loira-ibai, Mosa-ibai ta Breñako lurraldeak osotzen zana. (11) Artekari = arbitro.

Euskal eragipena ta euskerea sendotu ziran denbora onetan, batera baiña, beste zoritxarreki gauza bat sortu jakon euskal izkuntzari:

*Euskerea sendotu bazan gitxi erromatartuta egon ziran Euskaldunen artean, Euska erromatartuta geien egon ziranen artean "Gaskon" latín-kumaren izkuntza sortu zan, ortu aurrera gaskoien erritarrak agertuz. Gero, gizaldiak aurrera doiazela Gaskoi izkuntza zabaltzen joan zan, Euskerea neurri bardiñean gitxituz, eta XII-XIIIIn gizalditik aurrera Araneko Ibarretaraiño.*

Dana dala, Frantzitik joan zan Baskoniako dukerria zabaltzen, ta bere lurraldea, gau Gaskuña lez ezagutzen dan lurraldea osotuten eban.

Keiñadura gogorrak egon ziran urte oneitan Akitaniarentzat mauritarren aldetik, erdiugartu onen ia lurralde guztiak, mauritarren menpean egon ziralako.

### KARLOMAGNO MAURITARRAK ETA EUSKALDUNAK:

720an Mauritarrak Auñamendiak igarota Toulouserri eraso eutsoen.

Eudese, bere ardurazko euskal lurraldea babestearren, erdiugarte edo peninsula onen iparraldeko Mauritarraren emirra izan zan Abinessaren alabeagaz ezkondu zan, Abd-el-Ramanen baiña, Abinessa baztartuta ta Auñamenditik aldatuz, Autx ta Eauzekeko uri nagusiak menperatzerri joan zan.

Mauritarrak, Autx ta Eauzen ikaragarritzko sarraskiak egin eta gero Toursera joan ziran erregetzaren zilborra zana menperatzera.

732ko urtean Karlos Martelek, Eudoni laguntzen joan zan eta Poitiersen Abd-al-Ramanen gudalozteakaz aurkitu ondoren, Martel ta Eudonek Auñamendiak ostera aldatuazo egin eutsoen mauritarrai. Eta oraingoan betiko.

Eudonek, Frankoen aldetik ez eban iñolako nagusitasunik onartzen, ta 735eko urtean Karlos Martelek Euskalerrian sartuta Eudon il eban. Eudonen urrengoia bere seme Unaldo izan zan.

735eko urtean Eudon il ostean, Unaldok Frankotarrai zintzotasunezko ziñ-itza<sup>(1)</sup> emon bear izan eutsoen.

741eko urtean Karlos Martel il zanean, Euskaldunak alperrik asi ziran Frankoen agintearren aurka, IIIIn Pipino Martelen semeak 768ko urtean aurre egin eutsolako, Baifre<sup>(2)</sup> il eban arte.

715-768ko urte bitartean Martelen seme ta Karlo Majnoren aita IIIIn Pipino Laburra ta oraiki Frankoen erregeak IIIn Otsoari, Akitaniaren jabetasunezko askatasunaren trukez, Euskal esku aundikoen artean berak aukeratzen ebazanakaz, beragaz baituran eroatera beartu eban. Eta or izan zan Eudes edo Eudonen azkeneko seme IIIn Otsoa edo Lupok, Frankoari ordaindu bear izar eutsona Akitaniaren askatasunagaitik.

760-768ko urte bitartean, Politikan norgeiago izateagaitik errege-jatorrizko<sup>(3)</sup> bi onen arteko leian, *Akitaniakoa*: Eudon, I Unaldo, Baifre ta II Unaldo.

Eta *Karolinjoarenean*: Karlos Martel, Pipino Laburra eta Karlo Majnoren artean, Pipino Laburra erabagiko eban, 9 urte luzearen araubideko<sup>(4)</sup> gudaldia eroan ebanagaz, garaille urter ebalako.

*Franko ta Euskaldunak kidesunean jokutzen eben geienetan, arik eta katolikotasunezko*

(1) Ziñ-itza = juramento de fidelidad. (2) Waifre edo Wafarius. (3) Errege-jatorrizko = dinastías reales. (4) Araubideko gudaldia = guerra sistemática.

*batzangotasun eritzi nagusi orreik erdian sartuta asarratu arte, erabagi orreik Euska askatasunezko demokraziaren aurkakoak izaten ziralako.*

Frankoak Mauritarren bitartez, artu-emon aundia euki eben Baskoniako dukaterriagaz, Ait Santuagaz batera Karlo Majnok, ardura aundia euki ebalako Mauritarrek Europa erditik kanp eukiteko.

Bear ebenean erdiugarte onen Iparraldeko Emirrekin be, guda-lankidetu egiten zan, oneil Kordobako Kalifaren aurka matxinatzen ziranean.

Bide batez Karlo Majno Baskonian biziten zan, sarri izaten ziran Euskaldunen matxinadal geratzeko.

778ko urtean Karlo Majnoren gudalozteak, bere aipagarritasunezko zaldun bioztoi Roland agindutara, Mauritarrengandik Salduba<sup>(1)</sup> askatzera joan zan, eta eziñean Iruñatik etxerantz aldatu zanean, Iruña erraustu egin eben.

Eta 778ko urtean Dagonillaren 15an, Karlo Majnoren gudalozteak Auñamendiko Orreagati aldatzen egon ziranean, Euskaldunak itxaroten euki ebezan, eta ikaragarritzko sarraskintza egiteutsoen gudaloztearen atze aldean, Roland ospatsua be berton ilda. 1.090ko urtean Roland<sup>(2)</sup> abestiagaz<sup>(2)</sup> betikotu egingo zana. Frantziko elerti-lanen artean aundienetarikoa daukiena.

742-814ko urte bitartetan, Euskaldunak sarri matxinatzen ziralako Karlo Majno arduratuta Asturiaseko In Alfonso nasgabe<sup>(3)</sup> erregeagaz alkartu zan, baiña onek bere lurraldearen egite aldean kokatuta euki ebazan Mauritarrekaz beste premitasun batzuk euki ebalako, ez eutsol laguntzarik emon.

Eleizak, nai-ta alegin asko egin Frantziako erregetzan alkartasuna lortzeko, Baskoniako lurraldeetan ugari ziran matxintasunak.

*Europako eleiz-katolikoaren alde batzagozteko jokuan<sup>(4)</sup>, Europako erregeen artean onen edo indartsuena aukeratzetan, eta bata edo bestea indartsuenatarikoan biurtzen zanean, Aita Santuak, erromatar kaisar sakratuaren kaisarra izendatzen eban.*

*Danak baiña eta gaur arte, "egia guzurraren aurka aurkezten zalako", katolikotasunezko lege fazizta orreikaz eleiza 325eko urtetik aurrera okerreko bidean sartuta, Jaungoikoaren legean sortzen diran berezko aberri ta erritarrak kontuan ez eukitearren edo euren gaiñetik egite arren, azken gaiztoa euki dabe beti, gaur nabaritzen dan lez.*

800eko gabonetan III In Leon Aita Santuak Karlo Majnori, Erromako Pedro Santuaren eleizara deituta, erromatarren kaisar-sakratuaren Augusto-kaiserra izendatu eban, eta osterat itzuli zanean, iparraldeko Euskaldunak matxinatuta egon ziran.

814ko urtean Karlo Majno il zanean, Akitaniako errege Luis Errukitsuaren bigarren semea beren anaiaren menpekoa izateagaitik, Lotario, kaizar izenaren ondorengoa zalako, I Pipino<sup>(5)</sup> Akitaniako errege izendatu eben, eta Lotariok bialduta non agertzen dan, III In Pipinok 30 urte ariñoago baitu eban Santxo Otsoa, II Otsoaren semea.

Santxo Otsoagaitik zuzenduta egon ziran Nobenpopulania zaarreko Euskaldunak.

Eta 836ko urterarte, Aznartar Santxo beren seme nagusiagaitik bideratuta egonda, urte onetan I Pipinok il ebalako, bere anai Santxo Mitarrak artu eban Baskoniako jaurkintzaren ardurea.

Santxo Mitarra, beren aitagaz ibili zan Nafarroko lurralde ta Aragoiko goi aldean, guda eta

(1) Salduba = antiguo nombre euskaldun de Zaragoza. (2) La chanson de Roland. (3) Nasgabea = el casto. (4) Berezko errigizartearen aberri ta eskubideak kontuan artu bage egiten ana. (5) I Pepino = 803-838ko urte artean bizi zana.

política arloetan trebetasun aundiak artuta.

838ko urtean I Pipinok, Santxo Mitarra gudara beartu eban, eta onek Pipinoren gudalozteal Garona ibaiaren eskuma aldera indarrez eroanda, meperatu eban.

Eta Karlo Majnoren nagusikeritik 68 urte geroago, ostera jabetu ziran Euskaldunak antxiñauko denboretatik euki ebazan berezko mugakaz.

840ko urte Frankoen errege I Luis errukitsuak<sup>(1)</sup>, Santxo Mitarraren jaurkintza baieztut eukan, bera urte onetan il zanean baiña, Frantziako kaisartza beren iru semeen artean banandu eban, eta Frantziako Mendebal aldea Akitaniagaz, Karlos buru-soillaren<sup>(2)</sup> ardurapean geratu zan.

Eta ingurutasunezko antzerki au geratu jakon Euskalerrinari, Frantziren iparraldeko lurraldeetan franko katolikuak, guztiz demokrazizko askatasunaren aurkakoak zirenak.

-Erdiugarte onen mendebalean, Asturiaseko Alfosotar godo-katolikoak, auek be frankoer antzera, demokrazizko askatasunaren etsai amorratuak zirenak.

-Eta erdiugarte onen egoaldean mauritarrak, demokrazi ta katolikoaren etsai sutsuak zirenak.

*Europako lurraldearen antzerki onetan ikusi dogunagaz, mirari aundi bat izan bada euskaldunak IXn gizaldi areitan bizirik agertzea, goazan bigarren zatiko mirari aundiagor ikustera, gaurko gazteak konturatu daitezzen, ezin dabela galtzen itzi, euskal arbasoak lortu eban ain mailla aundian askatasunezko demokrazi ori "JAINKOAREN LEGEAKAZ, EGI BIZI ZIRALAKO".*

*Bigarren zatian asieratik ikusiko doguna, zelako aukerean agertu giñan bereztasunezko erri, aberri edo ta errigizarteak Mauritarren etorkereagaz, danok jaurkintzazko antolakuntza barri baten bearrean aurkituta, euskaldunak be euki genduzan batzarrezko anaidi, talde edo ta euren agindupetik antolatuta, lortu genduzelako gero euki genduzan nafar errege ta bizkaiko jauntzak gure jaurkintzarako.*

*Azkenez, zergaitik joan bearra daukagu ostera Jainkoaren berezko legeetara, jaurkitzeko daukaguzan laterri onein gaieztasuna argiratuta gero.*

(1) I Luis Errukitsua = El piadoso edo Ludoviko Pio 778-840ko urte bitartean bizi zana. (7) Karlos buru soillaren = Karlos el calvo, 823-877ko urte bitartean bizi zana.

Atutxa'tar Paul

Zornotzan 2.014'n urtean Abenduaren 15'ean

# Europako laterrien lapurkerizko arauak eta berezko erriak

Bilbaon 2.014'an Azillaren 28'an

Euskerazale Alkartearen etxeko "Euskal Astearen itzaldia"

## 2. Zatian.

### *Sarrera.*

Lenengo zatian, Europa ta Euskalerrriaren edestia irudimendu ondoren ikusten dogu, zelan Paleolitikotik asita ainbeste milla urtetako bakartasunean Europako mendebal onetan Eskoziatik Kadiz'eraño eta Atlant Itsasotik Alemania erdi arteraiñoeko zabaltasunean, Euskalerrria bere Euskerazko ulermenean eten bageko ekintzan eta ariman azturazko oituran baitu ondoren, zelan beren nortasunerako lortu ebazan askatasunezko demokraziaren zentzu ederrenak.

-Baita, ekialdetik bultzatuta eta non bizitzeko lekua artzen, Keltiarren agerkeratik eta geroago Fenizio, Erromatar, Godo, Uno, Suebo, Alano, bandalo, eta Mauritar, danak bata besteari bultzaka ta menpetasunezko zaletasunean agertuta, Euskalerrria bere euskerearen eragipenean eta euken lurraren zabaltasunean gero ta estuago joan zala txikiagotzen.

-Eta berak danoen artean bizitza on-eroateko zentzuan lortu ebazan Askatasunezko Demokraziaren ulermenari, zelan 325eko urtean I Konstantino ta I Silvestre Aita Santuak eleiz batzar nagusiak batu ondoren eta aberritasunezko-katolikotasunean batzangotzeko ikurraren siñisbidea mundu osoarentzat ezarri ebazan.

-Jainkoak Izadi oneri bereztu eutsozan legearen guztiz aurkakoak diranak, eta guda-endarrezko eran ezarri ondoren, zenbat zorigaiztotasunezko nekaldi eroan izan bear izan dauzela gaur arte, Euskalerrriaren demokrazizko eragipen eder oneik, bere milla urte askoko bizitzaren egizko bizian, lortu ebazan askatasunezko demokraziaren zentzu ederrai gaur arte, eutsi ta zaintzeko bidean eukiteko.

-325'eko urtean sortutako aberritasunaren-katolikotasunezko menperatzail zentzuari, laster edo 622ko Uztaillaren 16n egunean Mahomaren bidez agertu jakon erantzuna, beste ainbeste guzurrezko siñespenagaz Islam'en izenakin.

-Zergaitik?: Katolikotasuna bere legeakaz, mundu onek daukan giza guztien borondate ta arduraren jabetza gura ebalako berentzat, eta mauritarren erantzunean, beste ainbesteko menperatzailetasunezko astakeriak sortu ebezan, euren mauritar aldea kontrolatzeko.

-Or, jaio ziran sasijainkotasunezko erraldoi bi orreik euren ziñeskintzakaz, munduko gizartearen eragipenak on bidetik eroateko, kaltetu ta lokaztu baiño ez dabenak egiten, eurer nor-geiagoan, menpetasunezko borrokarako baiño ez dabelako balio gaur ikusten dan lez.

-Biak dira faziztak, euren ziñeskintzakaz, goiko Jaungoikoaren gaiñetik ipini ziralako.

-Orregaitik ikusi bear dogu, a zelango ogi-tartekoa atondu eutsoen katolikotasunezko aberrita ta Islam'eko menperatzaileen bitartean Euskalerrriari, aurkezpen bat eginda, ikusi daiguru Europako mendebalaren antzerki au zelan biurtu zan Euskalerrriaren aurka.

### *Eta emen, oarkizun berezi bat.*

Mauritarren etorreragaz, euskerearen mintzotasuna galdu zan Ebro ibaitik Kadizeraiño, mauritarrak euren izkuntzara aldatu ebazalako, erreka erri ta lur zabalaren euskal toki izenak, adibidez: *Arriaka = Guadalajara'gaitik, Ispalis = Gadalkibir'gaitik, Salduba = Zaragoza'gaitik* eta abar, izen guztiak euskerazko eragipenean ipinita egon ziralako Paleolítico Neolítico bitartetik aurrera.

Eta Ebro ibaipeko lurralde orreitan katolikoasunezko meperatzail eritziak, euren garaipenak lortzen joan ziran bidez, gaztelar latín-kumera aldatu ebezan leen euskerazkoak izan ziran erri ta toki izenak, askenean mauritar-gaztelako naste baten geratu diranak.

*Ata guzti, ez jakie aĩn erreza egingo euskerazko aztarnak aienatzea, euskerearen milla urte askotako eragipenak Europaren mendebaleko lur zabal onetan oraindiño or aurkezten diralako ugari, bai ta Ebro ibaitik Kadizeraiño euskerazko toki izenak eta euren gaztelarazko latinkumean euskerazko berbak non nai aurkitzen dozuzelako apurbat arduratu ezkeru. Or alegindu bear dira gure gaurko edesti ta izkuntzalariak, eragipenezko indar aundia izan zalako euskereak euki ebena ainbesteko milla urtetan.*

Katolikotasunezko menperatzail erlijioaren estalkipean ondo ostonduta ekarri dabena, euren sasi-jainkotasunaren itsutasunezko asmakizunean “euskal edestiari ezeren aipamen egin barik eta guzurrean, espainaren bir jabetzazko edestia izan balitz bezala ekarri gura izan dabelako.

Baiña Europaren orduko denboran, agintari jakintsu orreik eurak be ez eben jakin *katolikotasunezko aberrian asmatutako espain, frantzez, aleman* eta abar erri asko orreik, zer izango ziran, eta gitxiago, egiz noraiño elduko ziran, menpekotasunaren batzangotasunezko lenengo guzur ori egiegaz ezin dalako elikatu, eta gaur argi ikusten dogu, ainbeste guzur bata besteen gaiñean berezko errigizarteak kontrolatzeko, euren eskuetan geratu dirala diru ta mozkin guztiak, mundu onen berezko errigizarte guztia, joputasunaren morroitasunezko beartasunera bideratu dabelako euren sasijaintasunezko diru-gosean.

Jainkoaren lege ta Europaren berezko erriaren aurkako borrokan alegindu dira gaurko egunerarte, eta naikoa dala uste dot gagozan jakitunezko denboratan, Jainkoak izadi oneri ipini eutsozan legeetara aldatu gindezen, ez dagoelako iñungo eskubiderik, gaur batzuen sasi-jainkoaren eritzizko buru-gogorkerietatik urten ez egiteagatik, munduko erri ta errigizarteak, ainbeste morroirtasunezko nekaldietatik urten ezinik egotea.

Jainkoaren lege bidetik argi agertzen jakuna, zor-eskubidearen eragille edo arduradunak jaioten garela, ta Jainkoak ipinitako lege orreitara aldatu bear gara len bait-len, ez dagoelako eskubiderik, gaur, Jainkoaren izena lapurtuta egiten doguzenak egiteko

*-Ez zan arrazoibagekoa Aita Santi Onaindiak esaten ebena: “Jainkoari begira, egiz bizi arren-be, Euskalerrriak, etsai asko edo larregi eukezala”.*

### *Euskalerrriaren aurkezpena, orduko denboratan.*

Euskalerrriko edestiaren lenengo zatia amaitu dogunean, euskal askatasunezko demokraziaren eragipenean geratzen ziran lurraldeak eta Euskalerrriak euren ingurutasuna aurkeztu dautsuet, adibidez euskal lur lez Auñamendiko alde bietako: iparrean, Akitania, Baskonia, ta Gaskuñako dukaterriak. Eta ego aldean: lau euskal lurraldeak Aragoiko lurraldeakaz osotzen zana.



Frantziko euskal lurraren gaiñetik frankoak, erdiugarte onen mendebalean barri sortu edo jaiotako Asturiaseko erregetza eta ego alde guztian azkenéz sartutako mauritar indartsuekin inguratuta geratu giñan.

Au da jakin bear doguna zentzuz, zelango larritasunean aurkezten zan gure Euskalerrri maite au jakin degun, eta batez be, zergaitik agertu zan beartuta jaurkintzazko antolakuntzak egiten, askatasunezko erri lez aurrera egiteko.

Bi izan ziran garrantzi aundienekoak baiña, Nizean 325ean jaio zan katolikotasunezko ziñeskintza, eta gure erdiugarte onen Ebro ibaitik Kadizeraiño zabaldu ziran mauritarrak, 622ko Uztaillaren 16n egunean Arabia Saudiko erdiugartean Mekan Maomagaz sortu edo irasi eben euren Islam'en ziñeskintzagaz, mundu onetan nor jabetzeko leian, bata bestearen aurka prest atondu edo antolatu ziranakaz.

*Katolikotasuna iparraldetik*, 325eko urtean Nizean irasi eben ziñezkintzagaz, munduan egin dan lapurketa aundiena egin jakon kristautasunezko erri edo Europa ta munduak euken errigizarte guztiari, kaisertzan batzangotzeko ziñeskintza orregaz, Jainkoaren eskutik mundu onetara kudeatzaille edo egipidearen arduragaz jaioten ziranai, katolikotasunean asmatutako eritzi orrek kendu egiten eutsoezelako kudeatzaillezko arduraren egipide orreik, danak bere morroi biurtzeko.

Euskalerrriko sinismenaren guztiz aurkakoa zana, milla urte askotan ondo baiño obeto baituta euken askatasunezko demokraziaren aurkakoa zalako.

Ezin da askatasunezko eritzia, morroitasunarenagaz zorro baten batera ekarri, bere emaitza borroka utza dalako ekarriko ebena, eta alan sortu izanda edestiko asken 2.000 urte onetan.

*Eta mauritarren Islam'tarrakaz ego aldetik*, katolikotasunaren bardiñ antzeko zentzuan koraneko ziñeskintzagaz, Euskalerrria bien artean ogi-tarteko bat lez larri estututa geratu zalako, bere askatasunezko demokraziagaz ziñeskintz bien orren aurka bultzatzeko premiñan agertuta, berari egokitzen jakon eukal-lur zabalean nasai agertzeko.

Lapurrezko mamutzar aundi-bi orrein aurkako bultzakada orreitan, beste erregetza asko sortuko ziran, Euskalerrriari miñ asko egingo eutsenak, baiña ez daukenak ardura aundirik, euskal askatasunezko demokraziaren izartasuna, garbi ta argi aurkeztuko dogulako, edesti onen kondairan emoten doguzan oinkadakaz.

*Edestian sartuta, Iruñako erregetzaren sorkuntza orduko, egon ziran erregetzak aipatu bear doguz.*

*Karlomajno frankoaren erregetza eta Iruñako erregetzaren sortarazia, Banu Kasi mauritar jaurlarien ta Iruñako gotzaiaren laguntzagaz, eta Bizkaiko Jauntzaren sortarazia.*

720an Mauritarrak Auñamendiak igarota, Toulouserri eraso eutsoen, eta Eudese, bere ardurazko lurraldea babestearren, espainaren Iparraldeko Mauritarraren emirra izan zan Abinessaren alabagaz ezkondu zan.

Alperrik baiña, Abd-el-Ramanek Abinessa baztartuta eta Auñamenditik aldatuz, Autx ta Eauze menperatzera joan zan.

Mauritarrak, Autx ta Eauzen ikaragarritzko zarraskia egin ta gero Toursera joan ziran, erregetzaren zilborra zalako.

732an Karlos Martel Eudesen laguntzara joan zan, eta Abd-al Raman Poitiersen geratu ta Martel ta Eudese bultzatuta, beartu eben Auñamendiak ostera betiko aldatzen.

Eudonek, ez eban inolako nagusitasunik frankoen aldetik on-artzen, eta 735an Karlos Martelek Euskalerrian sartu eta Eudon il eban. Eudonen urrengoa bere seme Unaldo izanda.

735ean Eudon il ostean, Unaldok frankoari zintzotasunezko ziñ-itza<sup>(1)</sup> emon bear izan eutson.

Karlos Martel 741ean il zanean, Euskaldunak alperrik asi ziran Frankoen agintaritzaren aurka, Waifre<sup>(2)</sup>, III In Pipino Martelen semeak 768an il eban arte, aurre egin eutsoelako.

III In Pipino Laburra<sup>(3)</sup> Martelen semea, Karlo Majnoren aita ta orain frankoren errege II In Otsoari, Akitaniaren jabetasunezko askatasun trukez, esku aundiko Euskaldunen artean berak aukeratzan ebazanak, beragaz baituran<sup>(4)</sup> eroatera beartu eban. Eta ori izan zan II In Otsoak edo Lupok Eudesen edo Eudonen azkeneko semeak, frankoai ordaindu bear eutsona Akitaniaren askatasunagaitik.

Politikan norgeiago izateagaitk errege leiñu jatorrizko<sup>(5)</sup> bi auk. Akitaniakoa: Eudon, I Unaldo, Waifre ta II Unaldo. Eta Karolinjioarena: Karlos Martel, Pipino Laburra ta Karlo Majnoren arteko leian, Pipino Laburra erabagiko eban, 9 urte luzeetan araubideko<sup>(6)</sup> gudaldia eroan ebanagaz garaille urten ebalako.

Frankoak eta Euskaldunak geienetan kidetasunean jokatzan eben, baiña beti asarratzen ziran, erabagiak Euskaldunen aurka joaten ziran.

Frankoak Baskoniako Dukerriaren bitartez, euskaldunekin artu-emon aundia euki eben, Karlo Majnok ardura aundia euki ebalako Mauritarrak bere erreñutik kanpo eukiteko.

Eta orretarako espainaren Iparraldeko emirrekin lankidetu egiten zan, oneik Kordobako Kalifaren aurka matxinatzen ziran.

Bide batez, Baskonian bizi zan, sarri izaten ziran Euskaldunen matxinadak geratzeko.

778an Karlo Majnoren gudaloztea, bere zaldun bioztoi Roland aipagarrien agindutara Salduba mauritarrengandik askatzera joan zan, eta eziñean Iruñatik etxerantza aldatu zanean, Iruña erraustu egin eben.

Eta 778ko Dagonillaren 15an, Karlo Majnoren gudaloztea Auñamendiak aldatzen egon zala, Euskaldunak Orreagan Ibañeta ta Balkarlos bitartean itxaroten kokatuta, ikaragarritzko sarraskitza egin eutsoen, eta Roland ospatsua bera be il.

Gero, 1.090an Rolanden abestiagaz<sup>(7)</sup> betikotu egin zana. Eta Frantziako elerti-lanen artean aundienetarikoa da.

Karlo Majno<sup>(8)</sup> arduratuta euskaldunak askotan matxinatu egiten ziralako, Asturiaseko II In Alfonso nasgabeko erregeagaz alkartu zan, baiña onek beste premiatasun batzuk euki ebazan ego aldean kokatuta egon ziran mauritarrakaz eta ez eutson laguntzarik emon.

Eleizak naita alegin asko egin, euskaldunak Frantziko erregetzagaz alkartu zitezzen, Baskoniako dukaterrian matxinada ugari euki ebazan.

Aita Santuak kaisertzazko domiña aundiagaz danbalaka euren eskuetan eta eleiz katolikoaren aldeko jokuan, erregeen artean onena aukeratzeko almenekuak izan ziran, bata edo besteari indarra emonda, kaisar sakratuaren kaiserra izendatzeko. Danak baiña, azken

(1) juramento de fidelidad. (2) Wifre = Wafarius. (3) III In Pepino laburra = 715-768ko urte artean bici zana. (4) baituran = rehen. (5) Errege-jatorrizko = dinastias reales. (6) 9 urtearen Araubideko gudan = guerra sistemática entre los años 760-768. (7) La Chanson de Roland. (8) 742-814 urte bitartean bici zana.

gaiztoa euki dabe, lenengoetatik okerreko bidean sartzen ziralako, bereztasunezko erri ta erritarrak kontuan ez eukitearren.

800eko gabonetan, Karlo Majno, Erromako Pedro Santuaren Eleizan, IIIIn Leon Aita santuak Erromatarren Kaisar-Sakratuaren Augusto-kaiserra izendatuta etorri zanean, iparraldeko euskaldunak matxinatuta egon ziran.

814ko urtean Karlo Majno il zanean, Akitaniako errege I Pipinok<sup>(1)</sup> bialduta, non agertzen dan IIIIn Pipinogaitik 30 urte ariñago baitua izan zana, Santxo Otsoa, II Otsoaren semea.

Santxo Otsoagaitik zuzenduta egon ziran Nobenpopulania zaarreko euskaldunak. Gero, beren seme nagusi Aznar Santxogaitik, eta au I Pipinok il eban orduan, 836an bere anaia Santxo Mitarrak artu eban jaurkintzaren ardura.

Santxo Mitarra, beren aitagaz ibili zan Nafarroan eta Aragoiko goi aldean, guda eta politikarako trebetasun aundiak artuta.

838ko urtean Akitaniako I Pipino erregeak, gudara beartu eutson Santxo Mitarrai, eta onek Pipinoren gudaloztea Garona ibaiaren eskuma aldera indarrez eroanda, irabazi eutson.

Karlo Majnoren 68 urteko nagusikeritik geroago, Euskaldunak ostera jabetu ziran betiko edo antxiñako mugakaz.

840ko urtean frankoen errege I Luis Errukitsuak<sup>(2)</sup>, Santxo Mitarraren jaurkintza baieztu eban, bera il zanean baiña, Frantziako kaizartzatza beren iru semeen artean banandu eban, eta Frantziako mendebal aldea Akitaniagaz Karlos buru-soillen<sup>(3)</sup> ardurapean geratu zan.

### *Asturiaseko erregetza.*

589-711ko urterarte egon ziran bisigodoak Toledoko errege edo kaisertzan.

711ko urtean mauritarrak erdiugarte onetara Kadizetik sartu ziranean bisigodoak aienatu ziran, Pelayo Toledoko kaisertzan babestuta arik eta 714ko urtean mauritarrak menperatu arte.

714ko urtean Pelayo Toledotik iges eginda, Asturiasera joan zan.

718ko urtean Pelayo Asturiaseko nagusia izenduta, batu ebazan asturiarrekaz matxinatu zan eta Munuza mauritar jaurleriak Pelayo atrapauta Kordobara bialdu eban, Pelayo andik iges eginda.

722ko urtean Munuza mauritar jaurleriak, bere Al Qama gudal nagusia bialdu eban Pelayo egon zan Bres Piloñako<sup>(4)</sup> errira, eta Pelayok beren taldeagaz Piloñako errekea aldatuta, Auseba menditik Kangaseko ibarrean Kobadongako leize zulo baten geratu eta andik erasotuta, Al Qama mauritarren gudalozteak ezereztu ebazan, eta Gigiara<sup>(5)</sup> joanda Munuza jauralaria il eban.

737ko urtean il zan Pelayo eta bere seme Fabila igon eban erregetzazko aulkira.

739ko urtean artz batek il eban Fabila errege au, eta urrengo errege Pelayoren alaba Ermesindagaz ezkondata egon zan I Alfonso<sup>(6)</sup> Katolikoa izango zan Asturiaseko errege. Eta or asten da ostera be, katolikotasunaren batzangotasunezko menperatzail ari ori indarra artzen.

Franko ta Asturiasen aldiko erregeek ortik aurrera, eleiztar katolikuaren aolkuzko aginduz bideratuta, ez eben eukingo iñungo errukirik, Jaungoikuak bereztu ebazan legeen aurka

(1) I Pipino =803-838ko urte bitartean bizi zana. Luis Errukitsuaren = "el Piadoso" bigarren semea, Akitania'ko errege izendatu eban, eta beren anai Lotariorei menpekoa zan, au kaizar izenaren ondorengoa zalako (2) Luis Errukitsua edo "el piadoso" edo Ludoviko Pio 778-840. (3) Karlo "Buru Soilla" = el calvo, 823-877ko urte bitartean bici zana. (4) Piloña = Obiedoko gotzainpean dagoena eta Kangas de Onis'en Auzi barrutikoa. Kangas de Onis izan zan Asturiaseko erregetzarek lenengo uri nagusia. (5) Gigia = gaurko Gijon dana. (6) I Alfonso (693-757) urte artean bici zana = Asturiaseko Kantabriako etxe aundiaren semea.

joateko, eta ez berezko ta sinismen aundiko kristau-erri zintzoen izkuntz eta aberriak sarraskitzeko, nai erri iltzaillezkoetan<sup>(1)</sup> biurtu arren, Jainkoaren ordezkotzan ezarri ziralako.

757ko urtean il zan I Alfonso katolikoa eta bere seme I Fruela<sup>(2)</sup> igon eban Asturiaseko erregetzaren aulkira. Obiedoko uri nagusiaren sorkizuna emoten dautsoe berari.

768ko urtean il zan I Fruela, eta bere urrengo errege Asturiaseko Aurelio<sup>(3)</sup> izango zan, Pedro Kantabriako etxearen billoba zana.

774ko urtean Aurelio il zanean, Silo<sup>(4)</sup> igon eban Asturiaseko erregetzara, gorte edo erregetxea Prabiara eroan ebena.

783ko urtean Silo il zanean ondorengo barik, II Alfonso Nasgabea<sup>(5)</sup> egin eben errege, baiña I Alfosoren sasi-seme Mauregatok kendu eban erregetzatik eta ez eban berrezkuratu 791ko urterarte.

842ko urtean IIn Alfonso nasgabea il zanean, I Ramiro<sup>(6)</sup> Bermudoren semea ipini eben erregetzan anai-guda baten ostean, eta beragandik asita, aldikada aundi baten beintzat ez eben bakerik euki mauritarrekaz.

850eko urtean I Ramiro il zanean, bere seme I Ordoño<sup>(7)</sup> ipini eben erregetzan eta onek maltzurkeri aundiagaz mauritarren aurkako laguntza eukitearren, Saldubako<sup>(8)</sup> Banu Kasiren sendi ta Iruñako erregetza barriagaz be sartu zan arremanetan, baiña eurakaz be sarritan borrokatuta, euren katolikotasunezko nagusitasuna lortzeko asmotan.

Dana dala, Obiedoko Asturias, Santillanako Asturias eta Kantauritar Liebanako lurraldeak dira len asi zirenak mauritarrengandik katolikotasun ziñeskintza berrezkuratzen.

Espainar edestilari maltzur batzuk, espainaren bir-jabetzaren berrezkuratzea esaten dabe zala, orduko denboratan baiña, ez zan jakitzen zer izango otezan espainitarren izen ori.

856ko urtean, I Ordoño izan zan Leoneko uria Asturiaseko erregetzara alkartu ebena, bera inguratzen ebazan ormak ostera eraikita.

866ko urtean I Ordoño il zanean, bere seme IIIIn Alfonso<sup>(9)</sup> igon eban erregetzazko aulkira.

909ko urtean erregetza itzi eban IIIIn Alfonsok eta bere iru semearen artean banandu: Garziak, Leon eta Gaztela; IIn Ordoñori Galicia; eta IIn Fruelari Asturiaseko erregetza.

982ko urtean IIn Bermudok alkartuko ebazan Leongo lurralde bi orreik.

### *Iruñako erregetzaren sortarazia.*

778 ta 824ko urtetan euskaldunak Orreagan, Frantziko errege Karlos Aindiaren aurka euki genduzan borroka bi ostean, Jimenez ta Aritzatar Iñigogaz jaio zan gure Iruñako erregetza, Tudelako jaurkintza eroaten eben Banu Kasi sendia ta Iruñako gotzaiaren laguntzagaz.

### *Iruñako erregetza sortarazteko sortu zana.*

711ko urtean mauritarrak erdiugarte onetara sartzen asi ziranean, bisigodoen errege

(1) Erri-iltzailleak = genocidas. (2) I Fruela = 722-768 urte artean bici zana eta bere Kantabriako etxeokak il ebena. (3) Aurelio = 768-774ko urte artean Asturiaseko errege izan zana. (4) Silo = 774-783ko urte bitartean Asturiaseko errege zana. (5) II Alfonso Nasgabea ( el casto ) = 759-842ko urte bitartean bizi zana eta errege lez 791-842ko urte bitartean. Bere erregetzan aurkitu eben Santiago apostoluaren arrillobia, eta berak antolatu eban eleis jai Jakobeoak edo Santiagoren gurketak bait; Santiagoren bidaia sortu ebazanak, berea izanda ipini eben lenengo irudia Santiagotik-Europarako bidaia zabaldu ebenean. Geiago Karlomajnogaz lotzeko bidaia egir ebena. Bere ama euskalduna zan eta Muniaren izena euki eban. (6) I Ramiro = 791-850eko urte bitartean bizi zana. Bere erregetzan euki eben Klalbijoko borroka (Santiago apostolua zaldi zuri baten gaiñean euren alde borrokatuta, edestiak esaten dauan lez). (7) I Ordoño = 850-866ko urte bitartean Asturiaseko errege izan zana Onek, bir-erriitu ebazan Astorga, Leon, Tuy ta Amaya. (8) Salduba = Zaragoza. (9) IIIIn Alfonso = 838-912ko urte bitartean bizi zana, eta errege lez 866-909ko urte bitartean.

Rodrigok, euskal Eudon Aindiaren aurka ibili zan borrokan Iruña inguruan, konturatuta baiña mauritarren sarrerakin eta bertora joanda, Guadaletoko ibai ondoan egin eben borrokan, bertan il eben Rodrigo, Tarik'en gudalozteak.

714ko urtean Eristaltar Pipino il zanean, Akitaniako Dukaterria frankoen erregetzara lotuta egon zan, eta bakezko itzura emoten ba eben jaurkintz orreik, laster biurtu ziran euren arremanak anai arteko guda zitaletan, mugaldeko lurraldeak, pipinidasen eragipenetik alde eginda.

Pipinok, Teudoaldo euki eban etxezain lez ondorengotuta bere Plektrudis alargunaren agindupean, III<sup>n</sup> Dogoberto erregearen aurka agertu zana, Dogobertok, Rajenfrido izendatu gura ebalako etxezain lez merobinjioaren errege guztientzat.

Laster agertu zan irugarren leiakidea Eristaltar Pepino erregearen sasiseme eldua izan zan Marteltar Karlosegaz<sup>(1)</sup> Austrasiako etxe zaintza eroateko.

714ko urte orretan, Tuterako Kasi kondea Ebro ibaiaren lurraldeak jaurkitzen ebazanak, islamnera aldatu zan.

715ko urtean jaio zan Pipino laburra, Marteltar Karlosen semea eta Karlomajnoren aita izan zanak.

716ko urtean mauritarrak sartu ziran Iruñean eta bertatik Narbona aldera joan ziran.

719ko urtean Marteltar Karlos, Frisiako mendebalaren lurraldeetatik ibili zan.

720ko urtean II<sup>n</sup> Txilperiko il zanean, Marteltar Karlosek IV<sup>n</sup> Teodoriko ipini eban errege lez, au baiña, ez zan panpabixi bat baiño besterik, bere eskuetan.

720ko urte onetan, Mauritarrek peninsula onen jabetasun osoa lortu eben, eta Galiassetan aurkako *razzias* edo azkartasunezko eraso alditan ibili ziran.

721eko urtean mauritarrak Okzitaniako Toulouserri eraso eutsoen, eta Eudon euren aurka joadan menperatu ebazan.

Eudes Aundiak, bere ardurazko lurraldea babestearren, erdiugarte onen iparraldeko mauritarren Emirra Abinessa zanaren alabeagaz ezkondu zan.

Abd-el-Ramanek baiña, Abinessa baztatu ta Auñamendietatik aldatuta, Autx eta Eauze menperatzera joan zan.

Mauritarrak, Autx ta Eauzen ikaragarritzko zarraskiak egin eta gero, Toursera joan ziran, erregetzaren zilborra zalako.

723ko urtean, Marteltar Karlosek, ostera matxinatu ziran saioaren aurka joan zan.

724ko urtean Martelek, Neustriaren ariñauko etxezaiña Rajenfrido eta beragaz matxinatu ziranak menperatu ebazan, euki eben anai guda zital ori amaituta.

725eko urtean mauritarrek, Frantziaren Audeko lurraldean eta Karkasonako ibai ondoan dauan Karkasonako uria artu eutsoen bisigodoari.

725-726ko urte bitartean eta guda amaituta, Babierako Ujbertok, babaroen dukerrirako autakuntza baldintzatu eban, alamanak ortiz aurrera berari laguntzeko beartuta geratu egiezen Babierako guda ekitaldietan, eta onetarako IV<sup>n</sup> Teoderikoren izenean egindako legeak azalkatu ebazan.

730eko urtean Karlosek, Alamania menperatu bear izan eban eta bere Lantfrido dukea il.

730eko urte onetan moroak, bisigodoaren menpean egon ziran Septimaniako lurraldeakaz jabetuta, iparralderantza bideratu ebazan euren erasoak, Akitaniako Eudel dukeari, Marteltar

(1) Marteltar Karlos = "maillua" izen-goiti lez euki ebena, eta 689-741 urte bitartean bizi zana.

Karlosen laguntza eskatzera beartu eutsona.

732ko urtean Karlos Martelek, Eudeleri laguntzen joanda ta Abd al Ramanen mauritarrak euren gudalozteakaz Frantziako ipar alde erasotzen ibilita Poitiersera eldu ziranean, bertan aurkitu ebazan Eudel dukea ta Marteltar Karlosen gudalozteak, eta moruak astintasun ederra artu ta gero, Auñamendiak aldatu ebazan.

Martelentzat gauza ona izan zana, ortik aurrera Frantziaren egoaldeko lurraren jabetasuna lortzeko. Eta batez be, Europak euki eban islamizazioaren arriskutik kanpo geratuta, katolikotasunaren menperatzailletasunezko asmo eritziak jabetu egiezen.

734ko urtean Marteltar Karlosek, Frisiaren ekialdeko gudalozteakaz borrokatu zan eta lortu eban menperatzea. Emen asi ziran euskaldunanak arremanak, Banu Kasiren sendiagaz.

734-740ko urte bitartean ta euskaldun erasoakaz beartuta, mauritarrak guda zainpean ipini bear izan eben Iruñako uria, 741eko urterarte iraun ebana.

735ean Eudon Aundiak, ez eban on artzen iñolako nagusitasunik frankotarren aldetik, eta Karlos Martel Euskalerrian sartuta Eudon il eban. Eudonen urrengoa, bere seme I Unaldo izan zan, frankotarra zintzotasunezko ziñ-itza (1) emon ostean.

735ko urtean, Mauronto dukearen gudalozteakaz aurkitu ziran mauritarrak ta ekialderuntz bideratuta, mauritar gudalozteak Arleseko uria menperatu eban.

737ko urtean mauritarrek Abiñon artuta, euren eraso azkarrakaz(2) Lyon eta Akitaniaraiño eldu ziran. Eta urte onetan il zan IVn Teodoriko erregea.

739ko urtean mauritarrek, naita Probenzako etxezaiñaren birreraso aldia euki, lonbardoak keiñatu edo ta larderiatu ebazan, ta Marteltar Karlosek lonbardoaren laguntzagaz, ia lortu eban lurralde orren jabetasuna, eta lurralde orreik alde bateko ta beste aldeen jaurkintzan ibili ebazan, 759ko urtean Pipino Laburrak, Narbonagaz jabetu arte.

741eko urtearen Urriari Marteltar Karlos il orduko, berak lenengo emazteagaz euki ebezan Pepino Laburra eta Karloman seme bien artean banandu eban erregetza, bera erregea izan balitz lez, Grifon seme txikerrari iñork ez dakien lur ondasun edo beste gauza batzuk emonda.

741eko urtetik aurrera Pipino Laburrak bere anai Karlomanegaz batera, etxezain naugusi ta jauregiko alkate lez bakarrik aginduten eben, naita euren eskuetan erregezko ardurak eroan.

742ko urtean Neustrian jaio zan Karlomajno aundia, Marteltar Karlosen billoba eta Pipino Laburraren seme au.

Eta 742-743ko urte bitartetan Karlomanek, Austrasian egin ebazan eleis batzarrak Bonifacio gotzaiña santuaren lagun eukela, euki ebazan erregezko ondorengotasunaren legeak aldatzeko, eta 744ko urtean Pipinok, Neustriako Soissons'en.

747ko urtean Karlomanek, mendi kasinoko lekaidetxean sartu zan eta Austrasiako lurralde geienak bere Pipino anai txikerrari emonda, au frankoen erregetzan, bakarrezko agintari lez agertu zan.

IV Teodoriko il zanetik ez zan egon erregerik, Marteltar Karlosen semeak Pipino Laburra(3) ta Karlomanek(4) erregetasunezko ardurazkoak izan arren, etxezaiñaren ardurak bakarrik Auki ebazalako, eta errege ordezko lez, Karlomanek Austrasia, Alamannia eta Turinjiaren arduragaz

(1) Zintzotasunezko ziñ-itza = juramento de obediencia, fidelidad, rectitud, honradez. (2) Eraso azkarrak = razzias. (3) Pipino laburra = 715-768 Marteltar Karlosen semea eta Karlomajnoren aita, 741-751 urte bitatean etxe-zaiña eta 751-768 urte bitartean frankoen errege bere anai Karlomanegaz batera 747ko urterarte, eta orren ostean Zakarias Aita Santuaren laguntzagaz, Merobinjioaren IIIen Txilperiko erregea bere aulkitik botata, frankoen erregetza lortu eban eta Bonifasio Santuaren eskutik errege igurtzita 751ko urtean, Esteban Aita Santuak osteria igurtzi eban errege 754ko urtean ortik aurrera bere erregetza Akitania eta Septimaniako lurraldeetatik zabaldua, eta /68ko urtean il zanean, bere erregetza euki zituzten semebi Karloman eta Karlos, gero Karlomajno izango zanakin banandu eban. (4) Karloman = Marteltar Karlosen semea eta Pipino Laburraren anaia, Austrasiako etxe-zaiña.



geratuta, Pipinok, Neustria, Probenza ta Borgofñaren ardurak artu ebazan.

Eta bananduzko ardura orreik erakusten dabe, zelango askatasunak euki ebezan I Unaldok bideratzen eban Akitania, eta Odilonek Babierako dukaterriak, banaketa orreitan ez ziralako sartzen.

*Emen ikusten dan lez, ezertxo be ez zan egiten katolikotasunezko eleizaren kontrolpetik kanpo, eta Pipinok ordaingo talde bat bialdu eban Erromara, Zakarias Aita Santuagaz egon egiezen, maldaberan joan zan merobinjioaren errege leiñua, bere agintezko jaurkintzatik kendu eta bere erregetzazko leiñu aulkian ezarri egien.*

*Or ikusten da nondik agertzen jakien "Jainkoaren eskubidea", gero Jainkoaren eskubide orreikaz, asmatu eben katolikotasunezko aberritasunean laterrituta jaurkitzeko.*

751ko urte onetan ikusten dogu Karlos Martelen seme Pipino Laburra, IIIIn Txilderiko bota ebenean merobinjioaren erregetzatik zaldunai eskatu eutson laguntzagaz, zelan lortu eban karolinjioaren onespena, ortiz aurrera, Karolinjioaren errege leiñua irasi ebalako.

Fredegariok esaten dauan lez, Metzeko Arnful ta Pipino Zaarraren<sup>(1)</sup> leiñuzko semeagandik agertzen jakula Austrasiako erregetzan karolinjioaren leiñua, eta beste ikerketako aztarnak, Kataluñako Sarriaren sendiak euki eban eragipenetik al izan ebela, euren esana euki ebelako 200 urtetan jabetza azaldu ondoren.

751ko urtean Pipino Laburrak<sup>(2)</sup>, Zakarias Aita Santuaren laguntzagaz, Merobinjioaren IIIIn Txilperiko erregea bota eban bere aulkitik, frankoen erregetza karolinjioarentzat lortuta, eta Bonifasio Santuak Pipino igurtze eban bitartean errege izateko, IIIIn Txilperikoren ulea<sup>(2)</sup> koroí antzera moztuten ibili ziran, Saint-Omer inguruan San Bertinen lekaidetxean sartzeko.

752ko urtean San Zakarias Aita Santua il zanean, Bizanzioaren ekialdeko erromatar kaisertza makal egoteagaitik, eta lonbardotar Astolfo erregea Erromari keiñatzaille ibili zalako, IIn Esteban Aita Santuak Lonbardotar Astolfo erregearen aurka egiteko, Alpe-seko mendikateak aldatu ebazan Pipino laburrarengana joateko, gudarako laguntza eske.

753ko urtearen Urtarrillaren 6an Txanpañako lurraldearen ego aldean dauan Pontioneko jauregian, Pipino erregea IIn Estebanen aurrean belauniko ipini zan bedeinkapena artzeko eta gero Aita Santuaren zaldiko gidari-ugelak eskuan artu eta bere lekuraiño eroanda batzartu ziranean, IIn Estebanek, euren arteko alkargo bat egiteko eskatu eutson Pipinori, Pipino bera bigarrenez igurtzeko eskeintzagaz eta sakratuzko "Goi-Eskerrak" bere erri eta sendiarentzat IIn Esteban Aita Santuaren aldetik emoteko aginduan.

753ko urtearen Jorrailako 14an eta Pariseko iparraldean Quierzy-sur-Oisen itzarmendu ziran biak, Pipinok eser-leku edo bizi-leku Santua ondo babestuta egoteko lur naiko zabalak eskeñita Aita Santuari, IIn Estebanek bere gogozko laguntzagaz ordaintzeko aginduagaz.

754ko urtean Uztailaren 28an San Denniseko Eleiz-Nagusian IIn Esteban Aita Santuak, ostera igurtzi<sup>(3)</sup> eban Pipino Laburra *frankoen errege* ta *erromatarren erri-guraso aundiki lez*, eta eleizkizun orreitan beren ama Berta ta iru semeak bedeinkatuta, bedeinkapen orregaz amaitu ziran merobinjioaren leiñuzko erregetzak, karolinjiorenak zabalduz eta IIIIn Pipinoren erregetza ortik aurrera *Jainkoaren aginduz* babestuta, eun eta amaika urtetan iraungo eban karolinjioaren ondorengotasunak bedeinkatuta geratu ziran.

(1) Landen'eko Pipino, edo Pipino Zarra esaten eutsiena = 580-640ko urte bitartean bizi zana eta Austrasiako Merobinjioaren IIn Klotario erregearen etxe-zaiña izanda, bere alaba Begga Arnful'en semeagaz ezkondu zanean karolinjioaren leiñua irasi ebena, eta indar edo eragipen asko galduarren I Dagoberto frankoen erregetzara igon ebenean, 639an I Dagoberto il zanean ostera berrezkuratu ebana. (2) Karlomajnoaren aita zana. (3) Ule luzea frankoen artean eukitea, agintaritzazko ikurra zan. (4) Igurtzi = unguere con oleo sagrado para coronarle rey.

754ko urtearen Urrillako 14an eta Aita Santuari emon eutson itza bete-naian, lonbardogana joan zan berbea beteteko, baiña ez aban artu erantzun onik.

755eko urtean Pipinok, lonbardoak erasotu ebazan eta garaipena lortu arren, bera alde egin ebenean ostera bardin garatu ziran, 756ko urtean lombardoak Erroma erasotu ebelako.

756-758ko urte bitartean Pipinok, lonbardoaren aurka iru ekitaldi egin ostean, Rabenaren inguruetaraiño bialdu ebazan.

758ko urtean eta buruzbide edo gud-aldi onen ostetik Pipino Aita Santuarengana joan zan, Rabena, Perusa ta Italiaren erdiko 22 uriaren lurralde oneik emoteko eta Emilia-Romajna ta Pentakol lurraldeak Erromakin batuta, Pipino lonbardoak erromatarrakaz alkartzeko alegiñetan iraun eban.

755eko urtean Iruñako jendartea eta euskal sendi-aldun batzuk alkartuta, islamnen aurka kokatzen dira.

768ko urtearen Iraillako 24an Pipino laburra il zanean, Karloman eta Karlos<sup>(1)</sup>, euki ebazan seme bien artean banandu eban bere erregetza, eta anai biak igon eben ondorengo lez erregeen aulkira.

771eko urtean Abenduaren 4an il zan Karloman, eta Karlos edo Karlomajnok, urte orretatik asi ta jarraian asi zan akitano, lonbardo, babaro, sajoï ta abaroak, euskaldunak izan ezik menperatzen. Aurrerantzean Kalomajnok, bakarrrik eroan eban frankoren erregetza.

778ko urtearen Dagonillako 15ean Karlomajnok, Auñamendiak aldatu ebazan, ta egiten egoan bidea Saldubara eltzeko bitartean, Iruñari ikutu eutson eukezan ormak botata, itzuli zan orduan be bardin eginda.

Karlomajnok Salduba edo ta Sarakustako<sup>(2)</sup> arresi-ormatara eldu zanean uri orregaz geratzeko Bartzelonako bali'en laguntzagaz, au Kordobako emirra izan gurean ebili zalako I Abderramanen aurka.

Soliman Ibn-al-Arabi mauritar onek, Karlomajnori emon eutson laguntzazko berbea I Abderramanen aurka egiteko damutu ondoren, I Abderramanek Karlomajnori egin eutson jazargo gogorragaz, baita Frantziko lurraldeetan sajoïak matxinatu ziralako, Karlomajnok Soliman Ibn-al-Arabi atrapauta itzuli bear izan eban, eta Frantzira joaten egoala, Orreaga<sup>(3)</sup> ondoren Ibañeta aitz eta Luzaideko aizbitartean euki ebazan itxaroten iruñako euskal minduak In Luporen aginduz ta Banu Kasi sendiaren laguntzagaz, eta frankotarrai emon eutsoen astiñaldiekin, or agertu ziran Roldaneri<sup>(4)</sup> egin eutsoen gudu-eresia eta 1.624ko urtean Balbuenak<sup>(5)</sup> Orreagako "El Bernardo ta Garaipena" idatzi ebazanak 40.000 itz-neurtu edo bertsuakaz. Soliman Ibn-al-Arabi ori, emen askatu eban.

*Denbora onetan, arrizku aundiak euki ebazan euskaldunak, Auñamendiko alde bietatik erasotzen euskuelako, eta sendi bien buruzagi edo agintaritzazko taldetik sortu jakuzan Iñigo ta Belaskotarrak biak aurka kokatuta, Iñigotarrak Banu-Kasi mauritarrakaz senidetu ziran eta Belaskotarrak frankotar Karolinjioarekin.*

781eko urtean Karlomajnok, bere iru urteko seme I Luis Errukitsua<sup>(6)</sup> aurrerantzean errege

(1) Karlos = gero Karlomajno izango zana. (2) Salduba edo Sarakusta = Zaragoza. (3) Orreaga = Roncesballes. (4) Roland, Roldan edo Erroldan = Karlomajnoren loba maitagarrietarikoa. (5) Balbuenatar Bernardo = 1.568ko urtean Baldepeñasen jaioa, gero Mexi-kon bizi eldua izan arte eta 1.604an Mexikarren aunditasuna ta 1.607an "Urrezko-Gizadia Erifleko-Basartean" idatzi ebazanak, gero 1.619ko urtetik asita Jamaikako abatea ta Aberats-Kaiaren edo Puerto Rikoren gotzia eta 1.624ko urtean "Ronzesballeseko El Bernardo edo Garaipena" El Bernardo o Victoria" "Bernardo del karpio" erdiko idatz-gai lez 40.000 itz-neurtu edo bertsuak daukazenak, eta 1.625eko urtean Olandesak egin eben itsas-lapurketako erasoan euki ebazan idatzitako libu geienak galduta, 1.627ko urtean Aberats-Kaian il zana. (6) Luis Errukitsua = Luis el Piadoso, o, Ludovico Pio, 778-840ko urte artean bizi zana, eta Frantziko errege ta Erromatarren Kaisertzazko Sakratuaren agintari lez 814-840ko urte bitartean arik eta il zan arte.

izaten ikasi dagian, Akitaniako errege izendatu eban euskal-berezitasuna ezereztuteko naian, euskaldunak baiña euren nortasunagaitik tematsuak izan ziran lez, beti berrezkuratu ebezan euren askeneko lurraldeak, gaur gagozan lurraldeetan geratu arte.

798ko urte inguruan Iruñak, franko ta mauritarren erasoak euki ebazan, eta Banu-Kasiren sendikoa izan zan jaurlaria il ebenean, euskaldun bat aukeratu eben jaurlari, Banu-Kasi sendiaren baimenagaz.

### *Orreagan egin zan borrokaren oroigarria*



### *Karlomajno, Europaren mendebaleko Kaisar Sakratua*

799ko urtean Iruñako jaurlari Mutarrif Ibn Musa, Belasko edo karolinjoaren aldekoak il ebenean, Iñigotarrak Banu-Kasiren laguntza eskatu eben Iruñaren kontrola eukiteko euskal eskuetan.

799ko urtean erromatarrek, III<sup>n</sup>. Leon Aita Santua arrapatu naian ibili ziran, begiak eta mingaiña kentzeko itxaropenagaz, eta III<sup>n</sup> Leon Aita Santuak iges eginda, Paderbarrera joan zan Karlomajnoaren babesean kokatzeko, bai ta bide batez, Erroma bakeztu egian.

800go urtearen Azaroan, III Leon Aita-Santuak deituta, Karlomajno Erromara joan zan.

Eta Abenduaren 1ean asita Karlomajnok, deituko eleis batzarretara joanda, 23<sup>n</sup> egunean III<sup>n</sup> Leonek ziñezpena<sup>(1)</sup> artu eutsonean, bera errubageko lez aurkeztu zan.

800eko urtearen Abenduko 25ean eta Erromako San Pedroren eleis orretan, III<sup>n</sup> Leon Aita Santuak: Iparraldeko itsasotik Italia erdian dagon Garigliano edo Liri ibaitik, erdiugarte onen Ebro ibairaño ta mendebaleko Atlant-Itsasotik ekialdearen Boemiarañoeko Erromatar Kaisal Erri Sakratuaren Inperator edo *augusto kaisar-jaun koroatu* eban.

Eta amen emoten jako ostera asiera katolikotasunaren joputasunezko batzangotasunari, edo katolikotasunaren aberritasunezko kaisartzazko lengo ariari barrero oratuta *erromatar kaisar erriaren inperatore edo kaisar agintaritzari*.

803ko urtean Aristatar Eneko izan zan euskal-jaurlari barria, eta Banu-Kasiren sendiaz alkartuta, Kordobako erregearen aurka borrokatu ziran eta Muzkariako<sup>(2)</sup> gazteluagaz jabe egin ziran.

(1) Ziñezpena artu eutsonean = cuando le tomó el juramento. (2) Muzkaria = Tudela.

806ko urtetik aurrera eta bizanziotarrak erromako kaisertza makaldu egin ebelako, Karlomajnok bere burua koroatu eban Erromako kaisertzaren jaurlari lez, eta franko ta italiarrentzat ez bazan lapurketa bat izan, Konstantinoplakoarentzat bai, or egon ziralako bizanziotar Irene ta bere ondorengo I Nicéforo Santua eskubide, eta oneik nai jazarraldi gogorrak egin, Karlomajno izen-buru orregaz geratu zan.

812ko urtean Karlomagno Iruña menperatzeko alegiñetan asi zan.

Eta urte onetan Ludobiko Pio ta I Al Akan mauritarren emirrak, bake-une edo gudu-arte bat egitea erabagi eben, Iruñako uria karolinjioaren kontrolpera aldatuta Belasko Gasalkiren agindutara.

813ko urtean Azaroaren lean Karlomajnok, Akitaniako errege eta bizirik geratu jakon askeneko seme Ludobiko Piori deitu eutson bere jauregira joateko eta bertan koroatu eutson kaisar laguntzaille lez, Akitaniara ostera bialduta.

814ko urtearen Urtarrillan, anderrai-miñagaz<sup>(1)</sup> gaisotu zan Karlomajno, eta 21eko egunean ezautza barik geratuta, Urtarrillako 28an goizeko 9rak zirala, euskaldunak menperatzeko gogo aundiak euki ebazanak il zan.

816ko urtean bake-gune edo guda-arte aldia amaitu zanean, I Al Akanek gudaren bideak ostera artu ondoren, Iruñako uriagaz egin zan.

Eta 824ko urtean Ludobiko Piok, Garona ta Ebro ibaiaren bitarteko lurraldeak menperatu gura ebazalako, gudalozte indartzu bat bialdu eban euskaldunen aurka, Euskaldunak baiña prest euki ebazan bere aurka, eta Ludovico Piok eukezan gudalozteak ezereztu ondoren, Aristatar Eneko Nafarroako errege izendatu eben, 852ko urtean zendu zan arte iraun ebena. Eta or jaio zan Auñamendiaren alde bietako Euskal Nafar erregetza.

### *Bizkaiko Jauntzaren sortarazia.*

Durangoko Jauna eta Nafarroako erregearen ordezkoa izan zana Eztegitzar Santxo il da, Bizkaitarrak euren batzar nagusiaren lege-jaurkintzan babesteko eta antolabideak epaintzeko bearkuntzan agertuta, guda-buru ta epaillea aukeratzeko prestatzen asi ziran.

Eta 888ko urtean Paduran Asturiarrakas egin gendun borrokan ta gero Arrigorriaga deituko zan errian, Busturiako gazte bat borroka orreitan egin ebenagaitik aukeratu eben Bizkaiko jaun lez.

Abizenez *Lope* euki ebena, eta bere amaren bidetik Eskoziako erregearen bir-seme edo billoba zana.

Eztegitzar Santxoren alabeagaz eskondu zan. Eta bera izan zan Bizkaiaren leenengo Jauna: *Jaun Zuriaren izenagaz* ezagutu zana, arik eta 909an il zan arte.

### *Bizkaiko Jauntza sortarazteko gertatu zana.*

Asturias ta Leongo errege III'n Alfonso<sup>(2)</sup>, borrokalari sutsu eta aundi edo Majnoren izen goitikoagaz esagutua, 838tik 882ko urte bitartean, beren lurraldeak Mauritarren eskuetatik Duero ibaiaren beko alderarte berrezkuratuta, eta bere jabetasunaren zabalkuntza andiagotu naian, ekialdeko erriak mendean artzeko prestatzen asi zan.

(1) Anderrai-miña = pleuresia, pleuritis. (2) III'n Alfonso 838-912'n urte bitartean bizi zana.

III In Alfonso Arabatik asi zan, eta Arabarrak euren jaun Elionegaz asarratuta egon ziralako, III In Alfonsok Elion kondea arrapatuz, Araba borroka barik eskuratu eban.

Gero Bizkaia menperatzera etorri zan, gaur baiño askoz aundiagoa izan zana: *Sartaldetik* asita Kastro-Urdiales eta Menako ibarra bizkaitarrak ziran, *Sortaldetik*: Deba errekek ureztatu egiten ebazan lurak; eta *Eguerdi edo Ego-aldetik* Aramaiona eta Ayalako ibarrak.

Bizkaitarrak aurre egin eutsoelako, Alfonsok beren bigarren seme Ordoñori deitu eutson, eta guda-indar askogaz Orduña-Amurrio ta Luxaondoko<sup>(1)</sup> bidetik, Bizkaiara sartu zan.

Bizkaiak, Durangoko Jaun Eztegitzar Santxoren agindupean ipini ebazan guda indarrak, eta onek, Ordoñoren gualosteari Paduraraiño sartzan itxita, bertan birrindu ebazan Alfonsoren guda-indartsu orreik.

Bizkaitarrak, bizirik geratzen ziranai atzetik erasota, auek Ayalako Gorobel menditik goiko mendietara igon ebanean, eta jakin ebelako Euskaldunak Bizkaiaren Luxaondoko errian dagon "Malato" zuaitz mugatik ez zirala joango euren atzetik, *a salvo somos* esan eben, eta orregaitik esaten jako lurralde orreri *tierra salvada*.

Padurako erriari ortik aurrera *arrigorriaga* esaten jako, borroka orretan inguruko lur ta arri guztiak odolez margoztuta geratu ziralako.

Borroka orreitan il zan Ordoño, eta beren gorpua Arrigorriagako eleizaren sarreran illobiratuta dago.

Eztegitzar Santxo be bertan il zan, ta beren gorpua Durangoko Tabiran San Pedroko eleizan illobiratuta dago.

Borroka au, 888an San Andres jaia ospatzen dan egunean Azaroko 30ean egin zan, eta ortik aurrera orregaitik, Bizkaiko Askatasunaren itxurapenez artuta dago Ander deunaren kurutzeari gure ikurriñean.

Or sortu zan Bizkaitarren jauntza, Gipuzkoa ta Arabagaz, Nafarroako erreñuaz elkargotuta, 1.224n urterarte iraun ebana. Eta ez espainitarrak esaten daben lez: *bizkaitarrak askatasuna lortu arte*, nafar, bizkaitar, arabatar, gipuzkoatar, benabartar, lapurditar ta zuberotarren euskal-askatasuna, bere izkuntza beste antziñakoa dalako.

*Asturias-Leongo Alfonsotar erregeak eta frantziko Karlomajnoaren artean ondo baiño obeto konpontzen ziran Aita Santuaren laguntzagaz, euren katolikotasunezko sakratuaren batzango-zaletasunak beteteko, eta orregaitik emen bereiztu egin bear dogu ondo baiño obeto: euskaldunak euki gendun askatasunaren demokrazizko jaurkintza, ta espainol frantzezak euren katolikotasunezko sasijainkotasunean euki dabe goitik berako kaisertutako jaurkintzak, jakin degun, Jainkoak bereiztu ebazan legeak, noren aldetik zaintzen diran obeto danon mesede.*

325ean Nizeako batzarrean artu ziran ziñeskintzazko erabagi gogorak, eta Aita Santuaren ustez, Europa ta mundu osoarentzat izan bear zirenakaz, orduan bizirik ezagutzen ziran nai berezkoak edo ta norkerizko erri guztiak, lege orren barruan atrapauta urten ezinik geratu ziran, Europako errigizarteak euren jaurkintzarako antolatu ebazan tresneriak, danak jaio ziralako iru baldintza onen legepean:

a).- *Erromatarren sakratuzko kaisertza ta legeakaz.*

b).- *Norkeriz asmatutako judu-katolikotasunaren aberritasunezko batzangotasunean.*

(1) Luxaondo = Luyando = Malato zuaitza dau erri orretan, muga edo marca esan gura dauena, edo ta erri bien arteko mugatan, iforen lur zatiaren asiera zana, igeslarien babeserako.

d).- *Eta Griegoen jakintzagaz.*

*-Leenengo biak, menperatzailetasunezko baldintzak dira, biak diralako Jainkoak Izadi oneri ipini eutsoezan berezko legearen aurkakoak: "nai daukazan legediarenak", "bai Omosapiensen gizakiak azturaren oiturazko bidetik, baitu ebazan "Arimarenak".*

*-Irugarrena alderantziz, askatasunezko demokraziaren emaitzak emonez gain, guri gaiezko antzerki onetan berez eskubidetuta daukagun "asmatzaillearen" antzezlaritzan kokatzen gaitu, mundu onetako gizon emakumearen "nortasunezko zentzu ederrenean".*

*Orregaitik euskaldunen Euskerea eta euskal Askatasunezko Demokraziren zentzuak, ez daukie alderdikierietan izan gaitasunik, bere bizitzako azturaren oituratu dauan euskal demokraziaren ulertza baiño, askatasunezko demokraziak ez daukelako alderdikieririk.*

*Frankoak eta Asturiarrak alderantziz, lenengo bietan sortzen dan lez, kaisertzaren laterrizko lillurkerizko ametsean, katolikotasunaren batzangotasunean ezarri gurean.*

Bai eta aurrerantzean katolikotasunezko sinismenaren itsukerian sartuta, badakigu berezko ekanduaren jokuan noraiño eldu ziran maltzurrezko errege-lapur aiek, Europaren giza ta errigizartearen eskubide guztiak zapaltzeko.

1.450ko urteetik aurrera, katolikotasunaren ziñeskintzazko jakintza bidetik Europako erritarrak oraindiño guztiz bildurrez ta menperatuta egon arren, errege maillan ta bai gortekoak be, jakin eben katolikotasunezko eritzian ipinitako tresneri guzti orreik guzurrezkoak zirala:

*-Bulda edo eleizako berun-idazkiak euren alde eskerniatuta<sup>(1)</sup>, eurak lortu gura ebazan mesedeetan ibiltzen ebazalako, eta orduan bolboratik asita ekintzaren lanetarako sortu ziran erreztasun guztiak, errege orreik ez ziran izan gai errigizartearen serbitzura ipinteko, eta gudalozteak indartzeko ibili ebazan, euren norkerizko ameskeriak bete al izateko.*

1.450eko urte onetan, espainol-frantzez katoliko oneik batikanoko laguntzagaz ta eukezan maltzurrezko legeakin, gure jaurkintzazko arduratan larregi sartzen ziralako, beartuta agertu gintzazan euskaldunak gure askatasunezko demokraziaren lege ederrak idatzitako liburuetan ezartzea, gurekin artu emonetan sartzen ziranetik, iñork zalantzarik ez dagian euki zelango ezaupideakaz berba egin bear izan eben.

Eta orretarako aurkeztuko dautsuet, gure jaurkintzarako zeintzuk ziran demokrazizko euskal legeak, Europako katolikuak espainolakaz batera, euki eben erromatar kaisertzazko legearen aurka.

### *Euskalerrriaren errigizarteetan jaurkitzeko, askatasunaren demokrazizko legeak.*

Euskalerrri osoko zentzuan eta Bizkaiko gizarteetan batez be daukan milla-urteko edesti luzean, beti izan gara gure *nortasunak* bear dauan *askatasunaren* jabe, naita etsaiak esan, sekula ez garela laterrituta egon.

Euskalerrria, beren sinismeneko demokraziaren askatasunik bage, eta nortasunaren zentzua balduta, gaur egun ez zalako ezer izango.

Alderantziz, bereztasunean sortutako *euskal nortasun* orren antolakuntzazko zabalkuntza, gizon-emakumeetatik asita: etxean, auzoko zuaitz-pean, eta kristautasunaren sorkuntzatik eleis aurrean batzartuta, demokrazizko mailla aundian, zentzu ederrenetarikoak lortu ebazan.

(1) Eskerniatu = falsificar.



Batzar auek aritz, artea eta leizarraren zuaitz-pean egiten ziran batez be.

Eta Bizkaiko Jauntzaren sorkuntzan bost merindade izan ba-ziran: Arratia, Bedia, Busturia, Uribe eta Zornotzagaz, 1.355eko Loraillaren 6an Tello bizkaiko Jaunak, giputzen eraso aldiak geratzeko, Markiñako Billabiziosa erria sort-arazita, Durangoko ibarraren elkartzeagaz, zazpi ibar edo merindadetan osotuta geratu gintzazan.

Batzar nagusiak egin bear ziranean: Ganekogorta, Gorbea, Kolutza, Oiz eta Solluberen, dei adarrezko bost mendietatik, su, adar edo tronpakaz deituta, leku ezberdiñetan batzartzen ziran, adibidez: Gernikako zuaitzpean, Aretxabalaganan ta abar, baiña azkenez beti Gernikan egiten ziran.

Durango eta enkarterriko erri-aldeak, Bizkaiatik bananduta ibili ziran arik eta Durango XVIIIn gizaldi asieran, eta Enkarterria XVIIIIn gizaldearen azkenetan elkartasunezko politikan Bizkaiagaz bat egin arte.

### *Bizkaiko batzar-nagusiaren baldintzak, jaunakin elkar aditzeko:*

Bizkaitar batzar-nagusiak, iru gauzatarako aukeratzen ebazan Jaunak artekari lanak egin egiezan:

a).- Gudal-buru izateko.

b).- Zuzenbidearen buru-nagusia izateko.

d).- Bizkaiako errigizartea ta ondorezko lur zabalak zaindu egiazan.

Eta Jaunaren irudizko buruzagitasuna jarraitasunezko lasaitasunean iraun egian, ain almen ta ondasun aundiakaz jantzi ba eben be, kontu aundian eukinda, emon jakon guztitik berea ez zala ezer, bizkaitarrak, egin bear eben antolarazia<sup>(1)</sup>, itzalgarritasunean<sup>(2)</sup> ezarri dagian emoten eutselako.

Orregaitik, erabakitasunean, egilletasunean eta lege-egilletasunetik apurbat baiño bakarrik ez eutsoen emoten, aginduaren eskubide bakarra *errian egoala* erakusteko.

Baiña alderantziz, gure Batzar-Nagusia Jaunaren aldeko baldintza bategaz lotuta geratu zan: beren gauzatarako izaten zanean eta *gudarako gizonen laguntza bear ebenean*, gure *batzarra* beartuta geratu zalako bere guda-taldea gure mutillakaz osotutea, naita esan dogun lez, beren gauzatarako izaten zanean, *aurretik ordaintzeko beartuaz*.

Ortik aurrera baldintza orren erruz, Euskaldunak gure artean beti, borrokan ibili gara.

### *Bizkaiko batzar-nagusiak, izendatutako Jaunak kendu eikiezan emon jakien jaurkintza lekutik ?:*

Euskal batzarrak almen guztia euken, jaunak ziñez ez ba-ebezan artzen batzarraren agindutako baldintzak, edo eta ziñ egindako baldintza orreik bete ta lotsakortasunean ez ba ebezan eukiten, emon jakien arduretatik kentzeko.

Bizkaiko batzarrak, agintaritzan ez eban euki mugarik, berea izan zalako jabetasuna. Orregaitik, Bizkaitarrak, eurak izan ziran aukera bakarra euki ebenak jauna ipini ta kentzeko.

(1) antolarazia = arbitraje. (2) Itzalgarritasuna = respetabilidad.

*Eta zeintzuk izan ziran Asturias ta franko erregearen katoliko arauak, ta gero sortu ziran Europako erregetegi guztienak ?.*

325eko urtetik aurrera mundu onen jaurkintzarako oraiñarte ikusi dogun lez, Nizean katolikotasunezko ziñeskintzan artu ziran arauetatik ez dabelako ezer aldatu, beti izan dira Aita Santuaren uts ezintasunezko almenagaz, goitik beerako agintaritzan, erritar ta agintari guztien erantzupidearen almenezko ardura guztiak, Aita Santuaren eskuetan batu egin ziralako.

Ortik aurrera eta edozein agintaritzazko mailla guztietan bardiñ sortu daiten, odoljariozko alegiñekaz ibili dira beti, eta gaur be sortzen dan lez, or dabiz katolikotasunezko aberritar asmatzailleak laterrituta euren norkerizko guda-indar guztiagaz, Europa ta mundu guztiko errigizarteak morroituteko alegiñetan.

Gaur norkeri orregaz jokutzen ba-dabe, zer ez egingo ote eben Fernando katolikuaren denboran, adibidez: *Nafarroako erregetzagaz geratzeko, maltzurrezko guzurtasunean Aita Santuaren buldak eskarniatuta ibili ebazanean, onek nafar erregeak eskomunikatu(a) dagiezan, amaitu ezinezko ekintza baten .*

*Eta joko ori izan zan merkantil-katolikotasunezko araupidean gaur lez ibili ziranak, eta euskal edesti onen irugarren zatian argiago ikusiko doguzenak.*

(1) Eskomunikatzeko = falsificación de las bulas del Santo Padre para excomulgar a los reyes de Navarra.

Atutxa'tar Paul

Zornotzan 2.015'ean Urtarrilla'ren 12'an

## **Europako laterrien lapurkerizko arauak eta berezko erriak**

Bilbaon 2.014'an Azillaren 28'an

Euskerazale Alkartearen etxeko "Euskal Astearen itzaldia"

### **3n. ZATIAN.**

#### *Sarrera.*

Edestiko idaz-lan onen 2n. zatia amaitu dogunean, gure Nafar, Arabar, Giputz ta Bizkaiko batzar nagusien zeregiñetan ikusten dogu, zelako baldintzakaz egokitzen ebazan, aukeratzen ebazan artekari jaun erregeak gure arteko eztabaidak bakeztu egiezen. Ostera be gogoratuko doazenak.

Kontuan artuta, ortik aurrera eta edesti guztian Europako jaun erregeak eleizagaz batera, euren norkeriaren katolikotasunezko menpekotasunean, jendekuntzazko errigizarte edo erri bereziaren aurka egoteagaitik, berezko erriakaz ez ebelako jakin gura ezer, danen aurrean argitu bear izan genduzela gure nortasunaren oiturazko lege edo *Foru Legeak*, 1.450eko urtean len idatzita eta 1.526ko urtean, len idatzitakoak zuzendu ta gero bir-idatzi ondoren, etenbageko erasoai aurre egiten bizi bear izan gendulako gaurko egunerarte.

#### *Gure legediaren aurkezpena.*

#### *Bizkaiko batzar-nagusiaren baldintzak, jaunakin elkar aditzeko:*

Bizkaitar batzar-nagusiak, iru gauzatarako aukeratzen ebazan Jaunak artekari lanak egin egiezan:

a).- Gudal-buru izateko.

b).- Zuzenbidearen buru-nagusia izateko.

d).- Bizkaiako errigizartea ta ondorezko lur zabalak zaindu egiazan.

Eta Jaunaren irudizko buruzagitasuna jarraitasunezko lasaitasunean iraun dagian, ain almen ta ondasun aundiakaz jantzi ba eben be, kontu aundian eukinda, emon jakon guztitik berea ez zala ezer, bizkaitarrak, egin bear eben antolarazia<sup>(1)</sup>, itzalgarritasunean<sup>(2)</sup> ezarri dagian emoten eutselako.

Orregaitik, erabakitasunean, egilletasunean eta lege-egilletasunetik apurbat baiño bakarrik ez eutsoen emoten, aginduaren eskubide bakarra *errian egoala* erakusteko.

Baiña alderantziz, gure Batzar-Nagusia Jaunaren aldeko baldintza bategaz lotuta geratu zan: beren gauzatarako izaten zanean eta *gudarako gizonen laguntza bear ebenean*, gure *batzarra* beartuta geratu zalako bere guda-taldea gure mutillakaz osotutea, naita esan dogun lez, beren gauzatarako izaten zanean, *soldatak, aurretik ordaintzeko beartuagaz*.

Erromatar ta keltiarren denboran, Europaren mendebaleko lurraldeak gure eragipeneko lurrak ziralako, erdian agertzen giñan eta euskal-anaitartea, anai-arteko gudan agertzen giñan, gure lurrak babesteko bata eta besteagaz egon bear giñelako.

Ortik aurrera eta jaun erregezko baldintza orren erruz, Euskaldunak beti ibili gara anai arteko borrokan.

***Bizkaiko batzar-nagusiak, izendatutako Jaunak kendu ekiezan emon jakien jaurkintza lekutik ?:***

Euskal batzarrak almen guztia euken, jaunak ziñez ez ba-ebezan artzen batzarraren agindutako baldintzak, edo eta ziñ egindako baldintza orreik bete ta lotsakortasunean ez ba ebezan eukiten, emon jakien arduretatik kentzeko.

Bizkaiko batzarrak agintaritzan, ez eban euki mugarik, eurena izan zalako jabetasuna.

Bizkaitarrak orregaitik, eurak izan ziran aukerea bakarra euki ebenak jauntza ipinteko eta kentzeko.

***Eta zeintzuk izan ziran Asturias ta franko erregearen katoliko arauak, ta gero sortu ziran Europako erregetegi guztienak ?.***

325eko urtetik aurrera mundu onen jaurkintzarako oraiñarte ikusi dogun lez, Nizean katolikotasunezko aberritasunaren ziñeskintzan batzangotzeko, artu ziran erabagizko arauetatik ez dabelako aldatu ezer, beti izan dira Aita Santuaren uts ezintasunezko almenagaz, goitik beerako agintaritzan jaurkitutakoak, errigizarte, erritar ta agintari guztien erantzupidezko almen ta ardura guztiak, Aita Santuaren eskuetan batu ziralako.

Ortik aurrera eta edozein agintaritzazko mailla guztietan bardiñ sortu daiten, odoljariozko alegiñekaz ibili dira beti, eta gaur sortzen dan lez, or dabiz katolikotasunezko aberritar asmatzailleak euren norkerizko guda-indar guztiagaz laterrituten, Europa ta mundu guztiko errigizarteak morroituteko alegiñetan.

Gaur norkeri orregaz jokutzen ba-dabe, zer ez egingo ote eben Fernando katolikuaren denboran ?.

Adibidez: *Nafarroako erregetzagaz geratzeko, maltzurrezko guzurtasunean Aita Santuaren buldak, amaitu ezinezko ekintza baten eskarniatuta<sup>(1)</sup> ibiliten ebazanean, onek nafar erregeak eskomunikatu<sup>(2)</sup> dagiezan, orduko denboran eta nik uste dot beti izan dala, Aita Santuak errege edo jaun baten bat eskomunikatu ezgero, Europako edozein printze edo errege katoliko batek euki ebala baimena, eskomunikatuko errege jaunak euren ezar lekuetatik kendu eta eurak ipinteko.*

*Argi ikusten da emen, Aita Santuak ibilten ebazan katolikotasunezko legeak, ez ebela zer ikusirik Jaungoikoak bereztu ebazan legeakaz, katolikotasunezko legearen lenengo aizkorakadagaz, berezitasunezko errigizarteak nortasun barik izten ebezalako.*

*Joko ori izan zan merkantil-katolikotasunezko araupidean gaur lez ibili zana, eta euskal edesti onen irugarren zatian argiago ikusiko doguzenak, menperatzaillezko eritzia euki ebenak eta askatasunezko demokraziaren nortasunezko guztiak, 2n zatian ikusi doguzan iru baldintzape onen lokatzartetan zartu ebezalako.*

a).-“*Erromatarren sakratuzko kaisertza ta legeak*”.

b).-“*Norkeriz asmatutako judu-katolikotasunaren aberritasunezko batzangotasuna*”.

d).-“*Griego'en, askatasunezko demokraziaren jakintza*”<sup>(3)</sup>.

(1) Eskarniatu = falsificar. (2) Eskomunikatu = para excomulgar a los reyes de Navarra. (3) Aristóteles.

## *Zer sortu jakien mauritarrei ?.*

Mauritarrak be katolikotasunari sortu jakien antzera, errigizartearen controla eukiteko menpeko batzango baten laterrituta Koranen ezarri ebezan euren oiñarrizko ziñeskintzakaz, sinismeneko itsutasunera bideratu ebazala euren mauritar errigizarteak.

Eta bateri ta besteari euren erritarrakaz daukiezan arreman estuak apurbat eztitu, edo goxoagoatu egin arren, ez dautse balio izan ezer, eurak be ziñeskintza orreik Aristotelesen askatasunezko demokraziaren zentzuakaz nastu ebezalako, eta menperatzeko ta askatzeko eritzi bi orreik zorro baten sartuta ekarri ezkeru, *estanda utsean etorten diran lez, bion benetako edestiari begitutea baiño ez dago, eurak erakusten dabelako zer sortzen dan aurkako indar bi orreik batera ekarri ezkeru.*

## *Edestiaren aria artu degun.*

Euskalerriaren orduko ezarpena, iparraldetik karolinjioak, ekialdetik erromatarrak, eta mendebal edo sartaldetik Asturiarrak, danak katoliko aberkidetasunean ziñeskintzatutako batzango zaleakaz, eta ego aldetik Islam'eko Koran'agaz ziñeskintzatutako mauritarrekin, baten bat konturatu al da, zelako bereztasunaren aurkako al-osokeriaren ziñeskintza bien artean, ogitartetuta geratu giñan ?.

Or ikusi leike argi, norkeriz asmatuta zelako ziñeskintza bien artean estukuntzatuta geratu zan Paleolítico Neolitiko alditan, euskaldunak lortu eben askatasunezko demokrazi ederra.

Orregaitik eta katolikotasunezko ari ori ez galtzeko, Nafartar erregetza ta Bizkaiko jauntzaren edestia aldiberetasunean bateratuta eroango dodaz, argi konturatu gindezan, zelako alegiñak egin bear izan ebezan gure arbasoak, guk gaur daukagun askatasunezko demokraziaren baitan edo siñespenean agertu gindezan.

Orretarako:

- a).- Nafar errege ta Bizkaiko jaunaren zerrendak eroango dodaz batera.
- b).- Inkizizioaren, gero ta geiagoko estukuntza<sup>(1)</sup>.
- d).- Sakratuzko gurutzadak zer gura izan eben euskaldunentzat.

## *Euskal Nafar ta Bizkaiko errege-jaun'en zerrendagaz, euskal edestia argitzen.*

778 ta 824ko urtetan ikusi dogu, euskaldunak zelan Orreagan Frantziko errege Karlos Aindiaren aurka euki genduzan borroka bi ostein, Jimenez ta Aritzatar Iñigogaz jaio zala gure Iruñako erregetza, Tudelako jaurkintza eroaten eben Banu Kasi sendia ta Iruñako gotzaiaren laguntzagaz.

Eta 888ko urtean Paduran edo ta gero Arrigorriaga deituko zan errian, Asturiarrakas egin gendun borrokan, zelan Busturiako gazte bat borroka orreitan egin ebenagaitik aukeratu eben Bizkaiko jaun lez.

Abizenez *Lope* euki ebena, eta bere amaren bidetik Eskoziako erregearen bir- seme edo

(1) katolikotasunaren berezko dojmatika edo ziñeskintzaren ondoriotik berez agertzen dana.

billoba zana.

Eztegizar Santxoren alabeagaz eskondu zan. Eta bera izan zan Bizkaiaren leenengo Jauna: *Jaun Zuriaren izenagaz* ezagutu zana, arik eta 909an il zan arte.

Ortiz aurrera eta naita Nafarroako errege ta Bizkaiko jaunaren autakuntzak batzarreko agintaritzatik bideratu, eta Asturias, Leon, Frantzi, mauritarrak, eta gero sortuko ziran erregeak katolikoaren al osokerizko jaurkitzakaz zuzendu, sendi orren artean gure jaun erregearen seme alabak ezkontzen zirala, bakearen truke euren esanetan, edo ta batzangotasunaren txeberazko sare orretatik urten ezinik, esango neuke nik.

Baiña ortik sortzen zan emaitza, eritzizko lokatzarte bat zan, menpekotasun eta askatasunezko eritzia ezin leikezelako batera ulertu.

Or daukagu beste ezaupide gogor bat, konturatu gindezen, zelango borondatea euki bear izan eben orduko euskaldunak euren edestian, norkerizko al-osokeri orretatik gure betiko askatasunaren demokrazizko eritzi ederragaz urteteko.

999-1.036ko urte bitartean, IIIIn Santso Aundiagaz<sup>(1)</sup> agertzen gara eta beragaz gure euskal eragipenezko lur zabalenetan, euskal izkuntzagaz lotuta egon ziran leiñu guztiak batera agertzen diralako, Loira ibaitik Akitania, ta Gaskuñaren dukaterriagaz iparraldetik.

Mendebaletik sortalderaiño berari lotuta geratu jakozan Leoneko erregetza, Gaztelako konderria, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafar erregetza, Aragoi, Sobrarbe ta Ribagorzako konderriak, Lleidaren amaierarte, ego aldetik mauritarren muga euki ebala.

1.035eko urtean IIIIn Santso Aundia il zanean, bere erregetzazko aginduan egon ziran lurraldeak, eukezan lau semeen artean banandu ebazan: Iruñako euskal gurasoen erregetza bere seme IIIIn Garzia Santxezeri; Gaztelarren konderria, Fernandori<sup>(2)</sup>; ezkondu bage euken lenengo seme I Ramirori Aragoiko konderria; eta Sobrarbe ta Ribagorzako konderriak Gonzalori.

Aragoiko konderria oraindiño euskalduna izan arren eta XVIIIn gizaldiraiño iraun<sup>(3)</sup>, Gaztelako konderrian oraindiño euskera egin arren, Nafar erregetzazko eragipenetik urrun egonda, katolikotasunezko batzangotasunaren sare arteko txeberan atrapauta geratu zan, eta gero biak errege egin ziran lez, euren erregetzazko zaletasunean laster biurtuko ziran Nafarroako aitaren etxeko etsai, euskal izatasunentzako kalte aundienak, euren gandik agertuta.

Emengo aurrerako denboretatik asiko dira maldaberak gure nortasunezko euskerean agertzen, gura izan barik, katolikotasunaren batzangotasuna eta gure demokrazizko askatasunaren eritzizko nastetik, iñork ez eban ezer aituko lokatz baten asi giñelako sartzen.

1.150-1.194 urteetan VIIn Santxo Jakintsuaren errege denboran agertzen gara, gure Euskalerra ta izkuntza aunditasun guztiaz “Lingua Navarrorun”, eta Iruñako erreñuari “Reino Navarrorun” izendatu ebazanak.

Zergaitik baiña, aldarrikapen orreik ?

Erljio bidez katolikotasunezko lateraren indarragaz, Nafarroako gorte edo erregetxean aolku edo argibide bat bera esanda be, ez zalako sekula idatzi euskaraz, eta latifñez ez bazan

(1)Gartez'tar IIIIn Santso Aundia = 990-992 urte bitartean jaió, 1.004-1.035eko urte bitartean Iruñako errege eta Aragoiko kondea, 1.015-1.018ko urtetan Sobrarbe ta Ribagorza bere ezkontza bidez 1.035eko urterarte, 1.028-1.035eko urte bitartean bere ezkontza bidez Gaztela, Araba ta Monzonen agiduten eban, 1.030-1.035eko urte bitartean Zea'ko konderrian, eta 1.034-1.035eko urte bitartean Astorga ta VIIIn Alfonsoren Leoneko erregetza menperatu ta agindu ebanetik, Waskonun Gens edo Baskoiaren Aberriko kaisar Jaun koroatuta, 1.035 eko Urriaren 18ko egunean il zan. (2) Naita Fernando onek 1.029ko urtetik Gaztelako konde lez agertu bere osaba “Infant”en ondorengotik. (3) Ueskaren udaleko euskerazko agiria (San Martinen jaietakoa) = Latiegi'tar Bizentek Euskalerraren adiskideen elkartearen idatzitako separatan datorrena (boletín LVIII, 2002-1 San Sebastián) “El euskera en la Huesca de los siglos XIV al XVII”.



idazten, erromantzezko latinkumean idazten zan, latiñ menperatzaille ori katolikotasunaren batzangotzeko ikur bat izan zalako.

Kristoren izenean asmatutako katolikotasun ori erlijio lez ezartzeko, Jainkoak Izadi oneri bereztu eutsozan legearen guztiz aurkakoa da, aberetasunetik asita gizakume jaio barri guztietan baituta daukaguzelako Jainkoaren zentzuzko lege orreik.

Eta premitasun edo larritasunezko leian agertuta, ez ziralako atzeratu, aurrerantzean neurri gogorragoak artuta inkisizio edo fede-zaintzaren zigortasunezko suteakaz, gurutzada sakratuekaz eta egon ziran edo al eben guda-tresneri guztiekaz, Europako gizarte guztiaren edestia, odoljarioz ekarri eban.

A ta guzti be, euskerearen sendokuntza galtzen joan arren, errian baiño, goortetan edo erregeetxetan joan zan geiago galtzen, erriarena ez dalako aiñ errez galtzen, XVIIko gizalditik aurrerantza euskerea, ebrai-izkuntza ta mauritarrena sinesgaitzazko zabalkundean ezarri ebazalako.

Ortik agertzen dira, geroago guk be ainbeste bider entzun doguzan gure euskeraren aurka azpizkeriz ta bai maltzurkeriz iruzurtizko esaerak: *hable usted en cristiano* eta abar.

Baiña arrigarritu egiten nauena, zergaitik ez ote dabe esaten: *“hable usted en katòliko”*

Jesusen irudi ta izena euren asmakizunezko zikinkerietan sartu barik ? .

Gauza onekin apurbat kontuan jausteko esan bear dogu: 1.200engo urtean Gaztelako erregeak Ojakastrori, Fueroak emon eutsozela, epaiketa guztietan euskerea erabili dagien, Ojakastroko erriak ez ebalako beste izkuntzarik jakin.

Emendik aurrera gero ta argiago ulermenduko dogu, euskaldunak Europa maite onetan eta zaarrenak izateagaitik, oso ezagunak izan garela beti, eta erriak nai erregea nor-beren errikoa edo atzerriko erregeakaz itzarmen edo elkargotu egiten ba ziran, euren nortasunezko legeen babeserako alkartzen zirala esan bear da, katolikotasunezko sare orreitan atrapauta egoteagaitik, ez gendulako irten biderik.

1.200eko urtean Araba, guda-keiñuz gaztelatarren gaitik menperatua izan bazan be, 1.332ko urtean Arabarrak beartu eben Gaztelako erregea euren Jauna izan zedin.

1.224ko urtean Bizkaia, Nafarroako elkargotik banandu zan.

Zoritzarrez baiña, 1.370ko urtean amaren Aroko Juana Manuelaren ondorengotasunetik gure jauntza Trastamara leiñuzko Arotar Juanen eskuetan jausi zan, ta 1.379ko urtean, bere buru gaiñean gaztelatarren koroia ezarri eutsoenean, Bizkaia, Gipuzkoa, ta Arabako jaunak, Gaztelako erregeak izan dira, 1.839ko urtean Agorrillaren 31n Esparterok Bergaran, Euskalerrria oinpean menderatu arte.

Emen aitatu egin bear doguna, Gaztelatarren erregeak, Nafarroako erregeak baiño obeto aituten ebala euskal askatasunaren egarria, Nafarroako erregeak eritziz nastuta egotearren, *beart-arazleen premiñazko, indar, edo ta beartzekoak ziralako*.

Orregaitik Obanoseko zaldun Nafartarren erantzuna erregeari: *“ni zure beste, danok batera zu baiño geiago”*. Aztu barik, orduan danak Euskaraz egiten ebela.

Orregaitik gure Euskalerrriko laterrietan, batzangotasunezko babesak eta Jaurkintzazko ekintzak, beti izan diralako *Foruko legeen* alkargo bidez, gure erri bereziko jokabidearen *une* askatasunaren zentzuzkoa izan bear dau, bestela ez da ulertzen iñundik iñora begituta be.

## *Gure jauntzan.*

1.441eko Azaroaren 6an Bermeotarrak, Ibañez de Meauritar Pero euren arduradunai, Jaun edo erregearengana bialdu eben euren Foru-Legeak baieztu egiezan, eta Bizkaiko Jaun II Juan erregeak eskari ori bakarrik ez zala berak Bizkaitarrai zor eutsozenak esan da, Bizkaiaren orokorrezko Foru-Legeak baieztu ebazan.

*Or baieztatzen da, zelan euskal Foru oneik, guk daukagun demokraziaren nortasunezko izaerak, paperezko agirietan bir-idatzi edo agirizko paperetan idatzita agertu daitezen, aldaketa dala.*

*-Eta ez dirala espainolak daukien diru-gosean esaten daben antzera, eurak emoten daben mesede bat dala, euren erregea gure erregea izan balitz lez naastuta.*

*-Euskeraren jaiotzatik, gure nortasunaren jendekuntzazko izaera bereziak, agirizko paperetan idatzita agertu daitezcan diralako, eurak ulertu dagien, zeintzuk diran gure ezberdiñtasunezko jabetasunak.*

Errege onek, ez eban arremanik euki Bizkaiko errigizarteagaz, Gaztelako erregetza moru ta Aragoiko erreñuagaz beti borrokan ibilita, eta lur ta itsasoko guda-indarraren askotan beartuta, Bizkaiko batzar eta alderdikideen buruzagiakaz eskatzen eban laguntza bidez bakarrik berba egiten ebalako.

1.444ko urte onetan, Bizkaitar alderdikidearen arteko borrokak, edesti guztiko gogorrenak eta odoltsuenak izan ziran.

Itsas-ontzi Bizkaitar aldi oneitan, itsaso guztietatik ibiltzen ziran, Moruen aurkako borroketan, eta Ingalterra ta Europa guztian, gure portuaren merkataritzazko bizitzari, arrigarrizko goraldia emon da.

1.450ko urtean, Gaztelako II Juan, Portugaleko Isabelegaz ezkondu zan, eta 1.451eko urtean Isabel alabea euki eban, Gaztelako erregetzan, I Isabel la Katolika izango zana, eta 1.453ko urtean Alfonso semea.

1.451-1.452 urte oneitan, Gaztelaren erregetzazko politikari bildur, edo gure legeakaz sortzen ziran zalantzakin aspertuta, edo euren arduratan, sinisten ebalako ordua eldu zala, Bizkaia, Durango ta Enkarterriko ordezkariak erregearen orde egoan lege-gizon Pero Gonzalez de Santo Domingorengana joan ziran, beragaz orokorrezko batzar bat egin gure ebala esateko.

Pero Gonzalez de Santo Domingo, gizon ona izan zan, eta berak be ulertzen eban, Bizkaitarrak kalte asko eukiten ebazala Foru-Legeak idatzita ez egoteagatik.

1.452ko urtean Ekaiñako 2an Rigoitiako Idoibalzagan egin eben batzar ori, eta Durango, Bizkaia ta Enkarterritarrak, euren keskak aurkeztu ostean, bakotzari ziñezpena artu egiozela esan eutsen, gero eurakaz batera, Bizkaia, Durango eta Enkarterrikoak euki eben oituzko legeak lez, ondo idatzita geratu zitezzen.

Perok aldi orreitan garrantzizko zeregin askogaz egoala ta, maltzurkeririk bage idatziko ebela lurralde bakotzaren arduradunezko ordezkoiari ziñezpena artu ondoren, eurak idatzi egiezala zentzuz, euki ebazan oiturazko legeak, esan eutsen.

1.452ko urtean Uztaillaren 21ean, len, dei-adarrezko bost-mendietatik deituta eta Gernikako Arbolapean batzartuta, arduradunezko ordezkari orreik, idatzita aurkeztu ebazan Bizkaiaren legezko-gorputz labur bat, 219 lege-gai eukazanak, eta bakotzak bere laburpen

bat euki ebana. Naita zenbakitasun au sortzezko-itzulpenarena ez izan, Zelaiatar Adrianek esaten dauan lez.

Kantabroak eskatuta, Kastro Urdialesekoak be egon ziran batzar orreitan, eta orregaitik daukie euren ikurriñean, Gernikako Abolaren irudiagaz edertuta.

1.454ko urtean Ekaiñaren 20an il zan II Juan Gaztelako errege eta gure Bizkaiko jauntzaren Jauna.

Berangandik esan geinke, Bizkaitar Foru Legeakaz adeitsua<sup>(1)</sup> izan, edo ta Bizkaitarren legeak agintzen ebanakaz esanekoa<sup>(2)</sup> izan zala

Bera izan zalako alegindu zana, Bizkaiko erri-Iribilduak eta Eleiz-aurreko batzarrak alkartuta, idatzi egien Bizkaitar Lege-Gorputz ori, Bizkaitar guztien on-iritxi edo atsegintasunagaz.

***Eta emen ikustenda argi ta garbi, bizkaitarren legeak ez zirala erregearenak eta gitxiago gaztelarrenarenak.***

Baiña katolikotasunezko erlijioa gero ta indartsuago joan zalako, gure erregetza, jauntza, gorte ta euki genduzan jaurkintzazko gizon emakumeak euken euskal giza-barrena guztiz galtzen asi ziran, katolikotasunezko eleiztarrak bultzatu ta norkerietan sartuta, erritarrak baiño beste goragoko mailla baten kokatu ziran, erregetza guztia senitartetuta geratu zalako eta Europa osoan bardin sortuta, errege katolikoetan ikusiko dogu, ***ots-aundiko edo fazakerizko katolikotasun itz ori, aundikeri orretarako ipini eutsiela.***

-Ata guzti, Fernandoren ekintzan Nafarroari buruz ikusten dogu, berak oraindiño euki ebala Euskal arimaren baita apur bat, Nafarroa menperatu eban ostean, lotsagizunezko ekiñagaz zaindu ebazalako lengo nafar agintariak bera bizi zan artean.

1.504ko urtean Isabel katolikoa il zanean, Fernando, Aragoiko beren erreñura bigaldu eben, Juana bere alaba Austriako Felipe Ederrarekin ezkondata egon zana Gaztelatarren erregetzara igonda.

1.506ko urtean Agorrillaren 27an gaztelatar errege oneik Fernandok ezer jakin gabe, Nafarroako erregeakaz adiskidetasunezko alkargo bat sinatu eben, eta ortik ikusiko dogu zelakoak ziran Fernandoren asarreak.

Fernando bitartean, Foixtar Germanarekin ezkondu zan eta seme bat euki eben.

Eta Germana ta bere seme oneik, Frantziako erregetzaren oiñordezkoak ziralako, Felipe Ederra ur apur bat edanda il eta Juana zoratu zalako espainaren aberrikoari ikaragarritzko urduritasuna sartu jakien Fernandok zer egingo ote ebanagaz bildur, eta Germana ta bai semea il ziranean, Gaztelarrak deitu eutsoen Fernandori, euren erregetzaren ordezkotzagaz arduratu dagian.

Eta emen, garrantzi aundiko galdera bat agertzen jaku: Zergaitik ez eutsoen Zizneroz kardinalari deitu ?.

Felipe erregea il da, Frantzez eta Gaztelartean gudaren keiñadura sortu zan<sup>(3)</sup>, eta Fernandok orren egoeraren unetxoia gozatu eban, len Juana ta Felipek egin eutsoen narga, urruin edo muziñagaz<sup>(4)</sup> naparrak zigortzeko.

1.512ko urtean Uztaillaren 21an Alba dukearen guda indarrak Iruña aurrean geratu ziran, eta iñungo borrokarik bage 25eko urtean uriko giltzak Albari emon eutsoezan.

(1)Adeitsua = respetuoso. (2) Bizkaitarren Legeak agintzen ebanakaz, "Esanekoa" = humilde, sumiso. (3) Alan esan eben beintzat. (4) Narga, urruin edo muziñagaz = deprecio, menosprecio.

Goian aipatu dogun lez, Fernandoren *euskal baita* apur bat oraindiño eukela ziurtzeko esan bear dogu, Fernandok nai ta guda eskubideakaz ezarri beren ekintza nafartarrakin, Done Fransizko Xabieren aitari, legezko nafar-erregearen aldekoa gorputz ta arima guztiaz izan zanari, euki eban aolkularitzazko aginpidearen errege-lanari lotsagizunez, il arte itzi eutsola.

-1.513ko urtean Epaillaren 23an Nafarroako Foruari ziñ eginda, eutsi egingo ebala nafar jaurkintza guztia.

-1.515ko urtean naita Tudelan sinatu zan alkargoarekin, nafarroako erregeari andik aurrera antolatzeko bideak moztu.

1.516ko urtean Urtarrillaren 23an Fernando il zanean, Nafarroako erregeak ostera be gudarako leiatsu agertu ziran, baiña aurrean Jimenez de Ziznerostar Fransizko, Toledoko kardinal nagusia, fedezain<sup>(1)</sup> aundiena eta orain errege-ordea zana agertu jakien, eta atzera egin bear eben.

Zisnerosek koronel Billalbarekin Nafarroako gaztelu, eleiza ta dorre guztiak moztu ebazan, ainbat nafar ilda ta ereiñeko lurrak kiskilduta.

-Triskantza au eginda, Villalba koronelak Zisneroseri idatzi eutson: *Navarra està tan baja de fantasia despuès de que vuestra señoria reverendisima mandò derrocar los muros, que no hay hombre que alce la cabeza*.

1.517ko urtean Azaroko 8an il zan Zisneros, eta Nafartarrak ostera be gudarako aupatu ziran, Noainen 1.521eko urtean Bagillaren 30ean guztiz apurtuta geratu ziranak.

-Andik aurrera, espainaren Igo Karlos, Alemaniako Vn ta Nafarroako IVn errege izango zanaren eskuetan geratu zan dana.

-Onak, Beenafarroakoak bertan itzi edo ukatu ebazan, eta Auñamendiak berezko muga baten antzera geratzea lortu eban.

Eta emen argi ikusten dana, erregeak elkargokoak izan arren, azpikeriko joko baten bidez, erri-berezien suntsitutasuna gura ebela, baiña erri guztiak iltea lortu ezin leikezalako, alkargoan iraun gendun Austriatarren erregetzaldi guztian.

-Eta nai ta denboraldi orretan Euskal gizon emakume askok apur apurka Madrilleko jauregiaren lorio-bideetan<sup>(2)</sup> zatika jausten jakielako *nortasuna galdu, eta aundikeri edo norkerizko jokia batzuentzat atsegiñezkoa izan zalako*, Euskalerrriaren berezitasunezko izaera XVIIIIn gizaldian gorputz oso baten agertzen da, sinatutako alkargo edo itzarmenaren bitartez espainako erregeakaz gure jaun lez.

IIn Karlos *lilluratu*<sup>(3)</sup> ondorengo barik il zanean, or amaitu zan Austriatar Asburgoko leiñua, eta espainako jaurkintza, bere arrebaren Maria Teresa Frantziko errege XIVn Luisegaz<sup>(4)</sup> ezkondata egon zanaren birseme, Borboi leiñuko Anjoutar Vn Felipeen eskuetan itzi eban.

Eta espainolak aspertu ziralako itxaroten, berezitasunezko erriak ez giñelako aienatzen, Vn Felipe borboia ipini eben errege, ia gudaren indar bidez, ugarteerdi onen berezitasun guztia aienatzen ba eban<sup>(5)</sup>.

1.700-1.714 urte arteko ondorengo guda sortuta, Vn Felipe Frantziko katolikotasunaren aberrizko jaurkintzaren gortekoa izanda, goitik berako batzangomende eritzikoa zan, eta

(1) Fedezain = inquisidor. (2) Lorio-bideetan = pasillos. (3) Lilluratu = el hechizado. (4) XIVn Luis = rey "SOL". (5) Gaur be, ori asi dira egiten alkarteko legearekin, Batzangotasunaren aitzakiagaz

Aragoi ta Katalunya Austriako Karlosen alde egon ziralako, "*Nueva Planta*"ren legea atarata, biak eukezan Foruak ezereztu ebazan.

Euskaldunak eta Bizkaitarrak batez be, jakin eben laster agertuko zala onantza, eta alan sortu zan, katolikotasunezko batzangotasunagaz mugak Gaztelako lurraldetik Bizkaiko itsasoraiño aldatu gura ebazanean, lurraldearen batzangotasun billa ibili ziralako eta portuaren merkataritzazko zerga ordaiñak, gure erriarentzat bearrezkoak eta gureak izanda, ordaiñ orreik eurak gura ebazalako.

Bizkaiko gizartea matxinatu ondoren, Vn Felipek ezereztu ebezan agindu orreik, eta mugak ostera joan ziran beren lekuetara, Foruak beti lez geratuta.

### **1.789ko urtetik aurrera, denbora berriaren alditan sartzen gara.**

Edestiaren irauntasunean ta apur apurka agertzen ziran aurrerakuntzakaz, denboraren aldaketakaz lengo erregeen orokorreko aginteak indartu barik makaltzen joanda, Nizeatik be merkantilismoagaz batera etorten zan katolikotasunaren batzangotasuna be makaltzen etorri zan, eta nai ta Europaren berezko errietan eta Euskalerrian Iparaldeko iru lurralde ta egoaldean, Nafarroa, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian gure askatasunezko eskubideak euki, tresneri barri orreik indarrezko aukeran emoten eutsoezan neurrian, euren asmakuntzak asi ziran gogortzen, gure berezko erri Foru-Lege Zarrak erasotuta.

Zergaitik baiña menperatu gura ote eben berezko erri ta errege irudiak, euken jabetasun ta antolatzaile edo artekarizko ardurak?

Erregetza orreik, XVIIIn Mendetik onantza makaltzen joan ziran lez, ta berezko erriak ekanduzko ardurean indarra artzen, batzangotasunaren asmakuntzazkoak, erromatar kaizar sakratuaren katolikotasun tresneri orrekin ez ziralako gai izan munduko giza guztia eritzi baten inguruan batzangotzeko, saio barri bat asi ziran antolatzen.

1.789an Frantzian egin zan iraultza izan zan saio barri ori, laterritutako lurralde aundien jendeak pillotuta, erri ta izkuntz ezberdiñ orreik, ia aienatzeko gai izaten baziran, erromatik asmatuta, etorten zan latinezko katolikotasunaren al-osokeriak.

Frantziko lurraldearen erregeen artean, franko erregeak, lenengo leiñuetatik beti, goitik berako jaurkintzaren zaleak izan ziran lez, iraultetaren ondorio bidetik, Frantziko gizarte ta lurraldeak batzangotu gura ebazan, eta ararte euki ebazan antolabidezko<sup>(1)</sup> erregeen ardurak baztartuta, berezko erriak daukezan nortasunezko izkuntz eta lurrak guda bidez latinezko katolikotasunaren asmakuntzazko aberritasunagaz laterritu eban Frantziko lurraldea, danak frantzez biurtuta.

Eta katoliko batzangotasun ori mundu osorako asmatuta izan zan lez, Europa osoan eredu ori artuta, ararte egon ziran itzarmen bidetik antolaraziko erregeakaz lotuta, lurralde aundietan, guztiz Laterrituta geratu zan, aberri barriak katolikoaren izen gaiñerakoagaz.

Europa guztian, erregetzaren antolaraziak, gauzezean edo ezerezaren<sup>(2)</sup> maldaberazko aipu-txarrean<sup>(3)</sup> egonda, Frantziko erregeai *lepoak mozteko gailluan* XVIIn Luis 1.793an Urtarrillaren 21ean eta bere emazte Mari Antonietari Urriaren 16an kendu ba eutsoezan euren buruak eta Frantzesaren legezko eskubideak *legetasuna, senidetasuna, ta bardintasunera* goraldtu ospe aundiko itzekin, *zeozeren ustel-usaiña euki eban, berezko errigizar-*

(1) Antolabide=arbitraje. (2) Ezerezaren = Incapacidad. (3) descredito.

*tearen eskubideak menperatu egin ziralako*: Frantziako erregeen antolarazitik, frantzezarren erregetzara aldatuta, berezko izkuntzak euskerea lez ezereztu naian, mercantil katoliko fazizta batzangotasun orreik laterritzeko.

Zer ote sortu jaun euskaldunai baiña, aldaketa orreik gure artera agertu daitezana ?

## **VIIIn Fernando.**

1.808an Epaillaren 19an Asturiaseko printzearen alderdia gogor eginda lortu eban, IVn Karlosek erregetza bere seme VIIIn Fernandoren eskuetan itzi egian.

1.808an Jorraillaren 15ean VIIIn Fernando, Napoleonegaz Baionan alkartzeko Gazteizen egoala, Bizkaitarrek gure Lege Foruak ziñez izenpetzeko, Gernikara joateko eskatu eutsoen.

Eta 1.808an Jorraillaren 15eko egun berean, Bizkaitar beste talde bat be aurreratu jakon, indarrez ipinita eukezan portuko kapitaniak edo gudal buruzagiak kendu egiezala, Bizkaitarrak bere jaunagaz euki ebazan arreman onak, ostera bere onera ekarteko.

1.808an Jorraillaren 17an VIIIn Fernandok, euki genduzan Foru Lege guztiak baieztuz, gauza biak onartu ebazan, eta agindu ebazan bear ziran aldaketak egiezala, Bizkaitarrak euren egokitasunezko askatasunean jarraitu egien.

1.808ko Loraillaren 6an Napoleonek, IVn Karlos eta VIIIn Fernando Balenzaiko gazteluan atxilotuta eukazala, gortearen ekintzazko antzeko bat egin eban, bere anai Napoleon eta Bonapartetar Jose Espainako errege aulkian ezartzeko.

Napoleon eta Bonapartetar Josek, Bizkaiko Urkijotar Mariano Luis, bere ordezeko ministrua, eta Mazarredotar Jose Domingo gudaontziren ministrua izendatu ebazan, eta Mazarredotar Jose Domingo Bizkaiko Batzar Nagusietan buru zala, Bonapartetar Josek, itz eman eban Bizkaiko jaun lez.

Napoleonentzat baiña, gauzak ortik aurrera okertzen asi jakozan, eta a ta guzti, Napoleonek Euskal Nortasuna onartu ta be, berak Europako Laterri guztiak lez, Euskal izaera Frantzez biurtu gura eban, Frantzezak IVn gizalditik asi ta, beti ekarri dabelako azpitik marratuta, katolikotasunezko batzangotasunaren meneko eritzi ori, eta asmo oiekaz, mundu au kaisar baten agindupean elburutu gindezana.

Bizkaiko gizartea matxinatu ondoren, VIIIn Fernandok ezereztu ebezan Euskalerra ta Bizkaiarentzat batez be menpeko lege orreik, baiña leen espainako gudataldeakaz eta gero Frantzesarenakaz iru bider orren aldizkan ia bost urtetako ainbeste nekaldi ekarri ondoren, beste garrantzizko gauza bat sortuko zan: ***“euskaldun batzuk Frantzez zale ta beste batzuk espain zale egin zirala***, euskal gizartearen ***baita*** naspillatuta, gero espainol jaurpideekin eta karlistadaren guda bidetik, geiago naastuko zana.

1.810ean Iraillaren 24an, gudal nagusiak, Kadizeko gorteetan erregearen ordezekoa egiten egon zirala sortu eben ***“espainitarren jaurgo barria”***<sup>(1)</sup>, eurak aitu edo gura eben espainol guztientzako ezarri bear zala ta, ***euskal Foru lege, nortasun eta berezko erri lez euki genduzan eskubideko askatasunak kontuan artu barik***.

Gudalburu nagusiek, emen euki eben guda indarragaz arrotuta eta erregearen gaiñetik kokatuta, jaurgo barri ori, danez gain ezarri gura eben.

Baiña begitu zer agertzen da emen: ***espainako gudal nagusiak erregearen irudia buru lez euki gura ebenak, euren agindupean edo sortu eben konstituziozko jaurgo barri orren***

(1) Espainako jaurgo-barria = creación de la nueva constitución Española, edo “VIVA La “PEPA”.



### *legepean beartuta ezarri ebela.*

Gudal nagusi aiek, zelan egin ebazan gauza orreik erregearen gaiñetik, eurak ez ba ziran iñor lege orreik egin eta gitxiago ezartzeko ?.

Orregaitik itauna: European nortzuk euki eben agintaritzazko indar nagusi ori, eleiztarren azpiko aolkularitzan, katolikotasunezko aberkoitasunean batzangotuz, kaizartzazko laterri orreik ezarri zitezzen ?.

Danok dakigu, diru zalekeri aldekoakaz batera, Erromako katolikotasunak zer gura eban Europa ta mundu guztirako, bera izan zalako erregearen gaiñetik Europaren aolkulari nagusi ta bakarra 1.685 urtetan.

Mendizabalek<sup>(1)</sup> orregaitik, Kadizen egoan espainaren gudal-gorte edo guda yaurleri<sup>(2)</sup> agindupean sortutako konstituzioaren legezko jaurgo barri ori, Bizkaian ipini gura eban, ***Euskalerrarentzako zeruaren oneitariko atsegin sari bat lez***, espainaren beste lurralde bat geiago izan edin, eta orretaz alegindu zan.

Espainako gizarte guztia emendik aurrera kideku egingo zan, espainako konstituzio barri orregaz batzangotuta aurrera egiteko, eta apur bat baiño geiago jaurkintzazko ulemenean naastuta, lengo antzera, erregearen al osokerizko agintaritzaz gura eben artean.

1.812an Urrillaren 17an indar ta maltzurkerizko auteskunde baten aukeratu ziran euren aldeko euskal ordezkariai, Kadizen egoan guda yaurliaren aurrean aurkeztu zitezela agindu eutsen, espainako jaurpidearen agiri orreik izenpetzeko.

Eta 1.812an Azaroaren 1erako antolatu zan, espainaren jaurgo agiri barri orreik, Bizkaiaren Udal guztiko erritarren aurrean irakurri eta gero ziñ zitezzen.

Bizkaitarrak narda askorekin egin ebena.

1.812an Abenduaren 13an jaurgo orreri ziñ egin ondoren, Euskalerraren iru lurraldeko Udal guztuari agindu eutsen, 1.813n urte guztirako espainar eritziko ordezkariak aukeratu egiezala, Euskalerra ta Bizkaiko gizarteak jaurkitzeko, euskaldunak oiñaze ta nekaldi aundi baten sartu ebena.

1.812an Abenduaren 31n, ostera sartzen dira prantzez gudalozteak.

Eta 1.813an Bagillaren illa erdian, ostera urtetan dabe prantzez gudalozteak Bilbotik.

1.813an Bagillaren 21ean, Arthur Wellesley Wellington dukeak Gazteizen, Napoleonen gudalozte menperatzen dau, eta Napoleonen guda taldeak ortik aurrera, Frantzira aldatzen dira betiko.

1.813an Uztaillaren 21ean, espainaren lurralde guztiko gotzaiñak asi ziran keiñatzaille esaten, ***espainako ordezkari gaitik iñork ez egiela txarto barbarik egin, zuzen edo ostonduz, iraulketaren eritziak sartu ez zitezzen.***

Eta orretarako, espainako eleiz guztietan, urte guztietako Epaillaren 19an ***Te Deum*** abestu egiela agindu zan, espainako jaurgo zaleak ekarten eben askatasun omenez.

1.813an Azaroaren 11n, Napoleonen gudalozteak porrokaldi gogorra artuta, Napoleonek Balanzaien elkargo bidez ziñatu bear izan eban VIIIn Fernandoren askatasuna, bere erregetzazko aulkian ezarri egian.

1.814an Epaillaren 13an VIIIn Fernando, frantziaren lurraldeko Balenzay erritik urten eben espainarantza.

(1) Mendizabalen izen-abizenak = Juan Alvarez Mendez izan ziran, 1.790an Kadizen jaiokoa judutar sendi baten. (2) Guda yaurlaria = gobierno militar.

1.814an Lorailaren 4an VIIIn Fernandok Balentziatik, espainaren jaurgo zale gudu ordezkariak Kadizetik keñuz agindu ebezan lege guztiak, ezereztu ebazan, eta gure Foru Legeak ostera ezarri ziran betiko eredutasunean.

1.814an Urrillaren 15ean VIIIn Fernandok, ostera baieztatzen dauz Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Foru Lege guztiak, Bagillaren 27ko eskutitzan egin ebanez.

Eta, 1.814an Abenduaren 14an Nafarroari beste agindu batekin, bere erregetzazko eskubideak berrezkuratu eutsozan.

1.819ko urtean IVn Karlos, VIIIn Fernandoren aita, Napoleonen atxilotasunetik aske geratuta, espainara itzuli barik, Erroman bizi zan, bertan il zan arte.

1.820ko urtean, ostera azten dira gure Foruen aurkako eraso aldi gogorrak.

Guzur, maltzur eta indarrezko bidetik euskal gizartearen *Arrazoizko Baita* lokaztu egingo dauana, ta urtearen aldaketako bidean *euskal nortasuna* ezereztasunezko amiltegitira bideratuko dauana.

1.823ko urtean VIIIn. Fernandok, gualburu jaurgozaleak indarrez beartuta, espainako jaurgo barriari ziñezko itza emon bear eutson.

1.823an Jorraillaren 2an, prantziko errege XVIIIIn Luisen gualozteak, Angulemako dukearen agintean Baionatik agindu eban: *“espainara aldatuko zala VIIIn Fernandoren laguntzan, bere erregetzaren absolutismo edo alosokerizko jaurkintza lortu egian”*.

1.830ean VIIIn Fernandok, *salikako* legea ezereztu eban, bere alaba Isabel errege aulkian ezarri zedin. Eta espainaren ondorengo guda sortuta, gure Euskalerrarentzat zoritxarreko ondorioak ekarriko ebazan, txeberazko guda orreitan nai ta nai ez, nastuta geratu giñelako.

1.833an Iraillaren 29ko arratsaldean VIIIn Fernando il zan, eta bere emazte Maria Kristinak artu eben orde z espainako jaurkintza, arik eta euren alaba IIn Isabel erregetzazko adiñetara eldu arte.

1.833an Azaroaren 30ean, erregetzaren jaurgo barriaren agindua.

1.833ko Urrillan sortu zan Espainan erregetzaren ondoriozko guda, karlisten aldetik, VIIIn Fernandoren anaia Karlos Maria Isidrok bideratuta.

1.839ko Urrillan Euskalerrria gudariz beteta itzi ondoren, Espartero 44.000 gudarigaz Zaldubara joan zan, bere gualtegia Mas de las Matasen ezarrita.

1.839an Urrillaren 25ean eldu ziran Euskalerrira gure eraberritutako “Foru Legeak” bere txatal baten esaten eban araubide onegaz: *“Sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquia”*.

Eta beren bigarren idazkunean, gure *“Foruak, espainako erreñuaren orokorrezko konstituzio edo iraspenagaz egokituta”* esaten ebana.

1.841ean Dagonillaren 16an espainiako jaurkintzak Nafarroako Aldundiren baimenagaz, 1.839an Urrillaren 25ean sinatu ziran egiuneko legeari ezeren jaramonik egin barik, lotsagarritzko *“Ley Paccionada”* ezarri eban.

### *Bigarren kalistaren guda be egin gendun emaitza onekaz.*

1.876an Otsaillaren 15ean, espainiarren jaurgo edo konstituzio barria aldarrikatu zan, 1.931garren urteraiño iraungo ebana.

1.876an Otsaillaren 28an Lizarra, karlisten irudi edo karlista gudarien itxurapenezko irudizkoa zalako, espainiako liberal gudalozteak eraso ta odolkerizko<sup>(1)</sup> sarraski gogorrenak egin eutsoezan, eta geiagorik ez eutsen egin, ezin ebelako.

Euki eben etsaimende orrein bitartez:

VIIIn Karlos, 26an Burgetera eta 27an Balkarlos'etik igesean Tolosara joaten da, baiña Uri au be eraso gogor baten bidez inguratuta, ta urrengo egunean etsaimentzeko egon zalako bertan sartu ezinik, Baztaneko ibarrera joan zan.

**Oraiñarteko bitarte labur onetan gauza bi ikusten doguz, bata: *katolikotasuneko konstituzioaren jaurgo ori, noiz nola edo ta euren naierara ibili ebela egokitzen arrazoizkoa biurtzeko, gure gaurko egunetan, eurak orduko denboretan egiten ebena legezkoa zala esateko.***

***Baiña, nun edo zelan egongo ote ziran berezkotasunaren errigizarteko etsaiak, jaurgo ori arrazoiz biurtzeko ?.***

***Izkilluaren indarkeriak arrazoizkoak ote dira ?.***

**Bestea: *Lizarra karlisten eskutik kendu ebenean, amaitu zalako bigarren edo irugarrenko karlisten guda, espainitarren XIIIn Alfonso erregea garaitsuki ta keiñatzaile Donostin sartuzala.***

1.876an Otsaillaren 28an VIIIn Karlosek, Balkarlosen, gudaloztearen 10.000 gudariei ikustaldia egin eta gero, Nafarroako Arnegitik aldatzen dauz Auñamendiko mugak ostera itzultzearen aldarrikapeneko itxaropenagaz, Gaztelako 6 talde, Asturias eta Kantaurikoak 4 talde, Balentziako 3 talde, eta zaintzale zaldun talde bategaz, Plasenziako 6 kañoi-sail, Usarezak eta bidearen erakusleakaz joan zan prantziko euskal lurretara Arnegiko zubitik.

Eta Nafartar gudari taldeak, Orbaizeta eta Burgetetik aldatzen dabez mugako mendiak.

Egun orretan XIIIn Alfonso espainiar erregea, Iruñako Urian sartzen da bigarrenez.

1.876an Epaillaren 1ean VIIIn Karlosek Baionatik, eskutitz bat bialdu eutson Segarratar

Tomaseri, esaten: ezereztu egiezala ostera borrokan asteko Kataluñan egin ebezan alegiñ guztiak, aurrerantzean ez zalako egon ezeren etorkizunik peninsula onetan Iparraldeko gudalozteak etsaimendu ziralako.

Eta Segarratar Tomasek itzarmenduta eukezan gudariekin Frantzira aldatu zan.

Ekintza onegaz, amaitu ziran beste aurkako guda guztiak.

VIIIn Karlosek amaitzeko, eskutitz bi bialduta espainitar erritarrai, eta bestea beren gudariari.

1.876an Epaillaren 2an Lapoblaziñoko gaztelua jeneral ordezeko Araoz'eri etsaimendu zanean, bere bost gudal agintari, 76 gudari, 8ko kañoi bat, osagille bat eta apaizakin, amaitu ziran karlisten izena eroaten ebezanak espainiarren ondoriozko guda onetan.

XIIIn Alfonso Iruñatik asita, Gares, Lizarra, Los Arkos, eta Logroñotik Gazteizera joan zan, eta Durangotik Bilbaora txalo ugari artean.

1.876an Epaillaren 13an XIIIn Alfonso Bilbotik Portugaletera joan zan, eta inguru ori ikusita gero, Somorrostron aldarrikapen gogor bat egin eban gure foruen aurka, gudalozte irabazleari berba onek esanda:

***“Fundada por vuestro heroísmo la unidad constitucional de España, hasta las más remotas generaciones llegaràn los frutos y las bendiciones de vuestra victoria”.***

(1) Odolkeri = ensañamiento, encarnizamiento. Sarraski = estrago, destrucción, carnicería, degollina.

**Berak “bakea garaipendu” ebala esaten eban, baiña zelan lortuko ote eban bakerik, ezpata indartsu ori eragin gogorraz, buruak itxuraz bakarrik makurtuazo baiño ez ebazan egin ?.**

XII In Alfonso Somorrostrotik Madrillerantza joan zanean, gauza baragarri batzuk sortu ziran bidean, eta geien Santanderretik aldatu zanean, oneik konturatu barik, edo ta konturatuta, baiña barregarritzko ekintza zikin baten:

- Andrak bulerretan, aterkiñetan, umien jantzietan, eta abar.
- Musikari edo soiñu-jotzailleak euren tresneri edo ereskiñetan.
- Gizonak kapela, ginbail edo ta txapel eta lebitetan.
- Poxpollo ontzietan.
- Nai aizagalluetan<sup>(1)</sup>.

-Txakurrak eztarri edo ta lepoko, ustai edo lepustaietan, ormatan, etxeetan, eskegitako ikurriñetan, kaleko argietan, dendako ateetan ta erakus tokietan, baita ikusi leiken leku guztietan ipinten eben iragarki au: **“ABAJO LOS FUEROS”**, lotsagabekerizko zomorro jai bat izan zana, **“Euskalerrriaren Legezko Izatasunari eta bere seme-alabari”** bortizko indarrean eta ain gorrotozko berotasunekin, ezinbesteko amurrua erakutsita.

Eta alderantziz, Foruen alde jokutzen ebanai edo ta Foruen babesean zeozer erakusten ebanai, zigor andi ostean, oial txabola baten sartu eta jende gabeko basamortuetara bialdu, bere izatasunezko aberriaren alde urten edo ta beren izena aldarrikatzen ebelako.

1.876an Jorraillaren 6an espainiar gortekoak, Somorrostron XII In Alfonsok esan eban guztia onartu eben, eta Kastillotar Kanobasek gure euskal Foru Aldundiko arduradunai Madrillera deituta, agiriko aldarrikapen bategaz, au esan eutsen:

**“Eurak guda au, ariñauko izaeraren legezko utziera, eskubide, edo ta elkarpede barik irabazi ebela”**

Esan orrekaz argi itzita, guda irabazi ezkeru, eurak izan zirela eskubide guztiaren jabe. Alan ote da ?.

Jainkoak Mundu onetan bakez bizi gindezan, oiñarrituta daukazan Legeen gaiñetik, gudako legearen era orreitan ordezkatu bear ba genduzan zor-eskubidearen eginkizunak, gudak eta borrokak etenbakoak izango ziran, oraiñarte izan eta diran lez, menperatzeko baimen edo ta gudarako eskubide orreik, danorenak izan ezkeru.

Orregaitik mundu onetako gizon/emakumeak ez daukagu eskubiderik iñungo legerik agertzeko, Jainkoak ipinita daukazan Legeak ardura andiz eta gogo onenean bereztuta, egipidetzea baiño besterik.

Eta begitu zelango aldea dagon eurak esangura dabenetik, egin bear doguzan egizko egipideraiño, lege orreik, fazizta zapaltzaillearen legeak diralako.

1.876ko urtean Nizeto Alkala Zamora espainiarren errepublikako lenengo lendakaria izan zanak, **Las Nacionalidades** idatzi eban liburuan esaten eban:

**“En España la cuestión de los vascos es mucho más grave que en Francia. No los une a los demás pueblos de la península, ni la raza, ni la lengua, ni el carácter, ni las costumbres, ni las leyes”.**

**“No siguen el movimiento político del resto de la nación. Vencidos, se les ha arrebatado con los fueros la exención del servicio militar y de los tributos.**

(1) Aisagalluak = abanico, ventilador, eta abar.

**¿Son por eso más españoles ?.**

*Es indudablemente el resultado natural de la diversidad de razas ese antagonismo que entre ellos y nosotros existe.*

*A poco que se combine aquí los distintos criterios para la teoría de las nacionalidades, tengo para mí que se habrá de estar por la independencia de los vascos.*

*¿La consentiría España ?.*

*¿Se está seguro escribe en otro pasaje de su libro “Las Nacionalidades” que esas y otras provincias no vuelvan a levantar pendones por sus antiguos fueros ?.*

**En mi opinión duerme el fuego bajo la ceniza”.**

1.936ko urterarte, Europaren katolikotasunezko kaisar batzango zale aberkoi faziztak ikusita, euren eritziak iñundik iñora ez zirala onartzen, bigarren guda-nagusia antolatzen ibili ziran bitartean, Franko ipini eben gudal-buru erdiugarte onetan, katoliko eleiztar, Alemaniako Hitler, ta Italiako Mussoliniren laguntzarekin, bigarren errepublikea ezereztu ostean, kaisar edo nausitzargo agintaritzan indartu egien katolikotasunezko aberkoi batzangotasuna erdiugarte onetako laterrian, bigarren guda irabazita Europa osoa, euren norkeriz Nizean asmatutako katolikotasunaren agindupean jaurkitzeko.

Gaur ez dira ausartzen beste bat egiten, munduko bizitza berrogei bider aienatzeko atomozko lerkaiak dagozelako.

Baiña badabiz bai, saio barri bategaz, edo ta diruzko era bidetik lortzen, len amaibageko gudakaz ezin ebena lortu, guda ostetik menpekotasuna lortuta, eta bizitzeko bear doguzan diru ta mozkiñak, denbora gitzi baterako izaten zalako errigizarteak euren norkerizko kontrolpean eukitea, gaur diruaren kontrolakin gura dabena luzerorako lortu, len gudakin ezin ebena.

Noiz arte ibiliko ote gara, burukaldi gogor orreikaz ?.

Eta errigizartearen nortasunezko eskubide ta jendekuntzazko izkuntzak gaur zer ?.

2.000 urteko erasotasunaren arazo gogorak daukaz gure Europa ta mundu onek, bere jaurkintzazko zentzuan ezarri ezinik.

Jaungoikoaren bereztasunezko legeakaz, eragilletasunaren askatasunezko ardurakaz jaiotakuari, batzuk, euren sasijainkotasunezko norkeri bidez, morripeko serbitzuan gure dabezelako ipini.

Gaurko Europa ta munduan, katolikotasunezko uts-ezintasunezko Aita Santuaren eredu edo jarraibidetik agertzen dira, gizaki gitzi orreine esku-artean eukitea eragilletasunezko ardura guzti orreik jabetuta.

Eta zer gertatzen ote jaku goitik berako jaurkintz orreikaz ?.

Arduradunezko gitzi orreik, norkeriaren sasijainkotasunera aldatuta, eurena izando balitz zalakoan, eurentzat egiten dabela, eta orregaitik arrapetan dira geienak, eskuak diru artean daukiela.

Noiz arte ?.

Katolikotasunaren batzangotasunezko asmakuntz ori, Jainkoak bereztutako legearen aurkakoa izanda, guzurra utsa da, eta guk zor-eskubidearen ordezkari arduradun lez, Berak bereztu ebazan legeekin jaurritu eta bideratu bear doguzelako egiten doguzan guztiak, baten batek esango daust noraiño eldu oteko garan ?.

Ondorio lez, esku luze edo lapurtzazko ugaritasun aundienera eldu gara Europa onetan, eta Grezia, Italia eta espainolaren eragillezkoen antzera, erriaren euneko diruaren kopurutik eurak eroaten dabe larogeta-emeretzia, erritarrak guztiz beartsu edo ta morroitasunean txiratuta.

Europako erri ta errigizarteak, orregaitik dagoz arduragabetasun onetan nortasun guztia galduta, eta ez dau dauan lokatzartetik urtengo, arik eta zor-eskubidearen ordezkartzazko ardurak, danoren artean banandu arte, bizitza onen ardurak, danoenak diralako.

Guzurra, guzurragaz bakarrik elikatu leikelako, baten batek iruditu leike zer egin dogun 2.000 urtetan **egiagaz**, norkerizko guzurragaz bere gaiñean mailluka, burdiña-lantzen lez ?.

Europa eta mundu onen errigizarteak zaintzeko, orokorrezko ardurea bear da, eta berak daukan astuntasunezko egin bearragaz, ezin leike edozein erataro edo batzangotuta eroan, ardura orreik dagozanen artean bananduta baiño.

*Nire ustez, goitik berako aginduan baiño, bealdetik asita orokorrezko ardura orreik, danoen artean bananduta esagura dau eroan bear doguzela, danon zor-eskubidearen ordezkartzazko ardurak diralako.*

*Eta antolakuntz ori adierazteko, zeitzuk dira egitarauen aurretikoak aurkeztu bear doguz lenengo, aurretiko orren gaiñetik jakin daigun, guk ezin dogula baldintzapetu egitamu onen antolakuntzatik ezer, ardura orreik Jaungoikoarenak diralako.*

*Zeintzuk ote dira oñarrizko adierazpen orreitan, aurretikoen xeetasunak ?.*

a) *Zor-eskubidearen ordezkartzazko arduradun jaioten gabela.*

b) *Gai-bizi onetan, eragilletasunetik kanpo ez gabela ezeren jabe, ezer ez dogulako eroaten bizi onetatik.*

d) *Eragilletasunaren arduradunak jaioten gabela gai-bizi onetara, aurretiko bi orreik zuzentzeko.*

*Zelan azalduko ote dogu, aurkezten dogun egitamuaaren adierazpen au ?.*

*Bizi ontara jaioten garanean neska mutilok, Paleolítico Neolítico denboratan euskaldunak egin gendun bezela alkartzen gara, eta senar-emazte biurtuta etxea sortzen dogu ortik gora auzotuteko, eta auzotasunetik udal edo ta erriak osotuta, errizko ugaritasunean lurraldez laterritu.*

*Oituraren azturazko bide orreitan izkuntza sortuta, izkuntz orren ezaugarritasunezko nortasunezkoak biurtzen gara, ta aberri baten batzen doguz, izkuntz orren eragipeneko lurraldekoak garenok, be maillatik gorako maillararte talde bakotza, bere batzordeagaz.*

*Batzorde bakoitzean aukeratzen diran arduradunak bialtzen dira goi maillako batzordeetara, azken maillako batzordera edo aberriaren batzordera eltzen diran ordezkari arduradunak azken edo goi maillako erabagiak artuta, izkuntz orren eragipeneko nortasunezkoarentzat.*

*Guzti au lendakaritzarik gabe, danak bakotza bere neurrian aukeratutako artekariak bakarrik diralako.*

*Zetan ezanik be, emen zeozeren bagetasunean gabela, gure ordezkartzazko arazoan aurrean eta euren arteko igurtziketan istillurik ez daiten egon, bear dogun koipea edo ta arazo gogor baten aurrean aurkeztuta gora askabide begituten dogunean Jainkoaren billa, Beragandik agertzen jakun maitasuna da koipe ori, zor-eskubideko ordezkartzaz*



*guztietan emon bear doguna, maitasun ori dalako mundu onen erri edo ta aberri guztietan eroan bear doguna, bakez bizi gindezan.*

*Eta Jainkotik jatorkun maitasun ori da latiñez esanetan "religare" edo ta erlijio lez antolatu egin bear doguna.*

*Baiña ez, katolikotasunezko batzangotasunaren norkerizko asmakuntzan, Jainkoak orokorrezko gaiari bereztu egin eutsezan legearen azterkuntzan baiño.*

*Dirua ez da jainkoa, dirua, ordezkari izateko bizitz onetan, guk ordezkari izateko asmatu bear iza dogun tresneri bat bakarrik dalako.*

Atutxa'tar Paul,  
Zornotzan 2.015'eko Urtarrilla'ren 3'an

# MALLORKATIK – TXANGOLARI

(1)

## *Aurkezpena.*

2.014n juandako urtean, nire emazte Lourdes'ek esan eustan, Mallorkako ugartera joateko aukerea geunkela urrengoko 2.015n urtean Inersoko bidetik, eta ia zer esaten neban nik itaundu eustan.

2.007ko urtean egon giñan Balearseko Ibizaren ugartearen 15 egun txangolari, eta gure gogoetan oroi onak euki genduzelako, baietza emon neutson.

Lenengoetan enintzan konturatu ni lotuta egon nintzela Mallorkako ugarteagaz, 2.013ko urtean Kristobal Kolon'en buruz idatzi neban **“Kristobal Kolon, Nafarroako IVn Karlosen semea zala ta”** eta bereala agertu jatan burura, **“zer izango ote zan Berd eta Martoreill'tar Gabrielekin “KRISTOBAL KOLON ERA NOBLE Y DE SANGRE REAL”** idatzi ebanagaz.

Bizirik ote da ?.

Eta gure artera agertu ziran Kristobal Kolonen gora bera orreik, jakin dagizuen zelango garrantzi aundia daukan Euskalerrarentzat leen, eta Euskerazale ta Euskerazaintzaren alkartearentzat, asieratik argituko dautsuedaz gertatukoak.

## *Gure euskal arteko arduratan, Kolonen zergaitiko edesti laburra:*

Gure euskal Nafar-alaba Lorda'tar Trini (**G.B.**), betiko edestilariak gure Euskalerra edo Nafarroaren edestiagaz egiten ebazan maltzurrezko naastetasun ta ostonketagaitik beti asarre egoan.

-Bere samintasan edo erresumindutasunean<sup>(1)</sup>, Euskerazale edo ta Euskerazaintzako taldeari eta batez be Egurrola'tar Iñaki eta niri idazle lez bialdu euskuezan **“Madrilleko Librería Nauticaren Robinson'en liburutegian”** Kolonen liburua erositakoagaz batera eskutitz bat, esaten, ia ez bagiñan oartu Kolonen buruz agertu ziran iru liburuakaz **“CRISTOBAL COLON, ERA NOBLE Y DE SANGRE REAL”** izen buruarekin.

Uriarte'tar Anak (**G.B.**) artu eban bereala beste liburu bien ardura Deustuko Ikastetxe Nagusitik askeneko liburu bi orren orri guztien argazkiak atarata.

Eta Iñaki ta nik, eskutitz bat bialduta Lorda'tar Trini'ri esan geuntson, arduratuko giñala Kolonen barri orreikaz, eta bide batez Euskerazaleen **“ZER”** aldizkarian idaz lantxo bat argitaratuko gendula (2.007'an orrilla'ren 5'ean bete genduna). Eta iru liburuaren mamiagaz, Euskerazaintzaren aldizkarian 100 orri aldiko idaz-lan oso bat argitaratuagaz, 2.013an Urtarrilla'ren 19'an bete egin genduan.

2.015'eko Loraillaren 8'an, atzo, egon giñan Iñaki ta ni Agurainen, gure Euskerazale ta Euskerazaintzaren lendakari dan Amorrortu ta Barroeta'tar Klaudio klaretiarragaz, eta klaretiarren lekaidetxean alkartu giñanean, bereala esan neutson **“Jainkoak, saritu egiten ebazala bizi onetan, egizko alegiñetan dabizenak”**, ta egia da, danari aukeratu egiten dauskuezelako bideak, egizko bideetatik arduratzen garanean.

(1) Samindu edo erresuminduta = irritada, escandalizada.

Nik beintzat, iñoz eneban sinistuko *Berd ta Martorell'tar Gabrielekin* egongo nintzela, eta gitxien *aukeraz*.

Batzuk, *alabearrezko gauzak dirala esaten dabe. Baiña, alabear asko ez ote dira ?*

Dana dala eta nire ustez, Uriarte'tar Ana (*G.B.*) ta Lorda'tar Trini be (*G.B.*), urriñ ez dirala egongo ustean nago.

### ***Mallorkaren edesti laburra.***

Mallorca, Ibiza eta Menorka ugartearen artean kokatuta dago. Baleareseko ugartearen artean aundiena da.

3.625 kilometru karratu, 554km itsas-bazterreko luzeeran, Puig Mayor mendiaren goialdiak 1.500 metrorekin, eta Erdi Ugarte edo peninsulatik 25 leko<sup>(1)</sup> Bartzelonaren Egoalderaiño dagoela ia 740.000 biztanle daukazan.

Palma, bere Uri nagusiaren edertasunean, abelur-ikastetxe, zapataren langintza eta atzerrien txangoketaz, gaur bizi da.

Bere ibar-zelaietan batu egiten dira daukazan errigizarteak, eta baita nekazaritzaren bizi-bideko zeregiñakaz.

Giroaren<sup>(2)</sup> gora-beran, Lurrarteko itsasoarena<sup>(3)</sup> da, naita sarritan Saajara'tik agertuta, Atlantikoaren eragipenezko eskutartean egon<sup>(4)</sup>.

Egu-giroa, ur-gabeko edo legorra da, eta gezaltsu izanez gain<sup>(5)</sup>, beren bata besteko eguraldiaren otz-beroak 18° bero-maillaren girokoak dira, eta bere urteroko euri kopurua, 497 litro metro laukondekoa.

Ta naita bere lurak areazko buztindunak izan, garrantzi aundikoak dira bere nekazaritzan laboreko limoi-ondo, laran-ondo euren urre-sagar ederrakaz, aleak, zitu edo bii'ak<sup>(6)</sup>, oli-aranak<sup>(7)</sup>, marikol edo ilar-txikia<sup>(8)</sup>, maatsa<sup>(9)</sup>, barazkiak<sup>(10)</sup>, lur-sagarra<sup>(11)</sup>, txerri-arbi, frantzes-arbi edo udarbia<sup>(12)</sup>, arbendol<sup>(13)</sup>, ainbat motako piku edo ikoa<sup>(14)</sup>, gatza<sup>(15)</sup>, arraintzak<sup>(16)</sup> eta abar.

### ***Mallorkako gizaren edestia.***

Esporles'eko erriaren Kanet'eko leizean aurkitutako aztarnak, K.a. oraiñ 7.200 urtekoak dirala emoten dabe, eta K.a. 3.000-1.300 urte inguruetan, nekazaritza ta Abel azkerazko gizakien talde txikerrak agertzen dirala esaten dabe.

K.a. 1.300 urte inguruan ejipziarrak euren jakiturizko mailla aundienean egonda, eta Greziarrak orduan ezagutzen zan mundu guztiko itsasoetatik asi ziranean ibiltzen, K.a. 1.000 urte gitxi gora-beran, Euskalerrian "Triku-Arri, eta eurak gaur "Talayots" esaten dautsoen jendekuntzatik datorrela esaten dabe batzuk.

Europaren mendebaleko oitura bardiñ orreik bakarririk esaten dabena, orduko Europaren mendebaleko bistanle guztiak, jendekuntz batekoak zirala, da.

Eta egia nastuteko edo Nizean laterritutako katolikotasunaren aberrikuntzazko fazizta indarrak euregandik kanpo, euskal edo iñoren aipamenik agertu ez daiten, abailari edo

(1) Leko = legua, que equivale a 5.572, 70metros. (2) Giroaren = climático. (3) Lurrarteko-Itsasoa = Mar Mediterraneo. (4) Atlantikoaren eragipenezko eskutartean egon = bajo la influencia de la fuerza atlántica. (5) Gezaltsu = salado, salitroso. (6) Zitu edo bii'ak = cereales. (7) Oli-aranak = aceitunas. (8) Markol edo ilar-txikia = algarroba. (9) Maatsa = uva. (10) Barazkiak = verdura, legumbre, vegetal, hortaliza. (11) Lur-sagarra = patata. (12) Txerri-arbi, frantzes-arbi edo udarbia = remolacha. (13) Arbendol = almendra. (14) Ainbat motako piku edo ikoa = mucha variedad de higo. (15) Gatza = sal. (16) Arraintzak = variedad de peskas.

kutrilluzko arri-jaurtikitzaillearen<sup>(1)</sup> izena emon gura dautsoe len gizaki orreri, tupiki edo brontzezko ubalarien giz-irudiak zugazti edo lore baratzetan<sup>(2)</sup> kokatuta.

-Europako mendebal onetan Atlant-Itsasotik Alemania erdiraiño, eta Eskoziatik Kadizeraíño milla urte askotan ez ziran egon Neandertal, Omosapiens, Kromañon edo iru mota orretatik sortu ziran euskal gizakiak baiño besterik, arik eta K.a. 2.000 urte ariñoago Keltiarrak agertu arte.

-Bestela ikertu egiela, Mallorkako Arenalean ostatuz egon nintzan Habana-Bay arroztetxeak, daukan **"Bay"** bertoko ibaiaren izen ori, nundik nora datorkion.

K.a. 123ko urtean, Kinto Zezilio Metelo erromatar konsulak menperatu eban Mallorkako ugarteak.

425eko urtean Bandaloak sartu ziran.

534ko urtean bizanziotarrak menperatu eben.

903ko urtean Kordubako Omeyatar mauritarren menpean geratu zan.

1.229ko urtean Iraillaren 12an, Aragoiko I Jaime "Garaille edo Menperatzaillea" ontzitik lurreratuta, Mallorkako ugartean sartu zan Santa Ponza aldetik.

1.229ko urtearen Abenduko 31n Mallorkako Palma uri nagusiagaz jabetu zan.

1.276-1.349ko urte bitartean Mallorca, jabetasunezko erregetzan biurtu zan IIIn eta IIIIn Jaime'ekin, Frantziren ego-aldeko Rosellon eta Montpellierreko Jauntzaren lurraldeakaz batera, arik eta Aragoiko errege IVn Pedrok Llutxmayorreko borrokan, IIIIn Jaime il eban arte. Ortik aurrera eta naita IVn Jaimek alegin guztiak egin erregetza berrezkuratzeko, IVn Pedrok atxilotu ta burdiñezko kaiola baten sartzea baiño ez eban lortu.

-Eta Aragoiko IVn Pedroren aurka egiteko, 13 urte kaiola orretan egin ondoren lortu ba eban iges egitea, Napoleseko Juana erregeiñagaz ezkontzea, eta Trastamaratar Enrikegaz alkartutea, sekula ez eban berrezkuratu berari egokiozan jabetasunak, 1.349ko urte orreitan IVn Pedro Zeremoni-zaleak betiko lortu ebazalako Mallorca ta beste ugarte guztiak Aragoiko erregetzagaz.

1.516ko urtean Aragoiko IIIna eta Gaztelako Vn Fernando katolikoa il zanean, Aragoi Mallorca ta guzti, Gaztelako erregetzagaz bat eginda geratu ba zan, eta aragoitarrak naita jaurkintzazko bizitza euren erakundeakaz bideratu, 1.715eko urtean ezereztu jakien berezko lege oraindiño eukezan askatasunaren jabetasunezko ardura orreik, Vn Felipe borboiak bere **"Planta Barriaren"** guda tresneri indartsuagaz, zan guztia zapaldu ebalako.

1.983ko urtean ta espainitarren araudi edo jabetasunezko menpean <sup>(3)</sup> **"Lurraldearen Buru-Jabetasunezko Araudiak"**<sup>(4)</sup> onartzeagaz, askatasun apur bat berrezkuratu eban.

Mallorkako erriaren diru guztia, ixil edo ta eskubitarren bakarreko eskuetan dago, Mallorkako biztanleak bizitzeko bear dabezan gauza guztiak, gaurko Europa ta mundu guztian sortzen dan lez **"Nizeako eleiz. batzarrean katolikotasunaren eritzia asmatu ta ziñeskintzatu zanetik, erromatar aberrikuntzan Laterritatuko menpean dagoelako"**.

***Mallorka ugartearen edestia ta Kolonen alditan bizi ziran jendearen jakituri ta nortasunezko zeregiñaren aurkezpena.***

(1) Abailari edo kutrilluaren arri-jaurtitzaille = honderos o tiradores de piedras con honda. (2) Zugazti edo lore-baratzetan = parques. (3) Espainitarren araudi edo jabetasunezko menpean = bajo el imperio de la constitución española, o debajo del "Nacional Catolicismo Español" como hoy sucede. (4) Estatuto de Autonomia.

XVn gizaldian Mallorkako Ugarte, Aragoiko lurraldea zan eta ez eban ezer ikusirik Gaztelako erreinuarekin, Kolon gaztelaniko gorteetara joaten zanean atzerritar bat lez joaten zalako.

Mallorka Ugarte ur-ingurutasunagaitik, baleiteke urriñetik etortea, bearrezkoak ziran mapagintzazko zaletasunak itsasoko jakintzakaz batera.

Baiña Mallorkaren nortasunezko jakintza, ezin da ulertu Lull, edo Llull'tar Raimundo frantzizkotarra barik, eta kondaira luzea dalako, zati aundi baten murriztuko dogu.

1.232ko urtean Mallorkaren Uri Nagusia dan Palman, gaur bere Kale Nagusiko 5n zenbakian egon zan etxean jaio zan Llull'tar Ramon teologu, mistiku, olerkari, jakin-zale edo filosofu mallorkindar au, eta ainbeste jakituri euki ebalako "**Irakasle Argitsua**"ren ez izenagaz esagutzen eben danak, Katalanezko izkera zentzuntasunduagaz batera, geien idatzi ebelako.

200 liburu baiño geiago dagoz gaur latin, arabiar eta katalaneraz idatzita.

Llull'tar Ramon au, 14 urtegaz sartu zan morroi lez I Jaime Aragoiko erregearen zerbitzura, bere seme Pedro ta Jaimegaz lagun eginda.

Ezan geldirik egoteko gizona, eta Aragoi ta Kataluña ikusteko beren denborak eukezan, ezkondu ostean seme bat eta alaba bat eukinda.

Baiña erlijioagaitik deituta, geiago gura eben Kristoren barriak zabaldu misiolari lez, eta ekintza orreitan aleginduko zan, gurutzada santu gora beran garrantzi aundikoa izanda Vn Zelestino eta Vn Klemente Aita Santuaren bitartean egon ziran beste Aita Santuakaz.

1.270-1.272ko urte bitartean, Konpostelako Santiagotik erromes ibilita, Mallorkara joan zan eta Arabiar eta Latiña ikasita, "**El Llibre de Contemplacio**" arabieraz idatzi eban.

1.272-1.275 urte bitartean, **Llibre dels gentils i del tres savis**" ta olerki luze batzuk.

Ortik aurrera eta 1.283ko urtean bere idaz nagusi "**Blanquerna**" be idatzi eban.

1.289ko urtean "**Felix edo libre de meravelles**".

1.295-1.296ko urte bitartean, bere beste idaz-lan garratzi aundiko zana be idatzi eban, "**L'Abre de Ciencia**" katalanieraz.

1.295ko urtean Frantzizkotarren lekaidetxean sartu zan, eta bere adierazko idaz-lanak izten eutsoen bitartean, siñezbagekoak eskolatzen emon ebazan bere denborak.

1.302-1.307ko urte bitartean, "**Liber de Fine'ko**" liburua idatzi eban.

1.305-1.308ko urte bitartean "**Ars Magna**", liburuaren mamian "**egiaren billa idazten dauana, jakintasunezko aiñ mailla aundian egiten dauelako, bere arau bidea erakusten,**" omentsu artu eben "**Mestre**" izena emon eutsoena.

1.312ko urtean Bienako Eleiz Batzar Nagusia amaitu zanean, ostera joaten da Mallorkara.

1.314ko urte erdi ingurutik, Afrikaren lurraldean Iparraldeko itsas-ertzearen Bujia Urian lurreratuta, Tunezera joan zan mixiolari, eta itsas-ertzeko Bujiaren errira bigarrenez joanda, lenengo ostera egin eban antzera gogor arrikatu eban lez, oraingoan ez eban euki ainbesteko aldi onik eta 1.315eko urtean 83 urte eukezala, bertan, Bujiako errian il zan. Gaur bere gorpuaren ondarrak, Mallorkako Palma Uri nagusiaren frantzizkotarren eleizan illobiratuta dagoz.

Berd eta Martorelltar Grabielek esaten dau, Llull'tar Raimundok itzi eutsoen ikerketaren bidez jakitunezko lan aundiak, oso garrantzi andikoak izan zirala itsas-araudietarako.

Llull'tar Raimundo<sup>(1)</sup> onek, bere askotako liburuetan aipatzen dauz orduko itsas-eskutitz edo mapak, zelan izan ziran orduko itsaskuntzarako<sup>(2)</sup> oiñarrizko gidariak.

Eta azterkuntzazko bide orretatik, itsasontzien itsasketetan ur-zeroaren mugazko ertzera urreratzean, eta urrengoan be itasontziakaz leku bardiñetik urtenda, berriz izarrak atzean geratuz jakin ebalako munduaren biribiltasunagaitik, *“inkisizio edo fede-zainduaren katolikotasunak, sutan erre gura eutsoen, gaur doatsugilletuta<sup>(3)</sup> egon arren”*.

Bere denboran sartu ziran itsas-ontziaren gidari izateko *“Gabeko Astrolabio”<sup>(4)</sup>*, euren iguzki-orratzakaz<sup>(5)</sup> ta *“Ipar Orratza”*, berari emonda sarrera orren irabazpide ori, eta baita bi-orratzeko *“eres/neurkiña”<sup>(6)</sup>*, itsasoko-eskutitzetan aizeen sorrerazko aldi bitarteak neurtu al izateko.

Eta gaurko egunetan euren bitartez esan leike, Llull'tar Raimundo bere azterkuntzazko bidetik, bera izan zala igarri ebena mundu onen borobiltasuna, beste lurralde aundi batzuk be egon zirela asmatzeko.

Llull'tar Raimundo berak, Mallorkan bere jakituri aundiagaz itsasoko-eskutitz edo mapa-gintzazko eskola ori sortu ebanak esan eban, *1.286ko urtearen baiño ariñautik asi ziralala Mallorkako itsastarrak, izarrezko eskutitz orreik erabilten*.

Ez gitxiago Kreskes judu-leiñukoak Ludi-mapagintzan egin ebenakaz.

Jafuda'tar Kreskes, judu mapagille aundi bat zan, XIVn gizaldi erditik XVn gizaldiko lenengo erdiaren urte bitartean bizi zana.

Kreskesek ainbat katalan izkuntzazko Ludi-mapak egin ebazan, danetatik 1.375ean egin ebena bakarrik izanda geratzen dana, eta bera Parisen, Frantziaren *aberriko liburutegian* erakusten dabena.

Jafuda'tar Kreskes bere aitagaz batera kristautu zanean, Ribes'tar Jaume'ren izena artu eban.

1.327-1.330urte bitartean Mallorkan beragaitik eginda eta esagutzen dan itsas-eskutitz zarrena dana, Londreseko *“British Museum”*ean dago Add. Ms.25691 asi-izkiekin.

1.339an Dulzert'tar Anjelino sinatzaille zala, Mallorkan lenengo ezagutu ta siñatu zan itsas-eskutitza *“Pariseko Aberriaren Liburutegian”* erakusten da.

Eta lenengoz sartu ziran *“Aize-Arrosak”<sup>(7)</sup>* Katuluñan Jafuda ta Kreskes'tar Abrahamek egindako mapa-sortan sartu ziran<sup>(8)</sup>.

### *Juduak, itsasoko mapagintzan Mallorkako ugartean jakiten ebana.*

Llull'tar Raimundok, eskolaren ereduazko jakituriz, katalanez idatzi ta margoztu ebezan itsas-eskutitz edo mapak, garrantzi aundienetarikoak dira, askoz geiago, itsas-osteko arduraren orretan ba ziran, eta eginkizun orreik dira aurkezten dauskuezanak, Mallorkan egon ziran itsas-osteko ikerketaren zaletasunezkoak.

Kontuan artu bear dogu, juduak orduko denboran euki eben merkantil artu-emonakaz, mauri ta kristau mundu guztitik zabaldua aurkezten zirela, eta ondo baiño obeto ezagutzen ebezala Lur-Arteko itsasoa eta beste itsasoetatik ur gaiñean ibilteko bear ebezan orduko tresneri guztiak.

(1) Llull'tar Raimundo = 1.235-1.315 urte bitartean bizi zana. (2) Itsakuntzarako = profesion de marineria. (3) Doatzailletuta = beatificado. (4) Gabeko Astrolabio = izarren ibilketarako neurgaillua. (5) Iguzki-orratz = cuadrante para determinar la altura de los astros sobre el horizonte. (6) Eres-neurkiña = compás. (7) Aize-Arrosak = rosa de los vientos. (8) Mapa-sorta = atlas Catalan.



Ez da arritzekoa ba, Kolonek alango Kristau sinismena ta itsas-zaletasunezko jakituria eukitea, Llull'tar Raimundo, Abraam Kresques eta bere seme Jafuda juduaren jakituri aunditik asko eukelako ikasita.

1.391kako urtean kristau zoro batzuk, Kall deritxon judu auzunea erasotu eben, eta 300 judu inguru il ondoren, galazo eutsoen judutarrai kristautasunezko sinismenara itzuli zitezzen edo bestela lur aietatik alde egien.

Sinismena aldatu eben artean, Kreskes'tar Jafuda be egon zan, eta izena aldatu bearrean agertuta, onek Ribes'tar Jaumerena artu eban.

Eta sinismena aldatu gura ez eben beste batzuk, Kolontarren antzera, Flandesera aldatu ziran.

1.391kako urtean, kristautasunezko sinismenara aldatu ziran judu artean, batzuk Kolonen izena artu eben, emendik Flandesera zabaldua.

Kolon Kataluñako abizen bat da, txori Kolonbus'en izenetik artuta dagoena, eta I Jaime Aragoiko erregeak ugarte au 1.229an menperatu ebenetik, eurak daukien oiturazko abizen batera biurtu zan.

1.394ko urtean Ribes'tar Jaume edo Jefuda'tar Kreskes au, Bartzelonara joan zan mapagintzan.

Eta 1.412ko urtean, Portugaleko Itsasgizon'tar Enrike errege semeak deituta, Portugalera joan zan, bertan bideratzeko Enrikek sort-araziko eban mapagintzaren lantokia.

1.450eko urtean Mallorkako errigizartearen artean, auzitegikoak<sup>(1)</sup> erritarren aurka matxinatu ziranean, merkatari aberatsaren artean askok, Anjoutar Renatori lagundu eutsoen, Aragoiko errege biotz-andiko Vn Alfonsoren aurka.

Eta merkatari aberats onein artean, Mallorkakoak ziran Kasenabe'tar Gillaume eta Koullon'tar Kristobal, Kolontar Kristobalen osabak zirenak aurkezten ziran.

Dana dala emen agertzen da Kolontar Juan, igeslari bi ta andre Margalidaren aita.

Baiña, nor ote zan Margalinda ori ?

Margarita andere-lagun bat izan zan, IVn Karloseri atxilotutako denboratan laguntzen egonekua.

1.459ko urte onen amaieran, IVn Karlos eta Margaritaren artean maitetasunezko laztankerietan ibilita, 1.460ko Bagillan seme bat jaio jakien, eta IVn Karlos berton ez egon arren, jakin ebalako aurdun egon zala, Mallorkako gotzai ta erki edo gudu-jaurleriari idatzi eutsen eskutitz bana, gertakizun orren barriakaz arduratu zitezzen, eta egia izan bear da, erki edo gudu-jaurleriak eta gotzaiñak ardura aundiz erantzun ebela, IVn Karlosek ostera idazten dautsielako beste eskutitz bat eskerrak emonez.

Eta jaio zan ume ori izan zan Kolon'tar Kristobal, Amerikako lurraren agerketak lortu ebezanak, IVn Karlos euskal errege Nafartarrak, ezkontzatik kanpo euki ebazan semeetatik lau ontzat artu ebazanetik Kolon'tar Kristobal bat izan zalako.

Nik ez daukat zalantzarik, Kolon'tar Kristobal euskal-nafar IVn Karlos erregearen eta Mallorkako semea zala eta uste dot laster egiztatu egingo dala.

### ***Gure txangolaritzazko egunak Mallorkatik.***

(1) Auzitegikoak = forenses.

## ***2.015'an Jorrailla'ren 27'ko Astelen eguna eta gure txangolaritzaren lenengo eguna:***

Gure suin Mintegi ta Uriarte'tar Mikel etorri zan arratsaldeko irurak eta laurenetan bere berebillagaz, gu Loiuko egazkiñen zelaira eroateko.

Eta berton egon giñanean, pardel edo bide-zorroak marratzera joan giñan gero egazkiñan euren gorde lekuan sartuta, gugaz batera aldatu zitezen Mallorkara.

Arratsaldeko bostak eta amazapi minutu ziranean urten gendun Loiuko egazkin zelaitik, seiterdiak ziranean Mallorkara eltzeko.

Zorro edo pardelak berrezkuratuta, bus batera igon gendun, Mallorkako Arenalean dagoezan askotariko arroztetxe edo ostaletxeetara joateko.

Gure taldea, Aita Rafaelen kaleko zenbaki bian dauan *Abana Bay*<sup>(1)</sup> ostaletxera joan zan, eta zazpiterdian ostaletxeko arreran, gidarien oarra entzun ondoren, urrengo egunean goizeko 9'1/2etan beko gela nagusian egon gindezen, eta euren asken antolamenduzko berbak entzun eta 511'ko bizi-gelako giltzak artu ta lo-gela barrura sartuta, eroan genduzan jantziak, euren lekuetan atonduten asi giñan.

Garbitu ondoren, afaltzera beratu giñan eta ondo janda ostean, erritik ostera bat egitera joan giñan, amarterdian baiña, iñor ez zalako ibiltan kaleetatik ostaletxera joan giñan lo egiten.

## ***2.015'eko Jorrailla'ren 28'ko astearte eta gure txangolaritzaren bigarren eguna:***

7'retan jagi giñan, garbiketa ostean jan tokira joanda gosaltzeko.

Eta emen janariagaitik esan bear dotena, nai gosalkeran, bazkal edo afalkerarako, janari ugari eta aukera askokoa euki gendula, iñor tximistaka asi edo gorriak esan ez egiazan.

9'1/2etan joan giñan ostaletxearen gela nagusira, bide orrean zuzendariak ia guri zer aurkezten euskuen aste osorako.

Leen, 50 minutu beranduago asi giñan, mikrofonu edo ozenki berba egiteko gaillutik ez zalako ezer entzuten.

Asi zanean oartu eban, lapurketa asko egon zirala Mallorca guztian, eta txebera orreitan ez jausteko zelako aukeretatik urrundu edo alde egin bear genduela esan euskuen.

Egun orren arratsaldeko bideagaz asi jakun, eta emon euskun bidaien izen lerrotik, berak azpian marratu ebazan bidaiak azaldu euskuzan, bertatik guk gure genduna artzeko.

Bost eguneko bidaiak artu genduzan Lourdesek eta nik, Mallorca osoa ikusteko gogoia euki gendulako.

Batzarra amaitu eta gidarien zuzendariagaz, ostera guzti orreik ordaindu ondoren, Berd eta Martoreill'tar Gabrieleekin berba egitea lortu neban, eta arratsaldeko 4'retatik 6'arakarte itxaroten egongo nintzela esan neutson.

Ez eban jakin zelan etorri gure ostaletxera, oso barriak diralako, eta 7'1/2karte itxaron bear neban.

(1) Habana Bay = Habana, ostaletxearen izenaren erdia da eta Bay, bertan dauan errekearen izena.

Bera eldu zanean, beren liburuak daukan argazkitik ezagutu neban, eta zorionduz batera eskua emon ostean, kafetegiko mai baten ondora joanda, bereala asi gintzazan berbaz gure Koloneko mintza-gaiarekin.

Nik, gure Kolonen gora beran idazteko edestia berari aurkeztuta, eta idatzi neban Euskerazaintzazko aldizkari osoaren atal-bi berari emonda, bera beren liburuagaz eta ni gure aldizkariagaz eskuetan erakusten gagozela, argazki bi edo iru atara genduzan.

Beragaz egonda, ardura aundiko gizon bizkorra, zabala ta benetakoa agertu jatan, eta berak Kolonen gora beran sortu ta beti zabalik egoten dan Kolonen elkargoko erakustokiaren zabal-bideko iru izkuntzatan dagozan txartelak emon eustazan, berak Kolonen gora beran lortu dauazan azkeneko zeaztazunekaz batera.

Bai ta orri andi bat be emon eustan bere azkeneko azterkuntzan lortu dabezanakaz, gero ta Kolonen egia geiago ziurtatzeko bere liburuan sartu gure dabezanak, bere argitasuna ukaezin edo gezurta-eziñezkoa izanda, bere ustez eta niri **“ori bai ba-dala benetako leer gaillu bat”** esanda.

Ordubaterdi egon eta gero besarkatu giñan, eta bera, bere etxerako bidea artu ebanean, ez bion arteko arremanari, etenbageko iraunkortasuna emoteko itxaropenarekin.

Afaldu ostean eta lagun batzuekin egonda gero, 10'1/2etan joan giñan ogera.

## **2.015'eko Jorrailla'ren 29'ko eguastena ta txangolaritzaren irugarren eguna:**

Egun onetan, goiz eta arratsaldeko ikus taldeak euki genduzan, goizekoa **Baldemussa'ra** eta arratsaldean **granja edo bas-etxea ikustera**.

6'1/2etan jagi giñan, eta 7'1/2etan garbitu ostean bera joan giñan, jan tokian gosaltzeko.

8'10minutuetan igon gendun busera, eta 7 busen artean korapillo bat egin zalako, 8'40 minutuetan urten gendun entrabalotasunezko<sup>(1)</sup> leku orretatik.

Kaleak oso estu biurtu dira an dagon berebil mordoagaz, eta busak gero ta aundiagoak diran lez, laster geratzen dira korapillotuta, naita busen gidariak trebetasun aundia euki.

9retan amaitu gendun ostaletxeetatik txangolariak batzen, ta Balldemossako Nazaretean Jesusen ixilkorren lekaidetxera joan giñan ikustera.

Gallur txiki baten gaiñean eta 425m goialdean daukala itsasoaren neurrian dago eraikita XVIgarrengo lekaidetxe ori, eta ospe aundikoa da, batez be, 1.838ko urtearen negu aldiko illabete batzutan, bertan bizi ziralako erritarren arritasun eta zurrumuru artean erakusten ebenagaz, Txopin'tar Frederik eta bere maitale Sand'tar George<sup>(2)</sup>, Txopin'tar Frederik bularreko gaixotasunekin egoala.

-Belarrezko sendakintzaren gela ikusi gendun.

-Lekaide-buruen gela.

-Auzi, entzumeneko, artzaille edo ta ikuslearen gela, bertan Llull'tar Raimundoren margozkia egoala.

-Lekaidearen lo egiteko gela, jantzi ta ogea.

-Jateko gelan be egon giñan, bertan Grenobleko biltzarraren margozkia egoala.

Toxpiñen gelan bere pianua egon zan, eta ikustera joaten ziran piano-joile guztien argazkiak dingilizka eskegita egon ziran pianu orreitan eres-oso edo ereszati bat jo ondoren.

(1) Entrabalotasun = incertidumbre, duda, indecisión, perplejidad, irresolución. (2) Bere benetako izena = Aurora Dupin izan zan.

Euren artean, gure Atxukarro'ren argazkia ikusita.

-Santxo'tar erregearen jauregian entzun gendun, bertoko piano-joile baten, Txopiñen eres-itiz<sup>(1)</sup> musikaldi poli bat.

-Eta Santxo erregearen jauregia ikusten amaitu gendunean, ordu-lauren bat emon jakun ingurua ikusteko, eta 12'etan ostera busean Itsas-begiko Lekaidetxera<sup>(2)</sup> joateko.

-Berton ikusi gendun Lull'tar Raimundo odol-aitorlea<sup>(3)</sup>

-Eta otoiz-toki baten ikusi gendun malbasiaren belarra landuta ardoa gozotzeko.

-Bidean goazela, Austro-ungaroaren<sup>(4)</sup> jauregia be ikusi gendun, bertotik eta itsasertzera joateko, ikaragarrizko aldazbera egoala.

1'45minutuetan eldu giñan granja edo eguras-etxera, eta bertako erakusketak ikusi ondoren, Wratislao Vybornyren jatetxean bazkaldu gendun.

5'1/2etan eldu giñan gure arroztetxera eta apur bat garbitu ondoren, erria ikustera joan giñan, gero 8'1/2etan afaldu eta 10'1/2etan lo gelara joateko.

## ***2.015'ean Jorrailla'ren 30'eko eguena ta Txangolaritzaren laugarren eguna:***

Gaurko egunez, egun osoko ikus-taldea euki gendun, askenez Dratx kobak ikusteko.

6'45eko minutuetan jagi giñan, garbitu ta gosaria artuta 8'10 minutuetan busera igoteko.

Bus erdia bete gendun gure ostaletxean, 8'1/2etako bigarren txandan beste lauren bat eta 8'45eko minutuetan irugarren ostaletxean busa guztiz beteteko.

Adriana deitzen zan gure gaurko egunaren bidagillea, eta bera izan zan euki genduzan gidari guztietatik argitzaille edo onena bere adierazpeneko azalpenetan.

Orañ 20 urte inguru, Poloniatik etorritakoa izan zan neska au, eta gatz edo atsegiñezko neskatoa izan zan buseko txangolari guztiak irripartsu eukiteko.

Natura-Park ikustera be joan giñan, baiña an ikusi genduna, abereen goibeldasuna baiño besterik ez gendun ikusi, 10'eta 6 minutuetan busera igoteko.

***Argi ikusi gendun amen, baten batek alango gauzak: "diruaren irabazpiderako ipinten dabezenean gauza oneik", abere gizajoaren lepotik egiteko ipinten dirala, eta orregaitik ikusi gendun bada ezpadako "park" orreitan ainbesteko goibelaldia<sup>(5)</sup>, egon ziren abere, suge ta txori motatan.***

***Mallorca osoa dago iñoren eskuetan, eta orregaitik ikusten da aiñ argi, ainbesteko diruaren arrapaketa, Mallorkaren arpegiera aiñ begi-illunagaz kokatzen dauana.***

Adrianak, Sineu erritik aldatu giñanean, Mallorkako ugarte osoaren erdia zala eta bera zala Mallorkako erri guztietatik zarreneitariakoa esan euskun, bertoko biztanleak arro esanda, munduaren ardatza zala. 1.309ko urtean agindu eban In Jaimek, bere erregetxea eguela berton, gero sorkundezko<sup>(6)</sup> lekaimetxean biurtu zana.

10'1/4renetan, Majorika-pitxiaren lantegi ta salketako etxera eldu giñan, eta zelan egiten ebazan pitxi polit orreik ikusi ta bertoko edaritegian garagardo eta akeita eran ondoren, arrakada batzuk erosi genduzan alabarentzat.

Porto-Kristo'ko errira eldu orduko, Dels-Ams'eko<sup>(7)</sup> leize edo kobak ikustera joan giñan.

Leize txikerra baiña polita da bere ainbat urteko aitz-negarrezko kandelar eta karearen gorako troskarekin, eta ainbat talde egon giñan leize orreik ikusten, dana kirian-kirian<sup>(8)</sup>

(1)Eres-itiz = partitura musical. (2) Itsa-begiko Lekaidetxea = monasterio de Miramar. (3) Odol-aitorlea = martir. (4) Enago ziur zeaztasun onegaz. (5) Goibelaldia = tristeza, melancolia, murria, afición. (6) Sorkundezko = concepcionistas. (7) Dels Hams. (8) Kirian kirian = en perfecto orden.

egiten zana.

Leize orretatik urten gendunean, erritik aske ibilteko denbora emon euskuen, eta Lourdes dendari asi zan lez, or ibili giñan suin ta bir-semeari atorra-motx eta larruzko beso-estunak erosten.

***Gauza onetan be argi ikusten gendun, iñoren eskuetan egon zirala txangolaritzazko antolamendu oneik eta argiago, diruaren irabazpideko atonduketan eginda egon zirela.***

1'1/2etan, Sa Gruta-Noban bazkaldu gendun ondo, egoitza bera oso kaizar-jauregizko itxura euki eban lekuan.

2'45 minutuetan busera igon gendun Drak'eko leize edo kobatara joateko.

Bere izenak esaten dauan lez, eren-suge'ko leizea deitzen dautsoe, eta antziñekoa izan bear dau, beren berako aitz-negar ugari ta aundi, eta gorako-troska aundi ta ugariak arrigarrizkoak diralako, bere zelaikada osoa leiar edo kristalezko uragaz beterik dauala.

2'km daukaz luzeeran, lau leize edo kobatan bananduta, ***“De los franceses” “Luis Salvador” “Blanca” eta “Negra”.***

***Eren-Sugeko leize oneik,*** sei ur-bildegia daukaz, aundiena 177m luzeeran ta 5-9 metruko sakontasunean, tximist-argiagaz ondo apainduta daukiena, argiak, kareak daukazan margo ezberdiñak nabarmendu egiten dabezalako, gure ikuspenera arrigarrizko margo eder bat lez agertu egiezen.

Itsasontzi txiki bategaz be egiten dabe antzerki alango bat, baiña tximist-argiakin argituz berantza daukazan aitz-negar aundi-ugari eta gorantza daukazan troska aundi ta ugariak dira gure ikusmenera eltzen diranak, ikusgarriko margo eder bat lez.

4'1/2etan busera igonda, 5'45minutuetan eldu giñan gure Abana arrotztxera, bertan garagardo ta mertxikaren ur-gozoa<sup>(1)</sup> eranda, lo gelara joan giñan apur bat garbitu ta gero itsas-ertzeko ondar luzeetan egurasten ibilteko.

8'1/2etan afaldu gendun eta 10'1/2rarte lagunakaz egonda gure gelara igon gendun.

## ***2.015'eko Loraila'ren 1'eko barikua ta Txangolaritxaren bostgarren eguna:***

Gaurko egun osoa, Mallorkako Palma dan uri-nagusi osoa ikusten bete gendun.

6'45 minutuetan jagi giñan, garbitu, gosaldu eta 8'10rretan busera igon, Mallorkako uri nagusia ikustera joateko.

Naikoa euki neban taldearen gidari barri onegaz, Palmaren uri nagusiko bidean goazela, mallorkaren edestia asi jakun adierazten Maribent jauregitik asita bizi zira errege guztiak espainolak izan ba ziran lez, espaineko itz ori min puntan euki ebalako beti.

Baiña, Mallorkako edesti ta gaztelerari asi jakon espainol esaten, eta alango baten berari deituta: ***“espainako laterri ta edestiak ez zirala Mallorkaren izen edo ta edestiak, espain laterriko izena, iragankorrezko izena zala, ez zala euren aitorrezko edo jaiotako izena, gaztelera ez zan espainol bezela, esan neutson”***, eta zer-esangurera agertu eban barre-iri edo irripartsuagaz, ontzat uste dot artu ebazala nik esandakoak, ortik aurrera ez ebalako aipatu geiago espainol itz ori bere kondairan, arik eta Vn Felipe Borboia agertu eban arte.

Palmako golkora eldu giñanean, arrituta geratu giñan ikusi genduzan ainbat apainduriko itsasontziekaz.

(1) Mertxikaren ur-gozoa = zumo de melocotón.

Gotzai-eleiza edo Eleis-Nagusira joan giñan ikustera, eta bera ederra izanez gaiñ barruan daukazan edertasun arrigarri arteetan, argi-bae edo leio-borobil ederra ta Llull'tar Ramon edo Raimundo frantzizkotarra ilobiratuta dauan otoiz-tokia ikusi ostean, 12'ak ziranean, bertoko lore baratze edo zugaztiko enparantzara joan giñan, eta bertan ezar-leku baten egon giñela milla urteko zuaitz andi bateri argazkiak ataraten, sindikatu edo alkartasunezko talde ezberdiñen agerkundezko-bira aundi bat agertu zan euren eskabide edo galdeketakaz.

Niri arritu egin eustena, erri-zaingoagaitik ondo babestuta egon zala.

Eguerdiko ordubiak ziranean "*Sei Dorre*"ko jantokira joan giñan bazkaltzera, eta arrain-txirla'gaz egindako ziriol<sup>(1)</sup> salda, okela lur-sagar erregosiarekin eta gero koka edo kokla'ren budiña<sup>(2)</sup> jan ostean, Kordubako ezkon biekin alkartu giñan ainbat barre eginda, oso barregarri, atsegiñ edo kontulari onak izan zirelako.

3'1/2etan busera igon gendun, Mallorkaren Palma uri nagusiaren inguru ta barrua esagutzeko.

4'retan 1.300-1.309ko urte bitartean Bellberreko Jáuregui edo gaztelua ikustera joan giñan.

Itsasoaren neurritik, gaiñ-aldean 140m daukan mendi gallur baten gaiñean eginda dago bere sendotasun guztiagaz Bellber'eko gaztelu ori.

Bellber'eko itza, ikusgune ederrekua dala esan gura dau, ta benetan dala ikuspegi ederrekua, bertatik Palma osoa ikusten dalako.

Ondo saintzen daben Jáuregui edo gaztelua da.

6'retan eldu giñan ostaletxera, eta 8'retan afaldu ondoren, akeita artzera joan gintzazan Erico itsasertzeko edaritegiatar, 10'1/2etan ostaletxeko lo-gelara joateko.

## ***2.015'eko Loraila'ren 2'ko zapatua ta Txangolaritxaren seigarren eguna:***

Egun onetan, Soller'era su-gurdi'an<sup>(3)</sup> joan, eta berton erria ikusteko daukiezan tximis-gurdi edo tranbira igonda, erri inguruak ikusteko atondu gintzazan.

6'45minututan jagi giñan eta egun-barri guztien antzera norbera garbitu, eta jan-tokian gosalduta, 8'10 minutuetan prest egon giñan busera igoteko.

Berina, beira,<sup>(4)</sup> edo leiar'ezko lantegi batera eroan ginduezan, berton beraina edo leiar'ekin egiten ebazan gauza politak ikustera.

Akaita be artu gendun berton, eta lantegi guztia ikusi ondoren ta ardontzi edo urardo<sup>(5)</sup> bi erosita, su-gurdi batera igon gendun Soller'eko ibarrera joateko.

10'45minutuetan eldu giñan Soller'eko errira, bidean "*Deia*" erriaren izena ikusi ostean, erritik ikusle ta gidariaren berriakaz oartu ondoren, egiten daben azoka ederretik ibili giñan ikusten, arik eta arratsaldeko ordubietan, tximist-gurdi<sup>(6)</sup> edo Sollerreko udalak, erria ikusteko daukazan alango tranbi batera igonda, Sollerreko kaira joan gintzazan.

Arrazoiz deitzen dautsoe Sollerreko ibarrari "*urre-gorritzko Ibarra*" laran-ondo asko daukazelako bere lurretan, bai usai gozoa be, laran-ondo orren *laran-lore ta limoi-lorearen* usai gozoagaz bete egiten dalako erri inguru guztia.

Sollerrek, kai txiki eta polita dauka bere beirazko<sup>(7)</sup> ur-garden, eta gidariak kai inguru

(1) Zriol = fideo. (2) Koka edo kloka'ren budiña = flan. (3) Su-gurdi = tren propulsado por fuego, gasolina o gas-oil. (4) Beira, berina, berinaki, leiar = cristal. (5) ardontzi edo urardoa = vinajera. (6) Tximist-gurdi edo tranbidea = tren o tranvía. (7) Beirazko, berinezko, leiarrezko = parecido al cristal, cristalino.



ikusteko denbora emon euskuenean, ardantegi baten ikusbegi ederrenetik ardo-zuri on bategaz, ur-zorriak<sup>(1)</sup> erreta jan egiguzala emon euskun aolkuagaz.

Ingurua ikusi ondoren Lourdes ta nik, jatetxe baten aurrean egon ziran mai ezarlekuakaz ezarri giñan eta serbitzen egon zan neskatoari, gidariak agindu euskuna eskatu geuntson.

Ur-zorri orreik jaten gagozela, buruan euken aoko garraztasunagaz konturatu bazan itandu neutson Lourdeseri, eta berak bokarta edo Lurrarteko itsasoan artutako antxoak barruetaik daukien garratzezko usai edo ta aoko antzekoa eukiela esan eustan.

Nik, miraria dana, ez zala lurrarteko itsasoaren bizitzak daukien barruetako usai garratz eta agoko garraztasun ori eukitea, Lurrarteko Itxaso onen urak, munduko gizaren bizitzatik ainbat milla urtetan, Europa ta Afrikaren urmindu edo zikin-zuloa izan ondoren, beren uraren osasunerako nai gatzaren laguntza euki arren, ur orreik arnas edo osijenua eukitea bear dabela esan neutson, Lurrarteko-Itsaso onek Jibraltarretik, Atlant-itsasoko urakaz daukan osasunduteko aukerak oso estuak diralako.

Altamar deitzen zan jatetxe orreine goiko solairuan jan gendun, arrigarrizko ikusmenak euki genduzala bere leiargintza aundietatik, eta bazkaldu ondoren 3'1/2ak ziranean busera igon gendun, Soyako ibarretatik gure ostaletxera joateko.

Denborari begira, egun au izan zan geien arrigarritu jakuna, euki gendun egu-giro on, garbi ta ederrenagaz, Mallorkako ikuspegiagaz atsegindu gintzazalako.

6'etan eldu giñan gure Saarako ostaletxera, gure gelan garbitu ta oge ganean itzuteko, nire anak ainbesteko ibilkerakaz oso aundituta egon ziralako.

8'1/2etan afaltzera beratu giñan, gero 11'karte beko gela-nagusian lagunekaz egoteko.

## ***2.015'eko Loraila'ren 3'ko igandea ta Txangolaritzaren zazpigarren eguna:***

Txangolaritzazko azken egun au, Alkudia, Formentor eta Pollensa ikusteko egun osoa izan zan.

Beti lez, 6'eta 45 minutuetan jagi giñan, garbitu, eta jan tokian gosaldue ondoren 8rak eta 10 minutu ziranean busera igonda Alkudiarantza joan gintzazan.

9'20-9'40ko ordu artean Inka'ko erriaren larru dendatan emon gendun denborea.

10'20-11'40ko ordu bitartean, Pollenzako erria ibili giñan gidarien azalpenakaz ikusten, artean Lluk'eko lekaidetxea bere Ama-Birjiñ beltza daukala, Sant Domingo'ren lekaidetxea gure Markiñako Ziortzaren lekaidetxeak daukan kalistro<sup>(2)</sup> ederraren antzekoa euki ebalako ikusita, erromatarren zubi zarra, eta abar.

Itsas-iate-itsasontzi larregi ikusi genduzan Pollenzako kai orreitan.

Formentorrerantza joan giñanean, auntz'eko bide oso-estu batetik joan giñan, sa-Kreuetako begira-tokitik ikusten diran edertasunak ikustera, eta denbora gitxi baten egonda, urten izan bear gendun andik, berebil, bus, motorlari eta txirrindulari geiegi joaten zalako ikus-toki orreitara, berebil- bat bereala geratuta be, txirrindulari bat bere gaiñetik zelan joan zan ikusita.

Arazo geiegi ikusi genduan berebil-bus bide-estu orreitatik.

11kak eta 40' minutuetan eldu giñan Formentorrera, eta 1.928ko urtean Arjentinako

(1) Ur-zorri erreak = Gambas a la plancha. (2) Zimitorio edo kalostre = claustro.

Adàn Diel'ek, ain ospatsu egindako *Formentor-Ostaletxea* kanpotik erakutsi euskun gure bidai-gidariak, berton *Winston Txurtzil, Eduard Windsor, gales'eko printzea, edo ta espainako mimistrua izan zan Alkala Zamora* egon zirala esanez.

12'40 minutu ziranean urten gendun Formentorreko burdi-bide orretatik, 1'1/4renetan Alkudiara joateko.

K.a.123ko urtean irasi eban Pollentiaren izenagaz Kinto Zezilo Metelo kontsulak, gaur arresidunezko uri-itxita dauan Alkudia'ren izenagaz erri politori, bere San Jaume erdi-mendeko eleiza XIXn gizaldean barritu egin ebena, XIIIIn gizaldiko Santa Anaren eleiza eta bere jaur-etxe ederrak ilusita, Artaiara joan giñan Kases de Son San Martiñeko jatetxean bazkaltzeko.

Ilar-nabarrakin<sup>(1)</sup> egindako egosari<sup>(2)</sup> gozo bat jan gendun, gero erretako oilaskoa saltsa gozo bategaz eta azkenez opil-goxo<sup>(3)</sup> antzeko bategaz amaitzeko.

3'1/2etan urten gendun Son San Martiñeko jatetxe orretatik busera igoteko eta gure ostaletxera joateko.

Gelara joanda garbitu giñan apur bat eta gero errira beratu giñan, azken eguna bezela, gure agurra emoteko Ondarreko<sup>(4)</sup> inguru orreri.

### ***2.15'eko Loraila'ren 4ko asteleena eta Txangolaritzaren azkeneko eguna:***

Egun onetan ez gendun egin, eroan genduzan jantziak zorroetan apaintzea baiño besterik, goizeko 12'tarako gure lo-gelaren giltzak artzairan edo arreran itzibear genduzelako, eta ordu batetan busa artu eta egazkiñen zelaira eroan ginduzan, bertoko gorde-lekuan zorroak marratu eta gu joaten giñan egazkiñera eroateko.

4'terdietan eldu giñan Loiu'ko egazkin-zelaira, eta an euki gendun gure suin-ona zain, Lourdes eta ni etxera eroateko.

Benetan diñotsuet, txangolaritza ederra egin gendula Mallorkako ugartetik.

(1)Ilar-nabarrak = garbanzos. (2) Egosari = potaje. (3) Opli-goxo = tarta, tortada. (4) Arenal deitzen dautse itsasbatterreko lurraldearen inguru orreri.

Atutxa'tar Paul

2.015'ean Zornotzan, Loraila'ren 16'an

## *-Euskerea, gure artean berba egiteko ibil-gaillu bat bakarrik ote da?.*

### *2.015'eko urtean Garagarrilla'ren 21'ean:*

Aguraineko errian eta klaretiarren egoitzan Euskerazaintzako erakunde lez batzartuta, Amorrortu ta Barroeta'tar Klaudio gure lendakariak, ardura gustiagaz esan euskun, euskalzale jakintsuak, Euskerea: "Gure artean berba egiteko ibil-gaillu bat dala bakarrik esaten dabela".

Arrazioa daukie:

-Euskerazko izkuntza gure artean berba egiteko tresneri bat dan lez, guk bizitzeko bear doguzan tresneri edo ta edozelako langailluetan, adibidez: gazteluak gure babeserako, etxeak gure sendiko abi lez, dirua gure artean ordezkartzazko tresneri lez erabilteko, edo nai bizitzan guk aurrera egiteko gero ta geiagoko errestasunagaz ibilteko, egiten doguzan berebil, txirringa, gurdi, igitari edo eragillerako diran gaillu guztiak, gure ekintzazko izakizunetan erreztasunezkoak izan dagiezan egin bear doguz, neurriz on egin bear diran gauzak diralako.

-Lan-gaillu lez daukien mezua baiña, munduko errigizarteai, gero ta babes geigo emonaz gaiñ, bizitasunaren antolamenduzko ekintzari erreztasun andiagoa emoten dautsolako, gaiezko mundu onek bere aldaketazko bilbakuntzagaz<sup>(1)</sup>, itxurazko arloetan eten bageko aldaketa bat aurkezten dauku bere ezberdintasunezko arazoaren erakin, bakandu ta neurriz ondo egokitu bear doguzenak, gure izan gaitasunean zentzu aundiakoak izan zitezen.

Dana da, ondo egokitu bear dogun tresneri edo ibil gaillu ugari gure bizitzazko ekintzan, bakardadezko erreztasunetik, artean, erreztasun aundiaren ulermenekoak izan gindezan, korapillo geiagorik bage.

### *Orain jakin bear doguna, erreztasunezko eragilletasun ori non aurkitzen dan.*

**Gazteluak:** Gure babeserako izanda, eleitekez edozein eratara eginda izan bear, etsaiak guda edo borrokarako daukiezan sendo ta indartsu gailluakin, errez bota leukielako gaztelu ori.

Gaztelu orren eragilletasuna edozein tresneri bezela, ondo landutako arri ta obeto erinduta arri baktza, euren lekuetan estu edo ta doiki kokatuta artzen dauan indarragaz, ez dago guda-gaillurik gaztelu ori aiñ errez botako dauenik.

Eta Jaungoikuak mundu físico onetan bereztu eban Lege ori, gizakiak beren bizitzarako bear dauan tresneri guztientzat bardiña izanda, ondo egindako gauzak, sendo ta indartsuak biurtzen dira, baita gure ulermenean be.

#### ***Begitu, diruaren tresneriagaz zer sortzen jakun:***

-Diruak ez dauko beste merezimendurik, guk, gure arteko zor-eskubideko ordearen ardura nagusiko ekintzan bete bear doguzanen artean, tresneria izatea baiño besterik.

(1) Aldaketazko bilbakuntzagaz = imparable desarrollo cambiante de la materia.

-Gure arteko sakratuzko gauza, ekanduzko ardurea da legea, dirua gai lez ez dauka beste baliorik, tresneri bat baiño besterik bere izatasunean, naita bere neurrirako, ondo erindukoa izan bear, gazteluaren arriakaz sorteen dan antzera.

-Begitu baiña, gaur lez, zer sortzen dan diruagaz, tresneri uts bat izatetik, norkeri bidez, sasi-jainko baten biurtzen danean.

-Tresneriaren izatasuna itxura-gabetu egin dauela, eta sakratuzkoak izan bear ziran gure ekanduzko ordezkartzaren ardurak, oreka guztiak galdu dabezala, gure ardura nagusiko ordezkartzak norkeriz, guzur ta maltzurtasunezko lokatzarte baten biurtuta.

### ***Izkuntzatan bardiñ:***

-Jakín bear dira zelako izkuntzak diran, jendekuntzazkoak, ala adibidez, erromatarrak euren menpetasunezko ibilbidean eta ulermen arloan ezartzeko lekuko erritarrakaz, aitu ezinezko larritasunean ta indarrezko aukerean sortutako Gaztela, Bable, eta Nafar-Aragoiko latin-kumelako sasi-izkuntzak bezela.

### ***Baiña zer gertatzen jaku Euskereagaz ?***

-Jendekuntzazkoa izanez gaiñ, benetako altxor aundi bat daukagula esku artean, ezin doguna edozelan erabili, denbora barri onetan.

-Bere itzaren arteko erintasunezko kokamena galduagaz gain, euskerearen nortasunean, indarrezko zentzua galtzen dabela eta beragaz, gure arbasoak bizitzazko milla asko urtearen ikerpeneko atun-bidean edo ta aztura-bidetik askatasunezko demokraziaren nortasunezko zentsu eder orreitan lortu eben baita, galdu edo makaldu egiten dala.

-***Euskalduna***, ondorioz, aitor, oituraz edo ta jatorritasunez, baituta daukan askatasunezko demokraziaren nortasunezko zentzu ori kendu ezker, ez da ezer.

-Nortasunaren demokrazizko zentzu ori da zaindu bear doguna eta ez txotxolokerietan ibili, zeozer on-bat guradaunentzat, egiz, demokraziz, edo zentzu orregaz, ondo erindatuko tresneriakaz lortzen dalako.

-Euskerea jendekuntzazko izkuntza izateagaitik, azaltzen dauazan berbakaz argibidetu egiten dauan gauza ederrena "Berbearen Irudimena da", milla urte askotan ta bereztasunaren iker-bidetik ardura aundiz, lortu leikena bakarrik.

-Goazan ba, euskerea tresneri lez benetan zer dan jakitera, euskal zentzuan bizi gura dabententzat, bearrezkoa dalako.

## **EUSKERA.**

Euskaldun arbasoak, 30.000ko urte askoren ikerpeneko atun-bidean<sup>(1)</sup> edo ta aztura bidetik<sup>(2)</sup>, ondo erindu ta biribildutako lanean lortutako itzak, euren lekuetan ondo aokatu, ta bete-betean egokituta geratu daitezzenakaz, euskerearen gaztelu ederrena eraiki eben.

Lur, aize, ur, itsas-abeldiai eta bizitzarako orokorrezko gai-lur onek daukan loreti, landaredi, lur-abeldi, are, arri, arrikatz, burdin-mea, kobak eta gure lur onetan agertzen diran era guztiko irudiak, zentzu aundienean izendu ebezan.

Gure izen-abizenakaz eta ekanduaren arloan bardin eginda, euskeraren berba baktza: leku, era, aukera edo ta zeregiñezko gauzatan, esaeraren zentzuzko argitasun ederrenean

(1) Atun-bidean = procedimiento empirico. (2) Aztura bidetik = crecimiento del conocimiento.

irudimenduta kokatzen gaitulako. Arteko arremanetan eta berbaz mintzatzen garenakaz, egiaren ziurtasunezko eta xeetasunaren irudimenezko ulermenean kokatuta.

Euskaldunak, alako berezkotasunaren izkuntz-ederragaz jendekuntzatuta, ez gara izango, egia ta askatasunaren demokrazizko zaletasunezkoak ?.

Oraiñarte eta ziur nago emendik aurrera-be alan izango dala, euskaldunen berbea, kidetuta egon dan lekuetan, egiaren zentzunkidezko<sup>(1)</sup> labelekoa izan dalako beti.

Eta demokraziak ainbeste kalte egiten dautsolako Menperatzail asmamenari, ez dabe askatasunik gura euren inguruan, eta daukien menperatzailetasunezko-asmakizunagaz, or dabiz gudako indar keiñadurakaz erdiugarte onek daukazan erritagizarte ezberdiñak, aberkidesunezko katolikotasunean batzangotu gurean, berezko nortasun ta izkuntzak aienatu edo desagertu dagiezen alegiñakaz.

Mundu onetako sasi-jainko eritzi orreik, oso erpe sakonak daukiez katolikotasuna aberkideku sanetik onantza, merkataritzaren mozkin guztien indarrak euren kontrolpean eukinda asmakizunezko ta ametsezko sasi-iruzurgille<sup>(2)</sup> orreik lortzeko.

Beti baiña, jainkoak agindutako berezko legeakaz aurkitzen dira, eta or, nun agertzen jakie euskal jendekuntz ederrena, European Omosapiensetik izkuntz ta demokrazian zaarrena dana.

Nik, zalantza barik esaten dot, Jainkoa ta bere legearen aurka dabizela jokutzen.

### ***Euskerearen berbetan, irudimenezko zentzua.***

Oraiñ, gure alkar-mintzaldiaren zeatzezko zentzuan, euskal-izkuntzan agertzen diran itzak, irudimenezkoak dirala ikusi bear dogu.

1.960ko amarkadan, Espainako ele-jakintzaren irasle edo sortzaille izan zan Menendez ta Pidal'tar Ramoneri entzun neuntson: Gazteleraren latin-kumea irudizko zentzuan sendotzeko, 1.971ko euskal itzekaz tartean sartuta egin bear izan ebala, eta ata guzti, ainbat itz, irudiaren zentzuzko gabetasunean geratu zirala esan eban.

Adibidez playa itzak: zelako zentzuzko ulermenean irudimenduta kokatzen ote gaitu ?.

Ba ote dauka zer ikusirik areagaz, esaten jakon leguntasunagaz<sup>(3)</sup> edo ta areatutako arri ta maskor ondarrarekin ?<sup>(4)</sup>.

Euskerearen itzak: Laida, Ondarru edo Mutrikuren itsas-bazterreko ondartzak aipatu egiten doguzenean, ez ote gaitu kokatzen ulermeneko zentzuan irudimenduta, adierazi<sup>(5)</sup> gura doguzan lekuetan ?.

Euskereak, ez dau galdu bear, Omosapiens, Kromañon edo ta euskaldunak, ainbat milla urte askoren bakardadezko azturan, bizitzari adierazpeneko ekintzan<sup>(6)</sup> emon eutsozan zentzuzko xeetasunetik ezer, or, dagoelako gure jendekuntzaren baitazko<sup>(7)</sup> garaipena, batez be: gure nortasunezko oituran ekandu ondoren, demokrazizko zentzuan lortu gendun, ederrenetariko euskal demokrazizko izatasuna.

Eta bere Europako edestian menperatzen ibili ziran erromatar ta mauritarren izkuntzetatik

(1) Egiaren zentzunkidezko = sinònimo de la verdad. (2) Sasi-iruzurgille = pseudos, o impositor, chapucero, engañador, fullero. (3) Leuntasunagaz = tersura, lisura de la arena. (4) Maskor-ondarrak = restos arenados de las conchas de las ostras, mejillones, caracol, chirlas, etc. (5) Adi-erazi = indicar, explicar. (6) Bizitzari Adierazpeneko ekintzan = interpretación que el vasco le dió a la vida. (7) Baita = conciencia.

berba asko artu ba eben-be, sekula ez zan aldatu beren jendekuntzazko nortasunaren zentzu demokratikotik.

Felix Zubiagak, bere liburu "Vascoeuropeismo versus Indoeuropeismo" III n. zatitik etorrira, liburuaren 49 n. orrian esaten dau:

-Izkin bateraño aztertu egiten dauan mintzoera edo izkuntza batek, jatorriz edo sortzezko izkuntza dala.

-Izkin bateraño eltzea, eredu nagusiren ozenezko<sup>(1)</sup> iturria argitzea dalako berberaren mintzo edo abots sorkuntzan.

-Eta Euskerea, al dalako izkin bakarreraiño eldu, orain ezin dala esan, alderatzaillak<sup>(2)</sup> esaten daben antzera, ***Euskerea jatorriz, ezagutzen ez dan mintzoera bat dala.***

Mintzoeraren oguzpeneko<sup>(3)</sup> jaiokeran, bera dalako berezko aitortzaillak.

Orregaitik, mintzoeraren jatorrizko itz bakar bidetik eta onen eredu nagusiko leen analoji arauz, beren jaiokera argitzen dauan ***izkuntz bakarra.***

### ***Euskereak zelako irudiagaz itxuratzen dautso euskalerriri ?.***

Euskalerririak daukan ***nortasunezko*** irudi ederragaz itxuratzen gaitu euskaldun guztiai.

Maitetasun guztiagaz erkidetzeko egin gendun tresneri eder au, ez dalako gatz-gabeko mezu gaillu uts bat, gure artu emonetan ibilteko bakarrik.

#### ***Bere barnean ikusten direnak:***

Bere Euskal barnetik agertuta ikusten diran egipideak:

a).- Jainkoari begira, Beren legearekin euki gendun oarmeneko samurtasuna<sup>(4)</sup>.

b).- Senitarte ta erri maillan maitasunezko ulermena.

d).- Gure ekanduzko baitaren bake edo orekagaitik, azturazko jakintzan egin bear ginduzenak, zentzunezko ta zeaztasunaren begirun aundiekin egin genduzelako, ardura aundiko erantzunpidetza.

-Euskal bizitzarako edo eta erriaren babeserako, euskereak daukan indarragaz egin bear doguzan gauza guztietarako, berez agertzen jaku maitetasunezko gaitasuna<sup>(5)</sup>, argitasuna emoten dauskuelako.

-Gure arbasoen arremanezko gauzak, zentzun aundiz eroanda egon ziralako, eta demokraziaren ulermen aundi batera elduta bizi ziralako, sendimendu ber berori sartu outsoen euskereari.

-Orregaitik euskerea ez da edozelako tresneri uts bat, bera dalako gure nortasunezko ama, euskal izatasuna bear dan zentzunezko lekutik bideratzeko.

-Etorkizunean be, euskerearen maitasunezko zentzutik artzen doguz nortasunezko izatasunak, mundu guztiko gizarteari erakutsiz, euskaldunen nortasunezko egi bidea.

-Menperatzaillak, euren nagusitasuna erakusteko, xautzailletasunezko<sup>(6)</sup> argi bideakaz ganoragabetu gura ba dabe bizitz au.

-Gu ez gara jausi bear txebera orreitan, bestela gudakin ez ebena lortu, gure iñozokeriakaz lortuko dabe.

Geiago bear ete dogu ?.

(1) Ozenezko = sonoro. (2) Alderatzaillak = comparatistas. (3) Mintzoeraren oguzpena = pronunciación de las palabras. (4) Oarmeneko samurtasuna = atención, sentido de la observación. (5) Maitasunezko gaitasuna = buenas dotes, talento. (6) Xautzailletasunezko = despilfarrador, aniquilador, expendedor, malgastador.



Ba, kontuan euki, gure arbasoak euskereakin egin eban lez, guk elikatu bear doguzela zentzu aundiz nortasunezko demokrazia on batek bear dauazan eginkizunekaz, gure ordezkartzazko ardura dalako, euskal izatasunean iraun gura ba dogu.

Emen txantxaka ibilita, begitu zer esaten eban Orejatar Martzeliñok: ETA´tarren esanak edo eta mezuak sinismenean edo kontuan aundian artzeko: Orreik ez diralako gai, guzur bat esateko eta.

### *Eta Munduko gizarte ezagunak, irudi orregaz ikusten ote gaitue Euskaldunai ?.*

Lur ta errigizarteko aunditasun batetik, erri txiker bateko neurrian geratu gara, menperatzailleen alegiñak edesti guztian, aundiak eta eten bakoak izan diralako, baiña gure nortasunezko demokraziak zabaltzen dauan dirdirazko argitasuna, munduko edozein lekutik ikusi leikena da.

-Euskereak, nortasundu euskun euskaldunai.

-Euskerearen itsasontzi orrek baiña, etenbageko alegiñ onenagaz, eta jendekuntzan lortu eben garaipeneko apainketa eder orregaz, munduko errigizarte ezberdiñ artean asi eben itsaskuntza, gogorra izan da.

-Orregaitik gaur bere nortasunezko kai-lekurako itzulkeran ez dauka itxura bardiña, ezin bestean edestiaren gudako itsasketa luze orrek, bere zauriak egin dabezalako, eta alegiñ guztiak ipini bear dira, len, guri nortasundu euskun itxura ber-bera artu dagian, aurrean daukagan askatasunaren itsasketarako.

Atutxa´tar Paul

Zornotzan, 2.015eko urtean Garagarrilaren 24´an

## **-GAURKO DEMOKRAZIA-**

### ***Aurkezpena.***

Gaurko Europan ta munduan erabilten doguzan demokraziak, ez daukie antzik bez, begirun aundiagaz jokatu bear dogun ekanduzko demokraziaren zentzuagaz.

Demokrazia bakotzari berea emotea da, danok egiz, ekanduzko oreka baten bizi gaitezen.

Eta or ez leuke egon bear txantxarik, mundu onen giza guztia, bakoitzaren bere bizi bakarrean, eskubide bardiñekoa dalako.

XIXn gizalditik aurrera, guda bidez erabagita ipini ziran laterriek daukie errua, menderatzaille lez, lapurtzazko ekintzara dagozelako bideratuta.

### ***Giza lez doguzan izan-gaitasunak.***

Mundu onetan, eta gu gizakitutakoak, sortzailleak ez garelako, Jainkoak mundu oneri bereztu eutsozan legezko baldintzak erabili bear doguz, tresneri edo ta oiñarrizko elementuak lez, danontzat bardiñak diran legean.

Eta ortik aurrera, zentzu ta ardura aundiz bete, bizi garen serbitzurako.

Bestela egiten doguzan gauza guztiak, oker, ankaz-gora, zentzubage ta edozein neurrian urten leukezelako, beartsu edo onbear eta aberastuten diranen artean gaur sortzen jakun lez, orekak leku guztietatik galdu ondoren.

Bereztasunaren legezko baldintza orreik dira, gaurko Europaren politikuak kontuan artu bear dituezanak gauza guztietan, ta ardura bardiñak, diruaren antolaketak egiten dabezenean.

Gaiak, beren Ludi irudiaren izaerarako daukazan mukulluak, orokorrezko askatasunean bananduta egonaz batera, euren mukullu arteko-gintzan daukien erakarrezko indarra, eurak osagarritzakoak izan daitezen legea da, mundu au gurentzat, eragilletasunezko bizi-tresneri bat izan daiten.

Orregaitik, mundu onetara jaioten garan guztiok, bear-bearrezko ordezkartzaren arduran bardiñak izanda, Ludi onek daukazan bereztasundutako lege orreik dira, gure arduradunezko arima gizatuari, lege bardiñean osagarritzakoak izatera alegintzen dauzkuna, Jainkoaren legeakaz, zeregiñ bardiña daukagulako.

Eta Jainkoaren legeari begira egin bear doguzan gauza guztiak, azturazko maitasunean egiten ba doguz, bide orreitatik eraikitako etxe, auzo, erri, eskualde edo lurralde, aberri, ta errigizartearen askatasunezko eskubide orreik, berez agertzen dira, bear daben ekanduzko askatasunaren orekan.

Danok begirun aundiko ardureak bear doguz, gai-gizaren biziko egitamuak zentzuz gauzatzeko, eta elkar erabili bear doguzan osagarritasunezko bideen ulermenak, orekazko zentzun baten eroan dagiguzan.

Guzti orreik kontuan eukinda, ez bagaude lau gizaki nagusitasunezkoagaitik bideratuta, ainbeste urte menperatzailetasunezko agindupean egonda, ori be al izan leikena dalako, eta nire ustez, uts egin barik.

Gaurko politikuak, gaiaren eta gizaren eskubideak ez dabezelako erabilten, agindu egiten dabezan gauza guztietan sortzen diran korapilloakaz, gizartearen artu emoneko arloetan, dana agertzen da lokaztuta lez.

-Izadiko gaiaren-orekan: Itsas-errekako urak eta mendi-lur-aizeak zikinduta.

-Eta gizakiaren arloetan: lan-eza, lapurtza, negarra, gozea, gaitzaldi, elde edo izurriteak, eriotza, borrokak, aditu eziña, eta ardurabagekerizko itsutasun aundia.

Bizitzeko egiten doguzan gauzen mozkiñ guztiak, norkeriaren batzango edo agintari zaleen kontrolpean egon egiezen, guda-endarrezko keiñada gogorak erabilten dabez menperatzaileak, nai gai edo ta danon askatasunezko giza eskubidearen ardurak kentzeko, eta ez gero eurak egiteko danok egin bear doguzenak, ostera guri beartzeko baiño, eurak gura daben eratara betetea, eten bageko indarkerian.

Len, munduko borroka nagusiATEGAZ, dana utsezko zenbakian ipinita lez azten ziran ostera bizitzarako bear zan guztia eraikiten, euren poltzilluak beti berriz beteta eukiteko.

Baiña gaur, beste olango borroka bateri, eurak be bildur direlako, demokraziaren indar bidez, maltzuratasunezko guzurak eten barik gero ta indar geiagorekin argitzen dira, eta orain, Nizean asmatu zan batzangotasunaren goitik berako agintaritzaren giza-gorputza ori 1.687 urte norkeriz erabilita berezitasunaren aurka, guztiz ustelduta lez agertzen jaku.

Zergaitik ?.

Gure bizitzaren epe laburrerako, Jainkoaren legeakin beartuta agertzen gara lez, argi erakusten jaku:

a) Osagarritasunezkoak garela jaioten garan guztiak.

b) Kundeatzaille edo gai onen eragilletasunerako jaioten garala.

d) Gure eragilletasunean kontuan artu bear doguzala, gai ta izaki guztien eskubideak.

Bakotzak, taldeek, leiñuek, auzoek edo eta errigizarteak euren bereztutasunezko aztura bidetik, izkuntzagaz sortu ebezan nortasunezko bereiztasunak, danok baieztu ezeren aitzakia barik, orokorrezko ulermen on batean agertzeko.

e) Asmatzaillearen almenak bakarrik eukinda, gure izan-gaitasunean ez dauelako iñungo sort-araslearen izatasunik:

Norkerizko alegiñetan, irazale, sortarazle edo ta sortzaillezko arloetan, iñorentzat ezeren legerik egin bage, legezko alegiñ guzti orreik, Jainkoak bereztu eban legeditik artu bear doguz, euren kanpotik lege guzti orreik, menperatzailleak biurtzen diralako,

Ala... mundu oneitara, beste gauza baten bat egiteko etorri ote gara ?.

Dirua, gure arteko ordearen tresneri bat bakarrik izanda, sasi-jainkotu jaku.

### ***Demokrazia.***

Demokrazia, bakotxari berea emotea da, eta ez leuke egon bear zalantzarik ekanduzko arlo orretan, errigizarte lez ekanduzko orekan iraun gura ba dogu.

Gaurko munduaren ekanduzko arloetan, guztiz naastekatuta agertzen garan lez, gaurko mundu onen agintariak, geratu bear leukie orain bertan tresneriz doguzan diru-etxe edo diru-kutxaren zeregiñak, arik eta, mundu onen Europa eta Ameriketako agintariak, gizaren eskubideakaz, benetan asi arte.

### ***Zergaitik.***

Gaurko Europaren menperatzailletasunezko ekintza amaitu bear dalako, 325eko urtetik ona Nizean norkeriz artu ziran batzangotasunezko erabagiak ez ba dira geratzen, beste guda gogor bat daukagulako aurrez-aurre, danon ikuspegian.

Orduan batu ziran esku baten, Europa eta ezagutzen zan mundu onetako giza ta errigizarte guztiak banaka eukezan ardurak, eta ortik aurrera gagoz konpondu ezinik, ez edozein gauza gaitik, mundu onen giza, berezko arduratik kanpo antolatzen dalako baizik.

### ***Zeintzuk ote dira okerrezko iturburu orreik ?:***

Ludi-Fisiko oneitan egiñak egillea daukielako, ez dago sorburubageko mogimendurik.

Eta norkeriz egineko gauzak, goitik berako agindupean egiten diran lez, norkerizko emaitzan agertzen dira, guzurra, guzurragaz bakarrik elikatu leikelako.

Eta munduaren norkerizko jakintsu nagusi orreik ugazaba lez senditzen diralako, dan guztia eurena dala uste dabe.

Orregaitik agertzen gara ainbesteko lapurkerian, gaur sortzen jakun lez.

Beste gauza zoragarri bat agertuko liteke, Ludi onen gizakien ardurak, baktzaren eskuetan ba legoz.

Nortasunezko ardurean jokatuta antolatuko geunkez danon eskubideak, ta orren ondorios, danon askatasunezko eskubideak zainduko geunkez.

### ***Besterik bear ote dogu ?.***

Orregaitik geratu bear dira gaur, munduko diru etxe edo diru-kutxaren zeregiñ guztiak, arik eta askatasunaren demokrazizko ordezk-ardureak, gure ordezk-ardura nagusietan artzeko erabagitu arte.

Olantxe agertuten gara, Goiko Jaunak oiñarritu euskuezan legeen artean.

Bestela gaurko norkerietan indartutea baiño, ezta besterik egiten.

***Alan, 325eko urtean Nizean, Erdi Aro guztian, XVIn gizaldian, 1.789an Frantziko iraultzatik, XVII, XVIII, XIX, XXko gizaldietan, eta munduko bigarren guda nagusi ostean, errigizarteko eskubidearen aurka artu ziran norkerizko erabagi okerrakaz.***

-325eko urtean Nizean artu ziran erabagiakaz, itsutasunezko ziñezkintzara bideratuta geratu gintzazalako, katolikotasunaren aberkidetasunean batzangotzeko.

-Erdi Aro guztian, indarkeri bidez gogortu egin zana.

-XVn gizaldian asita, erri-irasletasunean edo kolonigilletasunean guda indarrez asita.

-1.789ko urtean, "askatasun, legea, eta anaitasun" izenean egin zan iraultzazko antzerkiagaz.

Menperatzaillearen norkerizko eritzian merkantil ta errigizartezko arloetan, antolamendu barriak bear ebezalako, batzangotasun orren bidez eurak gura eben diru ta lurrak batu ta euren eratarra antolatzeko, bereztasunezko eskubidearen lege guztien aurka egiñez.

-XIX-XXn gizaldietan, berezko erritartasun gaiñetik eta guda indarrez, Europa ta munduan ezarri ziran gaur daukaguzan lapurrezko laterri onek.

-Bai eta munduko bigarren guda nagusi ostean, egin ziran astokeriakaz guztiz damu, berezko errigizarteentzat, eskubidearen askatasunezko erabagiak artuta.

-Guda otsaren aitzakiakin, borondate on guzti orreik pikutara bialdu zirenak, oster, giza eskubidearen lapurketara aldatuz.

-Gaur, guzur eta maltzurtasunezko lokatz ontan, samaraiño zikinduta aurkezten gara.

*Omosapiens, edo ulermenezko gizakiak ote gara ?*

*Oraiñarte, asto utsak, bai beintzat.*

Atutxa'tar Paul

Zornotzan, 2.015eko urtean Garagarrilla'ren 24'an



## “AGUR!!”

### “ARZELUS eta ARRIETA´tar AMALE”

1.924. 02. 19 – 2.015. 09. 28

Euskal aberkide eta euskaltzale sutsu bat il jaku, euskerearen eta euskal nortasunaren alde bere bizitza emon dauena, etenbageko eta maitagarritzko bizi ekintza baten.

Al izan dauan euskeraren aldeko erakunde guztietan sartuta egonda. Eta Donostin bizi arren, gorputzez ez bazan bai gogoz, Euskerazaintza ta Euskerazaleen batzarretan beti euki dogu kiden artean.

Baiña berba geiagorik egin bage, goazan zeazten bere bizitza, jakin daigun zelakoa izan dan euskal nortasun aundiko emakume au, gorputz txikikoa izan arren.

#### *Amalen aurkezpena.*

Arzelus eta Arrieta´tar Amale, Arzelus´tar Ander eta Arrieta´tar Amaliak, Donostin irasi eben euskal kabi ederrenean jaio zan, 1.924ko urtean Otsaillaren 19an.

1.928ko urtean bere aitak, Amalek lau urte eukezala, aurkeztu eban Donostiko antzoki baten leenengo oguzpenean<sup>(1)</sup>: “Ni naiz sudurmotz berritsu bat” buruz mintzatu edo ozontzeko. Eta Jardun-aldi onegaz, Euskal-Irratiko lenengo emakume esatari biurtu zan.

1.932ko urtean Epaillaren 2an, Ander aitak, “Neskamearen marmarrak”, alkarrizketetan aots gozoz mintzatzeko idazten ebazanak, ibili eban Amale ozenalditan, zortzi urte eginbarri euki ebazanetik, Donostiko Irrati-Alkartearen ozengailu<sup>(2)</sup>, bai eta Euskalerrietan egozan Irratietan mintzatzen. Amale berak, jolas antzeko baten egiten ebazanak.

Gure euskaltzale asko igaro ziran Irrati´orreatatik denbora aietan, Lizardi´tar Xavier, Aitzol, Monzon´tar Telesforo, Arrese´tar Emeterio, Orixe, Alzaga´tar Toribio, Zipitria´tar Elvira, Garbisu´tar Tomas, Lafit´tar Jean eta abar.

Urrezko denborak ziran areik Euskerearen zabaltasunerako, geiago, Arzelus´tar Ander “Luzear” eta Zubimendi´tar Joseba´lango euskal arduradun zintzoak euki ezkerro.

Urkiaga eta Basaraz´tar Esteban “Lauaxeta”k esaten eban: Euskalerrian ez egonla etxerik, umetxo au biotzetaraiño sartzen etzanik.

1.934ko urtean, espainiar errepublikako jaurkintzak debekatu ebazan euskerazko emonaldi orreik, eta naita antzez lanetan ainbat lan egin arren guda amaitu arte, ez zan

(1) Oguzpenean = recitación, declamación. (2) Ozengailuetatik = altavoz, o de los micrófonos de Radio-Unión de Donosti.

geiago irratiairen aots gailluaren aurrean agertu, nai eta bere aitagaz Euskalerriko erri guztietatik ipui kontari eta abeslari ibili.

1.936ko urtearen guda erdian Bilbotik igaro ostean, Ipar-Euskalerrira joan zan Amale sendi guztiagaz, aita izan ezik, 1.944ko urterarte Santoña, Burgos eta Madrilleko espetxeetatik euki ebelako.

Guda-oste latza izan zala esaten eban Amalek, eta Frankok aginduten ebazan zigorragaitik, bere aita Burgos eta Madrilleko espetxeetatik bost urte´terdi ibili ostean, etxera etorri zanean, Frankoren zigorrezko agindu zitalak ostera urrundu eban erdiugarte onetatik, erbesteko 200 edo 300 kilometruetara.

Eta Luzear´ek, ezanez kikiltzen Franko´ren zamakuntzakaz, Frantzira aldatuta, ixilpeko Euskal-Irrati ipini eban lanean.

Erakunde lez egiten genduzan alkarrizketetan, euren aita gizontasunezko sasoi onenean egoalako, sekula be etzala gelditzen Euskadi ta Euskerearen aldeko ekintzetan, esaten eban Amalek.

Eta Euskal-Nortasun edo Izatasuna zalantzan egoalako, bizi osoa emon eutson Euskalerriri, arik eta bera gaxotu arte.

1.949ko urtean Dagonillaren 27an, 51 urte euki eukezala il zan Amalen aita. Bere gorpua, Muñoz sendiari esker ekarri eben Donostira. Baiña ez iztillurik bage, esaten eban Amalek.

### ***Amale´n ezkontza.***

1.948ko urtean Azaroaren 27an, Zinkunegi´tar Joseba sendagille ta gizon andiaren seme Andoni´rekin ezkondu zan, eta bederatzi alaba-seme euki arren, ez zan kikildu, Zipitriatar Elvira andareño aundiagaz, ixilpeko ikastaroak antolatu eta ume ta nagusientzat etxerik etxe, jota-ke eurei euskerea irakasten. Ekintza orren bitartean jaiot zan bere lenengo seme Ander.

### ***Ikastolak.***

1.968ko urterarte iraun eban bere etxean, euskerazko ikasketak aurrari emoten, eta ordutik aurrera adiñekoakin, beste urte askotan.

1.970eko urtean baimendu ziran ikastolak, eta oraindiño iraun eban urte batzuetan euskerea irakasten.

### ***Euskerazaintza.***

1.979ko urtean Kardaberazen bidetik sortu zanean Euskerazaintza edo Euskerearen Erri Academia, ezagutu neban nik Arzelus eta Arrieta´tar Amale. Lenengo illean amabostero eta gero illeroko zapatu guztietan alkartzen giñe, Tolosa, Eibar, eta Deban egiten genduzan batzarretan. Beti irripartsu, arduradun ta laguntzeko prest euki genduan gure Amale maitagarria.

Badakit arduratuta egongo dala, bear dogun laguntza goiko Zerutik Euskalerriri ta guri emoteko.

*Eriotza.*

2.015eko urtean Iraillaren 28an il jakun Amale, bere sendiaren maitasunezko babesean.

**“AGUR AMALE”**

**“EGUN AUNDIRARTE”**

Atutxa eta Agirre'tar Paul

Zornotzan 2.015eko urtean Azaroaren 27an.

# **¡¡AGUR, ZELAIA eta IBARRA´tar ADRIAN!!**

*Sarrera.*

## *Zelaia ta Ibarra´tar Adrian´en jaiotza ta bere lenengo bizi urratsak.*

1.917ko urtean Barakaldoko Lutzana auzoan jaio zan gure Zelaia ta Ibarra´tar Adrian, bere ama Begoñan jaiotako Ibarra ta Beraza´tar Leontzi, eta aita Zeberioko Zelaia ta Egileor´tar Adrian´en bidetik.

Bere ikastaroko lenengo urrats edo oinkadak, Antona´tar Matilde andareñoagaz emon ebazan, berau izan zalako lenengo liburua irakurten erakutsi eutsona, Nerbioi Ontzitegiko ikastetxean.

1.987ko urtean Urtarrillaren lean zar-saritu zan, bere 4n zenbakiaz egoan Lenengo Epaitegiko maillaren Ekitaldiko auzi-gizon langilletasunetik, naita berak sekula itzi ez guztiz.

“Gure lana, ez zalako bizitzaren ekintzan edo itsasotik urez joatea lez, **“Gogoan erabiltea dalako, gero bizi-bide lez, egin bear doguzan guztiak egiteko”**. Egi-zale lez, ekintza orreitan iraun eban bere bizitza guztian.

## *Zelaia ta Ibarra´tar Adrianen esaldiak.*

-Epaiketazko eskubidedun edo zuzendari batek, ez dau burua makurtu bear lege baten aurrean, bere baitaren aurkakoa izaten bada.

-Naita III munduko guda-gordien baten aurrean egon ez arren, Izadi onen gizarteak, gorputz-dardara edo ikaratuta agertzen dira, guda-txiker ugari edo asko egonez gain, **ixiltasunezko mendi aundiak, egiaren gainean dagozelako.**

-Epaikari baten ekintza, bear dauan bare-aldi osoan, edo ta Alderdi-bageko edo gogo-berdiñeko izatasunean, gai guztien lanak, arrazoi-bidean ezartzea da, oinarri bi orrein alegiñak, askatzen gaituelako.

-Mundu obeago bat egiteko bear doguz “Eskubidearen Legeak”, norkeriz, andinaian dabil baten maltzurkeria, estalgilletasunezkoak<sup>(1)</sup> egin barik.

-Ni, irakaspidezko izena artu neban, gudagaz baiña, eskolak ertsi edo sarratu euskuezan, eta lege-gizonaren ikasketak amaitu nebazan.

-Bizkaiko aritz aundia daukagu, **askatasunezko irudi eder lez**, ta gure Lege Zarren

(1) Estalgille = encubridor, alcahuete.

gaiak bereztea nai dogu, eurak bermatzen<sup>(1)</sup> gaituelako, euskal bakoitzaren askatasunezko eskubideetan.

-Laguntasuna edo ta Elkartasunaren oiñarriak dira izatezkoak gure artean, Kristok diñoanez: “Maite izan zaitese zuen artean”, eta ori *Laguntasun edo Elkartasuna baiño geiago da*.

-Irakasle batek, maite izan bear dauz daukazan ikasleak, euren ulermenetan egizko balioak ezartzea gura ba-dau. Eurak maite izatea, gizon-emakume onak eta zintzoak izan zitezenlakoak dalako. Bardiñ sortzen da seme-alabarekin. Eta seme oso onak dodazalako, pozik eta arro senditzen naz, “egiaren zuzentasun billa bizi diralako”.

-“Zuzentasunezko zaletasun barik, ezin leike izan kidegotasun edo berdintasunik.

-“Sekula be ez dogu ulertuko zer garean, ez ba-dogu jakiten *Zer Izan Giñan*”.

### *Adrianek idatzi ebena.*

Asko da Adrianek idatzi ebana, artean Deustuko Ikastetxe nagusian argitaratuko “*I eta In Euskal Izatasunen Eskubideko*” liburuetan, 346 orriko lenengoa, eta 473 orrialde daukena bigarren onek, bere seme Zelaia ta Ulibarri’tar Adrianek, bigarren liburuko diru kontuaren arloan, XVIII ta XIXgarrengo atalak eginda, aitari laguntzen.

Nik ezin dodaz bere lan guztiak ona ekarri, leen, lan aztuna dalako, eta bigarren ezin diralako lan luze orreik bere agur onetan aipatu.

### *Adrian, Euskera Zale lez.*

Adrianek, ez eban bere gazte denboran euskara ikasteko aukerarik, ta euskeragaitik euki eban maitasuna, eragille bat bezela, bultzatu eutson Bizkaiko euskerea ikasten, ezkondata gero euskal kabi eder bat egiteko, euki ebazan seme-alabakaz.

Eta 60ko amarkadan, Bizkaian eta Bilbon batez be, euskereak euker ezereztuteko bidetik atarateko, ainbat euskal-seme arduratsu alkartzen ziran, Adrian eurekin egoala, ia, Frankok berpiztu eban katolikotasunaren kaisertzazko aberrikuntz denbora aietan, nundik asi eta zer egin, gure euskera maite au, bere osasun-bide onenean ezartzeko.

1.967ko urtean batu ziran Karlton Arrozetxean besteak beste, emen aipatzen dodazenak:

“Leizaola’tar Jose Maria, Gonzalez eta Etxegarai’tar Karlos, Zubizarretako Fernando, Atxa’tar Jesús, Montianoko Jose Antonio, Ezpeletako Jose, Bengoa ta Zubizarreta’tar Jose Luis, Uriarteko Kastor, Oleaga’tar Jesús, Martin eta Retanako Jose Maria, Astiz’tar Migel Anjel, Erkiaga’tar Eusebio, Berrojalbiz’tar Juliana, Zugaza’tar Leopoldo, eta Zelaia ta Ibarra’tar Adrian.

### *Lenengo arauan.*

Ezarri eben lenengo araua, *Izena* izan zan, eta izen orregaz iraungo dau gaurko egunerarte: “*EUSKERAZALEAK*” “*EUSKEREA ERABILTE ALDEKO ALKARTASUNA*”.

## ***Bigarren arauko Elburuak..***

Araupean ezarri zan elburua: *euskereari iraunazotea, indartzea eta erabiltea zala oiñarri.*

Eta orretarako: *ederti, jakintza ta legeak aukeratzen dauskuezan teknikaren trebetasunakaz baliotuta,* lortzea.

1.968ko urtean, Euskerazale Alkarteko elburu barruan oso osoan sartu zana, zelan lortu euskerea erabiltea ikastola lez, eta orretarako 60.000 bizkaitar, geienak Bilbotarrak, izenpetu eben agiri ori, Madrillen ikastaroaren baimena lortzeko.

Euskerazaleen Alkarteko taldea Madrillera joan zanean, Lopez'tar Eugenio izkuntzaren arduradun nagusiagaz egon ziran, eta Galiziatarra zala itandu ondoren: bere etxean zelako izkuntza erabilten eben itandu eutsoen, Eujeniok Galiziar izkuntza erantzun eutsoen, euskal Alkartekoak, eurak be ori berori gura ebela, gure euskal etxeetan euskerea erabili genezan. Eta denbora barru baten baietza artu eben.

Ez ebelako irakaslerik egon, Alkarte onek lenengo egin ebena, oartzaille edo oarkarien ikastaroa sortu, euren maixu izenak lortu egiezan, euskera irakasteko. Eta Etxenagusia'tar Karmelo ta Peña'tar Xabier ipini ebazan irakasle, gero maixu izena artu egien euskerazko maixu barriek.

## ***ZER aldizkaria.***

1.977ko urtean sortu eben ZER illeroko aldizkaria, Bizkai, Araba, Gipuzkoa ta Nafarroako euskaldunai, Bizkaitar euskalkian berriak emoteko. Gaur, 2.015eko urtearen Abenduan, 421eko zenbakira elduda.

## ***Ondorioa.***

*Kromañon arbasoetatik asi eta Paleolítico Neolítico bitartean lortuta, oraindiño gaur, odol-bizi-bizian daukagun askatasunezko demokraziaren baita onen bidez, gure Euskalerra maite onek, biografia edo bere bizi-kondaira aberatzean, gizon aundiak emon dabezala esan bear dot, gure zor-eskubideetan izatezko demokrazi onek, asmakizun aundiko sortzailletasunetan ezartzen gaitulako.*

*Zelaia eta Ibarra'tar Adrian, Agirre'tar Txomin, Loidi, Bilintx, Etxaniz'tar Nemesio, Akesolo'tar Lino, Onaindia'tar Santi, Zubikarai'tar Augustin, Leizaola'tar Jose Maria, Gonzalez eta Etxegarai'tar Karlos, Zubizarretako Fernando, Atxa'tar Jesús, Montianoko Jose Antonio, Ezpeletako Jose, Bengoa ta Zubizarreta'tar Jose Luis, Uriarteko Kastor, Oleaga'tar Jesús, Martin eta Retanako Jose Maria, Astiz'tar Migel Anjel, Erkiaga'tar Eusebio, Berrojalbiz'tar Juliana, Zugaza'tar Leopoldo, Zubiri'tar Iñaki eta Sabin, Olazar'tar Martin, Barroeta'tar Klaudio, eta amaitu ezinezko zerrenda aundi bat aipatu barik geratzen dana.*

*Gure Euskalerra maite onek, iturri aundia daukalako bere alaba-semeetan, Jaungoiko ta Euskaletxeari begira, lortu eban Euskal Askatasunezko Demokrazia aundia izan zan, gaur guk belaun-aldi lez erabilten doguna.*



*Xalbador, eta ainbat euskalzale abertzale lez aipatzen dot gure Zelaia ta Ibarra'tar Adrian, ondo baiño obeto dakidalako nolako zorrak daukezan gure erriaren nortasunezko Lege ta Euskereak eurokin.*

*-Jainko bidetik, Euskalerrriak belaun aldiz askatasunezko demokrazian oituratua daukan berezko baita au, norkezikko alderdikeriaren aurka, oso aukera-bagekoa da, alderdikeriari ez dautzelako emoten arnazik.*

*-Eta ekialdetik, menperatzailletasunezko ekintzan agertu ziran ainbat leiñu Europa'ren mendebal onetara, baita, mendebal onetan erromatar kaisertzak sortu ziranakin, Europako lur guzti au menpetasunezko norkekiaren zaletasunean biurtzeko, daukazan errigizarteak morroitasunean batzangotzen alegindu dira beti, edesti guztian Europako errigizarteak bizitzeko bear izan daben guztia, euren kontrolpean eukiten aleginduta.*

*-Amaibako eskerrak emon bear dautsaguz Jaungoikua'ri, Zelaia ta Ibarra'tar Adrian'lako gizonak eukiteagaz, gaur mirari aundia bat dalako, Paleolítico Neolitiko bitartean lortu genduzan askatasunaren demokrazizko baitakin, gaur, gure Euskalerrri maite onetan agertzeagaz.*

*Mundu onen giza ta erri guztien antzera, bizitzazko eskubideen ordezkartzarako ekintzan, asmatzailletasunezko almenak bakarrik eukinda, Euskalerrri maite onen giza-seme-alabak, kundeatzaille edo berezko legearen ekanduzko ardura aundikoak izanez gain, sortzaille bezalakoak agertzen gara, eta esker aundiak emon bear dautzaguz gaurko euskaldun guztiak, Adrian'lako gizonai, euren ikerketa bidez, Euskalerrriak bere askatasunean ta alderdi-gabeko demokraziaren ekanduzko edestian, lortu dabezan oiturazko izar bitxiak, gaurko eguneraiño ekartea lortu dogulako.*

*Orregaitik eta maitasun aundiz, gaurko Euskerazaleen Alkartekoak agurtzen dautsugu.*

**¡¡AGUR ADRIAN, EGUN AUNDIRARTE!!**

Atutxa'tar Paul

Zornotzan 2.015eko urtean Abenduko 29an

## -DEMOKRAZIAREN - EZIÑA -

### *Demokraziaren aurkezpena.*

Gaurko Europan ta munduan erabilten doguzan demokraziak, ez daukie antzik bez, begirun aundiagaz jokatu bear dogun ekanduzko demokraziaren zentzuagaz.

Gure ordezkartzazko bizi onetan, demokrazia, bakotzari berea emotea da, danok egiz arduratuta, ekanduzko oreka baten bizi gaitezen.

Eta or ez leuke egon bear txantxarrik, mundu onen giza guztia, bakoitzaren bere bizi bakarrean eta bere ardurazko neurrian, eskubide bardiñekoa dalako.

Niri, barre edo parraldia emoten daust, gazteleraz: *es Propio, o de mi Propiedad*, entzuten dotenean, gure euskerazko izkuntzan *berezko*<sup>(1)</sup>, *aitarena*<sup>(2)</sup>, *berekiko*<sup>(3)</sup>, eta *egokizko*<sup>(4)</sup> itzak erabilten doguzelako, ainbeste milla urte euskal-demokraziaren billa ibili ondoren. Eta or, agertzen dira ze izkuntzak diran jendekuntzazkoak<sup>(5)</sup>, eta zeintzuk beartuz egindakoak<sup>(6)</sup>, bizi onetan ez dagolako iñorena ezer, *gure edo danon ardurapekoak izan ezik*.

Beste gauza bat da, K.o. 325eko urtean giza ta Jaungoikuaren artean, eurak zirela<sup>(7)</sup> autulari edo solastiar<sup>(8)</sup> bakarrak esan ondoren, Nizeako batzar nagusietan ziñezkintzatu<sup>(9)</sup> egin ziran legeak zirela ibili ebezanak, ezagutzen ziran mundu onen berezko erriak, indarkeriz katolikotasunean aberritzeko.

Eta ziñezkintza orreikaz, berezko ardura guzti orreik eurak batuta, Jaungoikuak danori emoneko ardura barik geratu zirelako munduko errigizarte guztiak, gaurko munduaren giza semeak, ardurabagean ezarrira gagoz, norkerizko erabagi orreik, aurrera egiten dabelako.

Mundu onen giza-semeak, ezin dabe aurrera egin alako ardurabagean, ekintza orrek bakarrik, ekanduaren zentzunezko bizi-antolakuntzatik, urrundu egiten gaituelako.

XIXn gizalditik aurrera, eta guda bidez erabagita: “ipini ziran laterriak dira errudunak”, menderatzaille lez, lapurtzazko ekintzara dagozelako bideratuta, errigizarteak bizitzeko bear dabezanak, euren kontrolpean eukitegaitik.

Ez da ustegabekoa, Arabako gaurko gotzaiñak, katolikotasunezko barri edo ebanjelioa,

(1) Berezko = luz propia. (2) Aitarena = propio del padre. (3) Bereki, berekiko = de la misma naturaleza o propio del padre. (4) Egoki, erazko, erarako = conveniente, adecuado, o apto para. (5) Jendekuntzazko izkuntzak = idiomas culturales. (6) Egindakoak = Idiomas creados artificialmente o por necesidades imperiosas de entendimiento vitales, como el castellano entre Burgos y Santander, bable en Asturias, y el Nabarro-Aragonés, creado entre ribera del Ebro de Nabarra y el norte Aragonés, que nacieron por necesidades intrínsecas de entendimiento entre la imposición del imperio romano y el euskera como entendimiento entre dominadores y dominados, sin ninguna investigación gramatical, puesto que por aquellos tiempos, sólo se hablaba el EUSKERA en toda la península ésta del Occidente Europeo. (7) Erromako kaisar I Konstantino eta I Silvestre Aita Santuak. (8) Eurak zirela Autulari edo solastiar bakarrak = que ellos eran los únicos interlocutores válidos entre Dios y los hombres. (9) Ziñezkintzatu = dogmatización de reglas o normas que se quieren imponer fuera de toda regla cultural, para imperar, en éste caso el *Nacional Catolicismo*.

berezko baita edo jendekuntzaren aurkakoa dala esatea, nortasunaren aurka, norkeriz ziñezkintzatutako arauak ezarri ziralako Nizeako eleiz batzar orreitan.

### ***Giza lez doguzan izan-gaitasunak.***

Mundu onetan, eta gu gizakitutakoak, sortzailleak ez garelako, Jainkoak mundu oneri bereztu eutsozan legezko baldintzak erabili bear doguz, tresneri edo ta oiñarrizko elementuak lez, danontzat bardiñak diran legean.

Eta ortik aurrera, zentzu ta ardura aundiz bete gure ekintzak, bizi garan serbitzurako.

Bestela egiten doguzan gauza guztiak, oker, anakaz-gora, zentzubage ta edozein neurrian urtengo leukielako, beartsu edo onbear eta aberastuten diranen artean gaur sortzen jakun lez, orekak leku guztietatik galdu ondoren.

Bereztasunaren legezko baldintza orreik dira, gaurko Europaren politikuak kontuan artu bear dituezanak gauza guztietan, ta ardura bardiñak, diruaren antolaketak egiten dabezenean.

Gaiak, beren ludi irudiaren izaerarako daukazan mukulluak, orokorrezko askatasunean bananduta egonaz batera, euren mukullu arteko-gintzan daukien erakarrezko indarra, eurak osagarritzkoak izan dagiezen legea da, mundu au, eragilletasunezko bizi-tresneri bat izan zediñ.

Orregaitik, mundu onetara bear-bearrezko ordezkartzaren arduran<sup>(1)</sup> jaioten garan guztiok bardiñak izanda, ludi onek daukazan bereztasundutako lege orreik dira, gure arduradunezko arima gizatuari, lege bardiñean osagarritzkoak izatera alegintzen dauzkuena, Jainkoaren legeak izanez gaiñ, lege guzti orreik, zeregiñ bardiña daukielako.

Eta Jainkoaren legeari begira egin bear doguzan gauza guztiak, azturazko maitasunean egiten ba doguz, bide orreitik eraikitako etxe, auzo, erri, eskualde edo lurralde, aberri, ta errigizartearen askatasunezko eskubideak, berez agertzen dira, bear daben ekanduzko askatasunaren orekan.

Danok, begirun aundiko ardureak bear doguz, gai-gizaren biziko egitamuak zentzuz gauzatzeko, eta elkar erabili bear doguzan osagarritasunezko bideen ulermenak, orekazko zentzun baten eroateko.

Guzti orreik kontuan eukinda, ez bagaude lau gizaki nagusitasunezkoagaitik bideratuta, ainbeste urte menperatzailletasunezko agindupean egonda, ori be al izan leikena dalako, uts egin barik.

(1) Gure ordezkartzaren ardurazko ordaritzza = Nunca hablarè de ninguna propiedad, puesto que es impropio, cuando debemos hablar de responsabilidad.

Gaurko politikuek, gaiaren eta gizaren eskubideak ez dabezelako erabilten, agindu egiten dabezan gauza guztietan sortzen diran korapilloakaz, errigizartearen artu emoneko arloetan, dana agertzen da lokaztuta lez.

-Izadiko gaiaren-orekan: Itsas-errekako urak eta mendi-lur-aizeak zikinduta.

-Eta gizakiaren arloetan: lan-eza, lapurtza, negarra, gozea, gaitzaldi, elde edo izurriteak, eriotza, borrokak, aditu eziña, eta ardurabagekerizko itsutasun aundia.

Bizitzeko egiten doguzan gauzen mozkiñ guztiak, norkeriaren batzango edo agintari zaleen kontrolpean egon daitezen, guda-indarrezko keiñada gogorrak erabilten dabez menperatzailleak, giza eskubidearen ardurak kentzeko, eta ez gero eurak egiteko danok egin bear doguzenak, ostera guri beartzeko baiño, eurak gura daben eratarata bete, eten bageko indarkerian.

Len, munduko borroka nagusi bategaz, dana utsezko zenbakian ipinita lez azten ziran ostera bizitzarako bear zan guztia eraikiten, euren poltzilluak beti berriz beteta eukiteko.

Baiña gaur, beste olango borroka bateri eurak be bildur direlako, demokraziaren indar bidez, maltzuratasunezko guzurak eten barik gero ta indar geiagorekin argitzen dira, eta orain 1.687 urte geroago, Nizean asmatu zan batzangotasunaren goitik berako agintaritzaren giza-gorputza ori norkeriz erabilia bereztasunaren aurka, guztiz ustelduta lez agertzen jaku.

Zergaitik ?.

Gure bizitzaren epe laburrerako, Jainkoaren legeekin beartuta agertzen gara lez, argi erakusten jaku:

- a) Osagarritasunezkoak garela jaioten garan guztiak.
- b) Kundetzaille edo gai onen eragilletasunerako jaioten garala.
- d) Gure eragilletasunean kontuan artu bear doguzala, gai ta izaki guztien eskubideak.

Bakoitzak, taldeek, leiñuek, auzoek edo eta errigizarteak euren bereztutasunezko aztura bidetik, izkuntzagaz sortu ebezan nortasunezko bereiztasunak, danok baieztu beardoguz ezeren aitzaki barik, orokorrezko ulermen on batean agertzeko.

e) Asmatzaillearen almenak bakarrik eukinda, gure izan-gaitasunean ez daugelako iñungo sort-araslearen izatasunik:

Norkerizko alegiñetan, irazale, sortarazle edo ta sortzaillezko arloetan, iñorentzat ezereen legerik egin bage, legezko alegiñ guzti orreik, Jainkoak bereztu eban legeditik artu bear doguz, euren kanpotik lege guzti orreik, menperatzaille biurtzen diralako,

Ala... mundu onetara, beste gauza baten bat egiteko etorri ote gara ?

Dirua, gure arteko ordearen tresneri bat bakarrik izanda, sasijainkotu jaku.

### ***Demokrazia.***

Orregaitik demokrazia, bakotxari berea emotea da, eta ez leuke egon bear zalantzarik arlo orretan, errigizarte lez, ekanduzko orekan iraun gura ba dogu.

Gaurko munduaren ekanduzko arloetan, guztiz naastekatuta agertzen garan lez, gaurko mundu onen agintariak, geratu bear leukiez orain bertan tresneriz doguzan diru-etxe edo diru-kutxaren zeregiñak, arik eta, mundu onen Europa eta Ameriketako agintariak, gizaren eskubideakaz, benetan asi arte.

### ***Zergaitik.***

Gaurko Europaren menperatzailletasunezko ekintza amaitu bear dalako, 325eko urtetik ona Nizean norkeriz artu ziran batzangotasunezko erabagiak ez ba dira geratzen, beste guda gogor bat daukagu aurrez-aurre, danon ikuspegian.

Orduan batu ziran esku baten, Europa eta ezagutzen zan mundu onetako giza ta errigizarte guztiek banaka eukezan ardurak, eta ortik aurrera gagoz konpondu ezinik, ez edozein gauzagaitik, mundu onen giza berezko arduratik kanpo antolatzen dalako baizik.

### ***Zeintzuk ote dira okerrezko iturburu orreik ?:***

Ludi-Fisiko onetan egiñak, egillea daukielako, ez dago sorburubageko mogimendurik.

Eta norkeriz egidako gauzak, goitik berako agindupean egiten diran lez, norkerizko emaitzan agertzen dira, guzurra, guzurragaz bakarrik elikatu leikelako.

Eta munduaren norkerizko jakintsu nagusi orreik, ugazaba lez senditzen diralako, dan guztia eurena dala uste dabe.

Orregaitik agertzen gara ainbesteko lapurkerian, gaur sortzen jakun lez.

Beste gauza zoragarri bat agertuko liteke, Ludi onen gizakien ardurak, bakotzaren eskuetan ba legoz.

Eta nortasunezko ardurean jokatuta antolatuko ba-geunkez danon eskubideak, ondorioz, danon askatasunezko eskubideak zainduko geunkez.

Besterik bear ote dogu ?.

***Ludi onen berezko erri edo errigizarteak, Euskalerrria daukan erri zaarrenagaz buru dogula.***

*Europak, badauko bai, Euskalerrriari zer eskertu, bera dalako Paleolitiko Neolitiko alditik, askatasunezko demokrazian lortu eben "pare-bageko jendekuntz demokratizkoa"ren Aitorlea<sup>(1)</sup>.*

*Gaurko munduari, mesede aundiak egingo leuskionak, lortutako ekandu demokratiko ori kontuan artu ezkerro.*

*Zenbatu ezinezko ainbat milla urte askotan, ekanduzko azterkuntzaren erinduan<sup>(2)</sup> biziz, gure arbasoak, askatasunezko legean, ordezkartzaren demokrazizko lege ederrenean ezarri ziran, gure "Euskal Lege Zaarrak" erakusten daben lez.*

Argi dago orregaitik, Ludi onen berezko erri guztiak, katolikotasunezko aberrikuntz menperatzaille orreitatik urten bear dogula, bestela guk eskatzen dogu konturatu barik, gure bereztasunezko errien eriotza.

Eta mundu fisiko onetan ori egiztuteko, ez da bear besterik, adibide au ulertzea baiño:

*Nik ez dot gura Euskerearen edo Euskalerrriaren eriotza, baiña euskeraz itzik edo berbarik ez badot egiten, Euskerea il egingo da.*

Euskal-erri lez, norkeriz aberritutako katolikotasunaren menpekotasunetik ez badogu urtetan bezela:

*"katolikotasunaren aberrikuntza besarkatu egin ezkerro erri lez, Euskalerrriaren eta berezko errien eriotzak beartzen doguzelako".*

Zer izan ziran Erroma Europako mendebal onetan, eta ekialdean Asiriako Sargonidas, Persia zaarrako Dario, Jerjes, eta abar, norkerien amets ustel-gaizto batzuk baiño, oraindiño euren legepean irauteko ?.

*Ludi onetara, ez gara agertzen norkeriz bizitzeko.*

*Eragille lez, egin bear doguzan antolaketak:*

*Jaungoikoagaitik, ordearen ardurazko legepean danon baitan oiñarrituta ekarten doguzanak, "Ekanduzko zentzuetan betetea".*

(1) Aitorlea edo lekuko = testigo de aquella época milenaria, consevada a través de la moral o costumbre ejercitada, en sus más estrictas y tradicionales leyes vascas. "Lege Zarrak". (2) Erindu = expiar, borrar, purificar, refinar, expiar errores.



*“Ez dau balio, norkeriz edo txantxetan ibiltea, nortasunezko zentzuetan baizik”.*

*Europa ta ludi onen agintariak konturatu bear dira, erritarrak, euren berezko ardurak emon bear jakozela.*

*Beztela gaur lez: “ardurabakokeriaren norkerizko eritzian biziko gara ezereen begirun barik, guzurrezko lokatz onetan.*

### *Gaurko denboran, Demokraziaren-Eziña.*

Erreza da konturatzea, ikertasunezko lan au ikusi ostean, nortasunezko demokraziaren zentzuetik, urrun gagozela.

Età aurrerantzean sekula ez dala egongo bide zuzenik, ez bagara norkerizko bide orretatik urteten.

*“Guzurra, egia dala ziñeztu ezkerok, beti guzurrezko bizi baten iraungo dogu, zuzentzen ez badoguz, norkeriaren anditzarrezko oker aundi orreik”.*

Atutxa'tar Paul

Zornotzan, 2.016ko urtean Loraila'ren 24'an

## *ABERRIA edo ta LATERRIA* *Bietatik, zein da legezkoa?*

### ***ABERRIA.***

Gaiezko izadi onetan, ta izadiko indarraren azturazko ezauntza bidean, aberriagaitik berba egiten dogunean, agertzen jakuzan eskuarteko izan gaitasunaren antolakuntzatik, eltzen gara berezko aberri baten babeseko ezarpenera, edo ta gure bizitzak, izadi onen gai-legezko zentzunean babestuteko, edozeinezko bear doguzan garrantzizko elburu baten ezarpenera.

Eta Izadi onen indarrartean, zeintzuk ote diran gure azterketaren azturazko lanean emaitza lez agertzen jakuzan izakizun edo ditekeenak, irauntasunean daukagun almenezko bizitz onen ekintzatik aurrera egiteko ?.

### ***Euskerea.***

Euskaldun arbasoak, 30.000ko urte askoren ikerpeneko atun-bidean<sup>(1)</sup> edo ta aztura bidetik<sup>(2)</sup>, ondo erindu ta biribildutako lanean lortutako bereztasunezko itz ederrak, euren lekuetan ondo aokatu, eta bete-betean euren lekuetan egokituta geratu daitezenakaz, euskerearen gaztelu ederrena eraiki eben.

Lur, aize, ur, itsas-abeldiai eta bizitzaren orokorrezko gai-lur onek daukan lorei, landaredi, lur-abeldi, are, arri, arrikatz, burdin-mea, kobak eta gure lur onetan agertzen diran era guztiko irudiak, bereztasunezko zentzu aundienean izendatu ebezan.

Gure izen-abizenakaz eta ekanduaren arloan bardin eginda, euskal berba bakotza: leku, era, aukerazko diketeenetan edo ta zeregiñezko gauzatan, esaeraren zentzuzko argitasun ederrenean irudimenduta kokatzen gaitu.

Arteko arremantetan eta berbaz mintzatzen garenakaz, egiaren ziurtasunezko eta xeetasunaren irudimenezko ulermenean kokatuta.

Euskaldunak, alako berezkotasunaren izkuntz-ederragaz jendekuntzatuta, ez gara izango, egia ta askatasunaren demokrazizko zaletasunezkoak ?.

Orainarte, eta ziur nago emendik aurrera-be, alan izango dala, euskaldunen berbea, alkar mintzatuz egon dan lekuetan, egiaren zentzunkidezko<sup>(3)</sup> labelekoa izan dalako beti.

(1) Atun-bidean = procedimiento del conocimiento empíricamente. (2) Aztura bidetik = crecimiento en el conocimiento. (3) Zentzunkidezko = armonia social, moral y demokratikamente equilibrada

## ***Euskalerrriaren edo Euskaldunen nortasuna.***

Euskerea da gure izaeraren ardatz-nagusia, beren bidetik euskaldun lez nortasundu egin giñelako, eta egiten garelako, euskal kabi eder onetan jaiotakoak.

Orregaitik deitu geuntson *AMA* Euskereari, berak emoten euskulako gure arbasoen ainbat milla urtetako *AITORTZA*.

Gaurko errietatik, iñork, edo gitxik baiño ez daukienak.

Eta bizitz onen ekintzazko bide orreitatik, eskutik ebatuta doazelako, mintzoaren eta ulermenaren bearkuntzak, mundu onetan zentzuz jokatu, eta betiko ekanduan etenbageko azturan bizi ondoren, egokitu gendun euskerearen nortasunezko izkuntz eder au.

## ***Euskaldunen artean, bazkunezko edo gizarteko antolakuntza.***

Milla urte askotako denborea euki eban Euskalerrriko lagun-arte onek, gure gaurko edestian sartu zanerako, Paleolitiko denborak baiño ariñautik, itzarmen edo elkargoko bizitzan arduratuz, Atlant-Itsasotik Alemaniaraiño, eta Eskoziako Piktoaren ugartetik, Tarteso ta Turdetanoaren Kadizeraiño lortzeko.

Eta azkuntzazko bizitz orren arduran jarraituz, euren arteko arremanak, euskal ekanduaren zentzun aundiko ulermenean ezartzeko, askatasunaren bakezko demokrazi ederrenean oiñarrituz ezarpendu ziran, gure batzar zarraren lege bidetik.

Eta ori izan zan, Jaungoikuak bereztu ebazan legeari begira, ikasiz lortu ebena, gure zentzun aundiko Lege Zarrak diñoen lez.

## ***Euskaldunen erlijioa.***

Afrikatik, Omosapiens zabaldu zanetik, Euskalerrriak be euki eban, beste giza leiñu, errigizarte, edo jendarteak euki ebazan euren irudimenaren ustezko edo ametsezko irudigintza, eta oso polita gaiñera.

Konturatu ziran baiña, gaiezko Izadi onek daukazan legeak, zeruko goian ez dan ikusten Baten batek, ipini eutsezala.

Eta lurrak daukazan legeari begira, gai edo giza izan arren<sup>(1)</sup>, biak lege bardiñean irasita dagozelako, danon zor-eskubideko ordezkartzaren ulermena zan, lortu eben gauza ederrenetariko bat, leiazko demokrazi zeatz batera elduta, gure Lege Zarreko Foru Legeak agertzen dabezan lez.

(1) Gai edo giza izan arren = siendo indistintamente persona o materia, porque los dos son partícipes en igualdad de las leyes que contiene esta naturalización.

Eta ulermenezko bide orretatik gurtu eben izkutuzko *Goiko Jauna* edo bereztasun onen *Sortzaillea*, ekanduzko zentzun ori euren artean, erlijiozko maillara igonda.

### ***Euskalerrriaren aberria sortzen.***

Jaioten garanetik azturaz, ezkontzen azten gara, gero sendietan auzotuten, erri ta lurraldetara zabaltzen, eta jendekuntzatuz mugatuta geratzen diran lurraldeko jendarte orreri, esaten dautzagu, erri batekoak, edo Euskal Aberritarrak direla.

*Orrela jaio, bizi, eta jendekuntzatukoari deitzen dautzagu, leiñu, sabel bateko, edo Aberri batekoak direla.*

## **LATERRIA.**

Iztegietan batutako Laterriaren izen zentzuak, esaten dabe:

*Emakume-gizon, edo gauza baten bat aldakuntzazko ezarpenean dagoenean, bere izaeran edo ta esangurezko jarkera edo ezarpenetik, " aldatu egin leiken gauza dala".*

Ez da, ikusten dogun lez, berezko jendekuntza baten aitorkuntzazko<sup>(1)</sup> zentzuaren bidetik, datorren izatasunezko gauza berezi bat, edozer gauza izan leikelako.

Alango itza da laterrizko izen au, norkeriaren zentzungabetasunezko eritzitik artuz, aberriaren zentzuagaz, ezarpendu ebena.

Izadi onetan, gelditu eziñik dabilzan edozerrezko gauza guztiak, gu artean garala, euren ibilkerarako eragillea daukien lez, ikusi dagigun zelako eragillea<sup>(2)</sup> daukan, gure oraingo Laterritasunezko itz onek.

### **Sarrera.**

325eko urtean, Nizean egin ziran eleiz batzarretara atzeratu bear gara, gaurko laterri oneik, euren erabagizko zentzuan ulertzeko, baita jakin degun, zergaitik eta zertarako ipini eutsoen, ezereen zentzunik bage, asmatutako izen ori, berezko errigizarteak, legez daukien izen ta izatasunaren aurka.

Eta Europako laterri auen kontuetan, zergaitik espaini onek, daukan norkerizko asmatzail guzurtien artean, ainbeste indarra, gu Euskaldun, Katalan, eta Galleguak, gaur eguneko demokraziaren denboran oraindiño, eskubidez berezko errigizarteak izanda, euren norkerizko lapurtzan daukien zaletasunaren menpe egoteko.

(1) Ez da berezko edo ondoretasunaren jendekuntzazko aitorkuntzatik ekarten dauan berezko izatasun bat = que puede ser, de cualquier término en que se puede definir la palabra, sin tener arraigo alguno con ninguna ancestralidad. (2) Eragillea = causante de ese movimiento, impulsor, gestor, negociador.

## *Erroma.*

Erromatar kaiserra I Konstantinok jakinda, euren kaisertzaren batzangotasunezko asmo orreik izadi osoarentzako, ezin ebezala aurrera eroan, etenbageko guda edo gudaloztearen indarrrik bage, I Silvestre Aita Santu Kristauagaz alkartu zan, guda indar orreik, erlijioaren sinismeneko indarragaz alkartuz, sendotzeko.

325eko urtean I Konstantino, eta I Silvestre Aita Santuaren ordeiz, *Kordobako gotzai Osio jauna*<sup>(1)</sup> *mai buru ezarrita*, Nizean batzartu ziranean, arrianismoa gaitzetsiz alboratzeko, eta katolikotasunean aberrituta, batzangotasunezko erlijio barri ori legean arautzeko, leen egin ebena:

-Zeru edo Jaungoikoaren eta lur onen bitartean dagozan solaskide edo mintzaide bakarrak, eurak direla esanez.

-Ortik aurrera emakume-gizon ta neska-mutillak, Jaungoikoaren borondatez, bakotzak daukaguzan nor, edo berezko ardurak bizi onetan jokatzeko, euren eskuetan geratu ziran.

-Jainkoa euren maira beratu, eta ziñezkintzatuz, iru zatitan banandu eban.

-Eta eleiz katolikuaren legezko siñisbidea zendotzeko, ziñezkintzatutako Kredo Nizeano edo Konstantinopolitanozko Kredoa irasi eben, orokorrezko izadi onen gizaki guztien sinismenerako. Eta ez Jesusek irasi ebalako, gaur sinisten dan lez.

-Eta baita Erromako kaisertzaren Aita Santuen sakratuzko izen eta izatasunak, ezin-  
eskastuzko'tasunean<sup>(2)</sup> ezarri, danok makurtu gaitezen bere aurrean.

Iru dira eleiz katolikuen siñisbideak: Apostoluena, Nizeno-Konstantinopolitanoa, eta San Atanasioarena, au apaiz'en otoizketako liburuetan irakurten dana, eta orduko denboran sinismen edo asmo orreik ezartzeko, indarkeriz edo odoljariozko guda bidez antolatu ziranak.

381eko urtean eta Konstantinoplako eleiz batzarrean geigarritu jakozenakaz, osotuta geratu zan katolikotasunaren eritzizko sinismen ori.

Griegoak onartu ebena, ta Erromaren Ekialdeko Kaisar Justiniano Aundiak bere 527-565eko urte bitartean jaurkintzazko denboran, onartu ebana Erromatar eleizarako.

Erromaren Ekialdeko kaisertza ori 1.453ko urtean Turkoak menperatu ondoren, amaitu zan.

(1) Osio jauna Kordobako gotzaia = I Konstantinoren aolkularia, Arrianismoaren aurka jokatzeko. (2) Ezin-eskastuzko'tasunean = Inefabilidad del Papa. Ezin-eskastuzko = infalible, indefectible.

409ko urtean, Godoen eskuetara aldatu zan Erromatarren mendebaleko kaisertza, euken erromatar jaurkintzagaz, erlijio lez eztabaida aundiak euki ebezala, Arriano eta katoliko barrien eritziekaz.

Arik eta 586ko urtean I Rekaredo bere emazte Badagaz Arrianismoari uko eginda.

589ko urtean Toledoko IIIIn eleiz batzarrean katolikotasuna besarkatu ondoren, ispaniako lenengo errege katolikoan biurtu arte.

### ***Mauritarren agerkeria.***

711ko urtean agertu ziran moruak erdiugarte edo península onetara, eta or amaitu ziran erromatar-godotarren katolikotasunezko garaipenaren alegiñak, arik eta birjabetzezko lanetan asi arte.

Zortzi gizaldi egon ziran mauritarrak erdiugarte onetan, arik eta errege katolikuak, 1.492ko urtean Granadatik, askeneko mauritarrak bota arte.

### ***K.o. VIII-IXn gizaldian Jaun erregaren antolakuntzak, erdiugarte onetan, bizi ziran ezberdiñeko errigizarteak, atondu zitezzen.***

VIII-IXn gizaldian asi ziran Europa onen mendebaleko erregetzak sortzen:

#### ***Frantzikoa:***

507ko urtean I Klodobeok, Loira ibaiaren azpian egon ziran Bisigodoak menperatu ebazan Bouilleko zelaietan, eta Auñamendiak igaroazota, erdi-ugarte<sup>(1)</sup> onetara bialdu ebazan, batzuk Lurrarteko itsasoaren Septimania ta Probenzako errenkadaren lurretan geratuz.

Eta 507ko urte onetan I Klodobeok, Pariseko uria izendatu eban frankoren erregetzazko uri nagusi lez, naita eurak ezeren baketazko jaurkintzarik euki ez.

I Klodobeo au izan zan, merobinjioaren erregetzazko leiñua, edo Frantziko errege leiñua irasi ebana, bere Merobeo aititeren izenagaz.

Baiña ez zan sendotu, arik eta Karlomajnok bere anai Karlomanegaz 768ko urtean, Frantziko erregetza artu arte.

799ko urtean erromatarrak, IIIIn Leon Aita Santua arrapau egin gura eban, begiak ta mingaiña kentzeko keiñuagaz, eta iges eginda Paderbor'era joan zan Karlomajnoaren babesean kokatzeko, eta batez Karlomajnor, Erroma bakeztu egian eskatzeko.

800go urtearen Azaroan III Leon Aita Santuak deituta, Karlomajno Erromara joan zan.

(1) Erdi-ugarte = península.



800go urtean Abenduko 1ean IIIIn Leon Aita Santuak, Karlomajnogaz batzar bat egin eban, eta Abenduko 23an, IIIIn Leonek ziñezpena<sup>(1)</sup> ta aitortzea eskatu eutsonean, bera errugabeko lez aurkeztu zan.

800go urtean Abenduko 25ean, iparraldeko itsasotik Italia erdian dagon Garigliano edo Liri ibairarte, erdiugarte onen Ebro ibairaña, eta Mendebaleko Atlant Itsasotik ekialdearen Boemiarañaoko Erromatar Kaisal Erri Sakratuaren Inperator, edo Augusto Kaisar-Jaun koroatu eban Erromako San Pedroren Eleizan IIIIn Leon Aita Santuak.

Eta amen emoten jako osterasiera, jopukerizko<sup>(2)</sup> katolikotasunean batzangotzeko asmakuntzari, edo katolikotasunaren kaisartzazko lengo ariari barriro oratuta, Aita Santuak irasi eban kaisartzazko domiña aundi orregaz, Erromatar Kaisal Erriaren inperatore, edo kaisar agintaritzaz, Europako errege indartsuenak eroan dagian.

### *Asturiaseko erregetza.*

418ko urtean Atanajildok, Ajila menperatu ebanetik, 711ko urterarte egon ziran bisigodoak Toledoko errege edo kaisertzan.

711ko urtean Uztaillaren 19an, Muzaren mauritarrak Tariken agindutara, erdi ugarte onetan Kadizetik sartuta, Rodrigo bisigodoaren gudaloztea ezereztu eben.

Eta Nizean sortu ta Toledotik katoliko aolkularitzan Pelayo jaunak, billatu ebazan erromatar-godo lege bildumak, 711ko urtean sasilegedi *rex gratia dei* guzti orreikaz, Asturiasen kokatu zan.

714ko urterarte egon zan Pelayo Toledoko kaisertzan babestuta, arik eta mauritarrak menperatu arte.

714ko urtean Pelayo Toledotik iges eginda, Asturiasera joan zan.

Asturiaseko izen ori, sekulabe ez jako aldatu lurralde orreri, eta izen ori beren erreka nagusitik Asturias ibaitik<sup>(3)</sup> artuta dauka. Gaur Esla ibaia esaten dautsoenei.

Pelayok, Kobadongako guda mauritarrai irabazi ondoren, ta erromatar katolikotasun menperatzail kaisertza ori eskuratuta, 718ko urtetik aurrera eta Obiedoren Kangas de Oniseko errege aulkitik, jarraian ipini ebazan Erromatar-Godoen lege orreik.

718ko urtean Pelayo Asturiaseko nagusi izenduta, batu ebazan asturiarrekaz matxinatu zan, eta Munuza mauritar jaurlariak Pelayo atrapauta, Kordobara bialdu eban, Pelayok andik iges eginda.

722ko urtean Munuza mauritar jaurlariak, bere Al Qama guda nagusia bialdu eban Pelayo egon zan Bres Piloñako<sup>(4)</sup> errira, eta Pelayok beren taldeagaz Piloñako errekea aldatuta, Auseba menditik Kangaseko ibarrean Kobadongako leize zulo baten geratu eta andik erasotuta, Al Qama mauritarren gudalozteak ezereztu ebazan, eta Gijjira<sup>(5)</sup> joanda, Munuza jaurlaria il eban.

737ko urtean il zan Pelayo eta bere seme Fafila edo Fabila igon eban erregetzazko aulkira.

739ko urtean, Fabila onek baiña, eizan ibili zala beste lagun batzuekaz, artz batek il

(1) Ziñezpena artu eutsonean = cuando le examinò en su creencia. (2) Katolikotasunaren joputasunezko batzangoaren asmakuntzari = todos concentrados por la fuerza bruta en esa idea katolika esclavista o de servidumbre. (3) Asturias = atz-ur, Aitzetik urtetan dauan ura esan gura aduana. (4) Bres'eko Piloña (piloña ibaia) = Obiedoko gotzainpean dagoena eta Kangas de Onis'en Auzi barrutikoa. Kangas de Onis izan zan Asturiaseko erregetzaren lenengo uri nagusia. (5) Gijja = gaurko Gijon dana.

eban, urrengo errege, Pelayoren Ermenesinda alabeagaz ezkondua egon zan I Alfonso katolikua<sup>(1)</sup> izanda, Asturiaseko erregetzara igon ebena, eta erromatar ta godoen aria ostera artuta, bera izan zan Nizeako katolikotasun menperatzailtasunezkoari indarra emon eutsoena, erromatar-godoen lege fazizta orreik, beti etorri diralako katolikoan aolkularitzapean.

### ***Asturias, Leon eta Gaztelako erregetzak.***

791ko urtean, I Bermudoren seme I Ramiro igon eban Asturiaseko erregetzaren aulkira, erriak euki eban anai arteko guda ostean.

844ko urtean, eta Kalaorrako gotzai-barrutian dagon Logroñoren lurraldeetako Klajibjoko errian, egin zan borroka ospetsuan, I Ramiroren gudalozteak, Abderraman emirrak Kordobatik eroan ebazan mauritar gudalozteak birrindu ebazan.

Santiago apostolua be, Asturiarren alde borrokatzen ibili zala bere zaldi zuriagaz, katolikuen esanetan.

856ko urtean I Ordoñok Leoneko uria, Asturiaseko erregetzagaz alkartu eban, eta bera inguratzen ebazan ormazarrak berriz konponduta, Leon, garrantzi aundiko lurraldea biurtuko zan Asturiarrentzat.

882ko urtean Asturiaseko errege IIIn Alfonso katolikuak, Leoneko ingurua<sup>(2)</sup> Mauritarren eskuetatik askatu eta gero, ta Xn gizaldian beren seme IIIn Ordoñok lurralde biak erreifñu baten alkartzeko, Asturiaseko erregetzaren uri nagusia Leonera eroan eban<sup>(3)</sup>.

1.230ko urtean, IIIn Santso Aundiaren Nafartar erreifñupetik alde egin ebanean, biak Gaztelako erreifñuagaz bat eginda geratuko ziranak, Gaztelako erregetza nagusi edo artdatz lez geratuz.

### ***Alemaniko erregetza.***

K.a. 2.000 urte ariñago, Keltiarrak kokatu ziran Alemaniako lurralde orreitan, erregetza lez baiña, ez ziran antolatu, arik eta K.o. 962ko urtean XIIIn Juan Aita Santuak, I Oton Aundia, Erromatarren katolikotasunezko kaisertza sakratuaren kaiserra izendatu arte.

### ***Iruñako erregetzaren sortarazia.***

778 ta 824ko urtetan euskaldunak Orreagan, Frantziko errege Karlomajno<sup>(3)</sup> edo I Karlos Aundiaren aurka euki genduzan borroka bi ostean, Jimenez ta Aritzatar Iñigogaz jaio zan gure Iruñako erregetza, Tudelako jaurkintza eroaten eben Banu Kasi mauritar sendia ta Iruñako gotzaiaren laguntzagaz.

### ***Aragoiko erregetza.***

(1) I Alfonso katolikua = 693-757ko urte bitartean bizi zana, eta 739-757ko urte bitartean Asturiaseko errege lez. Kantabriako Pedroren semea eta Pelayoren suñe. (2) Erri-iltzailleak = genocidas. (3) Karlomajno edo I Karlos Aundia = 742 eta 814ko urte bitartean bizi zan Frantziko kaisar nagusiena.

1.035eko urtean Nafarroako IIIIn Santso Aindiaren eriotzean, bere ardurapeko lurraldeak, eukezan lau semeen arten banandu ebazanean, Aragoiko konderrria, bere sasi seme Ramiroren ardurapean itzi eban, eta ortik sortuko zan Aragoiko erregetza, bere seme Vn Santxo Ramirezen eskutik.

### ***Gaztelako erregetza.***

Au be Aragoien antzera, 1.035eko urtean IIIIn Santso Aindiaren eriotzean, bere seme Fernando arduratu ebanean lurralde orreikaz

### ***Bizkaitar Jauntzaren sorkuntza.***

Durangoko Jauna eta Nafarroako erregearen ordezkoa izan zana Eztegiztar Santxo il da, Bizkaitarrak euren batzar nagusiaren lege jaurkintzan babesteko eta antolabideak epaintzeko bearkuntzan agertuta, gudal buru ta epaillea aukeratzeko prestatzen asi ziran.

Eta 888ko urtean Paduran Asturiarrakas egin gendun borrokan, ta gero Arrigorriaga deituko zan errian, Busturiako gazte bat borroka orreitan egin ebenagaitik aukeratu eben Bizkaiko leen jaun lez.

Abizenez ***Lope*** euki ebena, eta bere amaren bidetik Eskoziako erregearen bir-seme edo billoba zana.

Eztegiztar Santxoren alabeagaz eskondu zan.

Eta bera izan zan Bizkaitarren leenengo Jauna: ***Jaun Zuriaren izenagaz*** ezagutu zana, arik eta 909ko urtean il zan arte.

### ***Orren osteko edestitik, errege jaunakaz egin eben Antolakuntza.***

Europaren errege guztiak jaio ziran, asmatu zan norkerizko katolikotasunean batzangotuz aberritzeko, Euskalerrria izan ezik.

Zergaitik Euskalerrria ez ?.

Euskalerrriaren errigizarteari ainbeste milla urte ostetik, bere sinismeneko barnean lortu eban baitak, sekula ez dausolako parkatu, barneko sinis ortatik kanpo, ibilterik.

Euskalerrriko erakundeak beti izan diralako aukeratuak, bere Askatasun aundiko Demokraziaren Biltzar Nagusien agindupetik, eta ez, Erromako katolikotasunean aberrituz batzangotzeko, goitik berako Kaisertza orren agindupetik.

Ata guzti, 325ean Nizeako eleiz batzarrean, norkerizko lapurkeriz asmatu zan katolikoaren aberrizko alderdikeri orren arau zentzuan, iraun dau, Europako edesti guztia, iru baldintza oneikaz, gaurko egunerarte:

-Aurrerakuntzazko Greziaren ekandu ta jakituria.

-Menperatzailletasunezko judo-erromatar legeak.

-Eta munduko giza guztia, Katoliko aberkoi batzangotzeko asmotan, alderdikeri orreitan ezartzen diran araukaz.

Nork ulertuko leuke, Greziaren askatasunezko ta demokrazizko jakituriak nastekatu leikezala, norkeriaren mendeko katoliko ta erromatar lege orreikaz, naita azpikaritzazko itxuran etorri arren ?.

Berezko baitaren ekanduan ulermendu ezin diran nastetasun orreik izan dira beti, daukaguzan arazoaren oiñarrizko sorburuak, Europa ta munduan ez gindezan konpondu.

Katoliko, erromatar, edo ta edozein norkeriaren menpeko lege guztiak, euren batzangotasunaren asmakizunak lortzeko, bizitzarako bear doguzan arau ta mozkin guztiaren kontrola bear dabe, gaurko egunetan ikusten dogun lez.

Itaun gogor bat egiten eban, nere maisu ta lagun aundia izan zan Aita Santi karmeldarrak:

### ***Zergaitik ainbeste etsai, gure Euskalerrri maite onek, Europa onetan ?.***

Eta emen erantsun gogorra:

-Europako Mendebal onetan, Aipatu dodazan erregetza barri guzti orreik, Erromatar kaiserraren aolkuagaz, katolikotasun aberkuntzaren menpean batzangotzeko asmotan dabizelako.

-Katolikotasunaren menpe-zale eritzizkoak, Askatasunezko Demokraziagaz euki dabelako etsai bakarra, Atlant-Itsasotik Alemaniaraiño, eta Eskoziako piktoen ugartetik Kadizeko Tarteso ta Turdetanoen arteko lurralde zabaletan.

-Eta milla urte askoren arbasoen ondorengo bidetik, Europako Mendebal onetan Askatasunezko Demokraziaren saridunak, euskaldunak bakarrik izan diralako, katoliko aberkuntzatuz batzangotzeko asmo orren egilleak aurrera egiteko, euki daben etsai bakarra, Euskaldunak izan diralako.

-Errege orreik erlijiozko gudatik kanpo, euren al-osotasunaren ameskerizko norkeri bitartez euki dabezan borrokak, asko ta ezin zenbatutakoak izan dira, katolikotasun menperatzaillaren tontor mendira igoten alegintzen ebazalako norkerizko amets orreik.

***Begitu nundik nora agertzen diran, Aita Santi Onaindiari erantzuteko, Euskalerrriak daukazan ezinbesteko etsai, gure etxe barruan be daukaguzela.***

Eta norkeriaren batzangotasunezko asmo orreik beti garaipendu diralako, Goiko Jainkoak ipinitako legeen aurka. Orren ondorioz beti agertu jakuz okerreko sei gauza txarrenetarikoak:

-Jainkoak Ludi oneri bereztuta ipini eutsozan lege guztitik kanpo ibiliz, beti norkerizko lapurketan eta borrokan etorri garela.

-Gaiak orekatuta daukazan legeak, eta gure gaitutako arimak nortasunduta daukazan eskubideak, edestian zear beti, zirriborrotuta ekarte.

- Dirua, indarra ta bizitzeko bear doguzan treneri guztiak, esku bakarretan egotea.
- Aberri lez, gudu indarraren keiñu gogorraz, eta beste aberritar batzuekin nastuta atxilotu lez, guztiz urduri egotea.
- Maltzurrezko aize beltz barru orren indarretik urten ezinik, nor beren baitan bizi eziña.
- Eta Munduaren orokorrezko gizarteetan, "Bakez bizi eziña".

### ***Frantzia egin zan Iraultza.***

Frantziko iraultza egin arte ibili ziran odoljarioz, euren aberrikerizko batzangotasuna lortu ezinean, eta beste aukerarik ez ebelako euki, guda bidez antolatzeke asi ziran.

1.808ko urtean saiatu ziran espaini edo erdiugarte onetan, gudalozte bidez sartzen, katoliko lege nausi, edo norkeriaren konstituzioz menperatzeko, lege barri orreik.

1.823ko urterarte ez ebena lortu, arik eta VIIen Fernandori orokortasunezko agintaritzatik baztatu eta menperatuz, gudal nagusi orreik, espainiko iraspenna edo konstituziorako arautu ziran legezko aginduak, keiñalari edo zemaika, izenpetuazo arte.

Emen eta menpetasunezko lege orreikaz laterritu zan Europa osoa XIXko gizaldi orreitan, eta Erromako Batikanoa aolkulari nagusi lez, Europa ta Munduari Laterri orreik egizkoak zirala erakusteko, Batikanoa bera be laterritu zan.

1.929ko urtean laterritu zan Batikanoko lur txiki ori, eta gaiñera, Askatasunaren Demokrazizko etsai aundienaren eskutik, MUSSOLINI'ren eskutik egin ebalako, eta orrek niri, zalantza askotan sartzen naute, biak menperatzaillak izanda, ez ziran adoz egongo ?.

Ortik aurrera gaur arte ibili dira gudaloztearen keiñuakaz.

Gaur zorionez esan leike, arrazoizko bidetik egin leiken bidera aldatu dabezala, asmatuzko menpekotasun orreik, nik zalantza aundiak euki arren.

### ***Ze aukera da legezkoa ?.***

Jainkoaren aginduzko legean dabizen berezko errigizartearen ***Aberriak***, ikusten dogun lez, ***"Laterriak, menperatzaillarenak diralako"***.

Eta Euskalerrriarena batez be, bera izan dalako, Jaungoikuaren legezko bidean ibili dana beti, bere Askatasunaren Demokrazizko Euskal-Aberri-Zain.

Espainolaren Laterria alderantziz, leku guztietatik begituta be, sekula ez da izango Aberria, ez daukalako Aitortzaren ondorengotasunik.

Bere jaiotzatik, beti izan dalako, batzuen norkeriz katolikotasunean batzangotuta aberritzeko, kolonitzailletasunezko menperatzaillak bat.

Amaitu ezinezko esker aundiak emon bear dautzaguz, euki doguzan Apaiz-Lekaide Abertzaleai, eurak euki dabezelako zati aundienean beintzat, bear izan doguzen jakiturizko tresneriak, gure erri maite au, oraindiño irikiten daukagun **DEMOKRAZIZKO ASKATASUNEAN EZARTZEKO.**

Baita ekintza orregaz: **JAUNGOIKUAK BEREZTU EUSKUAZAN LEGEZKO ZENTZUETRA BIDERATZEN GAITUELAKO.**

Atutxa'tar Paul

Zornotzan 2.016an Urrillaren 25'ean



# ***EUSKERAZALEEN ALKARTEAN***

## ***BERROGEITA AMARREKO***

### ***URTE BETETZEAK***

#### ***AURKEZPENA.***

Aurkezpen labur bat egingo dot, leen, noztik nora asi nintzan Gaztelerazko ta Euskerazko idaz lan onetan Euskalerrriaren buruz, Euskerazaintza eta gero Euskerazaleen baltzutan bazkide lez.

Eta abigarren Euskeratzaintza ta Euskerazaleen idazkari lez.

1.977ko Urrillaren inguruan, Zornotzako batzokian, margo-talde bat irasi gurean, Aita Santi Onaindiarengana jo bear izan neban, eta beragaz berba eginda gero, berak itandu eustan, “zergaitik esaten dodazan guzti orreik ez dozak idazten eta nik zuzendu ta gero Euskadi Aldizkarian argitaratu ?. Eta bereala asi giñan, Izadi onen edestia ikasiaz batera idazten.

1.996ko urtean Otsaillaren 11'n il zan Aita Santi agurgarria, eta Euskerazaintzako batzarretan egon giñela, San Sebastian'tar Joxe Mari Donostiarra (Latzaga) izan zan nigaz leen alengidu zana, nik Euskeraz idazten asteko.

Euskerazaintzaren Debako batzarretik urten gendunean, Olazar'tar Martin izan zan bigarren alegindu zana, ni Euskerazko idaz lanakin arduratu nendin.

Eta Euskeraz enekiala esan ondoren, berak: “Ori konponduko dogu”. Zuk idatzi bai, eta nik zuzenduta ZER Euskerazaleen aldizkarian argitaratuko dogu.

1.996ko urtean ZER aldizkariaren Jorraillan agertu zan nire lenengo Euskerazko idaz lan “AGUR BEROA” Aita Santi Onaindia agurtzeko. Ortik aurrera eten barik, aurrera egin dot Euskeraz idazten.

1.999ko urtean asi jatezan Zubiri'tar Iñaki, Zubikarai'tar Agustín, Arrinda'tar Anes, Oñatibia'tar Manu, Latiegi'tar Bizente eta Olazar'tar Martin'ek zirikatzen, Euskerazaleen Alkartera ia joango ete nintzan, eta ontzat artu neban euren eskeintza.

1.999ko urtean joan nintzan Euskerazaleen batzarretara, eta 2.000 urteko Lorailatik asi, Euskerazale AlkarTEAN idazkariaren lanakaz, gaur arte. Gaur Klaudio Barroeta Lendakaria, maisu eta adizkide diran Egurrola'tar Iñaki eta Fernandez'tar Karmelegaz batera.

Neure aldetik, eskertzeko ordean agertu nagie beti, erakunde biak euki dabezan bazkidei, batez be baiña, berton aipatzen dodazanak, merezimenduko gizon andiak izan eta direlako.

#### ***EUSKERAZALEEN ALKARTEA IRASTEKO, SORRERAZKO GIROA.***

Nik batu dodazan zeaztanunetatik, eta orduko euskeraren alde, Euskalerrri osoan sortzen eta ibiltzen ipinten ziran erakundeagaitik arduratuta, esango dautsuedaz:

1.967ko urtean, Euskerazaleen Alkarte txiki bat sortu zan gure euskal izkuntzari laguntzeko.

1.967ko urtea eta ingurukoak, Franko zapaltzaillearen denborak ziran, eta Euskaldunak bizitzeko bear ebazan guztia baldintzatuta euki arren, Euskalerraren aurka jokatzeko, 1.967ko urtean Lorailaren 14an lortu eben euskaldun orreik, emendik eta andik jokatuta, era-legez gauzatzea, euskeraz irakastsi eta mintzatzeko erakunde au.

1.967ko amarkada onetan eta menperatzailleak eskua apur bat zabaldu ebenean, ugaritu ziran euskerazko dantza taldeak Bizkai ta Euskalerra guztian, eta giro orretan jaio zan gure Euskerazaleen Alkarte au.

## ***EUSKERAZALEEN SORRERA TA SORTZAILLEAK.***

Bizkaiko Jaurkin Zibilleko Zijiluagaz<sup>(1)</sup> dago sarrera emonda, Euskerearen Aldeko Alkartea sortzeko agiria.

Bertan esanda, zelan eratu zan Euskerazaleen Zuzendaritza edo la Dirección de la Asociación para el fomento del Euskera.

EUSKERAZALEAK EUSKERA ERABILTEAREN ALDEKO ALKARTEAREN erakundea sortzeko ipini ziran baldintzak, oneik izan ziran:

-Euskerearen aldeko Alkartea izan zediñ.

-Ezartzen ziran erakundeen baldintzak onartu, Zuzendaritzaren batzordea zelan osotu eta illeroko 100 pezetako ordain-saria ipini, eta erakundearen illeroko agiria Zibillezko Jaurkintzara eroanda, espainol zaindariak baimena emon egian.

Eta Euskerazaleak Alkartearen Zuzendaritza, emen aipatzen diran bazkideekaz osotu zan:

-Oleaga ta Etxeberria'tar Jesus, Lendakaria.

-Montiano ta Gallego'tar Jose Antonio, Lendakari-Ordea.

-Atxa ta Agirre'tar Jesús, Idazkaria.

-Bengoa ta Zubizarreta'tar Jose Luis, Diruzaiña.

Eta aipatu dodazan onekaz, beste oneik be zinatzen eben agiria:

-Olaizola ta Azkue'tar Jose Maria.

-Gonzalez eta Etxegarai'tar Karlos.

-Berrojalbiz eta Berrojalbiz'tar Julia.

-Uriarte ta Agirremalloa'tar Kastor.

-Ezpeleta ta Etxebarria'tar Jose.

-Zelaia ta Ibarra'tar Adrian.

-Astiz eta Iglesias'tar Migel Anjel.

-Erkiaga ta Alastra'tar Eusebio.

-Zubizarreta ta Ipiña'tar Fernando.

-Martin eta Retana'tar Jose Maria.

-Zugazaga ta Fernandez'tar Leopoldo.

-Eta Urkijo ta Olano'tar Juan Ramon.

Zuzendaritzazko batzorde onek, arik eta berreun bazkide izatera eltzen zanerako euki

(1) Zigilua edo Zijilua = sello del gobierno civil.

eban bere denborea, igarri barik bete zana.

1.968ko urtean Urtarrillaren 15ean Anaitasuna Aldizkarian dauka sinatuta Gereño'tar Xabierrek, lenengo batzar Nagusiaren kondaira.

Eta 1.968ko urtean Urtarrillaren 23an, Karlton Ostaletxearen gela nagusian egin zan Euskerazaleak Alkartearen benetako egite edo sorraldia, Alkarteak euki eban 290 andra-gizon bazkideakaz.

1.970eko urtean Otsaillaren 2an, Santiago Apostol Ikastetxean egin eben bigarren Batzar Nagusia, 359 bazkide bertan zirela.

Gero, 1.972ko urtean 2.700 bazkideetara eldu zana.

Alkartearen lenengo egoitza, Epalza Alargunaren kalean 12ko zenbakian euki eben euren bizitza Alkarte onek, urte bete barru, gaur oraindiño Eukerazaleen egoitza dan Kolon de Larreategiko 14 zenbakian bigarren solairura aldatuta.

### ***Euskerazale Alkarteak euki ebazan laguntzaille artean:***

-Ziarsolo'tar Manu (Abeletxe), Arrieta'tar Nikolas, Landajuela'tar Antón, Alkorta'tar Eusebio, Izaola'tar Oktabio, Kobo'tar Jenaro, Ansola'tar Patxi, Etxenagusia'tar Karmelo Bizkaiko gotzaiña, Etxebarria'tar Bonifacio, Goti'tar Jose Luis, Makua'tar Jose Maria, Unzueta'tar Mitxel, eta abar.

Asieratik argitaratu ziran aldizkari antzeko batzuk, taldearen barruko jardurearen barriak emoteko, orretara bazkide guztiak ikusten ebalako, zelako ekintzak euki ebazan taldeak, adibidez:

-Umeentzat eta izkuntza irakasten zan lekuetarako andariñoak aukeratuz.

-Andareñoarentzat, ikastaro bereziak atondu. Bide batez, eurentzat bizi lekuak aukeratu eta abar.

-Ikasketak ele bitan egin, erreztasun geiagoagaz eskolak sortzeko.

-Euskerea irakasten aleginduko diranak eta oarkariak prestuten jarraitu.

-Euskeraz eginiko liburuakaz, liburutegia osotu.

-Antzerki taldeak sortzeko, zaletasunari bultzatu, eta elburu orren atzean dagozan Irratiak euskerea zabaltzeko, antolatu geroko euskal zentzuari begituta.

-Eta elburu erreik lortzeko, sariak eskeiñi, aurreratu edo sort-erazi, eta abar.

### ***Euskerazale Alkarteak, edestitik zear euki dabazan Arduradunak.***

***-1.914ko urtean Zeanurin jaioa eta 1.998ko urten Bilbon il zan Oleaga ta Etxeberria'tar Jesus. Bere lendakaritza 1.967-1.977ko urte bitartean bete ebana.***

Euskerazaleak Alkartearen sortzaillea eta lenengo burua izan zan, bai bere Lege-Gizor lanean, euren bazkuneko zuzendaritzan ainbeste urtean egondakoa, Euskalerrri Adiskideer Elkartearen Bizkaiko Batzordearen idazkari, ta Zulaibarren Lanbide Eskolako sortzaille eragillea, eta abar.

Jesús, Euskerari buruz, ainbat lan egindako gizona zan.

### ***1.913ko urtean Bilbaon jaio eta 2.003ko urtean Bilbaon il zan Zubiri'tar Iñaki.***

1.977ko urteik 2.000ko urteraiño izan zan Euskerazaleak Akartearen lendakaia.

Euskerea ikasi ebenetik, idazle amorratua egin zana, 16 liburu idatzita eta idaz lanak ugari, Agur aldizkarian agertu ebenetik, eta gero ZER gure aldizkarian.

Latiegi'tar Bizentek esaten eban beronen gaitik, "Euskerea ikasi ta liburuak idatzi, nundik ataraten dabe gizon auek ainbeste indar ori egiteko".

Gazte izan zala ta injineritza ikasten egoala 1.936ko gudak arrapau eutson, eta Otxandioko guda-taldean borrokatu zan.

Ostean, jazargoko taldearen buru izanda. Arjentinara atzerriratu bear izan eban aldi batez, eta asieran ez eutsoelako injiñeruzko ikasketak amaitzen itxi, berak lortu eban askenez, paper agiri ori eskuratzea.

Arjentinatik etorri eta lan bidez gaiñera, ondo ikasi eban euskerea, bai arritzeko beste Euskerazko idaz lanak egitea. Langille sutsua izan zan.

### ***1.927ko urtean Gamiz'en jaio eta 2.008ko urtean Mungian il zan gure Olazar ta Uribe'tar Martin.***

2.000ko urtean artu eban Euskerazaleak Alkartearen lendakaritza Zubiri'tar Iñakiren eskutik, ainbat lan eginda Euskerazaleen erakundeagaitik eta ZER aldizkariaren gaitik.

1.977ko urtean ZER jaio zanetik, Martin bera izan zan aldizkariaren zuzendari ta arimea, il zan arte. Il osteko beren utsuna, Barroeta'tar Klaudio, Atutxa'tar Paul, Egurrola'tar Iñaki eta Fernandez'tar Karmelek beteta.

Ainbat idazleen laguntza aurkitu eban Martiñek beragandik asita, Arenaza'tar Josu, Zubikarai'tar Augustin, Arregi'tar Josu, Landajuela'tar Antón, Ziarsolo'tar Manu, Eguskizabal'tar Julene, Arrinda'tar Anes, Uriguen'tar Zenon, Arrien'tar Augustin, Madariaga'tar Jose Iñaki, Garmendia'tar Txomin, Etxebarria'tar Augustin, Ormaza'tar Josu, Sangroniz, Letona, Aita Martzel, Aita Onaindia'tar Santi, Gallastegi'tar Klaudio, Aita Akesolo'tar Lino, Estonba'tar Manuel, Atxutegi'tar Biktork, Solozabal'tar Paulin, Bilbao'tar Jon Erramun, Egilior'tar Jon, Atutxa'tar Paul, eta beste ainbat lagun ZER aldizkaria lan ederrakaz bete eta Bizkaitarraren artean berrikuntza orreik zabaltzeko.

Olazar'tar Martin, ainbat lan-eder eginekoa da Euskerazaleak Alkartean eta Euskerazaintza aldizkari eta erakundeetan.

***1.922ko urtean Igorren jaiotako Barroeta eta Omorrortu'tar Klaudio Klaretarra daukagu, Lendik bazkide izanda, 2.009ko urtean Olazar'tar Martin il zanean artu ebena Euskerazaleak Alkartearen zuzendaritza, eta or jarraitzen dau tinko eta eten barik, Euskerazaleak eta Euskerazaintzazko erakundeak, euren aldizkariakaz aurrera eroateko.***

## ***Merezimendu andiagaz, aipatzekoak diranak be.***

*Montiano'tar Jose Antonio*, 1.910ean jaioa eta 1.991n il zana, Euskeldun barria eta Jakitun andia, *Urkijo'tar Juan Ramonegaz*, Gupuzkoa eta Bizkaierazko berbak ofiarriztat artuz, 10.000 berba inguru euki eben iztegia egin ebena, eta lan andi ori egiteko, *Etxanogusia'tar Karmelo ta Peña'tar Jabierren* aolkua eta laguntza euki ebana.

## ***1.914ko urtean Tolosan jaio eta 1.980ko urtean Donostin il zan Peña'tar Xavier.***

Euskerea irakasten eta zabaltzen bere bizitz osoa emon ebana.

Bere ikastetxean erabilteko eta beste lekuetan euskerea zabaltzeko "Euskal Irakasbide Laburra" irakaspidea egin ebena, eta ainbat ikaslek erabili ebena.

Bere eskoletatik, ikasle asko igaro ziran, orrez gaiñean Euskerazaleak Elkartean be irakasten ibilita.

Beste bide bat be urratu eban, Irrati bidez euskerea irakasten asi zanean.

Mendizaletasuna eta bazterrak erakusteko gogo andikoa edo atsegiñ euki eban berak, orrelako irakasketakaz, gazte asko bideratuta.

Aitatzea bearrezkoa da, ikastolak sortzen be, bera daukagulako bultzailletatik aundienetariko bat.

## ***1.917ko urtean Barakaldon jaio eta 2.015eko urtean Bilbon ildako Zelaia ta Ibarra'tar Adrian daukagu.***

Bere ume bizitza Sestaon emon ostean, irakasle izateko ikasketak egin ebezanak, gero zuzenbideko ikasketetan asita, gai orretan maisu egin zan, Deustuko Ikas Mailla Aundiko ikastetxean irakasle lez luzeroan ibilita.

Euskalerriko Foru-legeen sortzaille egin zan, berak jakin ebalako ulertzen zeñiek izan ziran Euskal Legeak, eta zeintzuk espainol edo Gaztelarrenak, atzerritarrezko erri guztiak jakin egien, Euskalerria berezko erri andi bat izanez gaiñ, eurak baiño milla urte askoren ariñaukoa dala erakusteko.

Jendekuntz, Zuzenbide eta izkuntzagaz euken zerikusiko elkarteetan sartuta egoan, baita Euskerazaleak Alkartearen sortzaillea be izan zan, eta gogotsu ibili zan bertan be.

## ***Badaukaguz beste batzuk be aipatu bear direnak.***

*Etxanagusia'tar Karmelo*, *Makua ta Zarandona'tar Jose Maria*, *Berrojaltz ta Berrojaltz'tar Julita*, *Urkijo ta Olano'tar Juan Ramon*, *Rotaetxe'tar Tere*, *Astiz'tar Migel Anjel*, *Goñi'tar Karmele*, *Unzueta'tar Mixel*, *Uriarte eta Euba'tar Ana*, *Goti'tar Jose Luis*, *Ormaetxea'tar Emilio*, *Bilbao'tar Jon Erramun*, *Alonso'tar Margarita*, *Agirre'tar Bitori*, *Egileor'tar Jon*, *Retolaza'tar Jose Antonio*. *Malaxetxebarria'tar Jon*, eta bar.

## ***Irakasleak.***

Irakasle asko aldatu dira gure Euskerazaleak Alkartetik, eta parkatu egitasue, lar luze egingo jatelako eurak aipatzeagaz bakarrik, naita aurrerantzean zeozer egiterakoan erakundeari buruz, danak agertuko dira bere lekuetan.

Garrantzizko lan asko egin da Euskerazaleak Alkartean, ikasketarako Peñak egin eban “Euskal Irakasbide Laburragaz.

-Alkarrizketarako, Rotaetxe´tar Imanol euskaldun barriak “Euskeraz berba egiteko egin eban, Eskuko Liburutxoagaz.

-Eta Montianok egin eban Ikas-Iztegiagaz.

1.969ko urtean Goikoetxea´tar Iñakik egin eban “Nora Zoaz” liburuagaz.

Ipuñak idazteko, Bizkaiko Aurrezki Kutxa diru bidez, egin ziran leiazko sariketak, eta 1.984ko urtetik asita oraindiño egiten diran Kontu-Leiaketak eta aste beteko itzaldiak Foru Aldundi eta Bilboko Udalaren diru bidez.

1.970eko urtean, umeentzako Goikoetxea´tar Iñakik egin eban “Giza Soiña” liburu bidez, eta beste ainbat liburu.

Eta Kili-Kiligaz batera egin diran lan andiak.

## ***Interneten Argitaratzen doguz liburu ugari ta ZER aldizkaria.***

***www. euskerazaleak.biz*** (Interneteko elbidea). ZER aldizkarian be urteten dauena.

Ardura aundiko liburuak izan bear dira interneten agertzen doguzenak, “Bizkaitarrei Bizkaeraz” idatzita dagozan gure “ZER” illeroko aldizkari onegaz, ia 1.050.000 biztanle daukaguzelako, Euskeraz idatzitako lan oneik.

Eta poztuko gintzateke, gogo onegaz jarraituten badau.

## ***Eta emen pitxi edo bitzikeri polit bat.***

***Menendez´tar Pidal, Gaztelarazko Erregearen Ikastetxeko urte askotan zuzendaria izan zanaren berba batzuk aipatuko dautsuedaz:***

***“Es increíble, el gran esfuerzo que hacen los vascos desde siempre para recuperar el vascuence, y no sè para què”.***

Berba orreik esangura dabe, ***“Batzuen edo Gaztelarren ustez naita gizon andia izan arren, ez ebela euki iñongo zentzurik, edo eurak ezaten daben antzera: “ No tenia ni zorra idea de que hablaba”, ez ebalako jakin, zergaitik gu Euskaldunok maitatzen dogu ainbeste gure Euskera eder au.***



*Europako Mendebal onetan eta Atlant-Itsasotik Alemania erdiraiño, ta Eskoziatik Kadizeraiño gu bakarrik egonda, Euskeraz Nortasundu egin giñelako ainbeste milla urteko bizi ekintzan.*

*Euskerea artu gendun AMA lez, Euskerazko mintzan eta oitura bidez Baitu giñelako.*

*Ortik aurrera daukaguz gure Euskerazko Gurazoak, ainbat milla urte geroago gu agertuta gure arbasoen Aitor lez.*

*Espainol edo Gaztelatar orreik ez daukiena, euren izkuntza Euskerea eta Latiñez ondo astindu ta beartutako itzetik agertzen dalako, eta Izadi onetan menpekotasunezko borroka bidetik ez dira agertzen ezeren gurazorik.*

*Ori zan Menendez'tar Pidal'ek, ez ebena jakin, norkeriaren menperatsunezko bidean egin dabezan naste edo lokartzartetik, ezin leikelako gauza garbirik atara.*

*Orregaitik ez dakie ezer, zentzunezko gauzatan.*

*Eta Zentzun ori da Europak berrezkuratu bear dauana, bakez eta aztura onenean iraun degun Europeotar guztiak, sendi bakoza bere erritar-nortasunakaz, danak ondo ulertu gaitezaz.*

Atutxa'tar Paul

Zornotzan 2.017ko urtean Jorraillaren 25'e an

# ***EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN***

## ***50 URTE BETETZEAK***

Arratsaldeon jaun andreok.

Euskalerrria agurtuz gain.

Ongi etorri, eta eskerrak emonaz, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bilboko udalaren agintariak be agurtzen doguz.

Bai ta ongi etorriaz be, Euskerazaleen kide eta etorri zarien lagunei, Euskerazaleen Alkarteak 50 urte bete egiten dauan ospakizunezko-oroimen onetara.

Gaur gogoratzen doguz, ospatzekizunezko 50 urte onen bidetik be, ainbat euskal Gizon eta Emakumeak, Euskerearen eta Euskadiren Aberriagaitik, 1.967ko urtetik ona goragarri izan diranak, Euskerea Bizkaian eta Bilbon batez be, bizirik eukiz-gaiñ sendotu, zabaldu, eta indartu dabelako.

Zapaltzaille asko aldatu dira gure Euskalerrri maite onetatik, baiña beti zutitu gara. Ez indar asko egin barik.

Dana dala, gure Nortasuna da beti zapaldu gura izan dabena, eta EUSKERA dan lez ezereztu gura izan dabena, or aurkitu dira Euskal-Borondatearen aurka.

Eta Euskal arbasoak lortu eben Euskerearen Askatasunezko Demokraziatik etorten diralako gure BAITAK.

Iru gauza orreik dira osatzen dabena gure Nortasuna, JAUNGOIKUAREN eta IZADI ONEN GIZA AURREAN, GU EZ GARELAKO EZER, iru gauza orreik barik.

Zorionak ba Euskal zaletasunezkoai, ospakizunezko arratsalde eder onetan.

# *EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN*

## *50 URTE BETETZEAK*

Euskerazaleen idazkari lez, Euskalerrri osoa ta batez be Bizkaitarrak agurtzen dodaz.

Pozteko arratsalde on eta maitatsua ospatu genduna Bizkaiko 150etik goragoko Euskerazale lagunak, Euskerazaleak, Euskerea Erabiltearen Aldeko Alkartearen eakundeak berrogeitaamar urte bete dauazan 1.967ko urtean loraillaren 14tik, 2.017ko urtean Loraillaren 15'eko urte bitarte onetan.

Karlton'eko arrotzetxearen gela nagusi edo kaisar gelan egin gendun zoragarritzko ospakizun au, bertan jaio zalako Euskerazaleen Alkarte au orain berrogeita-amar urte.

Mai ingurua, euren eskuma izan arren, aurrez egon giñanentzat, gure ezker aldetik asita: Udaletzeko ordezkari lez, Aburto'tar Juan Mari euki gendun beti irripartsu.

Mai erdian gaurko Euskeraleak Alkartearen Amorrortu'tar Klaudio Klaretarra, bere 94urtekin eta 2.017ko urtean Uztaillaren 7an 95 urte bete arren, gogotsu ta alai ikusi genduna, gure ospakizuna zelan urtengo eban, apur bat urduri egon arren.

Ondoan, eta Aldundiaren ordezeko lez, Bilbao'tar Lorea andrea, Jendekuntz (kultura) ta Euskerearen Foru diputadua euki gendun, etenbageko irriparreagaz.

Eta maitik kanpo, lenengo illadan gu Euskerazaleen batzordekoak eskuma aldekoan egonda, esker aldean, Eusko Jaurlaritzak jendekuntz edo Kultura eta Izkuntz Politikoaren sailburu dana Zupiria'tar Bingen jauna, Euskal Jaurlaritzaren ordezeko lez etorri zana. Pozik eta alai ikusi nebana.

Etxebarria'tar Igone euki gendun batzar onen antolatzailetasunezko aurkezleri bezela, bere etenbageko irriparrea aurpegian erakusten ebala.

Etxebarria'tar Igonek aurkezleri lez, ongi etorria emonez gaiñ batu giñenai, oraindiño bizirik dagozan Euskerazaleak Alkartearen sortzilleak, aipatu ebazan, berta bizi-bizi egon zan Zugaza'tar Leopoldo Durangarra lez, eta etorri ziran beste sortzillearen senidetasunai, agur bero bategaz onartu ondoren, aurrez euki gendun zine-oial baten, antziñetik etortezan película antzeko bat aurkeztu euskuen, lenauko euskal ekintzazko gauza ederrak gogoratzuz, argazki orreïn bidez.

Irripartsu larrekin ezan leike, aurkezten dodazela eginkille guzti oneik, eta badauka bere adierazpen soilla, olan agertu gaitezen:

Gaur ospatzekizunezko 50 urte onen bidetik, ainbat euskal Gizon eta Emakumeak gogoratzen doguz, Euskerearen eta Euskadiren Aberriagaitik, 1.967ko urtetik ona goragarri izan diranak, Euskerea Bizkaian eta Bilbon batez be, bizirik eukiñez-gaiñ sendotu, zabaldu, eta indartu dabelako.

Zapaltzaille asko aldatu dira gure Euskalerra maite onetatik, baiña beti zutitu gara.

Ez indar asko egin barik, eta or nun agertzen dan, danon irriparrea sari lez.

Dana dala, gure Nortasuna da beti zapaldu gura izan dabena, eta Euskerearen Nortasuna dan lez, ezereztu gura izan dabena, or aurkitu dira Euskal-Baitazko-Borondatearen aurka.

Euskal arbasoak lortu eben Euskerearen Askatasunezko Demokraziatik etorten diralako gure Nortasundutako Baitak.

Iru gauza orreik dira osatzen dabena gure Nortasuna, Jaungoikuaren eta Izadi onen giza aurrean, gu ez garelako ezer, iru gauza orreik barik.

Zorionak ba Euskalerra ta Bizkaitar Euskal zaletasunezkoai, ospakizunezko arratsalde eder onen bidetik.

***Argazki orren erakuste ostean Etxebarria'tar Igonek, Barroeta eta Amorroto'tar Klaudiori emon eutson berbea:***

Bilboko alkate Juan Mari Aburto jauna,

Bizkaiko Kultura eta Euskerako foru diputatu Lorea Bilbao andrea,

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Izkuntza Politikako sailburu Bingen Zupiria jauna,

Euskerazaleak Alkarteko kide eta lagunak,

Egun pozgarria da gaurkoa, gure Alkartea sortu zala berrogeta amar urte bete diran onetan ainbeste kide eta lagun geugaz batera ikustea, Bilboren erdi-erdian, Eusko Jaurlaritzak bere leenengo egoitza euki eban jauregi eder onetan.

1967an sortu zan Euskerazaleak Alkartea. Maiatzaren 14an legepetu eben gure aurretikoak, sortzaileak. Urte gogorrak ziran ordukoak, batez be euskera, euskal jakintza edo euskal ekintza zan guztiarentzat. Baina orduko gure gizon eta emakume euskalzale batzuen borondatea be sendoa zan eta jaretxi eben gure

izkuntzaren alde zirrikitu bat edegitea: lege babesaren izango eban erakunde bat sortzea, euskera Bilboko eta Bizkaiko gizartean irakasteko eta zabaltzeko.

Estatutoak onartu, zuzendaritza batzordea osatu, kideak bilatu, dirusariak batu... eta geldiro-geldiro Euskerazaleak Alkartea bidean ipintea. Artean ameseta utsa zana benetako bihurtzea. Gogoz eta borondatez.

Euskera ekienak eta ez ekienak batera alkatu ziran Euskerazaleak Alkarteari arnasa ematera asieratik bertatik. Emakume eta gizonezko areen izenak banan-banan aitatzen ez naz asiko. Bilboko eta Bizkaiko orduko gizartean itzala eta ospea eben ainbat jaun-andraren izenak. Erexi guztietakoak, baina euskerazaleak guztiak.

Mende asieran izan ziran gure artean izkuntzaren eta literaturaren bidean jente garrantzitsua: Resurrección Maria Azkue eta Ebaristo Bustintza Kirikiño, kasurako. Areen bidetik, euskerearen munduan izena euki daben idazle edo izkuntzazaleak be ainbat izan dira gure Alkartearen babesleen artean: Jesus Oleaga, Karmelo Etxenagusia, Eusebio Erkiaga, Augustin Zubikarai, Abeletxe, Iñaki Zubiri, Anton Landajuela, Martin Olazar ..., leengo batzuk aitatzearen.

Leenengo urteetan ospe eta indar andia irabazi zituan gure Alkartek. Alan, esaterako, 2.700 kide zituan 1972. urtean.

Zer aitatu beren-beregi, Euskerazaleak Alkartek 50 urteotan egin dauen lan ugari orretatik?

Eldu eta gazteei euskera irakastea, leenengo eta bein. Ezer ez ekienei irakatsi batetik, eta ekienei euren izkuntza lantzen eta obetzen lagundu. Urte batzuetan 500 ikasletik gora ibili dira gugaz euskera ikasten.

Euskerearen irakasbide liburuak, iztegiak, literatura sorkuntza liburuak, umeentzako langaiak... danetarik sortu eta argitaratu dau gure Alkartek luzaroko ibilbide onetan.

Zer aldizkaria ileroko legez argitaratzen asi ginan 1977garren urtean, eta arrezkero utsik egin barik atera dogu illero illero gaur arte. Aldizkarian idatzi dabenak asko eta asko dira. Joan diranetariko batzuk aitzeko, Augustin Zubikarai, Lino Akesolo, Manuel Estonba, Aita Onaindia eta beste asko.

Gaurko eguna guztiontzako zorion eguna da. Ez dira alkatu eta erakunde asko Euskal Errian, *Euskerazaleak* legez 50 urte bizirik iraun dabenak.

Zorionak, Euskerazaleen kide eta lagun guztioi.

Eta Klaudiok bere berbaldia amaitu ebenean, bertso au abestu euskun:

BERROGEI TA AMARGARREN URTEAN,  
EUSKERAZALE ALKARTEAK,  
OSPATZEN DAUZ GIRO EDERREAN,  
EUSKERAREN GORALPENAK.  
MILLAKA GIZON TA EMAKUMEAK,  
BENETAKO EUSKALDUNAK,  
OSPATU DAGIEZAN POZEZ,  
URRENGO URTEURRENAK.

Klaudio Barroeta  
2017-05-15

Klaudiok amaitu ebenean bere berbaldia, Etxebarria'tar Igonek, Bizkaiko Kultura eta Euskerako foru diputadutza dan Bilbao'tar Lorea andreari emon eutson bigarren txanda.

Loreak beti bere irripartsu aurpegi alaiagaz gogoratu euskun, Euskerazale ta beste ainbat erakunde sortu ziran bidetik, lortu dogula euskaldunak Euskerea berriztea zati aundi baten beintzat, eta zelako garrantzi aundia daukien olango erakundeak ikastolakaz batera, gure Euskerea berrezkuratzeko.

Loreak amaitu ebenean, Etxebarria'tar Igonek, Bilboko Udalaren alkate Aburto'tar Juan Mari'ri emon eutson berbea.

Juan Marik bere betiko adikortasunagaz aurreratu euskun, denbora zailak izan zirela aiek, gaiñera Frankoren bizitzan eta Fraga Iribarne ta olako ministruakin.

Menperatzailetasunezko atea apur-bat zabalduenetik baiña, Euskerazaleak, zelan eskatu ebezan erritarren siñadurakaz betetea, euskaldunen artean aurkeztu ziran agiriak, Madrilleko ministruai eskatzen, gure eskolatan Euskerea erabiliteko, eta zelan bereala batu ziran 60.000tik gorako sinadura. Oraindiño gordeta dagozenak.

Azkenez, Etxebarria'tar igonek, txistulari talde bat aurkeztu eta dei egin euskun, laurak joko ebezan erestaldi biak oarkera aundiz entzun dagiguzen, eta benetan



zoragarriak izan zirela, bai abesti bi orreik ondo baiño obeto jo ebelako, eta abesti bieri emon eutsoen zeaztasunagaz batera, emon eutsoen ezitasunagaz. Eta txistularien jotaldi bi eder ondoren Etxebarria'tar Igonek, amaitutzat emon eban ospakizuna, danak bialduta ondoan egon zan gela batera, adiskidetasunean mai gaiñean egon ziran edari janak gozatu dadiguzen.

Atutxa eta Agirre'tar Paul  
2.017ko urtean Lorailaren 17an

## ZUBIKARAI ta ERKIAGA´tar BEATRIZ

1.978-79ko urtean asi nintzan Aita Santi Onaindiagaz Eibar, Zornotza, eta Debako Euskerazaintzaren batzarretara.

Denbora orretan Zubikarai ta Bedilauneta´tar Augustin ezagutu neban, bera izan zalako asi barri zen Euskerazaintzako erakundearen sortzaille bat.

Eta gure Zubikarai ta Erkiaga´tar Beatriz, bere aita Augustin 1.998 urrillan gaisotu zanetik ezagutu neban, sarri joaten giñelako Aita Santi ta ni Augustin ikustera.

Nik ezagutu neban Beatriz, bere aizta-neba guztien antzera, oso maite eta goi maillako on-eritzian euki eban euren aita Augustin, ain bakezko gizon jakintsua eta euskal aberkide aundia zalako, bere etxe ta erriari euki eben lankidetasun aundiena eskeiñi eutselako bere bizieraren azkenerarte.

Beatriz, bere gaztetazunean beti, begirun ta zuurtasun aundiko iziltazunezkoa zan, eta bai etenbageko ekintza alegiñean, Txomin Agirre ikastolaren irakasle ezagutu neban nik, baita Arranondo euskerazko aldizkariaren arduraduna zala be, bere bizitza, Euskalerriko etxe nagusi lez, senidetasunezko etxe, eta Ondarruko bere erriagaz egon dalako lotuta bere bizi amaierarte.

Makiñabat zeregiñ eta buruko miñ artean bizi zan Beatriz, aberkide guztien antzera, gure Euskal Jeltzalearen alderdia banatu zanetik, Ondarruko erria infernu baten biurtu zalako.

Eta Ondarruko arazoagaitik berbetan egoten giñanean, erri asarre orreik euki eben garrantzizko aunditasuna guk jakin degun, ainbat bider esan euskun Beatrizek: **“Emen egon bear zeunkie, asarre orreik zelangoak diran jakiteko”**.

Bere aita Agustinek Ondarruko lagunakaz irasi eben Arranondo aldizkariagaz be, oso arduratuta egoan eta geiago aita Augustin gaisotu zanetik.

1.990eko urtean Bagillaren bigarren zenbakitik daukadaz nik liburututa, gaur arteko Arranondo aldizkaria, lenengo zenbakia izan ezik, Augustiñeri eskatu neutzelako, eta Augustin gaizkitu zanetik, Beatriz eta Javier arduratuko ziran euren Arranondo taldearen arduradunai esaten, illero Zornotzara eldu dedin Arranondo aldizkaria.

Bagillaren bigarren Arranondoko aldizkariak daukazan gaiaren idaz lanak, zentzun aundiko ta oso onak dira, batez be, gero aurkeztuko dautsuedan “GURE ADIZKIDEI” Ondarrutarren ardurazko kidetasuna bizkortu egin gura dauanak.

Bigarren orrialdian lenengo gaia: Joseba Agirretxeak idazten dauan “OLABARRUN ERRU”.

Irugarrenean, Arranondoko aldizkari arduradunak agertzen daben "Bagilla esaeretan" eta "Kaleetako Jaiak" gaz.

Laugarrenean "Txirotasun Aurkako Legea" eta "Lea Artibai eta Ondarroan euki daben Eragiña".

Bostgarrenean, "Ondarroa Paperetan".

Seigarrenean, "Unanue-Iramaitegi".

Zazpigarrenean "Britaniar Ikurrindun Txalopak Egoera Larrian". Eta "Gure Adizkidei" idaz lan onetan esaten dabena:

*Ondarroan gero ta geiago dagoz erriagaz arduratzen diranak.*

*Batek baiño bik, ondo ikusten dabez basterrak eta arazoak.*

*Gu alegindu gara illero erriko barriak emoten, zabaltasunez, alkarrentzako begirapenez.*

*Aleginduko gara erriaren aldeko asmoak agertzen, bai eta kontu kontari gure inguruak arakatzan*

*Aleginduko gara gero ta obeto kaleratzen.*

*Orretan borondate onez iñor badator, bere lan eta argitasunez, gure erri au sendotu, ugaritu eta alaitzen, pozik eskiñigo dautsagu tartea, kontuan eukita, beti be illeroko onen pentsabide eta jokeraren lotsa ta arduretan izan bear ko dala.*

*Ainbat izan dira zorionak emon dauskuezanak be. Eslerrak.*

Enoa idazten, Arranondo Aldizkari eder onek ekarten dauazan idaz lan guztiak, luze egingo jatelako.

Baiña esan bai, lenauko ta gaurko gazteari begira, Euskerazaleak Alkartearen ZER aldizkaria be, asmo orregaz jaio zala, eta adibidez bere leen barruko orri aldian:

*EUSKERAZALEAK asko gara, baiña alkarren barri gitxi daukagu, eta orregaitik uste izaten dogu sarritan, ezer ez dogula egiten.*

\* \* \*

*Gaurtik aurrera ba, badaukagu alkarregaz artu-emonak izateko bide bat. Gure ZER. Illero Artuko dogu guztiak.*

\* \* \*

*Orrialde au, azalaren atzekoa, geutzat bakarrik izando da, besteak, gutzat eta guztientzat.*

\* \* \*

*Eta zer irakurriko dogu, edo idatziko dogu, gure ZER onetan ?.*

*Erriko Kultura eta jakintza; Idazlerik ospetsuenak, gizandiak (heroes), alkar-izketak, gaurko arazoak, baserri ta arrantzaleenak, aberri-gaiak, bertsoak, barriak.....*

\* \* \*

*Ez da naikoa gero, ZER artzea, irakurri egin bear da.*

*Eta gura dozuenok idatzi be bai. Pozik Artuko doguz zuen lanak.*

*Aberastu ta osotuko al da orrelan gure erri-jakintzea.*

*Izan daitela beti dana, Erriaren onerako.*

Aldizkari bietan eukan eskua sartuta Zubikarai'tar Augustiñek, baita asmo orregaz bizi zan, etenbageko lan eginda bere alaba bikaiñ Beatriz be.

Biak Euskeraren alde jokatu eben, Ondarruko erritar gazteak batu gurean, Euskal Zentzuzko ulermenen baten, erriko etxearen senide zintzo lez.

Eta gure euskal-nortasuna Euskera maitegaz sendotuz, Euskalerrriaren edestiko arbasoetatik ainbeste milla urtetako demokraziara bideratu gaitezen.

Askeneko menperatzail eta kolonizadore Franko'tarrak, euren Mola, eleiz katoliko Kardinal ta Gotzaiekaz, sakratuzko erlijio ta eleiz katolikotasunaren gurutzada fazistatik alboratu gindezan.

Gaur, argi ikusten dogu, fazistaren katolikotasunezko asmoan aberritzeko dabilzan erakunde orreik, Berezko erri Euskalerrriaren bezelakoak kolonizatzeke, edo menpean kontrolatuta eukiteke, gudalozteke keiñuen gaiñetik, bizitzarako bear doguzan gauzakaz jokatzen dabela, eta Euskalerrria eurena dala uste dabelako, euren maltzurrezko guzurrakin ostuten dabizela, diruzko kutxatan eskuak sartuta daukazela artu dabez.

Euskalerrria, millaka urtetatik bereztasunaren Jendekuntzazko erri lez, GOIKO JAINKOAREN SINISMENEAN eta askatasunezko demokrazian zaldikatuta dator.

Eta katolikotasunezko aberkidetasun fazista edo eriogille orrek, nai euren guzurra ezereztuten egon arren, gaurko egunean, indar askoko almen aundia dauka, gure gazte ta zarren artean, euren zikinkerizko ta maltzurkerizko eritziakin gure euskal zentzutik urrundu ta gure artean etsai biurtu edo banandu gaitezen, bai ta buruak zoratzen dabezan lo-belar, ta olango txarrikeriak sartzen dabez oraindiño gure gazte artean, Guk Gure EUSKAL ETXEAREN BAITA"tik urrundu gindezan.

Konturatuten asi bearko gara, Gure Euskalerrrian ez dagozela ezkerrik eta eskumako alderdirik, Euskaldunen BAITA, DEMOKRATIKOA DALAKO, eta alako eritziak, gure artean sortzen ba dira, Europa ta Munduak 325eko urtearen Nizeako batzarretik, oraindiño daukan Erromatar Merkantil Aberkuntz Katoliko Arauaren eratan dagoela, gure euskal artean, Frantziko iraultzaren ostean Kadizeko 1.810-23ko urtetik, odoljariozko guda bidez, sartu euskuna.

Eta ardua da, konturatuten asi gindezan.

AINBESTE-MILLA-URTETIK-GERO, ORAIN, AIÑ-ERREZ-JAUSI-EGINGO-OTEGARA-BA ?.

LASTER DATOR, GURE EUSKAL NORTASUNAREN ASKATASUNA, ETA PREST EDO GERTU EGON BEAR GARA, UNETXO ORI EZ DAGIAN GURE ERRUZ AIENATU.

*Eta orretarako, ARRANANDO ta ZER aldizkarilakoak bear doguz, gure Euskal senidetasuna indartu ta alkartu dagigun, lengo Demokrazizko EGI-BIDETIK, gaurko DEMOKRAZIZKO EGI-BIDEAN KOKATU GAITEZEN.*

Atutxa'tar Paul

Zornotzan 2.017ko urtean Bagillaren 18an.

# GOÑI ta AUZMENDI'tar KARMELE

## ANDREA

### URKEZPENA.

San Sebastian ta Zubillaga'tar Jose Mari (Laxaga), bere maisutasunezko giza-izti ikerketaren bidez, eta Latiegi'tar Bizente bere eleizaren azterkuntzako edestian idatzi ebazan bederatzi liburu potoloak betetan egoala.

Ni, Euskerazaintza erakundearen kidetasun bidez, euren artean morroi edo ikasle lez aurkitzen nintzan, eta sarritan entzun neutsen:

Espainolak edo Gaztelarrak, Ugarte-erdi edo peninsula onen erri ezbardin artean, euren katolikotasunaren kaisertzazko aberriaren aurrerakuntza edo nagusitasuna erakustearren gure euskal emakumearen aurka: *euren emakume guztiak idatzi ta irakurten jakin ebela*, esaten.

Eta ezkontzazko gizarte maillan: *gure ezkontzak baiño, sinismen aundiagokoak edo fededun sakonago ta demokratikoak zirela*, arrokeriz aldarrikatzen ebela. Eta Latiegi'tar Bizenteri geien.

*“Norkeriaren Gaztelar jakintsu edo arroputz orreik, ez eben ikusten Euskalerrria, goizetik asita, gure sendi artean egiten ziran Goizeko-Ezkila, Eguerdiko-Ezkila<sup>(1)</sup> arratsaldeko errosarioa edo agurtza, eta Gaueko-Ezkilaren otoizketak egiten”*.

Guzur utsa zana, gure emakumeak, euren emakumearen aurka, jakin ebalako idatzi ta irakurten, baserri, auzo ta Euskalerrri guztietatik zabaltzen ziran kristau-ikasbideko liburutsuekin, gaztelarrak edo espainolak, ez ebena egiten.

Gure arbasoak Gaztelatarren aurka, beti arduratu ziralako Kristau ikasbide ta bizitzeko bear genduzan ikasbideak sendotzen.

Geiago, D. Bartolome Olaecheak idatzita, ta Tolosan Eusebio Lopez'ek 1.904ko urtean, bere Solana 8 eta Correo 7ko kalean euki eban Moldiztegitik argitaratu eban **CRISTIÑAUBEN-DOTRIÑAZKO** liburutsuagaz.

Aita Santi Onaindiaren aurrekoagaitik, Euskalerrri osoan zabaldutako liburua zana, eta berak niri erakusteagaitik, emon eustan **“EGUNIANGO CRISTAUBAEN JARDUERA** bideratzeko zan liburuagaz.

Orduko euskaldunak irakurri egiezan ikasgai oneik, liburutsu au: *“Liburuchu onec daucazan Capitulobatetatic bat iracurri, edo enzuten dan bacoedian, irabasten dira eun, eta oguei eguneco indulgentziac”* eskeintza orreikaz lilluratu edo bultzagarrituta egon zan.

Eta espainol edo Gaztelar orren esaeraren aurka, sekula ez dodaz nire ikusmenetik kenduko, euki nebazan maisu oneik eraz edo aukerazko erantzunean, ipinten ebazan barrekarizko aurpegiak, esan berezi oneikaz, adibidez:

Latiegi'tar Bizente apaizak: **“SEKULA EZ DABE EZAGUTUKO LOTSARIK”**.

Laxaga apaizak: **MALTZURREZKO GUZUR AUNDIAK DIRA ESATEN DABENA.**

(1) Eguerdiko-Ezkila = las campanadas de las Ave Marias, o del medio día para el rezo del angelus. Argi-Ezkila = campanadas de la mañana, edo ta Gau-Ezkila = campanadas de la noche.

Eta Aita Santi Onaindia karmeldarren: *LUJURIA EXUBERANTE* gaz.

## **KARMELE.**

Karmele, nire amona ta amaren denborako euskal emakumea zan, eta orregaitik dakit, Gaztela ta espainitarrak euren katolikotasunezko Erromatar Lege bidetik ekarten eben goitik berako, matxismo<sup>(1)</sup> agindua andreen gaiñetik, urrun bizi zirala gure euskal emakume aiek.

Orduko Euskalerrien emakumeak lez, euren egikerazko ulermenetan, baserri edo ta etxeko teillatu ta etxearen txapela antzekoak zirelako, gure Euskalerrriaren senditasuna aurrera eroateko alegiñean, eta euki eben etxeko-sendia babesteko ausartasunean.

Ez eben bear Gaztelar edo espainol ezkontzak bezela, ezertarako gizonen diru baimenik, edo ta ezeren agindurik, euren gizonak, adoz egoten ziralako euren etxeko jaurkintzagaz.

Orregaitik diñot, Gaztela eta espaindarren menpekotasunen eritzietik, urrun bizi zirala gure emakumezko arbasoak.

Gure Euskalerriko Amona-Aitite, Ama-Aitak, ondo baiño obeto Baituta egon ziralako euren artean, bakotzaren ardurazko ordezkartzan, ariñauko arbasoetatik lortu ziran askatasunezko demokraziagaz.

Eta Euskalerriko etxe nagusi eta sendi bakotzaren etxeko babes ekintzan euren artean ulertzeko, kiñu bat bakarrik bear izaten eben, eurak bear eben adoztasunean kokatzeko. Danoen lana, Etxearen edo sendi zentzuz egiten ebelako.

Altxor ori izan zan aberritar katoliko menperatzail kolonizatzaileak, euren *guzi-altsu edo aldunagaz* apurtu gure ebena, Euskalerriko errigizartea Europako beste berezko errigizartearekin, euren agindupeko aberritasunean batzangotuta ezartzeko.

Ez dago bear, gure denborako andrakaz, euskereagaz, eta gure nortasunagaz egin ebezan saioak ikusi baiño besterik.

Euskerea ta Nortasuna, urrengo idaz lan baten agertuko dodazanak, biak toki berezia bear dabelako.

## **GURE ANDRAZKOEN ARTEAN IBILI EBAZAN SAIOAK.**

Aberri-katolikotasunaren batzango edo kolonizaziozko erlijioaren eritzi bidetik, bertoko andrazkoen askatasunezko ulermenak, kanpoztarren arazoen ulermenakaz naastuaz, eta eritziko naasmen orregaz andraren askatasunezko egarriak goraldiaz<sup>(2)</sup>, gure etxeetan sartu ziran zentzunbageko atzerritar arazoak, aundiak izan ziran, gure euskal etxe demokratikoen zentzuzko ulermenagaz ez ebenak euki, zer ikusirik.

Gure etxeetan sartu ziran arrotzazko arazo orreik, asko izan ziran, eta gero ta bide orretatik, euren bakotzazko arrazoiak babesturik, gure gaztedia bata bestearen aurka ipini zan lez, gure euskal sendiaren ekandu demokratikoak ezereztuten joan ziran, eta orko bidetik agertu jakuzan zentzunbageko ezkontzaren banatzeak, aundiak izan dira.

Kaisertzaren fazizatxar eritzizko erromatar arrano aundi ori izan zan azkenean, Frankok eleiztarrakaz batera ekarri euskuna, euren katolikoaren gurutzada-sakratuzko

(1) Matxismo'aren berba barri onengaitik Gazteleraizko iztegiak esaten dau = tendencia a considerar el sexo masculino superior al femenino, con la consiguiente subordinación de la mujer en la sociedad. (2) Andraren askatasunaren egarriak goraldiaz = "Promoción de mujer".

aberrikuntzan espainitar lez batzangotu gindezan, eta naita arazo guztietara eldu ez arren, kaltegarritzko gauza orreik aundiak izan ziralako, Goñi ta Auzmendi'tar Karmele'lako euskal andra ta gizonak izan dira gure Euskalerrian, menperatasunezko eritzi orretatik urrundu euskuenak.

1.901eko urtean Urtarrillaren 5ean Gure Arana ta Goiri'tar Sabiñek, Arantzadi'tar Engraziori (Kizkitza) idatzi eutsen eskutitzan: "*Gure euskal nortasunagaz asten nazenean, gogoratuagaz ikusten dot, au joan egiten jakula, eta gizaldi au amaitu orduko, joan egingo jakula*" esaten eutsonean.

Eskutitz orretan berari esanda, aurrerantzean zer egin bear gendun *Euskal Nortasuna Berrezkuratzeko*.

Goñi'tar Karmele'en belaun aldi inguru osoa, bere emakume-gizon arduradunakaz izan zan, Euskal Nortasunari eutsi eutsena, eurak euki ebazan bizi osoko indarrak Euskalerrian eskeiñita.

Gaurko gazteak konturatu bear zeunkie, belaun aldi orreik egin ebazan ikaragarritzko lan orreik, zuek Euskalerrian demokrazizko askatasuna lortzeko dala, edo aurrerantzako pausoak emoteko, urrengo belaun aldiarentzat askatasunezko bideak errezuteko.

Eta Euskalerrian askatasuna ez ba eben lortu, eurak al eben guztia emon ebela alegiñ orretan.

Kontuan artuta beti, gure Euskalerrian edestia ez dala unetxo batekoa, milla urte askokoa baizik.

Begitu nun daukagun eredu, Euskalerrian Baitazko Nortasuna, gaur sartuta gagozan guzurkerizko maltzur zikintasunetik atara degun.

Euskalerrian belaun aundiko andra-gizonen zeregiñetan, ez zan egon ezeren aldakuntzarik, danak mailla aundiz, arduratuta egon ziralako euren EUSKALETXE NAGUSI ta TXIKERRAGAITIK.

Esker milla aundiak emon bear dautsaguz euren aldiko belauntarrai, ereduan, arrigarritzko ikaspidea ipini euskuelako, Euskalerrin, Europa, ta Mundu onen zaar eta gaztedi osoarentzat.

## **GOÑI ta AUZMENDI'tar KARMELE.**

1.926ko urtean Abenduaren 21ean jaio jakun gure Karmele, Tolosako Uri zarrean, ikasketarako, etnoloji edo abend-izti'ren ikasketakaz arduratu zana.

Oso ezberdiñak ziran, Karmele bizitz ontara agertzeko euki ebazan sendi bien bideak.


Aitite Zezareok, Suizan injineru ikasita, Tolosan erleju edo ordularien lantegi bat irasita, eta bere aita Eujeniok, Tolosako Urian poxpoillo lantegia irasitako bidetik.

Amaren aldetik aitite, Gipuzkoaren Goierriko Ataun errikoa zan, eta lenengo ta bigarren karlistada ostetik gudarien serbitzura ez joatearren, Arjentinara iges egin eban.

Eta Zeraiñen jaio zan bere amama Goia'tar Dorotea, Arjentinara joanda arroztetxe bateko zuzendaritzak eroan egiezan, bertan ezagutu ziran aita amonak, eta ezkondua. Euskalerrira itzuli ziran.



Karmeleen ama Felisa, bere ikasketak Paun eginda, laster ezkondu zan Eugenio aitarekin.



### *Goñi ta Auzmendi'tar Karmele argazki baten*

1.936ko urtean Frankok, Europa ta Mundu onen eleiz katoliko ta eskuin'tar laguntzan, Euskal-abertsale ta lekaide-apaiz batzuk izan ezik, erdiugarte edo peninsula au katoliko izenagaz batzangotu ta aberritzeko alegiñez, sakratuzko gurutzadaren gudalozteagaz erasotu eban, eta Zeraiñen arrapatu ebanean Karmelen sendia, guztiz sakabanatu eban.

Aita baitu edo espetxeratu eban, bere poxpoillo lantegia Franko'ren gudari agindutara ezarrita.

Karmele Zeraiñen amarekin, abesti ta marmarketa ugari entzun bear izan eban, eta or erabagi eban zeintzuk izan bear ziran bere mailla aundiko ikasketak, abend-izti<sup>(1)</sup> ta giza-izti'ko<sup>(2)</sup> ikas arloakaz beteteko.

1.947ko urtean eta Karmelek 21 urte euki ebazanean, bere ama Felisak bespa bat erosi eutsen Barandiaran'tar Jose Miel'ekin lan egiteko, eta On Miel'ek ikusketa ugari egiteko Karmelen amama Doroteari, jakitun aundia izan zalako Euskalerraren lege ta oituratan.

1.947-1.957ko urte bitartean, Aranzadi Jakintza Elkartearen Abend-izti ta Giza-izti'aren idazkari izan zan, eta bertan egoala, Barandiaran'tar Jose Mielen agintaritzapean asi zan ikerketazko lanak egiten.

1.955ko urtean beren leenengo lana argitaratu eban: ***“Algo sobre la Parzoneria General de la Gipuzkoa y Alava”***.

1.955eko urte onetan, 1.936ko urtean ebagita geratu zan ***“Erri Jakintzaren”***<sup>(3)</sup> urtero argitaratzen zan aldizkaria, ostera berrezkuratu eban, eta aurrera egin eban XVn zenbakiko aldizkaria argitaratzeagaz.

Eta Barandiara'tar Jose Miel Giza-iztilaria, bere atzerriratetik ostera agertu zanean, aurrera egin eban beragaz Abend-iztiko ikerketakaz Zeraiñeko errian.

2.002ko urtean, Barandiaran'tar Jose Miel'eri, ezaugarritasunezko jai ederra egin eutsen Zeraingo erritarrak.

1.955eko urtean eta Karmelek 29 urte euki zituzela ezkondu zan bere senar Mujika'tar Jose Maria'rekin, eta urte orretatik aurrera, Bilbon bizi ziran.

1.964ko urtetik Karmele, Gipuzkoako-Etniker alkartekoa izanda billaketa arloetan, 1.983ko urtean, Barandiaran'tar Jose Miel'en ***“Ikaste Sariketa”*** lortuko eban, Bizkaia eta Gipuzkoako lurraldeetan ***“Euskalerriko Abend-Iztiko-Mapa Sorta”*** egitearren. 1.988ko urtean ***“Eusko Ikaskuntzako Alkartekak”*** argitaratuko ebana.

(1) Abend-izti = etnografia. (2) Giza-izti = antropología. (3) Erri-Jakintza = revista cultural, relacionada con los temas concernientes al folclore.

1.966ko urtean, ainbat gurasoakaz batera, *“Resurrección M<sup>a</sup> de Azkue’n”* izenagaz, leenengo euskerazko ikastola sortu eban, ta Bilbaoko eleiz guztietan *“Kristau Ikasbidea”* ikasteko, euskerazko irakasgarri liburu txikiak atara ta zabaldu ebazan.

1.967ko urtean *“DEIA”* eguneroko aldizkaria sortu zanetik, Karmele izan zan aldizkari orren sortzaille bat, eta Zuzendaritzako Batzarraren batzarkide bat izan zan 1.986ko urterarte.

1.970-1.973ko urte artean, 1.967ko urtean irasi zan Euskerazaleak Alkartearen Batzarkidea be izan zan, bere senar Mujika´tar Jose Marigaz batera.

1.980-1.997ko urte bitartean, Bilbaoko Erakus-Tokian aurkezten diran *“Euskal Arkeoloji Lanak, Edesti eta Abend-Iztiko Lana”* ren Zuzendari izan zan.

Bitartean, ezberdiñetako jaurkintz edo diru arloetan, ikerketazko lanaren zuzenketarako, erosketetarako, ta Euskal aita-amarengandik datozen Jendekuntzazko altxorrek gordetzeko lanetan, bera ibili zan.

1.995eko urtean, berak Euskalerrriaren alde egin ebazan lanagaitik, Bizkaiko Foru Aldundiak irasi eban *“Andres Mañarikuaren Saria”* emon eutsoen.

Karmele ibili zan aldikada baten aolkulari lez, dantzari taldeak ibili bear ebazan jantziak zelakoak izan bear ziran eta abar.

1.997ko urtean Uztaillaren illean, Potugaleten egin zan arrigarrizko lan orren orde, *“XXX Erri arteko Erri-Jakintzaren Dantzaldi Jaietan”* Elai-Alai dantza taldeak egin eutson goratzarre edo omenaldi eder bat.

2.004ko urtean Durangoko Gerediaga Alkartek emon eutson *“Durangerriko Teila”*.

Eta 2.005eko urtean *“Sabino Arana Erakundearen eskuetatik artu eban Saria”*. Karmelek argitaratu ebazan liburugaitik.

1.982ko urtean argiratu eban *“Bizkaiko Jantziaren aldaketa edo ta bilbakuntza<sup>(1)</sup>”*.

Eta 1.985ean *“Euskal eder-zaletasuna”*.

Baita idaz-lanak idatzi be aldizkari ezberdiñetan, urteroko *“Eusko Erri-Jakintzaren aldizkarian, Larraketa edo Artzaiketa, Esku-langillearena, ta Erliñoaren zalezkoetan”*.

Eta bere Gipuzkoako Zerain erriagaitik idatzi ebazanak, Euskalerrriko Etnikerrek batuta, Euskalerrriko Abend-Iztiko gai-liburuetan argitaratuta dagoz.

2.017ko urtean Ekaiñaren 7an 90 urte eukezala il jakun gure Karmele agurgarri au.

## *Zer esan Beragaitik ?.*

Bere seme Mujika ta Goñi´tar Jon´ek esaten dau:

Mirari bat dala, bere ama Goñi´tar Karmelek euken bizitzan, zenbat saiaketetan nastuta ibili zala, Euskalerrriaren Nortasuna berrezkuratu ta indartzeko, ikutu izan bear ebezan arlo guztiak ikutu ebazala bere Euskal senidetasunari laguntzeko, Goiko Jainkoaren eta berak baituta eukazan kemenezko indarrak lagun eukezala.

## *Geiagorik esan geinke ?.*

(1) Bilbakuntza = evolución, desarrollo, trama.

Euskaltzaindiarentzat be, balio aundiko Euskal-emakumea izan zan, azterketetan Euskal aztarnak aurkitzen ibili zalako Euskalerrri guztitik.

2.017ko urtean Lorailaren 15eko astelenean, Euskerazaleak ZER aldizkariaren berrogei urte ospatu genduzenean Bilbaoko Karlton ostal-etxe edo arroztetxean be, berton egon zan Zugazaga'tar Leopoldo ta bere emazte ondoan, Euskerazaleak Alkarteko batzarkideen atzeko ezar lekuetan.

*Nor gogoratuko zan, Karmele ogeita iru egun barru il egingo jakula ?.*

*Goñi ta Auzmendi'tar Karmelen eriotzea.*

2.017ko urtean Bagillaren 7an juan jakun gure Goñi'tar Karmele Goiko Jaungoikuaren askatasunezko zabaldieetara.

Ni enintzen egon bere elizkarietan, baiña nire Euskerazaleak Alkarteko batzarkide ta lagun aundia dan Egurrola'tar Iñaki bai, eta Iñakik esanda badakit, zelako berbak esan ebazan Kardaberaz apaizak bere bizi denboran, emen ondo baiño obeto etorriko direnak:

**“JAUNGOIKUAK NAI DAU, EUSKAREAK, BURU JASOTZEA,”.**

**EGI GALANTA DANA:**

**JAUNGOIKOAK, GAI-IZADI ONERI IPINITAKO LEGE-BIDETIK  
EUSKALERRIA AZTURAZ, ERRIGIZARTU EGIN ZALAKO.**

**ORREGAITIK DA EUROPA TA MUNDU ONETAN, BEREZTASUNEZ  
EGINDA, GERATZEN DAN JENDEKUNTZAZKO EDO KULTURAZKO  
ERRI ZAARRENA.**

**GAZTEAK, ARTU BEAR DOZUE GOÑI'TAR KARMELE ETA BEREN  
BELAUN ALDI GUZTIEN EREDUA, BADAKITELAKO EURAK BE,  
JAUNGOIKUAREN ZERUTIK LAGUNDUKO EUSKUELA, GURE  
EUSKALERRI DEMOKRATIKO MAITE ONEN, ASKATASUNEZKO  
EUSKAL ARDURAKAZ JABETZEN.**

**AGUR KARMELE:**

**“EGUN AUNDIRARTE”**

Atutxa'tar Paul

Zornotzan 2.017ko urtean Uztaillaren 26an

# EUSKEREAREN-NORTASUNA

## SARRERA.

*Euskerearen Norasunean sartu orduko, Euskal edestiko zati baten, gauza bitxi bat aurteztuko dautsuet:*

Europako Mendebal onetan Euskaldunak, Atlant-Itsasotik Alemania erdiraiño, eta Eskoziatik Kadizeraiño izan ziran, bakarrik bizi ziranak ainbesteko milla urtetan, arik eta K.a. 2.000 urte, Keltiarrak Alemanian agertu arte.

Eta erdiugarte edo peninsula onen Mendebalean bizi ziran Tarteso edo ta Turdetano Euskaldunak aipatuko doguz, arik eta Erromatarrak agertu ziran arte.

Erromatarrek agertu ziranean, Turdetar oneik ez eben galdu eurak euken euskal nortasunezko izatasunetik ezer; denbora aundi baten beintzat.

Orregaitik, Estrabon, erromatar edestilari ta lurak bere neurrietako jarkeran margoztu<sup>(1)</sup> egiten eban gizona, aipatuko dogu.

Estrabonek, peninsula onen Ego-aldeko Euskaldungaitik esaten eban: “jakitun aundienetarikoak lez euki ebezala Tarteso oneik, eta idazkerea ezagutuaz gain”, “**6.000 urte baiño lenagotik etorten jakiezan lege ta kondairak, itz-neurtuko bertsoetan abestuten ebezala euren artean, norgeiagoka lez**”. Bertsolaritzaren zentzua, gura izan barik aipatuz.

Nekazaritzazko lanaren goldea<sup>(2)</sup>, ta aultzi edo narra<sup>(3)</sup>, ezagutzen ebezala eurak etorri orduko esaten eban Estrabonek, eta lurra landuz, zitu, bii<sup>(4)</sup> edo aleak erein, oliondo<sup>(5)</sup> eta matsondoak<sup>(6)</sup> egokitu egiten ebezala, olio aran eta maatsa artzeko, idi, zaldi, ardiaren artzaintza ta abel azketaren ekintzan bizitzeko, mealangintzaz gaiñ<sup>(7)</sup>.

Askatasunaren demokrazizko gizasemeak izan ziran, eta erromatar menperatzaillearen aurkakoak ziralako, keltiarrekin alkartuta, Jaeneko lurraldean Mengibarreko errian ta beren **Iliturgin'eko**<sup>(8)</sup> **mendizkan**, gaur Makizeko mendizka esaten dautsoen mendizkan, aurre egin eutsoen, Marko Porzio Katonek bideratzen ebazan erromatar gudalozteari, eta galtzaille agertuz, meaztegiren jabetasunezko ardurea kendu eutsoen erromatarrak eurentzat artzeko, Tarteso orreik lurraren lan bidetik bizi izanda andik aurrera.

Estrabonen esanetan, Tartesotar<sup>(9)</sup> oneik 6.000 urte baiño ariñauko kondairak eta legeak abestuten ebezala bertsoz.

Ez ote da argiago ikusten..., Omosapiensenen leen zabaltasunezkoak izanda eta gero euskaldunduta izan zirela berton bizi ziranak, inguru guzti orren toki-izenak ikusita ?

**Illiberri, Iliturgin, Garun**<sup>(10)</sup> **toki izen eta janari izenak ikusten doguz amen bertan, eta Erromatarrak, Ebro ibaitik izena artuta, ipinitako Iberoen izenez gaiñ, zer geiago bear ote dogu, euskaldunak zirela esateko ?**

(1) Geografo. (2) Goldea = arado. (3) Aultzi edo narra = trillo para trillar el trigo. (4) Zitu edo bii = cereales. (5) Olivo = Oliondo, olio-zuaitz, olibondo. Oliva = oli-aran, olio-ale. (6) Mats-ondoak = cepas del viñedo. (7) Mealangintzaz gaiñ = trabajaban las minas de estaño para producir bronce. (8) Iliturgin, Illiberri = Euskerazko izenak. (9) Tarteso-Turdetano onengaitik Estrabonek esaten eban, jendekuntz aundienetarikoak zirela, eta lur mozkin, abere, ta itsas-untzietan be bai. (10) Garun = orduan Lur-Arteko (mar Mediterraneo) itsas-bazter guztietatik jateko ibiltzen zan, arraiñaren eta aberearen tripak edo garunaren barrukoekin egindako saltsa bat zan (Tripa kalluek bezela). Gaur guk garunaren edo barruki orri “garu” izen bardiñagaz deituta.

Katoliko Aberkoi zale edestilari, edo istori-idazle onei esan bear jakie, *Iberiako* seme alabak Euskaldunak baiño besterik ez zirala izan, eta ordua dala, gure leen arbasoengandik gaigauza guztiari ipini jakiezan izenetatik deitutea, Jaungoikua ta demokraziaren seme zintzoak izatea gura ba dogu.

Badago esan zar bat: "*Maitasunezkoak dirala egizko ekintzak, arrazoikeri guztien gaiñetik*" esaten dabena.

K.a 237ko urtetik aurrera sortu zan Turdetaniaren amaiera, Amilkar Barka, Gadir edo Kadizen<sup>(1)</sup> lurreratuta, Turdetanoen Istolazio eta Indortes erregeak menperatu ebazanean.

Amilkar Barka gero gorantza joan zan, Akra-Leuke Uri barria irasita, gaur Alikanteko izenarekin esagutzen doguna, eta erromatarrak sartu ziranean Luzentun romana izango zana.

Bere Uri nagusietatik: *Ispalis*<sup>(2)</sup>, *Ilipa*, *Asta*, *Onuba*, *Astigi*, *Karmo*, *Korduba*, *Urso*, *Asido*, *Iptuzi*, *Ostippo*. Eta Lusitanian edo Portugalen: *Salazia*, *Kaetobriga*, *Myrtilis*, *Ossonoba*, *Balsa*, *Baesuri*, eta abar izan ziran garrantzitsuenak.

## *Euskerearen Nortasuna.*

Euskaldunak orregaitik, milla-urte askoren ikerpeneko atun-bidean<sup>(3)</sup>, edo ta aztura bidetik<sup>(4)</sup>, Euskal itzak ondo erindu ta biribildutako lanean, ekanduzko zentzuan bakoitza euren lekuetan ondo aokatuta eta bete-betean egokituta geratu daitezenakin, Euskal gaztelu ederrena eraiki eben.

Lur-Aize-Ur, Itsas-Abeldi`ai<sup>(5)</sup> eta bizitzarako lur onek, osotasunez daukazan Loredi, Landaredi, Lur, Are, Arri, Arrikatz, Burdin-Mea, Kobak, bai ta agertzen diran era guztiko irudiak zentzu aundienean izendatu ebezan.

Gure Izen Abizenakaz eta Ekandua`ren arloan bardin eginda, Euskerea`ren berba bakoitza: "Leku, era edo eta zeregiñezko gauzetan, esaeraren zentzuzko argitasun ederrenean irudimenduta kokatzen gaitu. Arteko arremantetan berbaz mintzatzen garenakaz, egizko ziurtasun ta irudimenezko xeetasunaren ulermenean kokatuta.

Euskaldunak, alako berezkotasunaren izkuntz-ederragaz jendekuntzatuta, ez gara izango *egia ta askatasuna`ren demokrazizko zaletasunezkoak ba ?*

Oraññarte eta ziur nago emendik aurrera-be alan izango dala: Euskaldunen berbea, egon diran lekuetan, *egia`ren zentzunkidezko*<sup>(6)</sup> *labelekoa izan dalako beti*.

Eta katoliko aberkoi batzangotzeko menperatzaille fazizta oneik, euren inguruan ez dabelako askatasunik gura, eurak daukien menperatzaillezko asmakizunetan ainbeste kalte egiten dautsielako, nabaritasun guztiagaz ez jakie ikusten ba, gudu-indarraren alegiñekaz espainitar katoliku batzangotu gaitezana, 1.492an Jorraillaren 17an Granadaren Santa Fe`ko Urian siñatu ziran agiri orreitatik, bosteun eta ogeita-bosteko urtetan dabizela *berezko nortasun ta izkuntzak aienatu edo desagertu daitezen`eko alegiñetan ?*

Mundu onetako sasijainko eritzi orreik, oso erpe sakonak daukiez, K.o.325`eko urtean

(1) Gadir o Kadiz = recinto amurallado, esan-gura dauena. (2) Ispalis, euskal-berbea da "Is" = euskeran "iz" berbea, s lez esanda: *ura* edo *ur* lasterra esangura dau = Sevilla. (3) Atun-bidean = procedimiento empirico. (4) Aztura-bidetik = crecimiento del conocimiento. (5) Itsas-abeldi = (ganado) fauna de la mar. (6) Zentzunkidezko = sinónimo.

Nizean Erromatar-Godoengandik asita, gero 1.492ko urtean Granadan katolikotasunezko erabagiagaz, peninsula au, Europa ta Amerika edo India osoak aberkidetu egin gura ebenetik onantza, merkataritzaren mozkin guztien indarrak euren kontrolpean eukinda, asmakizunezko ta ametsezko sasiiruzurgille<sup>(1)</sup> orreik lortzeko.

Beti baiña, Jainkoa`k agindutako berezko legeakaz aurkitzen dira, eta or !! nun agertzen jakien euskal jendekuntz ederrena, European Omo-Sapiens`etik<sup>(2)</sup> izkuntz ta demokrazian zaarrena dana.

Nik, zalantza barik esaten dot, "**Jainkoa eta bere legearen aurka**" dabizela jokutzen. Egia dalako.

Ikusi dogu, zelan Euskal Izkuntzaren berbak, gure alkar mintzaldietarako, zeatzezko zentzuan, irudimenezkoak dirala, eta bere Europa`ko edestian menperatzen ibili ziran erromatar ta mauritarren izkuntzeko berbak artu ba ebazan be, sekula ez dala aldatu beren **jendekuntzazko nortasunaren zentzu demokratikotik.**

## **EUSKAREA ZER DAN, EZ DAKIENAGAITIK ENTZUTEN DOGUZENAK.**

Gaur zoritxarrez esaten dabenagaitik entzuten dogu, Gaztelera eta Frantzez izkuntzak gureak be ba dirala, eta ez da olan iñundik iñora begituta be.

Adibidez:

Gaztelera, orduko Burgos ta Kantabria bitarteko euskaldunen artean, eta erromatarrak ekarri eben menperatzailezko latiniakin, euren artean indarrez edo gudamende aituteko sortu zan latinkumezko mintzadar bat baiño besterik ez da izkuntz ori.

Asturias`en bable, Nafar ego aldean ta Aragoi ipar bitartean nafar aragonesa edo gaurko Katalana, sortu ziran lez, Afrika, Asia ta Europa osoan sortu ziran antzera, erromatar menperatzailezko gudaren eraso orreikaz.

Latiñkume orreik ez ziran jendekuntzazko izkuntzak, euren arteko arazoetatik urteteko, mendeko indarrean beartuta sortu ziran zentzunbako mintzadar batzuk baiño, besterik ez.

Beste gauza bat da, Erromatarrak, katolikotasunean aberkidetzeko menperatzaileak, 1.640ko<sup>(3)</sup> urtetan ibili dauan leentasunetik bat, latifizezko nausitasunaren menpea edo berezko izkuntzaren gaiñetik ipinita gure ebela lortu, Euskerea ta beste berezko izkuntzak geroago debekatuz, aienatu zitezen.

Argi geratu zalako, laster konturatu ziran, Jaungoikuaren berezko legeakaz ezin dala alango arropuzkerizko ta ustel norkeriakaz edozein eratara jokatu. Atzera egin bear izan da.

Izkuntza, leiñu edo erri batek bere oiturazko azkuntza bidean ulermentzeko, sortzen dauan tresneria da, eta ez edozelakua, euren senezko tresneri biurtzen danean, jendekuntzazko izkuntzan biurtzen dalako.

Gure bizitzazko **Euskaldun Ama** izendatu gendun, eta beren izena artuta, Euskal

(1)Sasi-irusurgille = impositor apucero, mentiroso, engañador, fullero. (2) Omo-Sapiens = Kromañon. (3) Euskalerrian 1.640ko urtetan Meza Santua latifizez emon zan, arik eta 1.959eko urtean Arrazolan, Monsiflore Ballester ta Biu`tar (Viu) Franzizkok, Gallastegi`tar Klaudio eta Retolaza`tar Jose Antoniogaz Euskerazko leen Mesa Santua emon arte Bizantino-Melkita`ko eleizkisunearn edo eleiz-oituran (rito), auek Munduko izkuntz guztietan emon leukiezalako Meza Santua. Espainolak 1.965eko urtean Urtarrillaren leen emon eban euren leenengo meza gaztelera, euskaldunak emon gendulako, bestela ziur nago eurak latifizez iraungo ebela, ondo lotuta dagozelako katolikotasunaren kaisertzailezko menperatasunagaz.

Nortasundunezkoak izatera biurtu gintzazan.

Euskerea, Euskal Nortasuna da ba, gure sen eta sendiaren arduradunezko ardatza biurtu dalako, eta jakituriz ta bakezko ulermenean betetan badituguz gure azturazko ekintzak, urbillago eukiko doguz beste erriak, Jaungoikuari begira gurea lez, bizitza oneri ulermeneko erantzun ederra emonekuak diralako.

Bai ta, Jainkoaren Legeagaz Nortasundutakoak alkartuz, ulermendu gindezan, danok *izadi* onek bear dauan eragilletasunagaz arduratu bear garela.

Ez dira edozer gauza nortasundutako izaera orreik, gure Euskal Arbasoak, *lur* eta *Jaungoikoari* begitutako oituran, eta egiten ebazan gauza guztien egokitasunagaz, lortu ebelako, gaur oraindiño daukaguzan askatasunezko demokraziaren zentzu eder orreik, gure *Lege-Zarrak* esaten dauan lez.

Orregaitik dira nortasun andikoak daukaguzan jendekuntzazko izkuntza auek.

Gure Euskal erriaren arbasoetatik gaur arte, euren mintzazko berbak, bereztasunezko azturaren oituraz eginda dagozela gogoratuz, ikasitako berba oneik, ekanduzko irudi ederrenean agertzen doguz gure ulermenetara.

Gusti ori eukingo ete dabe, guda indarrez eta menperatasunezko ekintzan sortutako latinkumezko mintzadar orreik ?.

Mundu onen gizadia, Jainkoaren Legean gauza orreik lortzeko, berezko nortasunaren zentzuan ulermenduta lortu bear dituz, danon arteko ulermenak parean ezarri ondoren eta aurkeztuta, berdindu bear diralako, erabagi on orreik Jainkoaren Legean lortu gura ba dira.

Beste gauza bat da, nor beren sasiulermenak beste buruetan sartu gurea, or ez dalako agertzen, ez Jainko Legerik ez ezer, *norkerizko alegiñetatik kanpo*.

## **EUSKEREAK DAUKAN ADIERAZPENAREN<sup>(1)</sup> MAILLA AUNDIA.**

Latinkumezko mintzadarrak, galdu ba ebazan nortasunezko izaera orreik, nola bardindu edo geiegitu egin-leikez, *euskereak bere garbitasunean irudimentzen dauan jendekuntza`rekin ?*.

Euren asmatuko batzangotasunezko katolikotasun aberkoiagaz beartuta: *“Orokorrezko Alanbearrezkoagaitik ?<sup>(2)</sup>*.

Nungo Jainkoa`gandik daukiez artuta opide edo eliz-opide<sup>(3)</sup> orreik ?.

1.960ko amarkadan, espainiako EleJakintzaren irasle edo sortzaille izan zan Menendez ta Pidal`tar Ramon`eri entzun neuntson: “Gaztelera`z`eko latinkumea irudizko zentzunean sendotzeko, 1.971 Euskal itz`ekaz tartean sartuta egin bear izan ebela, eta a ta guzti, ainbat itz, irudiaren zentzunezko gabetasunean geratu zirala.

Adibidez: *“Playa”* itzak, zelako zentzuzko ulermenean irudimenduta kokatzen gaitu ?.

Badauka zer ikusirik areagaz, leguntasunagaz<sup>(4)</sup> edo eta areatutako arri ta maskor ondarrarekin ?<sup>(5)</sup>.

Euskera`ren itza: *“Laida, Ondarru edo Mutriku`ren Itsas Bazterreko ondarra edo*

(1)Adierazpenaren maila aundia = grandes cualidades interpretativas-explicativas. (2) Orokortasunean alanbearrezkoagaitik = por su destino en lo Universal ? (3) Opide, edo eliz-opide = prebendas. (4) Leuntasunagaz = tersura, lisura. (5) Maskor-ondarrak = concha de las ostras, mejillones, caracol, etc



*ondartza*”k, ez gaitu kokatzen, ulermeneko zentzuan adierazi<sup>(1)</sup> gura dogun, irudimenezko lekuan ?.

*Euskerea*’k, ez dau galdu bear, Omosapiens, Kromañon edo Euskaldunak, milla urte askotako azturan, bizitzari adierazpeneko ekintzan<sup>(2)</sup> emon eutson zentzuzko xeetasunetik ezer, or !! dagoelako gure jendekuntzaren garaipena eta batez-be: *“gure nortasunaren oituran ekanduta, zentzu ederrenetariko izatasuna”*.

### *Izadi onetan, buruzbera bizitzea.*

Gaur, gauza asko entzun eta ikusten dodaz, Aberri, Jaio edo ta Nacido’ren itza dala ta, Sozialista ta PP’koen aotik.

Astokeri galantak entzun be bai, Rajoi, Lopez’tar Patxi eta alakoak agoa zabaltzen ikusi nebazanetik, euren esanak aldarrikatzeko:

Aberri edo Nazioaren itza berreun urte bakarrik daukazela<sup>(3)</sup>. Izadi onen giza jaioten asi zanetik, oraindik ez dakiguzan ainbat milloi urte eukinda.

Izadi onetan: *“bereztasunean jaioten dan giza, landara, abere, arraiñ, eta Jendekuntza bidez, Erri Aberritu lez Jaioak, bereztasunezko zentzunez jaiotako izen buru orren jabeak izanda”, “Zergaitik emoten dausie jaiotako izen buru ori, asmatuta sorten dan gauzari ?”*.

*Zer dira..., katolikotasunezko aberkuntza, Espainitarren aberkuntza, Erromatar eta Godo kaisertzaren aberkuntza eta abar, asmatutako batzangotasunak baño besterik ?.*

*Nun daukiez berezko edo jendekuntzazko gurasoak, jaiioak dirala esateko ?.*

*Gure gizaren arduradunezko ulermen edo argitasunarentzat, ordezkarietzako Izadi onetan, gauzak, euren ezberdintasunean bata bestearengandik adierazpentzeko, izen ezberdiñ orreik ipini bear geuntsezelako, Mundu onetan jaiotzazko edozein gauza, bere agertasunetik asita, bizitzazko gauza orreik bakarrik daukielako, jaiozko izen buru orren jabetasuna.*

Izadi onen asieratik gaur arte eta gero be bardiñ: “jakinda gure ditekeen almenak zeintzuk direzan, argi agertzen jakulako irasleen gauzarik ezin doguzela egiñ”.

“Eta orregaitik azturaren asmakuntzazko ekintza bidetik, gizaren serbitzurako gaiagaz egin bear doguzan gauzak: edozelako tresneri egiteko, eras aldatu edo bestelakotzeko”. Jaungoiko. Irasleak Izadi oneri ipini eutsoezan arau edo legeak esangura dabenakaz egitea baiño besterik”.

Bai esaten dabe, eurak dirala, Nazioaren arteko edo Aberrien arteko Nazioa Errigizartearen Demokrazizkoak edo Social Demócratak” izanda.

Nundik nora atara dabez, eta zelako eskubideekin, sasi-jainkoen norkerizko izen buru orreik ?.

Argi ikusten jakie, bizitza edo bere irudimenez errekeak ipinita, guzur askogaz loi gure dabela, euren irabazpideak aundiagoak izan zedin.

(1) Adi-erazi = indicar. (2) Bizitzari Adierazpeneko ekintzan = interpretaciòn que el vasco le diò a la vida. (3) Patxi Lopez’ek: Aberria edo Nacido’en izena 200 urte bakarrik daukazela esaten dau = Au da, 1.812ko urtean Kadizetik espainitar gudal nagusiak, Pepa’ko konstituzioa gudaren ekintzagaz sartu ebenetik. Izen orrek, milloi urte asko daukazenak jaiotzazko mundu onen aurka.

*Oraindiño, ez ote dira konturatuko, Errigizarteko edozein Demokrazia, nor beraren arduragaitik asita, sendi, auzo, erri ta erri orren lurraldeak daukien izkuntz bat, erlijio edo Jaungoikua gurtzeko era bardiñak, eta berari lotuta daukazan oitura ta baitakin, azpitik gora jasotzen dirala errigizarteren ulermenezko oitura orreik ?.*

Zor-eskubidearen ordezkari bizi onetan, baktzari berea emonda lortzen da, Mundu ta Europa oso onetan, berezko errigizartearen demokrazi orreitan ezartzea.

Azpitik gora esangura dau ordezkarietzako Joko orrek, ez goitik bera katolikotasunezko fazizta orreik gure daben lez.

Lenengoak, askatsunaren demokrazizko zaleak dira mundu onetan, eta bigarrenak, menperatzaileak.

Atutxa'tar Paul

Zornotzan 2. 017ko urtean Urrillaren 24an